


2023ko DOSIERRAK



Euskararen
telefonoa.eus




AURKIBIDEA

1. KEXAK SEKTORE PUBLIKOA	3		
* Espainiako Estatua	4		
* Frantziako Estatua	19		
* Eusko Jaurlaritza	20		
* Nafarroako Gobernua	65		
* Euskal Hirigune Elkargoa	83		
* Foru Aldundiak	84		
* Udalak eta herriko etxeak	96		
* Nafarroako Parlamentua	145		
* Bizkaiko Garraio Partzuergoa	146		
* Bizkaiko Batzar Nagusiak	148		
* Europar Batasuna	149		
2. KEXAK SEKTORE PRIBATUA	150		
* Telekomunikazio enpresak	151		
* Aisialdia / Kultura / Kirola	155		
* Alderdi politikoak / Sindikatuak	163		
* Elikadura / Ostalaritza / Merkataritza txikia ..	165		
* Energia hornitzaileak	170		
* Eragileak / Mundu asoziatiboa	171		
* Finantzak / Aseguru etxeak	172		
* Garraio zerbitzuak	177		
* Hedabideak	179		
		* Hezkuntza	181
		* Merkataritza gune handiak / Kateak	182
		* Osasun zerbitzuak	198
		* Profesionalak / Zerbitzuak	199
		* Enplegua / Ekonomia	202
		* Besterik	203
		3. ZORIONTZEAK ETA ESKER ONAK	204
		4. IRADOKIZUNAK SEKTORE PUBLIKOA	210
		5. IRADOKIZUNAK SEKTORE PRIBATUA	214
		6. KONTSULTAK	217

KEXAK

SEKTORE
PUBLIKOA



1

ESPAINIAKO ESTATUA

Administrazio orokorra (9)

Dosierra: 90-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - Gizarte Segurantza - TGSS - BIZKAIKO LURRALDE ZUZENDARITZA

Arrazoia: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren Bizkaiko Zuzendaritzak iragarkia argitaratu du atzoko [2023-01-29, domeka] prentsan, hain zuzen Correon, higiezin enkante baten berri emateko, erdara hutsean argitaratu ere. Euskara ez da hizkuntza ofiziala? Euskaldun herritarrok ez dugu eskubiderik? Erantsita doakizue argazkia.

Dosierra: 194-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - BOE - AGENCIA ESTATAL DEL BOLETIN OFICIAL DEL ESTADO

Arrazoia: Estatuko Aldizkari Ofiziala Estatu Agentziari eskatu nahi diot 55/2003 Legea, abenduaren 16koa, Osasun-zerbitzuetako Estatutupeko Langileen Esparru Estatutuari buruzkoa euskarara itzul dezan. Oposizio azterketak egin behar ditugun oposiziogileak, zein edozein pertsonak, euskaraz kontsultatu nahi izatekotan hala egiteko eskubidea izan dezan. Web gunean argi adierazten den moduan eduki hori ez dago euskaraz irisgarri eta: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2003-23101>

Erantzunak:

Kudeaketa ebaluatzeko arloko burua: Apirilaren 14ko 489/1997 Errege Dekretuak, Estatuko legeak autonomia-erkidegoetako hizkuntza koofizialetan argitaratzeari buruzkoak, Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko lankidetzaren esparrua ezarri zuen, eta beharrezkoa izan zen dagokion hitzarmena sinatzea, Estatuko legeak BOEko gehigarrietan hizkuntza koofizialetan argitaratu ahal izateko. Aurreikuspen hori aplikatuz, 1998an Kataluniarekin eta Galiziarekin sinatu ziren hitzarmenak, eta 2000. urtean Valentziarekin. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, dagokion hitzarmena 2011ko urrian sinatu zen. Zure idazkian aipatutako 55/2003 Legea 2003ko abenduaren 17an argitaratu zenez, hau da, aipatutako hitzarmena sinatu aurretik, ezin izan zen argitaratu BOEko euskarazko gehigarrian, artean ez baitzegoen halakorik. Hori dela eta, ez dago eskuragarri 55/2003

Legearen itzulpena Agentziaren web-orrian, baina bai, ordea, hitzarmena indarrean zegoen bitartean BOEn argitaratu ziren lege-mailako gainerako arau guztien euskarazko itzulpenak.

Dosierra: 209-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - Gizarte Segurantza - TGSS - BIZKAIKO LURRALDE ZUZENDARITZA

Arrazoia: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren Bizkaiko Zuzendaritzak erdara hutsean argitaratu du iragarkia, Bilboko higiezin baten enkantearen gainekoa, Correo egunkariaren Arabako edizioan (2023-03-19, domeka). Erantsita duzue argazkia.

Dosierra: 351-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - OFICINA DEL CENSO ELECTORAL- Bizkaiko Herrialde Ordezkaritza

Arrazoia: Hauteskunderako errolda-txartel delakoaren irudia duzue erantsita. Euskaldun herritarrok bigarren edo hirugarren mailako herritarrak gara? Bai, bagara. Testuak erdara hutsean. Euskarazko testuak halamoduzkoak, erdipurdikoak. Eta den-dena irentsi eta onartzen dugu, den-denak atzerabueltarik izango ez duen arte.

Dosierra: 531-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - BOE - AGENCIA ESTATAL DEL BOLETIN OFICIAL DEL ESTADO

Arrazoia: Gizpuzkoako Foru Aldundiak atera dituen 32 administrari postuetarako oposaketak prestatzen ari naiz eta gaitegia euskaraz biltzean, gai-zerrendan ageri den 38/2003 lege Orokorra, azaroaren 17ko, diru-laguntzei buruzkoa, ez dut euskaraz topatu.

Dosierra: 635-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - IDAE - Instituto para la Diversificación y Ahorro de la Energía

Arrazoa: Espainiako Gobernuaren mendeko IDAEk diruz lagundutako eraikinak birgaitzeko jarduketan kartelak erdara hutsean jartzen ari dira. Argazkikoa horien adibidea da.

Dosierra: 766-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA -ESPAINIAKO GOBERNUAREN ERREGISTRO ELEKTRONIKO OROKORRA

Arrazoa: Herri-administrazioei idazkiak bidaltzeko Espainiako Gobernuaren Erregistro Elektronikoko Orokorra (<https://reg.redsara.es/>) erabil dezakegu. Horren bertsio berria euskaraz ere erabil dezakegu (zenbait eremu erdaraz agertzen badira ere), baina behin erregistroa eginda, horren frogagiria erdaraz baino ez du sortzen sistemak, kontuan hartu gabe zer hizkuntza erabili dugun, ezta idazkia zer administrazioari aurkeztu diogun ere.

Dosierra: 817-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - Gizarte Segurantzza - TGSS - Durangoko bulegoa

Arrazoa: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren atean (Tronperri kalea 8, Durango) zergatik daude kartelak erdara hutsean? "ACCESO CERRADO / SOLO PERSONAL AUTORIZADO PARA ACCEDER A LA OFICINA ENTRADA POR LA PUERTA PRINCIPAL CALLE SASIKOA" "SE PROHIBE EXPRESAMENTE LA ENTRADA DE CUALQUIERQUIER ANIMAL DE COMPAÑÍA A ESTAS DEPENDENCIAS salvo perros-guía" "De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 29 de la Ley 7/2023, de 28 de marzo, de Protección de los Derechos y el Bienestar de los Animales" Zorua bustita dagoenerako euskarria ere erdara hutsean dago: "PRECAUCIÓN / SUELO MOJADO" Ordutegian euskarazko testuak herritarrek bezerotzat ditu...

Dosierra: 847-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - MINISTERIO DE INDUSTRIA, TURISMO Y COMERCIO

Arrazoa: Espainiako Estatuaren Industria, Merkataritza eta Turismo ministerioaren webgunean hasieran poztu naiz informazioa euskaraz kontsultatzeko aukera zegoela pentsatzean, baina azkar joan zait poza. Azaleko gaiak soilik irakurri

daitezke euskaraz (izenburuak eta laburpen gutxi batzuk) eta gainera hainbat eta hainbat testu ez dira bat ere ulergarriak. Mesedez zuzenketak egin, testu ulergarriak ezarri ditzan eskatu eta informazio guztia euskaraz eskuratzeko eskubidea dugula gogorarazi nahi diot Espainiako Gobernuari. https://industria.gob.es/eu-es/participacion_publica/Paginas/DetalleParticipacionPublica.aspx?k=644

Aisialdia, kultura, kirola (5)

Dosierra: 619-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - TRIBUNAL ADMINISTRATIVO DEL DEPORTE -

Arrazoa: Espainiar Estatuko Kirolaren Administrazio Auzitegiko webgunean euskara hautatuaz gero, ez da ezer ulertzen eta hitz asko gaztelaniaz daude. Itzulpen penagarria benetan. <https://www.csd.gob.es/eu/csd/auzitegi-administratibo-del-deporte>

Dosierra: 662-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - MINISTERIO DE CULTURA Y DEPORTE

Arrazoa: Espainiako Kultura ministerioak orrialde biko publizitatea argitaratu du gaurko prentsan, Deia 13. eta 16. orrialdeetan, erdara huts-hutsean.

Dosierra: 902-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - MINISTERIO DE CULTURA Y DEPORTE

Arrazoa: Azken asteotan ia egunero ikusten ari naiz Espainiako estatuko Kultura eta Kirol ministerioaren* iragarkiak, LGTBIQ+fobiaren eta matxismoaren aukakoak. Den-denak daude erdara hutsean? Zergatik? Euskaldun herritarrok bigarren edo hirugarren mailako herritar ote gara? Hizkuntza-eskubiderik gabeak?

Erantzunak:

Prentsa-bulegoa: Erreklamazioari erantzunez, hau adierazi nahi nuke: 1.- Kanpaina 2023ko azaroan eta abenduan zabaldu zen. 2.- Kanpainak egokitzapenak izan zituen hizkuntza ofizialetan eta zeinu-hizkuntzan, bai eta azpitoluak ere, irisgarritasun-neurri gisa Kanpainan euskaraz erabilitako zenbait materialak igortzen dugu (irratia eta bideoa azpitolulukekin) Zure esanetara gauzazu beste edozein argibidetarako.

Herritarraren erantzuna: Kexari emandako erantzuna irakurri ondoren, neure galdera da ea zertarako sortzen dituzten gaztelaniaz besteko hizkuntza ofizialetan iragarkiak argitaratzeko eta emititzeko ez bada. Behintzat, euskarari dagokionez eta euskaldun herritarroi dagokigunez, inongo iragarkirik ez baitut ikusi, ez eta entzun, inongo telebista, irrati, aldizkari edo egunkaritan. Izan liteke, nonbait, arrazoi bakarra argudiatu ahal izatea iragarkiok egin direla... Ez ote da iruzurra?

Dosierra: 904-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - MINISTERIO DE CULTURA Y DEPORTE

Arrazoa: Azken asteetan ia egunero ikusten ari naiz prentsan "Actívate. La salud se entrena" goiburudun iragarkia, prentsan, orrialde osokoa eta erdara hutsean.

Dosierra: 925-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - MINISTERIO DE EDUCACION, FORMACIÓN PROFESIONAL Y DEPORTES - Consejo Superior de Deportes

Arrazoa: Egunotan "Y SI ME FALTA UNA PIERNA, ¿A QUIÉN LE IMPORTA?" goiburudun iragarki erdara hutsezkoak agertzen ari dira prentsan. Espainiako estatuko Kirol Kontseilu Gorenarenak dira. Erantsita dituzuen argazkiak domekako Corroe eta Deia egunkarietan agertutako iragarkiei dagozkie.

Erantzunak:

: Kirol Kontseilu Nagusiak abian jarritako publizitate instituzionaleko kanpainak "Berdinak Kirolean" estrategian sakontzen du, Espainiako Gobernuaren ahaleginak sendotuz uko egin ezinezko hiru printzipio babesteko: berdintasuna, inklusioa eta aniztasuna. "Kirolean, axola duenak, axola dezala" lelopean, kanpainak hiru jardura-ildo horietan eragiten du, sormenezko beste hainbat egokitzapenekin. Aldarrikapen bakoitzeko bat. Kanpainarako sortutako ikus-entzunezko materialek dagozkien bertsioak dituzte hizkuntza koofizialetan, hizkuntza horietan erabiltzen direnak edo dagokien itzulpena dutenak. Ildo horretan, kanpainan euskaraz erabilitako zenbait materialak igortzen dugu (irratia eta bideoa azpitolulukekin) (<https://we.tl/t-Jcbly9qRP9>) euskarazko bertsioekin. Eskerrik asko zure interesagatik, eta nahi dituzun iradokizun, iruzkin eta kritika guztiak bidaltzeko eskatzen dizugu.

Kirol Kontseilu Nagusia:

Herritarraren erantzuna: Zertarako balio ote du euskarazko bertsioak sortzeak inongo hedabidetan ez badituzte zabaltzen?

Ekonomia, enplegua (11)

Dosierra: 134-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - TESORERIA GENERAL DE LA SEGURIDAD SOCIAL - BIZKAIKO ZUZENDARITZA

Arrazoa: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren Bizkaiko Zuzendaritzak hainbat higiezin enkanteari dagokion iragarkia argitaratu du prentsan, atzo, erdara hutsean baizik ez. Erantsita doakizue argazkia.

Dosierra: 204-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - SEPE - Servicio Público de Empleo Estatal - ITURRIONDO PRESTAKUNTZA ZENTROA-BURLATA

Arrazoa: Burlatako SEPEra joan nintzen eta ez zegoen euskaraz artatuko ninduen langile bakar bat ere. Nire eskubidea exijitzen dut euskaraz artatua izateko. Euskaraz artatua izatea zerbitzuaren kalitatean ere eragiten du. Hitzorduaren komunikazioak ere erdara hutsean jaso ditut.

Dosierra: 252-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - MINISTERIO DE ASUNTOS ECONOMICOS Y TRANSFORMACION DIGITAL

Arrazoa: Bizkaiko egunkari guztietarik bakarrean ---Correon---, eta erdara hutsean, argitaratu du iragarkia Espainiako Gobernuak, Mi Carpeta Ciudadana delakoaz, orrialde betekoa, eta koloreetan.

Dosierra: 353-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - Gizarte Segurantza - INSS - DIRECCIÓN GENERAL

Arrazoa: Espainiako Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren egoitza elektronikoaren bidez adingabearen jaiotza eta zaintzagatiko baimenari dagokion prestazioa eskatu dut eta hori gaztelaniaz egin behar izan dut, ez zaigulako aukerarik ematen euskaraz egiteko.

Dosierra: 473-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - SEPE - Unidad de Quejas y Sugerencias de Servicios Centrales Subdirección General de Recursos y Organización

Arrazoa: gaur kotizaziopeko prestazio-agiria (paroa) eskatu nahian ibili naiz. SEPEko atarian sartu naiz eta beharrezko kudeaketak egiten saiatu naiz, baina ezinezkoa izan da, argazkian ikusten duzuenetik tutik ulertzen ez baita euskarazko bertsioan. Harritzen eta mintzen nau ofiziala den webgune batetan, batez ere egunero milaka aldiz erabiliko den atal batetan, halako tratu lazgarria jasotzea. Lotsagarria eta iraingarria da, eta hitzunon eskubideen aurka doa. Azkenean gazteleraz egin behar izan dut eskaria, eta jakinarazpenak ere gazteleraz eskatu ditut, ezin dudalako hain beharrezkoa dudan prestazioa arriskatu hurrengo informazioa ulergarria izango den edo ez. Gainera nekatzen nau euskaraz bizi nahi duenak militantzia eta biderkatutako ahaleginak egin behar izateak. Egoera hau salatu nahi nuke eta lehenbailehen zuzen dadin eskatu.

Erantzunak:

Kexa eta iradokizunen unitatea: Zure kexari erantzunez, sentitzen dugu zure erreklamazioa ikusita eragozpenak sortu izana gure egoitza elektronikoaren multidioman. Gure erabiltzaileei zerbitzu egokia emateko zaharkituta dagoen tresna bat erabiltzean oinarritutako gabezia horiek ezagutzen ditugu. Espero dugu arazoa ahalik eta lasterren konpontzea eta erabilzaile guztiei itzulpen fidagarriagoa eskaintzea.

Dosierra: 622-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - SEPE - Unidad de Quejas y Sugerencias de Servicios Centrales Subdirección General de Recursos y Organización

Arrazoa: Langabeziagatiko prestazioa izapidetzeko ordua hartzeko SEPEren webgunera jo dut: <https://sede.sepe.gob.es/portalSede/eu/procedimientos-y-servicios/personas/proteccion-por-desempleo/cita-previa/cita-previa-solicitud.html> Traketsa, ulertezina eta lotsagabea da euskarazko bertsioa.

Erantzunak:

Erakunde Harremanetarako eta Asistentzia Juridikorako Zuzendariorde Nagusia: Aurreko idazkietan antzeko gaiei buruz egin genuen bezala, jakinarazten dizut 2020ko maiatzaren amaieran erakunde honek bere www.sepe.es ataria edukien kudeatzaile berri batera migratu zuela, PLATA Administrazioaren Erabilera Komunekeko Sistema (Itzulpen Automatikorako Plataforma) erabiliz, hura itzultzeko motor gisa. Une horretatik aurrera gorabeherak izan ditugu euskarazko

itzulpenarekin, baita gainerako hizkuntza koofizialekin ere, gure talde teknikoak PLATA euskarriari jakinarazi dizkionak. Komunikazio horien eta PLATAren hobekuntzaren beraren ondorioz, itzulpena hobetu duten aldaketak gertatu dira, baina oraindik ere arazoak daude osagai batzuetan, hala nola esteketan edo tauletan, eta horrek osagaia ezabatzeraz behartzen du, eta itzuli aurretik berriro egin behar izatea; beraz, ezin da ziurtatu emaitza zuzena izango denik. Bestalde, SEPEk, arazo horietako batzuk konpontzen saiatze aldera, zenbait eduki itzulpen automatikoko plataforma hau erabili gabe itzuli ditu unean-unean, eta beste irtenbide batzuk bilatu ditu atalen batean, hala nola Argitalpen Ofizialak, argitalpen jakin baten orrialde berean argitalpen hori hizkuntza desberdinetan dagoela edo erabilgarri dagoela adieraztean datzana, hizkuntza koofizialeko argitalpen horrekin lotuz, baina atal guztietan ezin da alternatibarik aurkitu.

Dosierra: 628-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - SEPE - Unidad de Quejas y Sugerencias de Servicios Centrales Subdirección General de Recursos y Organización

Arrazoiak: SEPEren webguneko euskarazko bertsioan egon arren, <https://sede.sepe.gob.es/SolicPrestIndividualWeb/flows/solicitud?execution=e1s1>, ezin da langabeziagatiko ordainsariaren eskaera egiteko izapidea euskaraz egin.

Dosierra: 709-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - MINISTERIO DE ASUNTOS ECONOMICOS Y TRANSFORMACION DIGITAL

Arrazoiak: Espainiako Gobernuak (Ministerio de Asuntos Económicos y Transformación Digital) Renfeko geltokietan publizitate pantailak jarri zituen. Denak espainol hutsean

Dosierra: 720-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - SEPE - Unidad de Quejas y Sugerencias de Servicios Centrales Subdirección General de Recursos y Organización

Arrazoiak: SEPEren web gunean sartu naiz informazio bila eta euskara hizkuntza gisa aukeratu dudanean penagarria izan da bertan aurkitu ditudan testuak. Ez dut denbora asko pasa baina irakurri ditudan euskarazko testuak ez dira inondik inora

onargarriak. Ez da ezer ulertzen eta ez dute ezertarako balio. Badirudi itzultzaile batekin egin dutela zuzenean eta besterik gabe bertan jarri dituztela.

Dosierra: 961-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - MINISTERIO DE HACIENDA Y FUNCIÓN PÚBLICA-REAL CASA DE LA MONEDA - DIRECCIÓN COMERCIAL

Arrazoiak: Espainiako Moneta eta Tinbre Fabrika Nazional delakoak erdara hutsean ---beti bezala---argitaratu ditu iragarkiak gaurko prentsan ---Corroen eta Deian---. Iragarkirik ez, ez euskaraz, ez gaztelaniaz, ez elebidunik, ez Gara egunkari hispanoan, ez eta euskaldunon egunkarian, Berrian, ere.

Dosierra: 983-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - Gizarte Segurantza - INSS - BIZKAIKO HERRIALDE ZUZENDARITZA

Arrazoiak: Gizarte Segurantzarekin hitz egin behar izan dut, aitatasun baimenaren epealdia aldatzeko, eta ez da inor egon telefonoz euskaraz artatzeko. Beste egun batean deitu edo gaztelaniaz egin erabakitzeraz behartu naute.

Garraioa, mugikortasuna (28)

Dosierra: 13-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RENFE - BIDAIARIEN GELTOKIEN ZUZENDARITZA

Arrazoa: Gaur urtarrilak 3 Iruñetik Gasteizerako joan-etorria egin dugu trenez. Geltokietara iristean grabatutako mezu bidez jakinarazten dute zein herritan gauden eta erne ibiltzeko trenbidea gurutzatzerakoan. Mezu horiek ez daude euskaraz.

Dosierra: 14-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RENFE - KANTABRIA, EAE, NAFARROA ETA ERRIOXAKO ORDEZKARITZA

Arrazoa: Trenez bidaiatzeko txartelak erosi ditugu. Txarteletan informazioa ez dago euskaraz.

Dosierra: 22-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RENFE - KANTABRIA, EAE, NAFARROA ETA ERRIOXAKO ORDEZKARITZA

Arrazoa: Urtarrilaren 3an Gasteiztik Iruñerako ibilbidea egin duen 19:00etako trenean sartu-irteteteko ateen gainean dauden pantailetan informazioa ez da euskaraz agertzen.

Dosierra: 68-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RENFE - ALDIRIETAKO DONOSTIAKO GERENTZIA

Arrazoa: Donostiako geltokian leihatiletako langileek ez zuten euskaraz ulertzen

Dosierra: 113-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RENFE - BIDAIARIEN GELTOKIEN ZUZENDARITZA

Arrazoa: Txarteldegi automatiko bietan nahiz eta euskara aukeratu informazio orokorra gazteleraz agertzen da.

Dosierra: 122-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RENFE - ALDIRIETAKO DONOSTIAKO GERENTZIA

Arrazoa: Otsailaren 11n, Tolosa-Erdia-ko tren geltokian, 3 pertsona 22:25eko trena Brinkolaruntz hartzera gindoazela, bertan zegoen segurtasuneko agenteari (Prosegur) "GABON" esan ondoren, txartela baliozkotzeko ateetako bat irekitzen ez zenez, agenteari esan nion, era onean, "ATE HAU EZ DABIL ONDO". Andenean sartu ondoren zigarro bat piztu nuen. Jende gehiago ere erretzen ari zen, baina agentea soilik niregana etorri zen zuzen-zuzenean, eta itzaltzeko eskatu zidan, era ez-atseginean. Berehala itzali nuen. Nirekiko egin zuen bereizketa euskaraz hitz egiteagatik izan zela ohartu nintzen eta hori esan nion berari euskaraz. Agenteak ingelesez, frantsesez edo katalanez hitz egingo didala esan zidan. Nahi zuen bezala hitzegiteko esan nion, baina nik euskaraz jarraituko nuela. Horrekin ere, nire susmoa handitu egin zen: ez zuen euskaraz hitz egiteko dudaren eskubidea onartzen. Agenteak identifikatzea eskatu zidan eta nik ezetz esan eta bere identifikazio zenbakia emateko eskatu. Hizka-mizka horretan, "abuela" deitu zidan, "abuela" izatea irain bat balitzan. Bai, amona naizela eta harro gainera erantzun nion. Nik ez nuen bera inongo momentuan iraindu. Jarraian, trenera ez nintzela igoko mehatxu egin zidan. Andenean zegoen jendeak hori zertara zetorren galdegin zion. Baina berak kasurik ez. Mehatxatzen jarraitzen zuen. Eta hori gauza zedin nire atzetik ibili zen eten gabe, jazartzen. Ertzainei deituko ziela esan zidan eta nik deitzeko eskatu nion. Ertzainekin telefonoz "se ha resistido a apagar el cigarro" esan zien. GEZURRA galanta, eta hori esan nion agenteari. Ertzainak etorri ziren. Gertatutakoa kontatu nien, agentearen gezurra, "intsulto" eta jarrera. Ertzainek dokumentazioa eskatu zidaten modu onean. Eman nien eta bitarte horretan trena etorri eta ezin izan nuen hartu. Andenean zegoen jendeak "TRENERA" oihukatu zuen, eta agentea haiengana atera zen korrika. Ertzainek ongi ikusi zuten agentearen jarrera agresibo eta autoritarioa eta lekuz kanpoko. Ertzainek beraiek esan zidaten agentearen identifikazio-plakaren zenbakia jakiteko eskubidea nuela. Azkenean, ez dakit Prosegur-agentea bere egoeraren larritasunaz jabetuta-edo, bere identifikazio-plakaren zenbakia eman zidan. Bizikidetzaren osasuntsua bermatze aldera, zerbitzu publiko bat eskaintzen duen Renferi eskatzen diot errespetuzko eta begirunezko tratua izan dezala erabiltzaileen hizkuntza-eskubideekin.

Dosierra: 124-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RENFE Komunikazio eta Kanpo Harremanetarako Ordezkaritza Euskadi, Nafarroa Kantabria eta Errioxan

Arrazoa: Renferen web orrian, aurreko astean txartela erosterakoan, horrela azaldu zitzaidan euskaraz bidaiaren jatorria eta helmuga adierazteko aukera: "iturria" eta "patua".

Dosierra: 149-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - DGT - Zuzendari Nagusia

Arrazoa: DGT Mobileko aplikazioan, itzulpen okerra jarri dute euskaraz. "Baimena" beharrean, "Barkatu" idatzi dute gaztelaniazko "Permiso" itzultzerakoan.

Erantzunak:

Idazkaritza Nagusia: Gai horretan eskumena duen unitatera bidali ondoren, jakinarazi nahi dugu kontuan hartu eta zuzendu egingo dela.

Dosierra: 224-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - AENA - ZUZENDARI NAGUSIA

Arrazoa: Badira asteak AENA ari dela argitaratzen prentsan 'Un día sin aeropuertos' goiburudun iragarkia. Beti erdara hutsean.

Erantzunak:

Segurtasun eta Zerbitzuen Zuzendaritza: Zuk bidalitako iragarkia prentsa idatziari dagokio, eta, bertan, irizpide hau jarraitzen da: dena delako euskarria gehien erabiltzen den hizkuntzan argitaratzea. Kanpaina honetan, euskarri hauek planifikatu dira Euskal Herrian eta Nafarroan: Diario de Noticias de Álava, Noticias de «Gipuzkoa», Diario Vasco, Diario de Noticias de Navarra, Diario de Navarra, Deia eta El Correo. Gainerako hedabideetan gure kanpaina elebiduna izan da, bai telebistan eta zineman (euskarazko azpitituluak), bai digitalean (bannerrak gaztelaniaz eta euskaraz konbinatuz) eta autobusetan (albo bat gaztelaniaz eta bestea alde batekoa eta atzeko alde euskaraz).

Dosierra: 278-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RENFE egoitza nagusia

Arrazoa: Renfen txartela euskaraz erosten hasiz gero erabat aldrebesturik ageri dira bertako informazio-kontzeptuak. Errespetu falta honekin bukatu eta zuzentzea eskatzen dut

Dosierra: 514-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA – DGT – GIPUZKOAKO HERRIALDE ZUZENDARITZA

Arrazoa: Etxebarriko biztanlea naiz eta Bilboraino ez joatearren, Eibarko NAN eta pasaporteak tramitatzeke bulegoan hitzordua hartu nuen. Ez dizkidate Etxebarriko Udalaren euskarazko dokumentuak onartu erdarazko itzulpen 10est eta 10este egun batean bueltatu beharko dut.

Erantzunak:

Probintzia-burua: Emandako datuekin, ezin da identifikatu Eibarko dokumentazio-bulegoan arreta jaso duela adierazten duen 10este10a, eta, beraz, ezin da argitu kexan adierazitakoa. Eibarko Dokumentazio Unitate honetan zerbitzua ematen duten langileak kontsultatuta, ez dago antzeko gertakarien berririk, unitate honetan beti jasotzen baita dokumentazioa euskaraz.

Dosierra: 537-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA – RENFE egoitza nagusia

Arrazoa: Donostiako Renfe aldirietan, Renfek herriko izen ez ofiziala erabiltzen du bai webgunean bai aplikazioan. Zehazki, geltokiari "Lezo-Renteria" deitzen dio, izen ofiziala 1998. Urtetik Erreterria izanagatik

Dosierra: 539-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA – DGT – DIRECCIÓN GENERAL DE TRÁFICO

Arrazoa: Ondorengo mezua jaso dut DGTtik: "Estimatutako titularra Emate zaion ingurumen ezaugarria DGT ezarritako ondorengo kategoria bati dagokio. – Isuniaren ibilgailuak, ECO, C eta B. Ibilgailua kategoria batean edo 10este bata barne egotea haren erregaien eta DGT-re zerrendan adierazitako isuri mailen arabera zehartuko da. Ingurumen ezaugarria aurreko haizetakoaren beheko eskuineko angeluan jarriko da, baldin badago, bestela edozein leku ikusgaietan

ipiniko da. Honela, autoritate lokalek ibilgailuara ingurune – kategoria indetifica dezakete momentuan, eta aurrez aurretik ikusitako abantailaz eta sustagarriez gozatzea baimendu dute. Informazio gehiago edukitzeko web guenak kontulstatu: www.dgt.es Eskerrik asko mugikortsan irankorrako eta seguruago bat izatera laguntzeagatik”.

Dosierra: 559-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RENFE egoitza nagusia

Arrazoiak: Beste behin, informazioa erdaraz baino ez du argitaratu Renfek. Noiz hasiko dira benetan errespetatzen erabiltzaile euskaldunen eskubideak?

Dosierra: 560-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - DGT - Zuzendari Nagusia

Arrazoiak: DGTes.ren #miDGT aplikazioa euskeraz bete nahian eta nire “barkatu” datua eskatu dit. Buelta pareta eman ostean, “B”ak pista eman dit, nire gida BAIMEN mota eskatzen zidan. Okerrena da @DGTes-ek akats hori zuzendu gabe daukala 2022ko urte hasieratik behintzat, askok ohartarazi arren. Axolagabekeria galanta!

Dosierra: 562-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RENFE egoitza nagusia

Arrazoiak: Irudimen handia eta asmatzailea izan behar ba Renferen euskarazko mezuak ulertzeko: bankuotzeak? Re-impresi? kanbela? renfe bidaia ona nahi du? Euskaldunonganako errespetuzko tratua eta berehala zuzentzea eskatzen dut.

Dosierra: 573-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RENFE egoitza nagusia

Arrazoiak: Renferen webguneko euskarazko itzulpenak ez dira zuzenak: "noiztik: donostia" "noiz arte: bartzelona" "Tik hasita 54,65€"...

Dosierra: 580-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - DGT - GIPUZKOAKO HERRIALDE ZUZENDARITZA

Arrazoiak: Trafiko zuzendaritzako Gipuzkoako delegaziora deituz (tfnoa: 943452000) informazio mezua erdaraz hutsez ematen dute.

Dosierra: 612-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RENFE - ALDIRIETAKO DONOSTIAKO GERENTZIA

Arrazoiak: Donostiako RENFEren tren geltokian itzulpen penagarria duen kartel hau topatu dut: "Sarrera-eskaileretako. ¡Kontuz!"

Erantzunak:

Explotación de la Infraestructur: Donostiako geltokian jarritako kartelarekin lotutako kexa jaso dugu. Bertan, sartzeko eskaileren berri ematen da. Jakinarazten dizugu zure idazkia geltokiko kudeatzaileari helarazi diogula, behar bezala idatzitako kartel berri batek ordekoa dezan. Barkamena eskatzen dizugu eta zure oharrak eskertzen dizkizugu. Adeitasunez,

Dosierra: 644-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - AENA - BILBO-LOIUKO AIREPORTUA

Arrazoiak: Bilboko aireportuko heldueren pantailetan hegaldia atzeratzen denean euskaraz ere “retrasado” agertzen da (pantailen informazioa gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez agertzen da).

Erantzunak:

Erreklamazio-bulegoa: mezuan azaltzen den bezala, aireportuko pantaila batean arazo teknikoa egon da. Argitaratzen ditugun mezuen artean “ATZERATUTA”, gaztelaniaz soilik agertzen zen. Eta ez zen ez euskeraz ezta ingelesez ere agertzen. Arazo teknikoa konponduta dago jadanik, eta orain behar den hizkuntzan agertzen dira argitaratzen dugun hegaldien informazio osoa. Ikusitako akatsaren berri emateko gurekin harremanetan jartzea eskertzen dizugu.

Dosierra: 647-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - AENA - BILBO-LOIUKO AIREPORTUA

Arrazoiak: Bilboko aireportuko zenbait kartel finko gaztelaniaz baino ez daude.

Dosierra: 705-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - AENA - ZUZENDARI NAGUSIA

Arrazoa: AENAK Bilboko aireportuaren 75. urteurrena iragarri orri osoko iragarkia argitaratu du El Correo egunkarian. Euskarazko testua lotsagarria eta onartezina da: "Aeropuerto de Bilbao"="Bilboko aireportura", "75 años contigo=75 urteak zurekin".

Erantzunak:

Zuzendaritza-kabineteko departamentuburua: Publizitate orria Aenako Komunikazio Zuzendaritzak egindakoa izan dela jakinarazten dizuegu. Aena SME, SA. konpainiak, ez dauda bere jarduera garatzeko diru publikorik.. Aenak bermatu egiten du, herritarrei ematen dien arretan, eurek erabakitako hizkuntza ofizialean (euskaraz edo gaztelaniaz) hartuko zaiela arreta Euskadiko Autonomia Erkidegoan.

Dosierra: 706-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RENFE - ALDIRIETAKO DONOSTIAKO GERENTZIA

Arrazoa: Donostiako Atotxako tren-geltokiaren ondoan bizi naiz eta bozgoragailuetatik ematen duten trenen iritsiera eta irteeren gaineko informazioa gaztelania hutsean zabaltzen dute.

Dosierra: 710-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - AENA - BILBO-LOIUKO AIREPORTUA

Arrazoa: Loiuko aireportuak Bizkaiko prentsan (atzoko [2023-09-19] Deian eta Corroeren Bizkaiko edizioetan) atzo lau orrialdeko publizitatea ezarri du, erdara hutsean, egunkarien azalaren ordezkiko moduan. Sintagma batzuk euskaraz-edo ageri dira, azalean, inongo ganorarik barik. "75 años contigo = 75 urteak zurekin" ?! / "Aeropuerto de Bilbao = Bilboko aireportura"?! Euskaldun herritarrok ez dugu begirunerik merezi? Diru publikoak erdarara eta erdaldunendako baizik ez dira bideratu behar. Euskaldun herritarrok ez dugu ezertxo ere merezi? Ez gara herritar? Ez gara herritar eskubidedun?

Erantzunak:

Zuzendaritza-kabineteko departamentuburua: Deia eta El Correo egunkarietan irailaren 19an argitaratu zen publizitate testuan maketazio lanetan nahi gabe egindako akats bat izan da. Horelako akats bat berriro gerta ez dadin lanean jarraituko dugu.

Dosierra: 713-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - AENA - ZUZENDARI NAGUSIA

Arrazoa: hegazkinez bidaiatuko naiz irailean eta urrian. Hargatik AENaren appa deskargatu dut, berriro; hegaldiak ditudanetan egin ohi dudana moduan. Bada, oraindik ere gaztelaniaz eta ingelesez baizik ezin da erabili. Noiz arte?

Dosierra: 779-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - AENA - ZUZENDARI NAGUSIA

Arrazoa: Iruñeko aireportuan "PAMPLONA" soilik jartzen du, euskararen arrastorik ez. Izen ofiziala denez, euskaraz ere beharko luke.

Dosierra: 964-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RENFE Iruñeko geltokia

Arrazoa: Iruñeko-tren geltokiko megafonia bidezko azalpenak gazteleraz eta ingelesez bakarrik. Euskararen arrastorik ez. Egunero gertatzen da.

Dosierra: 980-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - DGT - Zuzendari Nagusia

Arrazoa: DGT-aren eskutitzaren itzulpena negargarria, mingarria eta ulertezina da.

Gizarte gaiak/politikak (1)

Dosierra: 917-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - MINISTERIO DE IGUALDAD

Arrazoa: Iragarkia hau ikusten ari naiz egunotan prentsan, erdara hutsean baizik ez, eta erdal hedabideetan baino ez. Euskaldun herritarrok eskubiderik ez?

Hedabideak (2)

Dosierra: 272-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RTVE - EUSKADIKO LURRALDE-ZENTROA -

Arrazoa: Idatzi honen bitartez joan den martxoaren 29an Eusko Autonomi Elkartearen emititzen den Telenorte saioan, Telenorte berak Zestoako baserritarri egindako elkarrizketa euskaraz eskaini ez izana salatu nahi dut. (<https://www.rtve.es/drmn/embed/video/6845990>) Irudietan Zestoako baserritar batageri da Telenorteko kazetariak elkarrizketatutakoa bertan jazotako suteen berriaren informazioa eman ahal izateko. Baserritarra gaztelaniaz hizketan ageri da, eta argi ikusten denez, gaztelaniaz ez daki ondo hitz egiten, oso trakets ari da hizkuntza honetan euskara duelako ohiko eta eguneroko hizkuntza. - Ez da Antonio elkarrizketatuaren irudia errespetatu; kazetariak ez dio aukerarik eman galderei euskaraz erantzun ahal izateko (agerian utzita berak ez duela gaztelaniaz zuzen hitz egiten). Izan ere, elkarrizketatuak Telenortek egindako galderei informazio zehatzagoa eman ziezaikeen euskaraz egin izanez gero, berak ondo dakien hizkuntzan. Berdin jokatu ote luke Telenortek gaztelaniaz gaizki dakien politikari atzerritar bati galderak egiten? Edo azpigitulaturik emango luke gero berria, hark hobekien dakien hizkuntzan eginda? Kasu honetan ez da hala gertatua izan. - Beste hizkuntzak erabiltzearen aurretik, eta kasu honetan, elkarrizketa euskaraz egitearen aurretik, hobetsi du Telenortek duen berriak soilik gaztelaniaz egiteko politika, berdin nor den elkarrizketatua (alemaniar turista zein baserritar euskalduna). Garrantzitsuago izan da zein hizkuntzatan esan, gaztelaniaz alegia,

gaztelaniaz esaten duena baino (nik neuk ez diot apenas ulertzen zer esan nahi duen). Non da hemen berriaren kalitatea? Ezagutzen ez den hizkuntza batean erantzuten bada ezin da kalitaterik bermatu. Eta saio honen berriak azalpenen aldetik, kalitate falta zuen. Bestalde, euskaraz ez diren berriak emanda, EAEn (berdin esango nuke Nafarroaren) adibidetan, ez da herrialde hauen ikuspegi erreala ematen. Ondo baitakizue, herri asko eta askotako biztanleok euskaraz bizi garela. Zergatik ez egin/eman elkarrizketak euskaraz elkarrizketatuek hala eskatzean? - Eta Telenorte saioak ez du Espainiar legeak hizkuntz ko-ofiziala den herrialdeetan (EAE gure kasuan), euskaraz eman beharko lukeen ehunekoarekin konplitu (nahiz eta azken laburpena telebistaz eman). "Egun on" eta "Bihar arte" izan ohi dira euskarazko hitz bakarrak, euskarazko edukiak sarriago entzun behar direnean. Katalunian eta Valentzian katalanez ematen dira osotasunean, Hego Euskal Herrian zergatik ez? Eta azkenik, badakit badirela euskaldunak Telenorte ikusten dutenak. Non daude euskaldun hauen eskubideak saioa ikustean, legez behartuta beharko lukeelakoan saioaren zati bat euskaraz egiteko.

Dosierra: 527-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RTVE - Consejo de Administración

Arrazoa: TVEn kamioia herriz herri dabil adonekoei digitalizazioan oinarritzko irizpide batzuk eman nahian. Autobus honen errotulazio guztia gaztelaraz dago.

Hezkuntza (2)

Dosierra: 795-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - UNED - GASTEIZKO IKASTETXE ELKARTUA

Arrazoa: Atzoko Correion UNEDen iragarkia ikusi dut. Behingoan euskaldun herritarrok kontuan hartzen gaituzte zerbaitetan, baina "17 Mikrotitulua" eta "16 Hizkuntzak" idazteak agerian uzten du begirune eza.

Justizia (5)

Dosierra: 164-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL - Unidad atención ciudadana -

Arrazoia: Nafarroako Justizia Jauregiko 10. instantzia-auzitegian tramiteak egin ondoren (guztiak gaztelaniaz), lanerako ziurtagiria euskaraz eskatu eta soilik gaztelera hutsez zegoela erantzun zidaten.

Dosierra: 370-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - JUNTA ELECTORAL CENTRAL - LEHENDAKARIA -

Arrazoia: Udal eta foru hauteskundeetan mahaietan egon behar izatea egokituz gero, euskaldun herritarrok ezin dugu parte hartu (edo bai...) zeren, eskuliburua, gaztelaniatik edozelan, halamoduz, erdipurdi, ganorarik barik, itzulita baitago, behintzat EAerako bertsioan. Egokitzen bazait mahaietan egon beharra eta uko egiten badiot, zer gertatzen da? Hauteskundeetako eskuliburu zabarren kontu hau ez da kontu berria. Zer arraio gertatzen da? Inongo euskalduni edo euskaltzaleri edo abertzaleri ez zaio tokatu inoiz, Hego Euskal Herrian, Franco hil zenez geroztik mahaietan egon beharra? Autonomia-erkidegoetako agintariek ez dute zer esanik? Diputazioek? Udalek? UEMak? Agintean direnek? Oposizioan direnek? Politikariek? Ala politikariek ez dute batere loturarik hauteskundeekin eta ez dute sekula ikusi halako eskulibururik? Bestalde, eskuliburua "irakurketa erraza" deritzoten formatuan ere eskuragarri dagoela diote eskuliburuan. Bada, bilatu egin dut. Erdara hutsean dago eta bertsio bakarrean, Espainiako Estatu osorako. Azkenik, nork, nortzuek, eta zelan 'euskaratzen' ditu(zte) testuok? Zenbaitetan igartzen da ardura eza. Beste zenbaitetan ganora eza. Beste zenbaitetan euskaraz ez jakitea. Beste zenbaitetan testuak ondo daude. Beste zenbaitetan beharbada itzultzaile automatikotik igaroarazi dituzte testuak eta ateratako 'txurroak' beren horretan onetsi dituzte. Diru publikoarekin ordaintzen dira irainok, bada!!!

Dosierra: 509-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - JUNTA ELECTORAL CENTRAL - LEHENDAKARIA -

Arrazoia: Hurrengo hauteskundeetako mahairako ordezkotzako izendapena jaso nuen, eta aurretik bidaia bat programatua nuen, alegazioa (edo beraiek esaten dioten bezala "aitzakia") aurkeztu nuen <https://www.mesaselectorales.es/web-excusas-form/> web-orriaren bidez. Prozesu osoan zehar erabilitako euskara traketsa izan da, baina gaur nire alegazioaren egoera zertan den begiratzean, zur eta lur geratu naiz ("pendiente" adierazteko "belarritako" erabiltzen da).

Dosierra: 566-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - AUZITEGI KONSTITUZIONALA -

Arrazoia: Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren EAeko udal legearen 6.2 artikuluari buruzko epaiak udalei euskara hutsez aritzeko aukera zabaltzen dien araua ezeztatzen du.

Dosierra: 741-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - MINISTERIO DE JUSTICIA - JUZGADO DECANO (Bilbo)

Arrazoia: Barroeta Aldamar kaleko Justizia-jauregiko Epaitegi Dekanoko erregistrora joan nintzen. Lehenik eta behin, eraikineko sarrerako segurtasun-kontrollean zeuden ertzainek gaztelaniaz baino ez zidaten egin, nik euskaraz egin arren; ulertu nindutelakoan nago, baina euskarazko arreta bermatu behar da. Horren ostean, Epaitegi Dekanoko Erregistroan zegoen langileak gaztelaniaz hitz egin ostean, nik euskaraz dokumentuak erregistratzera joan nintzela azaldu nion eta hark "en castellano, por favor" esan dit. Nik eskubidea nuela esan eta langileak gaztelaniaz esan dit "si quieres me puedes hablar en euskera pero..."; ez zait euskaraz artatua izateko ezein aukerarik eman eta azkenean gaztelaniaz egin behar izan dut. Bestalde, eraikineko zenbait kartel ele bitan idatzita dagoen arren, oraindik ere asko gaztelania hutsean baino ez dago.

Erantzunak:

Justizia Administrazio Zuzendaria: Herrizaingo Saiak edo Ertzaintzak eta segurtasuneko langileak dituzten hizkuntza irizpide eta jarraibideak kontuan hartuta, langileak hiritarrari espainolez hitz egiteko san ordezkotzako, euskaraz arreta eman zezaken batengana zuzendu behar zuten. Justizia Administrazioeko langileak, berriz, 174/2010 Dekretuan ezarritakoa bete behar lukete. Izan ere, Dekretuko 4.

artikuluan ezarrita daude hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak. Hortaz, ondoriozta daiteke dena delako langileak ez duela modu egokian jokatu. Bera arreata euskaraz emateko gai izan ezean herritarra behar besteko gaitasuna zuen lankide batengana bideratu behar zuen. Kartel guztiak elebietan jartzeko agindua dute. Hori berbegiratzeko eta irizpide hau jarraitua izan dadin dagokion neurriak hartuko ditugu. Herritarren hizkuntz eskubideen urraketa dela jakitun, aipatutako irizpideak bete daitezten neurriak hartuko ditugu.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko lehendakaria: Kexaren ikuspegitik ez dago elementurik egiaztatzeko ahozko komunikazioaren esparruan Bilboko Epaitegi Dekanoko Erregistro eta Banaketa bulegoan gertatu dela salatutako egoera. Beharrezko neurriak bultzatzen jarraituko dugu pertsonen ahozko eta idatzizko erantzuna aukeratzen duten hizkuntza ofizialean jasotzeko duten eskubidea erabat eraginkorra izan dadin.

Abeltzaintza, arrantza eta nekazaritza (1)

Dosierra: 651-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - MINISTERIO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

Arrazoa: Egunero ikusten ari naiz ENESA Entidad Estatal de Seguros Agrarios delakoaren iragarkia prentsan; beti erdara hutsean.

Erantzunak:

Nekazaritzako Aseguruen Estatuko Erakundeko zuzendaria: Joan den ekainaren 29an hasi eta urriaren 19an amaituko den kanpainak Estatuko hizkuntza ofizial guztietako piezak biltzen ditu, zehazki irratiko iragarkiak eta telebistako iragarkiak. Kanpainaren aurrekontu-gastu handiena eta irismen handiago duten medioei gai horretan adi egon arren, tamalez, prentsan txertatutako iragarkiak, zure idazkian ondo aipatzen den bezala, kontratu publikoaren enpresa esleipendunak gaztelaniaz bakarrik sortu zituen. Zure kexa kontuan hartuko dugu nekazaritza-aseguruaren hurrengo publizitate-kanpainarako.

Osasuna (1)

Dosierra: 652-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - MINISTERIO DE SANIDAD -

Arrazoa: Egunero ikusten ari naiz prentsan 024 telefonoaren iragarkia; beti erdara hutsean: 024 / Llama a la vida / Línea de atención a la conducta suicida / Gobierno de Espana. Ministerio de Sanidad / Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia / Financiado por la Unión Europea. Next Generacion EU

Posta (9)

Dosierra: 121-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - CORREOS - Gerencia de Productos y Servicios (Area Norte - José Pablo García Junco)

Arrazoa: Beasaingo udalerriko Correoseko ohiko erabiltzailea naiz, eta azkenaldian jendaurrean lanean dauden zenbait langile ez dute arreta euskaraz ematen. Batek ulertu bai baina erantzun gazteleraz egiten du. Besteak, ordea, ez du gutxieneko ahaleginik egiten hitz bakar bat egiteko. Ez da nirekin gertatutako gertaera isolatua, egoera orokorra da egun Beasaingo Correosen.

Erantzunak:

Produktu eta Zerbitzuen Gerentzia: Bertako zuzendariarekin hitz egin ondoren adierazi digute bertako zuzendaria elebiduna dela, beraz, momentuan bezeroak horrela eskatzen duenean berak arreta eskeintzen dio. Beasaingo Correos-eko bulegoan aukera dago euskarazko arreta izateko.

Dosierra: 172-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - CORREOS - Gerencia de Productos y Servicios (Area Norte - José Pablo García Junco)

Arrazoa: Bilboko Txurdinagako postetxearen kanpoko aldean jarritako afixa erdara hutsean idatzita dago.

Dosierra: 225-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - CORREOS - Gerencia de Productos y Servicios (Area Norte - José Pablo García Junco)

Arrazoa: Correosen webgunean bidalketen jarraipena euskaraz egiten badugu informazioa ez da zuzen agertzen, "1 paketea" edo "19 hemengoak: martxoak, 2023" modukoak irakur ditzakegulako.

Dosierra: 519-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - CORREOS - SUBDIRECCION DE RELACIONES INSTITUCIONALES Y TRANSPARENCIA

Arrazoa: Posta bidezko botoa bidali dut gaur goizean. E-mailean Correosetik bidalketaren ziurtagiria jaso dut, eta inkesta egiteko eskaria. Inkesta erdara hutsean dagoenez, ez dut beteko.

Dosierra: 523-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - CORREOS - Gerencia de Productos y Servicios (Area Norte - José Pablo García Junco)

Arrazoa: Correosetik mezu elektronikoa bat jaso dut gaur bertan, mezua euskaraz ere agertzen den arren, ez du inkesta euskaraz betetzeko aukerarik ematen, gaztelaniaz soilik agertzen zait. Nire herrian euskara ofiziala da.

Dosierra: 546-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - CORREOS - Gerencia de Productos y Servicios (Area Norte - José Pablo García Junco)

Arrazoa: gaurko Correos Correosek orrialde osoko iragarkia argitaratu du erdara hutsean. Ez dut ikusi beste ezein egunkaritan euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu dutenik, ez behintzat Berrian edo Garan; ez dakit Deian. Erantsita duzue irudia. "Gracias a los profesionales de Correos por llevar la democracia a todos los rincones de España. / Sous un orgullo para nuestro país. / GRACIAS".

Dosierra: 571-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - CORREOS - Gerencia de Productos y Servicios (Area Norte - José Pablo García Junco)

Arrazoa: Correosen publizitate honetako euskarazko testuan akatsak daude. Adibidez: "udako gogoaz bazenuen.... askoz gehiago izango dituzu". Ez da akats puntuala, nahiko ohikoa izaten da horrelakoak ikustea Correosen testuetan. Gaia ganoraz hartu eta horrelakoak editikeko neurri eraginkorrak hartzeko eskatzen diot.

Dosierra: 765-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - CORREOS - Gerencia de Productos y Servicios (Area Norte - José Pablo García Junco)

Arrazoa: Correosek pakete baten heldu izanaren abisua utzi dit etxeko postontzian. Beste behin ere, abisuaren datuak erdaraz baino ez dituzte idatzi.

Erantzunak:

Produktu eta Zerbitzuen Gerentzia.: Dagokion sailari jakinarazi diot, helarazitako akatsak konpon ditzaten.

Dosierra: 880-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - CORREOS - Gerencia de Productos y Servicios (Area Norte - José Pablo García Junco)

Arrazoa: Azaroaren 17an Areetako (Getxo) Correos-en bulegora nintzen gutun ziurtatua bidaltzeko. Ezin izan nuen aritu euskaraz, ez zegoelako langile euskaldunik. Jarrera desatsegina izan zen. Correos-ek herritarroi zerbitzuak euskaraz eskaintzeko neurriak ar ditzan eskatu nahi dut.

Segurtasuna (1)

Dosierra: 734-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - MINISTERIO DEL INTERIOR -

Arrazoa: Polizia Nazional deritzon Espainiako poliziaren ibilgailuetako errotuluak zergatik daude erdara huts-hutsean Hego Euskal Herrian eta Espainiako estatuko lurralde osoan? Gaztelaniaz bestelako hemengo bertako ---estatu honetako--- gainontzeko hizkuntzak darabiltzagun herritarrok ez dugu merezi duintasunik? Ez dugu eskubiderik batere? Bagara hemengo herritar ala ez gara? Erabat arrotza banintz bezala sentitzen naiz.

FRANTZIAKO ESTATUA

Guztiak (3)

Dosierra: 701-2023

Nori: FRANTZIAKO ESTATUA - LA POSTE Uztaritze

Arrazoa: La Postek lotsagabeki oraindik euskara eta euskararazko helbideak baztertzen dituen Oihana garbitzeko egun bat antolatu eta horren komunikazioa frantses hustez egiten duelako, egunari ingelesezko izen bat jarrita! "Clean Up Day"!

Dosierra: 841-2023

Nori: FRANTZIAKO ESTATUA - PIRINIO ATLANTIKOKO KONTSEILU OROKORRA

Arrazoa: Pirinio Atlantikoko Departamenduko Kontseiluaren udazkeneko bilkuran, urriaren 20koan, euskararen ezagupena defendatu zuen EH BAiko Iker Elizalde. Frantsesez hitza hartu ondotik, euskaraz ere eman nahi izan zituen azalpenak, baina Jean-Jacques Lasserreko presindenteak moztu egin zuen frantsesa erabiltzeko eskatuz.

Dosierra: 968-2023

Nori: FRANTZIAKO ESTATUA - MINISTERE DE L'EDUCATION NATIONALE

Arrazoa: Frantziako Hezkuntza ministerioak brebetako azalpen oro frantses hutsean ematea deliberatu du "seguritatea eta zuzentasuna" bermatzeko. Ikasleen hizkuntza-eskubideak berriz ere urratuak izanen dira.

EUSKO JAURLARITZA

Administrazio orokorra (14)

Dosierra: 17-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA - EEE

Arrazoa: TAO/OTA makina batetan itsatsita zegoen itsasgailu batean (ehunka makinatan egongo dena ziur aski) ikusi dut. "Programa de apoyo..." gaizki euskaratuta dagoela dirudi ala hitzak jan dituzte. Edozein kasutan iraingarria da euskararentzat itsasgarri hauek atzera bota ez izana eta kaleetan egotea.

Erantzunak:

Zuzendari nagusia: Eranskailua ikustean hiritarrak sentitu duen ezinegona ulertzen dugu. Hala ere, argitu behar dugu, eranskailu-eredu hori duela urte asko utzi ziola gure erakundeak erabiltzeari, hain zuzen ere gaizki idatzita zegoelako. Harritu egin gaitu eranskailu hori TAOren zutoin batean agertzeak. Hizkuntza-akats horiek antzeman eta berehala, EEEK eranskailuen bertsio berri bat jarri zuen akatsak zuzentzeko. Adibide bat bidaltzen dugu. EEEK euskararekiko erabateko konpromisoa berretsi nahi du, eta gure enpresaren hizkuntza-normalizazioan aurrera egiteko egiten ari garen ahaleginari balioa eman nahi dio. Gure azalpenak ulertu eta onartuko direlakoan, agur bero bat.

Dosierra: 51-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - KONTSUMO ZUZENDARITZA / KONTSUMOBIDE

Arrazoa: Kontsumobideren web orrian kontsulta bat egin dut, datu guztiak bete ondoren, agertu zaidan legediaren gaineko oharra gaztelania hutsean dago. Uste dut euskaldunon eskubideen urraketa dela, izan ere, galdetegia euskaraz betez gero, logikoa da legedia euskaraz ere agertzea.

Dosierra: 136-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - ETXEBIDE

Arrazoa: Eusko Jaurlaritzaren Etxebide zerbitzuan, etxebizitza eskaeraren berritzea egin behar izan dut. Web orrian euskarazko aukerari sakatu badiot ere, izapidea ezin izan dut euskaraz burutu; izan ere, eman beharreko pausoetan aurrera egin ahala, orria gaztelera agertzen baitezaidan. Horri horietan

euskarazko aukerari eman, eta berriz ere prozesuaren hasierara bidaltzen ninduen, behin eta berriz egoera bera errepikatuz. Azkenean, izapidea gaztelera burutu behar izan dut.

Erantzunak:

Berrikuntza Publikorako Euskarria: Etxebideko webgunearen teknikariek beharrezko probak egin ondoren, hau baieztatu dute: Modalitate telematikoa berritzeko funtzionaltasuna bi hizkuntzetan garatuta dago. Hala ere, arazo bat antzeman da euskarara birbideratzearekin, tartean dagoen aplikazioetako batekin. Aplikazio horrek, bai euskaraz, bai gaztelaniaz, gaztelaniazko berritze formulario batera darama. Kexak zehatutako arazoa zuzentzeko beharrezko lan-ildoak ireki ziren kexa iritsi bezain pronto eta dagoeneko zuzenduta dago.

Dosierra: 147-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - IZENPE S.A.

Arrazoa: <Lanbide.eus> webguneko 'Nire Lanbidenet'en identifikatzeko, orain BAKQ delakoa erabili daiteke. Hartarako, "Nire Lanbidenet" sakatu behar da lehenik; eta gero "Identifikazio elektronikorako sarbidea" ageri den zerean, "Sartu" sakatu". Arazoa da zabaltzen den Izenperen orrialdea gaztelania hutsean ageri dela.

Dosierra: 262-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOETAKO SAILA

Arrazoa: Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak "Bilboko Metropoli Trenbidearen 5. Linea eraikitzeako proiektua. Aperribai-Galdakao tartea ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda" interesdunei jakinarazi zien eta, horrez gain, honakoetan argitaratu zuen: Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, eta "Deia" eta "El Correo" egunkarietan. Aukeratutako egunkari biak gaztelaniaz argitaratzen dira, hau da, euskaraz argitaratzen den egunkari bakarrean iragarkirik ez jartzea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak. Iragarkiok euskaraz argitaratzeaz gain, euskarazko prentsan ere argitaratu behar lituzke, bestela, euskaldunok prentsa euskaraz irakurtzea aukeratzen badugu, behintzat, iragarki horiek irakurri gabe geratzen garelako.

(Erantsitako EHAko iragarkian gaztelaniazko bi kazeta horietan soilik argitaratu izana jasotzen da)

Dosierra: 442-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - KZGUNEA - KUDEAKETA ZENTROA

Arrazoa: KZ-Gunearen iragarki bat heldu zait emailera gaztelania hutsean. Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuak eskaintako ikastaroen kartela eta erregistratzeko emaila bera ere.

Erantzunak:

KZgunea Kudeaketa Zentrua: KZgunearen publizitatea gaztelania hutsean jaso izanari buruzko kexari dagokionez, jakinarazi nahi dugu Google Discovery-ren bitartez, KZgunearen publizitatea erakusten duela Googlek bere aplikazioetan, kexari dagokion kasu zehatz honetan herritarren Gmail posta-bezero aplikazioan. Kexaren kasuan, Googlek herritarri "Erosketa eta ordainketa segurua Interneten" urruneko ikastaroaren publizitatea igorri dio. Ikastaroa gaztelaniaz ematen denean, publizitatea egiten den plataformetan (Google, Facebook eta Instagram), publizitatearen edukia gaztelaniaz erakusten da, kasu honetan gertatu den bezala, eta euskaraz, euskaraz ematen diren ikastaroetan. Azpimarra nahi genuke, hala ere, Googleren ekosisteman, (Google Discovery eta Google Search) batzuetan, KZgunearen esku ez dauden arazoak ematen direla, Googlek euskarazko iragarkiak atzera botatzen dituelako edota Googleren algoritmoak, bere kabuz, euskarazko iragarkiak gaztelaniazkoen aurrean gutxiagotan igortzen dizkielako herritarrei. Honetaz gain, adierazi nahi genuke KZguneko informazio eta formakuntza-baliabide guztiguztiak bi hizkuntzatan daudela: Erabiltzaileei bidalitako buletinak, ikastaroetako edukiak, weba, blog-a... eta, garrantzitsuenak, langileak. Azkenik, eskerrak eman kexa helarazteagatik eta barkamena eskatu kexaren gaiaren inguruan eragozpenen bat eragin baldin badugu.

Dosierra: 479-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EJIE - Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte -

Arrazoa: Eusko Jaurlaritzako langilea naiz, eta Windows sistema eragilea daukat laneko ordenagailuan. Instalatu diguten azken bertsioan, sistema eragilearen euskarazko interfazea ez dago osorik euskaratuta. Aurreko bertsioetan euskaraz zeuden atalak espainieraz agertzen dira orain. Gainera, eguneratze bat instalatzen

den bakoitzean, zati gehiago azaltzen dira espainieraz, eta gero eta euskara gutxiago dago interfazean. Azkenaldian, ordenagailua blokeatzen denean, pantaila urdin bat agertzen da testu honekin: [Erabiltzailearen deiturak eta izena (helbide elektronikoa)] Inicio de sesión correcto La última vez que iniciaste sesión de forma interactiva en esta cuenta fue: [data eta ordua, euskaraz] Error de inicio de sesión No hubo intentos de inicio de sesión interactivo con errores con esta cuenta desde tu último inicio de sesión interactivo. Aceptar Ez dakit testu hori sistema eragilearen testua den ala EJIEk sortutako testua den, baina espainiera hutsean agertzen da hori ere. Ekainaren 21ean, Erabiltzailearen Laguntza Zentrorra deituen sistema eragilea euskaraz jartzeko, eta erantzun zidaten euskaraz daukadala instalatuta eta Microsoften akatsa dela sistema eragilea ez egotea zeharo euskaratuta. Jaso nuen erantzuna mezu honi erantsita doa. Iruditzen zait Eusko Jaurlaritzak sistema eragilea osorik euskaratzeko eskatu beharko liokeela Microsoft enpresari, eta bete egin beharko lirakeela EAEko Administrazio Orokorren eta hari atxikitako Sektore Publikoaren Hizkuntza Irizpideak (1.2.1 eta 1.4.1 atalak). Ekainaren 21ean bertan, Eusko Jaurlaritzako ekipo informatikoez arduratzen den zerbitzutik deitu zidaten, monitoreara aldatuko didatela jakinarazteko eta hitzordua adosteko. Telefonoz deitu zuen pertsonak ez daki euskaraz, eta, dirudienez, langileekin hitzorduak adostea da haren lana. Nire iritziz, telefonoz arreta hori ematen duen langileak euskaraz jakin beharko luke (EAEko Administrazio Orokorren eta hari atxikitako Sektore Publikoaren Hizkuntza Irizpideak, 1.3.2 eta 2.2 atalak).

Erantzunak:

Zuzendaritzako Idazkaria: Bere eginkizunen barruan, EJIEk kanpoko enpresa bat du kontratatuta Osakidetzako, Justizia Sareko, Eusko Jaurlaritzaren Sare Korporatiboko (EJASK) eta Baterari atxikitako beste erakunde batzuetako erabiltzaileei aurrez aurreko arreta emateko zerbitzuak emateko, erabiltzaileei euskarri bat eman behar baitie, batez ere aurrez aurrekoa, IKT gailuen (lanpostuak, komunikazioak, areto teknikoak, etab.) instalazioan, mantentze-lanetan eta intzidentzietan, bai eta beren lana egiteko softwarea konfiguratzeko ere. EJIEk EAS (Enterprise Agreement) motako lizentzia-kontratu bat du Microsoft Windows10 sistema eragilearen fabrikatzailearekin, eta horrek aukera ematen du sistema hori eskuragarri dauden hizkuntza guztietan instalatzeko, besteak beste euskaraz. Bestalde, EJIEk fabrikatzailearen beraren laguntza-zerbitzuak ere baditu, zerbitzua

ematen zaion edozein erakundetan zabalduko produktuei buruzko edozein gorabehera edo kontsulta egiteko. Instalazio-zerbitzuko teknikariaren arretari buruz egiaztatu da Instalazio Zerbitzua euskara eta gaztelania modalitate elebidunean ematen dela, bai telefonoz, bai aurrez aurre, eta euskara dakiten teknikariak egongo direla arlo, funtzio eta kokaleku guztietan. Hizkuntza-prozedura berrikusi da, Instalazio Zerbitzuko koordinatzailearekin batera, eta azken horrekin batera, zerbitzuko teknikariekin batera, euskaraz arreta jasotzeko eskubidea duen edozein erabiltzailek, telefonoz edo aurrez aurre, behar bezalako denbora eta moduan egin ahal izan dezan. Windows10 sistema eragilearen itzulpenari buruz Euskaraz instalatutako sistema eragilean saioa hasteko leihoan gaztelaniazko literalak agertu zirenez, kontsulta bat egin zen, ezarritako kanalen bidez, fabrikatzailearen euskarriarekin (Microsoft), 2110110060002913 erreferentzia-zenbakiarekin, kasu honetarako garrantzitsua den informazioa aterata: Arazoa: "Saio interaktiboaren hasiera: saioa blokeatzen denean erabiltzailearen informazioa erakustea" GPoren setting-ari buruz gomendatutako praktikei buruzko informazioa eskatzea, baita mezuaren hizkuntzari buruz eskuragarri dauden balioei buruzkoa ere. Irismena: 2110110060002913 zenbakiko kasua artxibatu egingo da "Saio interaktiboaren hasiera: saioa blokeatzen denean erabiltzailearen informazioa erakustea" GPoren settingari buruz gomendatutako jardunbideei buruzko informazio-eskaera ebazteko laguntza tekniko eman ondoren, eta mezuaren hizkuntzari dagokionez eskura dituen balioak eman ondoren, gorabeheraren arrazoa "hardwarea" edo hirugarrenen softwarea dela erabakitzen denean edo produktuaren diseinuaren berezko portaera gisa identifikatzen denean. Soluzioa: Adierazitako konfigurazioak aplikatzen dira, eta ezin da arazoa konpondu. Fabrikatzaileak adierazten du Windowsen hurrengo bertsiora arte itxaron behar dela portaera hori zuzentzen den ikusteko.

Dosierra: 484-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - KONTSUMO ZUZENDARITZA / KONTSUMOBIDE

Arrazoa: Kontsumobidera deitu dut gaur telefonoz eta artatu nauen pertsonak ez zekien euskaraz. Euskaraz hitz egiteko gai den pertsona batekin pasatzeko eskatu diet, baina ez didate aukera hori eskaini. Euskaraz saiatu naiz, astiro-astiro eta azkenean elkar ulertu ez eta gaztelaniara pasatu behar izan naiz.

Dosierra: 570-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - TURISMO SAILBURUORDETZA

Arrazoa: etxebizitza turistiko bat daukat eta, Eusko Jaurlaritzaren Turismo sailak, etxebizitzaren kanpoko aldean letrak gaztelaniaz baino ez dituen plaka edo kartela bat jartzera behartzen nau: "VT Vivienda Turistica" edota "HT Habitación Turistica". Uztailaren 3ko 101/2018 Dekretuak agintzen du hala izatea. Horrela, kartelak ez daude guztiz euskaraz. Uste dut nire hizkuntza-eskubideak ez direla guztiz errespetatzen eta aldatzea eskatzen dut.

Erantzunak:

Turismo eta Ostalaritzako zuzendaria: Nabarmendu behar da erabilera turistikorako etxebizitzaren (VT) laburdura baino ez dela soilik gaztelaniaz adierazten; izan ere, arauak bi hizkuntza-bertsioak ostatu-unitatearen izen osoan sartzera behartzen du, eta ez da arautzen zein hizkuntzatan jaso behar den bereizgarrian sartu beharreko solairua, eskua edo letra. Praktika hori Euskararen erabilpena araukotzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legeak bermatzen du, zioen azalpenaren hirugarren paragrafoarekin¹ bat etorritz. Izan ere, Gernikako Estatutuaren 3. artikulua arabera, debekatu egiten da euskaldunak ez diren pertsonen eskubideak kaltetzea, bai eta lege horren 3.2, 4.3, 5.14 eta –analogiaz– 10.25 artikuluen arabera ere. Bestalde, ezin dugu ahaztu turismo-ostatuen bereizgarriak, ostatu-figura bakoitzerako ezarritako legezko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen euskarria izateaz gain, laguntza-funtzio bat bete behar dutela ostatu horien erabiltzaileentzat, arrotz zaien ingurune batean kokatzeko. Bereizgarriak diseinatzeko garaian, siglak bi hizkuntza ofizialetan sartzeko aukera kontuan hartu zen, baina, azkenean, gaztelaniaz bakarrik adieraztea erabaki zen, espazio- eta koherentzia-arrazoiengatik diseinu bera jarraitzen duten gainerako ostatu-figura arautuekin. Bi .pdf dokumentu erantsi dira, kanpoko eta barruko bereizgarrietarako aztertu ziren diseinuekin. Kontuan izan behar da dokumentuetan sartutako bereizgarriak diseinatu ziren unean kanpoalderako aurreikusitako tamaina 40 x 40 zentimetrokoa zela. Adierazitakoaren arabera, jakinarazi behar da gaur egun Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak ez duela aurreikusten erabilera turistikorako etxebizitzaren bereizgarriak aldatzea.

Dosierra: 677-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA-Komunikazioen Teknologien Zuzendaritza

Arrazoa: "NIK Patrika Digitala" delako apparen iragarkia agertu zait Facebooken, erdara hutsean.

Erantzunak:

Inofrmazioaren eta Komunikazioaren Teknologien zuzendaria: Egun horretan Irekia zerbitzuaren Facebooken argitaratu zen iragarkia, bai gaztelaniaz bai euskaraz. Eusko Jaurlaritzak ez dauzka bere menpe Facebooken algoritmoak, beraz ez dakigu zein arrazoiengatik ikusi zuen bakarrik gaztelaniaz. Mezu honekin batera birbidaltzen dizuegu Facebooken argitaratutako iragarkia (euskarazko bertsioa):

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien zuzendaria: NIK Patrika Digitalak Facebook-en izan duen islara dagokionez, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak NIK Patrika Digitalaren erabilpena bultzatzeko kanpaina euskaraz zein gaztelaniaz landu ditu eta modu berean sustatu ditu sare sozial desberdinetan. Erantsita doazkizu euskarazko zein gaztelaniazko egiaztagirak, sare sozialetan ere ikus daitezkeenak. Gure lehentasunezko helburuen artean dago EAEko Administrazio Orokorrak bere buruari ezarritako hizkuntza irizpideak betetzea eta "Euskararen Ingurune Digitala: gomendioak 2021-2024" dokumentuan jasotako lan lerroetan urratsak egiten jarraitzea.

Herritarraren erantzuna:

Herritarraren erantzuna: Irakurri berri dut Jaurlaritzatik emandako erantzuna. Zoritxarrez, ez dut sinesten diotena eta bidalitako irudiak ez dira frogagarri, neure begiak behintzat ez dira heltzen "Sponsored" berba ikustera irudiotan. Jakina, argitalpenak sare sozialetan Euskal Herriko autonomia-erkidego honetako hizkuntza ofizial bietan argitaratu dituztena. Inork ez die kargu hartu gaztelaniaz bakarrik argitaratzeagatik. Arazoa da gaztelaniaz publikatutako post-ak baizik ez dituztela sustatzen, sarritan, eta aldi honetan zehazki.

Dosierra: 900-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA - Zerbitzu zuzendaria-

Arrazoa: Azaroaren 22an Turismo, Merkataritza eta Kontsumoaren Euskadi Sarien ekitaldia egin zuen Eusko Jaurlaritzak. Ekitaldi horretan Javier Hurtado Sailburuak hartu zuen parte, besteak beste. Bere hitzartzea gazteleraz soilik egin zuen, Irekian ikus daitekeen bezala: https://bideoak2.euskadi.eus/2023/11/22/news_89845/hurtado_euskadi_sariak.mp4 Beraz, ekitaldian euskara baztertu eta Jaurlaritzaren beraren hizkuntza irizpideak bete ez izana salatu nahi dut, eta datorren urtean euskararen presentzia berma dadin eskatu.

Dosierra: 901-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - IZENPE S.A.

Arrazoa: Izenpe Mobile appa zabaltzean erdara hutsezko pantailaldia azaltzen da. Euskara ez ote da hemengo berezko hizkuntza eta hizkuntza ofiziala EAEn?

Erantzunak:

Pertsonal eta Administrazio Arduraduna: Egoera aztertu eta gero Izenpe mobile beti bi hizkuntzetan egon dela baieztatu dezakegu. Egia da, erabiltzen den bertsioaren arabera arazo hau ager daitekeela, hau da, lehen bertsioetan, aplikazioak gailuan lehenetsitako hizkuntza erabiltzen zuen, eta, beraz, mugikorra euskaraz egon behar aplikazioa euskaraz ere exekutatzeko. Azken bertsioak, zorionez, aplikazioa bi hizkuntzetako edozein exekutatzeko aukera ematen du (doikuntzetatik), gailuaren hizkuntza edozein dela ere, eta nahi denean aldatzeko. Beraz, azken bertsioa deskargatu behar da.

Herritarraren erantzuna: Jaso berri dut Izenpe Mobile apparen gaineko kexaz Izenpetik Behatokiari emaniko erantzuna. Bada, kexa berretsi beharrean naiz. Appa deskargatu berria da, hortaz, nire ustez azken bertsioa beharko... Mobila ere berria dut, hilabete gutxi ditu, eta euskaraz konfiguratutik dago hasiera-hasieratik. Appa zabaltzean erdara hutsezko pantailaldia ageri da, eta seguru nago neuri bezala pertsona orori gertatuko zaiola. Gainera, konturatu berri naiz honetaz: duela urte bi eta erdi ere ---2021eko maiatzaren 8an--- erreklamazioa egin nuela honetaz... Konpondu behintzat ez zuten egin. Zertarako, ezta? Eta ez dira egiten ari. Edozer

erantzun eta aurrera. Total, euskaldun herritarrek duintasunik ez... Edozer erantzun eta aurrera. Total, euskaldun herritarrek duintasunik ez... Orain Izenpek bidalitako e-mailean, bestalde, ikusten da helbidea* batuan baino ez darabiltela, espainol batuan hain zuzen. Euskara ofiziala da bai ala ez? Euskaldunok zergatik bigarren edo hirugarren lerruneko herritar?.".

Dosierra: 949-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA - Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako zuzendaria

Arrazoa: Eusko Jaurlaritzako abisu emailak erdara hutsean jasotzen ditut, harremanetarako hizkuntza euskara ezarria dudan arren.

Dosierra: 972-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA - Zerbitzu zuzendaria-

Arrazoa: Gaur IKERFELekeen deia jaso dut. Kontsumo-azterketa bat egiten ari zirela Jaurlaritzarentzat. Gaztelaniaz zuzendu zatzaizkit. Euskaraz galdetuta erantzungo nuela esan diet. Zintzilikatu egin dute. Euskalduna arrotz bere etxean!

Erantzunak:

Plangintza, azterketa, informazio eta prestakuntzako arduraduna: kexari erantzunez, gertatutakoa ikertu ondoren, honako hau adierazten dugu: 1. Ikerfel merkatu-ikerketak egiten dituen enpresa bat da, eta Kontsumobideak kontratatu du "MODA SEKTOREKO KONTSUMO MODU BERRIEI" buruzko azterlan bat egiteko. 2. Enpresa horrek lan-protokolo bat du, euskararen erabilera bere zerbitzuen barruan hartzen duena, eta, gainera, nahitaez bete beharreko elementua da, plegu teknikoetan jasotzen den bezala. Azterlan horien galdetegi eta laguntza-tresna guztiak informatikoki programatuta daude, euskaraz zein gaztelaniaz aplikatu ahal izateko. 3. Telefono bidezko inkesta-plataforman lan egiten duten pertsonak badakite inkesta euskaraz zein gaztelaniaz erantzuteko aukera eman behar zaiela herritarrei. 4. Erreklamatazailerak adierazitako egunean (abenduen 23an) ez da telefonoinkestarik egin, eta, beraz, ezin izan da ikerketan aurrera egin, ezta enpresak egindako deien grabazioak berrikusi ere. 5. Nahiz eta enpresak kontrol-mekanismoak erabili prozesuak errespetatu daitezkeen, gerta liteke inkestatzaile batek prozesua zorrotz jarraitu ez izana, edozein kontroletatik kanpo dagoen giza faktore

bat dagoelako. Nolanahi ere, egindako kexan ematen zaigun informazioa nahikoa ez denez, ezin dugu kasu zehatz honetan sakondu. Hemendik gure ulermena eskaintzen diogu bere hizkuntza eskubideak urratzen ari zirela sentitu zuen pertsonari.

Aisialdia, Kultura, kirola (7)

Dosierra: 284-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARITZA

Arrazoia: KirolTxartela Mugiment appa darabilgun euskaldunok behin eta berriro ibili behar izaten dugun hizkuntza hautua berriro ezartzen. Izan ere, hainbat egunetan appa ez badugu erabiltzen, saioa amatatzen da. Orduan, berriro identifikatutakoan, interfazea erdara hutsean azaltzen da, nahiz eta "Configuración" agertu erabiltzailearen benetako hautua zein den: "Español" barik, "Euskera". Orduan hau konpontzeko, behar izaten dut "Español" hautatu lehenik, eta gero berriro jo "Configuración"-era, "Euskera" berriro hautatzeko. Horrela bere onera bueltatzen da euskal bertsioa. Hala behin eta berriro, eta urteak badira. App honen atzean Jaurlaritza, Araba-Bizkai-Gipuzkoetako Aldundiak eta autonomia-erkidego honetako udal piloa daude. Inori ere ez die ardura euskaldunok begirune tratatzea? Euskarazko testuak ere halamoduzkoak dira. Bost ardura?

Erantzunak:

Jarduera Fisikoaren eta kirolaren zuzendaria: Lau mugikorretan egin ditugu probak, arazoa erreproduzitzen saiatzeko eta euskara hizkuntza bezala mantentzen da aplikazioa erabiltzean. Ez dugu akatsa aurkitu. Erabiltzailearen mugikorrari lotutako arazoa dela ulertzen dugu (konfigurazioa, modeloa eta abar). Hala ere, hobetze aldera, bi aldaketa egin ditugu plataforman: 1.- App-ak erabiltzaileen logeoa aitortzen duen denbora luzatzea. Aste batetik urte betera luzatu dugu. App-a erabiltzen den bakoitzean, logeoa urtebetekoa izango da. Horrela, espero dugu erabiltzaileak berriro logeatu beharrik ez izatea, eta ez da arazorik sortuko euskara berriro konfiguratzeko. 2.- Web publikoaren atalak aldatuko dira, errazagoa izan dadin harremanetarako atalera sartzea.

Kirol zerbitzua: Bi aldaketa egingo dituzte plataforman: 1.- Aplikazioak erabiltzaileen logeoa onartzen duen denbora areagotuko dute. Astebete izan ordez, urtebete izango da. Duela egun batzuetatik hona, aplikazioan logeatuz (helbide elektronikoa/pasahitza) sartzen diren erabiltzaile guztiei logeoa urtebetez mantenduko die aplikazioak. Hau da, gaur logeatzen badute ktx erabiltzeko, aplikazioak logeoa gogoratuko du urtebetez. Aplikazioa erabiltzen duten bakoitzean, logeoa urtebetez luzatuko da. Horrela, erreklamazioa egin zuen

erabiltzaileak berriro logeatu beharrik ez izatea espero dugu, eta, hala, ez du euskara berriro konfiguratu beharrik izango. 2.- Webgune publikoko atalak aldatuko dituzte, harremanetarako atalera sartzea errazagoa izan dadin.

Dosierra: 482-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - KULTURA SAILA

Arrazoia: ekainaren 25ean (igandea) EAEko zinemetan 762 emanaldi izan ziren, horietatik 10 soilik euskaraz (%98,7 beraz gaztelaniaz eta %1,3 soilik euskaraz). Ikus entzunezkoetan euskararen presentzia handitzen ez bada, ze etorkizun izan behar du euskararen erabilerak? Eusko Jaurlearitza neurriak har ditzan eskatu nahi diot.

Dosierra: 518-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EUSKO JAURLARTIZA - KULTURA SAILA

Arrazoia: uztailaren 9an Euskal Herriko zinemetan (gehienak Euskal Autonomia Erkidegoan) 765 emanaldi eskaini ziren, horietatik 2 soilik euskaraz, beraz, emanaldien %0,26 soilik eskaini digute euskaraz. Eskaintza osoaren %99,74a gaztelaniaz egiten bazaigu, nola kontsumituko dugu euskaraz? Nahi eta ezin.

Dosierra: 595-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - TABAKALERA - KULTURA GARAIKIDEAREN NAZIOARTEKO ZENTROA

Arrazoia: Ikusmira Berriak proiektuan parte hartzeko baldintzen artean dossiera aurkezteko hizkuntza baldintzak jasotzen dira: Dossierren hizkuntzak: . Zinemagile gaztelaniadunak: nahitaezkoa gaztelaniaz . Zinemagile ez-gaztelaniadunak: ingelesez . Euskal Autonomia zinemagileak: euskaraz eta gaztelaniaz edo soilik gaztelaniaz Alegia, ingeles edo gaztelania hutsez aurkez dezakezu proiektuaren txostena. Euskara hutsez, ordea, ez. Lotsagarria, iraingarria eta are legez kanpokoa dira, batez ere erakunde eta diru publikoak tartean daudenean.

Dosierra: 598-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - TABAKALERA - KULTURA GARAIKIDEAREN NAZIOARTEKO ZENTROA

Arrazoia: Ikusmira Berriak 2024 proiektua garatzeko baldintzak argitaratu dituzte Donostiako Tabakaleratik. Ingeles edo gaztelania hutsez aurkez dezakezu

proiektuaren txostena. Euskara hutsez, ordea, ez. Euskararik ez dakien epaimahaia ere izango da (nazioartekoa dela esango digute) eta ondorioz, hori izango da gure pantailetara heltzen dena.

Erantzunak:

Tabakalera: Eskertzen dugu jasotako ohararazpena eta onartzen dugu, kexa jarri duen herritarrak dioen moduan, deialdiaren oinarrietan proiektua euskaraz aurkezteko eragozpena akatsa izan zela. Hori dela eta, dagoeneko jarraibide berriak ezarri ditugu Ikusmira Berriak proiektua sustatzen dugun hiru erakundeok (Tabakalera, Donostia Zinemaldia eta Elías Querejeta Zine Eskola) proiektuaren datozen deialdietan berriz gerta ez dadin, eta aurrerantzean proiektuak euskaraz ere aurkeztu ahal izan daitezen.

Dosierra: 834-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARITZA

Arrazoa: Basque Crossfit txapelketan aurkezleak gaztelania eta ingelesez soilik egiten zuen, euskaraz "txapelketa" hitza izan ezik, ez zuen hitz bakar bat erabili. Babesleen artean daude Bizkaiko Aldundia, Bilboko Udala eta Eusko Jaurlaritza. Nazioarteko ekimena izan arren gure hizkuntzak presentzia eta lehentasuna beharko luke. Sare sozialetan ere ekimenaren inguruko iragarpenak gaztelaniaz daude nagusiki.

Erantzunak:

Jarduera Fisikoaren eta kirolaren zuzendaria: Basque Crossfit txapelketaren antolakuntzarekin harremanetan jarri gara azalpenak eskatzeko. Jakinarazi digute ekitaldietan komunikatzeko hizkuntza euskara izaten dela, antolakuntza, musika, kartelak eta abar euskaraz izaten direla, talde guztiaren lan hizkuntza eta baita ahozko aurkezpenak hiru hizkuntzetan egin ere. Aurten, ordea, eguraldi alertak eraginda, egitarauan aldaketa ugari eta azken uneko egokitzapen potolo ugari egin behar izan zituzten. Ondorioz asteburuan zehar izandako lan gainkargarengatik, kirol-probaren aurkezleekin arazo bat izan zuten eta euskarak nahi baino presentzia gutxiago izan zuen azken sari banaketan. Barkamena eskatu zuten azken orduan mikroa hartu zuen pertsonak ez zuelako euskara menperatzen eta horregatik gaztelera eta ingelesa erabili zuten. Hala ere, hurrengo edizioetan orain arte bezala eta aurtengo akatsak konponduz, euskara erabiltzen jarraituko dute.

Dosierra: 918-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EUSKO JAURLARTIZA - KULTURA SAILA

Arrazoa: Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak argitaratu zuen 2228 zenbakiko agindua dela eta, 'mk2_Formulario-1_eus.xlsx' bete behar zen parte deialdian parte hartzeko. Bertan, gaztelaniazko eredu hartu dute baina hainbat hitz itzuli gabe gerara dira. Adibide batzuk ikusgai daude erantsitako artxiboetan: CAE, Navarra, Instrumento principal, Referencias musicales artísticas. Akats hauek Kultura eta Hizkuntza Politika Sail txit agurgarriak egitea ere!

Ekonomia, enplegua (9)

Dosierra: 11-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EKONOMIAREN GARAPEN, JASAGARRITASUN ETA INGURMEN SAILA

Arrazoa: Duela gutxi egin izan dut IT Txartel etsamina bat eta euskaraz. Dagoeneko testuek ez dute bazarretako itzulpen itzel zatarren kalitate maila. Zoriondu behar ote dut Jaurlaritzan lotsagabekeria horretan behingoan, hamarkadak igarota, aurrera egin dutelako? Zaintzaileak irakurtzen dituzten arauetan, honela ekiten diote: "Frogari buruzko [...]". Azterketak egiten goazenok ordenagailuetan irakurtzeko ditugun arauetan "froga" eta "proba" berbak ageri dira, nahasian. Eta "sesioa" hitza darabilte, "saioa" beharrean. Ez ote dira oinarri-oinarrizko berbak, eta egunero darabiltzatenak? Hau da hau maila! Berba hain arruntetan hori baldin bada maila, termino teknikoetan zer espero behar dugu? Zer froga eta zer froga ote?! Ba ote dakite zer den froga bat? Eta sesio bat?

Dosierra: 186-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - INDUSTRIA SAILBURUORDETZA

Arrazoa: Eusko Jaurlaritzako Industria sailburuordearen gutuna iritsi zitzaidan gaztelania hutsean martxoaren 4an. Euskadiko Kirol Portuak erakundearen gutun-azalean etorri da gutuna.

Erantzunak:

Euskadiko Kirol Portuak: Lehengo ta behin barkamena eskatzen dizugu sortutako arazoengaitik. Zure kexa gutuna aztertu ondoren, jakin arazi nahi genizuke nahigabezko hutsegite bat izan dela. Horrelakorik berriro ez gertatzeko apirilean egindako 2023ko lehen hiruhilekoari dagokion erakundearen urteko Kudeaketa Planaren jarraipena egiteko bileran, ezarritako hizkuntza-baldintzak zorrotz bete behar direla azpimarratu da, eta ekintza hori betetzen dela bermatzeko, erakundearen arloetako arduradunek gertuko jarraipena egingo diote.

Dosierra: 302-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

Arrazoa: Anaiak gutuna jaso du Jaurlaritzatik. Erdara hutsean ageri da Jaurlaritzaren helbidea: General Concha, 23 - 2º - 48010 Bilbao Badirudi ez dela aldi

bakana eta ausartuko nintzateke esaten ez dela kasualitatea, baizik eta zerbait sistematikoa. Izan ere, Lehendakariatzatiko gutunazalek eurek ere erdara hutsean dakarte helbidea, 249-2023 kexan salatutako moduan. Gero Jaurlaritzan diren agintariek euskararen ofizialtasuna eskatuko dute Europan eta Espainiako Estatuko parlamentu-ganbaretan... Bada, eurei diotset Franco aspaldi hil zela eta badela sasoa euskaldun herritarroei begirunea izateko.

Dosierra: 395-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - LANBIDE - Zerbitzu Zentralak -Zuzendari nagusia

Arrazoa: Lanbide Euskal [sic] Enplegu Zerbitzuaren webgunean BakQ bidez identifikatu gura izanez gero, derrigor gaztelaniaz egin behar da. Izan ere, "SARTU" sakatzean, erdaraz zabaltzen dira BAKQ bitartez identifikatzeko azaltzen diren orrialdeak.

Erantzunak:

Pertsonal eta Administrazio Arduraduna: Egoera aztertu eta gero konturatu gara lizenperen errua ez dela. Kasu honetan web orrialdeak (Lanbiderenak) Giltzara deitzen duenean ez du hizkuntza ondo aukeratzeko. Horrexegatik beraiekin jarri gara harremanetan arazoa konpon dezaten. Eskertu nahi dizuegu bidali diguzuen intzidentziaren berri emateagatik, gure zerbitzua hobetzen laguntzen diguzue eta.

Dosierra: 441-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - INDUSTRIA SAILBURUORDETZA

Arrazoa: Zornotzako IAT gunetik sms-a jaso dut, zelan ez, erdara hutsean: ITV de Zornotza/Amorebieta: ¡ Visite nuestra web y valorela ! <https://www.serviciositv.es/cita-previa-itv/vizcaya/amorebieta> Neure aldetik ahal dela ez dut gune horretara joko, euskaldun herritarrok mespretxatzen baikaituzte. Txarto tratatzen ez gaituzten guneren batera joaten segiko dut. Euskaraz ezin egin. Erdara inposatu. Doazela antzarrak ferratzera arrazistok! Dagoeneko 2023an egonda (Franco aspaldi hilik eta euskara ofiziala izanik ni jaio orduko) ez dut espero inongo konponbiderik Jaurlaritzaren aldetik.

Dosierra: 848-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HAZI -EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

Arrazoa: Arabako Errioxa sor-markaren sustatze iragarkia ikusi berri dut, iragarki euskarazkoa. Bertan botila bat ageri da, honela: "RIOJA / DENOMINACIÓN DE ORIGEN CUALIFICADA / RIOJA ALAVESA". Euskarak (euskaldunok, azken buruan) ez dugu tokirik? Iragarkian Hazi erakundearen eta Jaurlaritzaren logoak ageri dira.

Dosierra: 896-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - LANBIDE - Zerbitzu Zentralak -Zuzendari nagusia

Arrazoa: EAEko enplegu zerbitzuaren iragarki hau ikusi dut gaurko prentsan. Baita Interneten ere, banner formatuan. Itzultzaile automatikoa ote darabilte honelakoetarako? "Lege"? Ley > Lege... Ganora eta ardura handiagoa eskatuko nieke erakunde publikoei. Bai eta begirunea ere euskaldun herritarroi!

Dosierra: 916-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HAZI -EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

Arrazoa: Txio ordaindu erdara hutsezko hau azaldu zait. "La etiqueta lo dice todo" diote. Bada, bai, etiketa euskararobiaren adierazgarria da.

Dosierra: 935-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - INDUSTRIA SAILBURUORDETZA

Arrazoa: Telefono bidezko kontsulta egin nuen abenduaren 5ean Eusko Jaurlaritzaren Gipuzkoako Industria Ordezkaritzara. Arreta eman zidan pertsonak gaztelaniaz egin zidan, tarteka euskaraz hitzen bat edo beste nahastuz. Ni euskaraz zuzendu nintzaion eta ulertzen ote zidan ere galdetu nion. Baietz esan baino gaztelaniaz jarduten jarraitu zuen. Postaz bidali zidan dokumentazioa ere (tramitagunea) gaztelania hutsean dago.

Erantzunak:

Industria Administrazioaren Lurralde ordezkaria: Dirudienez, lurralde ordezkaria honetan ez ditugu bermatu hiritar baten hizkuntz eskubideak. Hiru urte daramatzat Lurralde Ordezkaritza lanetan etxe honetan, eta bigarren kasua da: gutxi, baina gehiegi aldi berean. Eskertuko dizut nire izenean barkamena eskatzen badiozu

hiritar horri. Neurri berririk hartu beharrik ez dago, izan ere, arreta zerbitzuko lankide guztiek gauza dira euskaraz nahiz gaztelaniaz aritzeko edonorrekin; belarrietatik tira egitea egokitzen zen, eta halaxe egin dut. Beste behin gertatuko ez delakoan, har ezazu nire agurrik beroena,

Euskara, hizkuntza politika (5)

Dosierra: 542-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EITB

Arrazoa: hauteskunde kanpainaren barruan, ETB1 eta Euskadi Irratian alderdi batzuen iragarkiak gaztelania hutsean emititu dira. 5/1982 Legearen 3. artikulua arabera euskara hutsezko hedabideetako publizitatea hizkuntza horretan izango da. Alderdiak kate horietan iragarkiak jarri nahi badituzte, iragarki horiek euskaratzeko betebeharra ezarri beharko lieke EITBk.

Erantzunak:

Estrategia eta Komunikazio Korporatiboko zuzendaria: Egia da 2023ko Hauteskunde kanpainako alderdi batzuk ETBra euren spotak gazteleraz soilik bidali dituztela, ez da lehenengo aldia, berez beste hauteskunde prozesuetan, hainbat alderdiekin, errepikatu den arazoa da. EITBren posizioa, katearen hizkuntza profila babestu asmoz, lehen momentutik ez emititzea izan zen eta partiduei beraien publizitatea euskeraz bidali dezaten eskatzea, baina emititu beharra gertatu zen expreski horrela agindu baitzuen Bizkaiko Hauteskunde Batzordeak, LOREG legearen baitan, 2019. urteak EITBtik eginiko kontsultari erantzuna emanaz.

Dosierra: 663-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EITB - KALITATE ZUZENDARIA

Arrazoa: Gure Eskuk Larrainen egin duen ekitaldiaren berri eman duten ETBko gaztelaniazko albistegian. Zuberoako herriari "Larrau" esan diote, frantsesezko izena erabiliz, baina txarto ahoskatuta. Zer zentzu du Euskal Herriko herri bati erreferentzia egiteko gaztelaniaz ari direnean frantsesezko izena erabiltzeak, txarto ahoskatu gainera? Ez ote da zentzuzkoagoa euskarazkoa erabiltzeak, gaztelaniazkorik ezean? Gainera, jakingo lukete ondo/hobeto ahoskatzen. Euskara/euskaldunok arrotz ETBn...

Dosierra: 697-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EITB - KALITATE ZUZENDARIA

Arrazoa: Euskal zinemari eskainitako "Zinea Zetaz" saioa hasi zen irailaren 14an ETB1en. Esperantza nuen 10 urteren ondoren euskarazko zinema saio bat egongo

zelako... baina lehen filma espainieraz bota dute! Sutu egin nintzen eta telebista itzali egin nuen.

Dosierra: 868-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EITB - KALITATE ZUZENDARIA

Arrazoa: Espainiako Presidentea izendatzeko kongresuko saioaren inguruko honako titularra irakurri dut EITBren orrialdean: "Feijook Sanchez: Zuri historiak ez zaitu amnistiaturko". inbestidura. Bere izenean 'Euskal' daukan erakunde batek ezin du horrelakorik egin milaka euskaldunen eskura jartzen den eduki batean eta gainera izenburuan...

Dosierra: 966-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EITB - KALITATE ZUZENDARIA

Arrazoa: EITBren Orain Berriak zerbitzuan izena emateko formularioan lurraldea aukeratzeko eskatzen dute, eta Bizkaiaren edo Arabaren parean "Iparralde" [sic] ipinita. Izatekotan, "Iparralde". Hizkuntza-zuzentasuna eta egokitasuna zaindu, mesedez. Euskaraz ari naiz...

Garraioa, mugikortasuna (8)

Dosierra: 50-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EUSKOTREN Bilbo

Arrazoa: Euskotreneko pantailetan euskara eskatu eta hasierako orria euskaraz agertzen bada be, erosketara pasatzen zarenean gaztelaniaz agertzen da

Dosierra: 171-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EUSKOTREN Bilbo

Arrazoa: Euskotrenen txartelak erosteko makinetan, euskara aukeratzeko dugunean, informazio guztia ez da euskaraz agertzen (adibidez, geltoki-izen batzuk edo datak) eta, gainera, euskaraz idatzita dauden zenbait testu ez dira zuzenak (adibidez, "atzeratua" botoia edo "egiteke" "ordaintzeke" beharrean).

Dosierra: 212-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EUSKO TRENBIDEAK - FERROCARRILES VASCOS S.A

Arrazoa: Usansolo tren-geltokiko komuneko pantailan agertzen diren mezuak gaztelaniaz baino ez daude.

Dosierra: 232-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EUSKOTREN -

Arrazoa: EuskoTrenen webgunean trenen ordutegiak begiratu ahal izateko, linearik linea (eta norabidea aukeratuz) jaitsi behar dira PDF-ak... Bada, esate baterako, "E1 Matiko-Amara" PDF-a jaitzita, Bizkaiko hiriburuaren izena hamaika aldiz ageri da erdara hutsean eta behin ere ez euskaraz. Esaldi hau ere ageri da: "Altzolan geldialdia burutzen dute [sic]".

Dosierra: 333-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EUSKOTREN -

Arrazoa: Euskotrenen aplikazioko geltokien informazioan geltokien helbidea gaztelaniaz agertzen da, aplikazioa euskaraz erabili arren.

Dosierra: 744-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EUSKOTREN Bilbo

Arrazoa: Euskotreneko telefonora deitzen dudana bakoitzean, (94 401 99 00 zentrala), erdaraz erantzuten didate. Egun on esan bezain laster "hablame en español" moztzen dit erantzuten duen langileak. Berdin da zein egunetan deitu. Inork ez daki euskaraz. Zerbitzu publikoetan arreta elebiduna eskaini behar da. Ulertezina da Bizkaia, Gipuzkoan, Araban eta Iparralden zerbitzua ematen duen Eusko Jaurlaritzako Enpresa batean bi hizkuntza ofizialak ez dakizkien norbaitek telefonoa hartzea.

Erantzunak:

Giza Baliabideetako Zuzendaria: Salatutako gertaerari buruz esan behar dugu deiari erantzun zion pertsona ez dela Euskotreneko langilea, eta, beraz, ezin zaio zuzenean eskatu euskara jakitea, nahiz eta egoera konpontzeko beharra adierazi zaion zerbitzu enpresari.

Dosierra: 750-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EUSKO TRENBIDEAK - FERROCARRILES VASCOS S.A

Arrazoa: Bilboko Zazpikaleak geltokian jarritako kartel batzuetan, idatziz jarritako informazio apurra gaztelaniaz baino ez dago. Edozeinek irakurtzeko kartelak izanik, horietako informazioa euskaraz ere egon behar litzateke.

Dosierra: 914-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EUSKO TRENBIDEAK - FERROCARRILES VASCOS S.A

Arrazoa: Euskotrenen Ariz geltokiaren sarreran (Catalunya kaletik sartuta) dagoen txartelak balioztatzeko makinaren pantailan gaztelaniaz baino ez dira azaltzen mezuak; txartela hurbiltzen dugunean, txartelaren hizkuntzaren arabera egiten du, baina txartela hurbildu arte, dena erdaraz.

Gizarte gaiak, politikak (6)

Dosierra: 78-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - BERDINTASUNA, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKAK

Arrazoa: EAE-ko Justizia Administrazioak ez du errespetatzen hizkuntza-eskakizuna egiaztatua eduki behar luketen plazak ordezkatzeko euskara egiaztatua izatea. Hau da, Eusko Jaurlaritza "errefortzurako kontratuen" bidez, euskara maila egiaztaturik ez duten pertsonak kontratatzen ari da hizkuntza-eskakizunen derrigortasun datak iraungita dituzten lanpostuetarako. Eibarko Justizia Jauregian, adibidez, 2022. urtetik hona 3 lanpostutan egin dute ordezkapena betetzeko eskaturiko hizkuntza-eskakizunak egiaztaturik ez dituzten pertsonen izendapena. Postu horiek derrigortasun data badute (2010 eta 2015). Badira Bergaran, Barakaldon, Elgoibarren ere kasuak. Egoera hauek gainditzeko neurriak eskatzen dizkiot dagozkionari. Laster lan poltsak eguneratu egingo dira, eta egoera berdinak errepikatu daitezke, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzuan eragin nabarmena izango duelarik.

Erantzunak:

Justizia Administrazio zuzendaria: Ez da egia Administrazio honek hizkuntza-eskakizunaren eskakizuna errespetatzen ez duenik derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna errespetatzen ez duenik derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak betetzeko. Horrela, Administrazio honek inola ere ez du izendatu hizkuntza-eskakizuna iraungita duen lanpostu batean, plazaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta ez duen pertsonarik. Hala ere, gertatu da ezinezkoa izan dela derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna esleituta duen lanposturen bat betetzea, barruti judizialen bateko lan-zerrendetan, ez dagoelako hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duen langilerik, edo, egiaztatuta eduki arren, une horretan plaza hor ez hartzea erabaki duelako. Kasu horretan, errefortzuko langileak izendatu dira ordeztutako pertsonak betetzen zituen eginkizunak betetzeko, baina horrek ez du inola ere herritarren hizkuntza-eskubideak urratu, eskubide horiek beti babestuta geratu baitira. Bestalde, aipatzen da litekeena dela egoera hori errepikatzea lan-poltsen hurrengo eguneraketan. Litekeena da egoera errepikatzea, baina, aitzitik, uste dugu lan-poltsetan langile berriak sartzan direnean, hizkuntza-eskakizunak egiaztatuta dituzten pertsona gehiago izango ditugula, eta horrek aukera emango

digu, behar izanez gero, lanpostu horiek eskatutako hizkuntza-eskakizuna duten pertsonekin betetzeko.

Dosierra: 153-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - BERDINTASUNA, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKAK

Arrazoa: Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak Bizkaiko espetxean (Basaurin) bi lanpostu izendapen askez betetzeko deialdi bana argitaratu du EHAAn. Bietako baten ere ez da euskarazko ezagutzarik eskatzen, baina eranskinetan argitaratutakoaren arabera, plazek ez dute hizkuntza-eskakizunik eta hori legez kontrakoa da EAEn, izan ere, plaza guzti-guztiek ezarrita ukan behar baitute hizkuntza-eskakizuna eta, dagokionean, derrigortasun-data ere ezarriko da (data igarotzen denetik maila hori egiaztatzea baldintza izango da lanpostua eskuratzeko).

Erantzunak:

Justizia Administrazio Zuzendaria: 2021eko urriaren 1etik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartuko du, bere eskumenen esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden espetxeen eta zigor-arloko gainerako betearazpen-zerbitzuen antolaketa eta kudeaketa, baita haien egitura organikoa eta funtzionala ezartzea ere. Eskualdatzen diren giza baliabideei dagokienez, eskualdatzen diren eginkizun eta zerbitzuei atxikitako langileak eta lanpostu hutsak Euskal Autonomia Erkidegoaren mende geratu ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuan eta kasu bakoitzean aplikatu beharreko gainerako arauetan aurreikusitako baldintzetan, eta langileen espedienteetan zehazten diren inguruabar berberetan. Horrela, EAeko espetxe-administrazioa osatzen duten lanpostuen egitura korporatiboa behin betiko zehazten ez den bitartean, dagokion lanpostu-zerrenda onartuta, beharrezkoa da hautaketa-irizpideak transferitutako langileen lanpostuen espezialitatera egokitzea, langile horiek transferentziaren aurretik zuten izaerari eusten baitiote. Eta Estatuko Administrazio Orokorretik datozen lanpostuak dinenez, horietako batek ere ez du hizkuntza-eskakizunik transferentziaren unean. Hala ere, espetxeetako LPZ sortzeko prozesua aurrera doa, eta, gaur egun, espetxeetako lanpostu guztien monografiak proposamenak daude. Proposamen horietan, esleitutako hizkuntza-eskakizuna ezarrita dago. Hori dela eta, lanpostuak betetzeko hurrengo deialdietan zehaztu da lanpostuari esleituko zaion hizkuntza-eskakizuna, eta adierazi da Lanpostuen Zerrenda behin

betiko onartzen den egunetik aurrera eskatuko dela. Era berean, espetxe-administrazioari atxikitako langileen lanpostu-zerrendako hizkuntza-eskakizunen derrigortasun-datak egiten ari den hizkuntza-normalizazioko planaren arabera ezarriko dira, kolektiboaren inguruabar espezifikoak eta iragankorrak kontuan hartuta.

Herritarren erantzuna:

Dosierra: 166-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EMAKUNDE

Arrazoa: Ikusi berri dut lehenengo aldiz Emakunderen 'Emakumeak gora' kanpainako iragarkia, ETB1en, 21:23an. Hau diote ahoz zein azpidatzita: "[...] Gerentzia-postuetan emakumeak % 6a [sic] bakarrik izatea [...]". Topatu dut kanpainaren webgunea <<https://www.emakumeakgora.euse> ta ikusi dut hiru direla bideo-formatuko iragarkiak. Guztietan ehunekoak adierazten dituzte euskara itxura duen moldean, itxura diot zeren benetako hezurdura ez da euskara. Zer dela-eta -a artikulua, gaztelaniaz "el" delako? Beharbada, alferrikako kexa izango da, eragingarria ez, zeren itzel zabaldua dago erdarakada hori. Eta, gainera, ausartzen naiz esatera (ia) inori ez diola ardura euskara benetan eta ganoraz erabiltzeak, eta ondo erabiltzea merezi dute gainontzeko hizkuntzek-hiztunek. Hori da, azken buruan, neure ustez, jendearen buruan dagoena: supremazismoa eta mespretxua edota autogorrotoa eta konplexuak. Edozelan ere, duintasun apurtxoren bat geratzen zaidalako, hona neure kexa, inon jasota geratu dadin, behintzat.

Erantzunak:

Idazkari Nagusia: Emakunderentzat benetan gai garrantzitsua da hizkuntzaren erabilerarena eta horrela islatzen da indarrean dugun gure Euskara planean eta gure egunerokotasunean ere. Eskertzen dizuegu gure kanpainan ehunekoen erabileraz egin diguzuen gomendioa. Sentitzen dugu benetan akatsa eta hau zuzentzen ari gara dagoeneko. Honela, hasi gara materialak aldatzen, eta bidaltzen dizkizuegun banner eta kartel hau honen adibidea dira. Benetan sentitzen dugu gertatutakoa. Kexa egin duen pertsonari gure barkamena eskatu eta hau zuzentzeko bidean gaudela ere jakinaraziko nahiko genioke.

Dosierra: 361-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - ALOKABIDE

Arrazoa: Alokabizi, Jaurlaritzaren etxebizitza eredu berriaren informazio iragarkia gaztelaraz dago. Euskaraz azpitoluekin baino ez dago. https://www.alokabide.euskadi.eus/contenidos/noticia/aa10_noticia_alokabizi/es_def/media/alokabizi_render_10.mp4

Erantzunak:

Zuzendari nagusia: Lehenik eta behin, adierazi behar dugu arrazoi duela kexa egin duenak: egia da, iragarkiaren bideoa gaztelaniazko ahotsarekin eman zen, euskarazko azpitoluekin. Bisitarako materiala prestatzeko presaka ibili ginen, ez genuen izan behar adina denbora, eta erabaki genuen gaztelaniaz ematea bideoa eta euskararen presentzia ziurtatzea azpidatzien bidez. Duela urte batzuetatik, Alokabiden urratsak egiten ari gara euskararen presentzia eta erabilera bultzatzeko eta bermatzeko; oso argi daukagu gure erabiltzaileen eta herritarren hizkuntza-eskubideak bete behar ditugula eta horiek ziurtatzeko ahalegina egiten dugu. Horrela, aurkezpen hartan erabilitako bideoa euskaraz ere ikus daiteke orain, eta ALOKABIZIren material guzti-guztia euskaraz eta gaztelaniaz prestatzen ari gara, ohi bezala, gure hizkuntza-irizpideen arabera euskarari lehentasuna emanda. Herritar horren kexari dagokionez, badakigu ez genuela zuzen jokatu eta gure hizkuntza-irizpideak bete, baina une horretan horrela jokatzeko erabaki genuen. Eskerrik asko kexaren berri emateagatik

Dosierra: 872-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - ALOKABIDE

Arrazoa: Alokabidek zein Gaztelagunek mezuak erdara hutsean helarazten dituzte nahiz eta harremanetan jartzerako orduan euskarazko pertsona batekin jartzea eskatu edota emailaz jasotako erantzun guztiak nahiz eta euskaraz bidali erdara hutsean bidaltzen dituzte. Hau da, Administrazio publikoak ez du euskarazko arreta ematen ez emailaz ez telefonoz.

Dosierra: 951-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - GAZTERIA ZUZENDARITZA

Arrazoa: gazteukera orrialdeko emailera idatzi dut "gaz@euskadi.eus" gazteon emantzipaziorako diru-laguntzen kontsulta egiteko. Euskarazidatzi diet noski, Haien erantzuna automatikoa izan da. Gazteleraz. Hauxe mezua: "Kaixo, Ongi etorri a GAZ, el servicio de acompañamiento a la emancipación juvenil. Esperamos poder ayudarte con tu consulta. Para ello, te voy a pasar un breve cuestionario diseñado para comprender mejor tu situación y necesidades, y así poder adaptar nuestras respuestas y servicios de manera eficiente y personalizada: <https://forms.office.com/e/BrSpVPGdZq> Cuando lo hayas rellenado avísame por favor y de esa manera continuamos con tu consulta. Gracias"

Erantzunak:

Gazteriako zuzendaria: Kasuaren berri izan ondoren, Gazteria Zuzendaritzatik hura aztertu eta honako hau egiaztatu da: - Kexa oinarritzen den kasuan ez da aipatzen herritarraren datua. Dena dela, erantzun mota ikusita, argitu ahal dugu erantzuna ez dela erantzun automatiko bat, baizik eta erantzun generiko bat. Mezu elektronik horretatik eta Gazteria Zuzendaritzatik kudeatutako helbide elektronik guztietatik, herritarrak erabilitako hizkuntzan erantzuten zaiola herritarrari. Beraz, gure ustez, kasu honetan mezuak erantzuten dituen pertsonak akatsez aukeratu zuen erantzunaren gaztelaniazko bertsioa, eta ez euskarazko bertsioa. - Akats puntual bat izan bada ere, akatas horren berri eman zaiela Gazteria Zuzendaritzako mezu elektronikoa kudeatzen dituzten pertsona guztiei, eta egiaztatu dela badakitela EAEko hizkuntza ofizialak erabiltzeko hizkuntza-irizpideak bete behar dituztela.

Hezkuntza (23)

Dosierra: 211-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EHU - BIZKAIKO CAMPUSA - Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea - DEKANOA

Arrazoa: Bilboko Sarrikoko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko euskarazko lerroko ikasleak gara eta EHUko Ekonomiako euskarazko lerroko ikasle batzuek salatu dute asteazkenetik Gastu Publikoa ikasgaia gazteleraz ematera behartu gaituzte. Sarrikoko fakultateko (Bilbo) ikasleak dira, eta bigarren mailako ikasgaia da Gastu Publikoa.

Dosierra: 300-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EHU - IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA

Arrazoa: EHUk eskaintzen dituen 65 ikerketa kontratuetatik 7 baino ez daude euskarazko tesiei zuzenduak. Besteetan aukera hori lausoagoa da. Gainera euskerazko tesien kasuan hainbat meritu zehatz eskatzen dituzte, beste 58 kontratuetan eskatzen ez dituztenak (gaztelera, frantsesez, ingelera...). Esan nahi dut, gaztelera tesia egitekotan, adibidez, hizkuntzarekin erlazioa duten parametroek ez dutela hainbesto pisurik. Beraz, nik uste egoera oso desorekatua dela, eta nahiko tristea ere EHU euskerazko ikerketa zaindu eta sustatu beharko lukeen instituzio publikoa dela kontuan izanik. Halaber, iruditzen zait interesgarria izango litzatekeela egoera ikustaraztea eta horren inguruko hausnarketa sakonago bat bideratzea. Izan ere, ondorioen artean ikasleentzako euskerazko materialen urritasuna legokelako.

Erantzunak:

Ikerketaren arloko errektoreordea: Euskal Herriko Unibertsitateko 2022ko ikertzaileak prestatzeko kontratazio deialdian 65 plaza eskaintzen dira eta horiek lau modalitateetan sailkatzen dira: - I Modalitatea: 50 baldintza berezirik gabe - II Modalitatea: 7 tesia euskaraz egiteko - III Modalitatea: 5 tesi UPV/EHUren eta Bordeleko unibertsitatearen arteko tutorekidetzan egiteko - IV Modalitatea: 3 tesi UPV/EHUren eta UPPAren arteko tutorekidetzan egiteko Modalitate bakoitzaren ezaugarriak webgunean argitaratuta agertzen dira. I modalitateak ez du zertan izan behar tesia gazteleraz egiteko, hautagaiak aukeratzen duen hizkuntzan baizik, aukeraketa hau laguntza eskatzerako orduan finkatu gabe. Gauza bera gertatzen

da III eta IV modalitateekin, tesia Bordeleko Unibertsitatea edo UPPAren elkarlanean egitea da betebeharra, eta ondorioz tesi horiek nazioarteko profila izaten dute. Baina modalitate horiek ez dute eskatzen hizkuntza bat edo bestea erabiltzerik, baita euskaraz egin daitezke inolako arazo gabe, eta horrela izaten da batzuetan. II modalitateari dagokionez, horiek zuzenean tesia euskaraz egiteko bideratuak dauden laguntzak dira. euskarari lotutako merituak gehienez 5 puntu dira I eta II modalitateetan. II eta IV modalitateetan ordea, euskara edota gaztelera ezinbestekoak dira nazionalitate frantsesa dutenentzat, eta nazionalitate espainola dutenentzat curriculumaren barne ebaluatzen da euskara, puntu-kopurua zehaztu gabe. Hortaz, euskararen pisua lau modalitateetan orekatuta dagoela uste dugu, batez ere I eta II modalitateak alderatzen ditugunean. Ondorioz, gure iritziz, II modalitatean baloratzen diren euskarari lotutako meritu gehigarriak, euskararen arloan egindako ekarpenak, euskararen mesedetan dela uste dugu. Bost puntu horiek euskarari lotutako meritu zehatzetara baizik, beste mota batzuetako merituak zuzenduta egongo balira, edo zehaztu gabe egongo balira, ebaluazio horretan euskarak izango lukeen pisua baxuagoa izango litzateke. Azkenik, idazkia helarazi digutenei kezka eta interesa eskertuz bukatu nahiko genuke erantzun hau. Erreflexio hori Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen Errektoreordetzan eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzan partekatzen dugun kezka da, eta horren ondorioz, Euskal Herriko Unibertsitatean euskaraz egiten diren doktorego tesien kopuruak gora egitea gure eginkizunen artean dugun helburuetako bat da.

Dosierra: 305-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA - LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARITZA

Arrazoa: Ordezko irakaslea naiz eta Hezkuntzako Bizkaiko ordezkariarekin, ahoz eta idatziz, hainbat hartu-eman izan ditut apirilaren 2. eta 3. astean. Arreta eman didanak euskaraz ez zekiela harreman guzti-guztiak gaztelaniaz egin behar izan ditut, beti neure lehenengo berba euskara izan bada ere.

Dosierra: 397-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - EHU - ARABAKO CAMPUSA - ERREKTOREORDEA

Arrazoa: EHUren Arabako Magisteritza fakultatean idazkaritzako tramite bat egitera joan nintzenez, euskaraz egin eta ulertzeko zailtasunak zituen, gaztelera jo behar izan nuen.

Erantzunak:

Arabako Campuseko Euskararen, Ikasleen eta Mugikortasunaren arloko Zuzendaria: Nahiz eta kexan aipatutako fakultatea Arabako Campusean egon, Euskara Zuzendaritza orokorrak kudeatuko du, horrela baitagokio. Edonola ere, Errektoreordetza hau prozeduraren egoeraren jakinaren gainean izango da eta, behar izatekotan, neurri osagarriak hartuko dira; herritarren hizkuntza eskubideak urratuak izan badira, horrelakorik berriz ez gertatzea espero dugu.

Hezkuntza eta Kirol Fakultateko dekanorde lehena: Dekanotza honek, idazkaritzan euskaraz arreta emateko neurriak hartu ditu; uneoro, euskaraz arreta eman dezakeen langile bat egon da. Gainera, neurri osagarriak hartuko dira herritarren hizkuntza eskubideak urratuak ez izateko.

Dosierra: 409-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - UNKINAKO HERRI IKASTETXEA -

Arrazoa: Usansoloko Unkinako Ikastetxeko ama naiz. 2023-05-15ean (15:05an) zuzendaritza taldetik LH 4, 5 eta 6ko gurasook "HEZIKETA EMOZIONALA BABES FAKTORE BEZALA" hitzaldian parte hartzeko gonbitea jaso genuen; hitzaldia Galdakaoko Udala, Unkinako Ikastetxea eta Sasoia SL enpresaren arteko elkarlanaren ondorioa da. hitzaldira izena eman aurretik, 2023-05-16ean (8:19:47etan) dudak nituen zuzendaritzara mezua bidali galdera huekin: 1- Hitzaldia euskeraz izango da?. 2-Ordu biko iraupena izango du? Maiatzaren 18an zuzendariaren mezua jaso nuen, non zera aipatzen didan "Egunon, hitzaldia emango dutenekin harremanetan jarri gara eta euskeraz izango dela ZIURTATU digute. Iraupena 2 ordukoa izango da. Besterik barik ". 2023-05-24, heldu da hitzaldi eguna, hitzaldia hasi da hizlariak (neska gazte bat) hasierako agurrak egiten ditu eta jarraian zein hizkuntzatan nahi duzue ematea hitzaldia?. Ama batek "en castellano", nik mesedez euskeraz ere izan daiteke, hau da bi hizkuntzatan?. Hizlaria isilik gelditzen da eta bat-batean hizketan hasten da, hasieran zerbait euskaraz esaten du (nano segundo bat) baina gero hitzaldi guzti-guztia erdara

hutsen, 120 minutu, bi ordu oso osorik erdaraz, nire eskaera kontutan hartu gabe, euskera erabat baztertuz. Hizkuntzaren erabateko urraketa eman da, hizlariari bost axola izan zaio nire eskaera, euskal eskola publiko batean honelako jarrera bat ezin daiteke onartu, hau bidegabea da.

Dosierra: 414-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - BERRITZEGUNE NAGUSIA

Arrazoa: EAEko Berritzeguneetan hurrengo ikasturtean lan egiteko deialdian lana ahoz defendatzeko jarraibideetan "defentsa ahal bada euskaraz egingo da" esaten da. Hau da, erdaraz egin ahalko dutela aurkezpena. Aurreko deialdian "defentsa euskaraz egingo da" zioen. Lanpostu horietan euskarazko hizkuntz gaitasuna ezinbestekoa da, beraz, atzerapausoa zerbitzu horiek behar bezala betetzeko gaitasun egokia duten neurtzeko. Atzera egin eta defentsa euskaraz egiteko betebeharra ezartzea eskatzen dut.

Dosierra: 433-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - N.S. EL PILAR LHI

Arrazoa: El Pilar Eskola Publikoko patioan ari dira une honetan jaia ospatzen*, hainbat joko eta jolasgunetan banatuta. Megafonia potentean ozen, GAZTELANIA HUTSEAN goiz osoan. *Eskolaren kurtso amaiera aurreko jaia, suposatzen dut, hori ez dakit ziur. Ez da lehen aldia euskara hain presentzia urria duena halako jaietan eskolan, baina gaur bezain lotsagarri, gutxitan!

Dosierra: 463-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - AZPIEGITURA, BALIABIDE ETA TEKNOLOGIA ZUZENDARITZA

Arrazoa: Hezkuntzak, gure semearen inguruan betetzeko dokumentu bat helarazi digu eskolaren bitartez. Dokumentua, ele bitan dago, baina euskarazkoak hainbat akats onartezin ditu. Neroni irakaslea izanik ere, dokumentu ugari jasotzen ditugu euskara nardagarri batean. Nabaria da dokumentu horien jatorrizko hizkuntza gaztelera dela eta itzulpenak ordenagailu batek egiten dituela, edo bertako itzultzaileek ez dutela euskara maila nahikoa dokumentu hauek itzultzeko.

Erantzunak: Hezkuntza-laguntzako berariazko premien arduraduna: Bidalitako kexa irakurri dut eta argi dago gaztelaniaz eta euskeraz ez duela gauza bera esaten. Dokumentu hau aztertuko dugu eta eguneratuko dugu.

Dosierra: 495-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - SAILBURUA -

Arrazoa: Ekainaren 29an, Hezkuntza Sailak Heziketa Bereziko hezitzaileentzat urte bukaerako ikastaroa antolatu du. Ikastaroa bide telematikoetatik eman da, eta hezitzaile guztiak zeuden bertan parte hartzera deituak. Ikastaroa gazteleraz egin da bere osotasunean. Gogor salatzen dugu EAEko Hezkuntza Sailak Heziketa Bereziko hezitzaile euskaldunentzat formakuntza gazteleraz planteatu izana. Langile euskaldunen hizkuntza eskubideak urratu dituzte beste behin ere. Eskola publikoa erabat euskaldundu behar dugu. Hizkuntza eredutik formakuntzaraino! ASKI DA, HEZITZAILEEN FORMAKUNTZA EUSKARAZ!!! EAEko HEZKUNTZA SAILAK BERRIRO ERE HEZITZAILE EUSKALDUNEN HIZKUNTZA ESKUBIDEAK URRATU DITU.

Erantzunak:

Aniztasunerako eta hezkuntza inklusiorako zuzendaria: Lehenik eta behin, kexa jarri duen herritarrari adierazi nahi diogu arretaz irakurri dugula idatzian jasotakoa eta, bide batez, eskerrak eman nahi dizkiogu herritarrei eskaintzen diegun zerbitzua hobetzeko balio baitu. Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzua hainbat Zuzendaritzetako aurduradunekin jarri zen harremanetan, eta hau da helarazi diguten erantzuna: "Berritzegune Nagusiak GAUTENARI eskatu zion hezitzaileen prestakuntza ikastaroa antolatzeko GAUTENAK APNABIK ere parte hartzea proposatu zuen. Proposamen hori oso egokia iruditu zitzaigun lurralde desberdinetako ekarpenak eta esperientziak eskaintzen baitziren. Prestakuntza ikastarioa GAUTENAKO adituak euskaraz eman zuen bere hitzaldia eta APNABI elkarteak, aldiz, gaztelaniaz. Entzuleek aukera izan zuten galderak euskaraz egiteko, ikastarioaren bi egun horietan. Horrez gain, helarazi den dokumentazioa ele bietan dago". Bildutako datuen arabera, ikastaroaren zati bat gaztelania hutsean izan zen aditu horrek euskaraz ez zekielako, baina aditu hori ekartzeko aukera lehenetsi zen prestakuntza ikastarorako izan zezkeen garrantziagatik. Edonola ere, aurrerantzean aldibereko interpretazio zerbitzua eskaintzeko ahalegina egingo da. Aurrerantzean hizkuntza-eskubideen urraketa egon dela

ondorioztatzen badu herritarrak, eskertuko genuke berriro ere horren berri emango baligu.

Dosierra: 627-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA - LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARITZA

Arrazoa: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza saileko Ordeztagunea plataforman (irakasle ordezkoek plazak aukeratzeko erabiltzen dugun webgunea; <https://ordezkagunea.euskadi.eus/>) honako esaldi hau azaltzen da euskaraz, ulertezina dena: "Ordeztagunean ez dago plazak bakardadean sartzeko zerrenda loturarik." Gaztelaniaz honako hau jartzen du: "No está asociado a ninguna lista con acceso a la solitud de plazas en Ordeztagunea."

Erantzunak: Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza: Informatikariek baieztatu digute kexan agertzen den itzulpena zuzendu dela.

Dosierra: 698-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - ZABALGANA ESKOLA HLHI

Arrazoa: Umeak Zabalgana Eskolan ditugu, urtero beka eskatzeko paperak umeei ematen dizkiete eta gurasook jaso egiten ditugu, sinatu eta bueltatzeko. Aurten, iaz bezala, bekaren eskaera orria gaztelania hutsean iritsi zaigu (guri eta beste euskaldun familiei) beka eskaeran abisuak euskaraz jaso nahi ditugula argi zehaztu dugun arren. Iazko beka eskaera itzultzean postit batean jakinarazi zitzairen euskaraz jaso nahi genuela, baino argi dago Zabalgana eskolan gauden familia euskaldunen eskubideak bigarren mailakoak direla eskolarentzat, aurten inprimakia berriro gaztelaniaz bidali digutelako.

Dosierra: 736-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARITZA

Arrazoa: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak antolaturiko merezimendu-lehiaketaren baitan, funtzionario izateko eskubidea aitortu dit saila. Funtzionario izaera lortzeko, ezinbesteko tramitea da mediku-azterketa gainditzea, Hezkuntza Sailak esandako medikuarekin gainditu ere. Niri, Hezkuntza Sailak Quirón

Prevención enpresak Gasteizen duen egoitzan eman zidan sailak hitzordua, 2023ko irailaren 27rako. Egun horretan Quirón Prevención-era agertu nintzen, baina ez zidaten mediku-azterketa euskaraz egiteko aukerarik eman: niri egokitu zitzaidan langileak ez zekien euskararik; nik hala eskatuta, gainerako langileei ere galdetu zien, ea euskaldunik ba ote zegoen, baina mediku-azterketa egiten duten langileen artean ez zegoen euskaldunik. Gauzak horrela, ez nuen mediku-azterketa egin, eta erreklamazioa jarri nuen Kontsumobiden. Ondoren, irailaren 28an, Hezkuntza Sailari idazki bat helarazi nion, zeinean eskatzen nion hitzordua eman ziezadala, merezimendu-lehiaketaren baitan nahitaezko tramitea den mediku-azterketa euskaraz eta Gasteizen pasa ahal izateko, bertan baititut bizitokia eta lantokia. Hezkuntza Sailaren menpe dagoen institutu publiko bateko irakaslea naiz. Hurrengo egunean, irailaren 29an, Quirón Prevenciónen mezu bat jaso nuen, gaztelania hutsean, enpresa horrek bidalitako gainerako komunikazio guztiak bezala. Horren bitartez, hitzordua ematen zidaten, urriaren 27rako, Beasainen (Gipuzkoa). Bestetik, urriaren 2an Hezkuntza Sailaren erantzuna jaso nuen, hauxe esanez: "Posta elektronikoz jaso duzun bezala, azterketa medikoa euskaraz egiteko hitzordua duzu Beasainen, urriaren 27an, 13: 00etan". Hau da, Hezkuntza Sailak badaki Gasteizen ahalegindu nintzela mediku-azterketa pasatzen, baina ez nuela gaztelaniaz egin gura izan, eta badaki mediku-azterketa hori euskaraz pasatzeko eskubidea dudala. Baina: 1. Egoki irizten dio mediku-azterketa hori euskaraz pasatzeko aukerarik ez ematea Euskal Autonomia Erkidegoko bigarren hiri handienean. 2. Egoki irizten dio zerbitzu hori azpikontratatu zuenean betekizunen artean hautagaion hizkuntza-eskubideak errespetatu beharra ez jasotzeari eta, ondorioz, Gasteizen zerbitzua euskaraz ematerik ez duen enpresa bat kontratatzeari. 3. Egoki irizten dio gasteiztarroi mediku-azterketa gure hirian pasatzeko aukera ematea, baina bakarrik gaztelaniaz bada, nahiz eta 10/82 Legeak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzakoak, hauxe dioen: "4. artikulua. Herri-aginteek Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza dela-eta inor diskriminatu ez dadin zainduko dute eta neurri egokiak hartuko dituzte". 4. Egoki irizten dio merezimendu-lehiaketa publikoaren baitan nahitaezko tramitea den mediku-azterketa euskaraz egin nahi duen hautagaia beste herrialde batera bidaltzeari, nahiz eta 10/82 Legearen 5. artikulua propio jasotzen duen herritarrok euskaraz egiteko eskubidea dugula eta, 3. puntuan, hauxe zehazten duen: "Herri-aginteek eskubide hauen erabilera ziurtatuko dute Autonomia Erkidegoaren lurraldean,

eraginkorrak eta benetakoak izan daitezten". 5. Egoki irizten dio, mediku-azterketa euskaraz pasatzeko eskubidea gauzatu dadin, herritarra joanarazteari beste herrialde batera. Berriz, desegoki irizten dio nahitaezko tramite horretarako azpikontratatu duen enpresari eskatzea bere langile elebidunek hautagaion hizkuntza-eskubideak Gasteizen ere berma ditzatela. 6. Egoki irizten dio, azkenik, honako mezu hau zabaltzeari: "Gasteiztarrek baduzue administrazioarekin euskaraz egiteko eskubidea, baina baliteke Gipuzkoara joan behar izatea horretarako".

Erantzunak:

Langileak kudeatzeko zuzendaria: Salbuespenezko egonkortze-prozesuaren deialdian jasotzen den bezala, azterketa medikoa hautaketa-prozesuaren parte da. Hezkuntza Saileko Prebentzio Zerbitzuak edo hark eskuordetutako pertsonak egin behar du azterketa mediko hori. Hiru lurraldeetan, Prebentzio Zerbitzu honek azterketa horiek egiten ditu, baina Araban azterketa egin behar zuen medikuaren laneko bajak premiazko kontratazioa egitera behartu du, azterketa horretarako ezarritako epeak bete ahal izateko eta egonkortzeko salbuespenezko prozesua amaitu ahal izateko. Arabako medikuaren absentsia luzea aurreikusten zenez, eta laneko medikuaren kategorian hautagairik ez zegoenez, ordezkapena ezin zen ohiko bideetatik bete, eta premiazko kontratu bat egitea erabaki zen. Kontratu hori Gasteizko Quirón enpresari esleitu zitzaion. Lehen aipatutako deialdian ez da adierazten osasun-azterketa lurralde jakin batean egin behar denik, erreferentzia gisa lantokia, bizilekua edo beste alderdi batzuk har baitaitezke, hala-nola ordu-erabilgarritasuna. Kasu honetan, langileak arreta euskaraz jasotzeko eskubidea du, eta, beraz, bere eskaera hizkuntza-eskubideak bermatzeko izapidetu da. Horrez gain, Hezkuntza Sailak osasun-azterketarako garraio-gastuak ordaintzea eskaini dio erreklamatzaileri, egiaztagiria aurkeztu ondoren.

Dosierra: 748-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - Berriz BHI BIGARREN HEZKUNTZA INSTITUTUA

Arrazoia: Nire semeak Berrizko instituan ikasten du 4 mailan dago. Aurten etorri den irakasle berri baten Euskara maila badirudi nahiko bajua dela eta lehen egunetan klaseak españolez ematen omen zituen. orain badirudi Euskara gehiago erabiltzen duela baina ez klase osoan. Ikastetxean izan genuen kurtso hasierako

bileran gai hau atera zen baina gure semearen tutoreak esaten zuen, gai honen inguruan ez dagoela ezer egiterik..

Erantzunak: Zuzendaritza Taldea: Guraso horrek aipatzen duen irakaslea, guraso-tutore bilera izan zen astea baino bi lehenago heldu zen gure ikastetxera. Bi aste horietan, gugana inor ez zen hurbuldu adieraztera irakasle horrek azalpen batzuk gazteleraz ematen zituela, ez gurasorik, ez irakaslerik, ez ikaslerik. Izan ere, norbaitek esan izan baligu hau gertatzen ari zela, guk segituan moztuko genuen. Gure ikastetxeak, euskararen, herri curriculumaren eta euskal herritartasunaren aldeko apustu gogora egin du datozen lau ikasturteei begira, Zuzendaritza Proiektuaren ardatz direlarik. Beraz, hau hasieratik jakin izan bagenu, ez ginen egoera honetan egongo. Bestetik, kasu hauetan ez dagoela ezer egiterik esatea, ez da zuzena. Hitz eginda, gauzak argitu egiten dira. Zuzendaritza taldeak irakaslearekin hitz egin, eta hala ere, egoera aldatzen ez denean, horrek, beste prozedura bati ateak zabaltzen dizkio, eta orduan, gora jotzen da. Baina normalean, esan berri dudan legez, berba egin ostean, gauzak argitu eta konpondu egiten dira. Irakasle horrekin hitz egin dugu serio eta argi adierazi D ereduko ikastetxea izanik, ezin dituela azalpenak euskaraz eta gazteleraz eman. Irakasleak azaldu digu, ikasle perfil bati begira, asmo onez aritu dela horrela egiten, hauei ikasgaia ulertzen laguntze aldera. Argi adierazi diogu, D ereduko ikastetxea izanik, nahiz eta borondate onez izan den, ezin duela horrelakorik egin eta ikasle perfil horrekin, beste estrategia, metodologia, batzuk erabili beharko dituela. Komunikazio hizkuntza beti, eskola esparruan, euskara izan behar duela argi aierazi eta indartu diogu. Espero dugu, hala bada, irakaslearekin hitz egin ostean, egoera bere onera etortzea.

Dosierra: 752-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SAMANIEGO BHI INSTITUTU PUBLIKOA

Arrazoiak: Arabako Guardiako Samaniego BHI institutu publikoaren webgunearen euskarazko bertsioan, eduki asko eta asko gazteleraz daude.

Dosierra: 785-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARITZA

Arrazoiak: Datozen lerroetan Eusko Jaurlaritzaren Lakuako egoitzan izan nuen nire bizitzako lehen esperientzia kontatu nahi dut. Hezkuntzako oposaketak medio, tribunalean parte hartzea eta idazkari izatea tokatu zitzaigunoi bilera batera dei egin ziguten urriaren 19an, EPEko notak Jaurlaritzaren aplikazio batean nola erregistratu erakusteko. Sarreran bizi izan nuen gerora biziko nuenaren aurrerapena. Segurtasuneko langileak gaztelaniaz jo eta ke. Nire baitan pentsatu nuen, “ederki hasi gara”. Ondoren, sarrerako administrariarekin beharrezko gestioak eginda (euskaraz aritu ginen, bai) areto nagusirantz jo nuen, bertan elkartu behar ginen eta. Aretoko sarreran aplikazioa erabiltzeko jarraibideak banatu zizkiguten, paperean, paperean eta gaztelania hutsean. Arratsaldeak ezin zuela okerrera egin pentsatuta hartu nuen nire aulkia, esango zigutenaren zain. Hitzaldia hasi eta lehen hitzak, berriro ere, nire ama hizkuntza ez den beste batean. Ezin nuen sinetsi! Non eta irakasleoi zuzendutako Hezkuntza saileko bilera batean, portzentai handiengan gaztelanian! Sinesgaitza! Hala zirauen hitzaldiak, momentu batean nire lankide batek aukera baliatu eta hurrengo baterako materiala euskaraz banatzea eta hitzaldian euskararen presentzia areagotzeko eskatu zuen arte, gutxienez %50a bermatuz. Hizlariak, burua jeitsi eta errealitatea onartu beharrean, materialaren itzulpena egiteko denbora eza aipatu zuten eta haietariko batek, nahiz eta nire lankideak arrazoi zuela aitortu, horrelako eskaerak egitean kontuz ibiltzeko esan zion, denon eskubideak bermatu behar zirela eta. Non geratu ote ziren gureak egun hartan... ? Hortik aurrera, hitzaldian gaztelania are eta presentzia handiagoa hartu zuen. Amaitzeko, aipatu nahi dut EAEko auzitegi goreneko epaileak euskararen aurka oldartzen ari diren honetan eta lehendakariak sensibilidade gehiago eskatu dien honetan, bere etxeko atarira begira ere jarri beharko lukeela, inoiz ere berriro, euskaldunak, gure etxean, arrotz edo bigarren mailako herritar senti ez gaitezen.

Dosierra: 816-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - AZPIEGITURA, BALIABIDE ETA TEKNOLOGIA ZUZENDARITZA

Arrazoa: Ikasgunea <<https://ikasgunea.euskadi.eus>> delakoaren menuan hau da aukeretako bat: "Sarbide Frogen eskaera eta lehiaketak". Triste da gero Hezkuntza sailaren tresna batean "froga" hitza erabiltzea "proba" behar duenean. Bestalde, "Datu pertsonalak" atalera joanez gero, dena ageri da erdara hutsean. Zergatik?

Dosierra: 850-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - GIPUZKOAKO LURRALDE ORDEZKARITZA

Arrazoa: Nire semeari adimen gaitasun handiko protokoloa martxan jarri zaio. Proba ezberdinak egin dizkiote eta horiek (idatzizkoak zein ahozkoak) gaztelania hutsean izan dira. 1. Bere hizkuntza eskubideak urratzen dira. 2. Proben emaitzen fidagarritasuna ez dakit norainokoa izango den beretzat arrotza den hizkuntza batean egin zaizkio eta.

Dosierra: 878-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - GIPUZKOAKO LURRALDE ORDEZKARITZA

Arrazoa: Gure 12 urteko alaba, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Adimen-gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko Planaren barruan, ezaugarri hori duten ikasleak identifikatzeko protokoloan, bigarren fasean parte -hartzeko gonbidapena jaso eskutitz bat jaso genuen, Beasaingo Andramendi Ikastolaren bidez. Eskutitzean, gure alabak adimen gaitasun handiak izan zitzaizkela eta, ikastetxeko aholkulariak edo orientatzaileak proba osagarri batzuk erabiliz, 3. fase batera pasa ala ez ebaluatuko zutela jartzen zuen. Hirugarren fasera pasako balitz berritzeguneko aholkulariak beste proba batzuk erabiliko omen ditu ebaluazio psikopedagogikoa bukatzeko. 2. fase honetan, Ikastolan hainbat proba egin ditu, eta proba hauek GAZTELERAZ izan dira (matematikako proba izan ezik, berau ikastolan bertan itzuli dute). Ikastolara deitu genuen, eta Eusko Jaurlaritzak proba hauek (test homologatu batzuk dira), erostera behartzen dituztela eta hauek gaztelera bakarrik daudela erantzun zitzaigun. Kexa helarazi nahi genuke:

programa hau EAEko ikastetxe guztietako LH 2 maila eta DBH 1. mailako ikasleei bideratuta dago eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarena da.

Dosierra: 903-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - IKASGUNEA -

Arrazoa: Ikasgunea webgunearen euskarazko bertsioa nor edo zerk egiten du? Zer demontre da esaldi hau, adibidez? "Aurtengo ikasturte akademikoan ez dago zentro batean matrikulatuta". Hezkuntza sailak ez ote luke erudugarri izan behar?

Dosierra: 919-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARITZA

Arrazoa: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak argitaraturiko 'Preguntas_Frecuentes_CT_2023_24_e' agirian, behean erantsitako taula ikusgai dago, lekualdatze-lehiaketak direla eta. Badirudi gaztelaniazkoa hartu dutela eta erdia itzultzea ahaztu zaiela.

Erantzunak:

Langile-Hornikuntza: jakinarazten dizuegu dossier zenbakia:919-2023 eskaera zuzendu dugula. Bai web orrialdean bai gure barne informazio aplikazioetan. Barkatu eragozpenak.

Dosierra: 921-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - AZPIEGITURA, BALIABIDE ETA TEKNOLOGIA ZUZENDARITZA

Arrazoa: Hezkuntza Sailaren web-gunea eta irakasle eta hezitzaileen erabilerarako den Hezigunea ataria, defektuz gaztelera irekitzen da, nahiz eta norbere gailuan lehenetsitako hizkuntza euskara izan.

Erantzunak:

Langileriaren Kudeaketa zuzendaria: 1.- Heziguneari dagokionez 1.1 URL bidez sartzea: A- "Murriztua"ren bidez (hezigunea.euskadi.eus). Lehenetsita, lehen aldiz sartzen da euskarazko bertsiora. Hurrengo sarbideetan, Hezigunearen azken bertsio idioma- tikora sartzen da, aurretik erabili dena. B- URLen bidez, URL horietan "eus" edo "es" sartzen da, eta sartu denaren arabera, bertsio idiomatiko batera edo bestera eramaten dute zuzenean. 2.- Hezkuntza Saialren webguneari

dagokionez 2.1 URL bidez sartzea Hezkuntzako webgunean URL espezifiko bat dago euskarazko bertsio idiomatikora sartzeko (euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila), eta beste bat gaztelaniazko bertsiora sartzeko (euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-educacion/). (Home) Heziguenra eta Hezkuntzara nabigatzaileen bidez sartzeari dagokionez, adierazi nahi dugu informazioa eskuratzeko beti sortzen direla bi hizkuntzetan berezita. Ez da ahaztu behar atari horietara sartzeko hainbat modu daudela, eta ez daudela Sail honen kudeaketaren mende. Adibidez, bilatzaileak, nabigatzaileak, kanpoko orrialdeen estekak..., bilaketa horren emaitza alda dezaketenak. Ez dakigu nondik sartu zen kexa aurkeztu duen pertsona; beraz, ezin dugu datu gehiago eman. Adierazi nahi dizuegu edozein akats hautemanaz gero, eskertuko genizuekeela guri jakinaraztea, datu zehatzak emanaz, beharrezkoa izanez gero zuzendu ahal izateko, eta zuzenketa hori egitea Hezkuntza Sailari baidagokio.

Dosierra: 954-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - SAILBURUORDETZA -

Arrazoiak: Zapatuko Deiak Jaurларitza Hezkuntza sailaren orrialde beteko publizitatea dakar erdara hutsean. Erantsita duzue argazkia.

Dosierra: 969-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA - LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARITZA

Arrazoiak: Gure alabaren eskolan, D ereduko Luis Briñas Santutxuko Eskola Publikoan, badira jantokiko bi langile (gutxienez) euskarazko ezagutzarik ez dutenak, ondorioz, umeekin harremanetan gaztelaraz aritzen dira. Ikastexearen memorian bertan onartzen da ikasleen arteko euskera erabilera oso eskasa dela eta ez dela bakarrik jantoki orduetan gertatzen den arazoa.. Arazoa haundia da LHn. eta DBHn da.. Izan ere, LHn ez bi monitoren ez dakite euskeraz hitz egiten. Batzuetan enpresak bidatzen ditu euskeraz ez dakiten monitorenak.

Justizia (4)

Dosierra: 12-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - JUSTIZIA ZUZENDARITZA

Arrazoa: "Eskontzak", akats ortografikoa Bilboko Barroeta Aldamar kaleko ezkontzetako kartelean, gazteleraz txarto balego ziur aski azkar konponduko luketeela

Dosierra: 349-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - AZPEITIKO HAUTESKUNDE BATZORDEA

Arrazoa: Azpeitiako eskualdeko hauteskunde batzordetik mezuak gaztelania hutsean bidaltzen ari dira.

Dosierra: 400-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - JUSTIZIA ZUZENDARITZA

Arrazoa: Zaballako espetxeko ekonomatoko bulego nagusiko 4 giltzarietatik bat, iritsi berria dena, euskalduna da. Ez naiz inoiz joaten bulego horretara, baina joaten naizenean, berari zuzentzean euskaraz egiteko ohitura nuen. Horrela ari ginen lan kontuei buruz martxoaren 8an, beste lankide batek, giltzaria hau ere, modu autoritarioan agindu zidan arte errespetuagatik eta edukazioagatik espainolez egiteko. Men egin eta gazteleraz bukatu genituen egun horretakoak. Bertaratu nintzen hurrengo egunean zuzenean espainolez eman zidan egun ona euskaldun giltzariak. Erdaraz egiteko agindua eman ziguna bertan zegoenez, eta beste ezertan hasi aurretik, berari zuzendu eta erabili beharreko hizkuntza gaztelera dela dioen arau edo agindu idatzirik ba ote zuen galdetu nion. Ez zidan horren erantzunik eman, baina oso jarrera oldarkorra erakutsi zidan. Handik egun batzuetara, ekonomotako buruak deitu ninduen. Zuri-zuri baina argi azaldu zidan kartzelak gazteleraren alde egiten duen apustua. Zuzendariaren izenean eskatu zidan ez hedatzeko gertatutakoa; eta bulegoan gazteleraz egin nezan agindu, aitzakia merke bat erabiliz: euskaraz arituz gero eta zerbaitetan tronpatu, besteak ezin zirela ohartu, ezinezkoa eginez gu zuzentzea. Geroztik erdaraz egin behar izan dut bulego horretan eta giltzari iritxi berria herabe ageri da, baita bulegotik kanpo, euskaraz egiteko.

Dosierra: 408-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - JUSTIZIA ZUZENDARITZA

Arrazoa: Donostiako Zigor-arloko 5 zk.ko Epaitegitik eskutitza iritsi zait erdara hutsean.

Erantzunak:

Justizia Administrazio Zuzendaria: Azken hilabetetan, Justizia arloko sistema informatikoa erabat aldatu da, J-BAT izeneko aplikazioa utzi eta AVANTIUS aplikazioa ezarri. AVANTIUS aplikazio hau lehendik bete zenbait lekutan martxan dagoen sistema da eta erdara hutsean egon da. Gure eremuan ezarketari ekitearekin batera, sistema euskeratzen ari den talde bat martxan da. Hilabete batzuetan, aurreko sistemak euskaraz lan egiteko zituen funtzionalitate guztiak ezarriak izatea espero dugu eta ahal dela gehiago. Orduan orain arte bezala, komunikazio hauek elebiz aterako dira. Herritarren hizkuntz eskubideen urraketa dela jakitun, ahal den azkarren haiek bermatzeko lanean ari gara.

Lehendakaritza (5)

Dosierra: 48-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HAEE-IVAP HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Arrazoia: IVAPen Donostiako egoitzara joan naiz, segurtasuneko langileari euskaraz zuzendu natzaio eta, ulertzen ez zuenez, gaztelaniaz aritu behar izan dut.

Dosierra: 85-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

Arrazoia: Eusko Jaurlaritzak bere lan-legepeko langileen lanpostu-zerrenda aldatu du eta Zumarragako Ibaiondo heziketa-zentroko hezitzaileen plaza berriak sortu ditu. Plaza bakar baten ere ez da euskara jakitea derrigorrezkoa izango, heziketa-zentroan euskara normalizatzea ezinezkoa bihurtuz.

Dosierra: 135-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - LEHENDAKARITZA - BERRIKUNTZA SOZIALAREN ZUZENDARITZA

Arrazoia: Otsailaren 19ko eta 21eko Deian Eusko Jaurlaritzak erdara hutsezko publizitatea argitaratu du, elkarrizketa formatuan.

Erantzunak:

Berrikuntza Sozialaren zuzendaria: Aipatutako ekitaldian Eusko Jaurlaritzako ordezkariak izaniko partehartzea elebitan izan zen.

Berrikuntza Sozialaren zuzendaria: Eskerrik asko zure iruzkinengatik, kontuan hartuko ditugu zure gogoetak etorkizunean.

Herritarraren erantzuna: Kexan hau nioen: otsailaren 19ko eta 21eko Deian Eusko Jaurlaritzak erdara hutsezko publizitatea argitaratu du, elkarrizketa formatuan. Beraz, Jaurlaritzatik erantzuna leiturik kexa berretsi besterik ezin dut egin, ez baitio kexari inondik ere erantzuten. Salatzen nuen eta salatzen dut publizitatea erdara hutsean argitaratzea. Salatzen dut dirutza publikoa euskara eta euskaldunok baztertuz xahutzea”.

Herritarraren erantzuna: "Zure iruzkinak"? "zure gogoetak"? Badirudi ez diotela duen garrantzirik ematen edo eman gura. ez gabiltza izaki abstraktu baten gainean hitz egiten, herritarron eskubideez baizik, eta legedia betetzeaz. Hortaz, ganorazko

erantzuna eskatzen dut. Hartara, kexa besteri bideratzea, Jaurlaritzaren Hizkuntza politiketako arduradunei edo.

Dosierra: 249-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - LEHENDAKARITZA - KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA - IÑAKI AGUIRRE ARIZMENDI

Arrazoia: Jaurlaritzako lehendakaritzaren gutunazaletan helbidea erdara hutsean ageri da: "Navarra, 2"

Dosierra: 390-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - LEHENDAKARITZA - KOMUNIKAZIOARAKO ZUZENDARITZA

Arrazoia: Eusko Jaurlaritzaren 2021eko memorian, gaztelaniatik euskarara itzuli zuten antza dokumentua eta itzultzerakoan Y maiuskulak ETA bezala itzuli zituzten. ETAoutube bezalako kontzeptuak ageri dira euskarazko bertsioan, eusko Jaurlaritzaren dokumentu ofizialetan euskarari horrelako trataera ematea lotsagarria da.

Osasuna (57)

Dosierra: 30-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - BARAKALDO-SESTAO ESI

Arrazoa: Barakaldon ezinezkoa da "preparación al parto" ikastaroa euskaraz jasotzea.

Dosierra: 67-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - PAZIENTE ETA ERABILTZAILAEN ARRETA ZERBITZUA

Arrazoa: Sarna harrapatu dugu etxean eta atzo medikuarenean egon ginen eta gaur ere. Gaur, 14:40ak aldera, Osakidetzatik deitu digute semearen jarraipena egiteko (protokoloak hala eskatzen omen du). Gaztelaniaz hitz egin du deitu duenak, "Urnietan bizi den familia euskalduna gara eta euskaraz aritzea nahi dugu" eskatu diot. "No, no es posible, no hay nadie que hable euskera", "esto es lo que hay". Egin beharrekoa egin gabe geratu gara euskaraz ez zekielako.

Erantzunak:

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentea: Osasun zentroko Lehen Mailako Arretako unitateburuari eskatu diogu gertatutakoa argitzeko. Izan ere, Osakidetzan indarrean dagoen planean oinarrituta, hasierako agurrak euskaraz izan behar du eta, ondoren, erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan jarraitu behar du komunikazioak; profesionalak hizkuntza hori ez badaki, langileak berak eskatuko dio laguntza beste lankide bati. Hori guztia osasun zentroko langile guztiei gogorarazi zaie, gure erakundearen erabilera normalizatzeko planaren neurriak beteko direla bermatzeko. Tratu desagokia jaso duen erabiltzaileari gure barkamen eskaerarik zintzoena eskatu nahi diogu.

Dosierra: 84-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSATEK

Arrazoa: Osatek-ek, Osakidetzako zerbitzu erakundeak, 2022ko urte amaieran, OSATEKen 2023-2026 aldirako estrategia berrikusteko eta zehazteko prozesu berri bati ekingo diola jakinarazi die langileei. Ekintza honetan parte hartzeko, besteak beste, enpresak inkesta bat osatzeko langile guztiei bidaltzen die. Behin sartuta inkestaren loturan inkesta gaztelera hutsean agertzen da. Ondorioa: inkesta

erderaz egitera behartuak izan gara. Non daude hizkuntza-eskubideak? Kasu honetan, non daude langileen hizkuntza-eskubideei zor zaien errespetu edo begirunea?

Erantzunak:

Zuzendari kudeatzailea: Plan Estrategiko Orokor berriaren baitan dauden lan guztiak egiteko (diagnostikoa, inkestak, eztabaida-taldeak, elkarrizketak, txostenak, eta abar) enpresa bat kontratatu dugu, eta ziurtatu dugu ahozko zerbitzua eta dokumentazio orokorra euskaraz bermatzen zela. Baina behin kontratua eginda zegoela, eta langileentzako inkesta egin behar zenean, jakinarazi ziguten inkesta estandar bat zela, EAETik kanpo ere erabiltzen dutena, eta gaztelaniazko bertsioa baino ez zegoela. Hori dela-eta, OSATEKen jabetzen gara egindako akatsaz, eta espero dugu honek balio izatea aurrerantzean horrelakorik berriro ez gertatzeko.

Dosierra: 100-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA

Arrazoa: Semearekin Arabako Ospitale Unibertsitarioko kanpo kontsultetara joan naiz, oftalmologoaren errebisiora. Sartu eta berehala, zita eskatzeko makineta batean saiatu gara txandako tiketa hartzen. Errorea ematen zuen. Mostradorera joateko gonbidapena egin digu makinak. Beste makina batean saiatu gara, eta erantzun bera. Hirugarren batean, baina berdin. Etsita, mostradorera abiatu gara eta, zain geundela, gainerako erabiltzaileak tiketak normaltasun osoz lortzen ari zirela jabetuta, makinaren aldera bueltatu naiz laugarren saiakera bat egiteko asmoz. Hango langile bati galdetu diot, eta, gaztelera, ondoan genuen makinan saiatzeko erantzun dit. Oraingoan bai. Laugarrenean, tiketa lortu dut. Makinaren hizkuntza gaztelera zen. Ez dut EUS aukeratu. Gaztelera, lehenengo saiakeran eman dit tiketa. Bigarren pisura igo gara eta itxarongelan eseri gara. Ziten pantailara begiratu dut eta megafoniatik entzun dut hurrengo kontsultarako deia. «ADT cero, cero, cuatro; consulta doscientos diecinueve». Nire artean pentsatu dut lehenengo abisua gaztelera izanik, bigarren euskaraz izango zela. Bai zera! «ADT cero, cero, cuatro; consulta doscientos diecinueve». Hurrengo deiarekin, berdin. Bi abisuak gaztelera hutsez. Kontsultara sartu eta «egun on!». Hortik aurrerako guztia, gaztelera.

Dosierra: 133-2023**Nori:** EUSKO JAURLARITZA - OSATEK**Arrazoa:** Osatek-en webgunean sartu behar izan naiz, euskara hautatu arren, informazioa gaztelaniaz agertzen da.**Erantzunak:**

Osatek: OSATEK-i buruzko informazio guzti-guztia bi hizkuntza ofizialetan daukagu jarrita duela urtebete baino gehiago. Herritarrari gertatu zaiona agian lotuta dago erabiltzen den nabigatzailearekin edo ordenagailuarekin; izan ere, probatu berri dugu gure ordenagailuetan eta gehien-gehienetan ondo dabil. Baina gutxi batzuetan, euskarazko bertsioa lehenetsita izan arren, menu nagusia euskaraz agertzen da eta testua gaztelaniaz. Baina gaztelaniazko bertsiora irten eta berriro euskarazkora sartuta, orduan bai agertzen da den-dena euskaraz. Oraintxe bertan emango diogu akats honen berri Osakidetza, haiek kudeatzen baitute webgunea.

Dosierra: 150-2023**Nori:** EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - GALDAKAO-USANSOLO OSPITALEA - ZUZENDARI GERENTEA**Arrazoa:** Otsailaren 10ean Galdakaoko ospitaleko larrialdietara joan behar izan nuen senide bat laguntzera. Megafoniaz eman ziren mezuak gaixoei edo euren senideei abisuak emateko gaztelania erabili zuten, euskarazko mezuren bat salbuespena izanik. Gaixoen artean euskaldunak ere badaude. Errespetua eskatzeaz gain, legea betetzeko eskatzen dizuet.**Erantzunak:**

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari-gerentea: Megafonia bidez eman ohi diren mezuen hizkuntza trataerarena landu dugu bertako profesionalekin, behin baino gehiagotan. Zerbitzuko zenbait mediku euskaldunekin hitz egin dut, bete behin, eta zera dioste: Larrialdietako presio asistentziala dela eta, eta kontsultara sartu arte, ez dakitenez gero, artatuko duten pazienteak euskalduna ote den, balitekeela megafonia mezua gaztelania hutsez ematea eta, ondoren, pazienteak artatzen dutenean, bere aukerako hizkuntzan egitea. Euren betebeharrak gogorarazi zaizkie langile guztiei eta mezuak ele bietan eman behar direla gogorarazteko kartelak ere jarri ditugu.

Dosierra: 152-2023**Nori:** EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - PAZIENTE ETA ERABILTZAILAILEEN ARRETA ZERBITZUA**Arrazoa:** Otsailaren 22an, gure 15 urteko semearekin Tolosa Belate zentrora bertaratu ginen, ZIRUGIA sailera. Dagoeneko, Asunzion klinikan ohikoa den bezala, artatu zuen zirujauak ez zekien euskaraz, beste behin, gure hizkuntza eskubideak urratuz, eta, neurri haundi batean euskaraz bizi garen familia izanik, gure semeak zailtasunak izan zituen, benetan bere arazoa zein zen azaltzeko. Bada garaia gure eskubideak errespetatzen hasteko. Bai Osakidetza berak, bai itunduta dituen zentroek, urrats handi bat ematea eskertuko nuke.**Erantzunak:**

Giza Baliabideetako Zuzendaria: Argitu nahi dugu gure zentro mediko guztietan langile euskaldunak ditugula, eta pazienteak artatzen ari den medikuak euskaraz ez badaki, itzulpen lanak egin ditzaketela. Arreta euskaraz jasotzea eskatzen duten pertsona guztiei eskaintzen diegun zerbitzua da. Kasu zehatz honetan, pazienteak artatu zuen medikuak jakinarazi digu ez pazienteak ez gurasoak ez zutela inolako nahigaberik agertu gaztelaniaz artatuak izateagatik, eta ez zutela euskaraz artatuak izateko nahia planteatu ere egin. Hala egin izan balute, berriro diogu, erizain euskaldun bat sartuko zen kontsultan itzulpen lanak egiteko. Sentitzen dugu pazientearen eta bere gurasoaren atsekabea, eta eskatzen diegu, etorkizuneko antzeko egoeretan, esplizituki eska dezatela euskaraz artatuak izatea. Eta bermatzen dugu, medikuak berak hizkuntza menderatzen duelako edo itzulpen lanak egiten dituen pertsona bat dagoelako, euskaraz osasun-laguntza jasotzeko duten eskubidea baliatuko dutela.

Herritarraren erantzuna: Erantzun hau zer da, adar jotze bat? Tristeia eman didaten erantzuna, euskaraz nahi badut, eska dezadala itzultzailea....hasteko, nork esan digu aukera hori dagoenik ere? Niri behintzat inork ez....Lotsagarria eta negargarria erantzuna

Dosierra: 176-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - TXAGORRITXU OSPITALEA - PAZIENTEAK ETA ERABILTZAILERAK ATENDITZEKO ZERBITZUA

Arrazoa: Txagorritxuko ospitalean ama daukat ingresatuta. Bazkariarekin batera menu-orria ekarri zuten, eta bertan platerak ikus zitezkeen, lehenik euskaraz (ondo idatzita); eta gero, gaztelaniaz. Baina pertsona nagusi batek nekez ikusiko luke euskarazko bertsioa, hain letra txikiz egonda gaztelaniakoaren aldean.

Erantzunak:

Arabako ESiko langileen zuzendaria: Arabako ESiak aitortzen du ez dela bete Osakidetzako Euskarazko Estilo Liburuak zehazten duen irizpidea idatzizko komunikazioetan hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionez. Hori dela eta barkamena eskatu nahi diogu kexa aurkeztu duen pertsonari eragindako eragozpenengatik. Halabere, jakinarazi nahi diogu Dietetika zerbitzuko arduradunarekin harremanetan jarri garela egoerari konponbidea aurkitzeko asmoz. Zerbitzutik adierazi digute aldaketa hori egin dutela.

Dosierra: 185-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - GIZA-BALIABIDEETAKO ZUZENDARITZA

Arrazoa: Osakidetzak bigarren aldiz izendatu nau bere oposaketa baterako epaimahaikide. Bertan parte hartzeko prestakuntza bat egin behar dudala adierazi didate eta nik hala eskatu gabe beraiek izen eman didate ikastaroan. Aurrekoan esan nien ikastaroa euskaraz egin nahi nuela eta ia aukerarik ez ote zegoen. Ez zidaten erantzun. Oraingo honetan berriz galdetu diet. Ez didate erantzun eta ikastaroan izena emanda nagoela esan didate. Osakidetzak inor eskatu beharrik izan gabe eskaini beharko lituzke prestakuntza hauek (funtzioa bete ahal izateko derrigorrezkoak direnak batez ere) euskaraz eta Osakidetzarekin harremana euskaraz eduki nahi dugunoi, zuzenean euskarazko ikastaroa eskaini eta bertan izena eman.

Dosierra: 197-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - BASURTUKO UNIBERTSITATE OSPITALEA

Arrazoa: Osakidetzan osasun asistentzia eta era guztietako harremana euskaraz izateko aukera eginga dut. Hala ere, koloneko minbizia detektatzeko probaren

emaitza jakitera sartu naiz nire osasun karpetan eta emaitza gaztelania hutsean dago.

Erantzunak: Paziente eta Erabiltzailearen Arreta Zerbitzua: Jakinarazten dizuegu zuen oharrak Bilbo-Basurtuko ESiko Sistemen eta Antolamenduaren Zuzendariordetzara bidali ditugula, jakinaren gainean egon daitezete eta balora ditzaten. Era berean, adierazi digute arazoa antzeman dutela eta konpondu egingo dutela. Sentitzen dugu sortu ahal izan dizkizugun eragozpenak, eta eskertzen dizugu horren berri eman izana.

Dosierra: 199-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - Durangoko LANDAKO OSASUN ZENTROA

Arrazoa: Landakoko (Durango) osasun-etxeko lehen itxarongelan hiru kartel daude, berdin-berdinak, erdara hutsean, hirugarrena kontsulta bateko atean ipinita. Ehuneko hirurehun erdaraz. Ehuneko zero euskaldunondako. DRA. ADRIANA GASPAS / PASARÁ A PARTIR DEL DÍA 11 DE ENERO DE 2023 EN / CONSULTA 112 / SALA DE ESPERA 5

Erantzunak:

Durangoko Lehen Mailako Atentzioko Unitateburua: Lehenik eta behin onar ezazu gure barkamen eskaera jasandako egoeratik. Langile guztiak oharrarazita daude iragarkien erabilerari buruz. Izatez, gure idazkaritzan soilik egin beharreko betebeharra da.

Dosierra: 202-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - Durangoko LANDAKO OSASUN ZENTROA

Arrazoa: Kartela erdara hutsean dago Landakoko (Durango) osasun-etxean. Euskaldun herritarrok EAEko osasun-zerbitzu publikoan arrotz.

Erantzunak:

Durangoko Lehen Mailako Atentzioko Unitateburua: Lehenik eta behin onar ezazu gure barkamen eskaera jasandako egoeratik. Langile guztiak oharrarazita daude iragarkien erabilerari buruz. Izatez, gure idazkaritzan soilik egin beharreko betebeharra da.

Dosierra: 207-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - MENDARO OSPITALEA

Arrazoa: Orkatilako ebakuntza egin behar zidatelako martxoaren 7ko goizeko 8:00etatik 13:00era Mendaro ospitaleko eguneko ospitalean egon behar izan nuen. Harrera egin zidan erizain laguntzaileak ez zuen euskaraz ulertzen eta gero artatu ninduten bi erizainek ulertzen zuten, baina ez zidaten euskaraz egin; nik gehiena euskaraz egin nien eta beraiek gazteleraz. Ez nuen euskaldunik eskatu, ebakuntza aurretik ez nuelako nahi urduriago jarri nahi... Horretaz gain, bertan geunden 7 gaixo euskaldunontzat cadena Cien irrati-kate espainiarra zuten jarrita bolumen ozenean (amorruari eutsi ezinda, mesedez bolumena jaisteko eskatu nion gazteleraz erizain laguntzaileari).

Erantzunak:

Pazientearen Arreta Zerbitzua: Gaur egun Osakidetzan dugun profesional falta dela eta, euskarazko hizkuntza eskakizuna ez duten profesionalak kontratatu behar izan ditugu. Horixe gertatu zen ebakuntza egin zizuten egunean artatu zintuen erizain laguntzailearekin. Erizainei dagokionez, euskaraz hitz egiteko ondo moldatzen ez diren profesionalak ziren. Barkamena eskatzen dizugu, beste zerbitzu batetik joan beharko luketelako zeure lehentasunezko hizkuntzan artatua izateko. Jarritako irrati kateari dagokionez, zerbitzuko gainbegiralearekin hitzartu dugu egokiena musika baxu-baxu jartzea dela. Sentitzen dugu egoera horrek zuri eragozpenak sortu izana.

Dosierra: 217-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - BARRUALDE-GALDAKAO ESI

Arrazoa: Osakidetzaren Zornotzako anbulategian, infekzio baten ondorioz idatziz pasatutako oharra gaztelania hutsez, euskaraz eskatu nituen eta ez daudela esan zidaten.

Erantzunak:

Paziente eta Erabiltzailearen Arreta Zerbitzua: Egiatzatu ahal izan dugu emandako informazioa eskuragarri dagoela, gure sisteman, euskaraz ere. Barkamena eskatzen dizugu kontsultan euskaraz eman ez izanagatik. Gure profesionaleri gogoraraziko diogu euskarazko dokumentuak sisteman dauzkatela, baita nola eskuratu ditzaketen ere. Batzuetan, dokumentu horiek zelan lortu ez jakiteagatik gertatu ohi delako gaztelania hutsezkoa ematea. Aukera aprobeixatu nahi dut herritarrari

eskerrak emateko intzidentzia jakinarazteagatik, horrek aukera ematen baitigu akatsak zuzentzeko.

Dosierra: 226-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - SAN ELOY OSPITALEA

Arrazoa: San Eloy ospitaleko larrialdi zerbitzuan izan naiz gaur goizean. Harreran zegoen pertsona euskalduna zen baina ondoren artatu nauten erizainek ez ziren euskaldunak eta gaztelaniaz aritu behar izan dut. Arreta ematea zegokion erizainarengana iritsi naizenean euskaraz aritu nahi nuen galdetu dit. Baietz esan eta 20 minutu egon behar izan dut zain. Honek euskaraz artatu ondoren, beste batengana bideratu nau eta hau ere ez zen euskalduna.

Dosierra: 247-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - PAZIENTE ETA ERABILTZAILEEN ARRETA ZERBITZUA

Arrazoa: Gutuna jaso dugu Osakidetzatik aitaren hainbat hitzordutarako. Hainbat paper dira (espezialitatetarako kontsultak, erradiologia zerbitzurako bat ere tartean, bolante eta guzti) eta lehenengo begiratuan eman lezake elebidunak direla, baina nire ustez ez da hala, erdaraz beterik daude eta. Hala betetzen dituzte beti, sistematikoki. Orrialde horietako batean (bolantea), gainera, "E euskaraz" sinboloa. Ospitalearen helbidea ere behin ere berriro ageri da orrialde guztietan gaztelaniaz beterik, honela: Bº Labeaga, S/N / Tlf.: 944007000. Gurea ere erdara hutsean behin eta berriro. Gutunazalak Barrualde-Galdakao erakunde sanitario integratua delakoaren helbidea euskaraz dakar; baina, txarto, honela: "Labeaga Auzoa". Mesedez, irain gutxiago euskaldun paziente eta herritarroi.

Erantzunak:

Barrualde-Galdakako ESiko Kudeaketa Sanitarioko Unitatea: Hasteko, herritarrari barkamena eskatzea eragindako eragozpenengatik. Pazienteentzako diren era guztietako dokumentuak hizkuntza ofizialen trataera egokia izan dezaten lehenetsi eta gehienak hala dauden arren, bada oraindik moldatu behar denik, zuk zehaztutakoa, kasu. Pazientearentzako agiri guztiak hizkuntza bietan, egoki den eran, egon daitezten ekinean gabiltza, eta ahaleginduko gara halaxe egon daitezten, epe ahalik eta laburrenean. Bestalde, bolantean, dokumentu korporatiboa izaki,

Zuzendaritza Asistentzialari dagokio hori moldatzea, hortaz, eurei helaraziko diogu zuzen dezaten.

Dosierra: 285-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - TRANSFUSIO ETA GIZA EHUNEN EUSKAL ZENTROA

Arrazoa: Odol-emaileen deialdia izan da gaur Gipuzkoan. Erizain guztiek euskaraz bazekiten ere, medikuak ez zekien. Odola eman ote dezakedan jakiteko bere kontsulta derrigorrezkoa da, eta lehen hitza egin dudanean "no entiendo euskera" esan dit lehen unetik, eta ez dut interbentzioa euskaraz egiteko aukerarik izan.

Erantzunak:

Kalitate kudeaketa: Gipuzkoan kontratatzen diren langile guztiek euskaraz arreta emateko gaitasuna dute. Kasu honetan Brasileko mediku bat da, gurekin denbora gutxi daramana eta euskaraz batere hitz egiten ez duena, baina argitu diogu agurra eta lehen hitzak euskaraz izan behar direla. Orain oporretan dago baina itzultzean, jardunbide egokien bitartez, azalduko diogu nola esan odol-emailei hitz egiten ez dakiela baina ikasten joateko ahal duena egiten ari dela. Eskerrik asko zerbitzu hobe ematen laguntzeagatik.

Dosierra: 286-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSATEK

Arrazoa: Osatek-ek, Osakidetzako zerbitzu erakundeak, 2023 ko urte hasieran, OSATEKen eta Eusko Jaurlaritzan Euskararen erabileraren normalizazio-prozesuaren barnean plangintzaldi berri bati 2023.urtean hasiera ematen zaiola iragartzen du. Plangintza honeri hasiera emateko 2023ko urtarrilaren 25ean bilera egiten da eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Miren Dobaran andreak, hain zuzen ere, aurkezpena zuzentzen du. Agurrak aparte aurkezpena erdara hutsean izan zen. Beste behin hitzaldia erdaraz egitera behartuak izan gara. Non daude hizkuntza – eskubideak? Non dago Euskarari zor zaion errespetu eta begirunea?

Erantzunak:

Zuzendaritza Kudeatzailea: Kexan aipatzen den aurkezpena oso garrantzitsua izan zen OSATEKentzat eta helburuetako bat izan zen maila desberdinetako arduradunak bertan egotea eta eman zen informazioaren berri izatea. Arduradun horietako

batzuek ez dute euskaraz ulertzen eta horregatik erabaki zen honela jokatzeko: Bileretako deia, posta elektronikoz, bi hizkuntzetan edo euskara hutsean egin zen hartzailearen euskararen ezagutza-mailaren arabera. Bileran bertan, ahozko azalpen gehienak gaztelaniaz izan ziren. Bileran erakutsi zen Power Pointa euskara hutsean izan zen. Bileran, galdera eta ekarpenen txandan, pertsona bakoitzak nahi zuen hizkuntzan egin zuen. Bileraren ostean, euskara hutsezko Power Pointa bidali zitzaie egondako guztiei. Eskura dauzkagun baliabideak eeta egoera zein zen ondo aztertuta erabaki zen bi hizkuntzak horrela kudeatzea bilera horretan; hala eta guztiz ere, kexa baliatuko dugu hemendik aurrerako antzeko ekitaldietan berriro aztertzeko zein izan daitekeen aukerarik egokiena.

Dosierra: 308-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DONOSTIA OSPITALEA

Arrazoa: Donostia Ospitaleko kafetegiko jantokian bi telebista daude, eta bietan gaztelarazko kanalak egoten dira jarrita beti, kafetegiko langileek jarrita. Ospitale osoa, kafetegiko zerbitzua barne, euskararen erabilera normalizatzeko egitasmoaren parte omen denez eskatzen dut euskarazko kanalak jartzea.

Erantzunak:

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentea: Balorazio bat eskatu diogu kafetegiko arduradunari. Hark azaldu digunez, telebistak pizten dituztenean, horietako bat euskaraz emititzen den kate batean jartzen dute, eta, bestea, gaztelaniaz emititzen den kate batean. Kafetegiko erabiltzaileak dira egunean zehar haseira batean sintonizatutako kateak aldatzen dituztenak. Iritsi zaigun idazkia kontuan hartuta, erabaki dugu katea ez aldatzea eskatzeko kartel batzuk jartzea telebisten ondoan.

Dosierra: 309-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - GIZA-BALIABIDEETAKO ZUZENDARITZA

Arrazoa: Eusko Legebiltzarreko txosten honetan "Osakidetzako langileen hizkuntza eskakizunen betetze-mailari buruz". (12/10/07/02/02698-155) <https://www.legebiltzarra.eu>

/ords/f?p=120:35:111271180895399::NO:RP:P35_ID:345165 Osakidetzako lanpostuei ezarritako Derrigortasun Data ikus daitezke. Gipuzkoako Osasun Mental Sareari dagokionez, txostenean ikus daiteke zenbait kasutan erakunde horretan ez dela betetzen Osakidetzako III. Planak erakunde horretarako ezarritako

Derrigortasun Data ehuneko minimoak.
https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_ii_euskara_plana/eu_def/adjuntos/Osakidetza-Euskararen-Erabilera-Normalizatzeko-III-Plana.pdf (61. orrian) Adibidez, Haurren Psikiatriako Eibarko 25231 lanpostuak ez du euskara eskakizunik ezarria, eta Euskara Planaren arabera unitate horrek %100eko euskara eskakizuna izan beharko luke. Uste dut Gipuzkoako Osasun Mentaleko beste unitate batzuk ere ez dutela betetzen Euskara Planean ezarritako euskara eskakizunaren minimoak.

Erantzunak:

Kudeaketa zuzendaria: Adierazi behar dugu Haurren Psikiatriako Eibarko 25231 lanpostuak Derrigortasun data ezarrita daukala, eta unitateak %100 betetze maila du.

Dosierra: 357-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - URIBEKO ESIa

Arrazoiak: Maiatzaren 9ko goizeko 10ak dira, Urdulizeko ospitaleko larrialdietako itxarongelan gaude eta megafonia bidezko mezu guzti-guztiak gaztelania hutsean zabaldu dituzte. Hasieran pentsatu dugu harreraren arreta euskaraz edo gaztelaniaz egin dizuten kontuan hartuz zabaltzen dituztela megafonia bidezko mezuak hizkuntza batean edo bestean; baina, ez, guk harrerakoari euskaraz egin diogu eta honek, ahal zuen moduan euskaraz egin badigu ere, gero bozgoragailutik gaztelaniaz deitu gaituzte. Lotsagarria eta amorragarria, benetan, erakunde ofizial batek euskaldunoi hain begirune eskasa erakustea eta legedia bera urratzea.

Erantzunak:

ESI Uribe Pazientearen eta Erabiltzailearen Arreta Zerbitzua: Barkamena eskatu nahi diogu herritarrari. Maiatzaren 9tik gaur arte euskararen erabilera aztertzeko bisitak egin ditugu zerbitzu hartarra, eta indarrean jarritako neurri zuzentzaileei esker, orain mezuak ele bietan zuzentzen direla egiaztatu dugu. Herritarrari barkamena eskatu nahi diogu herritar legez aitortua duen eskubidea ez delako behar bezala kontuan hartu, eta Uribeko ESItik eskubide horiek bermatzeko bideak jarriko ditugula ziurtatzen dugu.

Dosierra: 363-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - BARRUALDEKO HAUR ETA NERABEEN OSASUN MENTALEKO ZENTRUA

Arrazoiak: ostiralean, bigarren aldiz, umearekin Galdakaoko UPIra joan nintzen bertako psikologoarekin egoteko. Bakoitzean psikologo bat izan dut eta ez bata ez besteak ez zekiten euskaraz. Umeek (eta bai nagusiek) bere emozioak azaltzeko dituzten zailtasunak ikusita oso larria iruditzen zait Osakidetzaren sailean euskarazko profesionalak ez izatea.

Dosierra: 382-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - BILBO-BASURTUKO ESI

Arrazoiak: Solokoetxeko anbulatoriora (Santutxu) aldatu naute eta pediatra ere aldatu behar izan dut. Pediatra Euskalduna eskatu eta administrazioan baietz. 3tik bat badela. Berarekin zita izan nuen atzo, maiatzak 15, eta gaztelera hutsean. Nik ea euskaraz ez dakien galdu eta berak: "no". Nik, administrazioan bera euskalduna zela eta horregatik beragaz hartu nuela esan eta bere erantzun bakarra: "pues no". Berririo esan anbulatorioko administrazioak berarengana bidali ninduela euskalduna zelako eta erantzun lehor bera. Administrazioa joan, egoera azaldu eta bertako erantzuna: "3 pediatrek perfila dute baina...ez dute egiten. Gainera falta dago eta kanpotik etortzen dabilta". Nire erantzuna, bai baina hauek perfila dute eta euskalduna zela esan zenidaten eta bere erantzuna gainera azalpen gabekoa soilik "pues no" bat lehor iruditu zaidala eta beste aukerarik ez didala eman". Administrazioa ez da harritu, agian ez naiz pediatra honen inguruan kexa eitera zioan lehena. Solokoetxeko anbulatorioan ez dago beraz euskaraz egingo dugun pediatra bat ere. 3ek perfila bai baina gero ez dute euskaraz arreta izateko eskubidea bermatzen? Nik eta nire haurrak euskaraz artatuak izateko eskubidea bermatua izatea nahi dugu.

Dosierra: 384-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DONOSTIALDEA ESI - ZUZENDARI GERENTEA

Arrazoiak: Errenteriako Lartzabal ambulategira deitu dut gaur, maiatzak 17, goizeko 08:30tan. Telefonoz erantzun didan neskek "ambulatorio de Larzabal, buenos días" esanez agurtu nau, gaztelera hutsean. Nik euskaraz hitz egiten hasita ere berak

gazteleraz jarraitu du, eta azkenean, egoera desatsegina eginda, gazteleraz hitz egitera behartua sentitu naiz.

Erantzunak:

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentea: Lehenik eta behin barkamena eskatu nahi dugu, pertsona horri ez baitzioten behar bezlako arreta eman. Emandako datuekin ezin dugu identifikatu deiari non erantzun zitzaien, Lartzabalgo Anbulatoriora egiten diren deiei bi kokalekutan erantzuten baitzaie. Bi zerbitzuetako arduradunekin hitz egin dugu, eta esan digute telefono-arreta ematen duten profesionaleri gogoraraziko dietela deiei erantzuteko erabili behar den hizkuntza euskara dela hasieran, eta kudeaketa euskaraz egiteko aukera eskaini behar dela beti. Barkamena eskatzen dugu ez baitzen errespetatu aukeratu zuen hizkuntzan artatua izateko eskubidea.

Dosierra: 387-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DONOSTIALDEA ESI - ZUZENDARI GERENTEA

Arrazoiak: Donostiako Alde Zaharreko anbulatorioan, harrera/informazio gunean langile bat (emakumezkoa, beltzarana, Hego Ameriketako azentua) dago euskaraz deus ere ez dakiena. Euskaraz egiteko eskubidea omen daukagu, baina euskaraz artatuak izan nahi badugu, beste lehiatila batera jo behar dugu, berriz ere itxoin, eta abar... Nola da posible lanpostu horretan euskaraz ez dakien norbait egotea?!!

Erantzunak:

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentea: Aipatzen duzun pertsona ikasle bat da eta aldi baterako dago zentroan administrazio-gradu bateko praktikak egiten. Oso gutxi daki euskaraz, egia da, baina errespetu handiko pertsona bat da eta ulertzen du erabiltzaileak hark nahi duen hizkuntzan artatua izateko eskubidea duela. Beraz, halako egoeretan, berak ezin duenez arreta egoki eman, euskaraz hitz egiten duen beste kide batengana bideratzen ditu erabiltzaileak. Halako kasuetan, libre geratzen den lehen pertsonak aratatzen du erabiltzailea, berriro inolako ilararik egin beharrik izan gabe. Barkamena helarazi nahi diogu kexa aurkeztu duen pertsonari, sentitu bazuen behar bezala ez zutela artatu.

Dosierra: 403-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DONOSTIALDEA ESI - ZUZENDARI GERENTEA

Arrazoiak: Dermatologia kontsultan medikuarekin euskaraz hasi nintzen hizketan Groseko anbulatorioan maiatzaren 8an. Baina, bigarren medikua (egoiliarra?) erdalduna zenez, esan zidan, denok ulertzeko gazteleraz hitz egin behar genuela.

Erantzunak:

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentea: Lehenik eta behin barkamena eskatu nahi dugu, pertsona horri ez baitzioten behar bezalako arreta eman. Zerbitzuaren arduradunarekin hitz egin dugu, eta esan digu profesionaleri gogoraraziko diela pazienteei haik aukeratutako hizkuntzan artatuak izateko eskubidea bermatu behar zaiela. Barkamena eskatu nahi diogu kexa aurkeztu duen pertsonari, ez baizitzaion errespetatu aukeratu zuen hizkuntzan artatua izateko eskubidea

Dosierra: 419-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - SANTIAGO OSPITALEA - Pazienteak eta Erabiltzaileak Atenditzeko Zerbitzua

Arrazoiak: joan den astean senarra Gasteizko Santiago ospitalean ingresatuta egon zen, neurokirurgia solairuan. 1. Gelan paper bat zegoen non arau orokorrak agertzen ziren. Erdara hutsean. 2. Korridorean beste txartel bat zegoen hondakinen kudeaketari buruz. Erderaz besterik ez. 3. Neurokirurgia zerbitzuaren sarreran, poster moduko bat (zaharra zela ikusten zen) "erizaintzako zainketen informatizazioa"-ri buruz. Dena gaztelaniaz baino ez.

Erantzunak:

Arabako ESiko langileen zuzendaria: Arabako ESiak aitortzen du, ez dela bete Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Legean eta eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko 4/2023 Legean ezarritako herritarren eskubidea. Hori horrela, barkamena eskatu nahi diogu kexa aurkeztu duen erabiltzaileari eragindako eragozpenengatik, eta bide batez, eskerrak eman nahi dizioгу bere laguntzagatik. Santiago Ospitaleko Neurokirurgia zerbitzuko arduradunekin harremanetan jarri, kexaren berri eman eta kartelak eta errotulazioari buruz Osakitzaren III. Planak zehazten duena gogorarazteaz gain, euskara zerbitzuko teknikariek kartelak jada euskaraztu dituztela eta ele bietan jarri dituztela. Azkenik,

egon daitezkeen kexak saiheste aldera, Euskara Zerbitzuak ospitaleko hainbat solairutako errotulazioa errebisatu du.

Dosierra: 450-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - TOLOSALDEKO ESI

Arrazoa: Atzo eguerdiko 14.00tan Tolosako anbulategian kontsulta nuen emaginarekin. Beno, eseri nintzen egun onak eman eta ondorengo kontsulta guztia gaztelara hutsean egin behar izan nuen. saiatu nintzen euskaraz egiten baina berak gaztelania hutsean egin zidan kontsulta iraun zuen bitartean.

Erantzunak:

Tolosaldeko ESiko Kudeaketa Zuzendaria: Sentitzen dugu une honetan profesional elebidun bat ez izatea gure zerbitzua eman ehal izateko. Kontrataziorako dauden profesionalen urritasuna dela eta, ezin dugu elebidun bat izan aldi batez. Hala eta guztiz ere, azpimarratu nahi dugu egoera hori aldi baterakoa izan dela eta Erakundea, zerbitzua biztanleriaren ezaugarrietara hobekin egokitzen den profesionalarekin betetzen saiatuko dela.

Dosierra: 460-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - TRANSFUSIO ETA GIZA EHUNEN EUSKAL ZENTROA

Arrazoa: Odol emailearen mundu-egunagatik Osakidetzaren Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroak bidali dizkigun bi agiriak gaztelania hutsean daude, hau da, odol emaile euskaldunok kontuan hartu gabe.

Erantzunak:

Kalitate kudeaketa: Euskara Zerbitzuaren akats baten ondorio izan zela zehaztu dugu, ezin duelako itzuli beste erakunde batek egindako testua eta bere logoak jarri. Eskerrik asko zerbitzu hobea ematen laguntzeagatik.

Kalitate kudeaketa: Indarrean dagoen neurria gure komunikazioetan kanpoko dokumenturik ez bidaltzea da. Akatsa gertatu zen indarrean dagoen protokoloa ez betetzeagatik.

Herriarraren erantzuna: Osakidetzaren erantzuna irakurrita, ez zait argi geratzen aurrerantzean halakoak berriro ez gertatzeko neurririk hartuko duten ala beste erakunde baten informazioa denez erdara hutsean bidaliko diguten.

Dosierra: 620-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - ARABA ESI - ZUZENDARI KUDEATZAILEA

Arrazoa: 11:15etan hitzordua izan dut Gasteizko Zabalganako osasun-etxean. Nire medikua (euskalduna) oporretan dago eta errefortzuko medikuarekin pasatu naute. Medikua hau ez zen euskalduna nik Osakidetzan arreta euskaraz nahi dudala ezarrita eduki arren. Noiz arte jarraituko ditu urratzen Osakidetzak gure hizkuntza eskubideak?

Erantzunak:

Arabako ESiko Zuzendari Gerentea: Arduradunak azaldu digu zailtasun handia dutela mediku titularrak bere pazienteak artatu ezin dituenean, izan ere, paziente horiek guztiak beste profesionalen artean atenditu behar dituzte. Horiek horrela, lehenasuna ematen diote pazietnea lehenbailehen artatua izateari eta horrela eskatzen badu, zerbitzua euskaraz jasotzeari. Tamalez, bezoroaren eskaera asetzea batzuetan kosta egiten da, are gehiago urte garai batzuetan. Hala ere, Euskara Zerbitzukoek gogorarazi diete, ahal den neurrian, aukera hori ematen saiatu behar direla, betiere posible bada. Pazienteak euskaraz artatua izatea administrari zein osasun profesionali eskatzen badie, kontuan hartzen saiatzen direla esan digu; euskaraz artatzea lehenasun gisa adierazi ezean, ordea zerbitzua ematea lehenesten da. Barkamena eskatzen dugu sortutako eragozpenengatik, eta eskerrak eman ekarpenengatik.

Dosierra: 638-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DONOSTIA OSPITALEA

Arrazoa: Donostia Ospitalera joan gara irailaren 5ean semea eta biok, alergologoarekin zita genuelako. Alergologoak, mediku titularrak, bazekien euskaraz, baina berekin batera zegoen beste mediku gazte batek (beraien arteko elkarrizketengatik mediku-ikaslea edo erresidentzian dagoen dela suposatu dugu), ez zekien euskaraz, eta gaztelaraz artatu gaituzte. Egia da, gu, saiatu garela elkarrizketa guztia mediu titularrekin edukitzen, eta harekin euskaraz jardun dugu, baina 3 bandako elkarrizketa izan da, eta gaztelaraz ere aritu behar izan dugu. Hortik erizainaren kontsultara pasatu gara, hark egin behar baitzikion frogak semeari, eta hark ere ez zekien euskaraz, beraz, erizainarekin den-dena gaztelaraz egin behar izan dugu. Osakidetzarekin harremana euskaraz nahi duela adierazita du semeak.

Erantzunak:

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentea: Alergiologiako zerbitzuburuarekin hitz egin dugu, eta, esan digunez, lantaldean 3 alergologo daude (horietatik 2 euskaldunak), eta 7 erizain (horietatik 5 euskaldunak). Bestalde, azaldu digunaren arabera, herritarra artatu zuen alergologoak berak euskaraz egin zuen. Zerbitzuburuari gogorarazi diogu pazienteak eskubidea duela arreta berak hautatutako hizkuntzan jasotzeko, eta, euskarazko arreta eskatzen badu, euskaraz artatua izan behar dela. Ordea, herritar honek, ez zuen alergologiako lantalde osoko kideen aldetik euskaraz arretarik jaso; beraz, gure barkamen eskea helarazi nahi diogu.

Dosierra: 669-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - PAZIENTE ETA ERABILTZAILAILEEN ARRETA ZERBITZUA

Arrazoa: Osakidetzak, ebakuntzaren gaineko argibideak emateko asmoz orrialde bat banatzen du. Lehenengo paragrafotik, aditzetan zu/k eta bera/berak nahasten ditu, testua ulertezina bihurtuz. Testuko adibideak: 'ahal izango duzu' irakurri ondoren, 'har ditzake' irakur daiteke, pertsona berberari zuzendutako gomendioa izanik. 2-3 aldiz irakurri behar, edo bestela, gaztelaniazko orrialdera jo behar da; Osakidetzako hainbat testutan bezala, zoritxarrez.

Erantzunak:

ESI Uribe Pazientearen eta Erabiltzailearen Arreta Zerbitzua: Jakinarazten dizugu Osakidetzako Kalitateko eta Informazio Sistemetak Zuzendariordetzak idazki hori, bidali zenigun informazio gehigarriarekin batera, Arabako ESira bidali duela, itzulpenean antzemandako akatsak konpon ditzaten. Eskerrik asko Euskal Osasun Zerbitzua hobetzen laguntzeagatik.

Dosierra: 694-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA

Arrazoa: Arabako Unibertsitate Ospitaleko kanpo kontsultetan hitzordua izan nuen irailaren 14an 16:35ean interbentzio bat egingo didatelako. Medikua ez zen euskalduna (erizaina bai). Euskara lehenetsita dut Osakidetzan.

Dosierra: 707-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - SAN ELOY OSPITALEA

Arrazoa: gaur San Eloy Ospitaleko Oinazearen unitatean egon naiz, 12etan, 1.sotoan eta espezialista erdalduna zen, erabatekoa, Errioxakoa. 3. aldia da unitate honetan nagoela eta espezialista erdaldun petoa dela. Saio osoa erdaraz egiteaz gain, "consentimiento informado" delako agiria erdaraz besterik ez dutela esan eta sinarazi didate. 2. aldia da baimen mota hori sinatu behar dudala eta euskaraz ez dagoela esaten didatela. Aurreko kexa batengatik erantzun zidaten itzuliko zirela, antza, datorren menderako uzten ari dira itzulpenak. Medikua aitortu didanez, "baimen informatua" delako hainbat agiri dute eta guztiak erdaraz daude, euskaraz ez. Errealitatea da ospital hau, ez soilik unitate hau, erabat erdalduna dela, lotsagarria

Dosierra: 732-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - ZUZENDARITZA NAGUSIA -

Arrazoa: Bihotzaren Mundu-Egunaren karira Eusko Jaurlaritzaren (Osakidetzan) iragarkia erdera hutsean ikusi dut prentsan.

Erantzunak:

Osakidetzako Komunikazio Unitatea: Lehenik eta behin, barkamena eskatu nahi diogu irainduta sentitu zen herritarrari, bai eta Hizkuntza Eskubideen Behatokiari ere, guk egindakoagatik kexa jarri beharrak eta kexa hori kudeatu beharrak sortu dizkizuen eragozpenengatik. Horrez gain, barkamena eskatzen dugu irailaren 29an Bizitzaz betetako bihotzak iragarkia gaztelaniazko egunkari batean bi hizkuntzetan argitaratu ez izanagatik, horrekin urratu egin baititugu herritarren eskubideak, hain zuzen ere, EAEn Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Legean eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2023 Legean jasotakoak. Osakidetzan, beraz, onartzen dugu egindako akatsa, eta hutsegite hori guztiz ezohikoa dela gurean nabarmendu nahi dugu. Gure ibilbidean, euskal hiztunen eskubideak bereziki zaindu nahi izan ditugu eta hori da bermerik onena. Jakina, aurrera begira, neurriak hartuko ditugu, horrelako akatsik berriro gerta ez dadin. Hortaz, jakin badakigu euskarari buruzko legeria orokorraren eta gure barne-araudiaren aurka egin dugula. Akatsa, berez, Osakidetzaren eta Osasun Sailaren arteko koordinazio-faltari egotzi behar diogu. Bakarrik kanpainaren publizitate-ekintzen plangintza prentsarako egin izan dugunean gertatu da hori,

gainerako hedabide eta euskarrietarako behar bezala egin baitugu publizitate-komunikazioa, Erakundearen barne-araudian eta EAEko legerian ezarritakoaren arabera.

Dosierra: 738-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - BIDASOKO OSPITALEA

Arrazoa: 2023ko urriaren 2a, 10:30ak, Irungo Bidasoko Ospitalean sendagiletik atera, eta hitzordua eskatzeko leihatilara hurbildu naiz. —Egun on, esan dut. Ez dut erantzunik jaso. Sendagileak emandako papera luzatu diot bertan dagoen langileari, gizonezkoa. —Para el 8 de abril de 2024. —Barkatu?! esan diot. —Para el 8 de abril de 2024. —Barkatu?! Berriro nik. Harridura aurpegiaz begiratu dit. —Euskaraz ez dakizu, ala? —Bai, euskaraz badakit, baina edukaziaz galdetu behar duzu. —Edukaziaz eskatu dizut; bi bider barkatu esan dizut eta. Gainera, nik ez dut ezer eskatu beharrik; zuk, Osakidetzaren Euskararen Planaren arabera, lehen hitza euskaraz zuzendu behar duzu. —Hori ez da horrela; nik ez dut zertan euskaraz egin behar; zuk eskatu behar didazu. Hortik aurrera euskara eta gaztelania nahasiz, —Zita nahi duzu, bai ala ez? —Bai, emadazu, baina kexa bat jarriko dut. —Haz lo que quieras, esan, eta papera eman dit. Zuzenean, Pazientearen Harrera zerbitzura joan naiz kexa jartzera. Badirudi, zenbaitekin euskaraz hitz egin nahi izanez gero, belauniko jarri behar dugula.

Erantzunak:

Bidasoa ESI Integratuaren gerentea: Kontsultatu dugu gertatutakoa, artatu zientuen langileak lanerako eskatuako euskara gaitasun agiria egiaztatua du, eta euskaraz jarduteko gaitasun osoa duela egaztatu dut. Galdetutakoan aitortu du gaizki erantzun zizula, ez luela lehenengo hitza euskaraz egin. Bestalde, adierazi diguna da, zuk "barkatu" esandakoan ez zeniola entzuten pentsatzen zuela eta berak behin eta berriz gaztelaniaz hitzordua proposatu zizin.. Barkamena eskatzen dizugu.

Dosierra: 755-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - TRANSFUSIO ETA GIZA EHUNEN EUSKAL ZENTROA

Arrazoa: Odol Emaileen Elkartetik SMS mezu bat jaso dut eta euskarazko zatia oso gaizki idatzita dago.

Dosierra: 757-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - PAZIENTE ETA ERABILTZAILEEN ARRETA ZERBITZUA

Arrazoa: SMS bat jaso dut osasun txartel digitala deskargatzeko helbidearekin. Webgunera jo dut eta gaztelaniaz baino ez dago txartela erabil daitekeen osasun-etxean fitxategia. <https://t.co/8Wuy6XFmm4>

Erantzunak:

Paziente eta Erabiltzailearen Arreta Zerbitzua: Arazo hori konpontzeko, OTI digitalaren webgunean agertzen den esteka zuzendu egin da: <https://www.euskadi.eus/oti-digitala/web01-a2inform/eu/> https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tis_digital/eu_def/adjuntos/O TI-digitala-zentroen-zerrenda.pdf Eskertzen dugu erreklamazio hau helarazi izana, euskararen erabilera normalizatzeko plana bermatzen laguntzen baitugu.

Dosierra: 770-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - GURUTZETAKO OSPITALEA

Arrazoa: Gurutzetako Ospitaleko pediatria larrialdietan kartel bi (berdinak) erdara hutsean daude.

Erantzunak:

Langileen Zuzendaria: Kexan azaltzen dena egiaztatu ondoren, dagokion arduradunari jakinarazi diogu, eta jadanik ordeztu dira. (Ikusi eranskina)

Dosierra: 771-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - BARAKALDO-SESTAO ESI

Arrazoa: Osakidetzak tailer afektibo-sexualak eskaintzen dizkigu CEIP Ibaibe HLHI, gure ikasleen adinean oso beharrezkoak direnak. Arazoa hauek gaztelaniaz baino ez dizkigutela eskeintzen da. Hau da, Lehen hezkuntzan emateko diseinatu diren tailerrak dira (D eredia nagusi dela) eta ez dago euskaraz jasotzeko aukerarik. Ulertezina da. Orain arte tailer hauek udal zerbitzuek ematen zituzten, baina iaz Osakidetzak hartu zuen ardura eta orain egin digute eskaintza.

Erantzunak:

Langileen Zuzendaria: "NERABE ETA NERABE AURREKO GAZTEEN HEZIKETA AFEKTIBO-SEXUALA" ekimena guttiz borondatezkoa da. Aurrera eramateko arlo

afektibo-sexualean behar bezala prestatutako profesionalak behar dira, ikasle gazteei kalitatezko prestakuntza emateko. Une honetan profesional talde mugatua dugu; egunerokotasunean euskaraz moldatzen diren arren, ez dira tailer horiek euskaraz teknikoki egoki emateko gai sentitzen. Ahultasun horren jakitun gara, eta prestatzen ari gara etorkizun hurbilean gabezia hauek konpondu ahal izateko. Gure asmoa 2023-2024 urte honetan bertan eskaintza hobetzea da. Hala helarazi zitzaizen ikastetxeei, eta hainbatek tailerrak egitea onartu dute, nahiz eta euskaraz eskaintzerik ez izan. Horien artean, Ibaibe ikastetxea bera. Euskararekiko dugun konpromisoa irmoa da. Gaur egun eskaintza hori gaztelaniaz bakarrik egin dezakegun arren, ahalik eta lasterren euskaraz ere egin ahal izateko prestatzen ari gara.

Dosierra: 772-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - BARRUALDE-GALDAKAO ESI

Arrazoa: Kontua da gaur medikugana joateko txanda eskatzera ipini nazela Aulestin, eta gure ohiko medikua ez dagoenez beste bat ipini deuskue astean egun bitan. Gazteleraz badaki baina euskeraz ez eta medikurik barik gelditu naz. Aulestira Osakidetzak mediku kastellanoa bialtzen dau, zemendiaren 6ra arte itxaron behar dot neure ohiko medikugana joateko edo bestela Lekittora joan eta eskatu, mesedez, mediku euskaldun batek artatzea, jasan ezina da.

Erantzunak:

Barrualde-Galdakao ESiko Zuzendari Gerentea: Hasteko, barkamena eskatzea, hala egokitu arren, arreta medikoa euskaraz ezin jaso izanagatik, bere kontsultategian. Amoroto eta Mendexako Kontsultategietan, urte eta erdi medikurik gabe egon dira, eta baizegoen bertara joan nahi zuen medikurik. Azkenean, prest mediku bat zegoen azaldu zen, baina ez zen euskalduna. Medikua euskalduna kontratatzea dagokigun arren, baldintza hori betetzen duena azaldu bitartean, kontratatzea erabaki genuen, bestela inguru horretako herritarrek Lekeitiora mugitu behar dira, eta bertako medikuen lan-karga, berez handia dena, areagotu egiten da. Aulestiko Kontsultategian, medikuaren absentziaren aurrean, arestian azaldutako arrazoi beragatik, eta, herritarrek hiru astez medikurik gabe ez uzteko edota Lekeitioraino ez mugiarazteko, euskalduna ez den mediku horixe berori bidaltzea erabaki genuen. Herritar honi jakinarazi nahi diogu, arreta handiz badihardugu ere, eta gure nahia halakorik berriro ez gertatzea den arren, ez dagoela beti gure esku.

Mediku faltarena Osakidetza bizitzen ari den arazo latza da, epe laburrera nekez konponduko dena. Ia, etorkizunean, halakorik ez den berriro gertatzen, horixe da eta gure nahia: herritarrei osasun arreta ahalik eta onena eskaintzea eurak aukeratutako hizkuntza ofizialean.

Dosierra: 788-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA

Arrazoa: Gaur Arabako Unibertsitate Ospitaleko kanpo kontsultetan izan naiz, oftalmologia saila. Pantailetan eta informazio txarteletan dena elebiz dago, baina bozgorailuetatik gazteleraz bakarrik ematen dituzte txandak. Euskaldunok ezin dugu gure txanda entzun?

Erantzunak:

Osi Araba: Gai hori aspalditik lantzen ari ginen zerbitzu hori ematen duen hornitzailearekin. Behin eta berriz eskatu da ezarpena eraginkorra izan dadila. Atzotik, Arabako ESiko Kanpo Kontsultetako AUOko Oftalmologia Zerbitzuko kontsultetan badago martxan.

Dosierra: 805-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - Durangoko LANDAKO OSASUN ZENTROA

Arrazoa: Landakoko (Durango) osasun-etxeko lehen solairuko harrera-gunean zergatik daude erdara hutsean "MOSTRADOR 1" eta "MOSTRADOR 2"?

Dosierra: 818-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - BARRUALDE-GALDAKAO ESI

Arrazoa: Atzo urriaren 26an, goizean, Landakoko osasun-etxera etorri nintzen, infekzio bat nuelakoan (eta badut), medikuagaz egotearren. Nituen sintomengatik, protokoloa omen, erizainarengana bideratu ninduten. Bizpahiru kontu ditut adieraztekoak, erizain honi dagokionez. Itzel zakar tratatu ninduen maskararik jantzita ez neroala eta, errieta egin zidan. Bat etorri nintekeen haren jarrerarekin, oso kontzientziatua eta enpatikoa izan bainaiz une oro kontu honekin, baina harik eta gogaitu naizen arte, ikusirik, bai paziente, bai herritar, bai funtzionario moduan gizarteak zer jokabide ultraliberal/bereko izan duen. Hau da, nik bete izan ditut arauak eta gizalege guztiak, baina trukean edo alderantzizko norabidean ez dut sentitu begirune berbera. Izan ere, eta etsenplu bakar bat ematearren, ohiko

bisitaldiak egiten baititut ospitaleetara, ez niregatik, baizik eta senitartekoengatik, ez behin, baizik eta hainbat alditan, Usansoloko ospitaleko neumologia inguruneetan, izan lehendabiziko solairuan, izan hamargarrenean, pazienteak eta profesionalak ibili izan dira, guztiz zigorgabe, maskararik gabe, unerik okerrenetan ere. Bada, nik begirunea zor diot erizain jakin honi? Objektiboki bai. Gogorik ez dut, baina. Maskararen gorabehera alde batera utzita ere, berak ba ote du jarrera begirunetsua euskaldun pazienteekin? Badirudi-eta “egun on” esatea bera ere irain egitea dela edo probokazioa dela. Badirudi, gutxien-gutxienez, entzunezinak garela euskaldun pertsonok. Berak eskatzen du begirunea. Berak ba ote du? Ze kontu bat da euskaraz ez jakitea. Eta beste kontu bat da paziente euskaldunekin izaten duen jarrera. Osakidetzan ohikoegia dena. Bestetik, infekzio bat dudan aldetik, ez dut jotzen osasun zerbitzura analgesiko bat edo hanturaren aurkako botika bat agindu diezadan erizain batek, are gutxiago begiak mantzalinaurarekin garbitzeko esan diezadan. Hartarako, ez dut astirik galtzen. Horrainoko ezagutzak gutxi gorabehera denok baditugu, gure amamengandik eta jasoak. Bada, atzo arratsaldean kontsulta pribatu batera jo behar izan nuen: 75 euro kontsultagatik eta ia 20 euro botikatan. Argi samar daukat osasun-zerbitzu publikoa gero eta okerragoa bihurtzeko asmoa dagoena, pribatizazioaren alde. Kriminala da. Nik gaur egun ordaindu dezaket diru hori. Bihar ez dakit. Zer gertatzen da pertsona zaurgarriagoekin? Atzo arratsaldean lanetik alde egin behar izan nuen sukar eta ezinegonagatik. Gaur (urriak 27) goizean Landakoko osasun-etxera jo dut berriro, eskuratu guran medikuaren aldetik agiriren bat justifikatzeko lanetik alde egin izana eta gaur behintzat lanera etorri behar ez izateko. Lehen solairuko langileek harritu aurpegia ipini dute, halakorik egitea eta halako justifikantea eskuratzea ezinezkoa balitz bezala. Azaldu diet baietz hala jokatu dezakegula gure enpresan (eta badudala konfirmazioa idatziz). Azkenean esan didate medikua oporretan dela. Ea mediku batek ikusi nazakeen. Eta ezetz, ez bada larrialdi bat. Orduan zer bide geratzen zait? Atzo gauean medikuagaz egoteko lehendabiziko hitzordua azaroaren 27rako azaltzen zitzaidan. Lotsagarria da. Kantsatuta nago euskaldunonganako zakarkeria, itsusikeria, begirune ez eta jokabide txar guztietaz. Norbera beti zuzena, zuzenegia eta otzana izan beharraz, osasun arazoak dituzun aldetik, zartaginaren heldulekua norberak ez baitu. Ez da bidezkoa, etsenplu txiki bat ipintzearen, Usansoloko lehen solairuko neumologiako behargin batzuen artean, iji eta aja, komentatzen ibiltzea “de dónde habrán salido estos, de qué

casario”. Hau da, euskaldunoi ez zaigu zerbitzurik ematen, eta ez emateaz gainera, burla egiten zaigu eta txarto tratatu. Tira, bidezkoa ez da, bide batez, Usansoloko ospitaleko lehen solairuan, neumologian, izaten den mediku bat, gizonezkoa, Esteban ez, beste bat, pandemia puta osoan maskara barik ibili izana, eta norbera isildu behar, ezer esatekotan itzelezkoa muntatu zitekeelako. Honengatik guztiagatik eta gehiegogatik, euskalduna naizen aldetik esperientzia txar piloa izan baititut, gaur erabaki dut ez isiltzea eta exijitzea Osakidetzan euskaldun pazienteoi eman diezagutela erdaldun pazienteei ematen zaien tratu eta kalitate berbera zerbitzuan, alegia, ez dut toleratuko gehiago nire hizkuntzan ez egitea, eskubide osoa baitut, legez aitortua, are jaio aurretik ere. Bada sasoia. Badirudi eta lege eta arau batzuk benetan bete beharrekoak direla, eta beste batzuk osteraz ez. Hargatik, eskatzen dut ni atendituko nautenek euskaraz egitea, eta ez soilik ahoz zelán edo halan, baizik eta ganoraz, bai ahoz eta bai idatzietan. Euskaldunok duintasun eta eskubide berberak ditugu, kopon! Hartarako, prest nago beharrezkoa balitz beste osasun-etxe edo ospitale batzuetara joateko, nahiz bidezkoa ez izan. Halako joan-etorriak neure kontu, ezta? Gero esango dute euskaldunok pribilejiodunak garela! Nik ondotxo dakit zein den errealitate gordina. Osakidetzan euskaldunok ez garela ongi etorriak, ez paziente moduan, ez langile edo izangai moduan ere. Ondotxo dakit hori. Eta EAEko Ararteko erakundeak ere ondotxo daki. Gaixorik eta lanean nagoela (egon behar ez nukeenean) idatzia.

Erantzunak:

Barrualde-Galdakao ESiko Zuzendari Gerentea: Idazkian azaltzen diren gertakariak aztertu dira, eta horren harira, zera esatea: Lehenik eta behin, ezin dugu informazio zehatzagoa eman, ez baitaukat eman den osasun-arretaren trazabilitatea egiteko modurik, herritarren identifikazio-datuak eduki ezean. Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuak euskararen erabileraren alderdia kontu handiz zaintzen du, bai profesionalen artean, bai horiek, arreta asistentzian, gure paziente/herritarrekin komunikatzeko orduan ere. Betalde, osasun-zentro/ospitaleetan oro har, maskara erabiltzeko agindua kendu bada ere, jantzea gomendatzen da arnas sintomatologia daukan erabiltzailea osasun-entro batera doanean; gainerako paziente eta erabiltzaileekiko babes-neurri modura. Osakidetzan/Gure Erakunde Eskariaren Arreta optimizatzeke protokoloak daude. Protokolo horietan, sintomatologia arinen kasuan (adibidez, katarro arrun bat, arnasketa-sintoma arinak...) erizaintzako langileek artatzen dituzte, lehenengo

eta behin, eta pazientearen egoera aztertuta, jarraitu beharreko zainketen/jarraibideen gomendioak ematen dizkiete edota medikuarenera deribatzen, baldin eta arreta medikoa behar duten kasuak badira. Aldi baterako ezintasunari buruzko dokumentuaren beharrari dagokionez, berriz, izapide hori egiteko ez da beti beharrezkoa osasun-zentrora joatea dagokion dokumentua hartzeko, telematikoki egiten baita eta informazio hori langilearen enpresara helarazten baita, dokumentua jasotzeko hitzorduaren beharrik gabe. Era berean, Pazientearen Fitxan (Osategi) osasun-arretarako lehentasunezko hizkuntza erregistratzeko aukera dago, eta gure autonomia-erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozein aukera dezake erabiltzaileak. Hortaz, erabiltzaile honen egoera egiaztatuzko behar diren datuak falta direnez, hizkuntza hautua erregistratuta ez badauka bere osasun-zentroan galdetzeko gonbita egiten diogu. Aukera hau probestu nahi dut eskerrak emateko intzidentzia jakinarazteagatik, horrek aukera ematen baitigu akatsak zuzentzeko.

Herritarraren erantzuna:

“Aipatutako kexa, bide biren bitartez helarazi nuen Osakidetza, testu berbera izanik; batetik, nik neuk aurkezturik Landakoko (Durango) osasun-etxeko lehen solairuko arreta-gunean, urriaren 30ean; eta alde aurretik, urriaren 27an, Behatokiari e-maila bidalita. Bada, oraingoan, Behatokiari baino ez dio erantzun Osakidetzak. Batetik, adierazi behar dut, inondik inora ere ez zaiola erantzuten kexan agerrarazi nituen hainbat konturi, guztiei ez esatearren. Eta heldutakoei ganoraz ere ez zaiela erantzun. Bestetik, espero dut laster nik neuk ere jasotzea Osakidetzatiko zuzeneko erantzuna. Hala ere, kezka txikia badut ea nik urriaren 30ean Landakoko osasun-etxean aurkeztu nituen paperak benetan heldu diren heldu behar diren tokira; izan ere, atenditu ninduen andreaki esan nion ea ez zidan eman behar erregistro-zenbakiren bat edo zerbait; eta erantzun berak beste pertsona bati eman behar ziola eta hura arduratuko zela egin beharrekoaz. 2023-10-30ean, 11:29an, paperak aurkeztutakoan, amaieran izandako elkarrizketa. Langileak: «Honekin nahikoa». Nik: «Ez deustazu emon behar erregistro-zenbakirik edo zeozer»; L.: «Ez dago zergaitik. Guk izten deustazu persona bateri; berak egiten dauena da..., berak egiten dau dana». Nik: «Bale, OK, eskerrik asko!». Langileak: «Zuri. Agur». Herritarraren identifikazio-daturik ez ei dutela-eta informazio zehatzagorik ezin dutela eman diote, ea, bada, izen-deituradun idatziari, berbera baita, zelan erantzuten zaion, erantzuten baldin bazaio. Bada, oraingoan, erantzun

dutena gainean ondokoak adierazi gura ditut: Euskara erabiltzen ahalegintzen garen herritar eta pazienteondako, jasaten dugun tratua ia sistematikoki jasanda, irakurri behar izatea “[...] euskararen erabileraren alderdia kontu handiz zaintzen du [...]” iraingarria da. Maskararen erabilerari dagokionez, egun nahitaezkoa ez baita, baizik eta gomendioa, bidezkoa ote da zakarki tratatzea herritarrak erabiltzen ez badute, areago kontuan izanik nahitaezkoa zenean gertatutako utzikeria eta kexan azaldutako kontu galantak. Sintomatologia arinaren protokolo delakoaz emandako azalpenak ez dira aski; botikak behar izan nituen, botikok nik dakidala erizainak ezin ditu preskribatu ---tarteant antibiotikoa---, medikuak ikustea ukatu zidan Osakidetzak, eta dirutza gastatu behar izan nuen kontsulta pribatura jotzera behartuta. Kexan ondo adierazi nuelakoan nago. Pazientearen fitxan hizkuntza-hautua egiteko gonbita egiten dute gutunean. Bada, neuk gurago dudana hizkuntza aspaldi-aspaldi dago jasota Osakidetzarenean eta frogaturik dago, zoritxarrez, ezertarako ere ez duela balio. Hizkuntza-hautua eginda dagoelako, hargatik, adibidez, agertzen dira euskararen sinbolo ziniko eta hutsalak neure fitxan eta Osakidetzan pazienteari erdara hutsean emaniko paperetan. Sinboloak agertu daitezkeen baino ez du balio, ezta? Berba egiten dudanean ere hautua egiten dut. Baina ez dirudi errespetagarria denik euskaldun pazienteok Pazientearen fitxan eginiko hautua ez eta berba egiten dugun aldiro egiten duguna. Osakidetzako langileek hautatzen dute geure orde aldirik gehien-gehienetan, gaztelaniaz inposatuz. Supremazismoa deritzo horri. Ez dute argi Osakidetzako langileek herritarroi dagokiguna hautua eta ez euei, eta errespetatzera behartuta daudela legediaren aldetik? Espainiako Estatuko langile publikoen estatutu oinarrikoenean ere jasota dago kontu hau, kopon! Ez gaituzte errespetatu sekulan, hamarkadetan, eta ohiturik daude horretara, zigorgabetasun osoa dagoelarik. Hala jardutea da normala, ohituraren poderioz, eta ardura dutenen arduragabekeriagatik. Exijitzen dut, berriro ere, euskara hautaturik baitut, langile euskaldunak esleitu dakizkidala, edo gutxien-gutxienez, euskaraz ez badakite, ez jokatzea pazienteak hauturik ez baleuka bezala, alegia gutxien-gutxieneko begirunea izatea euskaldun pazienteoi. Etsigarria oso. Baina duintasunagatik horra neure erantzuntxoan Osakidetzarendako.

Dosierra: 846-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - BASURTUKO UNIBERTSITATE OSPITALEA

Arrazoa: hilabete eta erdi pasatxo (2023-09/2023-10) eman genuen Basurtuko Ospitaleean. Basurtuko Ospitaleko hainbat pabiloitan eman genuen denbora, gure alabaren arazo larri eta mingarri baten ondorioz. Nahiago dut aipatu gabe utzi haien izenak, ezinbestekoa ez baldin bada; ETA ARGI ESAN SABUESPENAK ERE EGON ZIRELA, EUSKARAZ JAKIN EZ ARREN ESFORTZUA EGITEN ZUTEN LANGILE ZORAGARRIAK.. baina orokorrean gure eskubidea urratuta sentitu genuen, askotan pazientearen eta gurasoen zalantzak, minak eta nahigabeak areagotuz (gaztelerez eginez gero, arreta azkarragoa; geletako bozgorailuetatik medikazioa eskatu eta "zer? no te entiendo"...entzun behar!)

Dosierra: 863-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DEBABARRENEKO ESI

Arrazoa: Azken aldian hainbatetan joan behar izan dut Mendaroko Ospitalera. Joan naizen guztietan ezinezkoa izan zait sartu eta irten arte, osoki, euskaraz aritzea. Oso haserre nago, dela medikuekin, dela erizainekin, beti gaztelaniaz aritzera behartua izan naiz. Azkena, pasaden ostiralean, hilaren 10ean, goizeko 10:30ean, kardiologoaren kontsultan gaztelaniaz aritu behar izan dut medikuarekin euskaraz ez zekielako.

Erantzunak:

Pazientearen Arretarako Zerbitzua: Gaur egun Osakidetzan profesional gutxi daukagunenez, euskarazko hizkuntza-eskakizunik ez duten profesionalak kontratatu behar izan ditugu. Kardiologia zerbitzua 4 medikuk osatzen dute, eta gaur egun horietako batek bakarrik daki euskaraz. Kexa jarri duen herritarraren erreferentziatzko kardiologoak ez daki euskaraz, horregatik espezialistaren aldaketa eskatzeko aukera ematen diogu. Hala ere, sentitzen dugu egoera horrek eragozpenak sorraraztea, eta barkamena eskatzen dizugu horregatik.

Dosierra: 871-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - TXAGORRITXU OSPITALEA - ZUZENDARITZA MEDIKOKO IDAZKARITZA

Arrazoa: Gasteizko Txagorritxu Ospitaleko alergologia interkontsultara bideratu nuen paziente bat iraila bukaeran. Euskaraz egin nuen eskaera. Pazientea euskaladuna da eta arreta prozesua euskaraz izatea eskatu nuen. Orain zerbitzu horretatik gaztelaniaz jaso dut erantzuna "citaremos a la paciente en consulta el...". Horrekin batera "por favor realizar ICNP en castellano" dio erantzunean erantsitako oharra. Hau da, batetik, euskaraz egindako eskaeraren erantzuna gaztelaniaz jaso dut (horretara ohituta nago); baina, bestetik, euskaraz ez egiteko eskatu didate. Horrek aurten onartutako kode etikoa apurtzen du, horrelakoetan itzultzaile automatikora jotzea adostu baitzen.

Erantzunak:

Debagoieneko ESiko zuzendari-gerentea: Mediku batek euskararen erabilera zalantzan jarri zion unetik aurrera erreklamatzaileri jakinarazi zitzaion Zuzendaritza honek laguntza eta lankidetzak eskainiko zizkiola gertakaria konpontzeko. Jarraian, gure Larrialdi Zerbitzuko profesionalarekin harremanetan jarri ginen profesional honek bere eguneroko jardun asistentzian euskara erabiltzeko duen eskubidea azaltzeko, eta gogorarazi genion dokumentazio klinikoan Euskadiko hizkuntza ofizialak soilik erabiltzeko baimena duela. Era berean, Debagoieneko ESiko profesional guztiei jakinaraziko zaie gure eguneroko jardun asistentzian euskara erabiltzeko eskubidea dutela, Debagoieneko ESiko Etika Kodean eta Harrera Eskuliburuan jasota dagoen bezala. Aldi berean, harremanetan gaude medikuarekin Debagoieneko ESiko Zuzendaritzaren babesa erakusteko eta sortutako egoera konpondu ahal izateko.

Dosierra: 888-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - DEBAGOIENKO OSPITALEA - ZUZENDARI KUDEATZAILEA

Arrazoa: Aramaioko medikua den Aitor Montes Lasarte arlo profesional eta pertsonalean jasaten ari den hizkuntz eraso larria salatu nahi dut. Eskertzekoa litzateke Osakidetza egoera bideratzeko neurriak hartzea.

Dosierra: 906-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - Gasteizko ZABALGANAKO OSASUN ZENTROA

Arrazoa: CEP Zabalgana LHI ikastetxeak urteak daramatza harremanetan Zabalganako Osasun Zentroarekin eta hainbat ekintza eskeintzen dizkigute baina batzuk ez dira euskeraz. Gure ustez, eskola D ereduko ikastetxe bat izanik ekintza hoiek euskaraz jasotzeko eskubidea dugu. Beraiekin harremanetan jarri gara eta beraien esfortsua eta lana baloratzen dugun arren, beharrezkoa ikusten dugu ekintza hoiek euskaraz izatea. Zehazki ekintza hauetan ez da euskaraz egiten edo tarteka egiten da: - Ume sorosleak. - Osasun zentrorra bisita. - 6.mailako hitzaldia: alkohola.

Dosierra: 922-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - ARABA ESI - ZUZENDARI KUDEATZAILEA

Arrazoa: Gure 8 urteko semeak, Zabalgana Eskolako bere gelan, Lehen Sorospen ikastaroa izan du. Horretarako 2-3 erizain hurbildu dira eskolara Zabalganako osasun zentrotik. Umeak esan digu ikastaroa osorik gaztelaniaz egin dutela. Nola da posible Osakidetza D ereduko ikastetxe batean ikastaro bat gaztelaniaz ematea? Umeen hizkuntza eskubideak urratu dituzte eta honek konponbidea behar du.

Erantzunak:

Arabako ESIko Langileen Zuzendaria: Zabalganako Osasun Zentroko arduradunarekin harremanetan jarri ondoren, honek azaldu digu saio horiek euskaraz izaten saiatzen direla, baina profesional batzuek -euskaraz komunikatzeko gai ez direnez- gaztelaniaz hitz egiten dute. Kontua da "Lehen sorospenak" jarduera gaztelaniaz eman zela, eman zuen profesionalak, hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izan arren, ez duelako bere burua gai ikusten euskaraz emana ahal izateko. Era berean, arduradunak esan digu erizaintzako langile gehienek, bereziki gazteek, hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutela. Bestalde, jarduera horietarako, jarduera ahalik eta kalitate handienarekin emateko prestakuntza onena duten profesionalak bilatzen saiatzea. Gainera, binaka egiten dira. Azkenik, material horiek euskaraz badituzte. Horiek horrela, ahal den neurrian saioak euskaraz ematen ahaleginduko dira; are gehiago, hartzaileak D ereduko ikastetxeko ikasleak badira. Halaber, saio horiek binaka egiten direnez, ahalegina

egingo da bietako bat euskal hiztuna edo euskaraz hitz egiteko gai izan dadin. Era berean, saioak ematen dituzten profesionalen prestakuntza-saio bat emateko aukera aztertuko du Euskara Zerbitzuak, jarduera horiek euskaraz eman ahal izateko gaitasuna eskura dezaten, betiere, profesionalak prest badaude. Hizkuntza-irizpideak eta jardun-protokoloa betetzeko konpromisoa erakutsi da, eragin zuzena baitu hizkuntza-eskubideen errespetuan eta zerbitzuen kalitatearen hobekuntzan. Erabiltzaileari barkamena eskatu nahi diogu sortutako eragozpenengatik, eta eskerrak eman nahi dizkiogu bere ekarpenengatik, egoera honek erakundeari bere prozesuak aztertu eta berrikustez gain, hobekuntza prozesuak aktibatzen laguntzen baitio.

Dosierra: 923-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - EZKERRALDE - ENKARTERRI - GURUTZETA ESI

Arrazoa: Ortuellako eskualdeko anbulategira joan naiz gaur, kontsulta bat egitera, eta euskeraz hasi orduko mesedez gaztelaniaz hitz egiteko esan dit bertako idazkariak.

Erantzunak:

Zuzendari Gerentea: Suposatzen dut jakinaren gainean egongo zarela nolakoa den gure egoera soziolinguistikoa. Gure ESI guztiz atxikituta dago euskara planarekin eta derrigortasun tasak eta profilak ahalik eta maila handiengan betetzeko konpromisoa daukagu. Egun daukagun behin-behinekotasun tasak eta eskarmentu gutxiko profesionalak, izugarri zailtzen digute konpromiso horiek betetzea. Kontsulta egin dut bertako arduradunarekin argitzeko aipatutako egunean aparteko gertakizunik gertatu ote zen, eta erantzuna ezezkoa izan da. Opor eta absentzia astea izanik, ezinezkoa suertatu zen behar bezalako arreta ematea. Espero dugu egoera honen arrazoiak uler ditzazun eta aurrerantzean emandako arreta, herritarrek duten eskubideak bermatzeko baldintzak betetzeko gai izango garela.

Dosierra: 929-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - BARRUALDE-GALDAKAO ESI

Arrazoa: Zertarako balio du pazienteok euskara hautaturik izatea Osakidetza, gaztelania hautatu bagenu bezala tratatzen bagaituzte nahiz eta guk euskaraz

egiten ahalegindu. Zergatik jasotzen ditugun gutun edo paperetako batzuetan euskararen "e" sinboloa ageri da eta paper berberak erdara hutsean beterik daude? Zergatik daude osasun-etxeen helbideak gaztelania hutsean edota euskarazko berbak txarto idatzita? Zergatik daude pazienteon helbideak erdara hutsean? Durangoko anbulatorioaren kalea ez da "Herriko Gudarien"; da Herriko Gudarien kalea, edo Herriko Gudariena edo Herriko Gudariak. Baina inondik inora ere ez da "Herriko Gudarien". Eta Usansoloko ospitaleko helbidea da Labeaga auzoa, eta ez Labeaga Auzoa.

Dosierra: 947-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - URIBEKO ESIA

Arrazoa: Osakidetzari eskatzen diot Astrabuduaren (Erandio) izena errespetatzeko. Izan ere, Astrabuduko osasun-etxearen errotuluan astakeria hau ageri da: "ASTRABUDUAKO OSASUN-ZENTROA".

Dosierra: 975-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSATEK

Arrazoa: Osatek Enpresa Publikoa Osakidetzako Zerbitzu Erakunde bat da. Erresonantzia magnetikoak egitea bere jardura nagusia da. Gerentziak Enpresa-Batzordearekin izandako bileretan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko eskubidea aipatzen du. Tamalez bileretan gertatzen dena hau da: Norbaitek Euskaraz hitzegiten duenean enpresak erderara itzulpena egiten du. Erdararik euskarara berriz ez du itzulpenarik egiten. Alde batetik erderaz bizitzera nahitaez behartzen gaituzte. Euskara enpresarentzat bigarren mailako hizkuntza bat da. Ez da erdara bezain garrantzitsua. Beti erderaren menpe. Holako portaerekin zelan bermatzen da Euskaraz bizitzaren eta erabiltzearen eskubidea?

Erantzunak:

Zuzendari Kudetzailea: OSATEKek indarrean duen Euskara Planean, eta Hizkuntza ofizial erabiltzeki irizpideak dokumentuan argi aierazten da helburua dela bileretan parte-hartzaile guztiek eskubidea izatea ematen den informazio guztia jasoteko eta nahi duten hizkuntza ofizialean hitz egiteko. Gaur egun OSATEKen dauden batzorde eta lantalde batzuetan euskara hutsean egiten da dena, beste batzuetan bitartekoak jarri dira Euskara Planean jasotzen den helburu hori lortzeko, eta beste

batzuetan lanean ari gara Euskara Planean jasotzen den helburu hori ahalik eta lasterren bete ahal izateko

Dosierra: 976-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - ARABA ESI - ZUZENDARI KUDEATZAILEA

Arrazoa: Erizainarekin hitzordua izan dut Zabalganako osasun zentroan, ezdarriko minez nagoela eta begira ziezadan. Eskertu behar diot arreta guztia euskaraz eman didalako. Hala ere, "ezdarriko minerako gomendioak" dokumentua inprimatuta eman dit gaztelania hutsean. Ez dakit dokumentua euskaratuta ez ote duten edo gaztelaniaz bakarrik inprimatuta ote duten, baino kontsulta guztia euskaraz egin ostean dokumentua euskaraz jaso beharko nukela uste dut.

Dosierra: 977-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSATEK

Arrazoa: Osatek-ek, Donostian, Amarako Anbulatorioan, hain zuzen ere, Erresonantzia Magnetika makina berri bat jarri du. Makinaren lanpostuak betetzeko mugikortasun prozesuan abian jarri du. Lanpostuen betebeharren artean euskarari dagokionez Euskara Planak dioena ez da bete. Osatek-ek Euskara Plana badu. Honetan esaten da indarrean dagoen bitartean dagozkien lanpostu berriei ezagutza maila eta derrigortasun data ezarri egin behar zaizkiela. Hona hemen Euskara Planak dioena bere 33. orrialdean. Zazpigarrena.- 1.- Lanpostu baten kopurua handitu edo ordura arte OSATEK, S.A.-n izan ez den lanpostu berria sortze aldera abian jarritako prozedura orok, lanpostu horri dagozkion hizkuntza-maila eta derrigortasun-data jasoko ditu ezinbestean lanpostu horren monografia deskribatzailean. Osatek-ek Euskara Plana ez du bete. Erabaki honen ondorioz lanpostu berriei dagozkion derrigorrezko Hizkuntz Eskakizunak ez zaizkie ezarri. Beste behin indarrean dagoen Euskara Plana Osatek-en betetzea eskatzen dugu..

Erantzunak:

Zuzendari Kudetzailea: Datorren asteetan OSATEK en 2. Euskara Plana (2023-2027) aurkeztuko zaie langile eta arduradunei, Administrazio Kontseiluak onartu aurretik. Plan horren ekintzetako batzuk lotuta egongo dira lanpostuen derrigortasun-datekin; izan ere, HPSren eta Osakidetzaren irizpideei jarraituz, orain arte egon den derrigortasun-indizea aldatu beharko da, eta lanpostuen ehuneko jakin bati ezarri.

Dosierra: 984-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - URIBEKO ESIA

Arrazoiak: Sopelako osasun etxean ikastaroa jaso genuen haurdunaldia, erditzea eta edoskitzearen inguruan, eta gaztelania hutsez egin zen ikastaro osoa. Partaide batzuk elebidunak ginen, beste batzuk ez, eta ikastaroa ematen zebilen emagina ere elebakarra zen. Ikastaroarekin lotutako dokumentazio ia guztia ere gaztelania hutsez eman ziguten. Erantsita doa bertsio digitalean helarazi ziguten dokumentazioa.

Segurtasuna (14)

Dosierra: 35-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - EKINBIDE segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa

Arrazoa: Gaur, urtarrilak 11, 17:20an Sestaoko ertzain etxera joan naiz eta harreran zegoenak euskaraz ez zekienez, gaztelaniaz jardun behar izan dut. Nire eskubide linguistikoak urratu zaizkit.

Erantzunak:

Ekinbide-Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenaren Bulego Burua: Lehenik eta behin, barkamena eskatzea baino ez zaigu geratzen kexan adierazitako egunean arreta euskaraz eman ez izanagatik. Zentroan zegoen agenteak euskara menderatzen ez zuenez, gaztelaniaz hitz egiteko eskatu zion eta hizkuntza horretan egin zuten elkarrizketa. Agenteak eranstean du behin ere ez ziola eskatu euskaraz artatzea nahi zuenik. Guztia aztertu ondoren, agente guztiei jakinarazi zaie Ertzain-etxera joaten den pertsona batek arreta euskaraz jaso nahi baldin badu, arreta hizkuntza horretan jaso ahal izan behar duela, eta behar adinako maila duen agenterik ez badago, maila hori duenarengana bideratu behar dela.

Dosierra: 53-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - Segurtasun Saila - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA (Izaskun Urien Azpitarte)

Arrazoa: Gaur Ertzaintza-ko lanpostu ezberdinen deialdia atera da. 127 lanpostutik gehiengoan hizkuntza eskakizunaren derrigortasun data igarota izan arren, 20 lanpostu derrigortasun data gabe atera diraberaz, hainbat hautagai euskara jakin gabe sartu ahal izango dira Ertzaintzan. 20 horietatik erdiak bide segurtasuneko agenteak izango dira adibidez, nola bermatuko da herritarren segurtasuna? EAE osoko ertzainek hizkuntza biak menperatzen dituztela eta hizkuntza bietan lan egin edo zerbitzuak emateko gai direla ziurtatu beharko litzateke, herritarrek izapideak egiteko denbora gehiago eman behar ez izateko Deialdi honetako 127 lanpostuetan gainera, B2 maila soilik eskatzen da eta maila hori euskarazko zerbitzu egoki bat emateko ez dela nahikoa iruditzen zait.

Dosierra: 57-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - EKINBIDE segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa

Arrazoa: Barakaldoko ertzain-etxera joan nintzen urtarrilaren 11n, 18:00ak aldera. Nik euskaraz egin arren, gaztelaniaz aritu zen une oro harreran zegoen agentea. Ez zidan euskaraz zekien agente batekin aritzeko aukerarik eman, nahiz eta egindako gestioa ikuskatzera atera zen agentea euskalduna izan.

Erantzunak:

Ekinbide-Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenaren Bulego Burua: Egun horretan harrerako agenteak lehenengo gaztelaniaz hitz egin zion eta gero ikerketako agente batek euskaraz, eta jakinarazpena azken horrekin izapidetu zuen eta behin ere ez zuen eskatu arreta euskaraz jaso nahi zuenik eta ez zuen adierazi horregatik haserre zegoenik. Agente guztiei jakinarazi zaie Ertzain-etxera joaten den pertsona batek arreta euskaraz jaso nahi badu, arreta hizkuntza horretan jaso ahal izan behar duela, eta behar adinako maila duen agenterik ez badago, maila hori duenarengana bideratu behar dela. Hortaz barkamena eskatu nahi diogu sorrarazitako eragozpenengatik

Dosierra: 76-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - EKINBIDE segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa

Arrazoa: Ertzaintzaren web orriaren bitartez LAGUNDU atalean mezu bat bidali dut, bete beharreko formularioa euskaraz, eta gmailean jaso dudana erantzuna gaztelaniaz

<https://www.ertzaintza.euskadi.eus/lfr/eu/web/ertzaintza/colaboracion-ciudadana>

Erantzunak:

Ekinbide-Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenaren Bulego Burua: Eginkizun horren ardura duen unitate-buruak hobekuntza-ekintza bat sartu du erantzun guztiak komunikazioan erabilitako hizkuntzan emango direla bermatzeko, eta agente guztiei gogorarazi die alderdi horretan arreta jarri behar dutela. Barkamena eskatu nahi dugu sorrarazitako eragozpenengatik.

Dosierra: 123-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - EKINBIDE segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa

Arrazoa: Gaur arratsaldean, 18:30-19:00ak aldera, Durangoko ertzaingetara salaketa bat egitera etorri naiz. Leihatilan zegoen pertsonari euskaraz hitz egin diot. Gaztelaraz erantzun dit. Berrero euskaraz hitz egiten hasi naizenean esan dit: "no te entiendo en euskera". Nik gaztelaraz erantzun behar izan diot baina nik ez nuen hori nahi. Gero, barrura sartu naute salaketa jartzeko, eta bigarren pertsona batekin egon naiz. Pertsona honi naiz eta euskaraz hitz egin, denbora guztian gaztelaraz erantzuten egon da. Ni euskaraz hitz egiten eta bera gaztelaraz erantzuten. Oso gaizki sentiarazi nau.

Erantzunak:

Ekinbide-Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenaren Bulego Burua: Pertsona horri arreta eman zion agenteen txostenetatik eta pertsona hark adierazitakotik ondorioztatzen denez, nahiz eta hark ez zuen berari eskatu arreta euskaraz jaso nahi zuela, komunikazioa euskaraz hasi izanak argi adierazten du arreta hizkuntza ofizial horretan jaso nahi duela, eta inplikaturako agenteei adierazi zaie, beraz, egoera hori errepikatzen denean, arreta euskaraz bete agente batek emateko aukera eskaini behar dela. Hortaz, barkamena eskatu nahi dizugu sorrarazitako eragozpenengatik, eta, horrekin batera, mila esker eman nahi dizkizugu, benetan, kexa jartzeagatik, baliagarria izango baitzaigu herritarrei zerbitzu hobea emateko.

Dosierra: 137-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - EKINBIDE segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa

Arrazoa: Irailaren 4an, larunbat gauean 4:30ak aldera Donostiako Easo kaleko 77an, topoaren sarrera parean, Ertzaintza patruila lagun taldera etorri zen topoko segurtasun langileekin izandako arazo bat dela eta guk deitu eta gero. Hasieran ertzaingetara batek euskaraz egin arren, gainontzeko lankideak etortzean denek espainolez hitz egin ziguten. Tartean, nortasun agiria eskatu ziguten eta nik, euskaraz artatua izan nahi nuela eta eskubidea zela erantzunez, euskaraz eskatu arte agiria ez nuela erakutsiko esan nuen hirutan. Bitartean, nire nortasun agiria

espainiarra eta ni espainiarra nintzela eta, espainolez hitz egin behar zutela eta niela argudiatu zuten. Azkenean, beraien mehatxuen ondorioz, nire nortasun agiria erakusten amaitu nuen, espainol hutsez hitz eginda. Orain, 5 hilabete eta gero, 700€ko isuna jaso berri dut, "Resistencia a la autoridad" egotzita. Ez da egoera hau bizi dugun lehen aldia eta euskaldunokiko bestelako begirunea eta errespetua izatea eskatzen diot Ertzaintzari

Erantzunak:

Ekinbide-Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenaren Bulego Burua: Donostiako ertzaingetara Buruzagitzak aurkeztutako txostenaren arabera, egun horretan, 04:30 aldera, Donostiako topoaren geltokian pertsona bat nahitaezkoa zen maskararik gabe trenean sartzen saiatu zen, baina segurtasuneko langileek ez zioten utzi. Pertsona hori joan egin zen geltokitik, eta handik pixka batera beste lau pertsonarekin itzuli zen eta bortxaz aurre egin zieten segurtasuneko langileei, eta hauek Ertzaintzaren laguntza eskatu behar izan zuten. Ertzaintzaren lau baliabide agertu ziren gertaerari erantzutera, eta erasotzaileak identifikatu zituzten. Horietako batek ez zuen bere identitatea eman nahi izan, eta arret euskaraz ematea nahi zuela esan zuen. Gertaeran esku hartu zuten agente batzuek euskarazko C1 titulua zuten, eta horiek azaldu zioten euskaraz eta zehaztasunez zergatik identifikatu behar zuten, bai eta identifikatu nahi ez izateak zer ondorio izan zitzaizkeen ere, eta den zuzentasunez eta adeitasunez azaldu zioten. Hala ere, ez zuen identifikatu nahi izan, eta agenteak iraintzen eta laidoztatzen jarraitu zuen gatzelaniaz, bake publikoa aztoratuz, etengabe bidera irteten baitzen trafikoa etenez eta bere burua arriskuan jarritz, eta, azkenean, salatu egin zuten egitate horiengatik. Informazio guztia aztertu eta baloratu ondoren, buruaren ustez pertsona horri arreta euskaraz eman zioten, hala egitea eskatu baitzuen, eta ez du uste, beraz, bere hizkuntza-eskubideak urratu zirenik. Beraz, ondorioztatu da bi bertsio ezberdin ditugula. Hala ere, jakinarazten dizugu zure kexa jaso dela, azterketa orokorra eta dagokion balorazioa egiteko.

Dosierra: 142-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - EKINBIDE segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa

Arrazoa: Atzo arratsaldean, otsailaren 22a, 17:00-17:15 aldera, Basauriko ertzaingetara joan nintzen ostiralean egingo dugun ekimen baten gaineko informazioa

ematera. Bertara sartu eta euskaraz zuzendu nintzaion harreran zegoen agenteari , "en castellano, que yo no entiendo" erantzun zidan. Euskaraz jardun nahi nuela adierazi nion eta "por favor en castellano que me estoy sintiendo mal" erantzun zidan modu bortitzean. Mesedez euskaraz zekien agente bati deitzeko eskatu nion eta " dejate de chorradas" izan zen bere erantzuna. Ez bazen komunikazioa euskaraz burutzeko gai, beste ertzain-etxe batera joango nintzela adierazi nion. Orduan nortasun agiria emateko eskatu zidan, modu bortitzean hau ere. "Supongo que quieres hablar en euskara" esan eta beste agente bat etorri zen, hau euskalduna. Euskaraz ez zekien lehenengo agentearengana hurbildu nintzen eta erasotua, birrindua sentitu nintzela esan nion; arreta euskaraz jasotzeko eskubidea dudala eta, agente publikoak diren aldetik, zerbitzua euskaraz eman behar dutela. Ez nuela tentsiorik sortu nahi ez nintzela pulstu bat botatzen ari, nik euskaraz komunikatu baino ez nuela nahi. "A ver si piensas que eres más euskaldun que yo" erantzun zidan. Bigarren agenteak, euskaraz zekienak, esan zidan atzo arazo berbera izan zutela marokoar batekin eta arazorik gabe konpondu zutela. Euskara bertakoa eta ofiziala zela eta ez zela kasu bera esan nion. Bi agenteen nagusia edo zen hirugarren bat bat hurbildu zen eta "preguntale a este hombre a que ha venido" esan zion euskaraz zekienari eta honek itzuli egiten zion nik esandakoa. Orduan "vamos a hacer lo que ha venido a hacer y que se vaya" adierazi zuen. Inprimakia betetzeko boligraforik ez neukala eta bat utziko zidaten eskatu nuen. "Pues que se vaya a caso, que lo rellene y que vuelva" izan zen erantzuna. Kotxera joan, han neukan boligrafoarekin inprimakia bete eta itzuli egin nintzen. Hasiera-hasieran artatu ninduen agente erdalduna zegoen, "¿quiere que le atienda yo o que venga el compañero?" esan, inprimakian datu batzuk osatzea falta zitzaidala adierazi zidan eta, orain bai, boligrafo bat utzi zidan. Euskaldun gisa eta pertsona moduan gutxietsia, erasotua eta birrindua sentitu nintzen

Erantzunak:

Ekinbide-Seguratasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenaren Bulego Burua: Pertsona horrekin hitz egin zuten agenteek aurkeztutako txostenetik ondorioztatzen denez, aipatutako zentrorra agertu zenean, lehenengo harrera gunean zegoen agenteak eman zion arreta, eta agente horrek ez zuen euskara menderatzen. Arreta euskaraz ematea eskatu zuenean, agenteak operazio-buruari eman zion gertaeraren berri, eta harrera gunera bete agente bat agertu zen eta kexa sustatu duen pertsonari arreta euskaraz eman zion, eta honek egin nahi zuen

manifestazio-eskaera egin ahal izan zuen. Alde horretatik, agenteek erantzen dute pertsona horri hasieratik emandako tratua zuzena eta adeitsua izan zela. Aipatutako buruak ulertzen du Ertzaintzak euskara erabili behar duela herritarrekin duen harremanetan eta pertsonen hizkuntza horretan hitz egiteko eta arreta hizkuntza horretan jasotzeko eskubidea dutela aitortuta. Hala ere, kontuan izan behar da Ertzaintzako plantillaren zati handi batek gaur egun ez duela euskaraz behar bezala hitz egiteko behar adinako gaitasunik eta segurtasunik, eta gaztelaniara jotzen duela herritarrekin izan behar duen eguneroko tratuan, inor mintzeko eta inori tratu desegokia emateko inolako asmorik gabe. Azkenik, operazio-buru guztiei eta ikerketa-buru diren instruktoreei adierazi zaie ahal duten neurrian saia daitezela herritarrei arreta emateko lanpostuetan arreta euskaraz eman dezaketean agenteak jartzen. Hortaz, barkamena helarazi nahi dizugu sorrarazitako eragozpenengatik, eta, horrekin batera, mila esker eman nahi dizkizugu, benetan, kexa jartzeagatik, baliagarria izango baitzaigu herritarrei zerbitzu hobea emateko.

Dosierra: 205-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - EKINBIDE segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa

Arrazoiak: 80 urte dituen herritarra naiz eta nortasun agiria galdu dudalako, hilaren 13an Beasaingo ertzain-etxera deitu nuen telefonoz eta Tolosako ertzain-etxetik erantzun zidaten. Telefonoa hartu zuenak "buenos días" esanez erantzun zuen eta nik "euskaraz ez dakizu? galdetu nionean ezetz esan zidan. Gaztelaniaz aritu behar izan nuen diskulpa bat ere jaso gabe. Asteartean, hilaren 14an, Beasaingo ertzain-etxera hurbildu nintzen eta sartzearekin batera "buenos días, señora" batekin agurtu ninduten. Euskaraz bazekien galdetuta baietz esan zidan. Herritarra, "buenos días" batekin agurtuta gaztelania erabiltzera bultzatzen duela adierazi nion. Honek egitera nihoana tramitatzeko beste agente batengana bideratu ninduen. Hau ere ez zen euskalduna eta gaztelaniaz aritu behar izan nuen. Ez zait bidezkoa iruditzen jende aurrean zerbitzu publikoa ematen ari den pertsona euskalduna ez izatea. Ze zentzu dauka Euskaraldia eta bestelakoek babestea gero horrelako egoerekin egiten badugu topo? Horrelakorik berriro inori ez gertatzeko neurriak hartzea eskatzen dut.

Erantzunak:

Ekinbide-Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenaren Bulego Burua: Herritarrari arreta eman zion agenteak adierazten duenez, herritarrak ez zion eskatu euskaraz hitz egiteko; izan ere, eskatu izan balio, arreta euskaraz emateko behar besteko maila zuen norbait agertzeko eskatu zuen. Adierazten duenez, jabetzen da Oriako Ertzain-etxean dauden agenteek euskara-maila ezberdinak dituztela, eta behin baino gehiagotan helarazi diela Oriako herritarrengana hizkuntza horretan zuzendu behar direla, gehienak euskaldunak baitira. Hortaz, barkamena eskatu nahi dugu sorrarazitako eragozpenengatik.

Dosierra: 443-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - Segurtasun Saila - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA (Izaskun Urien Azpitarte)

Arrazoa: Arkauten egindako suhiltzaileen EPETan psikotekniko frogak euskaraz egiteko aukera ukatzeagatik. LAB sindikatuak Elebideri eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak zuzentzen duen Arkaute akademiako arduradunek herritarren hizkuntz eskubideak errespetatzeko beharra dutela. Beraz, Arartekoak gai honen inguruan emandako ebazpena kontutan hartuta behar diren neurriak har ditzatela eta eskatzen duten hautagaiek froga euskaraz errepikatzeko aukera izan dezatela.

Dosierra: 621-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - EGINBIDE segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa

Arrazoa: gaur 12:00ak inguruan Gasteizko Lakuako Ertzaintzaren komisaldegian izan naiz kontzentrazio baimen eskaera bat egiteko. Bai harrerakoa eta baita tramitea egitekoa erdaldunak ziren eta nik euskaraz egin arren gaztelaniaz artatu naute. Noiz bermatuko du Ertzaintzak behar bezala zerbitzuak euskaraz normaltasunez jaso ahal izatea?

Erantzunak:

Ekinbide-Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenaren Bulego Burua: Lehenik eta behin, barkamena eskatzen dugu arreta euskaraz eman ez zelako. Lan-txanda bakoitzaren arduradunei jakitera eman zaie euskaraz hitz egiten duten guztiei arreta euskaraz eman behar zaiela. Era berean, kexa adierazi zuen

pertsonari jakinarazi nahi zaio ados gaudela adierazten duenarekin, hau da, erakunde gisa euskara erabiltzeko betebeharra duela, eta horixe helarazi diela Unitate agente guztiei, eta espro dugula aurrerantzean antzeko egoerarik ez dela gertatuko eta egoerari ahalik eta azkarren eman behar zaiola konponbidea.

Dosierra: 670-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - EGINBIDE segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa

Arrazoa: Erandioko Komisaldegira deitu nuen irailaren 9an eskaera bat egite aldera. Hara non, deia hartu zidanak "Comisaría buenos días" erantzun zidan. Hala ere, eskaera euskaraz azaldu nuen, bestaldean zegoenak "Erderaz hobeto" esan arte. Komentariarik ez.

Erantzunak:

Herritarren Babes Burutza: Iraiaren 9an, Erandioko ertzainetxean, txanda guztietan herritarrei zerbitzu emateko egon ziren, ertzainek ezin hobeto menperatzen dute euskaraz, ahoz eta idatziz. · Deia ordu zehatza edo deitzen duenaren telefono zenbakia ez izatea, ezin dugu jakin zein agentek lagundu zion. Gerta zitekeen arrazoiren bategatik deia jaso zuena postuaren titularra ez izatea. AUKERA ETA HOBEEKUNTZA EKINTZAK: Herritarren arretarako prozesuan parte hartzen duten ertzain guztiei euskaraz zerbitzatzeko betebeharra dutela gogorarazi Eskertzen dugu kexa, hobetzeko aukera da eta.

Ekinbide-Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenaren Bulego Burua: Lehenik eta behin barkamena eskatzea baino ez zaigu geratzen arreta euskaraz eman ez izanagatik. Egiaztapen batzuk egin dira, baina deiaren jatorrizko zenbakia eta ordua jakin gabe ezin izan da jakin aipatutako dei hori nork hartu zuen, eta ezin izan da, gertatutakoa argitu. Hala ere, Burutzatik arduradun guztiei gogorarazi zaie herritarrei arreta euskaraz eman behar zaiela, eta uneren batean ezinezkoa izanez gero, era horretako egoerarako ezarritako prozedura eta tresnak erabili behar direla. Hortaz, barkamena eskatu nahi dugu sorrarazitako eragozpenengatik, eta, horrekin batera, mila esker eman nahi dizkizugu, benetan, kexa jartzeagatik, baliagarria izango baitzaigu herritarrei zerbitzu hobea emateko.

Dosierra: 672-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - EKINBIDE segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa

Arrazoa: Udaleko langile batek mezu bat idatzi zuen abuztuaren 10ean adm_urolak@ertzaintza.eus helbidera, euskaraz, informazioa eskatzeko; abuztuaren 11n erantzun zioten, gaztelaniaz, eta mezua berriz gaztelaniaz bidaltzeko eskatu, langileak euskaraz ez zekielako.

Erantzunak:

Ekinbide-Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenaren Bulego Burua: Lehenik eta behin, barkamena eskatzen diogu dagokion pertsonari arreta euskaraz eman ez izanagatik. Mezuari erantzun zion eta eginkizun horretan behin-behinean ari zen agenteak ez zuen arreta euskaraz emateko behar adinako ezagutzarik, eta horregatik eskatu zuen eskaera gaztelaniaz bidaltzeko. Alde horretatik, adierazten denez, agente hori euskara ikasteko prozesuan murgilduta daga arreta euskaraz eman ahal izateko, Ertzaintzako gainerako langileak bezala. Bestalde, adierazi nahi dugu lan egiten duten mugape hori oso euskalduna izanda, alderdi horretan arreta desagokia emateagatik jaso den lehenbiziko kexa dela. Azkenik, aipatutako Burutzatik adierazi nahi izan da, Unitateko Kontseiluak irailean egindako bileran berriz gogorarazi zutela herritarrek Administrazioa bi hizkuntza ofizialeko edozeinetan jotzeko eskubidea dutela. Hortaz, barkamena eskatu nahi dizugu sorrarazitako eragozpenengatik, eta, horrekin batera, mila esker eman nahi dizkizugu, benetan, kexa jartzeagatik, baliagarria izango baitzaigu herritarrei zerbitzu hobea emateko.

Dosierra: 835-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - EKINBIDE segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa

Arrazoa: Durangoko Ertzaintzaren komisaldegira deitu dut gaur azaroaren 2a, 18:16an, eta gazteleraz hitz egiteko esan dit telefonoa hartu duenak, ez nauela ulertzen. Ea arreta euskaraz eman ahal didanik badagoen galdetu diot. Erantzuna: "¿Qué quieres, que te atiendan o que te hablen en euskera?" izan da. "Ambas cosas", erantzun diot. Zakar euskaraz atenditua izan nahi dudana galdetu dit eta baietz esan diot. Euskaraz atenditu nau andra batek gero (oso ondo) eta bere kidearekin gertatutakoa komentatu diot amaieran. Batzuk ez dakitela euskaraz

erantzun dit. Esan diot erantzuna desagokia izan dela, edozelan ere, eta langile publikoa izanik arreta egokia bideratzea dagokiola eta, mesedez, helarazteko mezu hori bere kideari. Egingo duela esan dit. Telefonoko intzidentziaren ostean komisaldegira joan behar izan dut salaketa gauzatzera, 19:15 pasata helduko nintzen (ezin dut zehatz esan). Telefonotik euskaraz arreta eman didan emakumea zegoen harreraren eta luze egon beharko nuela esan dit jende asko zegoelako. Tarte horretan, harrerako emakumeari (telefonoz euskaraz arreta eman zidanari), salaketa jartzerakoan euskaraz arreta jasotzeko aukera izango nuen galdetu diot (telefonoz izandako gora-behera ez errepikatuzeko) eta ez zekiela erantzun dit. Nire txanda heldu da eta artatu nauen agenteak ez zekien euskaraz. Nik euskaraz egin eta berak gaztelaniaz erantzuteko esan diot, eta bi hizkuntzatan egiten saiatu gara, baina ez zen ulertzeko moldatzen. Ia telefonoa hartu nauena bera izan den galdetu diot eta ezetz esan dit. Ez dela kontu pertsonala, baina, arreta euskaraz eskatu dudala gogorarazi diot. Ez dagoela arazorik esan dit, barruko kideei esango diela eta eskubidea daukadala. Kideengana joan eta bueltan etorri denean hau esan dit: "Hay uno que sabe y está liado, y hay otro que sabe y no quiere". Salaketa gazteleraz amaitu dut berarekin eta jaso dudana arretagatik kexa/iradokizun/zorion orri bat eman dit amaieran. "Escribe lo que te parezca. Si no escribes no mejoramos". Arretako emakumeari eman diot kexa anonimoa eta adierazi diot telefonoz esan didana berriz ere, ez dudala horrelako trataturik jaso inon hizkuntzari dagokionez. "Baina kotxearena listo, ezta?" izan da bere erantzuna. Horren ostean, delituen biktimei buruzko informazioa bidali didate epostaz. Eposta eta delituei buruzko informazioa bera gaztelania hutsean jaso ditut hartu ninduenak ez zekielako euskaraz eta euskarazko arretarik ez zidatelako eman.

Dosierra: 971-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - Segurtasun Saila - TRAFIKO ZUZENDARITZA

Arrazoa: Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzak paneletan ez du errespetatzen aginteraren berezko ordena, alegia, esaldiaren hasieran. Hartara, maiz ikusten dira 'Abiadura moteldu' ('Moteldu abiadura' beharrean), 'Abiadura muga zaindu' ('Zaindu abiadura-muga' beharrean), eta horrelakoak. 'Kontuz ibili' eta horrelakoak ondo daude, 'kontuz' adizlaguna izaki.

NAFARROAKO GOBERNUA

Administrazio orokorra (8)

Dosierra: 257-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - INGURUMEN ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuak kartela argitaratu du garraio publikoa erabiltzera bultzatzu; bertan "informa zaitez gaur" esaldi bakarra ageri da euskaraz. Gainontzeko informazio guztia, garrantzizkoa, gaztelania hutsean dago. Zergatik bereizkeria eta zabarkeria hau estamentu publiko baten aldetik?

Dosierra: 358-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - HERRI LANEN ZUZENDARITZA NAGUSIA - Zainketa zerbitzua-

Arrazoia: NA 2410 errepidean, Arbizu inguruan, bide bazterreko mantenimendu lanak egiten ari dira Nafarroako Gobernuak langileak. Makina lanean ari dela iragartzeko furgonetak honelako dio: "Precaución, máquina trabajando" gaztelania hutsean. Zonalde honetan euskara ofiziala dela ahaztu zaie? Ez, ez zaie burura ere etorri, erabateko utzikieriaz jokatzeko dutelako.

Erantzunak:

Kontserbazio Zerbitzuko zuzendaria: Seinaleztapen mugikorraren, kartelen eta abarren bidez errepideetako erabiltzaileei informazioa helarazten zaienean, informazio hori ahalik eta zehatzena izatea da irizpidea. Batez ere seinale mugikorraren kasuan, gerta daiteke gidariei mezua identifikatzeko denborarik ez ematea, mezua bereziki zabala denean. Aurretik azaldutako guztia gorabehera, kexaren berri izan bezain laster (maiatzaren 10ean, asteazkena), jarraibidea helarazi zitzaion lanen enpresa esleipendunari, gaztelaniazko mezua ezaba zezan, eta, horren ordez, testurik gabeko argi-argibideak eman zitzaizkion. Aldi berean, seinaleztapen-sistemaren enpresa fabrikatzaileari kontsulta egin zaio, nahi den edozein mezua eskuz sar daitekeen jakiteko, mezua horiek sistemaren bertan aurrekonfiguratuta baitaude.

Dosierra: 576-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO DEP. - ANA OLLO HUALDE

Arrazoia: Beste behin, Nafarroako Gobernuak bigarren mailako herritartzat hartzen gaitu euskal hiztunak. web orriko informazioa erdizka: "Albiste honi buruz gehiago jakin nahi baduzu, mesedez kontsulta ezazu gaztelaniazko bertsioa. Goiko nabigazio barra gorrian alda dezakezu hizkuntza".

Dosierra: 762-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - BARNE, FUNTZIO PUBLIKOA ETA JUSTIZIA DEPARTAMENTUA-FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoia: Nafarroako suhiltzaileen mailaz igotzeko deialdiko azterketa teorikoa egin dugu gaur. Azterketa osoa gaztelaniaz pasatu behar izan dugu. Gainera eremu mistoko lanpostuetarako euskaraz ez du puntuatu ere egiten, atzerriko hizkuntzen ezagutzak (ingeleza, alemana eta frantsesak) 2na puntu bakoitzak. Lotsagarria eta giza eskubideen aurkakoa Nafarroako Gobernuaren jarrera.

Dosierra: 837-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - BARNE, FUNTZIO PUBLIKOA ETA JUSTIZIA DEPARTAMENTUA - Egituraren, Lanpostuen Antolaketaren eta Langileen Plantillaren Zerbitzua

Arrazoia: Nafarroako Gobernuak honako lekualdatze lehiaketak argitaratu zituen: -urriaren 5ean (136/2023 ebazpenaren bidez) zerbitzuko suhiltzaile-ofizialordeen 17 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko. Euskararen ezagutza ez zen kontuan hartu, Frantsesa, ingeleza eta alemana, bai, ordea. -urriaren 9an (285/2023 ebazpenaren bidez), Justiziako Administrazioako Kudeaketa Prozesal eta Administrazioaren, Izapidetze Prozesal eta Administrazioaren eta Laguntza Judizialeko kidego eta eskaletako funtzionarioen deialdia. . Euskararen ezagutza ez zen nahitaezkoa izan, balorazioa, eremu euskaldunean eta mistoan: % 23'08 (52 puntutik 12).

Dosierra: 937-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - HERRI LANEN ZUZENDARITZA NAGUSIA -
Zainketa zerbitzua-

Arrazoa: Ezkabako tuneletako afixak erdara hutsean daude.

Dosierra: 939-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - HERRI LANEN ZUZENDARITZA NAGUSIA -
Zainketa zerbitzua-

Arrazoa: AP-15 autobideko Zuastiko ordainlekuko afixa guztiak erdara hutsean daude. Halaber, autobideko afixa eta seinale gehienak erdaraz baino ez daude.

Erantzunak:

Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusia: Zuastiko ordainlekua Itzako udalerrian dago, eta, beraz, eremu mistoan. AP-15 autobideko eremu euskaldunear dauden bide-seinaleek egungo araudia betetzen dute.

Dosierra: 962-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - LEHENDAKARITZA ETA BERDINTASUN
DEPARTAMENTUA - Navarra.es Atariaren Atala

Arrazoa: Nafarroako Gobernuaren euskarazko webgunean hezkuntzako tramite bat bilatu behar izan dut. Behar izan dudana eta beste asko gaztelania hutsean daude euskarazko webgunea hautatu arren. 2024an sartzear gaude baina Gobernuak bere arau propioak ez betetzen jarraitzen du.

Aisialdia, kultura, kirola (6)

Dosierra: 327-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - LIBURUTEGIEN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA

Arrazoa: Iruñeko Yamaguchiko liburutegiaren plakak "Biblioteca pública Yamaguchi" dio, gaztelania hutsea. Zergatik ez dago euskaraz? Euskaldunon hizkuntza-eskubideak ez ezik, legea ere urratzen du. Albait azkarren zuzentzea eskatzen dut.

Erantzunak:

Liburutegi Zerbitzua: Gaur egun Iruñea-Yamaguchiko Liburutegi Publikoan dagoen kartela gaztelania hutsean agertzen da. Azken urteotan, Liburutegi Zerbitzutik gure liburutegietako kartelak -jatorriz kartela gaztelaniaz bakarrik jarri zen kasuetan- zuzentzen joan gara. Zuek diozuen kasua, Iruñea-Yamaguchiko Liburutegiarena, datozen asteetan ordezkatu da.

Dosierra: 331-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - ARGITALPEN ZERBITZUA

Arrazoa: Apirilaren 21ean erreklamazio bat bidali genuen Nafarroako Gobernuko Argitalpen Funtsera, zeinean ageri zen mezua hau zen: "ERREKLAMAZIOAK-ALBARAN ZENB. 013629". Bertan egiten zen eskaerari arazorik gabe erantzun zitzaion eta arazoa konpondu zen. 2023ko apirilaren 24an, ordea, oso desatsegina, lekuz kanpoko eta inongo errespeturik gabeko mezua jaso genuen: "Buenos días, me parece muy bien que se use el euskera. NO OBSTANTE COMO ESTAMOS EN UN ÁMBITO LABORAL Y NO EN EL BAR ECHANDO UNOS POTES O LO QUE QUERAÍS, OS RUEGO POR FAVOR USEÍIS EL CASTELLANO. ASÍ QUE YA ESTAÍS TRADUCIENDO LA RECLAMACIÓN A LA LENGUA DE CERVANTES...QUE AL FIN Y AL CABO ES LO QUE TODAS Y TODOS ENTENDEMOS. GRACIAS". Dudarik gabe mezu hau erabat lekuz kanpo eta onartezina del jarrera baten ondorio da. Nafarroan ofiziala den hizkuntza batean idatzitako mezua da, eta gaiari inongo arazorik gabe erantzun zitzaion eta erreklamazioa konponduta zegoen. Hori esanda, ezin besterik gabe pasatzen utzi errespeturik gabeko mezu hori. Norbaitek ulermen arazoren bat badu, hori ez da gure arazoa, izan ere administrazioa baita herritar orori bere hizkuntza-eskubideak errespetatu eta ziurtatu behar dizkiona.

Dosierra: 543-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoa: uztailaren 7an arratsaldeko bostak inguruan Oliteko Gaztelua bisitatu nuen. Sarrerak erostera joan eta bertan zegoenak gaztelaniaz egiteko esan zidan era zakarrean, Nafarroako Gobernuaren turismo zerbitzu bat izanik euskaraz egiteko eskubidea nuela. Berak modu txarrean erantzun zidan eremu mistoan geundela eta ez zuela inongo betebeharririk. Erreklamazio orria ere eskatu nion eta online jartzeko esan zidan.

Dosierra: 642-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - TURISMO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoa: uda honetan Lizarran genbiltzala, turismo bulegoan Nafar Gobernuak argitaratutako Nafarroako txirrinu bideetako liburuxka baita Donajakue bidekoa ere zenbait erderaz proposatu baina euskarazko bertsiorik ez zegoela ohartu ginen...

Erantzunak:

Turismoko Produktuen eta Lurralde Jasangarritasunaren Atalaren Burua: Gure bulego sarean euskaraz zein erderaz (beste hizkuntzetaz aparte) izan ohi ditugu argitalpenak, turistentzat eskuragarri. Lizarrako turismo bulegoarekin dagozkion egiaztapenak egin ondoren, euskarazko liburuxkaren erabilgarritasuna zegoela eta herritarrak hori eskatu izan balu eman zitekeela baieztatu dezakegu. Dena den, ez zeuden publikazio guztiak apalategian, hornitu gabe bait zegoen, batzuetan gertatzen den bezala. Horiek horrela, Nafarroako Gobernuko Turismo Zuzendaritzatik, eskubide horiek bermatuta daudela jakinarazten da. Eskertzen dizugu kexaren berri helarazi izana.

Dosierra: 712-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - ASUNCIÓN MAESTRO PEGENAUTE - LIBURUTEGIEN ZERBITZUA

Arrazoa: Nafarroako Liburutegien urte bukaera bitarteko programazioan 55 ekimenetatik 6 baino ez dira euskaraz. Berrito ere Nafarroako Liburutegiaren programazioan euskara eta euskaldunok baztertuak.

Dosierra: 728-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoa: Lodosan egingo diren 2023 Ondarearen Europako Jardunaldiak iragartzeko Nafarroako Gobernuak gaztelania soilik erabili du, beti berdin.

Erantzunak:

Ondare Historikoaren Zerbitzua: Kexa horri erantzunez, ohartarazi behar da jarduera hori ez zuela Ondare Historikoaren Zerbitzuak antolatu. Kultura Zuzendaritza Nagusiak ematen duen Ondarearen Europako Jardunaldien kartela (erantsita) elebiduna da, eta baita euskara eta gaztelania eskaintzen dituen <https://jepnavarra.com> webgunean argitaratutako jardueren agenda ere. Antolatzaile bakoitzak zuzenean igotzen ditu EPBren orrira bere jarduera agortzeko egokitzat jotzen dituen informazio, argazki eta kartelak. Guk ez dugu zerikusirik informazio horrekin. Espero dut galderari erantzun izana.

Garraioa/mugikortasuna (1)

Dosierra: 673-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - GARRAIOEN ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIEN ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoa: Pasa den asteko bi egunetan Nafarroako Gobernuaren Nbus-en autobusa hartu dut Sakanatik Iruñera. Autobus barruko pantailetan euskaraz eta gaztelaniaz ageri dira data eta bestelako informazioa. Herri bakoitzeko sarreran ahots mezua entzuten da: "Entrando en Arruazu", "Entrando en Irañeta" "Entrando en...." Lokuzio hori gaztelaniaz baino ez da entzuten. Euskara ofiziala den zonalde horretan euskaraz ere agertu beharko luke ezta? Bada horixe eskatzen dut.

Gizarte gaiak, politikak (2)

Dosierra: 517-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - ESKUBIDE SOZIALETAKO LEHENDAKARIORDEA

Arrazoa: 0 eta 3 urte bitarteko umeak ditugun familiok 100 € hilabetean jasotzeko dirulaguntza eskatzeko aukerarik ez dago euskaraz. Nafarroa.eus-eko tramitea erdaraz dago eta bertatik eratoritzen den edozein dokumentu erdara hutsean ageri da. Nire hizkuntza eskubideak urratuak izan dira. Euskaraz informatua eta artatua izatea aldarrikatzen dut.

Dosierra: 538-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - ESKUBIDE SOZIALETAKO LEHENDAKARIORDEA

Arrazoa: Familia Ugariondako dirulaguntza eskaera izapidetzeko Nafarroako Gobernuaren webgunera jo dut: <https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/ayudas-a-familias-numerosas-y-familias-monoparentales-para-gastos-extraordinarios-de-protesis-auditivas-prescripciones-opticas-y-ortodoncia> Ez informazioa ez aurkeztu beharreko hiru inprimakakiak ez daude euskaraz.

Hezkuntza (23)

Dosierra: 36-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NUP - NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA-

Arrazoiak: Nafarroako Unibertsitate Publikoak, deialdi hauek argitaratu zituen abenduan: - 2302/2022 EBAZPENA, B mailako hogeita hiru lanpostu merezimendu-lehiaketaren salbuespeneko sistemaren bidez betetzeko deialdiak. Euskararen balioa: % 7. Ataleko beste merituekin abantaila % 3ra murriz daiteke. - 2307/2022 EBAZPENA, C mailako hamasei lanpostu merezimendu-lehiaketaren salbuespeneko sistemaren bidez betetzeko deialdiak. Euskararen balioa: % 7. Ataleko beste merituekin abantaila % 3ra murriz daiteke. - 2315/2022 EBAZPENA, erdi mailako teknikari izateko lanpostu bat (C maila) oposizio-lehiaketaren sarrera-prozesuaren bidez betetzeko. (NAO, 2022-12-05). Euskararen balioa: % 2'5. Ataleko beste merituekin abantaila % 0'5era murriz daiteke. - 2351/2022 EBAZPENA, A mailako hamabi lanpostu merezimendu-lehiaketaren salbuespeneko sistemaren bidez betetzeko deialdiak. (NAO, 2022-12-05). Euskararen balioa: % 7. Ataleko beste merituekin abantaila % 3ra murriz daiteke. - 2250/2022 EBAZPENA, OLko teknikari izateko bi lanpostu (A maila) sarrera-prozeduraren bidez betetzeko deialdiak onesten dituena. Lanpostuetako bat oposizio-lehiaketaren sistemaren bidez beteko da, eta beste lanpostua oposizioaren sistemaren bidez. (NAO, 2022-12-19). Adar ekonomikoko OL-ko teknikari baten lanpostuaren kasuan deialdia oposizio-lehiaketa da. Euskararen balioa: % 2'5 (100 puntutik 2'5). Hala ere, frantsesa, alemana eta ingelesa atal berean puntuatzen direnez gero, hiru hizkuntza jakinda abantaila % 0'5ekoa da frantsesa edo alemana eta ingelesa dakizkitenekin alderatuta. Adar ekonomikoko OL-ko teknikariren beste lanpostu baten kasuan deialdia oposizioa da eta ez da euskara kontuan hartzen. - 2301/2022 EBAZPENA, 20Lko teknikari izateko lau lanpostu (A maila) sarrera-prozeduraren bidez betetzeko deialdiak onesten dituena. Lanpostuetako bi oposizio-lehiaketaren sistemaren bidez beteko dira, eta beste bi lanpostuak oposizioaren sistemaren bidez. (NAO, 2022-12-19). Lanpostu batean C1 mailako ingelesa eskatzen da. Oposizioaren bidez beteko diren 2 lanpostuetarako euskara ez da kontuan hartzen. Oposizio-lehiaketaren bidez beteko diren 2 lanpostuetarako, euskararen balioa: % 2'5 (100 puntutik 2'5). Hala ere, frantsesa, alemana eta ingelesa atal berean

puntuatzen direnez gero, hiru hizkuntza jakinda abantaila % 0'5ekoa da frantsesa edo alemana eta ingelesa dakizkitenekin alderatuta. - 2314/2022 EBAZPENA, OLko teknikari izateko bi lanpostu (A maila) sarrera-prozeduraren bidez betetzeko deialdiak onesten dituena. Lanpostuetako bat oposizio-lehiaketaren sistemaren bidez beteko da, eta beste lanpostua oposizioaren sistemaren bidez. (NAO, 2022-12-19). Oposizioaren deialdian euskarazko C1 maila eskatzen da. Oposizio-lehiaketaren deialdian, euskararen balioa: % 2'5 (100 puntutik 2'5). Hala ere, frantsesa, alemana eta ingelesa atal berean puntuatzen direnez gero, hiru hizkuntza jakinda abantaila % 0'5ekoa da frantsesa edo alemana eta ingelesa dakizkitenekin alderatuta. 9.- 2335/2022 EBAZPENA, OLko kudeaketari izateko lanpostu bat (B maila) oposizio-lehiaketaren sarrera-prozesuaren bidez betetzeko. (NAO, 2022-12-19). Euskararen balioa: % 2'5 (100 puntutik 2'5). Hala ere, frantsesa, alemana eta ingelesa atal berean puntuatzen direnez gero, hiru hizkuntza jakinda abantaila % 0'5ekoa da frantsesa edo alemana eta ingelesa dakizkitenekin alderatuta. - 2337/2022 EBAZPENA, OLko teknikari izateko bi lanpostu (A maila) sarrera-prozeduraren bidez betetzeko deialdiak onesten dituena. Lanpostuetako bat oposizio-lehiaketaren sistemaren bidez beteko da, eta beste lanpostua oposizioaren sistemaren bidez. (NAO, 2022-12-19). Oposizio-lehiaketaren deialdian euskararen balioa: % 2'5 (100 puntutik 2'5). Hala ere, frantsesa, alemana eta ingelesa atal berean puntuatzen direnez gero, hiru hizkuntza jakinda abantaila % 0'5ekoa da frantsesa edo alemana eta ingelesa dakizkitenekin alderatuta. Oposizioaren deialdian euskara ez da kontuan hartzen. - 2340/2022 EBAZPENA, OLko teknikari izateko lanpostu bat (A maila) oposizio-lehiaketaren sarrera-prozesuaren bidez betetzeko. (NAO, 2022-12-19). Euskararen balioa: % 2'5 (100 puntutik 2'5). Hala ere, frantsesa, alemana eta ingelesa atal berean puntuatzen direnez gero, hiru hizkuntza jakinda abantaila % 0'5ekoa da frantsesa edo alemana eta ingelesa dakizkitenekin alderatuta. - 2336/2022 EBAZPENA OLko kudeaketari izateko lanpostu bat (B maila) oposizio-lehiaketaren sarrera-prozesuaren bidez betetzeko. (NAO, 2022-12-22). Euskararen balioa: % 2'5 (100 puntutik 2'5). Hala ere, frantsesa, alemana eta ingelesa atal berean puntuatzen direnez gero, hiru hizkuntza jakinda abantaila % 0'5ekoa da frantsesa edo alemana eta ingelesa dakizkitenekin alderatuta. - 2572/2022 EBAZPENA, kontratupeko irakasle doktoreak kontratatzeke lehiaketarako deia egiten duena. (NAO, 2022-12-29). Euskara ez da kontuan hartzen. OL-ko teknikarien 68 lanpostutik, 4tan soilik

eskatuko da euskararen ezagutza, gainerako merezimenduak kontuan hartuta ere Nafarroako Unibertsitateak aurrerantzean euskarazko irakaskuntza bermatzeko neurririk hartu gabe jarraitzen du. Unibertsitateko irakasle guztiak gutxienez elebidunak izan beharko lirateke (euskara/gaztelania). eta euskara meritu moduan puntuatzen denean, atal berezian sartu beharko litzateke beste merituekin nahastu gabe. Ingelesa eskatzen den lanpostuetarako euskaraz jakitea ere eskatu beharko litzateke, euskara ezin baita atzerriko hizkuntza baten azpitik geratu.

Dosierra: 102-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NUP - NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA-

Arrazoa: Urtarrilaren 27an, Nafarroako Unibertsitate Publikoan izendapen libreko zuzendaritza karguak betetzeko deialdia argitaratu zen (finkoan zein aldi-baterako zerrendak osatzeko) 54 langile dira. Euskarazko lanpostuak: 35 (% 6'32) soilik dira (34k C1 eta 1ek B1). Ingelesezko lanpostuak: 21 dira (% 3'79). Neurri hauek ezingo dituzte unibertsitatean euskaraz ikasi eta euskaraz zerbitzu guztiak berdintasunean bermatzeko eskubideak bermatu.

Dosierra: 103-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA - Zuzendari Nagusia

Arrazoa: Urtarrilaren 16an Nafarroako Hezkuntza Departamentutik, ikastetxe publikoetako zuzendari lanpostuak hautatzeko deialdia egin zen (268/2022 ebazpena). Hizkuntzak jakiteagatik puntu bat lor zitekeen. Ez dago argi euskara puntuatzen den. Puntuatzen bada, % 3'33ko balioa izanen litzateke (30 puntutik 1), baina beste hizkuntzekin ere lor daiteke puntu hori. Euskara eta beste bat jakinda ez da abantailarik lortzen, ingelesa soilik dakienaren aurrean. D eredia soilik duten ikastetxeetarako EGA eskatzen da, D eredia duten beste ikastetxe guztietan ere irizpidea berbera izan beharko litzateke eta egun D eredia izan ez arren aurrerantzean izan dezaketenez, Hezkuntzako Zuzendari lanpostu guztiak euskaraz jarduteko gaituak daudela ziurtatu beharko litzateke. Lan deialdi honetan, aurrekoetan bezala, Nafarroako Gobernuak argi utzi du berriz ere berarentzat euskaraz ez duela inolako zentralitaterik hezkuntzaren barruan.

Erantzunak:

Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzuko zuzendaria: Euskararen baremazioari dagokionez, merezimenduen baremoaren 5.2 atalak hizkuntzen ezagutza baloratzen du, bereizketarik egin gabe; beraz, atal honetan euskararen ezagutza ere baloratuko da, ziurtatutako mailaren eta baremoak berak ezartzen duen puntuazioaren arabera. Hori zehaztu egin behar da, baldin eta kandidatura D ereduko irakaskuntzak soilik ematen dituen ikastetxe bateko zuzendaritzara aurkeztu bada. Kasu horretan, EGA titulua edo baliokidea izatea izangaiak parte hartzeko baldintza da (lehenengo oinarria.1.f), eta, beraz, ezin da inolaz ere merezimendu gisa baloratu. D ereduko irakaskuntzak soilik ematen dituzten ikastetxeetarako baldintza gisa euskararen ezagutza-maila (EGA edo baliokidea) eskatzeari dagokionez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxe publikoetako zuzendarien hautaketa, ebaluazioa eta izendapena berritzea arautzen duen Hezkuntza sailburuaren abuztuaren 8ko 65/2022 Foru Aginduaren 3.1.f artikulutik eratortzen den baldintza da, hitzez hitz, eta deialdiak ezin du besterik aurreikusi.

Dosierra: 234-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NUP - NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA-

Arrazoa: Nafarroako Unibertsitate Publikoak 2023ko otsailean 3 lan deialdi onartu zituen. - 146/2023 EBAZPENA, 2023ko urtarrilaren 31koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakasleen Gaietarako errektoreordeak emana, unibertsitateko irakaskidegoetako lanpostuak betetzeko lehiaketarako deia egiten duena. (NAO, 2023-02-21). 39 lanpostu dira. 36 lanpostutan ez zen euskaraz jakitea kontuan hartzen. - 71/2023 EBAZPENA, urtarrilaren 18koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko kudeatzaileak emana. Haren bidez, hautaprobez bitartez bi izangai-zerrenda egiteko deialdiak onesten dira, Adar Juridikoko OLko teknikari lanpostua betetzeko (A mailakoa), bata aldi baterako kontratazioak egiteko, eta bestea prestakuntzarako, zerbitzu berezietako egoeran, betiere Nafarroako Unibertsitate Publikoan sortzen diren beharrak betetzearren. (NAO, 2023-02-06). Euskara ez zen kontuan hartu. - 163/2023 EBAZPENA, urtarrilaren 31koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko kudeatzaileak emana, zeinaren bidez deialdiak onesten baitira

hautaprobaren bidez izangaien bi zerrenda egiteko, Laborategiko Zerbitzuetako ofizialaren lanpostua betetzearren (C maila, Mekanikako espezialitatea), bata aldi baterako kontratazioak egiteko, eta bestea prestakuntzarako, zerbitzu berezien egoeran. (NAO, 2023-02-14). Ez zen euskararen ezagutza kontuan hartu. Deialdi hauetan euskararen ezagutza kontuan ez hartzeak, unibertsitatean irakasleekin euskarazko harremana izan eta etorkizunean titulazio gehiago euskaraz egin ahal izatea oztopatzen da.

Dosierra: 268-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NUP - NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA-

Arrazoiak: Martxoaren 13, 14 eta 27an Nafarroako Unibertsitate Publikoak ondorengo deialdiak egin zituen euskararen ezagutza kontuan hartu gabe. Horrelako erabakiak unibertsitatean euskaraz ikasi ahal izatea bermatzearen kontrakoak dira. -(402/2023 EBAZPENA,) Hautaprobaren bitartez bi izangai-zerrenda egiteko deialdiak onetsi ziren, Ekonomiako edo EAZko lizentziadun edo graduatu lanpostua betetzeko (A mailakoa), bata aldi baterako kontratazioak egiteko, eta bestea prestakuntzarako, zerbitzu berezien egoeran.. (NAO, 2023-03-13). Ez zen euskara jakitea kontuan hartu. - (375/2023 EBAZPENA) Hautaprobaren bitartez bi izangai-zerrenda egiteko deialdiak onetsi ziren, oinarritzko lanpostuko administrari lanpostua betetzeko (C mailakoa), bata aldi baterako kontratazioak egiteko, eta bestea prestakuntzarako, zerbitzu berezien egoeran (NAO, 2023-03-14). Ez zen euskara jakitea kontuan hartu. - 434/2023 EBAZPENA, hautaprobaren bidez izangaien bi zerrenda, zerbitzuetako OLko kudeaketari lanpostua betetzeko (B mailakoa, mantentze-lanak), bat aldi baterako kontratazioak egiteko, eta bestea prestakuntzarako, zerbitzu berezien egoeran. (NAO, 2023-03-27). Ez zen euskara jakitea kontuan hartu. - 453/2023 EBAZPENA, hautaprobaren bidez izangaien bi zerrenda egiteko, Laborategiko Zerbitzuetako ofizialaren lanpostua betetzeko (C mailakoa, Industria Elektronikako eta Potentziaren Elektronikako espezialitatea), bata aldi baterako kontratazioak egiteko, eta bestea prestakuntzarako, zerbitzu berezien egoeran. (NAO, 2023-03-27). Ez zen euskara jakitea kontuan hartu. - 454/2023 EBAZPENA, hautaprobaren bidez izangaien bi zerrenda, Laborategiko Zerbitzuetako ofizialaren lanpostua betetzeko (C mailakoa, Elektronikako espezialitatea), bat aldi baterako kontratazioak egiteko, eta bestea

prestakuntzarako, zerbitzu berezien egoeran. (NAO, 2023-03-27). Ez zen euskara jakitea kontuan hartu.

Dosierra: 318-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NUP - NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA - NAFARROAKO UNIBERTSITATEKO MUSEOA

Arrazoiak: Nafarroako Unibertsitatearen museoak euskara bere komunikaziotik kanpo uzten du, bere web gunea gazteleraz eta ingelesez dago (<https://museo.unav.edu/>) eta hortik zabaltzen duten berripaper elektronikoa gazteleraz dago...

Dosierra: 413-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - HEGOALDE IKASTOLA HLHIP

Arrazoiak: benetan kezkarria iruditzen zait Hegoalde ikastolan gertatzen dena. Ez da beti, ez da denak, ez da egunero, baina iruditzen zait D ereduko ikastetxe batek ez baditu kontu hauek zaintzen, nekez lortuko dugula aurrera egitea. - Guraso bilerak erdara hutsean, asko jota agurra euskaraz (aurten 3 urtekoena bi txandatan egin zen, covid urteren batean irakasleren batek bi bilera proposatu zituen, erdaraz eta euskaraz) - Monografikoak erdara hutsean (adibide gisa, azken asteotan 3.ziklora Sexualitateaz mintzatzera aditu euskaldun bat etorri zen; 9 euskaldun ginen eta 8 erdaldun. Guztia erdaraz izan zen , aurkezpena, power pointa, banatutako papertxoak...) - Umeen euskara maila negargarria (orokorrean) - Haur hezkuntzako paretetako testuak edo lanak erdaraz (batzuetan...batzuetan etxean egindakoak,,,,) - Eskolaz kanpoko jardueretako irakasle batzuk erdaldunak; ez zuten inor topatzen euskalduna ba erdalduna ekarri zutela, euskaldunak izanik haurrei erdaraz zuzentzen zaizkienak... - Ikastolako profesional desberdinak erdaraz haien artean (garbitzaile, autobuseko zaintzaile, begirale.-asdefordindaia...), noski adibidez garbitzaileak ez dira euskaldunak, nik ez dut deus haien kontra, baina ez dira eredugarriak.... - Eskolaz kanpoko jardueren hurrengo ikasturterako kartelak, informazioaren atal handi bat erdara hutsean. - Chromebooketako atalak etabar erdaraz. - Etxerako lanen azalpenak batzuetan erdaraz. Ulertzen dut guztien larritasun maila ez dela berbera baina....iruditzen zait atzera goazela....

Erantzunak:

Zuzendaria: Hegoalde Ikastola Iruñeko D eredu publikoko aintzindaria izan da eta gure helburua ez da izan soilik familia euskaldunei arreta ematea, familia guztiei baizik. Berez, asmorik politena ahalik eta haur erdaldun gehien euskalduntzea dugu. Ez soilik gure eskolakoa, Iruñeko errealitate soziolingusitikoa zein den ezagutzea beharrezkoa da eta horrekin lan egiten dugu. Hegoalde Ikastolan familia asko erdaldunak dira eta besteen eskubide berberak bermatzen dizkiegu: gure jaialdi eta ospakizunetan parte hartu, hitzaldiak ematera etorri eta abar. Gainera, erdaldunak diren gurasoek ere eskubidea dute haien seme-alabaren gelan egunerokotasunean parte hartzeko eta informazioa jasotzeko. Guri ere gustatuko litzaiguke den-dena euskaraz egitea, baina hori ez da gure gaur egungo errealitatea. Espero dugu etorkizunean egoera aldatzea eta familia euskaldun gehiago izatea. Familia honek gure euskararekiko lana eta inplikazioa zalantzan jartzeak mintzen gaitu. Beti bezala, inguruko auzoetako familia euskaldun eta erdaldunei arreta egingo diegu, gero eta gehiago euskaldunduz.

Herritarraren erantzuna: Zuzendaritzak familia bat aipatzen du, baina familia asko gara, ez goaz inoren kontra, gauzak egiteko beste modu baten alde besterik ez....nire ustez estankatuta gaude "gehiengoa erdalduna" delakoaren aitzakian....Badirudi, gure ikastolak eraso bezala hartu duela, iradokizun edo esku luzaketa moduan izan beharrean”.

Dosierra: 486-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - EZKABA IKASTETXE PUBLIKOA

Arrazoia: Ezkaba eskolako (D eredu) sukaldaria ez da euskalduna. Hala esan diote haurrei.

Dosierra: 491-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA - Zuzendari Nagusia

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak, aldebakartasunez ikasle, irakasle eta ikasleen sustengu erabatekoa duen “ Musikariak Ikastetxeetan” programa etetea erabaki du. Euskara eta euskal kultura ikasleen artean zabaltzeko programa garrantzitsua zen. Nafarroako Gobernuari berriro ezarri dezan eskatzen diot, ikasleek euskaraz ikasi eta bizitzeko duten eskubidearen alde.

Dosierra: 498-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NUP - NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA-

Arrazoia: Ekainaren 29an (1238/2023 ebazpena) Nafarroako Unibertsitate Publikoan zerbitzuetako ofizial izateko 5 lanpostu (C mailakoak) barne igoerako prozedura murriztuan eta oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia argitaratu zen. . Euskararen ezagutza ez zen kontuan hartu, baina ingelesa, frantsesa eta alemana jakinda 6 puntu lor daitezke 90etik (% 6'67). Horrelako erabakiek in unibertsitatean euskarazko harremanak izatea edo euskarazko zerbitzua jaso ahal izatea oztopatzen da.

Dosierra: 616-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NUP - NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA-

Arrazoia: 2023ko uztailean Nafarroako Unibertsitate Publikoak lan deialdi hau argitaratu zuen: -Zerbitzuetako ofizial izateko 5 lan-postu betetzeko deialdia (1238/2023 ebazpena, 1546/2023 ebazpenaren bidez zuzendua). Euskararen ezagutzarekiko balorazioa %1,94koa izan zen (90 puntutik 1,75). %5etik beherako puntuazioek Unibertsitatean euskarazko zerbitzua eskaini ahal izatea baldintzatzen dute eta nola ez, ez dira hizkuntza eskubideak bermatzen.

Dosierra: 657-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoia: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza arduradunek bestelako iragarpenak egin baldin bazituzten ere, departamentuak ez du behar bezala sustatu eta iragarri D eredu Lezkairuko eskolan. Borondate faltaren ondorioz Paderborn-Lezkairu zentroan ez da D ereduan ikasteko aukerarik egon.

Dosierra: 675-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NUP - NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA - ERREKTOREAREN KABINETEKO BURUA-

Arrazoa: Medikuntzako fakultatea eraikitzen hasi da Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Hori iragartzen duten kartel guztiak gaztelania hutsean daude. Euskaldunok ez al dugu merezi informazioa euskaraz jasotzea?

Dosierra: 737-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NUP - NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA-

Arrazoa: Abuztuaren 24ean, 1596/2023 ebazpenaren bidez, hautaprobaren bidez izangaien bi zerrenda egiteko, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Laborategiko Zerbitzuetako ofizialaren lanpostua betetzeko bi zerrenda osatzeko deialdia argitaratu zen (C maila, Laborategi Kliniko eta Biomedikoko espezialitatea), bata aldi baterako kontratazioak egiteko, eta bestea prestakuntzarako, zerbitzu berezien egoeran. Euskararen ezagutza ez zen kontuan hartu.

Dosierra: 742-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - BERNART ETXEPARE IP

Arrazoa: Iruñean Txantreako Bernart Etxepare ikastetxeko ikasturte hasierako guraso bilera orokorra gazteleraz bakarrik eskeini didate, nahiz eta nik euskaraz jaso nahi nuela adierazi. Ikastetxe hau D ereduko ikastetxea da, Iruñean, eta euskararen arnagune izan daitekeen toki apurretako bat. Ez dute bilera bi hizkuntzatan egiteko aukera eman, edo bi bilera hizkuntza ezberdinetan, edo itzulpengintza zerbitzua erabiltzeko aukera eman...klastro bakarrean erabaki omen dute guraso bilera orokorrak gazteleraz egingo direla. Nik ez joatea erabaki dut, euskarazko bileraren zain geratuko naiz, ez baitnago ados hartutako irizpidearekin. Oso larria deritzot, euskara baztertu eta ixiltzen baitute honela. Zuzendaritzarekin email trukaketa batzuk izan ditut behar izanez gero.

Dosierra: 787-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NUP - NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA - NAFARROAKO UNIBERTSITATEKO MUSEOA

Arrazoa: Urriaren 21ean 19:30-etan Nafarroako Unibertsitate Museoa "Averno. Marcat Dance" ikuskizuna egin zen. Aretoko megafoniatik emandako argibideak, agurra, hasieraren iragarpina, telefonoak itzaltzekoa... gazteleraz nahiz ingelesez esan ziren, euskaraz ez.

Dosierra: 789-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoa: Nafarroako Gobernuaren laguntza programaren barnean, "Haur Hezkuntzako Ongizate Emozionaleko tresnen kutxa" izeneko dokumentua dago, euskarazko nabegatzailean izan arren, dokumentua gaztelaniaz soilik agertzen da. <https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/programa-laguntza>

Erantzunak:

Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atal Burua: Barkatu eragindako eragozpenak baina errata bat izan da. Materiala euskaratuta genuen hasieratik baina igotzerakoan okertu egin ginen.

Dosierra: 828-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoa: urriaren 23an, (272/2023 ebazpenaren bidez) deialdi bat onesten duena Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Ikuskapen Zerbitzuan behin-behineko ikuskatzaile lanpostuak zerbitzu eginkizunetan aldi baterako betetzeko izangaien bi zerrenda (bata euskaraz bestea gaztelaniaz) eratzeko deialdia argitaratu zen. Gaztelaniazko zerrendarako euskaraz jakitearen balioa % 0'5ekoa soilik izan zen (30 puntutik 0'15). Hala ere, puntu guztiak lor zitezkeen euskararen inongo ezagutzarik gabe. Euskararen irakaskuntza zabaltzen doan heinean, Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuko ikuskari guztiek izan beharko lukete euskararen ezagutza.

Dosierra: 829-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NUP - NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA-

Arrazoa: Nafarroako Unibertsitate Publikoak argitaratutako lan-deialdi hauetan ez zen euskararen ezagutza kontuan hartu: -Urriaren 3an (1991/2023 ebazpenaren bidez), bi izengai zerrenda egiteko deialdia gidari lanpostua betetzeko (bata aldi baterako kontratazioak egiteko, bestea prestakuntzarako). -Urriaren 23an (2121/2023 ebazpenaren bidez), OL-ko administrari izateko 22 lanpostu betetzeko deialdia. -Urriaren 23an (2140/2023 ebazpenaren bidez), Artxibo eta Liburutegietako teknikari laguntzaile izateko 6 lanpostu. Ondorengo lekualdatze-lehiaketetako deialdietan euskararen ezagutza nolabait baloratu zen arren (euskararen inongo ezagutzarik gabe bete zitezkeen), oso pisu eskasa izan zuen, beraz, unibertsitateak euskarazko zerbitzuak eskaini ahal izateko ez dira neurri egokiak: -Urriaren 9an: (2079/2023 ebazpenaren bidez) OL-ko administrari izateko lanpostu hutsak lekualdatze lehiaketaren bidez betetzeko deialdia argitaratu zen. Euskararen balorazioa %5,66koa soilik izan zen. (2092/2023 ebazpenaren bidez) artxiboko eta liburutegietako teknikari laguntzaile izateko lanpostu hutsak betetzeko leku-aldatze deialdia. Zazpi lanpostutatik 2tan soilik izan zen nahitaezkoa euskatzen ezagutza, gainerakoetan 48,76 puntutik 2,76 puntu izan zituen soilik. - Urriaren 13an (2114/2023 ebazpenaren bidez), Olko kudeaketari izateko B mailako lanpostuak lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia argitaratu zen. 22 lanpostutatik 7tan ingelesaren ezagutza nahitaezkoa izan zen, 2-tan soilik euskararena. Gainerakoetan euskararen ezagutzak 2,76 puntu soilik izan zituen. - Urriaren 24an (2190/2023 eta 2191/2023 ebazpenen bidez) adar ekonomikoko Olko teknikari lanpostu hutsak eta Olko liburutegiko laguntzaile lanpostuak betetzeko deialdiak argitaratu ziren. Euskararen balorazioa 46,76 puntutik 2,76 puntutakoa soilik izan zen. Liburutegiko lanpostua jendaurreko arreta zuzena eskaintzen duen lanpostua izan arren, %10etaik behera baloratu zen euskararen ezagutza. -Urriaren 31ean (2189/2023 ebazpenaren bidez) D mailako lanpostu hutsak lekualdatze lehiaketaren bidez betetzeko deialdia. Euskararen ezagutzak 48,76 puntutik 2,76 puntu soilik izan zituen (jendaurreko lanpostuak dira).

Dosierra: 836-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoa: urriaren 26an (269/2023 ebazpenaren bidez), maisu-maistrak, Bigarren Hezkuntzako katedradunak eta irakasleak, Lanbide Heziketako irakasle teknikoak (desagertzeaz dagoen kidegoa), Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialistak, Hizkuntza Eskola Ofizialetako katedradunak eta irakasleak, Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradunak eta irakasleak eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko katedradunak, irakasleak eta lantegiko maisu-maistrak, baita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioak eta atzerriko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak argitaratu ziren. Euskararen balorazioa 3 puntutakoa soilik izan zen eta ez zen garbi aipatzen zein portzentaia zen, antzinasunaren puntuazioak ez baitauka mugarik. Hala ere garbi dago %5etik behera puntuatu zela euskararen ezagutza.

Dosierra: 882-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Arrazoa: Azaroaren 6an gauza bera gertatu zitzaidan. Hezkuntzako erregistroan dagoen neskak ondokoa erran zidan: "En estos momentos no esta mi compañera para atenderte en euskera". Lehenengo egunean, tira, patatekin jan nuen, baina bigarreanean, jada, gehiegi iruditu zait. Euskaldunok, betiko moduan, buelta piloa eman behar dugu gure hizkuntzan artatuak izateko. Oraingoan, gaztelera egin behar izan dut.

Dosierra: 956-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NUP - NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA - GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA-

Arrazoa: Nafarroako Unibertsitate Publikoak lan deialdi guzti hauek argitaratu zituen azaroan. Guztietan euskararen ezagutza kontuan izan gabe: -2023-22-03: OLko kudeatzaile izateko 13 lanpostu (2174/2023 ebazpena). -2023-11-06: Adar ekonomikoko OLko teknikari izateko 6 lanpostu (2255/2023 ebazpena). -2023-11-06: OLko liburutegiko laguntzaile izateko 4 lanpostu (2256/2023 ebazpena). -2023-11-09: Zerbitzu orokorretako 2 lanpostu (2254/2023 ebazpena). -2023-11-09: OLko A mailako 5 teknikari lanpostu (2288/ebazpena). -2023-11-14: Laborategiko zerbitzuetako ofizial lanpostu bat, Laborategi Kliniko eta Biomedikoa, C maila.

(2321 ebazpena). -2023-11-14: laborategiko zerbitzuetako ofizial izateko 2 lanpostu. Mekanika C maila. (2319/2023 ebazpena). -2023-11-28: Laborategiko zerbitzuetako ofizial lanpostu 1. Elektromekanika, C maila. (2318/2023 ebazpena). -2023-11-28: Lborategiko zerbitzuetako ofizial lanpostu bat. Elektronika C maila. (2320/2023 ebazpena). -2023-11-28: OL kudeatzaile lanpostu bat, B maila. (2351/2023 ebazpena). -2023-11-28: Informatika zerbitzuko OLko kudeatzaile izateko 6 lanpostu, B mailakoak. (2412/2023 ebazpena).

Dosierra: 960-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NUP - NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
- GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA-

Arrazoa: 2023ko azaroan, Nafarroako Unibertsitate Publikoak ikertzaileak kontratatzeke 6 lan deialdi hauek argitaratu zituen. Euskararen ezagutza ez zen kontuan hartu, bai ordea ingelesarena. NUP-ek ikerketaren arlotik ia sistematikoki baztertzten du euskara eta aldiz, ingelesa bultzatzen du. -2023-11-06: Irakaskidegoetako lanpostuak betetzeko deialdia. (2226/ 2023 ebazpena). -2023-11-14: Ikerketa proiektu bat garatzeko ikertzaileak kontratatzekeoa (2284/2023 ebazpena). -2023-11-30: Ikerketa proiektu bat garatzeko ikertzaileak kontratatzekeoa (2393/2023 ebazpena). -2023-11-30: Ikerketa proiektu bat garatzeko ikertzaileak kontratatzekeoa (2394/2023 ebazpena). -2023-11-30: Ikerketa proiektu bat garatzeko ikertzaileak kontratatzekeoa (2395/2023 ebazpena). -2023-11-30: Ikerketa proiektu bat garatzeko ikertzaileak kontratatzekeoa (2396/2023 ebazpena).

Lehendakaritza (8)

Dosierra: 398-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - LEHENDAKARITZA - IDAZKARITZAKO ETA ARAUGINTZAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Nafarroako Gobernuaren idazkaritzako eta araugintzako zerbitzutik gutuna heldu zaigu, beste behin gaztelania hutsean.

Erantzunak:

Idazkaritza eta Araugintza Zerbitzua: kexaren jatorria ez da jakinarazpen bat, zentzu hertsian, baizik eta telematikoki eta/edo posta arruntez igorritako informazio soil bat, zeinaren edukia hauxe baino ez baita: berriki laguntza-zerbitzu bat abian jarri dela iragartzea, fundazioei beren legezko betebeharrak nagusiak betetzea errazteko. Kexaren edukari dagokionez, esan beharra dago gure ustez inskribatutako fundazioei emandako informazioak betetzen duela Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen araudia.

Dosierra: 436-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - Lehendakaritza - FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoa: Maiatzaren 8an (1349/2023 ebazpenaren bidez), basozainen hogeita bederatzia lanpostu betetzeko oposizio deialdia argitaratu zuen Nafarroako Gobernuak. Euskararen ezagutzan ez zen kontuan hartu deialdi osoan.

Dosierra: 446-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - Lehendakaritza - FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoa: Nafarroako Gobernuak martxoan hainbat lan-deialdi argitaratu zituen. - Martxoaren 28an (969/2023 ebazpena), Ogasuneko kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaileen hogeita hiru lanpostu oposizio bidez betetzeko. Euskara ez zen kontuan hartu. 11 lekualdaketa lan-deialdi egin ziren: -Martxoaren 7an (129E/2023 ebazpena), otsailaren 13koa, Nafarroako Osasun Zerbitzurako zeladoreen 79 lanpostu huts merezimendu-lehiaketa bidezko lekualdatzearen bitartez betetzeko, lanpostu huts horietatik 40 lan araubidekoak eta lanaldi partzialeko kontratukoak izanik. Euskararen ezagutza ez zen kontuan hartu. -Martxoaren 7an (130E/2023

ebazpena), Osasun Departamentuko erakunde autonomoen zerbitzurako erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikarien (EZLT) 344 lanpostu huts merezimendu-lehiaketa bidezko lekualdatzearen bitartez betetzeko, lanpostu huts horietatik 104 lan araubidekoak eta lanaldi partzialeko kontratukoak izanik. Euskara ez zen kontuan hartu. - Martxoaren 9an (40/2023 ebazpena), zerbitzuko suhiltzaileen 53 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko. (NAO, 2023-03-09). 3 lanpostu dira eremu euskaldunean. Euskarazko hizkuntz profila badute, euskarazko B2 maila beharrezkoa da. Ez da zehazten profil hori duten. Bestela, euskaraz jakitea meritua izanen dute (% 9'09, 50'6 puntutik 4'6). Eremu mistoan eta "ez euskaldunean" euskara ez zen kontuan hartu. - Martxoaren 13an (67/2023 ebazpena), laneko medikuntzako mediku espezialisten 2 lanpostu huts betetzeko merezimendu-lehiaketa bidezko lekualdatzearen bitartez, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Instituturako. Euskara ez zen kontuan hartu, baina frantsesa, ingelesa eta alemana bai. -Martxoaren 17an (853/2023 ebazpena), zerbitzuko B mailako lanpostu batzuk, lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko, hori guztia enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko egonkortze-prozesuen esparruan. Euskara ez zen kontuan hartu. - Martxoaren 17an (852/2023 ebazpena), zerbitzuko A mailako lanpostu batzuk, lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdiak, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko egonkortze-prozesuen esparruan. Euskara ez zen kontuan hartu. -Martxoaren 20an (823/2023 ebazpena), suhiltzaile izateko berrogeita hamahiru lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia onesten duena. Euskara ez zen kontuan hartu. - Martxoaren 24an (854/2023 ebazpena), C mailako lanpostu batzuk, I. eranskinean zerrendatzen direnak, lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko. Euskara eza zen kontuan hartu. - Martxoaren 24an 855/2023 (ebazpena), D mailako lanpostu batzuk, I. eranskinean zerrendatzen direnak, lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko. Ez zen euskararen ezagutza kontuan hartu. -Martxoaren 24an (857/2023 ebazpena), ogasuneko kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaileen lanpostu hutsak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko. Ez zen euskara kontuan hartu. - Martxoaren 28an (954/2023 ebazpena), basozainen lanpostu hutsak lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten duena. Ez zen euskara kontuan hartu, eremu euskaldunetik kanpo. Ordea, ingelesa, frantsesa eta alemana kontuan hartzen dira Nafarroa osoan. Eremu euskaldunerako euskararen puntuazioa % 9'09koa izan zen (50'6 puntutik soilik 4'6). Eremu euskalduneko lanpostuak 7 izan

ziren. Eremu mistoko lanpostuak 21 izan ziren. Eremu “ez euskaldun”-eko lanpostuak 3.

Dosierra: 499-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - Lehendakaritza - FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoa: Nafarroako Gobernutik lan-deialdi hauek egin ziren ekainean: -Ekainaren 8an, (1774/2023 ebazpenaren bidez), Nafarroako Foruzaingoko agenteen ehun lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia argitaratu zen. Euskararen ezagutza ez zen kontuan hartu, beraz, herritarren hizkuntza eskubideak urratu eta hizkuntza hautua baldintzatzen jarraituko da. -Ekainaren 6an (89/2023ebazpena) Nafarroako Foruzaingoko agente lanpostu batzuk lehiaketa bidez edo berariazko lehiaketa bidez betetzeko deialdia argitaratu zen. Berariazko lehiaketan (44 lanpostu): Eremu euskaldunerako soilik puntuatzen da euskaraz jakitea, baina hor ez dago lanposturik. Lehiaketan (60 lanpostu): Euskara ez zen kontuan hartu. Herritarrekin harreman zuzena duten lanpostuak izanik, euskararen ezagutza nahitaezkoa izan beharko litzateke lanpostu guztietan.

Dosierra: 504-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - Lehendakaritza - FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoa: Ekainaren 6an, 94/2023 Foru aginduaren bidez, maiatzaren 3koa, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa eta langile finkoen eta izendapen libreko zuzendaritza karguetan aritzen diren behin-behineko langileen zerrenda argitaratu zen. Luzeragatik xehe aztertzerik ez dago, baina inolako aldaketarik publiko egin ez denez, hezkuntzatik kanpoko lanpostu elebidunak % 2aren bueltan egonen dira. Egoera horrekin euskarazko harremanak oztopatzen dira, beraz Nafarroako Gobernuari lanpostu elebidunen kopurua handitzeko neurriak har ditzan eskatu nahi diot.

Dosierra: 596-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - Lehendakaritza - FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoa: uztailaren 20an Nafarroako Gobernuak suhiltzaile-kaboen hogeita hamabi lanpostu kategoriaz igotzeko lehiaketaren bidez betetzeko deialdia argitaratu zuen (2362/2023 ebazpena). Euskararen ezagutza eremu euskaldunearn soilik baloratu zen (%6,01 soilik), aldiz, frantsesa, ingelesa eta alemanaren ezagutza Nafarroa osorako baloratu ziren. Neurri hauek ez dituzte herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko, eremu euskaldunearn ezta, horrek herritarren segurtasuna bera ere baldintzatu dezakeelarik.

Dosierra: 597-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - Lehendakaritza - FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoa: uztailaren 28an Nafarroako Plantilla Organikoan aldaketak egin ziren. Besteak beste, osasun publikoko goi mailako teknikarien lanpostua atera zen (73093 lanpostua). Lanpostu hau betetzeko nahitaezkoa da ingelesaren ezagutza baina euskararen ezagutza ez zen eskatu.

Dosierra: 626-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NAO / NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALAREN ZERBITZUA

Arrazoa: Nafarroako Boletin Ofizialaren euskarazko web-orrialdea zabaldu arren, informazioa ez da beti euskaraz agertzen. Irailaren 1ekoa horren adibide: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2023/184/106>

Ogasuna (3)

Dosierra: 314-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OGASUNNEKO ZUZENDARITZA

Arrazoa: Nafarroako Gobernuko Ogasun Sailean errenta aitortpena egin ahal izateko kodea eskatu nuen. Etxera heldu zitzaidan pasa den ostiralean, euskara ofiziala den herrian bizi eta aurreko urtean ere errenta aitortpena euskaraz egitea eskatu nuen arren, gaztelania hutsean heldu zait gutuna.

Dosierra: 623-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OGASUNNEKO ZUZENDARITZA

Arrazoa: Energia berriztagarrien instalazioetan, ibilgailu elektrikoetan eta birkarga-sistemetan egindako inbertsioengatik kenkari fiskala eskatzeko tramitea ez dago euskaraz. Tramitearen orrialdeko testuak zein lotutako dokumentuak gazteleraz bakarrik daude. <https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on-/line/Informe-de-inversiones-en-instalaciones-de-energias-renovables-y-en-sistemas-de-recarga>

Erantzunak:

Nazioarteko Proiektu Bulego Burua: jasotako kexa dela eta, honako hau jakinarazi nahi dut: · Adostasuna dugula eskatzen denarekin. · Arazo hau konpondu ahal izateko bidea egiten hasi garela, hau da, tramite orria itzuli ahal izateko "Itzulpenflow" zerbitzura bideratu da.

Dosierra: 624-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OGASUNNEKO ZUZENDARITZA

Arrazoa: Nafarroako Gobernuak berriki martxan jarri duen "Karpeta fiskala" zerbitzua ez dago euskaraz.

Osasuna (19)

Dosierra: 42-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO GERENTZIA

Arrazoa: Osasunbidean erreklamazioa paratu dut gure herriko mediku-kontsultak kendu dituztelako. Erreklamazioa euskaraz idatzi badut ere, formulario guztiak eta informazio guztia gaztelania hutsez dago honako helbide honetan: https://www.navarra.es/home_eu/Temas/Portal+de+la+Salud/Ciudadania/Participacion/Mis+derechos+y+deberes/Derecho+a+la+participacion+reclamaciones+y+sugerencias.htm Osasunbidean erreklamazioa sartu dut, baina Behatokiaren bidez ere egin nahi dut eskaria, Nafarroako Gobernuak bere webgune guztiak bi hizkuntza ofizialetan jar ditzan.

Dosierra: 125-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NAFARROAKO OSASUN PUBLIKOAREN ETA LAN OSASUNAREN INSTITUTUA

Arrazoa: Hazkuntza positiboari buruzko tailer edo lantegi baten inguruko informazioa helarazi dit ele biz eskolak. Lantegia ez da euskaraz izango. Nafarroako Gobernuak da antolatzailea.

Dosierra: 189-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - HOSPITAL UNIVERSITARIO DE NAVARRA

Arrazoa: Nafarroako ospitaleko D pabilioiko gela batean nago, bertan 7 informazio kartel paratu dituzte, gaixo zein laguntzaileentzat. Haietako bakarra elebiduna da, larrialdietako irteerei dagokiena, gainontzeko seiak erdara hutsez daude.

Dosierra: 265-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - KOLONEKO MINBIZIARI AUREA HARTZEKO PROGRAMA

Arrazoa: Koloneko minbizia detektatzeko probaren emaitza gaztelania hutsean bidali dit Osasunbideak, komunikazioa euskaraz izan nahi dudala adierazita dudana arren.

Dosierra: 288-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO GERENTZIA

Arrazoa: Larraun eta Lekunberri udalerrietako mediku etxean "no tocar la puerta" jartzen du bakarrik, erdera hutsean.

Dosierra: 295-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - PAZIENTEAREN ARRETARAKO ZUZENDARITZA

Arrazoa: Emaginarekin izan nuen kontsulta martxoan Etxarri Aranatzen. Egindako proben emaitzak gaztelania baino ez dizkidate jakinarazi eta nik Osasunbidearekin hartu-eman guztia euskaraz izateko eskaera egin dut. Nire eskaera eta euskararen ofizialtasuna aintzat hartzea eskatzen dut. Nire eskubidea da.

Dosierra: 373-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO GERENTZIA

Arrazoa: Leitzako osasun etxean zenbait kartel informatibo gaztelera hutsean daude.

Dosierra: 410-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - PAZIENTEAREN ARRETARAKO ZUZENDARITZA

Arrazoa: Iruñeko San Martin osasun zentroko itxarongelan, kontsultarako deia begiratzeko panelak eta web aplikazioa gaztelania hutsean daude.

Dosierra: 418-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NAFARROAKO OSASUN PUBLIKOAREN ETA LAN OSASUNAREN INSTITUTUA - GOIZ DETEKTATZEKO PROGRAMAREN ATAL BURUA

Arrazoa: Gutun bat iritsi zait Nafarroako Osasun Departamentutik umetoki-lepoko minbiziaren prebentzio kanpaina dela eta. Gutun honetan triptikoak 2 hizkuntzetan jaso ditudan bitartean, azalpen gutuna gaztelera hutsean iritsi zait.

Dosierra: 533-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO GERENTZIA

Arrazoa: Lakuntzako osasun etxera deitu dut familia medikuarekin hitzordua hartzeko eta telefonoa hartu duenak ez dit arreta euskaraz eskaini. Gaztelaniaz aritu behar izan dut. Emandako hitzorduan kontsulta pasa dut eta hartu-eman guztia gaztelaniaz egin behar izan dut, medikuak ez baitzekien euskaraz. Deseroso eta bigarren mailako paziente sentitu naiz.

Dosierra: 607-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - NAFARROAKO OSPITALE UNIBERTSITARIOA

Arrazoa: Iruñeko ospitalguneko kafe makinak dauden tokian, txartel pila bat jarri dituzte hormetan, egindako zenbait hobekuntzaren berri emateko. Denak gaztelania hutsean.

Dosierra: 608-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - NAFARROAKO OSPITALE UNIBERTSITARIOA

Arrazoa: joan den larunbatean (hilaren 19an) Nafarroako Ospitaleguneko Larrialdietan egon ginen. Kontrolean eman ziguten paperean hitz bakar bat ere ez euskaraz!

Dosierra: 681-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIA ZERBITZUA

Arrazoa: Emakumeen Arretarako Etxarri Aranazko Zentrora deitu dut hitzordua hartzeko. Euskaraz hitz egiten hasi eta telefonoa hartu didanak "no se euskera" esan dit. Gaztelaniaz jarraitu behar izan dut. Hitzordua baieztatzeke sms-a bidali didate, hemen ere euskararen arrastorik ez. Azkenik, euskaraz ez dakien matronarekin pasatu dut kontsulta. Osasunbidearekin hartu-eman guztiak euskaraz izateko eskaera eginga daukat. Noiz, noiz hasi behar du Nafarroako Gobernu emakume euskaldun kopuru handi baten hizkuntza-eskubideak bermatzen?

Dosierra: 717-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO GERENTZIA

Arrazoa: Arbizuko familia medikuarekin txanda hartzeko 948 464846 telefonora deitu dut gaur goizean. Euskaraz hitz egin eta "me puede hablar en castellano?" erantzun didate telefonoaren bestaldetik. Mediku euskaldunik ere ez daukagu baina, orain arte, gutxienez txanda euskaraz hartzeko aukera zegoen, oraina hori ere ez. Euskara ofiziala den eremuan ere atzeraka gobernu aurrekoiarekin...

Dosierra: 756-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - PAZIENTEAREN ARRETARAKO ZUZENDARITZA

Arrazoa: Erresonantzia egiteko dudak hitzordua gogorarazteko sms-a gaztelania hutsean bidali dit Osasunbideak, beste behin. Zenbat aldiz gogorarazi behar diot Osasunbideari hartu-eman guztietarako euskara dudala hautatuta? Zenbatetan esan behar zaie euskaldunon hizkuntza-eskubideak ez ezik, legea bera ere urratu egiten dutela nire herrian euskara ofiziala delako?

Dosierra: 806-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - PAZIENTEAREN ARRETARAKO ZUZENDARITZA

Arrazoa: Vianako Printzea kontsulta-zentroan Neurologiako kontsultan egon naiz nire 86 urteko osabarekin eta egin behar dizkioten frogen artean test batzuk daude, euskaraz egin nahi ditugula adierazi dugunean, euskaraz ez dagoela testik esan didate. Osaba euskaraz askoz hobe moldatzen da(ama hizkuntza du)eta euskaraz ez baditu egiten, probaren emaitza ez da erreala izango.

Dosierra: 866-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - PAZIENTEAREN ARRETARAKO ZUZENDARITZA

Arrazoa: Pediatrarengana joan gara. Pediatra ez da Euskalduna. Eta herriko anbulatorioan (Antsoainen) ez dago pediatra euskaldunik.

Erantzunak:

Nafarroako Iparraldeko Oinarrizko Osasun Laguntzaren eta Laguntzaren Jarraitasunerako zuzendariordea: Gaur egun, Antsoaingo osasun etxeko pediatra lanpostuetarako ez da euskaraz jakiteko betekizuna eskatzen; horregatik, Nafarroako Gobernuari edo Parlamentuari dagokio, lanpostu hori betetzeko, euskara jakitea nahitaez eskatzeko egin beharreko lege-aldaketak egitea.

Dosierra: 877-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO GERENTZIA

Arrazoiak: azaroaren 16an Antsoaingo osasun etxera telefonoz hots egin nuen (948136250). 2 zenbakia sakatuta euskaraz artatu beharko ninduten. Erdaraz artatu naute. Behar nuenari erantzuteko beste tlf. znbk. batera (948136111) hots egiteko esan didate. Erdaraz artatu naute honetan ere: "Me puedes hablar en castellano." esanez.

Dosierra: 986-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO GERENTZIA

Arrazoiak: Iturrama institutuko DBH2 mailako ikasleei tetanos txertoa jarri zieten. Ikasle guztiak ilaran zeudela gure semeari atzera joateko eskatu zioten bere gurasoek baimena eman ez zutela argudiatuz. Baimena euskarazko atalean behar bezala zegoen betea baina hori ez zioten aitzat hartu.

Segurtasuna (3)

Dosierra: 72-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - BARNE ZUZENDARI NAGUSIA -

Arrazoa: Pasa den urriaren 28an, 01:30ak aldera lanera gindoazela, Foruzaingoaren patruila batek geratu gintuen Berako gasolindegia inguruan. Guregana gaztelaniaz zuzendu ziren eta nik "mesedez euskaraz" egitea eskatu nuen. Orduan, "a sí eh?, pues ahora, `por lista, prueba de drogas" erantzun zidan agenteak. Euskaraz aritzeko nire eskubidea aldarrikatzea ez zuen ongi hartu, eta, hortik aurrera, tratua oso desatsegina eta zakarra izan zen denbora guztian. Horren adibide izan zen drogen probak ez zuela emaitza eman lehenengo saiakeran eta, momentu batean, lagina jasotzeko ahoan sartu behar den makiltxo lurrera erori eta lurretik jasotako makiltxo horrekin berarekin egin zidatela drogen probaren bigarren saiakera, ez zidaten beste makiltxo bat eman nahiz eta nik hala eskatu. Proba egiteko unean agente bakarra zegoen nirekin, ez zegoen beste lekukorik. Aipatu bezala, lanera gindoazen eta 02:30ak arte eduki gintuzten bertan bertan. Zalantzarik gabe, jaso genuen tratua desatsegin eta desegokia euskaraz aritu nahi izateagatik izan zen.

Dosierra: 132-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NAFARROAKO FORUZAINGOA

Arrazoa: Foru Zaingoak sare sozialetan gaztelania soilik erabiltzen du eta kartel hau ere gaztelania hutsean atera dute. Berriaren estekan euskara hautatuta, kartela gaztelaniaz agertzen da. <https://www.navarra.es/eu/-/prentsa-oharra/foruzaingoak-ate-irekien-jardunaldia-egingo-du-igande-honetan-nafarroa-arenan>

Dosierra: 456-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NAFARROAKO FORUZAINGOA

Arrazoa: Bullyngaren kontrako hitzaldi bat ematera joan ziren Foruzaingoaren 2 agente Iñaki Ochoa de Olza ikastetxera. Ikasle euskaldunei zuzendua zen eta, agenteetako bat euskalduna baldin bazen ere, hitzaldi guztia gaztelaniaz izan zen.

Erantzunak:

Foruzaingoaren burua: Zehatz-mehatz aztertu da zure erreklamazioa eta hilaren 12ko goizean zabaldu zen hitzaldian eman ziren inguruabarrei dagokienez. Jakinarazi behar dut 2023ko ekainean ikasle-taldeari hitzaldia polizia-agente espezializatu eta ospe handiko bi agentek zabaldu zutela, Polizia Asistentzialeko unitatean atxikita, gaztelaniaz, eta horietako batean, noizean behin, euskaraz esku hartu zutela, hizkuntza hori jakitean. Nolanahi ere, Iñaki Ochoa de Olza Institutuko Hezkuntza Orientatzaileak eskola-jazarpenari buruz (Bullying) sustatu zuen hitzaldiari zegokion eskaerak ez zuen baldintza baztertzailatzat ezarri euskaraz izatea, eta argitu zuen ez zuela arazorik gaztelaniaz emateko, nahiz eta xede zuen foroa "D" ereduko ikasleak izan. Positiboki baloratzen du bultzatu zuen pertsonak, probetxugarritzat hartzen baitu. Sentitzen dut Foruzaingoiari buruz izan

EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOIA

Guztiak (2)

Dosierra: 223-2023

Nori: EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOIA

Arrazoa: Hirigune Elkargotik zabaldutako mezua. Dena frantsesez da... Eta nahikoa ez balitz, EHE akronimoarekin izendatzen dute Elkargoa, herri honetako eragile historikoa eta daraman borrokari muzin eginez... Gainera, Oztibarreko hondarkinen gaia denez, jakin: - Lartzabaleko hondarkindegian espray-ekin handiz eta frantses hutsez idatzi dituztela birtziklagaien izenak bakoitzari doakion eremuan... - eta bertako langile berri euskalfoboak (alsaziatik etorria dioenez) harro-harro eta arrotz-arrotz hartzen ditu bertaratzen diren euskaldunak... horren denagatik kexa hirukoitza beraz,

Dosierra: 367-2023

Nori: EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOIA

Arrazoa: Euskal Elkargotik Iholdi-Oztibarreko eskualderako zabaldu duen PDF fitxategia... Ikusten denez euskara goiburuetan besterik ez da ageri... beste guztia frantses hutsez dago...

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Guztiak (2)

Dosierra: 299-2023

Nori: ARABAKO FORU ALDUNDIA - MUGIKORTASUN JASANGARRIA ETA BIDE AZPIEGITURAK

Arrazoiak: Arabako A-624 errepidean, Etxaurren Ikastolaren ondoan, seinale hau gaztelaniaz bakarrik idatzita dago. Dagokionari euskaraz ezarri dezan eskatu nahi diot.

Dosierra: 334-2023

Nori: ARABAKO FORU ALDUNDIA - VIA PROMOCION DEL AEROPUERTO DE VITORA SA

Arrazoiak: Gaurko Garak Gasteizko aireportua sustatzeko iragarkia dakar, euskara hutsean ekarri ere. Ez da ohikoa aireportuen gaineko publizitatea (AENA sozietate publikoarenak izan ohi dira) euskaraz ikustea, eta, hargatik, pozgarri zait. Ostera, norakoak, hiri izenak-eta, erdaraz dakartza: "Alicante [Alacant beharrean], Mallorca, Sevilla, Malaga, Islas Canarias [Kanaria uharteak beharrean], Milan-Bergamo, Colonia-Bonn [Kolonía-Bonn beharrean], Bruselas-Charleroi [Brusela-Charleroi beharrean]". Webgunearen <<https://www.vitoriateconecta.com>> euskarazko bertsioan ere gaztelaniazko izenak darabiltzate. Webgunearen atzean Vitoria-Gasteizko Aireportua Sustatzeko Sozietatea dago eta beronen bazkideak dira Vitoria-Gasteizko Udala, Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Arabako Ganbera, beste webgune honetan <<https://www.via.aero/eu/sustapen-sozietatea>> irakurri dudanagatik.

Dosierra: 411-2023

Nori: ARABAKO FORU ALDUNDIA - OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Arrazoiak: gaur, maiatzaren 26a, 11:00ak aldera, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun Sailera joan naiz kontsulta bat egitera. Zinpeko goardia batek euskaraz harrera egin eta txanda hartzeko leihatila non zegoen esan dit. Lehiatilan euskaraz hasi naiz. Langilearen erantzuna: "Erdaraz mesedez" Aldundiak ez du bermatzen euskarazko harrera berehalakoa. Harrerako langile guztiak ez dira euskaldunak. Horrela denez,

ez zaie burutik pasatzen adieraztea zein lehiatilan Goten duten euskaraz. Bestalde, ez dago inolako iragarkirik jendea bertan euskara erabiltzera animatzeko.

Erantzunak:

Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitziburua: Ez dago jasota horren inguruko gorabeherarik, eta, beraz, neurri egokiak hartu ahal izateko, horri buruzko datu gehiago emateko eskatzen dizuet: arreta mostradore zehatza, salatzailak egin nahi zituen izapideak, eta abar. Kontuan izan behar da 2022ko errenta kanpaina bete-betean gaudela, eta langileen mugimendua ohikoa dela. Gure bulegoetan euskararen erabilera sustatzen duten kartelik ez dagoelako kexari dagokionez, esan behar da hormetan AFA guztian Euskara zure aukera jartzen duen kartelez gain, jendeari arreta emateko mahaietan eta lekuetan ere badaudela testu bereko eranskailuak; Arabako Foru Ogasunaren informazio mahaian, zehazki, lau daude jarrita, postu bakoitzean bat.

Dosierra: 452-2023

Nori: ARABAKO FORU ALDUNDIA - OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Arrazoiak: Arabako Foru Aldundian errenta-aitorpena euskaraz egiteko hitzordua eskatu nuen, eta eragozpenak izan nituen. Euskara batuan eta ahalik eta argien hitz egin arren, egokitu zitzaidan langileak ozta-ozta ulertzen zidan, eta argibideak espainieraz eman zizkidan. Uler ziezadan, behin eta berriro errepikatu behar izan nituen azalpenak eta galderak, hitzak astiro ahoskatuz. Amaieran, aitordenaren emaitzaren agiriak ere espainieraz eman zizkidan. Hitzorduak luze jo zuenez, une hartan ez nintzen ohartu paperak zein hizkuntzatan zeuden; deseroso nengoen, eta lehenbailehen alde egin nahi izan nuen foru-aldundiaren bulegoetatik. Hurrengo astean, kexa aurkeztera joan nintzen foru-aldundira. Informazioa ematen duten leihatilan, ezpain gorritza batzuen ondoan "Euskara, zure aukera" dioen itsasgarri bat ikusi nuen. Harrera euskaraz egingo zidatelakoan, euskaraz hasi nintzen, eta leihatilaren beste aldekoak ez zidan ulertu. Hurbilagotik hitz egin nion, ondo entzun ez zuelakoan, eta erantzun zidan ez dakiela euskaraz. Erdaraz hitz egin behar izan nion. "Euskara, nire aukera... baina zurea ez?" pentsatu nuen neure artean. Eskaera-orria bete eta informazio-leihatilara itzuli nintzenez, beste langile baten postua egokitu zitzaidan, eta hark euskaraz eman zidan arreta. Erregistroarako zenbaki bat esleitu, eta nora joan argitu zidan. Erregistroan ere, ordenagailuaren monitorean itsatsita, "Euskara, zure aukera" eta ezpainen irudia. Baita esaldi eta

irudi bera dituen kartela ere horman. Eskaera aurkeztera joan, eta leihatilaren beste aldeko ezpainak, espainieraz. Langileak esan zidan arreta euskaraz ematea nahi banuen itxaron egin beharko nuela. Itxaroteko esertzera nindoala, esan zidan berak har zitzakeela nire paperak, erregistratzeko ez zeukala niri hitz egin beharrik eta. Entregatu nizkion paperak, eta, eskaeran nik euskaraz idatzitakoa ulertzen ez zuenez, lankide bati eskatu zion laguntza. Egin zituen egin beharrekoak, eta lankideari eskatu zion esateko niri, euskaraz, erantzungo didatela. Uste dut bermatu egin behar dela errenta-aitorpena euskaraz egiteko aukera: herritarrak euskaraz hitz egin ahal izatea, arreta euskaraz jasotzea eta agiriak euskaraz inprimatzea. Bestalde, foru-aldundiaren bulegoetan, hainbat lekutan ikusi nituen “Euskara, zure aukera” eta euskararen txantxangorriaren itsasgarriak. Leihatiletako eta ordenagailuen monitoreetako ikur horiek pentsarazten dute langileek euskaraz emango dutela arreta, eta nahasgarriak dira.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Guztiak (31)

Dosierra: 9-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA

Arrazoa: Bilboko Arte Ederren Museoak erdara hutsean argitaratu du iragarkia prentsan, abenduaren 31n. Argazkian duzue Deian agertutakoa. Bilboko Udala, Bizkaiko Diputazioa eta EAeko gobernuak egi dira museoaren jabeak.

Dosierra: 33-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - BEC - BILBAO EXHIBITION CENTRE

Arrazoa: BECen jarritako Umeen Gabonetako Parkeko Bizkaiko Foru Aldundiaren suhiltzaileen gunera joan ginen alabarekin. Alaba sartu zen taldean guztira 15 ume zeuden eta, horietako bik ez omen zekitenez euskaraz, jarduera osoa gaztelaniaz egin zuten. Gurasoetako batek galdetu zion bertako suhiltzaile bati eta erantzun zion goiko aginduak zirela horrela jardutea.

Dosierra: 34-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA

Arrazoa: N-240 errepideko 30 kilometro inguruan, Ubidean, jarritako, eta aparkatzea eta gelditzea debekatzen duten seinaleetan "Excepto TTEE" baino ez dago idatzita.

Erantzunak:

Azpiegituretako eta Lurralde Garapenerako Saila: Barkamena eskatzen dugu akatsagatik. Ahalik eta lasterren konpontzeko agindua eman zaio enpresa adjudikaziodunari.

Foru diputatua: Egindako ikuskapenean egiaztatu da adierazitako eremuan badaudela "Excepto TTEE" testua, gaztelania hutsez, duten seinaleak. Sail honek barkamena eskatzen du akatsagatik eta ahalik eta lasterren konponduko du.

Dosierra: 74-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA - Berdintasunerako zuzendaria

Arrazoa: Gaurko Correion lau orrialdeko publizitatea argitaratu du Bizkaiko Foru Aldundiak, Berdintasun alorreko, koloreetan, artikulua formatuan, erdara hutsean. Dirutza publikoa erdalgintzara doala ozen adierazi behar da. Zer berdintasun eta zer berdintasun oste? Gainera, egunkari hori hizkuntza-eskubideen alorrean ez ezik, bestelako berdintasun gaietan ere sekula ez du jardun batere eredugarri, are gehiago militante dihardu kontrako norabidean. Zer ari gara bultzatzen herri moduan?

Erantzunak:

Laguntza, Erregistroa eta Herritarrenganako Laguntza bideratzeko Atala: Emakumeak kongresuan eta aurretik Emakumeak proiektua osatu duten jardueretan, euskararen eta gaztelaniaren erabilera bermatu izan dira. Bestalde, Kongresuak berak piztu duen interesak, hainbat komunikabidetan albisteak, erreportajeak eta elkarrizketak argitaratzera eramane du. Informazio hori guztia, prentsa idatzian, irradian zein telebistan, hedabide bakoitzak normalean erabiltzen duen hizkuntzan argitaratu da. Hedabide batzuek euskaraz bakarrik egin dute, eta beste batzuek gaztelaniaz bakarrik. Biltzarren antolakuntzak uste du EAeko bi hizkuntzen presentzia bermatu duela komunikabideei elkarrizketak eta informazioa bi hizkuntzetan eman.

Herritarren erantzuna:

Dosierra: 94-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - BISCAYTIK FUNDAZIOA (BFA)

Arrazoa: Bizkaiko ia udal guztiei zerbitzuak ematen dizkien Biscaytik fundaziotik ohikoa izaten da euskaraz dihardugun udal langileei erdaraz erantzutea, ahoz zein idatziz. Gaur lankide bati erantzun diote erdara batuan, euskaraz idatzitako e-mail bati. Niri neuri ere hainbatetan gertatu zait, e-mailez. Eta duela asteak, telefonoz. Ziurrenik ere, lehenago ere bai telefonoz baina une honetan ez dut gogoan. Herenegungo zibererasoa dela-eta gaur udal guztietara zabaldu duten e-mailean diote zerbitzu guztiak daudela eskuragarri, gezurra dena, eta e-mailaren euskarazko bertsioan behargino eskatzen digute izen-deiturak, erabiltzailea eta dagokigun "udaletxea" helarazteko. Bada, zerbitzua udalei beren beregi ematen

dien antolakunde honek ez daki udalak eta udaletxeak ez direla gauza bera? Errespetu eta ardura handiagoarekin jokatzeko ez legoke txarto, euskaldunok, diot. Mezua udalak@biscaytik.eu helbidetik heldu da, BiscayTIK Tokiko Erakundearen Arretako Zerbitzu delakoaren izenean eta heldidea honela ageri du, espainol batu hutsean: "Avenida Zugazarte 32". Agerikoa da zaila baldin bada euskara eta euskaldunok errespetaraztea herri-administrazioetan, are zailagoa izaten dela bestelako egitura juridikoa duten antolakundeetan. Eta hau guztia herritar guztion kalterako da. Kontrol publikoa galtzen baita. Antolakunde honek du bizkaitar herritar eta udal langile guztien datuen monopolioa, funtzionarioak izan gabe.

Erantzunak:

Biscaytik: Testuinguruan jartzearen, adierazi behar da BiscayTIK Fundazioa Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko fundazio publikoa dela, eta Bizkaiko udalen tresna informatikoak homogeneizatzea eta modernizatzea duela helburu, haien barne-kudeaketa eta herritarrekiko harremana hobetzeko. Hau da, BiscayTIKek ez ditu udal-langileen eta Bizkaiko herritarren datuak. Datu horiek udalek berek kudeatzen dituzte, eta BiscayTIK Administrazio Elektronikoen arloan indarrean dagoen legeria betetzeko laguntzarekin lotutako zerbitzu informatikoak eta zerbitzuak eskaintzera mugatzen da. BiscayTIKek Bizkaiko udal eta mankomunitateei eskaintzen dizkien zerbitzuen artean, EAZ, udaletan bertan laguntzeko langileak ("In-situ"-ak) eta arreta tekniko espezializatuaren maila daude. Bai EAZaren zerbitzua (erabiltzaileen deiak eta emailak jasotzeko zentroa), bai "In-situ" laguntza-langileak elebidunak dira. BiscayTIKek kontratatzen duen kanpoko zerbitzua da arreta tekniko espezializatuko pertsonala. Pleguetan langileak elebidunak izatea eskatzen den arren, espezializazio-maila dela-eta, beti ez da posible izaten euskarazko erantzuna ziurtatzea. Baina alderdi hori hobetzen saiatzen ari gara. "Udala"ren eta "udaletxe"aren arteko nahasketari dagokionez, mezu baten agertutako akatsa besterik ez da, eta ez errepikatze ahalegina egingo dugu. Adierazi nahi dizugu hizkuntza-eskubideekiko konpromisoa dugula eta hobetzeko borondatea dugula, eta, hainbestez, eskerrak ematen dizkizugu gutuna bidaltzeagatik; izan ere, erabiltzaileen ekarpenok izaten dira gure aplikazioak alderdi guztietan hobetzea ahalbidetzen dutenak, bai eta hizkuntza-alderdien arloari dagokienez ere.

Dosierra: 104-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA -LANTIK

Arrazoia: Bizkaiko Foru Aldundiaren Lantik sozietatearen webgunean "Ezagutu iezaguzu" ageri da hasierako orrian. Mesedez zuzentzea eskatzen dut.

Dosierra: 110-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - NEKAZARITZA ZUZENDARITZA

Arrazoia: Anaiak gaur jaso du ibaietako arrantza-lizentzia berriztearen inguruko gutuna. Gutunaren 'euskarazko' bertsioak ez du batere zentzurik. Erdarazko bertsioaren itzulpena da, edozelan egindakoa, benetan ere. Erdaraz irakurtzera behartzen gaituzte euskal administrazio hainbatek. Diputazioaren gutun hau berau salatuta dago aurreko urteetan ere, 2022an, 2021ean eta 2019an gutxienez ere. Ezertxo ere ez da aldatu. Maila hori erdarazko testu batean posible izan liteke? Eta urtero errepikatzea? Salatuta hainbat biderrez egonda ere? Bertan ageri da gutunazalean diputazioaren helbidea espainol batu hutsean: "Gran Vía, 25 / 48009 Bilbao". Bestalde, hau ere ageri dela: "[...] barrazko kode [...]". "Barrazko kode" zelan deszifratu behar da? [De] Barras = Barraz[ko]? <S> espainolez, <Z> euskaraz?. "Ezkerrik asko" (espainol batu estandarrean, 'muchas izquierdas') asmatu zuenak instituzionalizatu du Aldundian "barrazko kodea"? Euskaldun herritarrok zenbat ganorabakokeria jasan behar ditugu eguneko zehar, egunero, bizialdi osoan? Gero Euskaraldi eta enparauekin etorriko zaizkigu berberak kaparrada ematen. Agerikoa da berdina, zigorgabetasun osoa dutena. Agerikoa da berdina, zigorgabetasun osoa dutena eta burutik behera txiza botatzen segituko dutena, baina halere ez naiz isilduko.

Dosierra: 140-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - BIZKAIBUS

Arrazoia: Bizkaibusen atzo 2023-02-21 mezu bitartez galdera bat egin nuen, hilak 17an autobusean pazmina bat utzi nuela eta ea galdutako gauzetan bazegoen. Erantzuna EUSKARAZ nahi nuela adierazi nuen. Gaur, hilak 22, mezu bat jaso dut eta sarrera erdara hutsean: "En respuesta a su consulta le enviamos la información solicitada" A3911 linearen objektu galduen telefonoa hurrengo da: 946313054, atentamente. Servicio de atención de bizkaibus". Telefono horretara deitu dut eta

erderaz mintzatu behar izan dut, telefonoa hartu didan gizonak EUSKARA ez zekielako. Hau lotsagarria da eta EUSKALDUNOK berriro gutxiesten.

Erantzunak:

Bidaiarien Garraio Zerbitzuko Burua: Galdutako gauzen itzulketa kudeatzen duen Likidazio Sailaren arloa bi pertsonak osatzen dute eta horietako batek bakarrik daki euskaraz. Gure hizkuntza-politikaren barruan, erakundeko pertsona guztiek dute hizkuntza hori ikasteko prestakuntza jasotzeko aukera, baina, zoritxarrez, deskribatutakoa da egoera. Egoera hori zuzentze aldera, gau hau enpresa barruan aztertuko dugu, eta arreta elebiduna bermatu ahal izateko behar diren neurri zuzentzaileak hartuko ditugu. Era berean, Bizkaibuseko bezeroarentzako arreta-zerbitzura bidali dugu kexa, eta han egiaztatu da erantzun automatikoa gaztelaniaz eman zela, nahiz eta euskara hautatuta egon sistemako hizkuntza gisa, erreklamazioak tramitatzeko plataformaren hutsegite baten ondorioz. Sentitzen dugu gertatutakoa, baina horrez gain jakinarazi nahi dizuegu Bidaiarien Garraio Zerbitzu honek jarraitu egingo duela erabiltzaileen hizkuntz eskubideen aplikazioaren gaineko gainbegiratze-eginkizunaz arduratzen.

Dosierra: 193-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - BIZKAIBUS

Arrazoiak: Hartu barri dut Bizkaibuseko A3537 linea, Bilbo-Mungia-Bermeo. Greba eguna dute. Autobusean itsatsita dagoen kartela gaztelera hutsean "Servicios minimos". Zerbitzu publikoan gaztelera hutsean? Non gaude bada? Non gure eskubideak? Noizko? Erreklamazioa da honako hau.

Dosierra: 215-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA

Arrazoiak: Aste honetan hasi dira Bizkaiko Diputazioko langileak plakak jartzen Zugastietatik Munitibarrerako bidean. Agertzen den lekuaren izena gaztelera dago soilik, Francon denporetako diputazioak eman ziona eta leku horrek bere izen euskalduna dauka. Nahi dut Bizkaiko Diputazioak hori aldatu eta izen euskalduna jartzea, baina ez beste batzuetan ipini duten termino euskañola "Bizkaiko begiratokia", alegia.

Erantzunak: Azpiegituretarako eta Lurrakde Garapenerako Saila: Karteletan jasota agertzen den informazio guztia euskaraz eta gaztelaniaz dago, salbu mendateen izenak. Seinale horiek ziklistentzat direnez, kirol-proben zerrendetan, ziklismo-gidetan eta sektore horretako gainerako informazio-bideetan zerrendatuta agertzen diren mendate-izenak erabili dira.

Dosierra: 231-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - GARRAIOAK ETA MUGIKORTASUNA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA

Arrazoiak: Zikloturistei zuzendutako kartelak jarri ditu Bizkaiko mendateetan Bizkaiko Foru Aldundiak.. Hainbatetan toponimoak gaizki idatzita daude eta "desnibelea" jartzen du desnibela beharko lukeenean. Desnibela bera ere ere gaztelaniaz baino ez dago adierazita: "7,0%", "4,65%"

Erantzunak:

Garraioak eta mugikortasuna sustatzeko saila: Akatsa laster konponduko da. Eskerrik asko zure interesagatik eta lankidetzagatik.

Dosierra: 242-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - BEC - BILBAO EXHIBITION CENTRE

Arrazoiak: Atzoko Correion BEC erakustazokaren iragarkia agertu da, erdara hutsean.

Dosierra: 243-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA

Arrazoiak: Igandeko Correion Bizkaiko diputazioak erdara hutsean argitaratu du iragarkia Supersur delakoaren gainean.

Dosierra: 245-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA

Arrazoiak: Hegoaldeko saihebidetako 'Supersur' delakoaren post diruz sustatua agertu zait, erdara hutsezkoa, Facebooken.

Erantzunak: Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila: Sare sozialetako kanpaina Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egin da.

Dosierra: 253-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA

Arrazoa: Bizkaiko Foru Aldundiak zikloturistei zuzentutako kartelak ipini ditu Bizkaiko mendate eta gainetan. Guztiek daukate erdal bertsioa; barbarako, "El Vivero", "Rigoitia"...

Dosierra: 283-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - GARRAIOAK ETA MUGIKORTASUNA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA

Arrazoa: Prentsan ikusi dut Bizkaibizi bizikleta elektrikoen mailegu zerbitzuaren iragarkia. Gaztelaniz "Muévete por Bizkaia" leloa darabilte. Euskaraz, berriz, honako zer hau: "Mugitu Bizkaia(ga)tik". Ea, kontutxo bi. "Bizkaiatik" [sic] erabiltzea oso esanguratsua da. Herrialdearen izena bera ere ganoraz erabiltzeko ezina, utzikeria edota errespetu eza erakusten du. Edozela ere, "Bizkaiatik" barik, "Bizkaitik" erabili balute hauxe diot: nik dakidala "Mugitu Bizkaitik"-ek esan gura du "Muévete DESDE Vizcaya". Alegia, ez da gauza bera "Bizkaitik" esatea edo "Bizkaitik zehar" esatea. Bizkaibizi proiektuaren atzean Bizkaiko Foru Aldundia ez ezik, hainbat udal daude tartean; besteak beste Franco oraindino ere bizirik balego legez udalerraren izen ofizialtzat erdarazkoa baizik ez duen herrialde-hiriburuko udala; bai eta Erandio, Leioa, Getxo, Berango, Santurtzi, Portugalete, Sestao eta Barakaldoak ere.

Erantzunak:

Garraioak eta mugikortasuna sustatzeko saila: Gure asmoa inoiz ez da izan gure lurralde historikoaren izena begirunerik gabe erabiltzea. Publizitate-testuinguru batean, arduradunek hizkuntzaren lizentzia jakin batzuk hartzen dituzte, baina kasu honetan ez da egokiena izan euskarazko bertsioan. Aurrerantzean arreta handiagoa jarriko dugu horrelako gaietan.

Dosierra: 320-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - HERRI ADMINISTRAZIOARAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILA

Arrazoa: Bizkaiko Foru Aldundiko boletinean ikusitakoa hauteskundeetara aurkezten diren zerrendetarako orrialdeetan: euskarazko boletinean edo erdera hutsez edota erdarari lehentasuna emanda parra-parra: Candidatura número 1 Suplentes Titulares Titulares / Titularrak Suplentes / Ordezkoak CIRCUNSCRIPCION ELECTORAK HAUTESKUNDE BARRUTIA
(https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2023/04/BAO-2023a080.pdf?hash=8b79b20a2b4f64963cfdc3afbac1db54)

Dosierra: 454-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA

Arrazoa: Arte Eder Museoa tailerrak eskaintzen ditu udan umeentzako. Gaztelaraz eta euskaraz direla diote aurkezpenean. Telefonomu deitu dut galdetzeko nola egingo duten hori talde bakarra bada, zein hizkuntzatan emango den azkenean. Erantzuna: Izena ematen duten umeen arabera. Batek edo bik euskaraz ez badaki, gaztelaraz egingo da

Erantzunak:

Euskara Zerbitzua: Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa ez da foru-fundazioa, eta, beraz, Bizkaiko Foru Aldundiaren 63/2019 Foru Dekretuaren aplikazio-eremutik kanpo dago. Nolanahi ere, Bizkaiko Foru Aldundia, patronatuaren kide den heinean, saiatuko da euskararen presentzia sustatzen eta bultzatzen Fundazioak berak antolatzen dituen edozelango jardueretan.

Dosierra: 610-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - BIZKAIBUS

Arrazoa: Usansolo-Galdakao ospitalean dagoen Bizkaibuseko kioskoan dagoen langileak ez daki euskara eta gaztelaraz bakarrik artatzen zaitu.

Dosierra: 641-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - OGASUN ETA FINANTZA SAILA

Arrazoa: Bizkaiko Foru Aldundiaren 2022ko zordunen zerrenda argitaratzeko Ogasuneko zuzendari nagusiaren erabakiaren euskarazko testua txarto itzulitako

testua baino ez da (“bidezkoa da Erantsi zuten zordunen zerrenda...”; “Aurreko harremanean islatutako...”; “aipatutako artikuluko 4. atalean adierazitako kasuetan eta betekizunekin egiaztatzen ez bada. 94 ter.”). Gauza bera agertzen da Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (<https://www.bizkaia.eus/eu/zordunen-zerrenda>). Euskaldunok ez dugu zertan gaztelaniazko testura jo behar administrazio-ebazpenetan adierazten dena ulertzeko.

Erantzunak:

Ogasuneko zuzendari nagusia: Kexa honen xede den testua euskaraz egiteko, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusi honetan eskuragarri dauden datu-base terminologikoa jo zen, eta, zalantzarik gabe, nahi gabeko giza akats baten ondorioz, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 94 ter artikuluko zordunen zerrenda argitaratzeko Erabakiari zegokion testuaren itzulpen okerra sortu zen. Zergadunak jaso duen inpresio negatiboa alde batera utzi gabe, uste dugu egoera zehatz hori ez dela Bizkaiko Foru Ogasun honetan orokorrean lantzen diren euskarazko testuen kalitatearen isla. Era berean, kexa honen inguruabarrak deitoratzen ditugu, eta adierazten dugu Bizkaiko Foru Ogasun honek behar diren baliabide guztiak jarriko dituela etorkizunean horrelako egoerak errepika ez daitezen.

Dosierra: 693-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - KULTURA ZUZENDARITZA

Arrazoiak: FIG BILBAO topaketak hauek oihartzun handi dute eta Bilbao eta Bizkaiko erakundeen babesa jasotzen dute. Alta, webgunea gaztelaniaz hutsean agertzen da.<https://www.figbilbao.com/>

Erantzunak:

Euskara, Kultura eta Kirol Saila: FIG Bilbao Print Festivalarekin harremanetan jarrita, euskararen erabilerari buruzko araudia beteko dutela baieztatu digute. Gure aldetik, jarraipena egingo da.

Dosierra: 716-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - BIZKAIBUS

Arrazoiak: Bizkaibuseko txarteldegian, Loiuko Aireportutik Donostiara txartelik ez dela sartzen iragartzen duen kartela gaztelaniaz baino ez dago. Euskaldunok ez gara existitzen?

Dosierra: 735-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - BIZKAIBUS

Arrazoiak: Atzo Bizkaibuseko autobusa ezin izan nuen hartu Leioako Kanpusean, UPVn, jende gehiegi zegoelako eta autobus txikiegia ekarri zutelako. Kexa jarri nuen emailaz, euskaraz. Erantzuna erdaraz jaso berri dut.

Dosierra: 754-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - FORU LIBURUTEGIA -

Arrazoiak: Bizkaiko Foru liburutegira joan naiz gaur ikastaro batera. Sarreran zegoen segurtasuneko kideari euskaraz zuzendu natzaio eta oso modu oldarkorrean esan dit euskaraz ez dakiela. Ezetz borobila. Eraikin horretara sartzeko derrigor hitz egin behar da segurtasunekoekin eta iruditzen zait zera publiko batean herritarrak artatzen dituen pertsona guztiek izan beharko luketela euskaraz komunikatzeko gaitasuna.

Erantzunak:

Herritarrenganako Laguntza bideratzeko Atala: Posta elektronikoz Foru Liburutegiaren postontzian Behatokitik jasotako mezua atzo arratsaldean jaso zen, eta gaur bertan Segurtasuneko arduradunarengana desbideratu da, dagozkion ondorioarako.

Foru Diputatua eta Idazkaria: foru aldundi honek, bai gertaera hau gertatu aurretik eta bai gaur egun, zaintzako langileen euskalduntzea sustatzen du; ondorio horietarako adierazi behar da gaur egun indarrean dagoen zaintza-zerbitzuaren lizitazioan esleipen-irizpide gisa sartu zela zerbitzu hau garatzen duten langileen prestakuntza-plana eta plan horren barruan enpresek euren langileek euskara ikasteko plan bat proposatzea baloratzen zela. Era berean eskakizun moduan ezarri zen euskara dakiten enpresa esleipenduneko langileek arreta hori euskaraz emango dutela bertaratzen diren herritarrek hala nahi izanez gero. Hala ere, neurri posible eta beharrezko guztiak hartzen jarraituko dugu planteatutakoa bezalako egoerak gertatu ez daitezen. Nolanahi ere, mesedez eskatzen dizut barkamenik zintzoenak helarazteko gertaera gertatu zen egun horretan foru zerbitzuak eskatzera joan zen pertsonari, sortu ahal izan zaizkion eragozpenengatik eta, halaber, betiere bere eskubideak eta, bereziki, hizkuntzaren arlokoak, errespetatuz arreta eskaintzeko eta bere betebeharrak betetzen laguntzeko Foru Aldundi honek eguneroko egiten duen ahalegina adieraz-teko.

Dosierra: 802-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - GARRAIOAK ETA MUGIKORTASUNA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA

Arrazoa: Duela egun batzuk, Bizkaiko Foru Aldundiak "Bizkaibizi" zerbitzu publikoa kaleratu du. Bizikleta "renting" publiko bat. Zerbitzu honen webgune ofizialan, hainbat gauza euskarara itzuli gabe daude. Eta beste batzuk nahiko txarto itxulita daude. Nabaritzen da ez dagoela bukatuta, gauza asko ingeleraz daude eta. Aplikazioan, "Abigazio" eta "erreporte kaltetuta" agertzen da bizikleta libre bat hautatzen duzunean. Benetan itzulpen hori ez dala txantxa bat...? Zerbitzu publiko bat da (gainera Foru Aldundikoa...) eta euskal herriko herritarrok eta Euskarak ez du merezi mespretxu hau. Erantsiko dut esaten dudan frogak, weguneako akatsak eta aplikazioarena be. Lehenbailehen konpontzea premiazkoa da.

Dosierra: 823-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - EKONOMIA SUSTATZEKO SAILA

Arrazoa: gaur bertan, nire postontzi elektronikoan jasotako mezua helarazi nahi dizuet, haren pantaila argazkia bidaltzen dizuet ikus dezazuen. Gazteleratik egindako itzulpen zuzena eta euskaraz zentzurik ez duena. Posta elektronikoz bidaltzen duten publizitatea da.

Erantzunak:

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua: BBK fundazioak emandako azalpenen arabera, Eup! erosketa-atariari buruzko newletterrean zuzendu gabeko testu hori agertu da newsletter horietan argitaratzen diren testuen itzulpenak gainbegiratzean egindako akats baten ondorioz. Itzulpen horiek saltegiek eurek egiten dituzte jatorrian. BBK fundazioak Eup! Erosketa Atariari buruzko newsletterretan euskaraz agertzen diren testuak gainbegiratzeari buruzko prozedurak berrikusiko ditu, berriro horelako akatsik gerta ez dadin.

Dosierra: 832-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - EUSKARA, KULTURA, KIROLA

Arrazoa: Basque Crossfit txapelketan aurkezleak gaztelania eta ingelesez soilik egiten zuen, euskaraz "txapelketa" hitza izan ezik, ez zuen hitz bakar bat erabili.

Babesleen artean daude Bizkaiko Aldundia, Bilboko Udala eta Eusko Jaurilaritza. Nazioarteko ekimena izan arren gure hizkuntzak presentzia eta lehentasuna beharko luke. Sare sozialetan ere ekimenaren inguruko iragarpenak gaztelaniaz daude nagusiki.

Dosierra: 839-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA

Arrazoa: Bizkaiko Aldundiaren aginduz jarritako kartelak erdera hutsean. Bizkaiko begiratokian "Balcón de Bizkaia" ageri da. Mendatearen hasieratik ,km guztietan izen berbera dago.

Dosierra: 899-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - EKONOMIA SUSTATZEKO SAILA

Arrazoa: Zapatuko Deiak 24 orrialdeko gehigarri berezia ekarri du, erdara hutsean, Bizkaiko Foru Aldundiak sustatuta.

Erantzunak:

Euskara Zerbitzua: Zure kexaren xede den gehigarri berezia Deiaren beraren gehigarri berezi bat da, ez da Bizkaiko Foru Aldundiak kontratatutakoa. Bizkaiko Foru Aldundiak kontratatzen duen bakarra da gehigarriaren lehenengo orrian erakundearen logoa agertzea eta azken orrian, berriz, Omako basoari buruzko iragarkia jartzea. Iragarkia bera ele bietan dago. Eta gainerako edukiak, gehigarrian jasotzen direnak, Deiak bere baliabideekin landutakoak dira. Beraz, Bizkaiko Foru Aldundiak gehigarri horretan duen parte-hartzeak bete egiten du Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideei buruzko 63/2019 Dekretua.

Dosierra: 953-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - GIZARTE EKINTZA SAILA

Arrazoa: Zapatuko Deiak diputazioaren orrialde biko publizitatea dakar erdara hutsean. Erantsita duzue argazkia.

Erantzunak:

Euskara Zerbitzua: Edukiak, gehigarrian jasotzen direnak, Deiak bere baliabideekin landutakoak dira. Beraz, Bizkaiko Foru Aldundiak gehigarri horretan duen parte-

hartzeak bete egiten du Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideei buruzko 63/2019 Dekretua.

Dosierra: 959-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - GARRAIOAK ETA MUGIKORTASUNA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA

Arrazoiak: Gaurko Corroe egunkarian Bizkaiko Foru Aldundiaren fotomuntatze bat ikusi dut. Itsasadarraren azpiko errepideari dagokio eta erdara hutsean du seinalizazioa.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Guztiak (10)

Dosierra: 96-2023

Nori: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA - BIDEGI SA

Arrazoa: Gaur goizean Abiatu-ra deitu dut, erantzungailu automatikoa hizkuntza aukeretan euskara aukeratu, eta "Buenos días" batekin agurtu nau langileak. Komunikazio osoa erdaraz burutu behar izan dut. Bukaeran "Ondo. Mila esker" batekin agurtu dut eta isiltasuna izan da erantzuna, deia moztu egin du, zuzenean.

Dosierra: 107-2023

Nori: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA - EKONOMIA SUSTAPENEN KUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoa: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Landa Inguruneko Departamentuak kudeatzen duen Erreketa Baimena lortzeko telefono automatikoa gazteleraz ematen du azalpena lehenik, euskara bazter batean utziz, ondorengo prozedura bi hizkuntzetan jarraitzeko aukera emanez. Honako telefonoa da aipatzen dudana: 943420326

Erantzunak:

Kexak eta iradokizunak: Erreketa baimenak lortzeko telefonoak ez du bakarrik erderaz azalpenak ematen, euskaraz ere ematen ditu erderazko lokuzioaren ondoren, inongo aukeraketarik egin baino lehen. Halere aldaketa egingo dugu lehenengo euskarazkoa entzuteko eta ondoren erderazkoa.

Dosierra: 206-2023

Nori: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA - KIROLETAKO KUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoa: Gaur goizean, Donostiako ikastolen arteko eskola kirolaren barruan, saskibaloia partida jokatu da Lehen Hezkuntzako 5. mailako bi ikastola desberdinetako ikasleentzat. Arbitroa haurrengana gazteleraz zuzendu da, talde bateko haurra guztiak euskaraz hitzegiten egon arren. Ez da soilik gertaera puntuala izan, maiz gertatu zaigu eskola kirola barruan jokatzeko diren partidetakoa arbitroak gazteleraz hitz egitea.

Dosierra: 244-2023

Nori: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA - OGASUNA ETA FINANTZAK DEPARTAMENTUA

Arrazoa: Gipuzkoako Foru Aldundiko web orria (gipuzkoa.eus), errenta aitopenen autolikidazioa euskaraz kontsultatzean, menu nagusira gazteleraz itzultzen da web orria. Hori bera gertatzen da web orriko beste zenbait ataletan, erabiltzaile euskalduna bere hizkuntza berriz ere hautatzera behartuz.

Erantzunak:

Unitatearen arduraduna: Printzipioz sistema euskaraz nabigatzeko prest dago, baina baliteke punturen batean akatsen bat egotea. Arazoa non dagoen hobeto ikusteko, online asistentziara konektatzea eta bertan zer gertatzen den azaltzea gomendatzen dizut. Haiek akatsa egiaztatuko dute eta guri pasatuko digute. <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna/online-laguntza> Barkatu eragozpenak..

Dosierra: 256-2023

Nori: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA - INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ELKARTEA - IZFE

Arrazoa: nire Donostiako helbide berria ematera joan nintzen Errenteriako Udalera eta, nahiz eta ofizialki kalearen izena 2 hizkuntzetan egon, ezin izan nuen euskarazko aukeratu, ezin zela esan zidaten euren datu-basea kale horren izena soilik erderaz agertzen zitzaielako. Nahiz eta enpresa pribatuetan ere gertatzen den, lotsagarria da administrazio publikoan gertatzea; lotsagarria da erasoak judikaturatik jasotzen ari garen une honetan, administrazioak ere afera honetan duen utzikeria. Kasu konkretu honetan saiatu nintzen Familia Santua kalea aukeratzeko baina eurei Sagrada Familia agertzen zitzaien soilik. Bestalde, jasotzen ditut gutunak beste lekuetan euskarazko bertsioaren helbide horrekin.

Erantzunak:

Udal Hizkuntza Politika zinegotzi delegatua: Udal erregistrora jo dugu intzidentziaren nondik norakoen berri izateko. Arduradunak adierazi digunez, helbidea aldatzeko, herritarrak eskatu bezala, Efiskalak aplikazioan Donostia aukeratu ondoren, tramitatzaileak aplikazioaren euskarazko bertsioan kaleen bilatzailean kale izena bilatzeko "fami" karaktereak idatzita Sagrada Familia aukera

baino ez da agertzen. Aplikazioa IZFE Informatika Zerbitzuen Foru Elkarteak kudeatzen du eta erregistroko arduradunak azaldu digunez, Euskal Herritik kanpoko herrien kasuan tramitatzailleak eskuz sartu behar izaten ditu herritarrek ematen dizkion datuak, baina Euskal Herri barruko kasuan, ordea, Udalak eskuratzen dituen datuak finkoak dira eta IZFEk jasota bezala aukeratu behar dira. Hortaz, ez dago Errenteriako Udalaren esku helbidea herritarrek eskatu moduan jasotzea. Ondorioz, gure ustez, IZFERi eman beharko lioke iradokizun honen berri, kale izendegiaren euskarazko bertsioa erabilgarri jartzeko bidezko prozedura abian jar dezan.

Zuzendari nagusia: gaia azertu dugu eta hainbat hobekuntza egin behar ditugula ohartu gara. Gipuzkoako udalerrietan prozedura zehatza dugu kale-izendegiak eguneratzeko, hau da, udalek beraiek egiten dituzte zuzenean aldaketak berrikuntzaren bat dagoenean. Gipuzkoako hiriburuaren kasuan, ordea, kale-izendegia eguneratzeko prozedura, zehazteke zegoen. Beraz, gertakari hau berriz ez gertatzeko, Donostiako kaleen izenen datuak eskatuko dizkiogu Gipuzkoako Foru Aldundiko Katastroko departamentuari, eta Donostiako kale guztien izenak eguneratuko ditugu datu horietan oinarrituta. Horrez gain, urtero eguneraketa prozesu hau errepikatuko dugu, datuak egunean izateko. Azkenik, gaia erabat argitzeko eta euskararen normalizazioan bidelagun izateko, Errenteriako udalarekin harremanetan jarriko gara gure urratsen berri emateko.

Dosierra: 271-2023

Nori: GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIA - KULTURAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Arrazoa: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura bulegoak 2023ko laugarren saio irekia antolatzen du, Gipuzkoako kultura eragileei zuzenduta. Elkarlana eta mugak izango ditu hizpide Irunen, apirilaren 25ean. Saioa gaztelaniaz izango dela iragarri dute. Kultura eragileei, mugaz bestaldeko barne, gaztelaniaz? Ez zait bidezkoa iruditzen.

Dosierra: 700-2023

Nori: GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIA - GIZARTE ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO DEPARTAMENTUA

Arrazoa: Gipuzkoako Aldundiak eta Pirinio Atlantikoko Departamenduak egindako webgunean (gipuzkoa64.eu), Ideiak2023ko proiektuak bozkatzean,

komunikaziorako hizkuntza hautatzean hiru aukera ematen ditu: Euskara, "Erderaz" eta Frantsesez. Imajinatzen dut erdara gaztelania dela, baina, noski, ez dira sinonimoak. Gainera, erdaraz eta frantsesez bada, euskaraz beharko luke, eta ez euskara.

(https://www.gipuzkoa64.eu/eu/ideiak/detalle?p_p_id=DPAIdeiakBistaratuprozesuak_WAR_DPA_Ideiakportlet&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&_DPAIdeiakBistaratuprozesuak_WAR_DPA_Ideiakportlet_renderr=participate&_DPAIdeiakBistaratuprozesuak_WAR_DPA_Ideiakportlet_surveyId=1&_DPAIdeiakBistaratuprozesuak_WAR_DPA_Ideiakportlet_processId=3&_DPAIdeiakBistaratuprozesuak_WAR_DPA_Ideiakportlet_phaseId=5&_DPAIdeiakBistaratuprozesuak_WAR_DPA_Ideiakportlet_actionId=6)

Dosierra: 719-2023

Nori: GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIA - BIDEGI SA

Arrazoa: BIDEGIk kudeatzen duen AP-1 errepidearen ingurukoa da urraketa. Bergara parean lan batzuk ari dira egiten eta lan hauen berri emateko dituzten pantailetan (tunel barruan eta kanpoan) mezuak gaztelera daude. Bai Gasteizeko norabidean eta baita Donostia/Bilborakoan ere. Mezuak honelako zerbait diote: "obras a X kilometros" eta "Bypass en Bergara". Tunel batean Donostia/Bilborako pantailan batean beste mezu bat ele bietan dago (ezkerreko erreia itxita) baina aurrez aipaturikoak gaztelania hutsean zeuden irailaren 23an. BIDEGIra deitu dut eta idatziz erreklamazio bat aurkezteko esan didate. Nik esan diet ez dudala ezer aurkeztuko. Egin beharrekoa egin dudala eta beraien zeregina dela hori konpontzea. Telefono dei batekin konpontzen dela erantzun diet.

Dosierra: 825-2023

Nori: GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIA - BIDEGI SA

Arrazoa: Gipuzkoako N-1/A-15 edo/eta A-636 errepideen erabilpenagatik, Bidegi S.A.-k gaztelera hutsean bidali du ordainketa gauzatzeko jakinarazpen gutuna.

Dosierra: 861-2023

Nori: GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIA - INGURUMENEN KONTROLA

Arrazoa: Gipuzkoako Energia Komunitatearekin izan dut inzidentzia. Komunitate hau Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen du, eta Edinor enpresak (Petronorreko

buru bera dauka, Emiliano Lopez Atxurra) kudeatzen du. Bada, dei bat egin diet, gauza bat kontsultatzeko asmoz. Deia grabatua izan daitekeela adierazten duen mezua gaztelera hutsean daukate, eta sarrerako hitz horiek gaztelera entzun ostean, pertsona batek gaztelera hitz egin dit zertan lagun nazakeen galdetuz. Ni euskaraz hasi natzaio, eta segituan esan dit bera ez dela euskaraz komunikatzeko gai. Esan diot berdin diola, prest nagoela elebiko elkarrizketa bat mantentzeko, nik euskaraz egingo diodala, eta berak lasai erantzuteko gaztelera. Ezetz esan dit. Euskaraz egin nahi badut haren lankide batek berehala deituko nauela. Ados, eta moztu egin da deia. 42 minutu beranduago deitu dit haren lankideak. Salagarriak iruditu zaizkidan gauzak: - Sarrerako informazioa gaztelera hutsean egotea. - Deia hartu duenak euskaraz ez badaki, zuzenean euskaraz dakien batetik pasa beharrean (ados, badakit pare bat minutu musika entzuten pasa beharko ditudala) haiek deia moztu eta ni haien deiaren zain egotea. - Deia 42 minutura egitea.

Erantzunak:

Trantsizio Ekologikoko Zuzendari Nagusia: EDINOR enpresa TEK GUPUZKOA 2022 ABEEko kide da, eta Departamentu honen esleipenduna da Gipuzkoan Tokiko Energia Komunitateak eratu eta kudeatzeko. Horri dagokionez, jakinarazten dizut herritarren arreta euskaraz izatea kontratuaren ezinbesteko baldintza dela, eta, oro har, enpresak behar bezala egiten dituela lanak alderdi horretan, nahiz eta, tamalez, gertakari hori deitoratu behar den. Jakinarazten dizut kexa hau enpresa horri helarazi diogula, horrelako egoerak berriro gerta ez daitezen.

ARABAKO UDALAK (4)

Dosierra: 20-2023

Nori: LAUDIOKO UDALA

Arrazoa: 2022ko azaroaren 14an Laudiko Udalean ezohiko osoko bilkura egin zuten. Bertan onartutako 2. gaia hau izan zen: - Laudio Udaleko Lanpostuen Zerrenda aldatzea, lanpostu jakin batzuetan hizkuntza-eskakizunen derrigortasun-data kentzea. (Esp.: 2022/6/S987) Udal kudeaketa arloa. Zerbitzua: Antolakuntza publikoa zerbitzu orokorrak. Laudio Udaleko webgunean ikusgai dago ezohiko osoko bilkura honetako bideoa. 2022ko abenduaren 16an ALAHO n argitaratu ziren Laudio Udalean enplegua egonkortzeko enplegu publikoaren eskaintzari nahiz iraupen luzeko behin-behinekotasuna egonkortzeko enplegu publikoaren eskaintzari dagozkien hautatze-prozesu desberdinen oinarri orokorrak eta oinarri espezifikoak. Bi prozesu hauetan eskaintzen diren lanpostuetako batzuek ez dute hizkuntza-eskakizunen derrigortasun datarik (azaroko osoko bilkuran kendu ziren derrigortasun datak). Horrek esan nahi du urteetan udalean lanean aritu diren eta hizkuntza-eskakizunik egiaztatu ez duten langile batzuk karrerako funtzionario egingo direla. Horietako zenbaitek 45 urte baino gehiago dutenez, gerora ere ez dute hizkuntza-eskakizuna egiaztatu behar izango, salbuetsita egongo dira. Deigarria da Laudio Udaleko udalbatzak erabaki hau hartu izana langile batzuen mesedetan, duela urte gutxi udalbatza berberaren erabakiz langile bat kaleratua izan zenean hizkuntza-eskakizuna ez egiaztatzeagatik (kasu honek epaitegietan bukatu zuen eta prentsan oihartzun zabala izan zuen).

Dosierra: 554-2023

Nori: AMURRIOKO UDALA

Arrazoa: Amurrioko Udalak 2023/07/27ko Udal Osoko Bilkuran, Udal Langileen Zerrendatik (RPT) euskararen normalkuntzarako teknikaria lanpostua ezabatzea erabaki duela salatu nahi dugu. Egun Amurrion, propio euskara teknikaririk ez dugu Udalean, arlo soziokulturaleko teknikari batek, bere lanorduen erdia darabil euskara arlorako. Eusko Jaurlaritzak Amurrio bezalako 10.000 biztanletik gorako herri baterako, Amurriok duen euskalduntze mailarekin, 4 langileko euskara saila izatea aholkatzen du. Amurrion egun euskararen normalkuntzara eskaintzen diren

giza baliabideak ez dira nahiko, Udalaren Euskara Planak ez dira ezta urrundik ere betetzeko. Iaz, adibidez, Euskara Plan berria idazteko langile bat kontratu behar izan zuten 6 hilabeterako, baina langile horrek ez du jarraipenik izan. Egoera hobetu beharrean okertu egin da Amurrioko Udalak hartutako erabakiarekin.

Dosierra: 867-2023

Nori: AÑANAKO KUADRILLA

Arrazoa: Añanako Kuadrillaren webgunean ez dago aukerarik euskaraz nabigatzeko. Erdara hutsean dago. <https://www.cuadrilladeanana.eus/>

Dosierra: 873-2023

Nori: AÑANAKO KUADRILLA

Arrazoa: Añanako Kuadrillaren turismo webgunea gaztelania hutsean dago den-dena, ez du euskara hautatzeko aukerarik ematen. www.ananaturismo.com

GASTEIZKO UDALA (18)

Dosierra: 93-2023

Nori: GASTEIZKO UDALA - TRAFIKO ZERBITZUA -

Arrazoa: Gasteizko Udalak TAO eremu berriak ezartzeko lanak iragarri ditu, prentsa-ohar baten bidez. Tartean, iragarki bat ipini du, aparkaldia sakelako telefonotik kudeatzeko bi tresna iragarri asmoz (erantsita doakizue), momentuz webgunean, baina akaso laster kalean ere bai! Hauxe dio testuak, gaztelaniaz eta euskaraz: "Tu parquímetro; edición para llevar" / "Zure parkimetroa; eramateko edizioa. Egia esan, gaztelaniazko testuak ere ez nau askotxo konbentzitzen... Baina euskarazkoa (hitzez hitzeko itzulpena), euskarazkoa argi eta garbi disparatea da!!! Eta disparatea areagotuz, hitzez hitzeko itzulpen horren atzean ez omen dago pertsona bat, itzultzaile automatiko bat baizik, bigarren eranskinean ikusten denez!!!!

Erantzunak:

Euskara Zerbitzuko burua: TAO eremu berrien iragarkiak "ez omen du gehiegi konbentzitzen" erreklamazioa jarri duena. Asko sentitzen dugu, baina publizista baten sorkuntza-lana da, eta gustuen gainean ezin dugu erantzunik eman. Itzulpenari dagokionez, Euskara Zerbitzuko hainbat langileri galdetuta –C2 egiaztatua denek–, guzti-guztiek itzulita dagoen bezala itzuliko lukete; beraz, baliteke itzultzaile automatikoa erabili izana, eta baliteke erabili ez izana. Erabili bada ere, itzultzaileek itzulpen berdina eman dute. Edonola ere, Euskara Zerbitzuak ezin du hipotesien gainean erantzunik eman. Azkenik, adierazi nahi dizut Gasteizko Udalak ez duela legea urratu, eta ondorioz, iragarki horretan hizkuntza-eskubideak bermatu egin direla.

Dosierra: 169-2023

Nori: GASTEIZKO UDALA - GAZTERIA ZERBITZUA -

Arrazoa: Martxoaren 1ean Gasteizko Udaleko Gazteria Zerbitzutik kontratu txiki batera aurkezteko gonbidapena jaso genuen: Kontratu honetarako pliegoa erdaraz baino ez zegoen. Udalari gure kexa aurkeztu eta gero, haien erantzuna edo aitzakia, denbora falta izan zen. Azpimarratzekoak dira hurrengo puntuak: - Gurea euskara sustatzeko elkarte bat dela - Pliegoaren helburua euskara ardatz izango duen

aisialdi osasuntsua eskaintzea dela gazteei, euskararen harremana sendotzeko eta esperientzia positiboak izateko.

Erantzunak:

Gazteria Zerbitzuko Teknikaria eta Zerbitzuburua: Martxoaren 3an mezu elektronikoa bat jaso genuen gai horri buruzko kexa bat helarazteko. Egun horretan beratn gure erantzuna bidali genien. Ez zen inon esan pliegoaren euskarazko bertsio eza debora faltagatik zenik. Aitzitik, akatsa onartu zen eta etorkizunean berriro ez errepikatzeko konpromisoa adierazi zen.

Dosierra: 178-2023

Nori: GASTEIZKO UDALA - TRAFIKO ZERBITZUA -

Arrazoa: Gasteizko Udalak jarritako trafikoko seinale batzuetan euskarazko testua ez da zuzena, "estacionar" terminoaren euskarazko ordain gisa "gelditzea" baitarabil, baina "estacionar" euskaraz "aparkatzea" da, aldiz, "gelditzea" "parar" da. 1428/2003 Errege Dekretuaren euskarazko bertsioan ere halaxe erabiltzen dira eta ezin dugu ahaztu termino bakoitzaren erabilerak garrantzia duela trafikoari buruzko araudiari dagokionez, kontzeptu ezberdinak izanik, baldintza eta muga ezberdinak dituztelako.

Dosierra: 192-2023

Nori: GASTEIZKO UDALA - HERRITARREN SEGURTASUNAREN SAILA

Arrazoa: Martxoaren 7an, 15:00ak aldera, Gasteizko Udaltzaingora deitu nuen Giza Eskubideen hiribidean edukiontzi bat errepidean botata zegoelako. Komisaldegi osoan ez zegoen inor euskaraz arreta emateko. Udalari neurriak eskatu nahi dizkiot, askotan gertatzen dira horrelakoak Gasteizko Udaltzaingoa.

Erantzunak:

Udaltzaingoa Komisario Burua: Sentitzen dugu herritarra laidotuta sentitu izana

Dosierra: 341-2023

Nori: GASTEIZKO UDALA - KULTURA SAILA

Arrazoa: Maiatzean Zabalgana Gizarte etxean haur eta gazteentzat eskaintzen diren 16 ekintzetatik bakarra da euskaraz eta beste bat elebitan. Gainontzeko 14 ekintzak gaztelania hutsean dira. Lotsagarria da egoera, hemen duzue kartela.

Dosierra: 458-2023

Nori: GASTEIZKO UDALA - Principal Antzokia

Arrazoa: Gertaera ez da gaur bertan izan. Salatu nahi dut Vitoria-Gasteizko Udalak kudeatzen duen Printzipal Antokiak 2023ko udako denboraldirako ez duela ekitaldi bat ere euskaraz programatu, denak dira gaztelaniaz; 2023ko udaberrirako 2 antzezlan baino ez zituen euskaraz programatu eta programaziotik aparte "lehendakarigaiak" antzezlan gaztelaniaz eskaini zuten, gaztelaniaz bakarrik. Hauxe da printzipal antzokira sartzeko lotura: https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?idioma=eu&uid=u2365cbdb_126f4219030__7fdd

Erantzunak:

Udal Antzoki Sareko Burua: Gogoan hartzen dugu erreklamazioa eta guztiz justifikatutzat jotzen dugu. Kontuan hartuko dugu hurrengo programazioetan. Aitzakia gisa erabili gabe, jakinarazi nahi dizugu Principal Antzokiko udako programazioak beste erakunde eta entitate batzuen programazioei erantzuten diela, espazio hori lagapenen eta alokairuen bidez bereganatzen baitute. Edonola ere zure ekarpena eskertzen dugu eta gure hizkuntzaren presentzia gure udako programazioan ere bermatuta egon dadin zainduko dugu.

Dosierra: 474-2023

Nori: GASTEIZKO UDALA - TRAFIKO ZERBITZUA -

Arrazoa: Gasteizko TAO makina berrien euskara mailak zur eta lur utzi nau: "igurika otoi", "eskerrik asko zure bisitaz"... beste hanka-sartze batzuen artean. Lotsa eta nazka sentitu dut. Berriro ere Gasteizko Udalak errespetu falta euskaldunoi eta euskarari.

Erantzunak:

Trafiko Zerbitzuko teknikaria: makina berriak zerbitzuan jarri berri dira eta gertatzen diren gorabehera guztiak ahalik eta azkarren konpontzen ari dira. Euskarazko testuei dagokienez, Udaleko Euskara Zerbitzua berrikusten ari da, zuzendu eta, ahal den neurrian, makinetako softwareak eskaintzen dituen aukeretara egokitzeko. Gainera, honako hau gehitu nahi da: -Inoiz ez da herritarrekiko errespetua galdu nahi izan. Makinak fabrika-programatuta iritsi dira horrela euskarazko testuekin, eta testu horiek berak agertzen dira Euskal Herriko

beste hiri eta herri batzuetan instalatutako makinetan. Dena den, eta esan moduan, testuak zuzenduko dira.

Dosierra: 497-2023

Nori: GASTEIZKO UDALA - HERRITARREN SEGURTASUNAREN SAILA

Arrazoa: Gasteizko Udaltzaingora deitu dut gaur Tourra dela eta trafiko zalantza bat argitzeko. Arreta euskaraz emateko ez dagoela inor libre esan didate. Ez da lehen aldia. Gasteiztar euskaldunon eskubideak etengabe urratzen dituzte udaltzaingoen zerbitzuetan.

Erantzunak:

Udaltzaingoarean Komisario Burua: une hartan esku hartu zuen Udaltzaingoarean Zerbitzuko agenteak gaztelania erabiltzeari dagokionez, sentitzen dugu herritarra laidotuta sentitu izana.

Dosierra: 599-2023

Nori: GASTEIZKO UDALA - KIROL DEPARTAMENTUA

Arrazoa: Gasteizko Udalaren eskupilota jarduera guztiak, gazteentzat, gaztelania hutsez.

Erantzunak:

Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Saila: Kexan ageri den ikastaroa (esku-pilota) udalaren kirol-eskaintza horren ikastaro bat besterik ez da, bakar bat, hainbaten artean. Kexak pentsarazi dezake ikastaro horiek leku eta ordu beran, hirurak gaztelaniaz eskaintzen direla; baina ez da horrela: ikastaro bakarra da eta hiru matrikulazio-aldi (1., 2. eta 3. hiru hilekoak). Ikastaro orokorra da, 14 eta 99 urte bitarteko herritarrei zuzendua. Ez da berariaz gazteei zuzendutako ikastaro bat. Ikastaroa Arabako Euskal Pilota elkarteak ematen du,. Arlo horretan, udalaren eskaintzak hainbat modalitate biltzen ditu: esku-pilota, frontenis, argentinar paleta, goma-paleta... Eskaintza horretan badira euskara barne hartzen duten ikastaroak. Elkartearen begirale guztiek euskarazko hizkuntza-gaitasuna nahikoa dute. Ikastaroa edozein hizkuntzatan programatuta ere, herritarrek euskaraz zein gaztelaniaz zuzendu ahal dira haiengana. Hori horrela, udalaren kirol eskaintzan gaztelaraz, euskaraz, edo ele bietan eskaintzen diren ikastaroak daude. Programazioan hainbat elementuren oreka lortzea da oinarria: dauden baliabideak

(begirale gaituak), eskaria, ingurko errealitate soziolinguistikoa, xede-taldea, programaziorako irizpide teknikoak, etab.

Dosierra: 653-2023

Nori: GASTEIZKO UDALA - HERRITARREN SEGURTASUNAREN SAILA

Arrazoa: irailaren 6an, goizaldeko 03:00etan 092 telefonora deitu nuen zarataka ari ziren gazte batzuegatik kexatzeko. Harremana gaztelaniaz izan behar izan zuen, telefonoan zegoen udaltzaina ez baitzen euskalduna. Gaztelaniaz hitz egiteko eskatu, eta uko egin nion; eta berak eskaini zidan eurek deitzea udaltzain euskalduna aurkitutakoan. Tartetxo bat (5') pasa ondoren, euskaraz hitz egin ahal izan nuen (agurra, berriz, gaztelania batuan).

Erantzunak:

Udaltzaingoaren Komisario Burua: hauxe jakinarazten diugu jasotako kexaren gainean: sentitzen dugu herritarra laidotuta sentitu izana. Edonola ere, eskerrak eman nahi dizkizugu egindako ekarpenegatik

Dosierra: 743-2023

Nori: GASTEIZKO UDALA - KULTURA SAILA

Arrazoa: Gasteizen egiten den erdi-aroko azokan urtero gertatzen da euskarak oso presentzia eskasa izatea. Udalak (sustapen ekonomikoko sailak zein euskara zerbitzuak) ez du egoera konpontzen, azoka babesten eta bitartekoak bideratzen segitzen badu ere.

Dosierra: 786-2023

Nori: GASTEIZKO UDALA - ESPAZIO PUBLIKOAREN ZERBITZUA

Arrazoa: Gasteizen dauden kotxe elektrikoak errekaratzeko makinetan ezinezkoa da euskara erabiltzea. Gasteizko Udalak Zunder (Grupo Easycharger SL) enpresak kudeatzen ditu Gasteizko Udalak azaroaren 22ko lizitazioaren ondotik.

Dosierra: 792-2023

Nori: GASTEIZKO UDALA - TRAFIKO ZERBITZUA -

Arrazoa: Gasteizko TAO aparkatzeko makinek lehentasunez euskarazko menua erakusten dute orain. Albiste ona dirudi. Baina menua ekialdeko euskaraz idatzita dago. Beraz, erabiltzaile normalak ez du ezer ulertzen, madarikazioka hasten da,

eta jende pila bati argumentu sendoak ematen zaizkio "badaezpada, erdaraz" egiteko. Ez dakit estrategia indartsuagorik asma daitekeen euskararen kontra. Xelebrekeria dirudi, broma bat, baina errespetu-falta ikaragarria da. Oso larria. Nor da arduraduna?

Dosierra: 796-2023

Nori: GASTEIZKO UDALA - TRAFIKO ZERBITZUA -

Arrazoa: Gasteizko TAO makinak ekialdeko euskaraz daude: "otoi igurika", esate baterako. Gainera, "no turismoak" bezalako astakeriak azaltzen dira.

Dosierra: 864-2023

Nori: GASTEIZKO UDALA - KULTURA SAILA

Arrazoa: azaroaren 16tik 27ra, Gasteiz Film Fest izeneko jaialdiaren barruan hainbat filme eskainiko dituzte haur eta gaztetxoentzat. 10 urtetik gorako haurrentzako filmak gaztelaniazko azpidatziekin soilik eskainiko dituzte. "How I learned to fly" eta "El chico león" izeneko filmak hain zuzen. Badirudi adin batetik aurrera gaztetxoenen artean gaztelaniazko eskaintza sustatzen dutela erakundeek. Antolatzaileak besteak beste, Gasteizko Udala, Arabako Aldundia eta Vital Kutxa dira.

Erantzunak:

Gazte Film Fest: 1.- Lehenik eta behin, eskerrak eman gura dizkiogu bai herritar honi eta bai Euskararen Behatokiari euskararen aldeko zaintza egiteagatik eta zoritxarrez hain beharrezkoak diren euskal herritarren kexak bideratzeagatik. Guk ere, uste dugu, euskara erabiltzeko herritarren eskubideak ez daudela bermatuta, eta beharrezkoa dela herritarren zaintza aktibo hau hizkuntza-eskubide horiek berma daitezen. 2.- Bigarrenik, argi adierazi gura dugu, Gaztefilmek bat egiten duela euskara sustatzearen helburuarekin, eta horretan dihardugu lanean hastapenetik. Hori dela eta, gure hizkuntza politika eta lan metodologiaren berri eman gura dugu ondoko lerroetan: Oro har, euskarara-gaztelania programazioa euskararen aldekoa izan dadin zaintzen dugu %60 eta % 70 artean euskaraz eskainiz. Jaialdi eleaniztuna da, non kultur-ondare askotarikoa eskainiz euskara eta filmen jatorrizko hizkuntzak bereziki zaintzea den gure kezka nagusietako bat. Hizkuntza aniztasuna balioan jartzea, gure ustez, euskararen beraren indargarria izan behar luke. Egungo gizarte eleaniztunean Gasteizko haur askoren etxeko

hizkuntzak ere balioan jartzen laguntzen duela uste dugu. Film luze nahiz laburren proiektzioa bi asteburutan egiten da nagusiki, baina filma eta zinemagintza inguruko bestelako epaimahai osatze eta sormen lanak ere eskaintzen ditugu eskoletan nahiz tailerretan. Zailtasunak zailtasun, adierazi gura dugu euskararen aldeko lana ez dugula egiten bakarrik legeak agintzen duelako eta kuotak betetzeko, baizik eta euskararen helburu normalizatzaileekin erabat bat egiten dugulako, konbentzimendu osoz. Gure helburu nagusia hurrei kalitatezko ikus-entzunezkoak eskaintzea da eta euren ikuspegi kritiko eta sortzailean eragitea, nahiz eta horretarako ditugun baliabideak oso mugatuak diren. Jakitun gara zenbateraino euskarazko produktuak euskaraz lortzea eta eskaintzea den erronka handia, horixe baitugu langai uneoro, ahalik eta publiko zabalena bilatuz. Bi lan ildo-nagusiak honela adostuak ditugu Gaztefilmen: 2.1. Jaialdi eleaniztuna da izaeraz, euskara erdigunean jarrita. Komunikazioa bi hizkuntzatan egiten dugu, formatu digitalean eta inprimatuan: euskaraz, gaztelaniaz. Horrez gain, jaialdiaren funtsezko ardatz bat da film guztiak jatorrizko bertsioetan pasatzea. Ezartzen diren ikusleentzako adin tartekak ez ditu proiektzioak adin horietarako soilik mugatzen eta, ondorioz, gutxieneko adina ezartzea da helburua: beraz, “+6 “ edo “ +9” zerrendetako filmak publiko ororentzat dira gure ikuspegitik. Film horietako batzuk, urtero, Gaztefilm jaialdiak gasteiztar ikasle talde batekin bikoizten ditu eta aretoetan proiektatzen dira. Itzulpenak guk geuk egin eta bideratzen ditugu bikoizketa estudioetan modu profesionalean burutuz gaztetxoekin. Iparraldeko ikastolekin ere elkar lanean jardun dugu euskarazko bikoizketa lanetan. Jaialdiaren programazioaren zutabe nagusietako bat Gasteizko gaztetxo hauek estudioetan bikoiztutako filmen proiektzio saioak dira. Saio horiek gazteekin dinamizatzaile eta profesional talde batek elkarlanean prestatzen ditu, eta bikoiztutako filmak jendaurrean zuzenean aurkezten dituzte gazteek euskaraz. 2.2. Haur eta gaztetxoekin lan egiteko metodologia eta euskararen erabilera: Jaialdia urtearen hasieratik hasten da. Urteko lehen hiruhilekoan programazio-taldea mundu osoko jaialdietara joaten da. Maiatza-ekainean ixten da programazioa. Irailtik hasten gara materialak eta kudeaketa teknikoak antolatzen. Urrian, bikoizketa, irudi, diseinu eta abarreko tailerretarako lankidetzak lantaldeak integratzen dira, eta azaroan, berriaz, jaialdiaren aurre-produkzioa eta ekoizpena. Ia ez dago hurrei eta gazteei soilik zuzendutako jaialdirik eta jaialdiaren zabalkunde lanak garrantzitsuak dira. Behin jaialdiko edizioa amaituta Filmin plataforman eskaintzen dira jaialdiko produkzioak,

euskaraz bikoiztutakoak, adibiderako. Gure ustez, ezinbestekoa da publiko txikitatik sustatzea eta hezteak, ikusle-kritikoak lortzeko ikus-entzunezko produktuak kontsumitzerakoan. D eredu ikastetxeekin egiten dugu lan, irakasleekin eta euskarazko tailer eta eztabaidak sustatuz. Haurrekin ere epaimahaiak euskaraz antolatzen ditugu jaialdian bertan, taldeko eztabaida eta argudio ariketetan sartuz. Eredu hau bakarra da munduan, eta lan handia eskatzen du. Zuzenean Gasteizko eskolekin lan egiten da, esan bezala, D eredu eta euskaraz, hala nola: Ramon Bajo, Errekabarri, Mendizabala; Arrasateko Unibertsitatearekin ere elkarlana egiten da. Hainbat genero eta estiloko film laburrak eta luzeak biltzen ditu jaialdirako elkarlanean eraikitzen den programazioak eta sareen bitartez familien parte hartzea bilatzen dugu. 3-Herriarrak aurkeztutako kexari zuzenean helduz, onartzen dugu programazioan hurrengo edizioetarako kontuan izan behar dugun huts bat gertatu dela: +10 adin tartean 2023ko jaialdiaren edizioan gaztelarazko azpi-tituluak nagusitu dira. Kexa adierazi duen herritarrari esker, konturatu gara +10 adin tartean gaztelaniazko azpi-tituluak eskaini direla, nahiz eta huts horrek ez duen ordezkatzeko Gaztefilmek daukan hizkuntzen politika orokorra. Laburtuz, honakoa adierazi gura dugu: - Oso kontuan hartuko dugu herritar horrek helarazi duen kexa Gaztefilm jaialdiko programazioan eta zainduko dugula adin tarteen eskaintza, baina era berean, uste dugu aurten gertatu den huts horrek ez duela ordezkatzeko jaialdian sustatu dugun euskararen aldeko hizkuntza politika. Euskaraz bereziki eta eleaniztasunean zinema kultura zabaltzeko hainbat eragileekin elkarlana egiten dugu, eta zailtasunak ez dira gutxi. Diru-laguntzak lortzea ere oso zaila egiten zaigu, besteak beste, itzulpen lanak bideratzeko. Babesa behar dugu guk ere, eta maiz, faltan daukagu. Horrekin ez dugu gure erantzukizuna lausotu nahi, kontrakoa baino: salatu gura dugu euskaraz haur eta gazteentzako zinema eta ikus-entzunezkoen eskaintza zabaltzeko dagoen baliabide falta eta zailtasuna. Eta horrek, hain zuzen, indartzen du gure proiektua aurrera ateratzeko grina, urtez urte. - Antolaketa Batzordean kexaren gaia landu dugu eta aurrera begira eztabaida zehatz bat bideratuko dugu eleaniztasunean euskara erdigunean egoten jarrai dezan ditugun erronken eta berrikusi beharreko irizpideen inguruan. Ez dira gutxi Gasteiz bezalako testuinguru batean euskara bermatua eta sustatua izan dadin ditugun erronkak.

Dosierra: 865-2023

Nori: GASTEIZKO UDALA - HERRITARREN SEGURTASUNAREN SAILA

Arrazoia: atzo, azaroak 14, 11:30ean, Gasteizko udaletxera hurbildu nintzen Euskara Batzordea geneukalako. Sarreran zegoen udaltzainari bertaratzeko arrazoia azaldu nion euskaraz. "Yo no hablo euskera, hablame en castellano" eskatu zidan. Berriro errepikatu nion poliki-poliki eta euskaraz. "Te he dicho que no se euskera!!" erantzun zidan modu oso bortitzean. Orduan, arreta euskaraz jaso nahi nuela eta euskaraz zekien kideren bat bazegoen galdetu nion. "No, estoy yo solo y no". Azkenean gaztelaniaz eman nion azalpena eta "no ves que facil?" bota zidan. Gasteizko Udala bezalako erakunde publiko baten egoitza sarreran, gutxieneko euskara mailarik ez duen udaltzaina paratzea eta, gainera, arreta euskaraz jaso nahi duena jarrera oldarkor eta bortitzarekin tratatzea ez da bidezkoa. Gertaera larria da eta horrelakoak berriro ez gertatzeko neurriak hartzea eskatzen diot Gasteizko Udalari.

Dosierra: 950-2023

Nori: GASTEIZKO UDALA - GOBERNU IREKIAREN ETA GIZARTE ETXEEN SAILA

Arrazoia: Gasteizko Udalaren Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzuak ebazpen baten berri eman digu. Bertan udalak bulego eta aretoen esleipenaren baerri ematen du, arloko zinegotziak sinatuta, eta gaztelera hutsez.

Erantzunak:

Gobernu Irekiaren eta Gizarte Etxeen saileko zinegotzia: Lehenik eta behin, barkamena eskatu nahi dugu elkarten etxeetan lokalak esleitzeko ebazpena gaztelaniaz bakarrik jakinarazteagatik. Jakinarazi nahi dizugu aipatzen duzun posta elektronikoa premia bidali zela, Tokiko Gobernu Batzarretik itzulpena egin baino lehen, aurrerapen gisa. Lokalaren lagapena duten elkarte askok duela egun batzuetatik hona erreklamatzeko ziguten ebazpena, beharrezko kudeaketak egin ahal izateko. Itzulitako ebazpena izan bezain laster, komunikazio ofiziala bi hizkuntzetan egin da. Gainera, lokalen esleipenari buruz udal webgunean argitaratu den informazio guztia euskaraz eta gaztelaniaz egin da. Barkamena eskatzen dizugu berriz ere.

Dosierra: 952-2023

Nori: GASTEIZKO UDALA - INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIEN SAILA

Arrazoia: Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa gestioa euskaraz egitea aukeratu dut eta hasiera batean bai, baina, momentu batetik aurrera gaztelaniaz jarduteko aukera baino ez du eskaintzen, ezin da euskaraz egin.

BIZKAIKO UDALAK (77)

Dosierra: 18-2023

Nori: BARAKALDOKO UDALA -Alkatetza-

Arrazoa: Abenduaren 1ean Lutzana Barakaldoko Kulturgune berria ireki zen lehenengo aldiz. Poz handiz hartu dugu auzokideok, ederra tokia benetan! Baina bertara sartu eta harreragileak euskararik ez dakiela ikustean harrিতuta geratu nintzen... Ahaleginak egin nituen baina azkenean betiko "hábleme en castellano por favor" zatarra jaso nuen. Beste aldetik, esan beharra daukat, Kulturguneko harreragileak ez baina barrualdean dagoen liburutegiko harreran lasai asko mintzatu gaitezkeela euskaraz.

Erantzunak:

Kultura, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria alorra: Jakinarazi nahi dizugu dagokien neurriak hartu direla dagoeneko eta, beraz, une honetan euskarazko arreta bermatzen dela Lutzanako Kulturgunean.

Dosierra: 24-2023

Nori: BARAKALDOKO UDALA -Alkatetza-

Arrazoa: Polikiroldegiko bazkidezaren inguruko kudeaketa bat egitera joan naiz, euskaraz egin diet eta "no te entiendo" erantzun didate. Gestioa gaztelaniaz egin behar izan dut.

Erantzunak:

Barakaldo Kirolak -presidentea-: Barakaldo Kirolakeko langileei jakinarazi eta gogoraraziko zaie, arreta euskaraz emateko gai izan ezean, euskaraz dakien lankideren bat bilatu behar dutela momentuan, herritarren hizkuntza hautua une oro errespetatze eta bermatze aldera.

Dosierra: 26-2023

Nori: BARAKALDOKO UDALA -Alkatetza-

Arrazoa: Barakaldoko Udalaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzua (HAZ)-ren makinan (bulego elektronikoa) ordainketa bat egin behar izan dut Lasasarren eta bertan udaleko langile bat egon da laguntzeko. Nik euskaraz egin diot hasieratik baina berak gaztelaniaz eman dit zerbitzua.

Erantzunak:

Barakaldo Kirolak -presidentea-: Barakaldo Kirolakeko langileei gogoraraziko zaie, arreta euskaraz emateko gai izan ezean, euskaraz dakien lankideren bat bilatu behar dutela momentuan, herritarren hizkuntza hautua une oro errespetatze eta bermatze aldera.

Dosierra: 29-2023

Nori: BARAKALDOKO UDALA -Alkatetza-

Arrazoa: Barakaldoko Udal Kirolak Erakunde Autonomoak bere lanpostu-zerrenda onartu du. Horretan jaso beharreko hizkuntza-eskakizunak jaso eta zenbait derrigortasun-data esleitu ditu. Zerrenda aztertuta ikus daiteke "begiralea soroslea" izeneko hiru plazetatik bakarrak ere ez duela derrigortasun-datarik, ondorioz, herritarrekin harreman zuzena duten plaza horietan ez da baitezpadakoa euskaraz jakitea, hartara euskaldunon hizkuntza-eskubideak ez bermatuz.

Dosierra: 43-2023

Nori: MUNGIAKO UDALA

Arrazoa: Eguntan Mungiaiko Udalaren eta EAeko gobernuaren logoak ageri dituzten iragarkiak azaldu dira Deian, honako hau diotena euskaraz-edo: "Odoloste eta Txorizoren Euskadiko Sariketa". Gaztelaniazko testua, jakina, ondo dago. Euskararen aurkako askok pentsatzen dute euskara lehenesten dutela administrazio publikoek testu 'elebidunetan' euskara nabarmentzen delako... Errealitate gorria, ostera, guztiz bestelakoa da. Erantsita doakizue gaurkoaren (2023-01-15, domeka) argazkia.

Erantzunak:

Euskara Saila-Itzulpen zerbitzua: Zuen fundazioak bidalitako mezua jaso genduan Udalean; hain zuzen bere, herritar batek egindako kexa-idatzi bati lotuta: 1.- Kexa dala eta, herritarrek arrazoi osoz egin dau kexea, Deian agertu dan testu horretan agertzen dan mugagabe-formak ez dauka-eta lekurik kontestu horretan. 2.- Herriko alkarteek egiten dabezan lanen zuzentasunaren ardura ez du hartzen Udalak; horri erantzuteko beste baliabide publiko ez dago gurean. Halanda guztiz bere, esan behar dogu gurean doan eskaintzen jakela itzulpen zerbitzua gura daben alkarte eta establezimenduei; beti bere erespide batzuei jarraituta eta muga batzuen barruan (idazkiaren luzera, erabilera eta helburua kontuan izanda). 3.- Edozelan

bere, titulu hori berori daukien kartel, pankarta eta abarretan zuzen erabilten da. Ez dakigu Deian agertu dan errakuntza horretara heltzeko non okertu dan bidea; askok egin leikie/geinke era horretako akatsa, zoritzarrez. Horrek, baina, ez dau esan gura jagokon administrazio publikoak euskerea zuzen erabilteko ahaleginik egiten ez dauenik; azterketa zabal eta sakonagoa egin behar da, eta kontuz ibili, detaileei erreparatuta errealtate gorriraino heltzen diran baieztapen orokorrak egin aurretik. *Erantsita doaz aurtengo jai-egun horretan erabili diran euskarri batzuk (sareetan bere erraz aurkitu leitezke).

Dosierra: 54-2023

Nori: GETXOKO UDALA

Arrazoa: Gaur Getxoko udaltzaingorako 2 plaza betetzeko deialdia atera da, 2 postuak derrigortasun data igaro gabe dutenez, euskara ez dakiten hautagaiak Getxoko udaltzain bezala lanean sartu ahal izango dira. Erabaki hauek Getxo-ko herritarron euskararen erabilera mugatu eta baldintzatzen dute. Udalari eskatu nahi diot behingoz udaltzain guztiek euskaraz lan egiteko gaitasuna izan dezaten ziurtatzeko.

Dosierra: 73-2023

Nori: SANTURTZIKO UDALA

Arrazoa: Kaleko lanak direla-eta informazio euskarriak jarri dituzte Mamariga auzoan, gaztelania hutsez, euskaldunok baztertuta utzirik.

Dosierra: 80-2023

Nori: GETXOKO UDALA

Arrazoa: Urtarrilean "Teknologia eta Administrazioa berritzeko Zuzendari" lanpostuaren oinarriak argitaratu zituen Getxoko Udalak. Oinarri horien arabera, ez zen nahitaezkoa euskararen ezagutza izatea, merezimendua soilik izan zen atzerriko hizkuntzekin batera. Getxoko Udalean horrelako goi-mailako lanpostu estrategiko bat betetzeko euskaraz lan egiteko gaitasuna izatea ezinbestekoa iruditzen zait.

Dosierra: 87-2023

Nori: BERMEOKO UDALA

Arrazoa: Aldapa Xtrem Bike Marathon web atariak (aldapaxtrem.com) gaztelera bakarrik dago. Antolatzaileak: Matxitxako T.K.T. eta Bermeoko Udala dira

Dosierra: 116-2023

Nori: ETXEBARRIKO UDALA (Lea-Artibai)

Arrazoa: Atzoko Deiak Markin-Etxebarriko Udalaren iragarki bat zekarren. Beste behin ere "Etxebarriako" idatzita. Hain gaitza da herrien izenak errespetatzea? Norberaren herria denean, areago... Zer esanik ez, herriaren udalaz ari bagara. Pasa den urtean arrazoi berberagatik egin nuen kexa (815-2022) Bide batez. Agerikoa da euskarazko testua itzulpena dena. Eta kalitatea erdarazko testuak duena. Bide batez, "alkatea" maiuskuletan idatziagatik, ortografia arauari jaramon ez eginez, alkate da, ez besterik, irakasleak irakasle diren moduan, edo kale-garbitzaileak kale-garbitzaile diren era berean. Bide batez, "alcalde-presidente" alkate-udaburu da euskaraz. Ez horregatik.

Dosierra: 158-2023

Nori: BARAKALDOKO UDALA

Arrazoa: Lurkitzaga kalean zergatik dago bide-seinale hau erdara hutsean: "RESERVADO SERVICIOS FUNERARIOS DE 17 A 21 H"?

Erantzunak:

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua: Udal Zerbitzuen arlotik kartela laster aldatuko dela jakinarazten dizute. Besterik ez. Eskerrik asko zure parte-hartzeagatik. Zure esanetara gaituzu.

Dosierra: 163-2023

Nori: ERANDIOKO UDALA

Arrazoa: Erandioko Udaleko sare sozialetako 'euskarazko' testuak itzultzaile automatikoekin egiten dituzte, antza denez. Aspalditik argitaratzen dituzte astakeriak eta hala segitzen dute lotsagorritu barik. Adibidez, zer esan gura du honek: "Nola eramango dituzte berriak jada Kataluniakoak direnekin?" Ba, ganoraz ulertu ahal izateko espainolez irakurri behar ezinbestean: "¿Cómo se llevarán los nuevos con los que ya son "veteranos"?"

Dosierra: 187-2023

Nori: BARAKALDOKO UDALA - BARAKALDO KIROLAK -

Arrazoa: Barakaldoko Udal Kiroldegi batean (Lasesarre) ikusitako kartela. Euskarazko testuan "Ez erabili mobilizaziorik" jartzen du, eta, antza, " Ez ezazu erabil mugikorrik edo sakelakorik" edo antzeko zerbaite ipini beharko luke.

Erantzunak:

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua: Jakinarazten dizugu kartelak ikusi bezain laster kendu egin ditugula.

Kultura, Hezkuntza eta Gizarte Arloa: Idazki honen bidez jakinarazi nahi dizugu Barakaldo Kirolakek kexa eragin duen kartela kendu egin duela. Horrez gain, herritarrari barkamena eskatu eta jakinarazi dagozkion neurriak hartuko dituztela akatsa errepika ez dadin.

Dosierra: 196-2023

Nori: BARAKALDOKO UDALA

Arrazoa: BEC ondoko biribilgune batean bada bide-seinale bat erdara hutsean dagoena: "Usted no tiene la prioridad". Bidaltzen dudan irudian ikusi daiteke zein den.

Dosierra: 198-2023

Nori: BALMASEDAKO UDALA

Arrazoa: "Balmaseando" udalaren webgunea da, hor argitarazten dituzte herriari buruzko berriak. Normalean lehengo erderaz ateratzen dituzte, eta egun batzuetan euskarazko bertsioa ere kaleratzen dute. Batzuetan badirudi euskaratzea ere ahazten zaiela eta erdera hutsean argitarazten dute. Kasu honetan 6 egun pasatu dira erderazko bertsioa argitaratu zutenetik eta momentuz ez dute euskaratu. <https://balmaseando.eus/el-refuerzo-estructural-de-la-cubierta-de-las-piscinas-esta-avalada-por-informes-tecnicos-que-permiten-su-apertura/>

Dosierra: 201-2023

Nori: BARAKALDOKO UDALA

Arrazoa: Gaur Barakaldoko Udaltzaingora joan naiz eta gizon udaltzain bati (gaztea, ile horia, koletaduna) esan diot: "Giltzak galdu ditut". Erantzuna honako

hau izan:"No te entiendo". Benetan uste dut kontu larria dela eta aztertu beharrekoa.

Erantzunak:

Barne Kudeaketa Eta Antolaketa Arloa Zinegotzi Ordezkarria: Aipatu beharra dago 2019an zenbait udaltzain berri hasi zirela lanean, eta baliteke langile berri horiei behar bezala azaldu ez izana nola jokatu behar duten herritarren batek arreta euskaraz jaso nahi duenean. Horrenbestez, kexak eragindako gorabehera ekiditeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatu ahal izateko, honako neurri hauek hartuko dira: - Lantaldeetako buruei arestian nabarmendutako irizpideak etengabe gogoraraztea, irizpide horien berri eman diezaieten beraien ardurapeko udaltzainei. - Beharrezkotzat jotzen bada, dagozkion aldaketak egitea, lantaldeetan euskara dakiten udaltzainen kopurua orekatuta egon dadin.

Dosierra: 210-2023

Nori: ARRIGORRIAGAKO UDALA

Arrazoa: Kiroldegian spinning egiteko euskara taldean izena eman nuen irailan, baina klasea erdaraz eman izan da. Irakasleak ez zuen ezer esaten euskeraz. Proiektua abian jarri zeneko lehen ikasturtean, dena euskaraz egiten genuen. Irakaslea euskalduna zen eta ez zegoen arazorik. Gainera, helburua lortu zen, gure artean ere euskeraz hitz egiten genuen eta. Hala ere, pasa den kurtsoan, guztiz aldatu zen. Ikasturtearen erdian maisua aldatu behar izan zuten eta lehenengo momentutik, maisuak erdaraz ematen zuten klasea. Irakasleari euskarazko taldea zela esan nionean, esan zidan berari inork ez ziola ezer esan izan. Kiroldegian bertan esatean, esan zidaten bapateko aldaketagatik zela, eta horrela utzi nuen, baina aurten berriro. Irakasleari kaltea egin ez dut nahi, baina uste dut ez dela hain zaila esatea: "gora", "behera", eta abar. Hilabete honetan oso jende gutxi ibili garenez, taldea kentzea erabaki dute. Zer egin behar dut datorren kurtsoan berriro irakasleak euskaraz ez badaki edo ondo moldatzen ez bada?

Erantzunak: Kirol Teknikaria: Ikasturte honen hasieran monitorea kontratatzeaz arduratzen den kanpo enpresak langile aldaketa egin zuen eta klaseak gaztelania hutsez ematera igor ziren. Kiroldegiko zuzendariak gertakari hauen berri izan zuenean aipatutako monitorean arduraduna den kanpo enpresa ohartarazi zuen eta, gertakariak konfirmatu ostean, berriz ere monitorea euskalduna jartzeko aldaketa burutu zuten. Orditik aurrera, erabiltzaileek monitorea berriaren klaseak

emateko modua gustukoa ez zutelarik, jardueratik baj ematen joan ziren, izen-emate maila gero eta txikiagoa izateraino. Kiroldegian eskainitako jardura gidatu guztiek gutxieneko erabiltzaile ratioa bete behar dute hauen bideragarritasuna bermatzeko. Esan daiteke mota honetako jardura bat bideragarria dela izen emate kopurua eskainitako tokien %50etik gora dagoenean. Zenbait kasutan, zerbitzu publiko bat erabilera ratio horretatik beher ere mantendu daiteke betelako zeharkako helbururik bilatuz gero, euskararen sustapena kau. Jarduera zehatz honi dagokionez, argitu beharra dago hilabeteak eman dituela teknikoki bideragarria izateko estimatutako gutxieneko izen-emate kopuru horretatik behera (Kiroi Teknikari hau lanean dagoenetik urtarrilean %28ko okupazio maila batekin eta otsailean %19koarekin). Hala ere, urte hasierako hilabeteotan bere horretan mantendu izan da udaletik ulertzen baitzen euskararen sustapenaren zeharkako helburua bultzatu behar zelako. Martxoko izen-emate kanpaina heldu zenean, non soilik bi pertsonen izena eman zuten, ikastaroa ezinbestean bertan behera utzi beharrean ikusi ginen. Aurretik adierazitakoaz gain, esan behar dut zerbitzu honetara gerturatzen dien herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatzen direla euskaraz artatuak izaterakoan, izan zuzendaritzarekin duten harremanetan, kiroldegiko harrerako zerbitzuarekin edota udal langileak diren sorosleekin. Datorren urtean berriz ere eskainiko dira zenbait ikastaro euskara hutsean, idatzi honen zergatiarena barne, erabiltzaileek nahi izanez gero izena emateko aukera izan dezaten eta kirol esparrua euskararen sustapenerako tresna gisa baliatzeko asmoz.

Dosierra: 220-2023

Nori: ABADIÑOKO UDALA

Arrazoiak: Abadiñoko igerilekuan telefonoa hartu zuen neskak ez zekien euskaraz, hizkuntza eskubideak ez ziren errespetatuak izan. Udalaren ardura hau bermatzea dela uste dut.

Dosierra: 222-2023

Nori: ABADIÑOKO UDALA

Arrazoiak: Gaur arratsaldean udal polikiroldegira deitu dut. Uda sasoirako igerilekuaren inguruko informazioa nahi izan dut. Telefonoa hartu duenak arratsaldean esan eta gainontzeko guztia gazteleraz erantzun dit. Ia euskaraz

ez zekien galdetuta, ulertu baietz, baina, ez zela gai hitz egiteko. Nire jardun osoa euskaraz izan da eta berea gazteleraz. Ezin dugu onartu.

Dosierra: 227-2023

Nori: AULESTIKO UDALA

Arrazoiak: Atzo paseo bat emoten atara nintzen Aulestiko Urriolarako bidean eta erdara hutsean zeuden bide-seinale bi honek topatu nituen. Mendiko lanak egiten dituzten enpresak ez dute kontutan hartzen gure hizkuntza eskubidea eta udalak ez du kontrolatzen.

Dosierra: 241-2023

Nori: ARRIGORRIAGAKO UDALA

Arrazoiak: honakoa jakinarazi nion 2022ko ekainean Arrigorriagako Udalarari "Kalezaindu" izeneko web aplikazioaren bidez: "pasa den ekainaren 12an, domekan, burutu zan Abusuko Kultur Etxearen inguruan 'El mar empieza aquí-Ozeanoa hemen hasten da' lelopean kotzientziario kanpaina. Ba kultur etxearen estoldetan egindako margo guztietan erderaz baino ez da agertzen leloa. Euskeraz noizko?" Galderari erantzunez, ondoko erantzuna jaso nuen ekainaren 16an: "zuen kezka partekatzen dugu. Egun horretan bertan jakinarazi genien jardura egin zuten boluntarioei, eta espero dugu deskuidu hori lehenbailehen konpontzea. Eskerrik asko zure laguntzagatik". Baina "deskuidua" konpondu gabe dago oraindik. Nire galdera barriro ere: euskeraz noizko?

Erantzunak:

alkatea: Sentitzen dugu denbora honetan estolda ondoko pintadak euskaraz egin ez izana gure udalaren konpromiso faltatzat hartu izana. Delako jarduketa iazko ekainean Aste Berdea programaren barruan herriko elkarteek eta boluntarioek dinamizatu zuten. Hizkuntza bakar batean egin zela jakin ondoren, udal honek euskarazko plantilla egitea erabaki zuen. Helbura zen plantilla berria erabiltzea horretarako aukera genuenean baina orain arte ez da halakorik gertatu. Aurtengo Aste Berdearen edizioan, apirila amaieran, berriro egin da ekintza. Ekitaldia dinamitzatzeko prest azaldu den elkaratearekin harremanetan jarri eta oraingoan euskarazko testua ere erabili da.

Dosierra: 263-2023

Nori: LOIUKO UDALA

Arrazoa: Martxoaren 29an Loiuko udaletxera deitu eta euskaraz atendituta izateko 1 sakatu behar nuela esan zidan makina batek. Behin pertsona bat beste aldean nire galdera egiten hasi eta - "por favor, ¿Me puedes hablar en castellano?" esan zidan. - " pues he pulsado el 1, como me han indicado. - Ya, pero... Ez dakit udaletxe horretako ohiko jarduna den (idazkari bakarra bada) edo egun horretakoa soilik (euskalduna ez zegoelako), baina bata zein bestea izan gure eskubidea berriz urratuta.

Dosierra: 269-2023

Nori: ERANDIOKO UDALA

Arrazoa: Atxabidean (Astrabudua): Kontuz / Atención / Acceso solo residentes /Desvío provisional / Disculpen las molestias

Dosierra: 280-2023

Nori: TRAPAGARANGO UDALA

Arrazoa: Martxoko osoko bilkuran, Eskontrilla eskolako gurasoen elkarteko ordezkariak parte hartu zuen, horretarako, udalaren arauak dioen bezala, hamar egun lehenago egingo zituen galderak erregistratu zituen gobernu taldeak erantzunak prestatu ahal izateko. Hitz egiteko ordua heldu zitzaionean, alkatearen aldetik errespetu falta jasotzeaz gain, kultura, euskara eta teknologia berrien zinegotziak gaztelaniaz erantzun zion, eta, gainera, eskolako ordezkariak aipatu zionean: "euskaraz galdetzen ari naiz eta erantzunak euskaraz jaso nahiko nituzke" zinegotziari, honek erantzun zion "hablo en castellano para que lo entienda todo el mundo". Baina ez hori bakarrik, gurasoen ordezkariak esan zuen : "itzultzaile zerbitzua ez dago?" zinegotziak, erantzun zion "eso a ti no te interesa". Trapagarango Udalak ez du legedia betetzen eta euskaldunon eskubidea ez du bermatzen inondik inora; behin baino gehiagotan euskara zein euskaldunak baztertzan ditu (karteletan, seinaletan, argitalpenetan, herritarren arretetan, eta abarretan).

Dosierra: 303-2023

Nori: BALMASEDAKO UDALA

Arrazoa: Udalaren web orrialdean, herritarrein arretarako bulegoko zerbitzu gutuna erderaz dago bakarrik. <https://www.balmaseda.eus/eu-ES/Herritarrek/Herritarren-partaidetza/Orriak/Cartadeservicios.aspx>

Dosierra: 310-2023

Nori: GALDAKAOKO UDALA

Arrazoa: Galdakaoko Udalak Urretalde jai batzordeak antolatutako "Feria de abril" babestu du, baina jaia ospatzeko publizitate kartela gaztelaniaz bakarrik argitaratu da. Non daude euskaldunon eskubideak? Urretako euskaldunok ez daukagu kartela euskaraz irakurtzeko eskubiderik? Ez al dute antolatzaileek publizitatea euskaraz egin behar? Pena, beste behin.

Dosierra: 335-2023

Nori: BALMASEDAKO UDALA

Arrazoa: Badirudi Balmasedako euskaldunok ez daukagula dirulaguntza eskatzeko eskubiderik. Argitutako oinarri eta ebazpen guztiak erdera hutsean daude. <https://www.balmaseda.eus/eu-ES/Albisteak/Orriak/20221202-ayudas-para-el-apoyo-a-economias-familiares-.aspx> "Ya ha comenzado el plazo para solicitar las Ayudas para el Apoyo a las Economías Familiares. Este año las ayudas se concederán a: Impuesto de Bienes Inmuebles. Vestuario escolar y material deportivo. Estudio del euskera. Apoyo extraescolar de materias lectivas. Sustitución de bañera por plato de ducha. Rehabilitación de fachadas, tejados y portales y aquellas obras derivadas del ITE. Gastos para la instalación de ascensores. Ayudas por desplazamiento a personas desempleadas para realizar actividades formativas. Matrículas de Grado Medio y Superior en Centros Públicos o Privados Concertados y Universidad Pública. Estas subvenciones no son incompatibles entre sí y la misma persona beneficiaria podrá acceder a todas las líneas, si fuera el caso. Las solicitudes deberán presentarse en el SAC y el plazo finaliza el 16 de diciembre de 2023."

Dosierra: 348-2023

Nori: IZURTZAKO UDALA

Arrazoa: Ez diot batere zentzunik ikusten Izurtzako Udalaren (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko kidea) Herriko Tabernan hiru egunkari hispano izateari, tartean bat oso militantea dena euskaldun herritarren aurka, ideologia nazionalista supremazista glotofobo xenofobia duena. Correo, Deia eta Gara dituzte. Aldi berean euskaldunon egunkaria den Berriaren arrastorik ere ez. 2015etik EH Bilduren eskuetan dago udal gobernuia. EH Bilduren aldetik herritarrek jarrera euskaltzaleagoa espero dutelakoan nago. Nik dagoeneko zoritxarrez gero eta esperantza eta konfiantza txikiagoa dut. Zeren aldarrikapenei barik, egintzei erreparatzen baitiet. Ez du zentzurik eta are kontraproduzentea da ustezko aldarrikapen eta ustezko helburuetarako 'Hemen euskaraz bizi gara' idazkia izatea eta ondoan hizkuntza paisaia osoa eta egunkari eskaintza erdarazkoa baizik ez izatea.

Dosierra: 352-2023

Nori: BALMASEDAKO UDALA

Arrazoa: Balmasedako Udalean pentsatzen omen dute, kartel bat elebiduna izateko nahikoa dela "data jartzea eta goizez edo arratsalde adieraztearekin. <https://www.facebook.com/photo?fbid=614522907371518&set=pcb.614522994038176>
<https://www.facebook.com/photo?fbid=614522920704850&set=pcb.614522994038176>

Dosierra: 359-2023

Nori: GALDAKAOKO UDALA

Arrazoa: Urretako parkean bado bi daude, lur azpiko aparkalekuaren alde bietan, biak ere gaztelaniaz. Udalerrrian ere gehiago daude gaztelaniaz bakarrik. Zaharrak dira, baina ez daude euskaraz. Aldatzeko asmorik bai? Euskaldunon eskubideak beteko ditu udalak?

Erantzunak: Hirigintza saila: Hizkuntza-eskubideen urraketa eragin duten ibi seinaleak aldatuko ditu dagokion udal ordenantzak adierazitakoaren arabera. Horretarako, Udalak seinaleak erosiko ditu eta lortutakoan jarri egingo ditu.

Dosierra: 420-2023

Nori: ARRIGORRIAGAKO UDALA

Arrazoa: Maiatzaren 28ko hauteskundeetan herriko frontoian udalaren izenean lan egin eban batek ez ekian euskeraz eta erderaz egin eustan, oso lagungarria bai, baina erderaz.

Dosierra: 422-2023

Nori: GALDAKAOKO UDALA

Arrazoa: Galdakaoko Udalak erdaraz argitaratu du honako liburu hau. IZENBURUA: "Galdakaoko etxeak, jabeak, bizilagunak...XVI.mendetik 1936ra arte" IDAZLEA: XABIER VALENCIA BARAHONA URTEA: 2022 Euskaraz izenburua eta orrialde bat baino ez dauka; gainerako guztia erdara hutsean dago. Liburua oso interesgarria den arren eta atzean egindako ikerketa lana ere izugarria den arren, Galdakaoko Udalak argitaratutakoa izanik, euskarazko bertsioa ere beharko luke.

Erantzunak:

Kultura, Gazteria eta Kirol arduraduna: Azaldutako gertakarien aurrean, onartu besterik ez dago liburu honen argitalpena ez zela egoki kudeatu. Justifikazioa ez bada ere, aipatu behar da orduko Kultura Arloko arduradun politikoak ezarri zituela argitalpenaren baldintzak bere kabuz: formatua, epeak, ale kopurua, ale banaketa etabar. Kultura Arloko teknikariek zein gaur egungo arduradun politikoak kontuan hartuko dugu argitalpen honekin gertatutakoa, egoera tamalgarri eta bidegabe hori berriro gerta ez dadin. Halaber, aipatutako liburuaren bigarren liburukia elebitan argitaratuko da eta aurretik, lehenengoaren euskarazko bertsioa argitaratzeko aukera aztertuko da. Akatsak-akats, konprometituta gaude euskararekin eta aurretik aipatutako Hizkuntza-eskubideen gaineko arauzko irizpideak helburu ari gara gure eguneroko jardunean.

Dosierra: 425-2023

Nori: BARAKALDOKO UDALA

Arrazoa: Ez dago TAOpean euskaldun herritarrok ganoraz aparkatzerik. Izan ere, euskara erabili gura izanez gero, honakoe hauen modukoak azaltzen dira TAO makinan: "Momento bat mezedez" "Espere" "Aparkaldi dembora gainditzea" "Zentro Verde"

Erantzunak: Barne Kudeaketa Eta Antolaketa Arloko Jarduneko Zinegotzi Ordezkaría: dagokion arloarekin harremanetan jarri eta zera eskatu zaio: TAO makinaren kudeaketaz arduratzen den enpresari gogorarazteko bermatu egin behar dituztela aplikatu beharreko legeek herritarrei aitortzen dizkieten eskubideak Herri Administrazioekin euskaraz zein gaztelaniaz erlazionatzeko, ahoz zein idatziz. Horrez gain, euskarazko testuek jasotzen dituzten akatsak zuzen ditzatela ere eskatu zaio, hizkuntza horretan ere kalitatezko zerbitzua bermatzeko.

Dosierra: 427-2023

Nori: TRAPAGARANGO UDALA

Arrazoiak: Trapagarango Udalak ez du euskararen araudia betetzen eta, beste behin ere, euskaldunak baztertzeko ditu. Oraingo honetan, herriko eskoletako ikasle euskaldunak baztertzeko. Udalak kuadernotxo bat jarri du herriko eskoletan, erabat gaztelaniaz.

Dosierra: 434-2023

Nori: TRAPAGARANGO UDALA

Arrazoiak: 2023ko martxoaren 30ean, Trapagarango Udaleko Osoko Bilkuran, saio digitalen aktan ikus daitekeen bezala (<https://actasesionesdigital.smartis.es/trapagaran/visor.aspx?id=29>), 1:37:20 denboran, Eskontrilla Guraso Elkartearen ordezkariak euskeraz ari dela eta euskeraz erantzun diezaioten eskatzen du; ondoren, itzulpen zerbitzuaz galdetzean, Kultur zinegotziak "eso no te interesa" esan eta gaztelaraz hitzegiten jarraitzen du.

Erantzunak:

Udal itzultzailea: aurkeztutako kexari dagokionean esan behar dizuegu: Bat.- Kexa-jartzaileak arrazoi guztia duela bere hezkuntza eskubideak erabat zapalduak izan direlako. Bi.- Trapagarango Udaleko euskara zerbitzua oso murrizta dela. Izan ere, langile bakarrak osatzen du: itzultzailea naizen honek, hain zuzen ere. Udalak sortzen dituen idatzizko agiri guzti guztiak itzultzen ditut (aktak, dekretuak, bandoak, oharak, programak, foiletoak...) eta udal barneko hizkuntza normalizazioaz ere arduratzen naiz. Hori guztia administrazioko C1 taldea baino ez diotelarik esleitu nire lanpostuari, hau da, administrarien taldea. Interpretari lanetan aritzeko – eta hori zen kexa-jartzaileak osoko bilkuran eskatzen zuena– A1,

edo gutxienez, A2 taldeko profesionala beharko litzateke, eta niri ez didate talde hori aintzatetsi. Hiru.- “Eso no te interesa” erantzun zuen zinegotziak, hurrengo osoko bilkuran, barkamena eskatu zuela euskaraz idatzitako testu baten bidez. Lau.- Eskontrilla Guraso Elkarteak egindako galderei euskaraz idatzitako testu baten bidez erantzun zitzaizela, hurrengo osoko bilkuran. Gauzak noizbait aldatuko direlakoan, har ezazu agur bero bat.

Herritarren erantzuna: Hirugarren puntuan: - “Eso no te interesa” erantzun zuen zinegotziak, hurrengo osoko bilkuran, barkamena eskatu zuela euskaraz idatzitako testu baten bidez.- aipatutakoaren arian, idazki bat bidali zioten Guraso Elkarteari, baina ez zuen pertsonarik sinatu, beraz ez dakigu zehatz zeinena zen. Kultur zinegotziak berak sinatuta berbidaliko zuela esan zuen Osoko Bilkuran, baina oraindik zain gaude... mesedez, bete dezatela beraien hitza.

Dosierra: 438-2023

Nori: GALDAKAKO UDALA

Arrazoiak: Galdakaoko Udalean gestio bat egin dugu administrazio telematikoko bidez, euskaraz egin ere. Baina aurkeztutako dokumentua jaso izanaren mezua gaztelania hutsean jaso dugu.

Erantzunak:

Galdakaoko alkatea: hilabeteotan lan-batzarrak egin dira, hizkuntza-eskubidearen zioan ardura duten arloetako teknikarien eta ordezkari politikoaren artean, eta ondokoa ondorioztatu da: a- Erdara hutsez erantzun da, Udalaren Egoitza Elektronikoaren bitartez euskaraz bideratutako eskaera elektronikoari emandako erantzun automatikoa: hartu-agiria, alegia. b- Galdakaoko Udalak sarrera erregistroa eta espedienteen kudeaketa Gestiona plataformaren bitartez egiten du; alabaina aldi-aldi egin diren doitzeak ez dira behar bezala egin. Erabaki da: -Sarrera erregistroa eta espedienteen kudeaketarako Udalak darabilen Gestiona plataforma behar bezala doitzea eta eguneratzea. Agiria sinatu den egunean Gestiona plataforma behar bezala doitu da, eta eskaera elektronikoaren hartu-agiriak herritarren aukeratutako hizkuntzan erantzuten dira.

Dosierra: 439-2023

Nori: SOPELAKO UDALA

Arrazoiak: Aurten ere Barinatxeko izozki saltokiko kartelak erdara hutsean daude.

Dosierra: 451-2023

Nori: KARRANTZA HARANEKO UDALA

Arrazoa: Karrantza harana: bertako leize zuloak bisitatzeko izan ginen larunbatean goizeko 11:30etan. Euskarazko bisita gidaturik ez dute eskaintzen bisitariak ez badute eskatzen asteburuetan. Asteazken zehar badago aukera euskaraz egiteko baina asteburuetan ez zegoela eskatzen ez bada esan ziguten.

Dosierra: 465-2023

Nori: SOPELAKO UDALA

Arrazoa: Gura nuke kapaz izatea "maiatzak 31ra" gaztelaniarazten, astakeriaren tamainaz jabearazteko. Horren parean den inongo zentzugabekeria baliokiderik ez luke eta inondik inora ere inork onartuko. Begirunea besterik ez dut eskatzen.

Dosierra: 471-2023

Nori: ERANDIOKO UDALA

Arrazoa: "ACCESO SOLO VECINOS". Consulado de Bilbao kalean. Aspalditik. Eta noiz arte?

Dosierra: 481-2023

Nori: ARRIGORRIAGAKO UDALA

Arrazoa: Egonkortze-prozesua dela eta, Arrigorriagako Udalera deitu nuen informazio eske eta emakume batekin jarri ninduten: gaztelaniaz hasi zitzaidanez, ea euskaraz egiterik ez zuen iradokita, "ez, mesedez" erantzun zidan. Udalaren pertsonal sailean jendea artatzeko euskara maila nahikoa duen inor ez dute?

Dosierra: 483-2023

Nori: DURANGOKO UDALA

Arrazoa: Juan Itziaroko auzunean maiatzetik daude ez aparkatzeko bide-seinaleak, testua birritan erdara hutsean. Begirunerik ez euskaldun herritarroi. "A partir del miércoles 31/05/2023 desde las 8:00 no se podrá estacionar". Bost ardua dizue, ezta? Euskaldun herritarrok izorra gaitezela, ohi bezala. Kito.

Erantzunak: Obra ikuskaria: urraketa larri honen ikuskapena egin ondoren, kartela kendu dutela egiaztatu dugu.

Herritarren erantzuna: 483-2023 dosierrari dagokionez, erdara hutsean luzaroan egon diren kartelak kenduz eta euskarazkoak ez ipiniz erantzun dute Durangoko Udaletik, honela, hain zuzen obra ikuskariak: "hizkuntz eskubideen urraketa larri honen ikuskapena egin ondoren, kartela kendu dutela egiaztatu dugu". Neuretako ez da hain larria, bada. Larri-larritzat dut, ostera, honela jokatzeko sistematikoki, erdara huts-hutsean, euskaldun herritarrok guztiz baztertuz. Eta bidezkotzat ez dut euskaraz ez ipintzea. Ze soluziobide mota da hau? Berriro gertatuko dena, eta behin eta berriro, inongo zalantzarik ez dut; zoritxarrez. Eta herritarrok salatu ezean, "urraketa larria" dela irizten dion udalak aldi bakoitzean ezertxo ere egingo ez duena badakit; zoritxarrez. Berba hutsal, ziniko eta ia burlazkoekin erantzun dute eta euskaraz, hainbat herritarren hizkuntzak, ikusezina eta ez-duin segituko du hizkuntza-paisaia; zoritxarrez. Orduan, behintzat, adarrik ez jo. Legedia bete ezazue herri administrazioetik, eta kito.

Dosierra: 520-2023

Nori: PORTUGALETEKO UDALA

Arrazoa: Portugaleteko kontsumitzaile bulegora (OMIC-KIUB) deitu dut, eta euskaraz berba diet eurekin kontsulta bat egin nahi nuela esanez. Bestaldean zegoenak ez dit erantzun, eta deia moztu egin du. Handik gutxira berriro deitu, eta komunikatzen zegoen. Egoera honen aurrean, bertaratzea erabaki dut, eta euskaraz saiatu naiz berba egiten, baina, ez zuela ulertzen esanez, nik gaztelarara pasatu behar izan naiz (bera ordezkioa zela, eta titularrak badakiela euskaraz, baina berak ez). Deia inguruko pasadizoa kontatu diot, eta ia bera izan den telefonoz bestaldean zegoena, eta baietz, baina ez zela ezer ere entzuten erantzun dit. Bukatzerakoan, barkamena eskatu dit euskaraz ez jakiteagatik, eta nik erantzun diot oso nekagarria dela euskaraz bizitzen saiatzea, eta nik ez diodala inori esaten euskaraz berba egin behar didanik, baina ni hamaika aldiz ari dira behartzen gaztelaraz egitera. Pasadizoa alde batera utzita, beste behin ere, Portugaleteko udaletxera bertaratzen naizela eta, ezinezkoa izan da euskaraz berba egitea. Horixe neure kexa.

Erantzunak: Ekonomia sustapena, enplegua, merkataritza, kontsumoa eta turismo zuzendaria: Esandako egunean pertsona bat bertaratu zen gure bulegora, 13:30ean eta ordutegitik kanpo, aurretiko hitzordua eskatu gabe eta gure aholkua, beti bezala, hitzordua eskatzeko izan zen, era horretan bezero bakoitzari dagokion

arreta eskaini ahal izateko. Arreta euskaraz izatea nahi zuen eta une horretan bertan zegoen langileak ez zuenez euskara menperatzen, gaztelaniaz egin zion berba eta beste egun baterako hitzordua hartzeko eskaini zion, era horretan arreta euskaraz emango zitzaiola bermatuz. Hala ere, bezorak uko egin zion eskaintzari eta kontsulta gaztelaniaz bideratu zuen bertako langileak. Langile hori euskalduna ez izatearen arrazoia zera da, ohiko langilearen oporraldia betetzeko pertsona euskaldunik aurkitu ez izana eta horren aurrean lehentasuna eman diogu KIUB zerbitzuari, hau da, kontsumobide programa menperatzeari eta zuzenbidean lizentziatua izateari. Jasotako kexa sentitzen dugu, eta esan behar dugu ohiz kanpoko egoera baten aurrean gaudela, izan ere, ohiko langilea euskalduna da.

Dosierra: 524-2023

Nori: DERIOKO UDALA

Arrazoia: Derion jarri dituzte auto elektrikoak kargatzeko hainbat puntu. Horietan guztietan seinalea jarri dute eta seinaleak espainolez baino ez daude.

Erantzunak:

alkatea: Adierazi behar da Derion elektrizitatea kargatzeko guneak instalatzeko obra oraindik amaitu gabe dagoela, jasotze-aktaren zain. Jakinarazi behar dizugu kontuan hartu dela eta horrela eskatu zaiela, seinaleak euskaraz eta gaztelaniaz jartzea zerbitzua martxan jarri aurretik.

Dosierra: 528-2023

Nori: BALMASEDAKO UDALA

Arrazoia: Berrero ere Balmasedako Udalak sentsibilitate gutxi adierazten du euskerarekiko, bere sare sozialetan artikulatuak, eta kartelak erdera hutsean kaleratzean.

<https://www.facebook.com/photo.php?fbid=657975839692891&set=a.289216079902204&type=3> <https://balmaseando.eus/reconocimiento-a-manuel-puente-manolin/?lang=eu>

Dosierra: 553-2023

Nori: ERANDIOKO UDALA

Arrazoia: Erandioko Udala itzultzaile automatikoa erabiltzen ari da euskaldunondako testuak sortzeko, batere egiaztatu barik testuen kalitatea. Hala,

adibidez, "a la residencia de Astrabudua" eskatu dute "Astrabuduaren egoitzara", "Astrabuduko [...]" beharrean. Astrabudua toki barik, pertsonaren bat-edo balitz bezala. Facebookeko pantailaldia duzue atxikita.

Dosierra: 629-2023

Nori: GETXOKO UDALA

Arrazoia: Getxoko Udalak 2023-2024 ikasturterako ikastaroak kaleratu ditu, eta gehien-gehienak gazteleraz dira, bai Kultur Etxean bai Emakumeen Jabekuntza Eskolan. Kultur Etxean: 13 gaztelaniaz eta 2 euskaraz. Jabekuntza Eskolan: 12 gaztelaniaz eta 2 euskaraz.

Erantzunak:

Kalitatea/Gobernu Ireki eta Modernizazio Arloa: honen bitartez jakinarazi nahi dizuegu Kultur Etxeko tailerren zerbitzua lizitazio bidez eskaintzen dela. 2021. urtean, pleguetan euskarazko gai anitzeko 12 tailer sorta eskaini ziren, eta ez zen proposamenik jaso; ondorioz, kontratazioa zuzenean egin behar izan zen kontratu txikiaren bidez. Tailer batzuetan, gainera, 2021ean eta 2022an ez zen gutxieneko ikasle kopurua egon. Aurten, Kultur Etxeko euskarazko tailerretarako berezko lizitazioa jarri du abian, hiru sorta eskaini dira, guztira 9 tailer emateko eskainita. Sorta baterako proposamen bakarra jaso da, eta gainerako bietarako ez da proposamenik jaso. Kultur Etxeak beste lote bat kontratatu du kontratu txiki baten bidez; ondorioz, 2023an bi tailer emango dira euskaraz. Kultur Etxeak pleguetan egiten duen eskaintza, beraz, jasotako proposamenak baino handiagoa da eta orain arte euskarazko tailerren zerbitzua onarpen eskasa izan dute lizitatuzaileen artean. Bestalde, prezioak behar bezala eguneratzen dira, eta, lizitazioa ireki aurretik, Kultur Etxeak horren berri ematen du balizko interesdunen artean. Eskaintza hori proposamenik gabe itxi denean, halaber, tailerrak eskaintzeko interesdunekin ere harremanetan jartzen da, baina orain arte ez da erantzun handirik izan. Horiek horrela, gaur egun ez da proposamen haina jasotzen euskarazko tailerrak emateko, gaztelaniaz beste.

Dosierra: 630-2023

Nori: PLENTZIAKO UDALA

Arrazoia: Herriko jaietako hainbat ekitaldi eta sari banaketatan (urrezko alpargata, marmitako lehiaketa...) euskararen presentzia (aurkezleen jardunari dagokionez)

eskasa edo testimoniala izan da, baita haur eta gazteei zuzendutako ekintzen kasuan ere (haurren playback lehiaketa, alpargata txiki...). Ea hurrengo urterako kontuan hartu daitekeen.

Erantzunak:

Alkatea eta Euskara Zinegotzia: jasotako kexa aintzat hartzen dut eta ardura osoa ere. Gertakariak ezagutzen genituen, jakin badakigu, jaietako hainbat ekitaldietan herritarren hizkuntza-eskubideak ez direla bermatu eta hurrengo urtera begira jai batzordearekin gaia landuko dugu.

Dosierra: 633-2023

Nori: BASAURIKO UDALA

Arrazoiak: Basauriko Udalak euskaraz txarto idatzitako kartelak ("gogaratu") jarri ditu kaleetan, erdarazko testua zuzen dagoen bitartean; ez da lehen aldia eta badirudi euskarazko testuak ez direla berrikusten.

Dosierra: 640-2023

Nori: ORTUPELLAKO UDALA

Arrazoiak: Ortuellako Udalak abuztuaren 21ean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argiraturako iragarkia ez dago zuzen idatzita eta ez da ondo ulertzen; nahitaez jo behar dugu erdarazko iragarkira bertan adierazten dena ulertzeko. Aurrekoaz gain, taulako kontzeptuak gaztelaniaz baino ez daude.

Dosierra: 643-2023

Nori: BASAURIKO UDALA

Arrazoiak: Basauriko Udalak herritarroi ematen dizkigun hondakin organikoetarako poltsak aldatu ditu, eta oraingoetan informazioa gaztelaniaz eta ingelesez baino ez da agertzen (lehengoetan euskaraz ere agertzen zen).

Erantzunak:

Ingurumen teknikaria: poltsa konpostagarriak erosteko kontratuaren baldintzen artean, serigrafia euskeraz eta erderaz egotea dago. Ingurumen atalean onartutako irudia eransten dizuet. Beraz, testua ingelesez agertzea akats bat da, eta horiek ez dira normalean banatzen ditugun poltsak. Basaurin poltsa konpostagarriak hainbat puntuetatik banatzen dira. Zehatz-mehatz, 6 kultur-etxeetatik. Ekipamendu horien arduradun guztiekin hitz egin dugu eta dauzkaten poltsa-kutxa guztiak errebisatu

dituzte. Ia guztiak dira egokiak (hau da, erderaz eta euskerazko testua dute), jadanik erretiratu ditugun bi kutxa izan ezik. Oraindik aurrera poltsen irudia errebisatuko dugu, beste akats egonez gero detektatu ahal izateko, baina orokorrean banatzen ditugun poltsak erderaz eta euskeraz daude. Eskerrik asko honi buruz ohartzeagatik.

Dosierra: 679-2023

Nori: BASAURIKO UDALA

Arrazoiak: Artunduagako kiroldegian azkenaldian zenbaitetan gertatu zait harrerara joatea zerbait galdetzera eta bertan egondako langileak ez jakitea euskaraz eta erdaraz egiteko eskatu izana; ez zait behin ere eskaini euskaraz dakien beste norbaitek artatzea. Basauriko Kirolaren Udal Erakundeak (Udalaren erakunde autonomoa) jarraitzen du euskarazko arreta bermatu gabe.

Dosierra: 682-2023

Nori: ZIERBENAKO UDALA

Arrazoiak: Atzo irailaren 12an Zierbenako Area hondartzan izan nintzen, sorosleen bozgorailutik hiru aldiz entzun nituen mezuak, guztietan gaztelania hutsean, euskararen arrastorik ez.

Erantzunak:

Ingurumena Lehengoratzeko Atala: irailaren 14an bidalitako kexari erantzunez (682-2023 dossier zenbakia), jakinarazten da, Bizkaiko Foru Aldundiak Gurutze Gorriari esleitutako salbamendu- eta sorospen-kontratuan ezarritakoaren arabera, megafonia-mezu guztiek euskaraz eta gaztelaniaz izan behar dutela. Ildo horretan, enpresari ohartarazi zaio hori ez betetzeak zigorrak ekar ditzakeela, eta berriro ez gertatzeko behar diren kontrol-baliabide guztiak jartzeko eskatu zaio. Halaber, kexan zehaztutako egunean gertatutakoari buruzko ikerketa-txostena egiteko eskatu zaio Gurutze Gorriari. Bestalde, Aldundiak areagotu egin ditu Zierbenako Arena hondartzan salbamendu- eta sorospen-kontratua kontrolatzeko egiten dituen ikuskapenak, zehazki, Gurutze Gorriaren kontratuan ezarritako hizkuntza-klausulak betetzeari buruzko kontrola.

Dosierra: 686-2023

Nori: BASAURIKO UDALA

Arrazoa: Basauriko Udalaren garabi-zerbitzuaren ibilgailuan, argi birakariak dauden lekuan, aurretik zein atzetik, gaztelaniaz baino ez dago idatzita: “GRUA”.

Dosierra: 691-2023

Nori: GALDAKAOKO UDALA

Arrazoa: Galdakaoko Udalak auzoak lotzeko autobusak ipini ditu. Atzo Elexaldera joateko bat hartu nuen eta gidariari informazioa eskatu nion (ordutegia, bidaiaren iraupena...) Gidariak nik euskaraz egindako galdera guztiei erdaraz erantzun zien. Beraz, eta udal zerbitzua denez, euskaraz ere artatua izatea eskatzen dut.

Dosierra: 704-2023

Nori: BASAURIKO UDALA

Arrazoa: Soloarte parkean hasi dituzten obregatik jarritako trafikorako kartelak gaztelaniaz baino ez daude.

Dosierra: 729-2023

Nori: GALDAKAOKO UDALA

Arrazoa: Galdakaoko kiroldegian emango diren ikastaroak zein hizkuntzatan emango diren galdetu dudanean, denak gaztelaniaz eskaintzen direla esan didate. Baina nik taldean proposatzen badut euskaraz egitea, taldeak onartzen badu eta monitoreak euskara baldin badaki, euskaraz egin ahal izango dut. Nik uste dut ikastaroak euskaraz jasotzeko eskubidea ez dela taldearen edo monitore baten borondatean utzi behar. Beraz, nire hizkuntza eskubideak kiroldegian ematen diren ikastaroetan ere bermatuta egotea eskatzen dut.

Erantzunak:

Galdakaoko alkatea: asteotan lan-batzarrak egin dira, hizkuntza-eskubidearen zioan ardura duten arloetako teknikarien eta ordezkari politikoen artean, eta ondokoa ondorioztatu da: a- 02-14 urte bitarteko herritarrei eskainitako ikastaroak euskaraz dira. b- 14 urtez gorako herritarrei eskainitako ikastaroak begiralearen eta herritarraren hizkuntza-gaitasunen arabera direla. Adostu da: 1- Kirol-jarduera kudeatzen duen enpresak ikastaroak euskaraz jasotzeko eskubidea bermatzeko konpromisoa hartzea. 2- Ikastaroen eskaintza egiterakoan begiralearen hizkuntza-

gaitasuna adieraztea. 3- Begiraleak hizkuntza-gaitasuna adieraziko duen identifikagarria soinean eramatea. 4- Ikastaroetako ahozko nahiz idatzizko komunikazioa ele bietan egitea, ondorengo hurrenkeran: EU/ES

Dosierra: 730-2023

Nori: DURANGOKO UDALA

Arrazoa: Durango Sarietako irabazleak herritarrok hautatzeko webgunearen euskarazko webgunera jota, cookien oharrak zergatik azaltzen dira erdaraz? Eta udaletxearen helbidea nolatan ez da ageri ganoraz udalaren beraren webgunean?

Dosierra: 745-2023

Nori: BARAKALDOKO UDALA

Arrazoa: Barakaldoko Clara Campoamor zentrora deitu nuen urriaren 3an. Nik euskaraz egin eta telefonoa hartu zuenak gaztelaniaz egiteko eskatu zidan. Bera ez zela euskalduna eta Erretuertoko zentrora bideratu ninduen.

Erantzunak:

Kultura, Hezkuntza, Euskara Eta Gazteria Arloko Zinegotzi Ordezkaria: Jasotako kexari dagokionez, lehenik eta behin, barkamena eskatu nahi dugu herritarraren deiari erantzun zion langilearen hasierako jokaeragatik. Izan ere, herritar horrek arreta euskaraz jaso nahi zuela adierazi zuenean, langileak, oker, herritarrari jakinarazi zion ez zekiela euskaraz, eta, nahi izanez gero, gaztelaniaz artatu zezakeela. Hala ere, herritarrak euskarazko zerbitzua jasotzeko eskubidea aldarrikatu zuenez, langileak, herritarrari aukeratutako hizkuntza aldatzeko eskatzean egindako akatsak jabetuta, herritarren arretarako protokoloa aplikatu eta deia beste langile bti pasatu zion, eta langile horrek euskaraz artatu zuen herritarra, izapidea euskaraz egin ahal izan zuelarik. Hala ere, aitortzen dugu oraingo honetan, deiaren hasieran, ez zela zerbitzu egokia eman. Deiari hasiera batean erantzun zion langileari gogorarazi zaio administratuen hizkuntza-hautua errespetatu behar dela beti, eta era berean, neurriak hartuko dira etorkizunean antzeko egoerarik errepika ez dadin. Hala ere, azpimarratu behar da langilea bere hasierako akatsaz konturatu zela, eta egoera bideratzen jakin zuela, herritarrari arreta osoa euskaraz emango zitzaiola bermatuta.

Dosierra: 782-2023

Nori: BARAKALDOKO UDALA

Arrazoa: Barakaldoko Clara Campoamor HAZ-SACen kartel berri guztiak gaztelaniaz baino ez daude.

Dosierra: 790-2023

Nori: GETXOKO UDALA

Arrazoa: Nire alaba ostiralero Algortako Andres Isasi musika eskola publikora doa. Bertan irakasleak saioak euskeraz eta gaztelera izango zirela esan zigun. Hau berez ia ez zait ondo iruditzen, gaur egun 5 urteko umeek familian ez bada ere eskolan euskera jasotzen dute eta eskola publiko batek euskeraz izan beharko lukeela uste dut. Hala ere "denek ulertu dezaten" hori onartu genuen. Baina kurtsoa aurrera joan den heinean nire alabak eta bere ikaskideek saioak batez ere gaztelera direla esaten digute, eta holan dela jakinda, kexa hau ipintzea erabaki dut ea euskera hutsean egiteko aukera dagoen jakiteko.

Erantzunak:

Getxoko Udala: Andrés Isasi Musika Eskolan Musika eta Mugimenduko klaseak (4-6urte) BIZI proiektuaren barnean daude txertaturik. Proiektu honen bidez Getxoko udalerrian ume eta gazteei zuzenduriko eskolaz kanpoko hainbat jardueratan euskara eta gaztelera arteko bizikidetzaren bultzatzen da, betiere euskararen aldeko apustua eginez baina euskaraz ondo moldatzen ez diren umeei behar duten gaztelera azalpenak emanez. Getxoko udalerrian dauden eskola gehienak D eta B eredukoak dira baina badaude inguruko herrietan hainbat eskola pribatu euskaraz presentziarik ez duenik. Eskola hauetara doazen hainbat ume getxoztarrak dira eta hauetariko batzuk Musika Eskolan daude matrikulaturik. Tarteka, gelan dauden ikasleen hizkuntza ezagutzaren arabera, ez da erraza suertatzen hizkuntza bien arteko elkarbizitza. Ahaleginak egiten ditugu euskarari lehentasuna ematen baina euskara ezagutzarik ez daukaten umeak atzean gera ez daitezkan beharra ikusten den momentuetan gaztelera ere erabiltzen dugu. Jakin ezazu, kexa jarri duen herritarrek zein Musika Eskolako beste edozein erabiltzailek zabalik dituela gure atekak kezkatzen dituen gaiak buruz hitz egiteko.

Dosierra: 798-2023

Nori: BARAKALDOKO UDALA

Arrazoa: Herriko Plazako aparkalekuko makina ezin da euskaraz erabili. "Idioma" sakatzean ez da ezer gertatzen. Hortaz, gaztelaniaz erabili behar derrigor. Oso aspalditik dago horrela. Argazkian bertan ikusi daitezke oharrak eta kartelak erdara hutsean. Aparkaleku osoan erdara hutsezko idatziak, errotiluak eta abarrak hamaika dira. Euskaldun herritarrok Euskal Herrian erabat arrotz. Noizko ikuskatu du bene-benetan udalak aparkalekua eta zuzentzera behartu?

Dosierra: 803-2023

Nori: ERANDIOKO UDALA

Arrazoa: Erandioko Udalak bisita gidatuak antolatu ditu Andra Mari eliza bisitatzeko eta Astrabuduko harri bolkanikoak ezagutzeko. Bietarako gutxienez bi txanda antolatu dituzte, eta txanda guztiak gaztelera. Bi bisitetan izan naiz, eta bietan gidak euskaldunak ziren, ederto moldatzen ziren euskaraz. Apuntatu ginen hainbat, era berean, euskaldunak ginen, baina ez dugu bisita euskaraz egiteko aukerarik izan, txanda guztiak soilik gaztelera izan direlako.

Erantzunak:

Enplegu eta Ekonomia Sustapeneko teknikaria: Andra Mari elizara eta ibilbide geologikora bisita gidatuetan aurreikusten zela bisitak elebidunak izatea; baina beti parte-hartzaileen hizkuntza-ezagupenak kontuan izanik. Normalean aukera ematen da edozein hizkuntza erabiltzeko, baina badirudi aukera ematea suposatzen duela norbait euskaraz ez dakienean, bakarrik gaztelera erabiltzen dela bisita irauten duen bitartean. Orain arte kezarik egon ez denez, pentsatu izan da bisitak benetan elebidunak zirela; baina arazoa ikusirik, baloratzen ari da datorren urtetik aurrera bisita elebidunak izan beharrean, bisitak bi hizkuntzen arabera antolatzea.

Dosierra: 815-2023

Nori: GALDACAOKO UDALA

Arrazoa: Asteon Usansolon ikusi dut Galdakaoko Udalaren eta Guedan kirol-zerbitzu enpresaren logoak dituen ibilgailu bat. Errotuloetan "mantenu" berba ageri da. Ba ote dakite zer den "mantenua"?

Erantzunak: Galdakaoko alkatea: asteotan lan-batzarrak egin dira, hizkuntza-eskubidearen zioan ardura duten arloetako teknikarien eta ordezkari politikoen artean, eta ondokoa ondorioztatu da: a- Udaleko kirol-jarduera kudeatzen duen adjudikaziodunaren enpresaren furgonetan "mantenu" berba ageri da, gaztelaniazko mantenimiento-ren ordain gisa. Adostu da: 1- Kirol-jarduera kudeatzen duen adjudikaziodunak enpresaren furgonetako errotulua aldatzea, albait arinen.

Dosierra: 830-2023

Nori: DURANGOKO UDALA

Arrazoia: kotxean lapurretan sartu direla eta Durangoko Udaltzaingora deitu dut gaur, azaroaren 2a, 18:13an. Telefonoa hartu duenak gazteleraz erantzun eta ez duela esandakoa ulertu adierazi dit. Ea euskaraz arreta eman ahal didan galdetu diot eta baietz erantzun dit. Gazteleraz jarraitu du eta esaten nizkionak ez zituela ondo ulertzen ikusi dut. Oso lanpetuta zeudela ("estamos liaus, estamos con un detenido") eta ezer ukitu gabe zain egon beharko nuela erantzun dit gazteleraz, bestela Ertzaintzara jotzeko.

Dosierra: 840-2023

Nori: BARAKALDOKO UDALA

Arrazoia: Haur parke bat konpontzeko eskaera bat bidali dut Barakaldoko Herritarrentzako Arreta Zerbitzura (HAZ) eta haien "erantzun automatikoa" gaztelania hutsean izan da, erantzun hauek gutxienez elebidun izatea eskatzen dut. Geroago, erantzun sakonago bat jaso dut euskaraz, eskerrik asko.

Dosierra: 858-2023

Nori: TRAPAGARANGO UDALA

Arrazoia: Galdera euskeraz egin arren, erantzuna gazteleraz bidali dit Trapagarango Udalak.

Dosierra: 869-2023

Nori: BERMEOKO UDALA

Arrazoia: Bermeoko Udalaren egoitza elektronikoan BakQ bidez identifikatzeko prozesua batuan ---español batuan--- baino ezin da egin. Gainera, gaur,

identifikatutakoan, pantailaldi hau agertu da: AVISO DEL SISTEMA / Ha ocurrido un problema en nuestro servidor / Inténtelo de nuevo más tarde

Dosierra: 881-2023

Nori: BASAURIKO UDALA

Arrazoia: Basauriko Udalak gizarte langile plazei 2. HE (B2) ezarri die eta horrek euskarazko arreta ez bermatzea eragiten du, izan ere, gai teknikoei buruz hitz egin behar dute. Teknikariei gutxienez 3. HE (C1) eskatzen zaie, hori baita modu bakarra herritar euskaldunei gizarte zerbitzuetan euskarazko arreta bermatzeko; ezin dugu ahaztu gizarte langileekin gai konplexuak bideratu behar izaten direla eta halakoetan funtsezkoa da azaltzen zaien guztia ondo ulertzea, inolako zailtasunik edo gaizki-ulerturik gabe (eta hizkuntza aldatzeko beharrik gabe). Gaur egun, tamalez, Basauriko gizarte zerbitzuetan ez da euskarazko arreta bermatzen eta, eskakizun apalak eskatzen jarraitzen badu Udalak, arazoa betikotuko da.

Dosierra: 926-2023

Nori: BARAKALDOKO UDALA

Arrazoia: Barakaldoko Herriko Plazako aparkalekuarenak berdin segitzen du (Herriko Plazako aparkalekuko makina ezin da euskaraz erabili. "Idioma" sakatzean ez da ezer gertatzen. Hortaz, gaztelaniaz erabili behar derrigor. Oso aspalditik dago horrela). Gainera, orain, makinako pantailan Black Friday delakoaren inguruko sustapen bat ageri da, erdara batuan eta erdara batuan baizik ez, zelan ez.

Dosierra: 941-2023

Nori: IURRETAKO UDALA

Arrazoia: Iurretako Zubiaurre kalea modu honetan dago itxita: "Calle cortada por obras". Halako kontu konponerrazetan ere 2024. urtearen atarian egonik ere, euskaldun herritarrok zapalduta eta aurrerakuntzarik ez. Noiz arte? Erantsita duzue argazkia.

Dosierra: 942-2023

Nori: ERANDIOKO UDALA

Arrazoa: Antonio Trueba kalean (Erandio) "ATENCIÓN / SALIDA DE CAMIONES" dioten bide-seinale bi daude aspalditik. Erdara hutsean daude.

Erantzunak:

Euskara eta kirol arloko zinegotzia: Euskara zerbitzuko teknikariak harremanetan jarri dira udaleko lurralde arloko arduradunekin Antonio Trueba kalearen atzean obra egiten ari den enpresari horren berri jakinarazteko. Hori horrela, enpresak dagokion zuzenketa laster egingo duelakoan, herritarraren laguntza eskertzen dugu.

Dosierra: 948-2023

Nori: DURANGOKO UDALA

Arrazoa: Landako tabernaren parean "CALLE CORTADA POR OBRAS" dioen bide-seinalea dago, erdara hutsean, eta aspaldi-aspalditik. Ez ote du ikusi inongo teknikarik? Ez du ikusi inongo arduradunek? Ez ote du ikusi inongo zinegotzi "abertzalek", izan EAJko edo izan EH Bilduko ---alkatetza EH Bilduren eskuetan zegoela bazegoen ordurako bide-seinalea---? Edo, gehiagoko barik, bazterkeriaren aurka behar lukeen ezein demokratik ez ote du ikusi?

Dosierra: 957-2023

Nori: DURANGOKO UDALA

Arrazoa: "Calle cortada / kale itxi". Txibitenean, Iturriaga bizikleta-dendaren parean.

Dosierra: 973-2023

Nori: BARAKALDOKO UDALA

Arrazoa: Barakaldoko Lasesare kiroldegira joan nintzen jakiteko zer egin behar nuen bazkidea izateari uzteko. Euskaraz egiten saiatu nintzen, baina ezinezkoa izan zen, arreta eman zidan pertsonak ez zekielako euskara. Gaztelaniaz eman zidan informazio guztia.

Erantzunak:

Kultura, Gazteria eta Kirol arduraduna: Barakaldo Kirolakeko langileei jakinarazi eta gogoraraziko zaie, arreta euskaraz emateko gai izan ezean, euskaraz dakien

lankideren bat bilatu behar dutela momentuan, herritarren hizkuntza hautua une oro errespetatze eta bermatze aldera. Bestalde, aitortu beharra dago Barakaldo Kirolakek bide luzea egin behar duela oraindik ere erabateko elebitasuna bermatu ahal izateko, eta, zoritxarrez, bide horren emaitzak ez dira egun batetik bestera ikusiko. Nolanahi ere, horixe izango da, hain zuzen ere, erakundearen erronka nagusietako bat, eta, ildo horretatik, ahalegina egiten jarraituko da herritarrek aitortuta dituzten hizkuntza eskubideak bermatzeko. Eta, jakina, bide luze horretan eskertzekoa izango da beti herritarren laguntza.

Dosierra: 979-2023

Nori: ERANDIOKO UDALA

Arrazoa: Lotsagarria da Erandioko Udalaren sare sozialetako euskarazko testuak itzultzaile automatikoen bitartez sorraraziak izatea. Zer dira "notiak"? Jatorrizko testua "noticias" delako, "noticias" beharrean, euskarazko testuan ez da ageri "berriak" edo "albisteak", "notiak" baino. Eta lotsagorritu barik!

Dosierra: 982-2023

Nori: ERANDIOKO UDALA

Arrazoa: San Silbestre lasterketa dela-eta Erandioko Udalak Facebooken argitaratu duena ulertzeko, gaztelaniazko testua irakurri behar da derrigorrean; euskarazko testua itzulpen ganorabakoa eta begirunerik gabekoa delako.

BILBOKO UDALA (25)

Dosierra: 31-2023

Nori: BILBOKO UDALA - BILBAO KIROLAK

Arrazoia: Bilboko kiroldegi batean erreserba bat egin guran, jo dut Bilbao Kirolak delakoaren webgunera eta identifikatze prozesuari ekin diot. Bada, erdara hutsean azaltzen da laukitxo bat: "NO DESEA PUBLICIDAD POR E-MAIL". Beherago ageri da aukera ordezkari moduan egiteko eskabidea, baina erdarazko bertsiora jo behar izan dut zerbait ganorazkoa ulertu ahal izateko. Euskarazko bertsioan diote: "Ordezkaritza zintzoa identifikazio agiria". Gaztelaniaz: "Documento identificativo del representante legal". Ez dut segitu aurrera. Ezin.

Erantzunak:

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua. EUSKARAKO ZUZENDARIORETA: Sentitzen dugu webguneko elementu batzuk euskaratzean egindako akatsak, herritarren hizkuntza-eskubideak urra ditzaketanak. Bilbao Kirolak elkarteak gaizki itzulitako elementu batzuk aldatu ditu dagoeneko, eta informatika-euskarriko enpresari adierazi dio zailtasun handiena duten beste elementu batzuk berehala itzultzeko. Bilbao Kirolak elkartetik eskerrak ematen ditugu aurkeztutako kexagatik, Bilboko Udaleko hizkuntza ofizialen erabilera-irizpideak betetzen laguntzen digulako, eta espero dugu horrelako akatsik berriro ez gertatzea.

Dosierra: 143-2023

Nori: BILBOKO UDALA - BILBAO KIROLAK

Arrazoia: La Casilla kiroldegiko gimnasioan 4-5 edo 6 urteko umeentzako dantza ikastaroak gaztelaniaz baino ez dira eskaintzen. Ez dago euskarazko eskaintzarik. Bestalde, dauden 3 telebistetatik ia inoiz ez da euskarazko katerik sintonizatzen. Momentuan dagoen begiralearen arabera jokatzeko dute. Hiruetatik bat gutxienez euskaraz jartzea eskatzen dut. Gauza bera gertatzen da irratiarekin, ez da ia inoiz euskarazko irrati katerik entzuten. Norberak bere kaskoak ematea baldin badauka ere, guztiontzako jartzen duten musikaren zati handi bat euskaraz izan beharko luke.

Erantzunak: Herritarrentzako Arreta Zerbitzua: Bilbao Kirolak-ek urtero ikastaro eta jarduera ugari antolatzen ditu, herritarren eskariari erantzuteko. Adingabeei

zuzendutako ikastaroen kasuan, gehienak euskaraz eskaintzen dira. Bilbao Kirolak erakundeak 11 kiroldegi kudeatzen ditu, herritarrei jardura eskaintzeko eta abonatuak instalazio guztietara sartzeko. Dantza Modernoko ikastaroaren kasuan, ez da euskaraz eskaintzen La Casillan, baina Deustu, Miribilla eta Txurdinagako kiroldegietan eskaintzen dugu. Casillako Fitness gimnasioan dauden telebistei dagokienez, horietako bat euskara hutsean emititzen duen kanal batean sintonizatuta egongo dela bermatzen da.

Dosierra: 184-2023

Nori: BILBOKO UDALA - BILBAO KIROLAK

Arrazoia: La Casilla kiroldegiko gimnasia aretoan "Los 40 principales" ipintzen dute egunero irratiari. Irrati kate horretan ez dago aniztasunik euskarazko abestiren bat entzuteko, ezer ez, euskara erabat desagertu balitz bezain argi. Egotekotan "Euskadi Gaztea" bezalako batean gertatzen da, behintzat, 4 abestitik bat euskaraz. Gertaera honek dakar euskaldunen hizkuntza eskubideen urraketa larria, bigarren mailako herritarrak bagina bezala. Berez "Euskararen legea" - 10/1982 azaroaren 24koa- ez dute betetzen bere 5. artikuluan: "Aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea". Bestalde, 3 telebistetatik bat euskaraz (etb1) izan beharko zen, sarritan edozein sintonizatuta dagoelarik, bertaratuz eta ikusiz edozein ohartuko da.

Erantzunak:

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua: Kirol-zentroaren koordinazioarekin harremanetan jarri ondoren, egoera aztertuko da eta ikus-entzunezko euskarrietan euskaraz ikusteko aukera dagoela egiaztatuko da. Une honetan irratiaren atalaren kudeaketa konplexuagoa denez, irrati kateen programazioa kontrolatzeko ezintasunagatik, Bilbao Kirolak-eko erabiltzaileen hizkuntza eskubideak ez urratzeko aukerak aztertuko ditugu.

Dosierra: 236-2023

Nori: BILBOKO UDALA - OBRAK, ZERBITZUAK, HIRI-ERABERRITZEA ETA ESPAZIO PUBLIKOKO SAILA

Arrazoia: Txurdinaga-Santutxu Udaltzako kanpoko aldean jarritako afixan "Ayuntamiento de Bilbao" baino ez dago idatzirik.

Dosierra: 254-2023

Nori: BILBOKO UDALA - OBRAK, ZERBITZUAK, HIRI-ERABERRITZEA ETA ESPAZIO PUBLIKOKO SAILA

Arrazoa: Bilbon Abiadura Handiko Trena lurperatzearen ondorioz, Abandoko geltokiko eremua antolatzeke proiektu-lehiaketa egin du Bilboko Udalak. Lehiaketari lotutako dokumentazioa gaztelaniaz baino ez didate bidali eta web orriko euskarazko bertsioan ere gaztelaniaz dago justifikazio-memoria, erantzukizunpeko adierazpenaren eredu...

Dosierra: 270-2023

Nori: BILBOKO UDALA - Alkatetza JUAN M^a ABURTO RIQUE JN.

Arrazoa: Atzoko Correion orrialde osoko iragarkia argitaratu du Bilboko udalak, koloreetan. "Bilbao" behin eta berriro. Eta euskarazko esaldietan ere Bilbao. Halakoak ikusita, Bilboko udalari edo "Bilbaoko Udalari" gogorarazi gura diot Franco aspaldi hil zela eta euskaldun herritarrok begirunea merezi dugula.

Dosierra: 306-2023

Nori: BILBOKO UDALA - BILBAO INTERMODAL -

Arrazoa: Apirilaren 14an, goizeko 08:30ak aldera, Bilboko autobus geltokiko informazio gunera joan nintzen informazio bat eskuratzerara. Bertan ezin izan nuen euskaraz aritu euskaldunik ez zegoelako.

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Lehenik eta behin, sentitzen dugu Bilbao Intermodalaren erabiltzaileak aipatzen duen gertakaria eta egoera horrek eragin ahal izan dizkion eragozpenak. Gertakariak ikertu ondoren, adierazi nahi dizuegu egoera bakartu bat izan zela, 07:00etatik 10:00etara bitarteko ordutegian gertatu zela soilik, eta dagoeneko konpondu dela. Informazio-guneko langileak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez erantzuteko guztiz gaituta daudela berresten dugu. Gure barkamena helarazi nahi diogu kexa aurkeztu duen herritarri.

Dosierra: 365-2023

Nori: BILBOKO UDALA - KIROLAK SAILA

Arrazoa: Bilboko La Casilla kiroldegiko gimnasioan beti gaztelaniazko irratia (89.5 Mhz "los 40 principales") jartzen dutelako hainbatetan egin diot erreklamazioa Bilboko Kirolaki eta, horrekin batera, gutxienez 4 abestitik bat euskaraz jartzen duen "Euskadi gaztea" irratia jartzeko eskaera. Bada, gaur, "La Casillako" kiroldegiko gimnasioko begiraleak esan dit goitik - Bilbao Kirolak zuzendaritzatik- etorri zaiela 89.5 Mhz diala - Los 40 principales, hain zuzen ere- ez aldatzeko agindua, "Euskadi gaztea" ipintzeko aipatu diodanean, aldi berean ondoko kaierako boligrafozko baieztapen idazkia adierazi dit. Argi eta garbi euskaldunen hizkuntz eskubideen urraketa larria gertatzen da, euskararen legea bera urratuz. Bilboko Udalari eskatzen diot gaia bideratzeko esku hartzea. Gaia bideratzeko esku hartzeko eskatzen diot Bilboko Udalari.

Erantzunak:

Bilbao Kirolak: Zure kexan helarazitako gertakariak aztertu ondoren, sentitzen dugu begiraleak eman zizun erantzuna. Monitorea berria zen, lehen saioetako bat egiten ari zen La Casilla pabiloian, eta ez zekien irrati sintonizatua aldatzeko aukerarik zegoela, hori egiteko nagusi baten agindua behar zuelakoan. Hori ez da horrela, eta irratia alda daiteke une horretan aretoan dauden erabiltzaileen desio adostuaren arabera. Prozedura monitorea helarazi zai, berriro gerta ez dadin.

Dosierra: 368-2023

Nori: BILBOKO UDALA - BILBAO INTERMODAL -

Arrazoa: Honen bidez salatu nahi dut Bilboko Autobus Geltoki Nagusiko, Intermodaleko, Informazio Gunean ematen den zerbitzua ez dela euskeraz. Bertan dagoen pertsonak ez daki gure hizkuntza (berak esanda) eta, nahiz eta euskeraz hitz egin, berak gaztelaniaz egiten du. Ondorioz, euskeraz ari garenoi hizkuntza aldarazi egiten digu, edo, gutxienez, egoera deseroso eta ulertezina sortzen du. Hau da, Intermodaleko Informazio Guneak zerbitzu txarra ematen du. Gainera, hizkuntza araudia urratzen ari da. Oso larria da herritarrekin harreman zuzena duelako eta egunero milaka pertsona pasatzen direlako handik. Interesgarria litzateke jakitea Intermodaleko informazio guneko langileek beste hizkuntza batzuk jakitea baloratzen duten. Horrela izanez gero, hare larriagoa izango litzateke. Gaur egun euskeraz egiten duten pertsonak topatzea oso erraza da. Eta gazteen artean,

Intermodaleko informazio guneko teknikaria bezala, hain zuzen ere, benetan zaila dena da topatzea euskeraz ez dakien pertsona. Euskera gure hizkuntza den aldetik, beharra dugu baloratzeko, zaintzeko eta erabiltzeko. Geure hizkuntza, geure kultura, geure burua gutxiesteak ez dauka ez hanka ez buru. Arrazoia utzikeria baldin bada, Internodal kudeatzen duenaren erantzukizuna da. Bilbon fundamentuz eta behar bezala lan egiten duten pertsonak, lan taldeak eta politikariak behar ditugu. Lehenbailehen egoera konponduko duzuelakoan eta Intermodaleko Informazio Gunean benetako zerbitzua bermatuko duzuelakoan,

Dosierra: 393-2023

Nori: BILBOKO UDALA - MUGIKORTASUN ETA JASANGARRITASUN SAILA

Arrazoia: Bilbon TAO zerbitzua pagatzeko erabiltzen dugun aplikazio ofiziala ez dago guztiz euskaratua.

Erantzunak:

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua: aurten aplikazio berria kaleratzea espero dugu eta kontuan hartuko dugu zuk esandakoa. 4 hizkuntzatan egon beharko du: frantzesez, ingelesez, gaztelaniaz eta euskaraz.

Dosierra: 476-2023

Nori: BILBOKO UDALA - BILBAO KIROLAK

Arrazoia: Atzo eta, ziurrenik, aurreko egunetan ere, ikusgai dago alderdi bakarreko arbela Bilboko Fango deituriko kiroldegiko igerilekura sartzekoan. Testu guztia espainieraz idatzi dute hango sorosleek euskara bere isilean utziz. Eurek ere umeentzako igeriketa ikastaroak (barrukoan) euskaraz eskaintzen dituzte ekain amaierara arte! Kirol eraikina -tenis zelaiak, gimnasioa, futbol zelaiak eta barruko zein kanpoko igerilekuak (udan)- " Bilbao Kirolak" erakundeak dira.

Dosierra: 604-2023

Nori: BILBOKO UDALA - Alkatetza JUAN M^a ABURTO RIQUE JN.

Arrazoia: Bilboko Aste Nagusiaren Txikigune irekiera iragartzeko Bilboko alkatearen twitterreko mezua gaztelaniaz baino ez. Bilboko ume eta guraso euskaldunek ez dute merezi alkatearen mezurik euskaraz?

Dosierra: 615-2023

Nori: BILBOKO UDALA - JAIK SAILA

Arrazoia: Aurtengo Aste Nagusian Etxebarria parkeko barraketan eta postuetan berriro ere ez da bete informazioa euskaraz egoteko betebeharra (179/2019 Dekretuaren 35. art.). Bilboko Udalak ez du ezer egin euskaldunon eskubide hori bermatzeko, aipatu Dekretuan eta Udalak berak onartutako baldintzetan jasota egon arren.

Dosierra: 692-2023

Nori: BILBOKO UDALA - KULTURA SAILA

Arrazoia: FIG BILBAO topaketak hauek oihartzun handi dute eta Bilbao eta Bizkaiko erakundeek babesa jasotzen dute. Alta, webgunea gaztelaniaz hutsean agertzen da. <https://www.figbilbao.com/>

Erantzunak:

Kultura eta Gobernantza Saila: FIG BILBAO topaketen antolatzaileekin jarri gara kontaktuan. Esan digute hasi direla webgunea elebitan jartzeko lanekin. Webgunean sartzen bazarete konproba dezakezue nola euskaratu dituzten zati batzuk, %100-ra oraindik ez badira heldu ere. Esan digute lanean jarraitzen dutela.

Dosierra: 715-2023

Nori: BILBOKO UDALA - EUSKARA, HERRITARREN ARRETA ETA PARTAIDETZA -

Arrazoia: Euskararen aldekoa izan gura lukeen Bilboko Udalaren* iragarkia ezin benetan euskararen aldekoa izan, hiriaren euskarazko izena baztertzen baitute eta gaztelaniazkoa baino ez dutelako erabiltzen. Gaztelaniazkoa baizik ez dutelako ofizialdurik. Iraingarria da. Utzi euskara eta euskaldunok baztertzeari behingoa!!! 2023. urtean gara eta dirudenez inongo alderdi politikori ez dio ardura, berdin izanik ere euren [ustezko] ideologiak. *Ezin dut idatzi "Bilboko Udalaren" idatzi "Bilbo" ez delako ofizialak euren erruagatik, eta ez dut "Bilbaoko Udalaren" astakeria ere idatziko. Orduan, ezinbestean "udala" minuskuletan. Eta ez dezatela esan "Bilbao" "Bilboko" moduan 'deklinatuta' daitekeela... Gezurra da eta! "Bilboko" Bilbo-tik eratortzen da; ez "Bilbao"-tik!!! Tranpak egitea da hiri-erakundearen eta politikarien jokabidea!!!

Dosierra: 758-2023

Nori: BILBOKO UDALA - GARAPEN EKONOMIKO, MERKATARITZA, TURISMO ETA ENPLEGUA

Arrazoa: Bilboko Iralabarri auzoan ekimen publikoa iragartzeko kartela erdera hutsean ipintzeagaitik, larriena, Bilboko Udalaren laguntzarekin dela beraz deitzailea den erakundea (Asociacion comerciantes de Iralabarri) salaketa jaso beharko zuen Udalaren partetik, Udalaren izen ona zikintzeagaitik nire uzte apalean. (kartela eskegi dut hemen) Eskerrik asko.

Erantzunak:

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua: aipatutako kartelak Iralabarrielkartearen kanpaina baten barruan daude. Elkarre hori Irala auzoko Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzu Enpresen Elkarre da. Bilbao Ekintzak (Bilboko Udala) diruz lagundutako erakundea izanik, dinamizazio-jardueren deskribapena eta plangintza aurkezten digute urtero, diruz lagundutako gainerako merkatarien elkarre egiten duten moduan. Diruz lagundutako ekintzak gauzatzen eta abian jartzen direnean, Bilbao Ekintzak elkarre horiek hizkuntza ofizial biak erabiltzeko betebeharra bete dezaten zaintzen du. Funtsezko printzipio horri erantzunez, Iralabarri Elkarreari helarazi diogu zuek aurkeztutako kexa, beren jarduerak sustatzeko edo komunikatzeko erabilitako edozein elementu edo/eta baliabidetan hizkuntza ofizial biak erabiltzea derrigorrezkoa dela azpimarratuz. Horri dagokionez, garrantzitsua da azpimarratzea Iralabarri Elkarre duela gutxi sortu zela eta, beraz, ibilbide laburra daukala gure erakundean. Herritarrari gure barkamenik zintzoena helarazten dizkiogu. Bilbao Ekintzatik gure prozedurak indartuko ditugu elkarre egoki erantzun diezaioten herritarrek informazioa gaztelaniaz nahiz euskaraz jasotzeko duten eskubideari.

Dosierra: 760-2023

Nori: BILBOKO UDALA - AZKUNA ZENTROA -GIZARTEA ETA KULTURA GARAIKIDEA-

Arrazoa: Bilboko Alhondigako liburutegira joan naiz eta euskaraz zuzendu natzaio harreran zegoen 25 bat urteko gazteari. Berak erantzuna gaztelaniaz eman dit: "este libro no está aquí". "Dime otra vez el título del libro". Liburuaren izenburua esan diodanean, umeentzako liburutegian zegoela esan eta "pues ya te

acompañó". Bilbo erdian hain erreferentziako liburutegia, jende gaztea eta Burgosen banengo bezala sentitu naiz.

Dosierra: 833-2023

Nori: BILBOKO UDALA - KIROLAK SAILA

Arrazoa: Basque Crossfit txapelketan aurkezleak gaztelania eta ingelesez soilik egiten zuen, euskaraz "txapelketa" hitza izan ezik, ez zuen hitz bakar bat erabili. Babesleen artean daude Bizkaiko Aldundia, Bilboko Udala eta Eusko Jaurlaritza. Nazioarteko ekimena izan arren gure hizkuntzak presentzia eta lehentasuna beharko luke. Sare sozialetan ere ekimenaren inguruko iragarpenak gaztelaniaz daude nagusiki.

Dosierra: 843-2023

Nori: BILBOKO UDALA - ARTXANDAKO FUNIKULARRA

Arrazoa: Bilboko Errekalde auzoan, bada igogailu publiko bat (Rekalde Artazubekoa igogailua) anbulategiaren atzean. Igogailuak baditu ahozko mezuak ("cerrando puertas", "abriendo puertas", "subiendo...") ekainetik pila bat aldiz deitu dut bertako telefonora (944454958) mezuak euskaraz jar dezaten, baina alferrik. Gaztelania hutsean jarraitzen du.

Erantzunak:

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua. Mugikortasun eta Jasangarritasun Saila: Rekalde Artazubekoako igogailuaren ahots - mezua euskeraz ere adierazteko abisua eman da mantentze lanetaz arduratzen den enpresari. Eskerrik asko gure zerbitzua hobetzeko eman diguzun laguntzagaitik.

Dosierra: 844-2023

Nori: BILBOKO UDALA - OBRAK SAILA

Arrazoa: Bilboko Udalak Madariaga etorbideko obretaz informatzeko, euskara erabat traketsen idatzitako kartela jarri du.

Dosierra: 883-2023

Nori: BILBOKO UDALA - KULTURA SAILA

Arrazoa: Atzo Castañoseko udalategian liburutegia itxita egongo zela iragartzeko oharraren euskarazko testua akatsez josita zegoen. Onartezina da Bilboko Udala bezalako erakunde batek euskarari eta bere hiztunei tratu hori ematea.

Erantzunak:

Liburutegi Zuzendariordeak: Asko sentitzen dugu Castañoseko liburutegiko kartelaren euskarazko bertsioan akatsak egotea. Konturatu orduko akatsak zuzendu ziren. Neurriak hartuko ditugu berriro gertatu ez dadin. Eskerrik asko udal zerbitzuak hobetzen laguntzeagatik.

Dosierra: 886-2023

Nori: BILBOKO UDALA - KULTURA SAILA

Arrazoa: Bilboko Gaztelekuko/"Castañoseko" udaltegiko liburutegian azaroaren 20a: kartela euskaraz akatsez josita dago, euskaraz letra txikiago batez idatzita orri bereko espainierazko testuarekin alderatuta; are gehiago, espainierazko testuarekin batera agertzeak exoglosia ez dute saihestuko.

Erantzunak:

Liburutegi Zuzendariordeak: Asko sentitzen dugu Castañoseko liburutegiko kartelaren euskarazko bertsioan akatsak egotea. Konturatu orduko akatsak zuzendu ziren. Neurriak hartuko ditugu berriro gertatu ez dadin. Eskerrik asko udal zerbitzuak hobetzen laguntzeagatik

Dosierra: 912-2023

Nori: BILBOKO UDALA - ARRIAGA ANTZOKIA

Arrazoa: Arriagoa antzokiak "Esnearen kolorekoa" antzezlanaren eskainiko du abenduaren 3tik 6ra. Saio bakarria euskaraz (abenduaren 3koa), beste biak gaztelaniaz. Gaztelania sustatzeko erabakia al da? Euskarazko eskaintza sustatzen ez bada, nekez egin genezake euskararen aldeko hautua.

Erantzunak:

Zuzendari Nagusia: "Esnearen Kolorekoa"-ren kasuan, euskaraz estreinatuko da ikuskizuna Arriagan (egunik garrantzitsuena izan ohi dena eta gaztelaniazko bertsioaren aurretik). Gutxi balitz, igandean izango da emanaldia, asteburuan

beraz, zaleak bertaratzeko aproposagoa izan daitekeena. Kasu honetan, gainera, Euskararen Nazioarteko Egunarekin bat etortzeko keinu sinbolikoa ere egin nahi izan dugu. Arriaga Antzokiaren euskararen aldeko jarduna eta konpromisoaren adibideak mugagabeak dira. Edonork ikus dezake, adibidez, gure ekoizpen propioekin egiten duguna. Ez da gehiegi bilatu behar. Horra duela hilabete eskas estreinatu dugun "Festen" antzezlanaren, urriaren 6tik 8ra euskaraz eskaini genuena, euskaraz lehendabizi, bai. Arrazoi hauek guztiak eta beste hainbat tarteko, eta iritziz guztiak errespetatuz, ezin gara batere ados egon aipatu kexarekin.

Dosierra: 915-2023

Nori: BILBOKO UDALA - Alkatetza JUAN M^a ABURTO RIQUE JN.

Arrazoa: Euskararen eguna dela eta ez dela orrialde beteko iragarkia ipini du Bilboko Udalak Argia astekarrian. Honela dio: Abenduak 3 / Euskararen Nazioarteko Eguna / Bilbao. Hiriaren izena erdara hutsean. Lotsagarria eta iraingarria dela deritzot.

Erantzunak:

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua. EUSKARAKO ZUZENDARIOREDETA: Zure kexa jaso dugu eta eskerrak emannahi dizugu egindako ekarpenarengatik. Nolanahi ere, adierazi nahi dizugu hiriaren izena ofiziala "Bilbao" dela.

Herritarren erantzuna: Hain zuzen ere horretxetan datza arazoa, Bilboko Udalen hiriaren gaztelaniazko izena baino ez duela ofizialdua. Lotsagorritu barik! Horretarako ez dut uste euskara zuzendaritzarik, ez eta antzekorik behar denik. Derrigorrezko gaztelaniaren zuzendaritza dirudi eta.

Dosierra: 944-2023

Nori: BILBOKO UDALA - MUGIKORTASUN ETA JASANGARRITASUN SAILA

Arrazoa: Bilboko Udalaren TAOren aplikazio berrian ere: "ez" barik, "es"; "2o doan" barik "2h doan" eta testu zail samarrak zuzenean erdaraz. Hain gaitza da aplikazioak euskara zuzenean argitaratzea? Aplikazio beretik eskuragarri dauden PDFetan ere: orditegi (horditzeko lekua?),

GIPUZKOAKO UDALAK (18)

Dosierra: 77-2023

Nori: MUTRIKUKO UDALA

Arrazoa: Isun bat jarri zidaten udan Mutrikun, TAO ez jartzeagatik. 942093123 zenbakira deitu dut eta "pulse uno, pulse dos" erdaraz. Neska bat agertu da azkenean eta erdaraz bera ere. Eskatu diot euskaraz egiteko eta Santanderreko enpresa bat dela esan dit. Nire hizkuntza eskubidek, berriz ere, zapalduta. Mutrikuko Udalak zilegi du isunak kobratzeko nire hizkuntza eskubideak zapalduko dituen enpresa bat kontratatu?

Erantzunak:

Euskara teknikaria: Lehengo eta behin, Mutrikuko Udaleko euskara zerbitzuak barkamena eskatu nahi dizu herriko TAO zerbitzuarekin izandako harremanetan zure hizkuntza eskubideak urratuak izan direlako. Hori horrela, azaldu nahi genizuke Mutrikuko Udalak egiten duen edozein lizitazioan edo kanpo kontratazioan hizkuntza eskubideen klausulak ezartzen dituela. Kontratu honen xede diren prestazioaren berezko ezaugarriak direla-eta kontratuaren zerbitzu hizkuntza nagusia euskara izango da; beraz, erabiltzaileekiko harremana euskara izango da nagusiki, eta euskaraz izatea sustatuko da. • Kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira. • Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez, Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 18. artikuluan ezarritakoa betez. Horretarako, Europako Erreferentzia Markoa hartuko da kontuan. Kontratu esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonen badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute. Udako TAOren kasuan goiko hori erabili zen arren, lizitazioa aurkeztu zen enpresa bakarrak ez zuen eskatutakoa betetzen hizkuntzari dagokionez. Aurten, neurri zehatzagoak eskatuko zaizkie enpresei, batez ere, herritarrekin aurrez aurreko edo

ahozko harremanetan euskara ez dadin bigarren mailako hizkuntza izan. Eskerririk asko zure kexa helarazi eta hobetzen laguntzearen.

Dosierra: 115-2023

Nori: EIBARKO UDALA

Arrazoa: Eibarko herrigunean dauden obretako kartel gehienak gaztelera hutsean daude, enpresa pribatuek jarritakoak direlakoan nago. Hori bai, gune publikoetan daude jarriak, beraz, norbaitek kontrolatu beharko luke berauen legezketasuna.

Dosierra: 127-2023

Nori: IRUNGO UDALA

Arrazoa: Pare bat ordu farola bati lotuta utzi nuen txirrindula Irunen otsailaren 15ean. Bueltan Udaltzaingoaren ohar bat aurkitu nuen kaskoan sartuta. Oharraren inprimakia elebiduna baldin bazen ere, gaztelaniaz beteta zegoen.

Erantzunak:

Irungo Udala: Jakinarazi nahi dizugu Udaltzaingoaren eta Elkarbizitzaren Sailera (2023 / 681 zenbakiarekin) eta Euskara Arlora (2023 / 679) zenbakiarekin), bidali dugula zure abisua, kontuan har ditzaten.

Irungo Udala: Herritarren Bizikidetzarako ofizialorde arduradunari bidalia 2023ko otsailaren 21ean, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Irungo Udala: Nahi gabe eta asmo txarrik gabe egin bazuen ere, gogorarazi egin zaie agente guztiei eta haien arduradunei derrigorrez bete behar dituztela hutsuneak bi hizkuntzetan, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko. Udaltzaingotik dagokigu barkamenak eskatzea, berriro gerta ez dadin lortzea eta hiritarrari eskertzea zure zerbitzuei zuzentzea horrelako kexa mota daudela jakiteko.

Dosierra: 168-2023

Nori: IRUNGO UDALA

Arrazoa: Otsailaren 27a eta martxoaren 2a artean, Irungo Udalak 'Memoria Demokratikoaren Estatuko Biltzarra' burutu du. Gure elkarte bertan parte hartzera gonbidatu zuten. 2023ko otsailak 10ean bidalitako posta elektronikoa, «arrazoi politikoak» argudiatuz, hitzaldia gaztelaniaz egin behar genuela oroitarazi

ziguten. Gure Elkartearen aburuz, onartezina da halako hizkuntza inposizio bat burutu izana. Biltzarra udal finantzaketa publikoaz antolatutako ekimen elebakarra izan zen, guk euskaraz egindako interbentzioengatik izan ez balitz. Gainerako hitzaldi guztiak gaztelaraz egin ziren eta aurkezleak ere horrela egin zuen. Ez dakigu gainontzeko parte hartzaileek antzeko ohartarazpena jaso ote zuten. Kexa honen bitartez, gure kexa helarazi nahi diogu Irungo Udalari.

Dosierra: 326-2023

Nori: IRUNGO UDALA

Arrazoa: Atzo, hilaren 28a, Irungo udaletxera hurbildu nintzen goizeko hamarrak inguruan, Udalbatza egiten ari baitziren. Irungo udaletxean sartzeko, udaltzain bati NAREN zenbakia eman behar zaio sartzetakoan, hark libreta batean idazteko eta sartzeko baimena emateko. Nire aurretik, bi lagun zihoazen, eta haiek NAREN zenbakia gaztelaniaz eman, eta, inolako eragozpenik gabe, aurrera egin ahal izan zuten. Nire txanda iristerakoan, zenbakia euskaraz esan nion, eta, hara non, arazoak! Zenbakia gaztelaniaz emateko esan zidan, ez baitzuen euskaraz ulertzen. Nik, berriro, euskaraz eman nion zenbakia. Hark, berriro, ezetz, gaztelaniaz emateko. Nik, hirugarrenez, euskaraz, eta hark, hirugarrenez, ezetz. Orduan, zenbakiak banan bana ematen hasi nintzaion (euskaraz, noski), eta, hala nola hasi zen idazten (gaizki), baina berarekin hizketan zeuden bi pertsonetako batek lagundu, eta, azkenean, bukatu, eta sartzen utzi ninduen. Euskaldunok garbi dugu euskara erabiltzeko eskubidea dugula, baina erakundeek garbi al dute arreta euskaraz emateko betebeharra dutela?

Erantzunak:

Irungo Udala: Jakinarazten dugu Irungo Udaltzaingoaren buruari eta ordezkariari horren berri eman zaiela, aztertu eta behar diren neurriak har ditzaten. Azpimarratu behar da herritarrak arrazoi osoa duela, bere hizkuntza-eskubideak bermatu behar baitira. Udaltzaingoak hizkuntza-normalkuntzako zuzentzarauak betetzen ditu, baina akats batzuk egin ditzake, eta horietako bakoitzari barkamena eskatu baino ezin zaio egin. Herritar horiek hitzordua eska diezaioke Udaltzaingoko buruari, informazio gehiago nahi izanez gero. Udaltzaingoari bidalitako idazkia eskertzea, interesgarria baita zerbitzu hobea eskaintzeko eta herritarrek eskatzen dituzten alderdi guztiak hobetzeko."

Dosierra: 389-2023

Nori: IRUNGO UDALA

Arrazoa: Irungo Udaltzaingoak aparkatzeko debekua iragartzen duen kartelean ez dago informazio guztia euskaraz. Herriko Etxeak ez ditu guztiz betetzen euskaldunon hizkuntza eskubideak.

Erantzunak:

Irungo Udala: Zure oharra guztiz ulergarria da, deskribatzen duzun egoera dela eta. Horri dagokionez, jakinarazi nahi dizugu Udaltzaingoak aparkalekuetako irtenguneetan jartzen dituen kartelak elebidean jartzen direla, Irungo Udalaren euskararen erabilera normalizatzeko arauak betetze aldera. Herritarrak bere erakundearen aurrean adierazitako kexaren kasuan, barkamena eskatu behar da, aipatutako kartela, nahiz eta elebiduna izan, euskara erabiliz "arrazoa" atalean osatu ez zelako. Nahi gabe egindako akatsa izan da, baina ez errepikatzen ahalegina egin da, eta baliteke metatutako zereginengatik presaren emaitza izatea. Eskertzekoa da herritar partikularrek eta haien erakundeak beren idazkiak udaltzainei helaraztea, hizkuntza-eskubideei eragin diezaiekeen edozein egoera hobetzeko eta konpontzeko.

Dosierra: 432-2023

Nori: IRUNGO UDALA

Arrazoa: Argazkian ikusten bezalaxe Irungo Herriko Etxeak ez ditu guztiz betetzen euskaldunon eskubideak

Erantzunak:

Udaltzaingo eta Bizikidetzako ordezkaria: Kartelari dagokionez, erdaraz soilik dagoen testuaren zatia, Karteleko Arrazoa da: "Carrera de San Pedro" da, "San Pedroko Lasterketa" jartzen ez duelarik. Ostera, ordua, lekua, eguna oharra elebidunak dira.

Dosierra: 448-2023

Nori: IRUNGO UDALA

Arrazoa: Argazkian ikusten bezalaxe irungo Herriko etxeak ez ditu guztiz betetzen euskaldunon eskubideak

Dosierra: 466-2023

Nori: IRUNGO UDALA

Arrazoa: Argazia ikusten bezalaxe Irungo Herriko Etxeak ez ditu guztiz betetzen euskaldunon eskubideak trafiko oharretan.

Erantzunak:

Udaltzaingo eta Bizikidetzako ordezkaria: Kartelei dagokionez, gazteleraz soilik dagoen testuaren zatia, Karteletako Arrazoa da: "Acto de Fiestas", "jaietako ekitaldia" jartzen ez duelarik. Ostera, ordua, lekua, eguna oharra elebidunak dira.

Dosierra: 487-2023

Nori: ASTEASUKO UDALA

Arrazoa: Asteasuko igerilekuko tabernako karta gaztelaniaz bakarrik dago. Taberna honen kudeaketa Asteasuko udaletxearen lehiaketa publiko batean erabakitzen denez, uste dut euskaraz ere egon beharko lukeela.

Dosierra: 489-2023

Nori: IRUNGO UDALA

Arrazoa: Argazkietan ikusten den bezalaxe Irungo Herriko etxeak ez ditu guztiz betetzen euskaldunon eskubideak trafiko oharretan.

Erantzunak:

Udaltzaingo eta Bizikidetzako ordezkaria: Kartelei dagokionez, gazteleraz soilik dagoen testuaren zatia, Karteletako Arrazoa da: "Revista de Armas" eta "Fiestas" da, "armak ikuskatzea" eta "Jaiak" jartzen ez duelarik. Ostera, ordua, lekua, eguna oharra elebidunak dira.

Dosierra: 505-2023

Nori: EIBARKO UDALA

Arrazoa: Eibarren Ipuruako futbol zelaiaren izkinan "Elgueta" jartzen duen seinale hori dago gaztelaniaz, udalari zuzendu dezan eskatu nahiko nioke.

Dosierra: 530-2023

Nori: IRUNGO UDALA

Arrazoa: argazkian ikusten bezalaxe, Irungo Herriko Etxeko Udaltzaingoak paratutako trafiko oharren ez ditu guztiz betetzen euskaldunon eskubideak.

Erantzunak:

Udaltzaingo eta Bizikidetzako ordezkaria: Kartelari dagokionez, gazteleraz soilik dagoen testuaren zatia, Karteletako Arrazoa da: "Poda" da, "inausketa edo kimaketa" jartzen ez duelarik. Ostera, ordua, lekua, eguna oharra elebidunak dira.

Dosierra: 558-2023

Nori: IRUNGO UDALA

Arrazoa: Argazkian ikusten bezalaxe, Irungo Udaltzaingoaren trafiko oharra euskaraz erdizka dago, ez ditu guztiz betetzen euskaldunon hizkuntz eskubideak.

Dosierra: 614-2023

Nori: DEBAKO UDALA

Arrazoa: UEMAKO kide den Debako hondartzan, abuztuaren 24ko arratsaldean hondartzan ginela, megafoniatik 3 aldiz (batetik bestera bi minutuko tartearekin) esan zuten haizea zegoela eta "sonbrillak" ixteko, hiruretan espainolez. Ez dakit bestetan euskararen presentzia zenbatekoa den, baina atzo behintzat espainola nagusi.

Dosierra: 739-2023

Nori: IRUNGO UDALA

Arrazoa: Irungo Udalerako Gazteria Teknikaria lanposturako (Enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntza-deialdia 2023) elkarrizketa gazteleraz eginarazi izana salatu nahiko nuke.

Erantzunak:

GGO.BB. eta Zerbitzu Orokorretako Ordezkarria: Egindako elkarrizketa guztien aurretik, labor azaldu ziren lanpostuaren edukia eta eskainitako kontratubaldintzak, eta, ondoren, hautagaiei eskatu zitzaizen zehatz-mehatz azaltzeko beren lanbide-profila eta eskainitako lanpostuan interesa agertzeko arrazoiak. Horretarako, halaber, curriculum vitaearen kopia eguneratua eskatu zitzaizen, izangai bakoitzak elkarrizketa horretan azaldu ahal izan zuen informazioaren kontraste gisa. Elkarrizketatzaileek egindako hasierako azalpena gaztelania hutsean egin ahal izan bazen ere, izangaiei hitza erabiltzeko baimena eman zitzaientean, izangaiek askatasunez eta berdin adierazi ahal izan zuten euskaraz zein gaztelaniaz, bai eta curriculumaren kopia eguneratua bi hizkuntza ofizial horietako

edozeinetan eman ere. Ildo horretan, elkarrizketa egin zuten lau udal-teknikariak hizkuntza-gaitasun nahikoa zeukaten bi hizkuntzetako edozeinetan jarduteko hautagaiekin, azken horiek hala eskatuz gero. Ez dago inolako berririk hautagairen batek elkarrizketa euskaraz egin nahi izan zuenik eta aukera hori ukatu egin zitzaionik, zure idazkian azaltzen duzuen kekatik oker ondorioztatu daitekeen ez

Dosierra: 793-2023

Nori: EIBARKO UDALA

Arrazoa: GI-2639 errepedean Elgetarako norabidea zehazten duen bide-seinale berrixa berriz be erderaz laga dabe.

Erantzunak:

Udaltzaingoa: eman dugu jada aldatzeko abisua

Dosierra: 822-2023

Nori: EIBARKO UDALA

Arrazoa: gaur lan bilera batera joan naiz Portaleara eta begiak talo eginda gelditu zaizkit. Bigarren pisuko harrera lekuan erakusketa eder bat zegoen, hainbat panelekin, Limako herri- auzoetan lankidetzarako hiri- proiektuen gainean. Benetan interesgarria eta polita ekimena eta oso adierazgarria emoten den informazioa. Baina... GAZTELERA HUTSEAN. Antolatzaileak COAVN- Gipuzkoa eta Eibarko Udala izanik nola da posible euskaraz hitz bakar bat ere ez agertzea? Jasotzaileak eibartarrak badira eta dagoen tokian egonda Udal Euskaltegia eta Euskara Zerbitzuaren arteko tokian? Kzgunerako bidean? Eskertuko nuke Eibarko Udalak honen gaineko hausnarketa egitea eta hemendik aurrera denon hizkuntza eskubideak aintzat hartzea. Mila esker

Erantzunak:

Eibarko Udala: Hau Gizartekintzatik antolatu dutela ikusita, bertako teknikariarekin eta zinegotziarekin hitz egin da horrelakoak gutxienez elebietan egon behar direla gogorarazteko eta honen zergatia galdetzeko. Bi egunetarako jarri da erakusketa, ondoren kendu egingo da.

DONOSTIAKO UDALA (21)

Dosierra: 56-2023

Nori: DONOSTIAKO UDALA - DBUS Donostiako Udalaren Sozietate Publikoa

Arrazoa: Gaur 11:30ak inguruan Donostiko D-Bus-eko 805. autobusean sartzera nindoan, 26. linea (Amara-Martutene). Mukiak kentzen ari nintzela eta ez nuen musukoa jarrita, baina banuen jartzeko asmoa. Halere, autobus gidariak segituan esan dit modu oso txarrean: - "Tu bájate de aquí, bajate de aquí que llamo a los municipales ahora mismo". Nik maskarilla badaramadala erantzun diot. - "Como te vea un solo momento sin mascarilla paro el autobus y hasta que no venga una autopatrulla no me muevo". Horren aurrean, - "Euskaraz egingo didazu?" esan diot eta gidariak... - "Yo no tengo porque saber euskera porque me parece tan fascista....". - "Baina nire eskubidea da", erantzun diot. - "Que pasa que no sabes castellano? - "Bai baina nire eskubidea da euskaraz atenditua izatea... - ".Mira, no me toques las narices y dejate de fascismos". - "Fascismo? Ez, nire eskubidea da, besterik ez". - "Tu eres un fascista como los demás". Oso gaizki pasa dut, nire eskubideak defendatzeagatik oso tratatu desegokia eta bidegabea jasan dudalako. Azaldutako guztia frogatu dezaket.

Erantzunak:

Erabiltzaileen Arreta.: Lehenik eta behin, barkamena eskatu nahi dizugu gertatutakoagatik. Dbusen badakigu erabiltzaileen eta gidarien arteko harremanak oso garrantzitsuak direla. Alderdi hori hobetzeko, giza harremanei buruzko ikastaroak ematen zaizkie gidariei gidatze-lanpostuan. Ikastaro horietan, besteak beste, erabiltzailearekiko tratatu egokia, enpatia eta abar lantzen dira. Zentzu horretan, sentitzen dugu gure zerbitzuan maskara nahitaez erabiltzeari buruz eztabaidarik sortu izana, bidaiarien garraio publikoan maskara erabiltzea arautzen duen 286/2022 Errege Dekretuaren ondorioz. Era berean, Dbusen urteak daramatzagu Dbusen Euskara Plana garatzen. Plan horren helburua da gure langileen artean euskararen ezagutza eta erabilera handitzea, prestakuntza ematea, langileen ulermen-gaitasuna eta motibazioa hobetzea, etab. Planaren emaitzak oso positiboak izaten ari dira, euskaraz dakiten langileen kopurua nabarmen handituz. Hala ere, bilera bat egingo da gidariarekin, horren guztiaren berri emateko.

Dosierra: 66-2023

Nori: DONOSTIAKO UDALA- EUSKARA ZERBITZUA

Arrazoa: Atzo igandea 22, VE Klub aretoan egin nintzen Schubert zikloaren kontzertu batean. Aurkezpena, euskararen aldetik, lotsagarria izan zen: 2 edo 3 lerro euskaraz, garapen oso osoa erdera hutsean eta amaierarako beste 2 lerro euskaraz. Ni, donostiar euskaldun bezala, ezin dut onartu nire eskubideak modu zakar horretan ez errespetatzea. Beraz, eskertuko nuke aurkezpen osoa euskaraz egitea behintzat edo errazagoa, ohizkoa den bezala kontzertu areto guztietan, ahozko aurkezpena kendu eta informazioa eskuko programan sartu. Ziklo honetarako sarrera ugari ditudanez eta kontzertu guztietan haserretu nahi ez dudanez, eskertuko nuke zuzenketarik egon balitz erantzutea. Hala ez bada, sarrerak itzultzeko aukera jakin nahiko nuke.

Erantzunak:

Euskara Zerbitzuaren burua: Donostia Kulturarekin harremanetan jarri gara eta jakinarazi digute, hemendik aurrera, kontzertu horiei buruzko informazioa esku-programa baten edo QR kode baten bidez helaraziko zaiola publikoari, eta ez dela ahozko sarrerarik izango, ezta obraren deskribapenik ere. Herritarrari eskertu nahi diogu kexa jarri izana, huts edo gabeziak atzematen laguntzen digulako.

Dosierra: 114-2023

Nori: DONOSTIAKO UDALA- EUSKARA ZERBITZUA

Arrazoa: Donostiako Udalak ez ditu betearazten bere udal ordenantzak, hizkuntzaren erabilpenari dagozkionak, non espresuki esaten den gune publikoetan egiten diren marketing operazioetan, lehenengo euskaraz eta ondoren gaztelaniaz egin behar direla errotulazio eta mezuak. Aspaldi honetan, hau ez da betetzen, ez Bretxaren aurrean (Behean txertatutako argazkia), ez Bulebarreko kioskoaren ondoko plazan, ezta Alderdi Ederren ere (Azkena, Eguberritan jartzen den Noriaren kasua).

Erantzunak:

Euskara Zerbitzuko burua: Hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak jasota daude bide gune publikoaren erabilera baimenetan, baina oraindik ere tamalez zailtasunak ditugu horiek guztiz betetzeko. Kasu honetan, baimenak ematen

dituen udal departamentuko ordezkariak bertara joanda eskatu zien kuboaren arduradunei baldintzak betetzeko. Era berean, Bretxako gunea kudeaten duen enpresako ordezkariari eskatu zitzaion baldintza horiek betearazteko. Kuboa hurrengo egunean, (larunbata) kentzekoak zirenez, bere horretan geratu zen, baina aurrerantzean halakorik ez gertateko neurriak har ditzaten eskatu zaie. Horrela izan dadin espero dugu. Herritarrari eskertzen diogu kexa jarri izana, huts edo gabeziak antzematen laguntzen digulako.

Dosierra: 298-2023

Nori: DONOSTIAKO UDALA- EUSKARA ZERBITZUA

Arrazoia: Donostiako Udaltzaingora joan naiz txirrinda lapurtu zidatela salatzer. Eta nik euskaraz egin eta berak niri ere. Baina salaketa agiria eman didatenean gaztelania hutsez dagoela ikusi dut

Dosierra: 378-2023

Nori: DONOSTIAKO UDALA- EUSKARA ZERBITZUA

Arrazoia: Urteak daramatzat Groseko Zuhaitzi kiroldegira joaten (BXPort-ek kudeatzen du). Bertan musika jartzen dute eten gabe, beti gaztelaniaz edo ingelesez, behin ere ez dut euskarazko musikarik entzun. Beno, behin, duela bi urte edo, Izaroren diska jarri zuten. Bertako erabiltzaileei eta, batez ere erabiltzaile gazteei begira, zabaltzen den mezua ez da egokia. Hizkuntzaren ikuspegitik alderdi oso inportantea da, uneoro begietatik eta belarrietatik sartzen zaiguna, hizkuntzaren ezagutzan eta erabileran eragiten duelako. Udalaren menpeko diren kiroldegi guztietan jarten den musikari arreta eskaintzea eskatzen diot Donostiako Udalari.

Dosierra: 386-2023

Nori: DONOSTIAKO UDALA - DBUS Donostiako Udalaren Sozietate Publikoa

Arrazoia: DonostiBuseko arreta telefonora deitu dut, eta euskaraz hastean: "En erderaz, por favor" esan didate, eta gazteleraz jarraitu behar izan dut. Bukeran "gracias" esan didate, "eskarrik asko" esatea behintzat ez da gehiegi eskatzea, nire ustez.

Erantzunak: Euskara Zerbitzuaren burua: DBUSentzat lehentasunezkoa da erabiltzaileei kalitatezko zerbitzua ematea eta arreta eta informazioa euskaraz

jasotzeko eskubidea bermatzea. Egiaztatu da deia jaso zen unean, inguruabar puntal batengatik, ezin izan zela bete Erabiltzaileendako Arreta Zerbitzura deitzen duten pertsonak euskaraz zein gaztelaniaz artatu ahal izateko protokoloa. Horregatik barkamena eskatu eta neurriak hartuko dira horrelako egoera berriro gerta ez dadin. Eskertzen dugu kexa jarri izana, huts edo gabeziak antzematen laguntzen digulako.

Dosierra: 437-2023

Nori: DONOSTIAKO UDALA- EUSKARA ZERBITZUA

Arrazoia: Ekainaren 3 eta 4an, "RAC Vasco-Navarro" hainbat erakunde publikoren laguntzarekin Donostiako Alderdi Ederren hasitako rallya antolatu zuen. Karteldegia eta informazio guztia gaztelaniaz, euskaraz ez zuen tokirik izan eta erakunde publikoen laguntzarekin guztia. <https://racvn.net/calendario-de-pruebas-deportivas/rally-del-centenario-del-circuito-de-lasarte/>

Dosierra: 467-2023

Nori: DONOSTIAKO UDALA- EUSKARA ZERBITZUA

Arrazoia: Donostiako Udaltzaingoaren komisaldegira gerturatu gara salaketa bat jartzera. Ekainaren 18an, arratseko 7tan. Bertako harreraren euskaraz "Salaketa bat jartzera gatz" esan eta harrerako udaltzainak "Mal empezamos. Si no me hablas en castellano no nos vamos a entender" erantzun. Salketa bikoitza da hau: 1.- Donostiako Udaltzaingoaren komisaldegian euskaraz ez artatzea. 2.- Gure hizkuntza erabiltzeari horrelako erantzunak ematea. Gainera, parean "Udalean ere euskaraz" zioen kartel handi bat nuen. Lotsagarria!

Dosierra: 502-2023

Nori: DONOSTIAKO UDALA- EUSKARA ZERBITZUA

Arrazoia: Donostiako Nafarroa Hiribidean Tourraren harira egindako itxieran zegoen udaltzainari galdetu nion ea noiz pasa ahal izango genuen errepidea. Agenteak gazteleraz egiteko eskatu zidan euskeraz ez zekiela esanez eta mezprezuzko doinuz. Momentu horretan izugarritzko ezina sentitu nuen eta ez zait bidezkoa iruditzen Donostia bezalako hiri batean euskarazko oinarri-oinarrizko maila ere ez edukitzea. Udaltzainaren zenbakia hau da: 2283

Erantzunak:

Euskara Zerbitzuaren burua: Udaltzaingoko arduradunekin harremanetan jarri gara eta egun horretan kalean ibili ziren agenteei ohartarazteko eskatu diegu, aurrerantzean horrelakoak saihesteko. Izan ere, jakin badakigu, batez ere, horrelako ekitaldientan, kalean dabiltzan udaltzain guztiek ez dutela euskaraz artatzeko gaitasunik, baina herritarrekiko harremanetarako udalaren jarraibidea da egoera horretan dagoen langileak euskara dakien langile bati laguntza eskatzea, betiere, hizkuntzarekiko begirunea erakutsiz. Herritarrari eskertzen diogu kexa jarri izana, huts edo gabeziak antzematen laguntzen digulako.

Dosierra: 569-2023

Nori: DONOSTIAKO UDALA- EUSKARA ZERBITZUA

Arrazoa: Donostiako Udalak eskaintzen dituen haur eta gazteentzako UDAKO KIROL EKINTZAtan izen eman genuen. Ikastaroa euskaraz izango zela baieztatu ziguten. Beste behin ere (ez da lehen aldia), ikastaroa hasi eta begiralea (euskalduna bera), gaztelera zuzendu zitzairen haurrei, euskarazko hitzik ere ez. Oraingoan, nik ikusi dudanez, berarengana zuzendu eta euskaraz ez bazen haurrak aterako nituela esan diot. Orduan, euskaraz egingo zuela esan dit, nahiz eta azalpen teknikoetarako gaztelera erabiliko zuen. Udalak diruz lagundu eta antolatutako ikastaroetan horrela ibili beharra zentzugabea eta lotsagarria da. Neurriak hartuko zituztela esan zuten aurreko batean, baina denak berdin jarraitzen du. Kirola: Hondartzako Boleibola

Erantzunak:

Euskara Zerbitzuaren burua: Kiroletako Uda kanpainan ikastaroak eskaintzen dituzten kirol klubei Donostia Kirolak baldintza eta betebeharrak batzuk jartzen dizkie, et horien artean hizkuntza betebeharrak daude, baina argi dago klub batzuek behintzat ez dituztela osotasunean betetzen. Donostia Kirolak-ek ez ditu jarduera horiek diruz laguntzen, klubek egiten duten eskaintzaren bilketa lana egiten du eta zaila du euskara baldintzak betetzen ez dituzten klubean neurriak hartzea, egun indarrean dagoen deialdiak ez duelako zehapen-araudirik jasotzen. Hala eta guztiz ere, eskaintza egin duten bi klubei horrelakorik berriro gerta ez dadin neurriak hartzeko ohartarazpena bidaltzeko eskatu zaio Donostia Kirolak-i. Herritarrari eskertu nahi diogu kexa jarri izana, huts edo gabeziak atzematen laguntzen digulako

Dosierra: 587-2023

Nori: DONOSTIAKO UDALA- EUSKARA ZERBITZUA

Arrazoa: Donostiako Aste Nagusian Matia kalean jarri dituzten haur jolasetako monitorea gaztelera hutsean zuzentzen zaie haurrei eta jolas batzuetako errotulazioa ere gaztelera hutsean dago. Non daude euskaldunon hizkuntza eskubideak?

Erantzunak:

Euskara Zerbitzuaren burua: Donostia Kulturarekin harremanetan jarri gara eta jakinarazi digute enpresa hornitzaileari beti eskatzen zaiola begiraleak elebidunak izatea, eta jarduteko arau gisa, lehen komunikazio-hizkuntza euskara izatea, eta ondoren haurrak erabiltzen duen hizkuntzara moldatzea. Hau zuzen bete ez dela ikusirik, Donostia Kulturak Monstruos M.A. enpresa ohartarazi du egoera hau errepikatu ez dadin.

Dosierra: 594-2023

Nori: DONOSTIAKO UDALA- EUSKARA ZERBITZUA

Arrazoa: Donostiako Aste Nagusiaren Udalaren egitarau ofizialaren barruan, Antiguu auzoan haur jolasak eta puzgarriak zeuden, abuztuaren 15ean. Ekintza hau udalak kontraturik, Monstruos M.A. (www.monstruosma.es) enpresak kudeatu zuen. Bertan argibideak ematen zituzten arduradun batzuek gaztelera hutsean ematen zituzten argibideak. Euskaraz soilik pedaldun kotxeetako arduradunek hitz egiten zuten. Matia kalearen hasieran zeuden jolasen arduradunak etengabeko argibideak gaztelera hutsean aurrei zuzenean. Gaskoinia plazako puzgarrietako arduradunek ere soilik gazteleraz.

Erantzunak:

Euskara Zerbitzuaren burua: Donostia Kulturarekin harremanetan jarri gara eta jakinarazi digute enpresa hornitzaileari beti eskatzen zaiola begiraleak elebidunak izatea, eta jarduteko arau gisa, lehen komunikazio-hizkuntza euskara izatea, eta ondoren haurrak erabiltzen duen hizkuntzara moldatzea. Hau zuzen bete ez dela ikusirik, Donostia Kulturak Monstruos M.A. enpresa ohartarazi du egoera hau errepikatu ez dadin. Herritarrari barkamena eskatzeaz gain, eskertu nahi diogu kexa jarri izana, huts edo gabeziak atzematen laguntzen digulako

Dosierra: 655-2023

Nori: DONOSTIAKO UDALA- EUSKARA ZERBITZUA

Arrazoa: Autobus geltokiko komuneko karteletan: - Izena lehenengo gazteleraz dago. Hemen posible litzateke alderantzizkatzea. - Mezua bera erdara hutsean dago.

Dosierra: 665-2023

Nori: DONOSTIAKO UDALA- EUSKARA ZERBITZUA

Arrazoa: <https://www.bogabogafestibala.eus/> Donostian asteburu honetan izaten ari den musika kontzertuen webgunea. Logoen artean Donostiako Udala, Donostia Kultura eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren turismo sailaren logoak daude. Webgunearen lehen inpresioa gaztelera hutsean da, egitaraua hala moduzko bi hizkuntzetan badator ere (gaztelera gailentzen da). Diodana ikustearren irudiak erantsi ditut, baita bideoa ere. Ikus menuak gaztelera hutsean daudela, egunak gazteleraz bakarrik jarri dituztela, taldeen aurkezpenak gazteleraz soilik eta abar. Info Util barruan, Como Llegar eta Acceso bi hizkuntzetan daude, El Festival aurkezpena gaztelera hutsean, Horarios barruan egitaraua dator bi hizkuntzetan baina gaztelera du nagusitasuna... Donostiako Udaleko zein Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunei dei egin nahiko nieke haien erakundeen logoak dituzten webguneen gainean egon daitezten eta euskaraz ere berma diezaguten webgunea. Bideo bat erantsi dut, irudiak ere bai.

Dosierra: 699-2023

Nori: DONOSTIAKO UDALA- EUSKARA ZERBITZUA

Arrazoa: Irailaren 14an, ostegunarekin, 17:15ean, Donostiako City Tour tren hartu nuen nire hiru ilobekin. Bertan jarri zuten audioa gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez paratu zuten. Nire ilobak ezer ulertu gabe geratu ziren. Badirudi kanpokoendako pentsatuta dagoela, bertakoak ez dituztela kontuan hartzen.

Erantzunak:

Euskara Zerbitzuaren burua: Donostia Turismokoekin hitz eginda adierazi digute Donostiako City Tour trenak 8 hizkuntzatan eskaintzen duela audioa, euskara barne. Norberak aukeratu behar du hizkuntza. Hori egin ezean, audifonoak erabili dituen aurreko erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan entzuten da. Gerta daiteke

egun horretan matxuraren bat egon izana, eta, ondorioz, euskarazko audioa ez egotea eskuragri, baina hori salbuespena litzateke. Herritarrak ez du esaten ea kontsulta egin ote zion tren gidariari. Zalantza kasuan horixe izaten da gomendagarriena. Bestalde Donostia Turismoak bere webgunea euskaraz eskaintzen du eta beste bos hizkuntzatan: gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez, alemanez eta japonieraz.

Dosierra: 714-2023

Nori: DONOSTIAKO UDALA- EUSKARA ZERBITZUA

Arrazoa: Irailak 21, 21:45, Donostiako Udaltzaingora deitu dut. Telefonoa hartu duen udaltzainak buenas noches bakarrik esan du. Euskaraz badakien galdetu eta baietz esan dit. Galdetu diot zergatik ez duen euskara ere erabili eta erantzun bi eman dizkit: 1. Udaltzain guztiek ez dakitelako 2. Atzerritar askok deitzen dutelako Aho zabalik utzi nau. Donostiako Udaltzaingoaren hizkuntza politika da hori?

Erantzunak:

Euskara Zerbitzuaren burua: Donostiako Udalak onartutako eta indarrean dauden hizkuntza irizpideen arabera, herritarrak artatzen dituzten udal langileek lehen hitza euskaraz egingo dute eta euskaraz artatzeko gaitasunik ez duen langilearen kasuan lankide bati laguntza eskatuko dio. Hizkuntza jarraibide horiek departamentu guztietako ordezkari eta langileei jakinarazi zaie, eta aldiari aldiari gogorarazteko komunikazioak bidaltzen zaizkie; kexaren arrazoa jasota, ordea, ez dirudi langile batzuek irizpide horiek barneratuta dituztenik. Horrela, Udaltzaingoko ordezkariarekin harremanetan jarri gara, irizpide horiek bete behar dituztela ohartarazteko. Herritarrari eskertzen diogu kexa jarri izana, huts edo gabeziak antzematen laguntzen digulako.

Dosierra: 727-2023

Nori: DONOSTIAKO UDALA - SAN TELMO MUSEOA

Arrazoa: Donostiako San Telmo museora deitu dut eta artatu nauen pertsonak ez zekien euskaraz. Galdetu diodanean, gazteleraz egiteko eskatu dit.

Erantzunak:

Zuzendaria: Lehen-lehenik eskerrak eman nahi dizkizut San Telmo Museoko harreraren hobekuntzan laguntzeagatik. Jendaurreko postuetan euskarazko lehen hitza izatea da San Telmo Museoaren irizpidea, eta horretan tematzen gara

telefono bidezko edo aurrez aurreko arretan. Sentitzen dugu oraingo honetan horrela ez izatea; betetzen den aztertuko dugu.

Dosierra: 753-2023

Nori: DONOSTIAKO UDALA- EUSKARA ZERBITZUA

Arrazoa: gaur, 2023ko urriak 8, Donostiako Udaltzaingora deitu dut. "Municipales buenas noches" esan dit telefonoa hartu duenak. Euskara badakien galdetu diot. Baietz. Eta gabon zergatik ez duen esan galdetu diot, euskalduna dela jakiteko. Erantzun dit horrela denok ulertzen dugula. Duela aste batzuk arrazoi berarengatik jarri nuen kexa. Donostiako Udaltzaingoareen hizkuntza politika dela agerian dago.

Erantzunak:

Euskara Zerbitzuaren burua: Donostiako Udalak onartutako eta indarrean dauden hizkuntza irizpideen arabera, herritarrak artatzen dituzten udal langileek lehen hitza euskaraz egingo dute eta euskaraz artatzeko gaitasunik ez duen langilearen kasuan lankide bati laguntza eskatuko dio. Hizkuntza jarraibide horiek departamentu guztietako ordezkari eta langileei jakinarazi zaie, eta aldian-aldian gogorarazteko komunikazioak bidaltzen zaizkie; azken asteotan, antzeko erantzuna eman duten bigarren aldia dela kontuan izanik, ordea, ez dirudi langile batzuek irizpide horiek barneratuta dituztenik. Euskara Zerbitzuan kezka eta arduraz hartzen ditugu hizkuntzaren gaineko jarrera horiek eta udaltzaingoko arduradunekin berriro harremanetan jarriko gara, gaia ongi aztertu eta aurrerantzean horrelakoak saihesteko. Herritarrari eskertzen diogu kexa jarri izana, huts edo gabeziak antzematen laguntzen digulako.

Dosierra: 780-2023

Nori: DONOSTIAKO UDALA- EUSKARA ZERBITZUA

Arrazoa: Donostiako Udalak sustatzen duen kanpaina bat da, alzheimeren ikerketa baterako bolondresak eskatzen dituena. Dena elebitan dago, "gauzatxo" bat izan ezik: 15 folioko PDF bat, "hoja informativa al participante" izenekoa. Fundacion Cita Alzheimer da antolatzailearen izena, baina Eneko Goiak sinatutako orri bat bidali dute etxeetara.

Erantzunak:

Euskara Zerbitzuaren burua: Cita-alzheimer fundazioa da kanpaina horren antolatzailea, fundazioak ez du udalaren dirulaguntzarik jaso, baina, Donostiako

Udalak babesa eman dio kanpainari. Gure aldetik, fundazioarekin harremanetan jarri ginen eta Donostiako Udalaren Hizkuntza Jarraibideetan jasotakoa adierazi genien, zehazki, jardueraren zabalkundea euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egin behar dela. Herritarrari eskertzen diogu kexa jarri izana, gabeziak antzematen eta konpontzen laguntzen digulako

Dosierra: 924-2023

Nori: DONOSTIAKO UDALA- EUSKARA ZERBITZUA

Arrazoa: azaroaren 24an, eguerdiko 12etan, bilera genuen udaletxean eta minutu batzuk lehenago bertaratu ginen. Sarreran 552 Udaltzaina zegoen kontrola egiten. Guk "egunon" berak "buenos días"; ondoren "la documentación", guk "bai esan", berak berriro "la documentación". Horrela hiru aldiz, hiru pertsona baikinen. Bukatzeko "les esperan arriba?" guk "bai, badakite"; berak "saben subir?", guk "bai, badakigu nola joan, eskerrik asko"; berak "hasta luego": hitz bat bera ere euskaraz. Intxaurrondoko Guardia Civil-aren kuartelaren sarreran bageunde bezala tratatu gintuzten Euskararen Donostiako udaletxeko harreran. Donostiako Udala ez da gai 1982ko Euskararen Legea betetzeko. Epailak, Espainiak euskarari egiten dizkieten erasoak salatzen aritzen gara sarri. Euskarak ez du kanpoko erasoen beharrik; guk, bertakook, nahiko gara euskara eta euskaldunok zapaltzeko.

Erantzunak:

Euskara Zerbitzuaren burua: Udalak ahalegin berezia egin du jendaurreko lanpostuetan hizkuntza gaitasuna duten langileak euskalduntzeko, baina, herritarrak jarritako kexan jaso bezala, oraindik gune batzuetan zuzendu beharreko akatsak ditu. Izan ere, udaletxearen sarrera zainketa lanetan, oro har, bi udaltzain egoten dira eta, gutxienez, horietako bat euskalduna izan ohi da, herritarrekiko harremanetan hizkuntza erabilera bermatzeko. Oraingoan, bistan denez, ez da eskubide hori bermatu eta Euskara Zerbitzuaren aldetik Udaltzaingoiari dagozkion neurriak hartzeko eskatu diogu. Horrela izan dadin espero dugu; horrenbestez, herritarrari eskertzen diogu kexa jarri izana, huts edo gabeziak antzematen laguntzen digulako.

Dosierra: 938-2023

Nori: DONOSTIAKO UDALA- EUSKARA ZERBITZUA

Arrazoa: Duela hilabete auto istripu baten lekuko izan nintzen eta larrialdietara deitu behar izan nuen. Gaur goizean Donostiako udaltzainak nirekin harremanetan jarri dira email bidez, gaztelera hutsean idatzitako mezu baten bidez.

Erantzunak:

Euskara Zerbitzuaren burua: Udalaren Euskara Planaren arabera, udal langileak herritarrei bidali beharreko komunikazioak euskaraz edo ele bietan idatzi behar dituzte. Horrenbestez, Udaltzaingoko ordezkariari eskatu diegu horrelako egoerak saihesteko neurriak har ditzaten (euskara dakien langile bati ala Euskara Zerbitzuari laguntza eskatzea....) Horrela izan dadin espero dugu.

IPAR EUSKAL HERRIKO HERRIKO ETXEAK (4)

Dosierra: 536-2023

Nori: ZURAIDEN HERRIKO ETXEA

Arrazoiak: Zuraideko Udaletxeko gutuna frantses hutsean eskuratu dugu.

Dosierra: 645-2023

Nori: UZTARITZEKO HERRIKO ETXEA

Arrazoiak: uda honetan, Herriko festak zirela (Uztailak 14 ing.), herriko etxeak bideetan jarritako zenbait ohar eta seinale erdera hutsez jarri izanagatik keza bideratu nehi nioke. (Tartean bada hiru aldiz ondoan jarritako ohar berdina, hiruetan frantses hutsez...).

Dosierra: 702-2023

Nori: UZTARITZEKO HERRIKO ETXEA

Arrazoiak: Oihana garbitzeko egun bat antolatu eta horren komunikazioa frantses hutsez egiten du La Postek. Uztaritzeko Herriko Etxeak babesten duen ekimen horretarako, La Posteri inolako hizkuntza irizpide komunikatiborik ez dio jarri, euskararen bazterketa onetsiz. Eta horrekin batera deialdia epostaz frantses hutsez zabaltzen du.

Dosierra: 854-2023

Nori: BIARRITZEKO HERRIKO ETXEA

Arrazoiak: Biarritzeko hiria ezagutzeko plantan ezarri "Autoguides" zerbitzua frantsesez, gaztelaniaz, alemaneraz eta ingelesez eskaintzen du. Euskaraz ez! Eskaintza aktiboa egin behar da gutxitutako hizkuntza den euskararen erabilpena sustatzeko. Biarritzeko Herriko Etxeari gure hizkuntzaren presentzia bermatu dezan eskatu nahi diot.

BAIONAKO HERRIKO ETXEA (3)

Dosierra: 128-2023

Nori: BAIONAKO UDALA - BAIONAKO HERRIKO ETXEA - BAIONAKO HERRIKO ETXEA

Arrazoa: Hondakinen bilketa selektiboari loturiko argibide eskuorria etxean eskuratu berri dut (ikus loturik), erdara hutsez. Auzapezak sinaturiko testu hau euskaraz errezibitu nahi nuke.

Dosierra: 312-2023

Nori: BAIONAKO UDALA - BAIONAKO HERRIKO ETXEA - BAIONAKO HERRIKO ETXEA

Arrazoa: Herriko Etxetik gutun bat heldu zaigu etxera, herritik Tourra igaroko denez karririk moztuko dituztela azalduz eta horren inguruko informazioa emanaz. Gutuna erdara hutsean heldu da eta ez da euskarazko bertsiorik. Atxikirik irudiak.

Dosierra: 857-2023

Nori: BAIONAKO UDALA - BAIONAKO HERRIKO ETXEA - BAIONAKO HERRIKO ETXEA

Arrazoa: Baionako Herriko Etxeak desgaitasuna duten pertsonetikiko sentsibilizazio kanpaina antolatu du. Horren baitan dauden ekimenak iragartzeko informazio guztia eta kartel hau ere frantses hutsean daude (webgunean euskara hautatu arren, frantses hutsean agertu izanen da informazioa).

NAFARROA GARAIKO UDALAK (22)

Dosierra: 37-2023

Nori: BARAÑAINGO UDALA - LAGUNAK BARAÑAINGO UDAL ZERBITZUA -

Arrazoa: Lagunak-eko kirolaren gala egin zen azaroaren 29an Barañaingo Auditorioan. Bertan 2022 urtean Lagunakeko kirol-sailetan nabarmendutako kirolariei sariak eman zizkieten. Euskararen erabilera hutsaren hurrengoia izan zen (abesti bat euskaraz, alkateak soilik zorionak hitza eta aurkezleek arratsalde on, aupa neskak, zorionak eta esku pilota atalaren aurkezpena. Gainerako guzti-guztia ez genuen euskaraz entzun.

Dosierra: 221-2023

Nori: LAKUNTZAKO UDALA

Arrazoa: Lakuntzako Udala obrak egiten ari da hainbat kale itxita daude trafikoarendako herri erdigunean. Kale mozketa horien berri ematen dituen bide-seinale eta kartelak gaztelania hutsean daude.

Dosierra: 229-2023

Nori: ZIZUR NAGUSIKO UDALA

Arrazoa: Zizur Nagusiko Udalaren twitter kontutik mezu hau zabaldu zuten martxoaren 21ean herritarrok aplikazio bat erabiltzera animatuaz, baina aplikazio horretako afixa guztiak gaztelaniaz daude eta ezin dezakegu euskaraz erabili.

Dosierra: 356-2023

Nori: EUGIKO KONTZEJUA

Arrazoa: Eugiko Kontzejuak duen webgunea <https://www.eugi.es/> eta haren euskarazko bertsioa ere <https://www.eugi.es/eu.html> gaztelania hutsean daude. Euskara errespetatu, dagokion tokia eman eta webgunearen euskarazko bertsioa martxan jarri dezatela eskatzen dut.

Dosierra: 364-2023

Nori: EGUESIBARKO UDALA

Arrazoa: Eguesibarko Udal Musika Eskolara eraman nuen izen-ematearen fitxa, semea datorren ikasturtean bertan sartu ahal izateko. Aldez aurretik udalaren webgunetik fitxa deskargatu eta betetzera joan nintzenean fitxa bera ia guztiz ele bitan egon arren, matrikulazio hizkuntza aukerarik galdetzen ez zuela ikusi nuen. Musika Eskolara deitu nuen eta sarrerako langileak (uste dut administraria dela) esan zidanez, ez da euskarazko zerbitzurik eskaintzen. "Irakasle pare batek euskaraz badakitela eta klase batzuk euskañolez (sic) egiten dituztela" adierazi zidan, baina "toki faltagatik ezin dela euskarazko talderik eskaini". Badakit langile honek ez duela egoeraren ardura, baina erantzun hori onartezina iruditzen zitzaidala esan nion. Eskatzen dut egoera honi buelta eman eta Eguesibarko Musika Eskolan euskarazko eskaintza abiatzea. Gaineratu nahi dut, testuingurua kontuan hartzeko, udalaren euskararekiko jarrera oso eskasa dela. Kolean euskararekin lotutako edozein ekitaldi antolatu nahi izanez gero, normalean oztupoak baino ez dituzte jartzen, euskara teknikaririk gabe gaude (gaixotasun larri bat dela-eta tarteka bajan egon izan da eta dago epe luzez)... baina batez ere, duela hamar urte onartutako euskararen ordenantza bat bada kasu gehienetan errespetatzen ez dena.

Erantzunak:

Arartekoa: Udalak zehazki ondorengo erantzun zuen Arartekoaren bidez: "Azken plantilla organikoaren arabera (NAO 251, 2021/11/2) Musika Eskolako irakasle lanpostuetako bat bera ere ez da nahitaezko eskakizunetako. Kirol arloan dagoen lanpostu bakarrak (kirolen koordinatzailea) ere ez du derrigorrez ezarrita euskararen ezagutza. Inguruabar horien ondorioz, gerta daitezkeen beste batzuk gorabehera, ezinezko da euskarazko prestakuntza-eskaintza egitea". Euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen udal ordenantzari dagokionean, erantzuten du onartu zenetik gaur egun arte ez dela inolako azterlanik egin (eta horren ondorioz, ez dela ezagutu ere egiten euskarazko musika irakaskuntza eskaintzeko behar besteko eskaerarik dagoen. Udalak gaineratzen du, ordenantza onartu zenetik udal talde edo kolektibo bakar batek ere ez duela horrelakorik bultzatu, eta horrek nolabait agerian uzten duela interesik eta eskaririk eza. Euskarazko kirol jardueri dagokionez are argudio lotsagarriagoa ematen dute

udaletik: Kirol eskariari erantzuten zaiola, jarduera horiek eskatzen dituen biztanleriaren hizkuntza edozein dela ere; beraz, euskal hiztunen eskaria ere kontuan hartzen dela. Hau da, ordenantzak ezartzen duenez euskal hiztunen eskaerari erantzun behar zaiola, udalak interpretatzen du euskaldunei ere eskaintzen zaizkiela kirol jarduerak eta horrek betetzen duela ordenantzak esaten duena, ordenantza bera kirol eskaintzari buruzkoa balitz bezala eta ez euskarari buruzkoa (a ze aurpegia duten). Eta beraz, udalak esaten du ez dela ordenantza urratzen. Horren aurrean, udalak argudiatzen dituenak bidezkoak ez direla eta neurriak hartzeko arartekoak neurriak gomendatzea lortu dugu (ongi iruditzen bazaizu gai hau sare sozialetatik ere zabalduko dugu eragin handiagoa izan dezan eta beste herri batzuetan ere mugitu dezaten gaia). Zehazki ondorengoak aipatzen ditu Nafarroako Arartekoak: -Ordenantzaren aplikazioari dagokionean, “udalak ia hamarkada bat izan du 25. Artikuluan eskatutako urratsak emateko, eta toki erakundeak igorri duen txostena kontuan hartuta, ondorioztatu daiteke ez duela bat ere eman”. -Kirol eskaintzari dagokionean, “Ordenantzaren berriazko helburua udalerrian euskararen erabilera eta sustapena arautzea da eta, hori kontuan hartuta, kirol-eskariaren eta jarduera horretan arreta eskaintzeko hizkuntzaren arteko bereizketa artifiziala da. Bereizketa hori onargarria izango litzateke udalerriko kirol-jarduerak arautzen dituen ordenantza balitz, baina kontuan hartuta udalerrian hizkuntza baten erabilera eta sustapena arautzeko ordenantza dela, zalantzarik gabe elementu linguistikoek ematen diote berezitasuna. Beraz, ondorengo gomendioak eman dizkio Arartekoak Eguesibarko Udalari: -Beharrezko azterlanak egiteko eta urratsak emateko bidezko neurriak har ditzala Udal musika eskolan euskarazko prestakuntza jaso daitekeela ziurtatzeko. -Udal kiroldegian euskarazko ikastarorik eskaintzen ez den heinean, baliteke euskal hiztunen balizko kirol eskaerari behar bezala erantzuten ez egotea, hau da, ordenantzaren 26. Artikuluak eskatzen duen bezala. Horregatik udalari gomendatzen zaio udal kiroldegian euskarazko kirol jardueren balizko eskaerari erantzun ahal izateko neurriak hartzea.

Nafarroako Arartekoa: udal honek, datorren ikasturteari begira, matrikulazio-eparearen barruan, bitartekoak jarriko ditu balizko erabiltzaileek euskara nahi duten adieraz dezaten, eskariaren eta aukeren arabera, eskaera horri erantzuteko ahal diren neurriak hartzeko.

Dosierra: 376-2023

Nori: ITZAKO UDALA

Arrazoiak: Itza zendeako Udalak webgunea gaztelania hutsez dauka oraindik: <http://www.municipiodeiza.es/> Itza zendeako herritarrek udal informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea dugu. Noizko euskaraz?

Dosierra: 391-2023

Nori: EGUESIBARKO UDALA

Arrazoiak: Eguesibarko Udalaren kirol eskaintzan ia dena gaztelaniaz dugu, futbol talderen bat eta haurrentzako ikastaroren bat izan ezik, ia dena gaztelaniaz eskaintzen dute. Udalak ez al du euskarazko kirol eta aisirako eskaintza egiteko betebeharririk?

Erantzunak:

Arartekoa: Udalak zehazki ondorengo erantzun zuen Arartekoaren bidez: “Azken plantilla organikoaren arabera (NAO 251, 2021/11/2) Musika Eskolako irakasle lanpostuetako bat bera ere ez da nahitaezko eskakizunekoa. Kirol arloan dagoen lanpostu bakarrak (kirolen koordinatzailea) ere ez du derrigorrez ezarrita euskararen ezagutza. Inguruabar horien ondorioz, gerta daitezkeen beste batzuk gorabehera, ezinezko da euskarazko prestakuntza-eskaintza egitea”. Euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen udal ordenantzari dagokionean, erantzuten du onartu zenetik gaur egun arte ez dela inolako azterlanik egin (eta horren ondorioz, ez dela ezagutu ere egiten euskarazko musika irakaskuntza eskaintzeko behar besteko eskaerarik dagoen. Udalak gaineratzen du, ordenantza onartu zenetik udal talde edo kolektibo bakar batek ere ez duela horrelakorik bultzatu, eta horrek nolabait agerian uzten duela interesik eta eskaririk eza. Euskarazko kirol jarduerari dagokionez are argudio lotsagarriagoa ematen dute udaletik: Kirol eskariari erantzuten zaiola, jarduera horiek eskatzen dituen biztanleriaren hizkuntza edozein dela ere; beraz, euskal hiztunen eskaria ere kontuan hartzen dela. Hau da, ordenantzak ezartzen duenez euskal hiztunen eskaerari erantzun behar zaiola, udalak interpretatzen du euskaldunei ere eskaintzen zaizkiela kirol jarduerak eta horrek betetzen duela ordenantzak esaten duena, ordenantza bera kirol eskaintzari buruzkoa balitz bezala eta ez euskarari buruzkoa (a ze aurpegia duten). Eta beraz, udalak esaten du ez dela ordenantza urratzen. Horren aurrean, udalak argudiatzen dituenak bidezkoak ez direla eta

neurriak hartzeko arartekoak neurriak gomendatzea lortu dugu (ongi iruditzen bazaizu gai hau sare sozialetatik ere zabalduko dugu eragin handiagoa izan dezan eta beste herri batzuetan ere mugitu dezaten gaia). Zehazki ondorengoak aipatzen ditu Nafarroako Arartekoak: -Ordenantzaren aplikazioari dagokionean, "udalak ia hamarkada bat izan du 25. Artikuluan eskatutako urratsak emateko, eta toki erakundeak igorri duen txostena kontuan hartuta, ondorioztatu daiteke ez duela bat ere eman". -Kirol eskaintzari dagokionean, "Ordenantzaren berariazko helburua udalerrian euskararen erabilera eta sustapena arautzea da eta, hori kontuan hartuta, kirol-eskariaren eta jarduera horretan arreta eskaintzeko hizkuntzaren arteko bereizketa artifiziala da. Bereizketa hori onargarria izango litzateke udalerriko kirol-jarduerak arautzen dituen ordenantza balitz, baina kontuan hartuta udalerrian hizkuntza baten erabilera eta sustapena arautzeko ordenantza dela, zalantzarik gabe elementu linguistikoek ematen diote berezitasuna. Beraz, ondorengo gomendioak eman dizkio Arartekoak Eguesibarko Udalari: -Beharrezko azterlanak egiteko eta urratsak emateko bidezko neurriak har ditzala Udal musika eskolan euskarazko prestakuntza jaso daitekeela ziurtatzeko. - Udal kiroldegian euskarazko ikastarorik eskaintzen ez den heinean, baliteke euskal hiztunen balizko kirol eskaerari behar bezala erantzuten ez egotea, hau da, ordenantzaren 26. Artikuluak eskatzen duen bezala. Horregatik udalari gomendatzen zaio udal kiroldegian euskarazko kirol jardueren balizko eskaerari erantzun ahal izateko neurriak hartzea.

Nafarroako Arartekoa: Udalak eskaintzen dituen kirol jardueretarako, bitartekoak jarriko dira balizko erabiltzaileek adieraz dezaten ea euskaraz egin nahi duten, eskariaren, osatzen diren jarduerataldeen eta aukeren arabera, eskaera horri erantzuteko ahal diren neurriak hartzeko".

Dosierra: 407-2023

Nori: BERRIOBEITIKO UDALA

Arrazoiak: Maria de Maeztu Kultur etxean argazki erakusketa bat dago. Argazkien azalpenak erdaraz bakarrik daude. Atxikirik erakusketaren irudi bat.

Dosierra: 417-2023

Nori: ANTISOAINGO UDALA

Arrazoiak: Antsoaingo Udalak, 2023-2024 urterako kirol jardueren berri eman du. Bertan, zein kirol eskaintza egiten den eta zein hizkuntzatan izango den adierazten da. Kirol jarduera asko, adin batetik aurrera, ez dira euskaraz eskaintzen. Badira bi kirol gainera (futbola eta saskibaloia*) -Gazte Berriak bitartez eskaintzen dituen Udalak-, adierazten ez dutena zein hizkuntzatan izango diren. Behin baino gehiagotan esan zaio Udalari hori egiteko; konpromisoa hartu izan duen arren, entzungor jarraitzen du. *Erdaraz izan ohi dira, baina hasieratik argi eta garbi adierazi beharrean zein hizkuntzatan eskainiko diren; jendeak, izena eman eta gero jakiten du erdaraz direla: entrenatzailea euskalduna ez delako; haur ez-euskaldunek ere izena eman dutelako;.....betikoa.

Dosierra: 421-2023

Nori: ZIZUR NAGUSIKO UDALA

Arrazoiak: Ekainean kultur etxean egingo den entzunaldirako entseguen egutegia, komunikazio ofiziala, gaztelera hutsean jaso dugu.

Erantzunak:

Euskara teknikaria: Dosierreko edukia irakurri, gutunaren edukia transkribatu eta itzuli egin dugu (erantsita dokumentua) eta Musika Eskolako zuzendaritzari bidali diogu, kexarekin batera, galdetuz ea zuzena ote den. Zuzendariak baieztatu dit hala dela, gaztelaniaz bidali zela, eta nola gertatu den azaldu du. Horrekin batera, batetik, aurreratu dit gaur arratsaldean bertan bidaliko dietela familiei berriro ere mezua eta, bestetik, langileei birgogoratuko diela euskarari dagokion araudia eta legedia. Azkenik, eskerrik asko bereziki guraso horri.

Dosierra: 431-2023

Nori: EUGIKO KONTZEJUA

Arrazoiak: Eugiko Burdinazko Munizio Errege-fabrikaren inguruan jarrita dauden afixetan euskarazko testuek akats ugari dituzte, argazkikoan ikus daitekeen bezala.

Dosierra: 680-2023

Nori: BARAÑAINGO UDALA

Arrazoa: Barañaingo Udalaren webgunean 2023ko udalekuei dirulaguntzak emateko oinarri-arauemailei buruzko berrian, <https://www.baranain.es/eu/noticias/oinarri-arauemaileak-2023ko-udalekuei-dirulaguntzak-emateko-2/> , aurkeztu beharreko inprimakien estekak daude. Horietako bat, Transferentzia bidezko ordainketa eskaera izenekoa, ez dago euskaraz. Webgunean bada Herritarren karpeta izeneko atala. Bertan ere aipatu inprimakia bilatu dut, baina ez dut aurkitu. Halabeharrez inprimakia gaztelaniaz aurkeztu behar izan dut.

Dosierra: 683-2023

Nori: BARAÑAINGO UDALA

Arrazoa: Barañaingo Lagunak Udalaren Kirol Zerbitzuaren webgunearen euskarazko bertsioan sartu eta euskaraz egin dut alabaren izen-ematea abiadura irristaketan. Bada, e-posta bidez jaso dudun egiaztagiria ez dago euskaraz; bete beharreko atalen izenak gaztelaniaz ageri dira. Inprimakia euskaraz bete badut, egiaztagiria ere euskaraz jaso nahi dut!

Dosierra: 685-2023

Nori: BARAÑAINGO UDALA

Arrazoa: Barañaingo Udalak 2023-2024 ikasturterako kirol programa anitza prestatu du; bai haur, bai gazte eta heldu eta bai adinekoendako hamarnaka kirol jarduera antolatu ditu. Bada, horietatik bakarra egiten ahalko da euskaraz.

Dosierra: 689-2023

Nori: BARAÑAINGO UDALA

Arrazoa: Barañaingo Udalak aurtengo ikasturterako kirol edo kultura jardueretan izena emateko on-line den plataforma paratu du martxan. Bada, plataforma ez dago euskaraz eta ondorioz, bai plataforman nola jardueran izen-emateak halabeharrez gaztelaniaz egitera behartuta gaude euskaraz egin nahi dugunok.

Dosierra: 769-2023

Nori: TAFALLAKO UDALA

Arrazoa: Tafallako udaletxeko erakusleihan azaltzen diren iragarpenak ez daude euskaraz.

Dosierra: 778-2023

Nori: ANTSOAINGO UDALA

Arrazoa: IDAKIk helduentzat ez du euskarazko jarduera bakar bat ere eskaintzen.

Erantzunak:

Antsoaingo alkatea: Gure aldetik, erreklamazioak dioena gezurtatu gabe, uste dugu hainbat zehaztapen egin behar zaizkiola: - Ikasturte hasieran helduentzako kirol jardueren eskaintza egiten denean, ez da zehazten gaztelaniaz ala euskaraz izanen den; gero, taldeak osatzen direnean, partaideen arabera baloratzen da erabileraren hizkuntza, eta gehienetan gaztelania da nagusi. - Aurten jarduera konkretu batean, "indarra helburu" izenekoan, 9 partaidetik 8 euskaldunak dira eta irakaslea ere bai; beraz, jarduera gehiena euskaraz egiten da. Horretaz landa, azaldu nahi dugu, Antsoaingo egoera soziolinguistikoa, erabiltzaileen ordutegien eskaera eta lokalaren dimentsioak kontuan hartuta, ez dela erraza hizkuntzen araberako banaketa bat egitea. Hala ere, Udalean eta IDAKI enpresa publikoan kontziente gara gure auzokideen hizkuntz eskubideez, eta asmoa dugu ahal dugun neurrian eskaintza egiteko. Horregatik ikasturte honetan zehar azterketa eta balorazio bat egin nahi dugu datorren ikasturteari begira, gure eskaintza, neurri batean bederen, euskaraz ere egiteko. Gure ustez, kirol arloan euskararen normalizazioaren aldeko urrats bat emateko, herritarren erantzuna zein izanen den ongi aztertu behar da, bestela aurrerapen bat bezala eskaintzen dena, euskararen kontra jotzeko erabil daiteke arlo politikotik, balizko eskaintzak herritarren aldetik erantzunik ez badu. Beraz, kontuan hartzen dugu aholkua eta hobetzeko lanean jartzen gara.

Dosierra: 809-2023

Nori: EGUESIBARKO UDALA

Arrazoa: Sarrigurengo Nafarroako etorbidea eta Badoztain kaleen arteko bidegurutzeko semaforoan ibilgailuen abiadura kontrolatzeko dagoen gailua gaztelania hutsean dago. Arriskuaz ohartarazten du ibilgailuek gehiegizko abiadura

hartzen dutenean, eta zoriondu abiadura egokia denean. Mezu guztiak gaztelania hutsean agertzen dira. Oso gaizki.

Dosierra: 892-2023

Nori: ANTSOAINGO UDALA

Arrazoiak: Udalak kirol batzordera gonbidatu gaitu hainbat eragile eta kirol elkarte. Azalpena eta azalpenerako erabilitako power point-a erdara hutsez izan dira.

Dosierra: 940-2023

Nori: ORKOIENGO UDALA

Arrazoiak: Azaroaren 29an Orkoiengo Udalak Euskararen Ordenantza aldatzeko prozesua martxan jarri zuen. Egiten duten proposamen berria aurrekoa baino atzerakoiagoa da eta ez du Orkoiengo herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzearekiko inongo bermerik ezartzen. Orkoiengo Udalarari atzerapausorik eman ez dezan eskatu nahi diot.

Dosierra: 963-2023

Nori: ANTSOAINGO UDALA

Arrazoiak: Gaur, igeriketa ikastaroa izan du alabak. Euskarazko taldeko monitorea ez da egon, ez dute ordezkorik jarri, eta erdarazko taldearekin batera jarri dute (honen inguruan gainera ez gaituzte aurretik informatu, eta ostean ere ez). Euskarazko taldean emana dugu izena.

Dosierra: 974-2023

Nori: ANTSOAINGO UDALA

Arrazoiak: Gure herrian, gabonetan, 0 antzezlan, kontzertu, ipuin kontalari euskaraz.

Erantzunak:

Antsoaingo alkatea: Eguberrietako kultur jardueren zerrenda eta jarduera bakoitzari dagokion hizkuntz erabilera honako hau izan zen: • Abenduaren 24a: Olentzero, kale kabalkada da eta bukaeran bakarrik erabiltzen da hitza, Olentzeroaren mezua zabaltzeko. Mezua euskaraz eman zen. • Abenduaren 27a: “Fantasía con Burbujas”, antzezpena, gehien bat ikuskizun bisuala da, hitz gutxiarekin. Gaztelaniaz. • Abenduaren 29a: “Teatro para bebés”. Lehen haurtzarorako esperientzia sensoriala da, poesia bisualez eta zuzeneko musikaz.

Ez du hitzik. • Urtarrilaren 3a: Zirkua. Agendaz gaztelaniaz zela iragarri zen, hala ere ez zen hitzen erabilerarik egin eta zirkoko pieza guztiak testurik gabe ziren. • Urtarrilaren 5a: Errege Magoak, kale kabalkada da eta hitza hasieran (alkatearen aldetik) eta bukaeran erabiltzen da. Bi une horietako mezuak elebiz eman ziren. Beraz, agendako bost jardueretatik bi elebiz, bi hitzik gabe eta bat gaztelaniaz izan ziren. Horretaz landa, Euskara Zerbitzuak “Hiri-tailerrak” antolatu zituen Antsoaingo haurrei zuzenduak: 28 hurrek, 3 eta 8 urte bitartekoak, parte hartu zutela. Tailerrak zortzi egunez ospatu ziren, bi asteetan (abenduak 26-29 eta urtarrilak 2-5), “Galtza gorriak” langaitzat hartuz. Euskara hutsez burutu ziren. Gure iritziz, 2023-24ko Eguberrietan udal jardueren hizkuntz politika egokia izan da udal honen helburu soziolinguistikoen ikuspegitik.

IRUÑEKO UDALA 2023 (33)

Dosierra: 32-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - Alkatetza -

Arrazoa: 2022ko abenduaren 19an ondorengo deialdiak argitaratu zituen Iruñeko Udalak aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuen barruan, gehienetan euskararen ezagutza ez zen kontuan hartu eta gutxi batzuetan merezimendu txiki bat izan arren, puntu guztiak lor zitezkeen euskararen ezagutza akreditatu gabe: -Ofizial administrarien lanpostu bat. Euskara ez zen kontuan hartu. -Gizarte enpleguko ofizialaren lanpostu bat (ibai-parkearen lorezaintza eta mantentze lanak). Euskara ez zen kontuan hartu. -Zuzenbidean lizentziadunen lanpostu bat. Euskara ez zen kontuan hartu. -Estrategiako eta proiektuetarako goi-mailako teknikarien 2 lanpostu. B2 mailako ingelesa edo frantsesa eskatzen dira, euskara ez zen kontuan hartu. -Turismoko zerbitziburuen lanpostu bat. B2 mailako ingelesa edo frantsesa eskatzen dira, euskara ez zen kontuan hartu. -Aparkalekuetako zerbitziburuen lanpostu bat. Euskara ez zen kontuan hartu. -Kimikako Ingeniari Teknikoaren lanpostu bat. Euskara ez zen kontuan hartu. -Administrari laguntzailearen 4 lanpostu. euskara ez zen kontuan hartu. -Gizarteratzeko goi-mailako teknikariaren 2 lanpostu. Euskararen balorazioa %0,5 eko soilik izan zen eta puntu guztiak lor zitezkeen euskararen ezagutzarik gabe. -Lorezaintzako erdi-mailako tituludunaren lanpostu bat. Euskara ez zen kontuan hartu. -Gizarteratzeko Goi Mailako Teknikarien 229 lanpostu. Horietatik 17tan euskararen balorazioa %0,5ekoa izan zen, baina puntu guztiak lor zitezkeen euskararen ezagutza akreditatu gabe. Beraz, 212 lanpostutan euskara ez zen ezta merezimendu izan. Lanpostu guzti horiek euskararen ezagutza kontuan izan gabe egonkortzeak, etorkizunean ere udalaren zerbitzu publikoak euskaraz jaso ahal izatea oztopatuko du.

Dosierra: 58-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - KULTURA ALORRA

Arrazoa: Informazioa horrela dago Zitudelako erakusketa batean. Euskaraz irakurtzeko gogoia kentzen du.

Dosierra: 83-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - KULTURA ALORRA

Arrazoa: Alaba Buztin-txuria izeneko tailer batean izena eman zuen eta ateratzear zirela, hezitzailea erdaraz sumatu nuen. Behin handik irtenda, eta alabari deus galdegin gabe, hezitzailea batzuetan erdaraz aritu zela aipatu zigun. Bertan ginenez, hezitzailearekin hitz egitera abiatu ginen, eta baieztatu egin zigun, ikasle bat etorri ohi zela, erdalduna. Gu harri eta zur geratu ginen. Civivoxetako ikastaroetan aldez aurretik izena eman beharra dago eta argi ageri da hizkuntza. Bertan, kexu orria idatzi genuen eta emailaz erantzuna jaso ere. Batetik, barkamena eskatu, eta bestetik, hemendik aurrera izen emateak kontrolatuko dituztela aipatuz. Bukaeran baina, hezitzaileek batzuetan behartuta ikusten dutela euren burua erdaraz aritzera. Erantzun honekin ez gara konforme geratu eta beste email bat bidali genuen, baina honen erantzunik ez. Hauxe gure bigarren emaila: Beraz, eskatzen diogu Iruñeko Udalari eta Sedena enpresari tailer horretan aritzen diren hezitzaileen formakuntza euskararen erabileraren inguruan. Bestetik, sarrerako langilearen tratua momentu oro errespetuzkoa eta gure egoerarekin erabat ados, egon arren, erdara hutsean izan zen.

Dosierra: 92-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - Alkatetza -

Arrazoa: Urtarrilaren 26an "Joaquín Maya" musika eskolan hainbat espezialitartetako irakasle lanpostuak aldi baterako betetzeko deialdiak atera ziren. Deialdi guzti hauetan, euskararen ezagutza ez da kontuan hartzen (ez da nahitaezkoa ez eta puntuagarria), beraz, ezingo da bermatu musika eskolako irakaskuntza euskaraz jaso ahal izatea. Ondorengoak izan ziren deialdiak: - Txistuko espezialitaterako irakasle lanpostua. -Bateriako espezialitaterako irakasle lanpostua. -Kontrabaxuko espezialitaterako irakasle lanpostua. -Flautako espezialitaterako irakasle lanpostua. -Biolontxeloko espezialitaterako irakasle lanpostua.

Dosierra: 106-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - KULTURA ALORRA

Arrazoa: Iruñeko Udalaren "Civibox"-etako kultur eskaintzaren barnean, otsaileko 61 jardueretatik 4 soilik eskaintzen dira euskaraz eta 4 horiek haur edo familiei zuzendutakoak dira. Martxoko 87 jardueretatik, 7 soilik dira euskarazkoak eta hor ere denak familia edo haurrei zuzendutakoak dira. Iruñeko Udalak kultura gaztelaniaz kontsumitzera kondenatu nahi gaitu.

Dosierra: 148-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - BERDINTASUN ALORRA

Arrazoa: Iruñeko Udalak, emakumeendako jarduera ezberdinak antolatu ditu martxoa-ekaina bitarte. 36 jarduera gaztelaniaz izango dira, 2 ele bitan eta 5 soilik euskaraz. Euskara gure hiriko berezko hizkuntza izanik, gutxienez jarduera kopuru berdina eskaini beharko litzateke euskaraz eta ezinezkoa izango balitz (adibidez jarduera zuzenduko duenak gaitasunik ez duelako), Udalak interpretazio zerbitzua edo bestelako medioak (entzungailuak...) eskaini ahalko lituzke. Euskaraz bizi garen emakumeak, gutxiago izan edo ez eskubide eta aitortza berbera izan beharko genuke.

Dosierra: 260-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - Alkatetza -

Arrazoa: Iruñeko Udalaren "Pamplonistas" kanpainaren hizkuntza banaketa salatu nahi dut. Toki honetan 3 kartel gaztelaniaz eta bakarra dago elebiz. Elebiz diot, leloa eta irudietako hizkuntza gaztelaniaz baitaude euskaraz suposatzen den horretan. Iruñeko Udaleko Euskara Ordenantza betetzea eskatzen dut eta euskarari gaztelaniari ematen zaion toki eta aukera berberak ematea eskatzen dut.

Erantzunak:

Alkatezako goi-mailako tituluduna: Zehazki, udal publizitatean euskararen erabilera arautzen duen Ordenantzak euskarazko publizitatearen % 25 derrigorrezkoa dela jasotzen du, eta portzentaje hori % 20ra jaisten da berezko komunikabideak erabiltzen direnean. Publizitate-kanpaina hori prentsan, prentsa digitalean eta Iruñeko Udalak hirian dituen publizitate-euskarri propioetako batzuetan (zehazki, bi edikulu edo aparkalekuetarako sarbideak eta 19 mupi) iragarkiak jartzean datza. Euskarari buruzko Ordenantza betez, aparkalekuko

edikulu edo sarreretako lekuaren % 28,57 euskaraz errotulatu zen (2 7 aurpegitatik). Era berean, gai honetan interesa duen pertsonak adierazi ez duen arren, kanpaina iragartzeko erabili ziren mupietako 26,32 euskaraz jarri ziren (19 mupietatik 5).

Dosierra: 266-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - Alkatetza -

Arrazoa: Martxoan Iruñeko Udalak hainbat lan deialdi egin zituen: - Zuzenbidean lizentziadunen 6 lanpostu oposizio bidez betetzeko. (NAO, 2023-03-09). Euskara ez da kontuan hartzen. - Udaltzaingoko inspektoreordeen 13 lanpostu eta agente lehenen 14 lanpostu. (NAO, 2022-03-09). Berariazko lehiaketan, euskararen puntuazioa: 2'5 puntu 80 puntutik (% 3'13). Puntu guztiak lor daitezke euskaraz jakin gabe. Lehiaketan, euskarazko puntuazioa: 2'5 puntu 53tik (% 4'72). Puntu guztiak lor daitezke euskaraz jakin gabe. - Udaltzaingoa 8 inspektore lanpostu betetzeko. (NAO, 2022-03-16). 6 lanpostu beteko dira kategoriaz igotzeko lehiaketaren bidez (euskararen balorazioa: % 1'65, 302'5 puntutik 5). 2 lanpostu beteko dira oposizio bidez, euskara kontuan hartu gabe. Deialdi hauekin euskarazko harremanak oztopatzen dira. ZERREDAK OSATZEKO LAN DEIALDIAK: ZORTZI IZAN ZIREN -hiru izangai-zerrenda hautapoben bitartez osatzeko, babes zibileko laguntzaile lanpostuan aldi baterako kontratu bidez aritze aldera. (NAO, 2023-03-09). Euskara ez da kontuan hartzen. Hiru zerrenda dira eta batean beharrezkoa da ingelesez jakitea. - Izangai-zerrenda bat hautapoben bitartez osatzeko, musika irakasle lanpostuan, bonbardino-tuba espezialitatean, aldi baterako kontratu bidez aritze aldera, Joaquín Maya Musika Eskola Berezian gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira. (NAO, 2022-03-09). Euskara ez da kontuan hartzen. -Izangai-zerrenda bat hautapoben bitartez osatzeko, musika irakasle lanpostuan, kantuko espezialitatean, aldi baterako kontratu bidez aritze aldera, Joaquín Maya Musika Eskola Berezian gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira. (NAO, 2022-03-09). Euskara ez da kontuan hartzen. -Izangai-zerrenda bat hautapoben bitartez osatzeko, musika irakasle lanpostuan, fagot espezialitatean, aldi baterako kontratu bidez aritze aldera, Joaquín Maya Musika Eskola Berezian gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira. (NAO, 2022-03-09). Euskara ez da kontuan hartzen. Deialdi hauekin euskarazko harremanak oztopatzen dira. Gainera, Musika Eskolan euskarazko lerroak sortzea galarazten da.

Dosierra: 267-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - HEZKUNTZA ALORRA

Arrazoa: 2023. urteko Iruñeko Haur Eskoletako Plantilla Organikoa behin betiko onespena. (NAO, 2023-03-27). 245 lanpostu dira; horietatik euskarazko profilarakin 53 (% 21'63) eta euskararik gabeko ingelesezko profilarakin 53 (% 21'63). Orotara, ingelesezko profileko lanpostuak: 85 dira (% 34'69). Egoera honekiko kexa egin nahiko genuke, horrek euskarazko hezkuntza auzo guztietan zabaltzea ekidingo duelako. Haur Eskoletako hezitzaile eta zuzendari lanpostu guztietan euskaraz jakitea ezartzea da haur guztiei beraien gertueneko zentroan euskarazko haur eskola bermatzeko modua eta hori islatu behar da Plantilla Organikoan.

Dosierra: 287-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - HIRIGINTZA ALORRA

Arrazoa: Iruñeko Urederra kalean jarri duten bide-seinalean "Iarumbata" ageri da euskarazko testuan. Zuzentzea eskatzen dut.

Dosierra: 347-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - Alkatetza -

Arrazoa: Maiatzaren 4ean Iruñeko Udalak iragarki hau argitaratu zuen Diario de Noticias komunikabidean. Hiriko hizkuntza den euskara ez da inondik ageri.

Dosierra: 415-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - MUGIKORTASUN ALORRA

Arrazoa: Iruñeko Udalak Arantzadiko ingurunean jarri duen trafikoko seinalean akatsez josita dago euskarazko testua: "ibilgaitu baimenduak", "geldialdi gehienez"... Gainera eremuan egin daitekeen geldialdia 20 minutukoa da gaztelaniazko testuan eta 15 minutukoa euskarazkoan. Ze ganora eskasa erakusten duen Iruñeko Udalak euskal hitzunikiko

Dosierra: 477-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA – KULTURA

Arrazoa: ekaineko Iruñeko Udaleko Civibox-etako eskaintza kulturean, 24 jarduera baino gehiago azaltzen dira. Den -denak gaztelania hutsean, baita hurrei zuzendutako ipuin-kontalaria ere.

Dosierra: 510-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - KULTURA ALORRA

Arrazoa: JuegoRejuego (lehen Birjolastu) jai eremuan, haurrentzako edukiak gaztelera hutsean. Zergatik? Aurreko urteetan ele bitan zeuden. Inguruan ikusten ditudan haurren erdia euskaldunak. Oso gaizki, Iruñeko Udala.

Dosierra: 511-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - KULTURA ALORRA

Arrazoa: Sanferminetako haurrentzako "Menudas fiestas" eta "JuegoRejuego" programek badute euskarazko izen ofiziala: "Hauek festak hauek" eta "Birjolastu", baina Iruñeko Udala tematzen da gaztelaniazkoa soilik erabiltzen, baita euskarazko mezuetan ere.

Dosierra: 540-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - GAZTERIA ALORRA

Arrazoa: Iruñeko gazte baten gurasoa naiz. Iruñeko Udalak gazteendako udako aisialdiaren barruan, ikastaro, lantegi eta bestelakoak antolatu ditu. 55 ekintza eskaintzen ditu baina 6 soilik ditugu euskaraz, informatika tailerren barruan adibidez ez dago euskarazko aukerarik. Gure gazteek eskolatik kanpo aisialdiko aukera izateko eskubidea dute!

Dosierra: 544-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - HIRIGINTZA ALORRA

Arrazoa: Gezurra badirudi ere, Iruñeko euskaldunak ere hil egiten gara. Bizi garela, dagozkion tasak ordaintzen ditugu. Oso zaila al da UDAL HILERRIAko errotuluak euskaraz jartzea?

Dosierra: 555-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - MUGIKORTASUN ALORRA

Arrazoa: Iruñeko Trinitarioetako II. aparkalekuan. Seinale berriak, euskararik gabe.

Dosierra: 557-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - KIROL ALORRA

Arrazoa: Iruñeko Udalak pilota eskolak antolatu ditu aurten Coworkids bidez Iturraman, Sanduzelain eta Alde Zaharrean. Gaztelania hutsean izan zen eskaintza.

Dosierra: 687-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - KULTURA ALORRA

Arrazoa: Hilabete honetan ere, Civivox sareko Iruñeko Udaleko ikastaroen eskaintzak euskara baztertzan du. 306 ikastaroetatik 18 soilik dira euskaraz (%5,88a). 5 frantsesez dira eta beste bi ingelesez. Lotsagarria da.

Dosierra: 761-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - HERRITARREN PARTAIDETZAKO ALORRA

Arrazoa: Iruñeko Udalak hainbat prestakuntza ikastaro eskaini ditu urria-abendura bitarte burutzeko. Argibideetan ez du hizkuntzarekiko ezer ezartzen, beraz, gehienak (edo denak) gaztelaniaz egingo direla esango nuke. <https://participa.pamplona.es/eu/news/prestakuntza-ikastaroak-2023ko-urria-abendua/>

Dosierra: 781-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - HIRI KONTSERBAZIOKO ALORRA

Arrazoa: Iruñeko Zaragoza etorbideetik, Zangotza kalera joateko bidea itxita dago obrak direla eta. Hori iragartzen duen oharra "Carretera cortada por obras" dio, gaztelania hutsean.

Dosierra: 827-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - MUGIKORTASUN ALORRA

Arrazoa: Iruñeko udal auto biltegiko kartelak ele bakarrean daude

Dosierra: 849-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - Alkatetza -

Arrazoa: Azaroaren 2an "Iruña, 2030, hiri-agenda"ren estrategiari buruzko jardunaldiak izan ziren (Iruñeko Udalak eta Espainiako eskubide sozial eta agenda 30en Departamentuak antolatutakoak). Jardunaldi osoa internetetik zuzenean igorri zuten. Hitzartze guztiak gaztelaniaz, euskararen arrastorik ez eta bideoa ere osorik gaztelaniaz eta azpitulurik gabe. <https://www.youtube.com/watch?v=9z4GEDB3pWo>

Dosierra: 859-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - MUGIKORTASUN ALORRA

Arrazoa: Iruñeko Gartzia Ximenez eta Antso Handia kaleen arteko bidegurutzean dagoen seinalean, funtsezko informazioa falta da euskaraz.

Dosierra: 860-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - Alkatetza -

Arrazoa: Iruñeko San Jose hilerrian, sarrerako errotulu nagusia gaztelania hutsean ageri da.

Dosierra: 907-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - KIROL ALORRA

Arrazoa: Osasuna futbol taldearen autobusean Iruñeko Udalak jarri duen iragarkian, hiriaren gaztelaniazko izena soilik agertzen da. Alkatetzan dagoen alderdiak esan du autobus hori estatu espainoletik ibiliko dela eta horregatik ez dutela "Iruña" izena jarri. Onartezina eta legez kanpoko iruditzen zait, hiriaren izen ofiziala "Iruña" ere badelako.

Dosierra: 909-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - GAIARRE ANTZOKIA UDAL FUNDAZIOA

Arrazoa: Urtero, Gabonetan, euskarazko hainbat ikuskizun ikustera joaten gara. Sarrerak bilatzean ikusi dut Gayarren soilik umeentzako 3 antzezlan daudela eta urtarrila bukaeran helduentzako bat.

Dosierra: 931-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA

Arrazoa: Gaztelu plazako Izotz pistako afixak ele bitan... baina gazteleraz eta ingeleraz! Non dago euskara?

Dosierra: 933-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - KULTURA ALORRA

Arrazoa: Iruñeko Belenisten elkarteak ez du euskaraz jakingo, baina udalak bai. Bere ataria utzi behar badie, lagun diezaiela belenaren azalpen testua itzultzen.

Erantzunak:

Lehendakaria: Jakinarazi nahi dizugu Iruñeko Udaleko Atarian jarritako Jaiotzaren testuaren itzulpena Udaleko Kultura Arloaren esku dagoela jada. Beraz, laster ikusiko ahalko dela espero dugu. Itzulpena erantsi dugu, jasota gera dadin. Iruñeko Jaiotzazaleen Elkartetik, pertsona guztien hizkuntza eskubideak errespetatuak izan daitezen saiatzen ari gara eta lanean jarraituko dugu.

Dosierra: 934-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - ZERBITZU OROKORRAK ALORRA

Arrazoa: Iruñeko Udalaren weborriaren euskarazko bertsioan oso modu traketsan ageri dira hainbat atalen izenak: "Berri nabariak", "Interes-loturak".

Dosierra: 943-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - KULTURA ALORRA

Arrazoa: Iruñeko Udalaren Eguberritako programazioa euskarazko webgunetik deskargatu dut: <https://www.pamplona.es/sites/default/files/2023-12/folleto-navidad-2023web.pdf> Agenda agertzen den orrialdea gaztelania hutsean argitaratu dute.

Dosierra: 987-2023

Nori: IRUÑEKO UDALA - HERRITARREN SEGURTASUNEKO ALORRA

Arrazoa: Iruñeko Udaletik, Hiritar Segurtasun Saitetik trafiko isuna jaso dut erdara hutsean. Euskaraz artatua izateko eskubidea aldarrikatzen dut.

KONTZEJUAK (1)

Dosierra: 965-2023

Nori: OSTIZKO KONTZEJUA

Arrazoa: Ostiz herriko kontzejuak gaztelaniaz antolatu du urtero Olentzerori egiten zaion ongietorria

MANKOMUNITATEAK/HERRI ELKARGOAK (8)

Dosierra: 63-2023

Nori: GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA -ANTSOAIN, BERRIOBEITI, BERRIOZAR, ITZAKO ETA TXULAPAIN-

Arrazoa: 2022ko abenduaren 28ko 130/22 Ebazpenaren bidez, atzo urtarrilaren 19an familia-langilea izateko lanpostua betetzeko deialdia argitaratu zuen Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Itza eta Txulapaingo Gizarte zerbitzuen Mankomunitateak. Deialdiaren arabera ez da euskararen ezagutza eskatzen baina herritarrokin lanpostu horrek izango duen harreman zuzena dela eta, nahitaezkoa beharko luke.

Dosierra: 111-2023

Nori: IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA - BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Otsailaren 6ko astean Barañaingo Etxeorratzeko etorbidean lanak egiten ari da Iruñerriko Mankomunitatea eta ezin dela aparkatu dioten oharrak paratu ditu. Oharrak ez daude euskaraz idatzita.

Dosierra: 118-2023

Nori: NUKF - NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOA

Arrazoa: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak bikote egonkorak eratu ahal izateko albistea publikatu du bere webgunean. Albistearekin batera bikote egonkorak eratu ahal izateko hainbat agiri jarri ditu: NUKFk eta Justizia Departamentuak izenpetutako hitzarmena eta udalek hitzarmenarekin bat egiteko idazki erdua. Bi dokumentuak gaztelania hutsean daude. Euskara ofiziala da hainbat udalerritan eta euskaraz funtzionatzen dute. Horregatik agiri horiek euskaraz eskuragarri jartzea eskatzen dugu.

Erantzunak:

Idazkaritza Nagusia: Dosierrean aipatzen diren agiriak, hasiera batean, gaztelaniaz soilik prestatu ziren Federazioan. Bestalde, hitzarmenari helduta, Federazioak ez ditu beste erakundeek helarazitako agiri ofizialak itzultzen. Izan ere, itzulpen prozesuaren ostean, gerta bailiteke agiri horien edukia jatorrizkotik aldendutako beste modu batean ulertua izatea, igorlearen nahiarekin bat ez etorrira.

Hitzarmenari atxikitzeko ereduari dagokionez ordea, dagoeneko euskaraz ere eskuragarri dago aipatu web-orriko albistean bai eta Federazioaren zerbitzuetan ere.

Dosierra: 526-2023

Nori: IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA - BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Espainiako Gobernuak,, Iruñerriko hiri garraioak eta Iruñerriko Mankomunitateak, polizia eta guardia zibilarekin harremanetan jartzeko euskarri hauek jartzen dituzte Villavesetan, gaztelania hutsean nola ez.

Dosierra: 565-2023

Nori: IZARBEIBARREKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN ETA KIROL ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Arrazoa: Izarbeibarko Gizarte Zerbitzuen Manlomunitatearen eskaintzan ez da euskaraz bermatzen inolako jarduerarik, eta, aldi berean, ez da inolako informaziorik ematen zerbait euskaraz dagoen jakin dezagun.

Dosierra: 572-2023

Nori: Ipar Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatua

Arrazoa: Ikusten bezalaxe Txik Txak autobusak bere oharrak frantsesez plazaratzen ditu.

Dosierra: 852-2023

Nori: ORREAGA MUSIKA ESKOLA

Arrazoa: iaz bezala alaba Artikako Orreaga musikan apuntatu genuen pianoa eta musika ikasi dezan, beti ere euskaraz. Baina aurten, (klaseak bitan banatzen dira hots banda batetik eta piano bestetik) bandara joaten deneko klasea erdaraz da. Ikastetxean erantzun digute sentitzen dutela baina irakaslea elebakar erdalduna dela, esan genien guk alaba apuntatu genuela musika euskaraz ikasi dezan. Ikastetxeak proposatu digu erdaraz gure alaba baino hobe moldatzen den ikasle euskaldun baten ondoan jartzea lagundu dezan, baina ez zaigu onargarria iruditzen. Orreaga musika eskolari bandan ere hurrek euskaraz ikasteko eskubidea izan dezaten, egiten duten eskaintzarekiko neurriak har ditzaten eskatu nahi diogu. Garrantzitsua iruditzen zaigu gure haurren heziketa osoan euskaraz ikasteko

aukera bermatzea. D ereduan ikasten duten haurrak, musika heziketa gaztelaniaz jasotzera behartuak ikusten dira.

Dosierra: 855-2023

Nori: IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA - BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Mankomunitateko egoitza elektronikoaren bidez zaborrontziak irekitzeko txartela eskatu dut webgunearen bidez. Horretarako, formulario bat bete behar da. Webgunean euskaraz nabigatzen ari nintzen, baina bete beharreko formularioa gazteleraz dago.

NAFARROAKO PARLAMENTUA (1)

Dosierra: 493-2023

Nori: NAFARROAKO PARLAMENTUA

Arrazoiak: Gaur Nafarroako Parlamentuko 10 administrari lanpostu eta Nafarroako Kontuen Ganbarako beste administrari lanpostu bat betetzeko deialdia argitaratu da. Horietatik Parlamentuko lanpostu bitan soilik eskatzen da euskararen nahitaezko ezagutza. Erakunde horietan lan egin ahal izateko, nahitaezkoa izan beharko litzateke administrari lanpostu guztietan Nafarroako bi hizkuntzen ezagutza.

BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA (10)

Dosierra: 44-2023

Nori: BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA - METRO BILBAO

Arrazoa: Gaur metroa berandu dabilela-eta megafoniatik honako lokuzio hau botatzen ari dira: "[...] zenbait geltokiko itxaronaldia ohi baino luzeagoa izango da [...]". "Zenbait" izena du geltokiren batek ala? Gaztelaniazko bertsioan halakorik ez diote, ba, hau baizik: "el tiempo de espera en algunas estaciones es superior al habitual. Perdonen las molestias [...]". Lokuzioa idatzi duena zein lokuzioa botatzen duena, ez bata ez bestea, ez beste inor, ez dira konturatzen zer esaten ari diren?

Erantzunak:

Marketin Saila: Izan dugu akatsaren berri eta zuzentzeko beharrezko neurriak hartuko ditugu. Trenetako megafoniaren aldatzeak software aldaketa egitea dakar, eta prozedura ez da arina, baina epe laburrean akatsa zuzentzeko lanean ari garela ziurtatzen dizugu. Eskerrik asko zure idatziarengatik,

Dosierra: 46-2023

Nori: BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA - METRO BILBAO

Arrazoa: Gaueko 10ak inguruan, Lutxanako geltokian Metro Bilbaoko segurtasun pribatuko pertsonak sartu eta erdera hutsean (tonu eta bolumen egokian) azaldu zigun umeak ezin zirela lurrean jezarrita joan. Azalpena eskatzean egoki azaldu zigun abalantxa egon ezker, arriskutsua izan daitekeela. Horra arte dena ondo, salbu, erdera hutsean hitz egin zigula. Ia euskaraz ezin zezakeen galdetutakoan, berak (ordu bai oso modu txarrez) esan zigun ez gaudela Errusian eta berak ez duela beharrik euskaraz egiteko, perfektamentian ulertzen geniola. Orduan guk esan genion Euskal Herrian geundela eta halabeharrez, obligatuta, erderaz ulertzea behartuta gaudela, behartuta ikasi behar izan dugula gure bizitzan zehar (oraingoan gure tonu eta bolumena gero eta oldartuagoa izan zen, egiari zor, "ignorante"ka amaitu genuen, hurrengo geltokian jaitsi zen arte). Nire kexa pertsonala ondorengoa da: zerbitzu publiko bat izanik, kontratatutako pertsonalak ERE euskaraz jakin beharko luke eta ez oldartzen ibili hala eskatzen zaionean. Euskararen erabilera edozein eremutan normaldu nahi badugu (eta hala nahi dugu), baldintzak eman beharko dira gure hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

Erantzunak:

Marketin Saila: Barkatu, mesedez, uneren batean tratu onik eman ez zaizula sentitu baduzu. Izan ere, Metro Bilbaorentzat lehentasuna da bezeroei tratu bikaina ematea, zuen konfiantzak ziurtatzen baitu guk lanean jarraitzea. Aipatzen dituzuna bezalako egoeren aurrean, jakinarazi nahi dizugu langile euskalduna ez dagoenean interfonoak dituzula geltokian zehar Aginte Toki Nagusiko langileekin euskaraz harremanetan jartzeko. Era berean, eskura gaituzu Metro Bilbaon hizkuntzen kudeaketaren alorrean egiten ari denari buruzko azalpen gehiago nahi baduzu.

Dosierra: 105-2023

Nori: BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA

Arrazoa: Bizkaiko Garraio Partzuergoaren garraio-txartelen izenak ("Bidai...") ez dira zuzenak, euskaraz "bidaia" hitzak a itsatsia baitu. Hori horrela izanik, eskertuko nizueke izenak zuzenduko bazenituzte, euskaraz zuzen idatzita jarritz.

Erantzunak:

Garraio Partzuergoa: Jakinarazi nahi dizugu Bidai hitza, kasu honetan, 50, 70 zenbakiekin eta ORO hitzarekin konbinatzen dela produktu baten izen komertziala sortzeko. Hori dela eta, ez gara hizkuntza bat erabiltzen ari, ez euskara, ez gaztelania, eta, beraz, ez ditugu arau zehatzak bete behar, hizkuntza komertziala baino ez da eta. Hala balitz, ordea, honela agertuko litzateke hitza euskaraz: 50 Bidaia, 70 Bidaia eta Oro Bidaia, 50 bidaiak, 70 bidaiak edo bidaia guztiak aipatzeko orduan. Barik hitza bera, txartelari dagokionez, izen komertzial bat da, eta euskaraz edo gaztelaniaz duen esanahia gairatzen du; izan ere, izen propio bihurtu da, eta ez soilik txartela baten izen propio, baita ordainketa- eta tarifa-sistema batena ere.

Dosierra: 605-2023

Nori: BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA - METRO BILBAO

Arrazoa: Aste Nagusia dela eta Metro Bilbao geltokietako sarbideak kontrolatzeko kontratatu dituzuen langileek erdaraz baino ez dituzte jarraibideak ematen.

Dosierra: 631-2023**Nori:** BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA - METRO BILBAO**Arrazoa:** Metro Bilbaok bidaltzen dituen posta elektronikoetan gehitutako datuen babesaren inguruko oharrean, gaztelaniazkoa birritan agertzen da eta, gainera, goiko aldean guztiz garatuta.**Erantzunak:**

Metro Bilbao: zuek esan bezala, akats bat dago web orrian kexa edo iradokizun bat betetzerakoan bidaltzen dugun mezu elektronikoan. Izan ere, aurton eguneratu dugu babesaren inguruko oharra eta hiru hizkuntzetan jarri dugu, baina akats tekniko bat dela eta, aurretik zegoen mezuaren gaztelarazko zatia ere agertzen da goialdean. Horregatik, zati hori ezabatu dezaten eskatu diogu informatika sailari, berehala egin dezaten. Askok eskertzen dizuegu akats hau jakinarazi izana.

Dosierra: 632-2023**Nori:** BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA - METRO BILBAO**Arrazoa:** Bilboko Metroaren Barakaldo geltokiko irteeretan gaztelaniazko izenak baino ez daude adierazita.**Dosierra:** 711-2023**Nori:** BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA - METRO BILBAO**Arrazoa:** irailaren 20an kontsulta bat egin nion Metro Bilbaori twitter bidez euskaraz eta erantzuna gaztelaniaz jaso nuen. Zein hizkuntza-irizpiderekin funtzionatzen du metro Bilbaok?**Erantzunak:**

Bezeroaren arreta saila: bai, arrazoi duzu, akatsa izan zen egun hartan bezeroa euskaraz zuzendu arren gaztelaniaz erantzutea, irailaren 20an zerbitzuan izandako arazo baten ondorioz, kontsulta piloa heldu zitzaigulako. Metro Bilbaok ezarritako hizkuntza irizpideen arabera, sare sozialetan bezeroek erabiltzen duten hizkuntzan erantzungo zaie. Benetan sentitzen dugu gertatutakoa. Bideratu dugu kexa dagokion sailera aztertu eta, beharrezkoa bada, horrelakoak zuzentzeko neurriak hartzeko.

Dosierra: 851-2023**Nori:** BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA - METRO BILBAO**Arrazoa:** Metroko makinetan bidaia-txartela erostean esaldi hauek ageri dira, besteak beste: "bidai-txartel sortarazten", "bidaiatxartela hartu, mesedez". Metroak baditu hamaika erabiltzaile, euskara-zerbitzua ere badaukake... Ni ez naiz konturatu orain arte, zeren gutxitan darabilt metroa eta Barik txartela erabili ohi dut... Baina, beste inor ere ez da konturatu. Ez herritarrik. Ez profesionalik. Ez euskara-teknikaririk. Ez euskaltzalerik. Ez abertzalerik. Ezta? Ala kontua da dagoeneko berdina digula guztiak? Ala dagoeneko guztiz etsita gaude? Zeren hau ez da zerbait bakana edo anekdotikoa, euskaldunon eguneroko bizimodua da...**Erantzunak:**

Bezeroen Arreta Saila: Berrikusi ditugu makinetakoko testuak eta hasi gara zuzentzeko urratsak egiten.

Dosierra: 913-2023**Nori:** BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA**Arrazoa:** Bizkaiko Garraio Partzuergoaren "Nire Barik" (https://www.ctb.eus/mibarik/index_eu.php) izeneko guneko informazio guztia ez dago euskaraz. Gainera, sortzen dituen dokumentuak gaztelania hutsean daude edo ez daude osorik euskaraz (adibidez, fakturak ele bitan badaude ere, kontzeptuak gaztelania hutsean daude).**Dosierra:** 958-2023**Nori:** BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA - METRO BILBAO**Arrazoa:** ETB2ko arratsaldeko albistegian ikusi berri dut, EAEko sektore publikoko huelgari dagokion albistean, Bilboko metroan honako errotulu hau: "Kaleko igogailu hondatua". Gaztelaniazko testua, jakina, ondo idatzita dago.

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK (1)

Dosierra: 402-2023

Nori: BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK - Gernika-

Arrazoiak: Juntetxearen kanpoaldean dauden panel batzuek ez dute ematen aukerarik euskarazko audioak entzuteko QRaren bitartez. Gainontzeko hizkuntzetan, aldiz; bai.

Erantzunak:

Gernikako Batzar Etxea: Lehenengo ta behin eskerrak emon gura deusueguz euskaldunon hizkuntza-eskubideak babesteko egiten dozen lanagaitik eta jasotako keak bideratu baino lehen bidezkoak diran ziurtatzeagaitik. Gernikako Batzar Etxearen kasu honetan eta atxikitako hurbileko argizkietan hobeto ikusi leitekenez, QRen bitartez audioak bost hizkuntzatan entzuteko aukera eskaintzen da. Bostetatik lehenengoa, EUSKERAZ.

EUROPAR BATASUNA (1)


Dosierra: 946-2023

Nori: EUROPAR BATASUNA

Arrazoa: Egunotan Europako Batasunaren iragarkiak ikusten ari naiz prentsan. Erdara hutsean daude. Euskaldun herritarrok ez gara Europako Batasuneko herritar eskubide osoz?

KEXAK

**SEKTORE
PRIBATUA**



2

TELEKOMUNIKAZIO ENPRESAK (20)

Dosierra: 5-2023

Nori: PROMEDIOS EXCLUSIVAS DE PUBLICIDAD S.L.U.

Arrazoa: Gaur, Donostiako markesina batean "Promedios" enpresaren iragarki bat ikusi det euskara oso traketsen idatzita. "Zure kanpo kamapaina promediosarekin" jartzen du. Ez dugu nahi gure hizkuntza edozein modutan erabiltzea, gurekiko begirune falta da.

Dosierra: 8-2023

Nori: PROMEDIOS EXCLUSIVAS DE PUBLICIDAD S.L.U.

Arrazoa: PROMEDIOS enpresak ez du euskara errespetatzen; izan ere, DBUSeko markesinetan duten iragarkiaren euskara kaskarra da, itzultzaile automatiko bat erabili izan balute bezala. Hurrengo mezuak agertzen dira: "ikus zaitzaten nahi AHAL duzu?", "Zure kanpo KAMAPAINA PROMEDIOSAREKIN"

Dosierra: 61-2023

Nori: GUUK TELECOM, S.A

Arrazoa: Telefonoa itzalita edo estaldurarik gabe dagoenean Guuk konpainiaren mezua gaztelaniaz baino ez da ematen. Guuk-ek beti adierazten du euskara eta euskaldunok aintzat hartzen gaituela. Mezu hori euskaraz jartzeko aukera ez emateak ez du kontuan hartzen herritar askok euskaraz bizi nahi dugula eta, beraz, mugikorrek ere euskaraz erabili nahi ditugula. Mezua euskaraz egon dadila eskatzen dut.

Erantzunak:

Bezeroaren Arreta Zerbitzua: Euskadin eta Nafarroan zerbitzuak eskaintzen dituen telekomunikazio-operadore gisa, Guuk-en oso serio hartzen dugu euskararekiko eta gure bezeroekiko konpromisoa, eta gure zerbitzuei buruzko informazioaren %100 ematen dugu, euskaraz zein gaztelaniaz. GUUKen, gure bezeroekiko komunikazioa pertsona bakoitzak gure zerbitzuak kontratatzerakoan aukeratzen duen hizkuntzan gauzatzen da. Kasu honetan erantzuna sistemak automatikoki ematen du, lanean ari gara mezu automatiko hauek ere euskaraz izateko.

Dosierra: 75-2023

Nori: GOOGLE SPAIN S.L.

Arrazoa: Nire nabigatzailea euskaraz dut konfiguratu eta Googlen bilaketa bat egiten dudanean, maiz, bilatzaileak euskarazko orrira bideratu beharrean, informazio bera duten gaztelaniazko orrialdeen esteketara eramaten nau. Aztertu dezakezue zer gertatzen den? Google bidez euskaraz egindako bilaketen lehenengo emaitza hizkuntza horretan izan dadin nahi dut.

Dosierra: 101-2023

Nori: GOOGLE SPAIN S.L.

Arrazoa: Publizitatea egiteko euskara erabiltzea debekatu egiten du Google-k, "baimendutako" hizkuntzen artean ez dagoela argudiatuta. Milaka pertsonen hizkuntz eskubideak urratzen ari zarete!

Dosierra: 145-2023

Nori: EUSKALTEL S.A.

Arrazoa: Honakoaren bidez erreklamazio bat jarri nahi diot EUSKALTELi, euskarareiko izan duen jarrera iraingarriatik. 2023.02.22an eguerdiko 13:14etan 944341212 telefonotik dei bat jaso dut nire sakelekora, eskaintza komertzial bat egiteko. "Bai?" galdetu diodanean komertzialari (emakumea) euskaraz, bere erantzuna parrez hastea, lotsagabeki aritzea "bai, bai, bai" etengabe errepikatzen, erridikulizatzen nik euskaraz egin izana, izan da. Onartezina da EUSKALTELe euskaldunon hizkuntza eskubideak, eta kontsumitzaileon eskubideak ez errespetatzea. Eta onartezina eta salagarria da euskaraz erantzuterakoan, erreazioa eraso izatea. EUSKATELi eta haren izenean diharduen komertzial honi bedere, jakinarazi behar zaio hizkuntz eskubideei dagokionean, jarrera eta abegikortasun bat izatea, oinarrizko baldintza dela bi hizkuntza ofizial ditugun herrialde honetan.

Erantzunak:

Euskaltel: Kasua aztertu ondoren, neurriak hartuko ditugu deia egin zuen agentearekin, jarrera ez baita egokiena izan. Bestetik, herritarrarekin harremanetan jarri gara Euskaltelen izenean barkamena eskatzeko, konpainiak euskararekiko konpromesu sendoa baitu. Egoki hartu du egin diogun deia.

Dosierra: 230-2023

Nori: EUSKALTEL S.A.

Arrazoa: Atzo, arratsaldeko 19:36etan, Euskaltelen izenean eta 692418953 telefonotikan dei bat jaso nuen etxeko sakelekoan. Euskaraz hitz egin nuenean "no puede hablar euskera porque esta llamada es grabada y tiene que ser grabada en castellano" esan zidan. Euskaltelek euskararen kontra egiten didan bigarren eraso da. Ustez grabatzen dituen dei horiek EUSKARAZ EZIN EGIN izateak, kontsumitzaileon hizkuntza eskubideen urraketa agerikoa da. Eta eskatzen dut argitu dezala Euskaltel enpresak nolako hizkuntza politika duen, non euskaraz ezin da hitz egin, dei horiek grabatzen direlakoan.

Dosierra: 235-2023

Nori: ORANGE - Espagne

Arrazoa: Sopelako bizilaguna naiz eta 625553976 Orangeren telefonotik deitu didate gaur. Euskaraz erantzun dut deia eta errumanieraz hitz egiten ari nintzen galdetu dit deitu duenak. Euskaraz ari nintzela erantzun diodanean, "maleducado" esan ondoren, moztu egin dit. Ez daukat hitzik sentitu dudana amorruta deskribatzeko.

Dosierra: 274-2023

Nori: EUSKALTEL S.A.

Arrazoa: Telefono deia jaso nuen 944341724 zenbaitik, iluntzeko 20,00ak aldera. Elkarrizketa gutxi gorabehera honakoa izan zen: - Bai, zein da? - Hola, le llamo de Euskaltel para hacerle una oferta. - Ez dot nahi, eskerrik asko. - ¿Cómo? - Ez dotela nahi, eskerrik asko. - Como no me hables en español... - Zer? (ez nion ondo ulertu, ez nuelako halako erantzunik espero) - Sí, sí, mucho euskera pero no estás en Euskaltel. Eta telefonoa eseki zidan. Gizonezkoa zen. Iraindua sentitu nintzen.

Dosierra: 374-2023

Nori: EUSKALTEL S.A.

Arrazoa: Maiatzaren 12an Euskaltelen deia jaso dut 9445 341777 zenbaitik. Eskaintza ezin hobeak omen dituzte esan dit erdaraz. Euskaraz komentatzeko esaten diot. eta erantzuna "pero que dices, tío" izan da eta eskegi egiten du. Hau al da Euskaltelen konpromisoa euskararekin?

Dosierra: 426-2023

Nori: JAZZTEL - Orange Espagne, S.A.U.-

Arrazoa: Jazztel telefonia konpainiatik deitu didate mugikorrera (nik inon ez dut nire telefono zenbakia eman), publizitatea egiteko. Deitu didan pertsonari euskaraz ba ote dakien galdetu diot, eta oso modu txarrean eta erasokorrean erantzun dit: "Aquí hablamos en español, que estamos en España" . Eta telefonoa deia moztu du. Deia zenbaki honetatik jaso dut: 693 11 24 83

Dosierra: 435-2023

Nori: YOIGO

Arrazoa: 944341670 telefonotik deitu didate. "Bai, esan. Dígame". Telefono konpainiatik, Yoigotik, ari zaidala esan didanean, euskaraz ekin diot. Bezeroa naizen aldetik neuk dut-eta hizkuntza hautua. Telefonoz beste aldekoak, baina, ea entzuten diodan hasi zait, ekin eta ekin, euskaraz aritzeagatik ezer entzungo ez balu bezala.

Erantzunak:

XFera: Erreklamatzailak aipatzen dituen deiei dagokienez, idazkian eman dizkiguten datuengatik ezin izan dira identifikatu, baina uste dugu ez direla bezeroaren arretarako plataformak egindako deiak izan, baizik eta ausazko komunikazio komertzialak egiten dituzten beste plataforma batzuk egindakoak. Hala ere, barne-ikerketa bat hasi da gertakariak zehatz-mehatz zehazteko. XFERA oso konprometituta dago gure bezeroei zerbitzurik onena ematearekin, eta horrek barne hartzen du, nola ez, beren hizkuntza ofizialetan erantzutea, hala eskatzen dutenean.

Dosierra: 444-2023

Nori: VODAFONE ESPAÑA Departamento de Atención al Cliente

Arrazoa: ekainaren 8an dei bat jaso nuen "Spam" telefono bezala identifikatua dagoen 621186157 zenbaitik. Telefono konpainia bateko kide bezala identifikatu zen hitz egin zidana, uste dut Vodafonekoa. Gaztelaniaz egin zidan berak eta nik euskaraz. Berak gaztelaniaz jarraitu zuen, baina ni ez nintzen gaztelaniara pasa, euskaraz jarraitu nuen. "Elkarrizketa" hasi eta gutxira zera esan zidan: "¡Hijo de

puta! Te sientes superior. ¿Qué me estás hablando en catalán?" Hori esanda eseki egin zuen telefonoa. Horrelako irainak eta jarrerak salatu nahi ditut.

Dosierra: 551-2023

Nori: EUSKALTEL S.A.

Arrazoa: Euskaltelen bezeroentzako arretarako telefonoa erabili dut kontsulta bat egiteko. Euskara daukagu lehenetsita harremanetarako hizkuntza gisa, beraz telefonoan aurretik grabatutako ahots-mezuak euskaraz soilik izan dira, eta langile batengana bideratzean ere bere lehen hitza euskaraz izan da. Kontsulta arazo barik konpondu dit, uneoro euskaraz. Deia amaitu ondoren, ordea, asebetetze inkesta bat betetzeko beste dei bat jaso dut. Kasu honetan, aurretik grabatutako mezuak gaztelaniaz soilik izan dira.

Erantzunak:

Bezeroaren arreta zerbitzua: Zure kasua aztertu dugu, eta zure fitxan ikusi dugu euskara daukazula aukeratuta. Jakin ezazu gaztelaniazko inkestara bideratzea akats puntual bat dela; izan ere, prozesu hori ez dago automatizaturik, eskuz egin behar da. Zure kasuan, operadoreak okerreko hizkuntza hautatu zuen. Gure enpresak borondate sendoa du bezeroaren hizkuntza-eskubideak errespetatu eta sustatzeko. Jabetzen gara horrelako akatsak inoiz berriro suerta daitezkeela, eta asko eskertzen dizuegu haien berri ematea, zuen lankidetzaren bide honetan hobetzeko laguntza garrantzitsua baita. Zure laguntza oso baliagarria zaigu gure zerbitzua hobetzeko. Helarazitako kexa behar bezala aztertu ahal izateko, herritarraren datuak beharko genituzke.

Dosierra: 649-2023

Nori: DIGI SPAIN TELECOM, S.L.U.

Arrazoa: Digi enpresak erdaraz baino ez du publizitatea banatzen.

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: DIGIn beti banatzen dira flyerrak bi hizkuntzetan, euskaraz zein gaztelaniaz, eta hartzaileari eskaintzen zaio zein nahiago duen. Beste edozein zalantza edo kontsulta izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.

Dosierra: 666-2023

Nori: EUSKALTEL S.A. - EUSKARAREN HIZKUNTZ KALITATEA

Arrazoa: Euskaltelekoa zela esanez deitu zuen amaren mugikorrera andre batek; berez, 91 aurrezenbakia zuen (Madrildik ari ziren deitzen). Bere burua aurkeztu zuen gazteleraz, nik euskaraz erantzun nion eta berehalakoan deia moztu zidan. Euskalteleko bezero gara eta jasotako zerbitzua txarra zein okerra iruditu zitzaidan. Hau asteazkenen goizean gertatu zen, irailak 6.

Erantzunak:

Bezeroarentzako arreta-zerbitzua: Barkamena eskatzen dizugu jasotako deia enpresa honek egin badu; hori jakiteko, hala ere, deia egin duen telefonozenbakiaren digitu guztiak jakin beharko genituzke. Bestalde, Euskaltel Mas Móvil taldeko kidea denez, zerbitzu batzuk Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo daude, eta langileek ez dakizkete beti erkidego guztietako hizkuntzak. Edonola ere, eskertuko genuke erreklamatzailerak bere daturen bat bidaliko baligu, egiaztatzeko euskara duela aukeratua harremanetarako hizkuntza gisa, eta halako egoerarik berriz gerta ez dadin saiatzeko. Gure enpresak borondate sendoa du bezeroaren hizkuntza-eskubideak errespetatu eta sustatzeko. Jabetzen gara horrelako akatsak inoiz berriro suerta daitezkeela, eta asko eskertzen dugu haien berri ematea, bide honetan hobetzeko laguntza garrantzitsua baita. Zure laguntza oso baliagarria zaigu gure zerbitzua hobetzeko.

Dosierra: 688-2023

Nori: EUSKALTEL S.A. - EUSKARAREN HIZKUNTZ KALITATEA

Arrazoa: Euskaltelen bezeroentzako arreta telefonoan, bai telefonoaren ahots automatikoak, bai arretako langileak gaztelania hutsez egin didate. Salbuespen bakarra teknikariarekin pasa didatenean izan da: lehen hitza gaztelaniaz egin badu ere, euskaraz egin dit nik hala erantzun diodanean.

Erantzunak:

Bezeroarentzako arreta-zerbitzua: Zure kexaren arrazoa aztertu eta zenbait egiaztapen egin ondoren, adierazi nahi dizugu Euskaltelek ahal duen guztia egiten duela bezero guztientzako euskarazko arreta bermatzeko. Litekeena da zuri gertatutakoa hizkuntza aukeratzeko sistemaren akats puntual baten ondorio izatea. Aztertuko dugu kontua, bezero guztiei arreta haiek aukeratzeko hizkuntzan emango zaiela bermatzeko. Helarazitako kexa behar bezala aztertu ahal izateko,

herritarraren datuak beharko genituzke. Gure enpresak borondate sendoa du bezeroaren hizkuntza-eskubideak errespetatu eta sustatzeko. Jabetzen gara horrelako akatsak inoiz berriro suerta daitezkeela, eta asko eskertzen dugu haien berri ematea, bide honetan hobetzeko laguntza garrantzitsua baita. Zure laguntza oso baliagarria zaigu gure zerbitzua hobetzeko.

Dosierra: 708-2023

Nori: EUSKALTEL S.A. - EUSKARAREN HIZKUNTZ KALITATEA

Arrazoiak: Euskaltel bezero zerbitzura deitu dut, eta "makinita" batek esandit arreta euskaraz nahi banuen "1" zenbakia zapaltzeko. Hala egin dut, eta euskaraz hasi naizenean, langile batek erantzun dit euskaraz "kilikolo" zebilela eta, mesedez, ea gaztelaniaz egin niezaiokeen. Noski, ezetz esan diot, eta, orduan, lankide batekin jarri nau. Hark "buenos dias, eta abar". Zertarako delako "makinita" gero gaztelaniaz egitera bultzatzen bazaituzte?

Dosierra: 813-2023

Nori: EUSKALTEL S.A. - EUSKARAREN HIZKUNTZ KALITATEA

Arrazoiak: Gaur, goizeko 10ak inguruan, Euskaltelera deitu dut erreklamazio bat egiteko. Hasieran "makinita" bat ateratzen da, eta ea arreta euskaraz edo gaztelaniaz nahi duzun galdetzen du. Euskaraz nahi nuela erantzun, eta atera den langileak euskaraz egin dit. Hark Fidelizazio izeneko zerbitzura pasatu, eta langileak, euskaraz ez zekiela, eta gaztelaniaz egiteko eskatu dit. Nik arreta euskaraz eskatu dudala, eta hala egiteko eskubidea nuela esan diot. Hark edo gaztelaniaz egiten nion, edo ezin zidala arretarik emanen. Jakina, ez diot gaztelaniaz egin.

Dosierra: 826-2023

Nori: EUSKALTEL S.A. - EUSKARAREN HIZKUNTZ KALITATEA

Arrazoiak: Euskaltelera deitu eta arreta euskaraz jaso nahi baduzu, itxaron beharreko denbora izugarria da. Gaur bertan Euskaltelekin izandako hartu-emanen (946983006 - 944007902) arreta euskaraz jasotzea aukeratu dut, 20 minutu zain egon ondoren, gaztelaniaz erantzun didate. Kexa egin diot telefonoz bestaldekoari arreta euskaraz jasotzea aukeratu dudala gogoraraziz. Petraldu eta moztu egin dit. Berriro deitu eta berrdin, arreta euskaraz jaso nahi dudala esan eta, itxaron ondoren, gaztelaniaz erantzun. Benetan zalantzan jartzen dut Euskaltelen

zerbitzuaren profesionaltasuna eta bezeroekiko errespeturik gabeko tratua salatu nahi dut.

AISIALDIA/KULTURA/KIROLA (54)

Dosierra: 6-2023

Nori: ZELAI TALASOTERAPIA

Arrazoa: Abenduan egun batzuk igarotzeko asmoz Zumaiako Zelai Talasoterapia zentroaren webgunea kontsultatu nuen, Tamalgarria da euskaraz ez izatea, dena gaztelaniaz dago. Gure herriko bezeroei eta gure hizkuntzari aitortza egin eta webgunea eta eskaintzen dituzten zerbitzuak euskaraz jartzeko eskatu nahiko nuke. Oraingoz ez dut erreserbarik egin zerbitzu guztiak euskaraz eskainiko dizkidan zentro bat nahi dut. Bezeroak pozik izateko mila kontu hartzen dituzten kontuan baina bertoko hizkuntzaren presentzia ez?

Dosierra: 15-2023

Nori: LA PERLA CENTRO TALASO-SPORT

Arrazoa: La Perla talasoterapian une oro euskaraz artatu bagintuzten ere, eman ziguten tiketa gaztelania hutsean zegoen eta webgunea ere gaztelaniaz baino ez dute.

Erantzunak:

Komunikazio eta Merkataritza Harremanen Arduraduna: La Perlako komunikazio hizkuntza ofizialak bi direla baieztatu nahi dizugu: gaztelania eta euskara. Lan egiten dugun euskarri guztietan aplikatzen dugu hau. Adibidez, zentroko karteletan, bazkide eta erabiltzaileei bidaltzen dizkiegun mezuetan, komunikabide inprimatu zein digitaletako iragarkietan eta sustapen espezifikoaren katalogoetan (nahi izanez gero, hemen aipatzen dugunaren adibideak emango dizkizugu). Web-ari dagokionez, gaur egun La Perlaren web-gunea gure bezeroen eskura gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez dago. Gaur frantsesezko bertsioa argitaratu dugu, eta gaur egun lanean ari gara euskarazko bertsioa laster argitaratzeko. Jasota utzi nahi dugu web orria eta prezio eta zerbitzuen katalogoa BETI lau hizkuntzatan egon direla eskuragarri: gaztelaniaz, euskaraz, frantsesez eta ingelesez, eta urtearen hasieran eguneratu egiten direla. Gaur egun hala ez izatearen arrazoa ohiz kanpoko gertaera puntualak dira: pandemia egoera eta horren ondorioak. Pandemiaren hasiera La Perla webgunea osorik berritzeko proiektua lantzen ari zen unean gertatu zen. Gaztelaniazko bertsioan geunden lanean, eta pandemian, zentroa itxita eta jarduerarik gabe zegoela, amaitu zen proiektua. Nahiz eta gure

nahia eta asmoa web-a eta katalogoa lau hizkuntzetan eskaintzen jarraitzea izan, gaur egungo pandemia egoerak, gure erakundeari zuzenean eragiten dionak, eragina du itzulpenak nahi baino mantsoago izaten jarraitzea. Kutxako tiketari dagokionez, gaur egun partzialki elebitan dago, hala eta guztiz ere gure hornitzailearekin hitz egingo dugu hau eguneratzeko. Eskertzen dizugu ulertzea.

Dosierra: 21-2023

Nori: GIPIZKOAKO ATLETISMO FEDERAZIOA

Arrazoa: Seme-alabak atletismo kirolean dabilta. Hori dela eta, FEDERACIÓN ATLÉTICA GUIPUZCOANAKO web orrian sartzen gara informazioa jaso ahal izateko. Kontua da, eta lotsagarria deritzot, web orri hau gaztelera hutsean dagoela, ez zaidala zilegi iruditzen 2023. urtean, oraindik horrelakoak gertatzea. Beraiei ere bidali nien email bat nere haserrearen berri emanaz eta hori bideratzeko eskatuz, baina ez dut inongo erantzunik jaso. <https://www.gafatletismo.eu/>

Erantzunak:

GAFeKo lehendakaria: Benetan mingarria da guretzako jasotako idatzia. Are eta gehiago arrazoi guztia daukalako. Berriz diot, mingarria egiten zaigu idatzia. Euskararen militantea naizela uste dut. Edonon nagoela ere, dakien mundu guztiarekin hitz egiten dut euskaraz. Federazioaren barruan eta atletismoaren munduan ditugun harremanean. Baina egia da. Webgunea desastre hutsa da, baita gaztelaniaz bakarrik dagoelako ere, nahiz eta albisteak bi hizkuntzetan idatz genitzakeen. Aldundiaren dirulaguntza bat jaso dugu webgune berri bat egiteko, eta baliteke bi hilabete barru prest egotea. Garatzaileari egin zitzaion lehen behaketa elebiduna izan zen. Eta hala izango da. Gainera, jarduera-plan bat aztertzen ari gara euskaraz presentzia handiagoa izan dezan eguneroko entrenamenduetan, ez baikaude gustura han ikusten dugunarekin. Gustatuko litzaiguke gure atsekabea eta konpromisoa helaraztea idatzi duenari bi hilabeteko epean egoera hori konponduko dela.

Dosierra: 25-2023

Nori: SOCIEDAD ANÓNIMA DEPORTES Y ESPECTÁCULOS (SADE)

Arrazoa: SADE zinemen weborrian sartu naiz, donostiako PRINCIPE, ANTIGUOBERRI, eta TRUEBA zinemak daramatzan enpresarena, eta gaztelera hutsean dago. Bi hizkuntza ofizial dauden lurralde batean, euskaldunon eskubideak

urratzen ari dira weborria soilik espainolez eskainiz. Gainera, aste honetako karteldegian eskaintzen dituzten 20 filmak GAZTELERAZ edo V.O. gazteleraz azpidatzita eskaintzen dituzte, kontsumitzaile euskaldunon eskubideak eta 1982ko euskararen legeko 5., 22. eta 25. artikulua urratuz. Eskatu nahiko nieke: 1. Weborria euskaraz ere jartzea 2. TRUEBA zinemetan Bertsio Originalean ematen dituzten emanaldi guztietan AZPIDAZKETA BIKOITZA erabiltzea, gazteleraz eta euskaraz, Belgikan eta beste herrialde batzuetan, edo ZINEBI nazioarteko jaialdian egiten duten moduan. 3. Euskarazko zinema eskaintza handitzea, horretarako banatzaile, ekoizle, eta Eusko Jaurlaritzari, euskarara bikoiztutako eduki gehiago sortzeko eskatuz.

Dosierra: 27-2023

Nori: CINESA-COMPAÑÍA DE INICIATIVAS Y ESPECTÁCULOS, S.A.

Arrazoiak: CINESA enpresaren weborriak, besteak beste CINESA URBIL, CINESA GARBERA, CINESA MAX BARAKALDO, CINESA ZUBIARTE BILBAO zinemen informazioa jasotzen duenak, ez du euskarazko bertsioarik, eta horrek euskaldunon eskubideak urratzen ditu. Horrez gain, aste honetako karteldegian eskaintzen dituzten 7 filmak gazteleraz soilik eskaintzen dituzte, Euskararen Normalkuntzako legearen 5, 22, eta 25. artikulua urratuz. Eskararak: 1. Weborria euskaraz jartzeko. 2. Eusko Jaurlaritza, banatzaile eta ekoizleekin harremanetan jar daitezela euskarara bikoiztutako edukia bermatzeko.

Dosierra: 60-2023

Nori: ATHLETIC CLUB

Arrazoiak: San Mameseko pantaila handietan euskararen adierazpena lotsagarria da. Saiatu saiatzen dira euskaraz egiten, eta poztekoa da, baina badaude bi iragarki (propioak direnak, ez kanpokoak) atentzioa ematen dutenak: - Larrialdi egoeran egin beharrekoak azaltzea: Ahozko azalpen guztia euskaraz bada ere, idatzita dagoena ez dago ulertzerik. Lehenengo esaldia honela hasten da: " emergencia- ik". - Publizitatea pantaila handietan jartzeko eskaintza: Ulertezina da osorik. Akatsez josia, oso akats oinarrikoak.... Auzo lotsa emateko moduko itzulpena.

Erantzunak: Kanpoko Harremanak eta Bazkideenganako Arreta: Kexari erantzuna emanaz, Marketing Saileko gure lankideei helarazi diogula jakinarazten dizuegu, aztertu dezaten eta hobetzeko asmoz.

Dosierra: 65-2023

Nori: GETXO SASKI BALOI

Arrazoiak: Getxo Saski taldeak webgunea, ateratzen dituen kartelak zein sare sozialetatik jardura guztia gaztelania hutsean egiten du. Gure hizkuntzarekiko ze jarrera erakusten diegu horrela gazte eta haurrei? Talde bezala ez du euskararekiko betebeharririk? Komunikazioa gestionatzen duenak ez badaki, badaude ba gaur egun baliabideak gauzak euskaratzeko. <https://getxosaski.com/> <https://twitter.com/GetxoSaski> <https://www.facebook.com/GetxoSaski>

Dosierra: 82-2023

Nori: GOLEM La Morea

Arrazoiak: Urtarrilaren 2an Golem La Moreara joan ginen alaba eta biok goizeko 12tako euskarazko saiora, "Nire zirkua", eta bertan gertaturikoak amorrarazi, haserrarazi eta mingarria benetan suertatu zitzaigun. 11:55etan sarrerak erostera hurbildu ginen, bertan, 3/4 langile zirelarik. Batengana hurbildu eta zera esan nion: -Egunon, 2 sarrera (bi behatz erakutsiz) "Nire zirkua"rako (guzti hau mantso-mantso, ez bainekien euskalduna ote zen) -Que no te entiendo, pero que dices... (oso doinu bortitzean eta gogor) Momentu horretan, euskarari eutsiz gauza bera errepikatu nuen eta haren jarrera ikusita, beste langileengana joateko mugimendua eta begiradarekin hasi nintzen. Orduan honek, zera esan: -Ninguna sabemos euskara (honetan ere mespretxuz eta dexente harroturik). Nik egoera ikusita, dexente mindu nintzen eta sutu, orduan zera erantzun nion. -¿Pero esto entenderás no? Bi behatz erakutsi eta "Nire zirkua" esanez.... Azkenerako eman egin zizkigun. Abiatzerakoan, "esker mile" esan eta bizkarra emandakoan, zera aditu behar izan genion. - Que tengamos que aguantar esto... Beraz, kexa bikoitza: -Arreta erdara hutsean egitea, ezinbestez. -Euskararekiko eta erabiltzaileekiko mespretxua, sentsibilitate falta, harrokeria etb..... Espero dut horrelako egoera errepika ez dadin, eta langile euskaldunek artatzea, eta erdalduna bada, errespetuz eta goxo aritzea euskaldunen errespetuzko eskaeren aurrean.

Dosierra: 86-2023

Nori: NAFARROAKO ANTZERKI ESKOLA

Arrazoa: NAE-ren webgunean ez dut aurkitu hizkuntza hautatzeko aukerarik. Bilaketa gaztelaniaz eginez gero hizkuntza horretan agertzen da eta euskaraz eginez gero euskaraz. Halere euskarazko bertsioan albisteak gaztelaniaz ageri dira. Hizkuntza hautatzeko aukera agertzeko eta berriak dagokion hizkuntzan argitaratzeko eskatu nahi diot Nafarroako Antzerki Eskolari.

Dosierra: 97-2023

Nori: CLUB ATLETICO SAN SEBASTIAN -LILATON TALDEA-

Arrazoa: LILATON lasterketan izena ematerakoan, webgunea euskaraz irakurtzeko hautua egin arren, informazio asko euskarara itzuli gabe dago: <https://lilaton.es/eu/izen-emantea/> Informazio guztiak euskaraz ere egon beharko luke. Eskerrik asko

Dosierra: 129-2023

Nori: TELEFONICA AUDIOVISUAL DIGITAL S.L.U. (Movistar plus)

Arrazoa: Movistar plus-en "Space Jam aro berria" filma ezin da euskarazko audioekin ikusi, azpidatziekin soilik jartzen dute, aldiz beste plataforma batzuetan euskarazko audioekin ikus dezakegu. Audioa ahal bezain pronto euskaraz jartzeko eskatzen dizuet.

Dosierra: 130-2023

Nori: NETFLIX España

Arrazoa: Netflix-en "Irabazi arte2" filma gaztelaniaz igo dute. Pasa den hilabetean igo zuten baina ezin dezakegu euskaraz ikusi. Euskaraz jar dezan eskatu nahi diot.

Dosierra: 131-2023

Nori: TELEFONICA AUDIOVISUAL DIGITAL S.L.U. (Movistar plus)

Arrazoa: Movistarplus-en "Unicorn wars" euskarara bikoiztuta dagoen arren, gaztelaniazko bertsioa soilik agertzen da

Dosierra: 138-2023

Nori: FUNDACIÓN FLAMENCO ON FIRE

Arrazoa: Iruñean egiten den Flamenco On Fire jaialdian den-dena erdara hutsean dago. Webgunea, iragarkiak, oholtza gainetik esaten den guztia,... Euskara erabat arrotza da, ez da existitzen. Badira artista flamenko euskaldunak ere, baina ez dira gonbidatuak. Euskaldunontzat arretarik antolatzea pentsatua duzue hurrengo ekitaldietan?

Dosierra: 151-2023

Nori: CINES FLORIDA

Arrazoa: Cines Floridan Irati ikusteko sarrera erosita nuen asteazkenean, martxoaren 1ean 20:00etan. Bertsio originalean eta azpitoluekin ikusteko moduan erosi nuen eta orain "castellano"-z da, bikoiztuta. Zergatik aldaketa hau? Eta ezer esan gabe? Azalpen eta konponbide bat behar dugu sarrera hori erosi dugun euskaldunok.

Dosierra: 180-2023

Nori: SOCIEDAD ANÓNIMA DEPORTES Y ESPECTÁCULOS (SADE)

Arrazoa: Donostiako SADE zinemen webgunea gaztelera hutsez dago. Ondorioz, ezin dira film baterako sarrerak online euskaraz erosi, ezta pelikulei buruzko informaziorik euskaraz jaso ere. <https://sadecine.com/>

Dosierra: 182-2023

Nori: OCINE - Mendibil merkataritzagunea

Arrazoa: OCINE Mendibil Irungo zinema aretoek kudeatzen duten webgunean ez da informazioa euskaraz ikusteko aukerarik. Sarrerak sarean erosi nahi izanez gero, ezin dira euskaraz erosi.

Dosierra: 246-2023

Nori: HARITZ BERRI BASERRI ESKOLA -ILUNDAIN-

Arrazoa: Alaba Ilundaingo baserri eskolara joan da eskolarekin. Eman dioten eskuorria ez dago euskaraz.

Dosierra: 311-2023

Nori: SPOTIFY SPAIN SL

Arrazoa: Eskertu nahi dizuet zuen mezuak euskaraz bidaltzea. Herritar askok euskaraz bizi nahi dugu eta zuek euskara erabilia horretan laguntzen diguzue. Bide batez, zuen zerbitzua (aplikazio zein web bidez) euskaraz erabiltzeko aukera eman diezaguzuen eskatzeko baliatu nahi dut mezu hau. Zerrenden izena (“Eguneko 1. nahasketa”, “Berri Txarrak nahasketa”, etab.) euskaraz agertzen da, baina zerbitzua osorik euskaraz erabiltzeko aukera behar dugu.

Dosierra: 313-2023

Nori: NETFLIX España

Arrazoa: 'Amama' filma euskaraz ekoitzia dagoen arren, Netflixen ez dago euskaraz ikusgai. Euskaldunok errespetatu eta euskaraz programatzea eskatzen dut

Dosierra: 315-2023

Nori: GOLEM Alhóndiga -DIFUSORA BILBAO SL

Arrazoa: Bilboko Alondegiko zinema-aretoetako tiketak erdara hutsean ematen dituzte. Difusora Bilbao SM enpresaz gain, erantzulea Bilboko Udalaren Centro de Sociedad y Cultura Contemporánea de Bilbao SA sozietate publikoa da, eraikinaren jabea baita.

Dosierra: 344-2023

Nori: ATHLETIC CLUB

Arrazoa: Apirilaren 24an Kutxabanketik deitu ziguten, zozketa batean bi sarrera eta ume batek lehen mailako futbol jokalarien apirilaren 27ko partida aurretik argazkia ateratzea suertatu zitzaigula esanez.. Imajina ezazue 6 urteko etxeko txikiaren poza! Bakarrik joan behar zuenez, gure txikia oraindik elebakar euskalduna izanik, kezka agertu zuen zelaiko parkingaren sarreran harrera egin behar zion emakumeak euskaraz jakingo ote zuen. Egun heldu zen eta, hara non, ume taldearekin zegoen emakumeak ez zekien tutik ere euskaraz. EZ dugu ulertzen Bizkaia osotik (edo Euskal Herritik) jokalariekin argazkia ateratzera joaten diren ume piloak ikusita, Athleticek nola ez duen jartzen gutxienez euskaraz zuzenduko

zaien pertsona bat. Euskaldunonganako begirunea eta bereziki gure txikientzat bestelako irudi bat emango luke.

Erantzunak:

Kanpoko Harremanak eta Bazkideenganako Arreta: Gaur egun Athletic Clubeko langile guztiek ez dakite euskaraz, baina bide horretan egingo dugu lan. Sentitzen dugu zuen tristura eta eskertzen dizuegu idatziagatik.

Dosierra: 345-2023

Nori: REAL SOCIEDAD

Arrazoa: jokalaria baten kontratu luzapena iragartzeko Errealak zabalduak bideoan euskarari ez zaio inongo tokirik egiten, ingelesa eta gaztelania soilik erabiltzen dira. Euskarazko sareetatik ere gaztelaniaz eta ingelesez. Tamalgarria. <https://twitter.com/RealSociedadEUS/status/1654177025794375727?s=20>

Dosierra: 346-2023

Nori: GETXO RUGBY

Arrazoa: Getxoko errugbi taldearen twitter kontutik euskaraz txiokatzen dute baina apirilaren 23ko partiduko kartel hau gaztelaniaz iragarri dute, erakunde publikoek lagundutako kirol ekimena izanik, euskara ere txertatzeko betebeharra ez dute? Gonbidapenak ere gaztelania hutsean izan ziren. Asko baloratzen dugu euskaraz bizi diren kirol taldeak izatea gurean baina uste dut gauza hauek zaindu behar direla eta hurrengorako kontuan hartu.

Dosierra: 371-2023

Nori: GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA

Arrazoa: Guggenheimek eta Iberdrolak kaleko argazki erakusketa bat jarri dute Bilboko Casilda andrea parkean. Azalpenak bi paneletan jarri dituzte baina bietan gaztelaniaz soilik. Beraientzat ez dago euskararik. Zergatik horrelako mespretxua euskarari eta euskal hitzunei?

Dosierra: 445-2023

Nori: TELEFONICA AUDIOVISUAL DIGITAL S.L.U. (Movistar plus)

Arrazoa: Movistar + plataforman Unicorn Wars filmea ezarri dute. Jakin badakigu filme hau euskaraz ere itzuli egin dela, baino Movistar+ plataforman gaztelaniaz eta

jatorriko bertsioan (galegoz esango nuke) jarri dutela. Zergatik ez dute euskarazko bertsioa igotzen ere?

Dosierra: 459-2023

Nori: CLUB DEPORTIVO GARES

Arrazoa: Gares futbol klubeko izen-emateko fitxa gaztelania hutsean dago. Bertsio elebiduna edo euskarazkoa eskatuta, nire eskaera kontuan hartuko dutela erantzun didate. Erantzunean antzeman daiteke zerbitzuarekiko bezeroaren gogobetetasunaren aldetik ulertu dutela eskaera, ez, aldiz, bezeroen hizkuntza eskubideak babesteko. Edozein modutan, gaurdaino ez dut euskarazkoa edo elebiko inprimakirik jaso eta izen-emateko epea ortzirailean amaituko denez, gaztelania hutsez egin behar izan dut.

Dosierra: 462-2023

Nori: KUTXA FUNDAZIOA

Arrazoa: 2023ko ekainaren 11n emaztea eta semeak Donostiako Kutxaespaziora joan ziren goizean. Semeek 6 eta 9 urte dituzte. Matematikako tailer bat zegoen arratsaldean, 16:15ean, eta hara joateko sarrerak erosi eta bazkaltzera geratzea erabaki zuten. Gero, baina, euskaraz programatuta egon arren, hastear zenean arduradunak esan zuten ondo legokeela gaztelaraz egitea denek ulertzeko, baita haurren gurasoek ere, seme-alabei laguntzeko (inork ez zuten halakorik eskatu). Nire emazteak baietz esan zuten, ze euskaraz programatuta zegoen, gure semeek gaztelaraz ez dute oraindik menderatzen eta sarrerak erosita genituen. Orduan arduradunak galdetu zuten ea zer egitea nahi zuten jendeak. Emazteak esan zuten euskaraz egitea nahi zuela behintzat, eta arduradunak esan zuten euskañolez egingo zuela. Eta hala egin zen, tarteka euskara, tarteka gaztelera. Baina hori euskaraz programatuta eta iragarrita zegoen ekitaldi batean; halakorik ez litzateke inoiz gaztelarazko txandan gertatuko.

Erantzunak: Kutxa Fundazioa: Oso barneratuta dugu gure ikastaro eta tailerren hizkuntzak definitzean hizkuntza horretan egin behar direla, baina kontatu digutenez egun horretan monitore berri bat zegoen tailer horretan eta horrez gain ezustean makina bat jende hurbildu omen zen tailerrera. Lehendabizi jendeari adierazi zitzaion beranduago gaztelarazko beste tailer bat egongo zela eta batzuk joan omen ziren, baina beste batzuk ordea geratzea nahiago izan

zuten. Monitoreak, gaizki eginda baina borondate onarekin, elebidun egitea proposatu zuten eta dirudinez honela egin zen. Halere, eta joan dadila aurretik, barkamena eskatu nahiko genioke erabiltzaileari, arrazoi guztia duelako eta aurrerantzean honelakoak oraindik kontu gehiagorekin zainduko ditugulako berari esker. Ezin besterik esan, barkamena eskatu eta iradokizunagatik eskerrak eman.

Dosierra: 490-2023

Nori: LE TOUR DE FRANCE, CHRISTIAN PRUDHOMME

Arrazoa: Biriatu eta Urruñea inguruetan Frantziako Tourraren inguruko seinale hauek paratu dituzte. Den-dena frantsesez.

Dosierra: 506-2023

Nori: LE TOUR DE FRANCE, CHRISTIAN PRUDHOMME

Arrazoa: Frantziako Tourraren kartela frantses hutsean Iparralde etorbidean. Euskaldunon eskubideak ez ditu betetzen.

Dosierra: 516-2023

Nori: LAST TOUR-BILBAO BBK LIVE

Arrazoa: Lotsagarria da BBK Live festibalean euskarari eta euskal hiztunak nola gutxien gaituzten. Urtero horrelakoak ematen dira, hurrengo urterako euskarazko mezu trakets guztiak zuzendu ditzatela eskatu nahi dut.

Dosierra: 529-2023

Nori: ETXARRI ARANAZKO KANPINA

Arrazoa: Etxarriko kanpineko tabernan ezin euskaraz eskatu; tabernariak erdaldunak

Dosierra: 561-2023

Nori: Punta Galea Txirrindulari Elkartea

Arrazoa: Getxoko Zirkuitoa [sic] delakoak erdara hutsean argitaratu ditu iragarkiak uztailaren 15ean eta 28an, Correon, trafikoan eragingo dituzten gorabeheren berri emateko.

Dosierra: 586-2023

Nori: IZTURITZEKO ETA OTSOZELAIAKO HARPEAK

Arrazoa: Isturitz eta Otsozelaiako harpeak (<https://www.grottes-isturitz.com>) ezagutzeko txangoa egin genuen, eta atsekabe handia izan da guretzat euskararen arrastorik ia ez atzematea. Argibideak, informazioa, harpeari buruzko panelak, bideoak, seinalitika... den-dena frantses hutsean topatu dugu, euskararen arrastorik ez. Bisitak frantsesez soilik eskaintzen dituzte, eta beraz, frantsesez mintzo ez garen guztioi plastifikatutako paperetan banatzen zaigu informazioa (harpearen barnean ezin da ongi irakurri, argi eskasagatik), eta ez du bisita gidatuaren edukia %10ean ere jasotzen. Bisitak euskaraz egiteko aukerarik ba ote zen galdetu genuen, baina ezin izan ziguten ziurtatu (agian 20ko talde bat eginda, denborarekin deituta...) Harrerako lanetan ari ziren bi gaztek euskaraz artatu gintuzten. Euskal Herriko harpe miresgarri hauek euskaraz ezagutzeko eskubidea dugu, eta horretarako bideak jar ditzaten eskatzen dugu.

Dosierra: 601-2023

Nori: NOVA JUMP (Alda Now S.L.) - Max Center

Arrazoa: Barakaldoko Max Centerreko Nova Jump lokaleko kartel guztiak gazteleraz baino ez daude.

Dosierra: 625-2023

Nori: SENDAVIVA

Arrazoa: abuztuaren 31n Sedavivan izan ginen. Parkeko seinalitika guztian euskara atzerriko hizkuntzen pare agertzen da, megafonia eta espektakuluetan ere berdin. Euskara Nafarroako berezko hizkuntza eta gutxitutakoa dela jakinik, tratamendu hobea beharko luke. Atzerriko hizkuntzen pare jartzea gurekiko gutxiespena da.

Dosierra: 646-2023

Nori: HOTEL SILKEN PALACIO URIBARREN (Lekeitio)

Arrazoa: Lekeitioko Silken Palacio Uribarren hotelean informazio guztia ez dute euskaraz izaten; adibidez, tiketak erdaraz baino ez dituzte ematen. Gainera, behargin guztiak ez dira euskaldunak.

Dosierra: 654-2023

Nori: GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA

Arrazoa: Instagrameko Bilbao Guggenheim museoko perfilak, bere story guztiak gaztelania hutsean idatzen ditu, bai eta askotan post-ak ere. Hori horrela, beraiei esan badiet ere, zuei idatzi nahi nizuen salaketa egiteko. Hemen adibide batzuk.

Erantzunak:

Garapeneko Zuzendaria: Guggenheim Bilbao Museoaren Instagram sare sozialeko "stories" direlakoei lotuta joan den irailaren 11n igorri zeniguten idazkiari erantzunez, jakinarazi nahiko nizueke, 1997an sortu zenetik, Museoak arreta berezia eskaini diola euskarari bere material, jarduera, komunikazio eta argitalpen instituzional guztietan, baita lehentasunezko tokia eman ere. Hala, Bikain ziurtagiriak frogatzen duenez, zerbitzuak euskaraz eskaintzen direla bermatzen du Museoak, eta, halaber, euskarri ezberdinetarako eduki andana sortzen du euskaraz: entzuteko gidak, prentsa-txostenak eta -oharrak, material didaktikoak, ikastaroak, kolektiboentzako mezuak, webgunea, erakusketa-katalogoak nahiz erakustaretoetako azalpen artistikoak, besteak beste. Eduki horien bidez, arte moderno eta garaikidearen inguruan euskarazko diskurtsoa sortzen eta zabaltzen laguntzen dugu, eta horren erakusgarri dira Artitz izeneko euskarazko dokumentazio-zentroan jasotako ia 5.000 dokumentuak. Bestalde, jakingo duzue, Museoak mundu guztiko jarraitzaileak ditu eta, horrenbestez, sare sozialetako jarduera hizkuntza ezberdinetan segmentatzen dugu; hortaz, post bakoitzaren hartzaileen arabera, argitalpenak euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez egiten ditugu, edo hizkuntza horietako bat baino gehiagotan. Zoritxarrez, Instagrameko "stories" tresnaren bidez edukiak 24 orduz baino ez daudenez ikusgai, lengoia bisuala lehenetsi beharrean izaten gara horietan, eta testu bidezko edukia, aldiz, post arruntetan eta beste sare sozial batzuetan baliatzen dugu, Guggenheim Bilbao Museoak dituen profil ugarietan ikus dezakezuen moduan. Nolanahi ere, Museoak erabateko konpromisoa izaten jarraitzen du euskararen erabilera, ikusgarritasuna eta sustapenarekiko, eta gorago adierazi dugun bezala, gure jarduna, gure jarduerak eta gure ekimenak euskaraz argitaratzen jarraituko dugu.

Dosierra: 696-2023

Nori: DEVIR IBERIA SL

Arrazoa: mahai-jokoak saltzen dituen DEVIR argitaletxeak, gaztelaniaz ez ezik, katalanez ere argitaratzen ditu jokoaren arauak, baina ez euskaraz, ezta beste hizkuntza koofizial batean ere. Oso adeitsu idatzi nien eta 'kontuan hartuko dugu' esan zidaten, eta bizkarrean zaplada bat ematen zidatela sentitu nuen, isil nendin. Urtebete igaro da, eta dinamika berarekin jarraitzen dute: araudia hizkuntza batean baino gehiagotan jartzen badute, gaztelaniaz gain katalana da agertzen dena, eta nik, erosle gisa, sentitzen dut argitaletxe horretatik beste hizkuntza batzuk diskriminatzen ari direla, edo bat besteen gainetik nabarmendu nahi dutela, eta ez zait bidezkoa iruditzen, ezta egokia ere. Katalunian bakarrik balitz ulertu ahal izango nuke.

Dosierra: 722-2023

Nori: CLUB ATLÉTICO OSASUNA

Arrazoa: Osasunaren app berria erdara hutsean dator. Osasunazale euskaldunon hizkuntza eskubideak ere errespetatzea eskatzen dut.

Dosierra: 747-2023

Nori: DONOSTIAKO JAKINTZA ATLETISMO KLUBA

Arrazoa: Donostiako Jakintza Atletismo klubak antolatzen duen Hiru Hondartzetako Krosaren inguruko informazioa jaso dugu parte hartzeko izena eman dugunok. Euskarazko informazioa oso trakets dago adierazita. Hurrengo edizioetan horrelakorik ez gertatzeko neurriak hartzea eskatzen dut.

Dosierra: 768-2023

Nori: IZARPE KANPINA

Arrazoa: Izarpe kanpineko jatetxean bazkaldu dugu. Menua ez zegoen euskaraz.

Dosierra: 774-2023

Nori: AMAZON SPAIN SERVICES SL

Arrazoa: Loiuko Petronor gasolindegian Amazoneko takilla bat dago. Hizkuntza asko ditu barruan, baina euskararen aztarnarik ere ez.

Dosierra: 799-2023

Nori: REAL SOCIEDAD

Arrazoa: Reale Arena futbol zelaian Reala eta Mallorcaren arteko partiduan ohar batzuk zeuden paretetan itsatsita, arrazismoa biolentzia eta bestelako jokabideen aurkako azalpenak emateko. Gaztelania hutsez idatzita zeuden. Antza denez Futbol Ligak berak sortutako euskarria da. Ligak eta Realak, batek bere leihaketan eta besteak bere zelaian, euskaldunek informazioa euskaraz jasotzeko dugun eskubidea bermatu behar dutela uste dut.

Dosierra: 811-2023

Nori: DIEGO DE AMEZUA - ORGANOAREN LAGUNEN BIZKAIKO ELKARTEA

Arrazoa: Eskertzekoa litzateke Bizkaiko organo zaleen Elkarteko sare sozialetan zein Aldundia eta udalen diru-laguntza jasotzen duten ekitaldien informazioa euskaraz ere ematea.

Erantzunak:

Organoaren lagunak Bizkaiko elkarteak: Iragarritako ekitaldiak ez du inolako dirulaguntzarik jaso ekitaldi hori egiteko. Elkarteko boluntarioen laguntza desinteresatu eta altruistarekin egin da. • Kartel guztiak, esku-programak, artisten biografiak bi hizkuntzetan zabaltzen dira, bai webgunean, bai paperean. Era berean, kontzertuen aurkezpena euskaraz eta gaztelaniaz egiten da. • Iragarritako ekitaldia gaztelaniaz egindako hitzaldi bat zen, eta sare sozialeitan, irakurketa azkar batean, gaizki-ulerturik egon ez zedin, egokia iruditu zitzaigun garatuko zen hizkuntzan egitea.

Dosierra: 821-2023

Nori: NETFLIX España

Arrazoa: Netflix plataformaren euskarazko azpidatziak akatsez josita daude. Akats horiek euskararen oinarriko arauak bortxatzen dituzte. Beste hizkuntzekin egiten den bezala, zuzentzaile batek errepasatu beharko lituzke. Konpontzeko mekanismoak abian jar ditzaten eskatzen dut.

Dosierra: 831-2023

Nori: BASQUEEQ EVENTS (BCT)

Arrazoa: Basque Crossfit txapelketan aurkezleak gaztelania eta ingelesez soilik egiten zuen, euskaraz "txapelketa" hitza izan ezik, ez zuen hitz bakar bat erabili. Babesleen artean daude Bizkaiko Aldundia, Bilboko Udala eta Eusko Jaurlaritzak. Nazioarteko ekimena izan arren gure hizkuntzak presentzia eta lehentasuna beharko luke. Sare sozialetan ere ekimenaren inguruko iragarpenak gaztelaniaz daude nagusiki.

Dosierra: 842-2023

Nori: BIRIATUKO BESTA KOMITEA

Arrazoa: Biriatuko festetako kartela frantses hutsean egin eta publikatu da. Euskarari tituluak bakarrik eman zaio lekua.

Dosierra: 874-2023

Nori: SANPEDROTARRA ARRAUN KIROL ELKARTEA

Arrazoa: Gure alabari Sanpedrotarra Arraun Elkartetik mediku azterketa egiteko fitxa bat betetzeko eskatu diote. Fitxa hori gaztelera hutsean dago. Bertara bideratu dut kexa, eta jakinarazi diet Behatokian ere jarri dudala kexa.

Dosierra: 898-2023

Nori: SOCIEDAD ANÓNIMA DEPORTES Y ESPECTÁCULOS (SADE)

Arrazoa: Donostiako SADE zinemek erabat gaztelera ematen dute zerbitzua, bai dituen hiru zinemetako seinaleetan, bai beraien webgunean, bai sare sozialetan ... guztia gaztelera hutsean dago. Langileren batek badaki euskaraz, baina gehienek hitz bat ere ez dute egiten.

Dosierra: 920-2023

Nori: CURVES EUROPE - Gasteiz -

Arrazoa: Gasteizko Curves gimnasioan kartel guztiak gaztelaniaz daude, bai zentraletik datozenak zein langileek eskuz idazten dituztenak. Musika etengabe dago jarrita, baina inoiz ere ez dute euskaraz edo euskal kutsurik duen ezer jartzen. Bertako erabiltzaile asko euskaldunak gara, baina ez dute ahaleginik egiten. Inoiz

bururatu zait neure burua eskaintzea dituzten kartelak euskaratzeko, baina ez dakit nola hartuko duten.

Dosierra: 930-2023

Nori: REAL SOCIEDAD

Arrazoa: Gure semea Errealeko bazkidea da eta, autobusen harira, iraileen gaztelania hutsean mezua jaso genuelako emaila idatzi genien eta beraien erantzuna "Emailak heleben bidaltzen dira beti. Premiazko zerbaite dagoenean, hizkuntza bakar batean bidaltzen da soilik mezua ahalik eta azkarren zabaltzeko, atzoko kasuan bezala". Gure desadostasuna azaldu genuen. Bada, azaroan beste email bat jaso dugu, oraingoa ere gaztelania hutsean.

Dosierra: 978-2023

Nori: TELEFONICA AUDIOVISUAL DIGITAL S.L.U. (Movistar plus)

Arrazoa: Movistar+ plataforman Oink Oink filmea ikustera joan gara, jakinda euskaratuta dagoen filme bat dela audioa euskaraz jartzen saiatu gara eta plataformak ez digu utzi. Dagokionari eskatu nahi diogu Movistar+ plataformari audio artxiboa bidal diezaion eta Movistar+ plataformak euskarazko audioa entzungai jar dezan.

Dosierra: 985-2023

Nori: RELAIS TERMAL (Zestoako bainuetxea)

Arrazoa: Zestoako bainuetxearen webgunea
<<https://www.balneariocestona.com>> erdara hutsean dago.

ALDERDI POLITIKOAK/SINDIKATUAK (14)

Dosierra: 219-2023

Nori: PSN-PSOE-SOCIALISTAS DE PAMPLONA

Arrazoa: Udal-hauteskundeetarako PSNren Iruñeko alkatetzarako afixetan "Hagamos latir Pamplona" leloa ""ERAGINDITZAGUN TAPAUDAK", itzuli dute euskarara, ia ikusten ez dela. Txikiago eta finago ezin zuten jarri? Ez dadila esan jarri ez dutenik, baina ez dadila ikusi jarrita dagoela. Utzikeria eta errespetu falta galanta.

Dosierra: 281-2023

Nori: EAJ-PNV - EUZKADI BURU BATZARRA

Arrazoa: Aberri Egunerako EAJk erabili dituen kartel eta iragarkietan, euskarazko testuak izanik ere, Bizkaiko hiriburuaren izen erdarazkoa baizik ez dute erabili. Franco aspaldi hil zen.

Dosierra: 375-2023

Nori: EH BILDU

Arrazoa: Gaurko Garan EH Bilduk argitaratutako iragarkian "Plaza Berria" diote. Bada, Plaza Berririk ez dago Bilbon. Plaza Barria da eta errespetatu behar lukete izena. Ez da lehenengo aldia.

Dosierra: 385-2023

Nori: PSN-SOCIALISTAS DE NAVARRA

Arrazoa: PSN alderdiaren kartel hau ikusi dugu Lodosan, bertan hainbat hizkuntza agertzen dira baina Nafarroako hizkuntza den euskararen arrastorik ez. Hizkuntza horiek ez dira Nafarroakoak, euskara aldiz bai eta euskarak ere tokia izan beharko luke kartelean. Zenbat dira, adibidez, gure herrian alemana soilik ezagutzen duten herritarrak? Jarri nahi dituzuen aitzakiak, euskara eta euskal hitzunikiko gorrotoa eta bazterkeria erakusten dute kartel horiek. Mesedez, PSN-ri euskara eta euskal hitzunikiko duen jarrera aldatzeko eskatu nahiko nioke.

Dosierra: 401-2023

Nori: ELKARREKIN PODEMOS - Erandio -

Arrazoa: Meso kalean (Astrabudua, Erandio) diren obretako hesiak karteletan josi ditu Elkarrekin koalizioak. Dozena bat daude, denak berdinak eta erdara hutsean. Eskerrak eman behar ote dizkiet argi uztearren nori ezin diodan botorik eman erabaki dutelako euskaldun herritarrok guztiz baztertua?

Dosierra: 404-2023

Nori: PSN-SOCIALISTAS DE NAVARRA

Arrazoa: PSN alderdiak hauteskundeetarako propaganda helarazi dit erdara hutsez

Dosierra: 405-2023

Nori: VOX - Navarra -

Arrazoa: Vox alderdiak hauteskunde kanpainarako informazioa erdara hutsez bidali dit

Dosierra: 406-2023

Nori: PP Nafarroa

Arrazoa: PP alderdiak hauteskunde kanpainarako propaganda erdara hutsez bidali dit

Dosierra: 423-2023

Nori: EH BILDU

Arrazoa: EH Bilduk gaurko Garan orrialde osoko iragarkia argitaratu du. Hau diote: "Eskatu posta bidezko bozka [sic] uztailak 13a [...] baino lehen". Euskaltzaleek dugun alderdiaren maila da datak euskaraz adierazten ez jakitea. Politikan diharduen talde nagusi eta euskaltzale batek zelan erabiltzen ditu txarto politikar-loko barbarik oinarritzenak ere? "Bozka"?! Zergatik diote "bozka", "boto" berba ez dute euskaratzen? Eta orduan kamuflaje, moztokeria eta garbizalekeriatan ibiltzeko sasipremia sentitzen ote dute? Aztertu dezatela zer esan gura duen "bozka" berbak. Eta aztertu dezatela zer esan gura duen "uztailak 13a baino lehen"? Ez dakit zer mordoiokeria izango litzatekeen erdaratuko bagenu. Ilustragarria litzateke esaldi trakets horren parekoa erdaraz idatzeko kapaz bagina.

Dosierra: 424-2023

Nori: EH BILDU

Arrazoa: EH Bilduren Gasteizko alkategaiak ez daki euskaraz.

Dosierra: 534-2023

Nori: PSOE

Arrazoa: PSOE alderdiaren gutuna jaso dut etxeko postontzian. Gaztelania hutsean dago, ez dute kontuan hartu nire herrian, Arbizun, euskara ofiziala dela. Ez dut aintzat hartuko euskal hiztunokiko errespetua erakusten ez duten aukerekin.

Dosierra: 535-2023

Nori: UNION DEL PUEBLO NAVARRO - UPN

Arrazoa: uztailaren 23ko hauteskundetan botoa eskatuz gaztelania hutsean bidali dit publizitatea UPN alderdiak. Ofiziala da euskara nire herrian. Alderdi honek praktikatzen duen euskararen kontrako froga bat gehiago. Jai dute euskal hiztunak eta euskara aintzat hartzen ez dituzten alderdiak. Lotsa gutxi.

Dosierra: 819-2023

Nori: EH BILDU -NAFARROA-

Arrazoa: Iruñeko Udaleko EH-Bilduren Twiter kontuan agertzen diren azkenaldiko parte-hartze guztiak gaztelaniaz dira.

Dosierra: 862-2023

Nori: EH BILDU -AIARALDEA-

Arrazoa: Iragakari eta halako testu hain labur eta errazetan ere ezin ganoraz (euskaraz) idatzi Euskal Herriko koalizio abertzale nagusiak? "Aiaraldeatik"?!

ELIKADURA/OSTALARITZA/MERKATARITZA TXIKIA (38)

Dosierra: 28-2023

Nori: AGUA DE INSALUS S.A.

Arrazoa: Insalus etxearen botiletako etiketak gaztelania hutsean daude. "Ur mineralak" da soilik euskaraz jartzen duena. Bertako enpresa izanik herritarren hizkuntz eskubideak aintzat hartu ditzan eskatu nahi dut.

Dosierra: 47-2023

Nori: GÜRE POKE SL

Arrazoa: "Euskaditik mundu osora" dio Güre Poke janari etxeko leloak. Baina banatu duten esku orria eta webgunea gaztelania hutsean daude. Euskadin badago ofiziala den beste hizkuntza bat eta kontuan hartzea eskertuko genuke.

Erantzunak:

Gürepoke: Jakinarazi gura dizuegu Gürepoken bezero euskaldunen hizkuntza-eskubideak betetzen ditugula. Gure denda guztietan karta eta eskuorriak euskaraz zein gaztelaniaz daude eskuragarri, atxikitzen ditugun argazkietan ikusi dezakezuenek. Are gehiago, eremu euskaldunetan euskara lehenesteko politika daukagu. Bermeo, Durango eta Gernikako dendetan, kartel guztiak euskara hutsean daude (Bilbon eta Mungian elebidunak dira). Web orriari dagokionez, webgune berria prestatzen ari gara, euskarazko bertsioa izango duena eta hilabeteko epean prest egongo dena.

Dosierra: 64-2023

Nori: ALZOLA URA - BALENZATEGI, S.A.

Arrazoa: ALZOLA URA - BALENZATEGI, S.A enpresak ur botiletako oharrak gaztelania hutsean zabaltzen jarraitzen du. Elgoibarko enpresak ikuspegi soziala zaindu eta erroturik dagoen tokikoen eskubideak errespetatu beharko lituzke.

Dosierra: 144-2023

Nori: FRUTAS AMATRIAIN

Arrazoa: Amatriain fruta-dendako tiketa gaztelania hutsean dago.

Erantzunak:

Frutas Amatriain: Ahal dugun azkarren zuzenduko dugu. Mila esker

Dosierra: 146-2023

Nori: ALZOLA URA - BALENZATEGI, S.A.

Arrazoa: Alzola etxearen ur botiletako argibide denak soilik gaztelaniaz idatzita daude.

Dosierra: 175-2023

Nori: CAFÉS BAQUÉ S.L.U.

Arrazoa: Cafes Baquek Loiuko aeroportuan daukan makina gaztelaniaz edo ingelesez baino ezin da jarri. Eta euskaraz? Gure kafea, gure hizkuntzan.

Erantzunak:

Produktu zuzendaria eta marketina: Lehenik eta behin eskerrik asko kexa hau helarazteagatik. Aireportuan dugun kafe makina, Suitzan diseinatua dago, eta eskatu genien arren, ez geneukan Euskaraz programatzeko aukerarik izan, ez bait dute beste bezerorik Euskal Herrian. Hori dela eta, pantaliako menua Euskaraz jartzeko aukerarik ezean, inprimatuta daukagun menua eta argibide guztiak Euskaraz ditugu. Hurrengo estekan aurkitu ditzakezu: <https://we.tl/t-nSefOJUsh>

Dosierra: 237-2023

Nori: HOSTELERIA VASCA SAU (GRUPO IRUÑA)

Arrazoa: Iruña kafetegiko tiketak erdara hutsean daude.

Dosierra: 250-2023

Nori: IURRETAKO BATZOKIA

Arrazoa: Iurretako batzokiaren gerentzia aldatu dute. Ohi bezala, ezin da euskaraz egin eta euskal prentsarik ez dute. Ostera, erdal egunkari bakarrarekin, alderdiaren ingurukoa, Deia, nahikoa ez, eta egunkari nazionalista espainol bat ere badute: Correo.

Dosierra: 289-2023

Nori: ALZOLA URA - BALENZATEGI, S.A.

Arrazoa: ALZOLA URA - BALENZATEGI, S.A enpresak ur botiletako oharrak gaztelania hutsean zabaltzen jarraitzen du. Elgoibarko enpresak ikuspegi soziala

zaindu eta erroturik dagoen tokikoen eskubideak errespetatu beharko lituzke. Webgunea bera ere gaztelania hutsean dago.

Dosierra: 317-2023

Nori: BAR KARELA

Arrazoa: Atzo, apirilaren 24, Tolosako Karela tabernara joan ginen emaztea eta biok 18:30ak aldera. Edaria eskatu eta pintxoak zerenak ziren galdetu nion zerbitzariari. Ni euskaraz eta zerbitzaria gaztelaniaz aritu zen "belarriprest" moduan edo. "Hauetako bi jarri ieazkidazu" esan nion behatzekin 2 erakutsiz eta hara non "hablame en castellano" bota zidan zerbitzariak. Esan nion 2 hatzak erakutsiz eta pintxoa seinalatuz eskatu nituela eta erraza zela ulertzea. "Te he dicho que me hables en castellano" bota zidan berriro jende guztiaren aurrean. Ordaindu eta alde egin genuen. "Gracias" esanez agurtu gintuen. Umiliatuta sentitu nintzen.

Dosierra: 319-2023

Nori: CONSERVAS MENDAVIA

Arrazoa: "Conservas Mendavia" etxearen anana-zukuen botiletako etiketak espainieraz eta fratsesez daude idatzita.

Dosierra: 322-2023

Nori: PEÑA ATHLETIC DEL CASCO VIEJO

Arrazoa: Igandean, 2023-4-23an, Bilboko alde zaharreko "Peña Athletic del Casco Viejo" kafetegi-jatetxera joan nintzen eta bi kafesne eskatu nizekion euskaraz zerbitzariari. Erantzun zidan "no se euskera y dime en español/castellano". Ondoren, hizketan jarraitu zuen eta esan zidan "no tengo obligación de hablar euskera y no quiero aprenderlo". Nik erantzun nion hamar hitz nahikoak direla euskaraz zerbitzua emateko eta nire hizkuntza eskubideak bortxatzen ari zela. Azkenean, euskaldun batek atenditu ninduen. Jarraian, erreklamazio-orria eskatu nuen eta, baita ere, ugazabarekin hitz egitea. Telefonoz hitz egin ahal izan nuen honekin eta esan nion, mesedez, zerbitzariari eskatzeko oinarritzko hamar-hamabost hitz inguru (kafesnea, ardoa, garagardoa; bat, bi, hiru, etab., horrelako berba sorta bat) eta zenbaki batzuk ikastea nahikoa dela euskaraz zerbitzu minimoa emateko, eta edonor gai dela hori ikasteko.

Dosierra: 340-2023

Nori: BINA BINA IZOZKI-DENDA -Donostia-

Arrazoa: "Bina bina" izozki-denda berrira joan ginen familian. Euskaraz artatu gintuzten eta eskertzekoa da. Kanpoaldean, gaztelerazko izena nagusiki eta toldoan euskaraz jarrita dute "Etxeko izozkiak". Barruan izozki guztien izenak gaztelara hutsean. Euskaraz ere jartzea eskatu nahiko nieke, euskaldunok kontuan izan gaitzaten.

Dosierra: 380-2023

Nori: LACTURALE S.A.T.

Arrazoa: Lacturalek bere zozketan parte hartzeko egin dituen orriak erdaraz baizik ez daude.

Erantzunak:

Bezeroaren arreta: Barkatu atzerapena, baina ikusi dugu ez genizuela erantzunik bidali, sentitzen dugu. Eskertzen dugu zuen iradokizuna eta kontutan izango dugu noski, hobetzen laguntzen gaituzte horrelako mezuek. Saiatzen gara euskaraz komunikatzen posible dugun guztia baina argi dago oraindik ez garela %100ra iritsi, baina iritsiko gara. Kasu hontan pasa dena da erdarazko foiletoa ailegatu dela zonalde euskaldunera (zonalde konkretu batzuetan, Errioxan adibidez , erdaraz bakarrik bildatzen dugu) eta batzutan bi hizkuntzatan dagoen foiletoekin nahasten da. Arreta gehiako jarriko dugu hurrengoan foiletoak ez nahasteko. Mila esker berriz ere, eta mila esker bertako, kalitatezko eta konpromezu sozialak dituen produktuak kontsumitzeagatik

Dosierra: 388-2023

Nori: ZUBIRI LENCERIA (CEARRA SABIN JOSEBA)

Arrazoa: Zubiri lenteriak denda barria ireki dau Bilbon. Webgunean sartu naz zer daben ikusteko eta dan dana gazteleraz. Betiko eta gertuko Bilboko komertzioa baina, euskarari lekurik ez? Areetan eta Donostian be dendak dakezala kontuan hartuta, bezero euskaldunak kontuan hartzeko eskatu gura dotsat Zubiriko arduradunei.

Dosierra: 428-2023

Nori: ABANDOKO BATZOKIA

Arrazoa: Abandoko Batzokian menua hainbat hizkuntzatan dute, euskaraz ez. Bertoko bezeroak gutxietsiak gara.

Dosierra: 480-2023

Nori: ISS - Nafarroako Ospitale Unibertsitarioa

Arrazoa: Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko kafetegian euskaraz eskatuta, inongo azalpenik gabe eta begiratu txarrez txandapasa egin digu; ez ulertzen ez zuenik, ez beste ezer ez digu adierazi eta zain eduki gaitu nahita. Azkenean beste lankide batek artatu gaitu.

Dosierra: 501-2023

Nori: THE LOAF BAKERIES SL

Arrazoa: The Loaf okindegi-kafetegira sartu ginen, Zurriola hiribidean. Aurreko bezeroa ingeles garbiz artatu zuten, zoragarri. Ni iritsi eta euskaraz eskatzean, gatzeleraz behar zuela, ez zekiela. Ingelesez egin nion, berak gatzeleraz erantzun. Lotsagarri. Donostian gaude, ez Londresen!

Dosierra: 513-2023

Nori: FALERINA TABERNA

Arrazoa: Gasteizko Udaleko Montehermoso Kulturuneak ostalaritzarako gune bat dauka: Falerina Taberna. lehiaketa bidez esleitzen dute zerbitzua, udalarena den gune batean. Ahozko zerbitzua askotan gatzeleraz izaten da eta hizkuntza paisaian ere gatzelera da nagusi (argazkietan ikusten den bezala). Uste dut kexa helarazi behar zaiela taberna kudeatzen dutenei eta Gasteizko Udalari ere.

Erantzunak:

Kultura eta Hezkuntza Saila: Kexan aipatzen den kafetegia Kultura saialarekin duen hitzarmenean sustatzen da, hortaz, erreklamazioa heldu bezain laster, kafetegia kudeatzen duen arduradunarekin harremanetan jarri gara gaia konpontzeko behin betiko neurriak hartzeko. Horrela, legediak ezarritako hizkuntza betebeharrak gogorarazi dizkiogu, hauek kasu guztietan bete behar dituela jakitera eman. Guretzat ere euskararen erabilera egokia egitea helburu garrantzitsua da eta gure erkidegoko hizkuntza ofiziala den aldetik, eremu publikoan ikusgarritasuna izan

dezan ahalegintzen gara. Sentitzen dut kasu honetan gertatutako akatsa. "Falerina taberna"ko herritar guztien hizkuntza-eskubideak errespetatzen eta sustatzen direla bermatzeko lanean jarraituko dugu.

Herritarraren erantzuna: berriz izan naiz Montehermoso Kulturuneko tabernan eta ez dute ezer aldatu, Gasteizko Udalak jakinarazi badie ere..."

Dosierra: 521-2023

Nori: CAFE MUGURU

Arrazoa: Galdakaoko MUGURU tabernan "kafesnea" euskaraz eskatu nuen atzo eta langileak "buenos días" edo esan behar dela. Defentsiban jarri zan euskaraz eskatzeagatik. Ika-mikatxua izan ostean ea "cortado" bat eskatu nuen galduta, nik ezetz "kafesnea" nahi nuela, "con leche" alegia. Marmarka hasi zan esaten berak ez zekiela euskeraz eta ez zala bertokoa. Ea ez zuen ulertu/ikasi nahi galdetuta ezetz erantzun zida. Nik "pues vete a la mierda" esan nion eta kalerantz nindoala "payaso" esan zidan.

Dosierra: 532-2023

Nori: AITZINA TABERNA

Arrazoa: Sanferminetan Iruñeko Aitzina tabernan izan ginen, deigarria egin zitzaigun taberna horretan, eta langileak euskaldunak izanik, kartelak gatzelaniaz zituztela ikustea. Tabernako oharrak ere euskaraz jartzea eskertuko genuke.

Dosierra: 541-2023

Nori: GASTEIZ ON - GASTEIZKO HIRI-MERKATARITZA SUSTATZEKO ELKARTEA

Arrazoa: Atzo Gasteiz On-ek antolatutako Txiki Txokoetan izan ginen (uzt. 20). Sinatzeko eman zizkiguten baimenak gatzelania hutsean zeuden. Onartezina da, zergatik ez dituzte gasteiztar euskaldunon eskubideak errespetatzen?

Dosierra: 609-2023

Nori: ALBIE, RESTAURACIÓN SOCIAL, CATERING Y VENDING

Arrazoa: Donostia Ospitaleko kafetegian garai batetik hona menuak elebitan jartzen dituzte, eta eskertzekoa da. Hurrengo pausua, euskaraz ondo idaztea. Akatsak sarritan egon ohi baitira.

Dosierra: 637-2023

Nori: ETIENNE Coffee & Shop

Arrazoa: uda honetan, Baionako merkatu plazako Etienne dendako komunetara jo eta bertan ondoko kartelarekin topo egin nuen: frantsesez nagusi eta ingelesez itzulita... Euskararen arrastorik ere ez...

Dosierra: 639-2023

Nori: CHOCOLATES VALOR SA

Arrazoa: Chocolates Valor-ek txokolatetegi bat ireki berri du Gasteizen, Euskadin lehena; errotulazio guztia erdaraz. Hemen ofiziala den beste hizkuntza bat badela eta kontuan hartzeko eskatu nahi diet.

Dosierra: 650-2023

Nori: PIZZERIA LA TORRE

Arrazoa: Donostiako Alde Zaharrea dagoen La Torre Donosti Pizzeriako karta gaztelaraz eta ingelesez dago baina ez euskaraz, langileetako batzuk euskaldunak izan arren.

Dosierra: 659-2023

Nori: ALZOLA URA - BALENZATEGI, S.A.

Arrazoa: Enegarrenez iesan nahi diot ALZOLA URA - BALENZATEGI etxeari botiletako argibideak euskaraz ere jarri beharko lituzkeela. Erantzunik ere ez du jaso oraindik.

Dosierra: 690-2023

Nori: FELISA KAFETEGIA

Arrazoa: Donostiko jatetxeak menua eta bestelako kartel batzuk erdara hutsean ditu. Weborria erdara hutsean dago ere bai. Euskaldunon hizkuntza eskubideak errespetatzea eskatzen dut. Eskerrik asko

Dosierra: 718-2023

Nori: BASATXERRI S. Koop

Arrazoa: Biga markako Eusko Label etiketak erdara hutsean idatzita daude. Ez dakit Basatxerri enpresaren edo Hazi fundazio publikoaren (Eusko Jaurlaritzaren

fundazioa da) ardura den, edozelan, kontsumitzaileok informazioa erdaraz irakurri behar dugu.

Dosierra: 725-2023

Nori: PICACHILLA TABERNA - Donostia -

Arrazoa: Tabernako barran bi garagardo eskatu nituen irailaren 25ean. Barran zegoen pertsonak, modu txar eta keinu bortitzekin "que no hablo euskera!" oihukatu zuen. Errespetu falta nabaria.

Dosierra: 764-2023

Nori: AENKOMER - ARABAKO MERKATARITZA ETA ZERBITZUETAKO ENPRESARIAK

Arrazoa: gaur, urriak 13, ezagun batek Gasteizko bizilagunei zuzendutako bere enpresako (Aenkomer) inkesta bat bidali dit. Estekan klikatu bezain laster agerikoa da inkesta erdara hutsean dagoela eta hori gutxi balitz, auzo batzuen izenak haien erdarazko forma ez-ofizialean eman direla, adibidez: Ariznavarra (ofizialki Ariznavarra). Aenkomer enpresa pribatua bada ere, lazgarria da Gasteizko biztanleria osoari zuzendutako inkesta bat erdara hutsean plazaratzea jakinda hirian bizi diren euskaldunen eskubideak urratuko direla eta gainera auzo batzuen izenak gaizki idatzita (beti ere gaztelaniaren mesedetan eta euskararen kalterako).

Dosierra: 773-2023

Nori: USATEGIETA JATETXEA

Arrazoa: Oiartzungo Usategieta jatetxearen web orria gaztelaniaz baino ez dago. Jatetxe honen berri gustura jasoko genuke euskaraz euskaldunok.

Dosierra: 775-2023

Nori: MATTEO JATETXEA

Arrazoa: ospakizun baterako jatetxe baten bila hasi naiz Oiartzunen eta Matteo jatetxearen web orriarekin egin dut topo eta ikusi dut gaztelania hutsean dagoela. Jatetxe honen oso erreferentzia onak jaso ditut eta eskertuko genuke eskaintzen duten zerbitzuaren kalitatean urrats bat eman eta web orria euskaraz ere eskainiko balute.

Dosierra: 776-2023

Nori: MAÑEKO S.Coop

Arrazoa: Mañeko goxokien enpresak sare sozialetan euskarari egiten dion tokia hutsaren hurrengoa da. Bertoko produktuak saltzen dizkigute baina bertoko hizkuntza kontuan hartu gabe? Publikazio horretan euskal pastelari "pastel vasco" eta "un trocito de nuestra historia" omen da, gure erro eta tradizioak aipatzen dituzte, dena gaztelaniaz noski. Mesedez Mañeko-ko arduradunei erantzukizun pixka bat eskatu nahi diet herri honekiko zein bere hizkuntza eta kulturarekiko.

Dosierra: 777-2023

Nori: IRIARTE ENEA ERRETEGIA

Arrazoa: Lezoko Iriarte-enea jatetxearen web orria gaztelaniaz baino ez dago. Bezero euskaldunok eskertuko genuke web orria euskaraz kontsultatu ahal izatea. Eskerrik asko

Dosierra: 808-2023

Nori: ALKAR TABERNA

Arrazoa: Gasteizko Alkar tabernaren kanpoaldeko pare bat argazki eranstean ditut, euskaldunoi diguten begirune ezaren erakusgarri.

Dosierra: 856-2023

Nori: ALBIE, RESTAURACIÓN SOCIAL, CATERING Y VENDING

Arrazoa: Aurrekoan ere eskatu nuen baina Donostia Ospitaleko menua erabat traketsa da euskaraz. Behingoz zuzenketa egokiak egin ditzaten eskatu nahi dut, horretarako baliabideak badituzte eta.

Dosierra: 895-2023

Nori: KAIXIO PUB-TABERNA

Arrazoa: Bermeoko Kaixio tabernak postontzietara bidali duen iragarkia gaztelera baino ez dago.

ENERGIA HORNITZAILEAK (7)

Dosierra: 3-2023

Nori: PETROPRIX ENERGIA SL

Arrazoa: Zamudioko surtidoreko pantailetan ezin da euskara aukeratu. Espainiera eta ingelera soilik

Dosierra: 338-2023

Nori: IZELAI FUEL S L

Arrazoa: Altsasuko Izelai Fuel gasolindegiko makinetan euskara aukeratu badezakegu ere, zenbait mezu gaztelaniaz baino ez dira agertzen, gasolindegiko afixak ez daude euskaraz idatzirik eta tiketak gaztelaniaz baino ez dituzte ematen.

Dosierra: 372-2023

Nori: IBERDROLA CLIENTES SAU

Arrazoa: Iberdrolak eta Guggenheimek kaleko argazki erakusketa bat jarri dute Bilboko Casilda andrea parkean. Azalpenak bi paneletan jarri dituzte baina bietan gaztelaniaz soilik. Beraientzat ez dago euskararik. Zergatik horrelako mespretxua euskarari eta euskal hiztunei?

Dosierra: 568-2023

Nori: NATURGY IBERIA SA

Arrazoa: Naturgy argindar enpresara deitu eta lokuzio automatikoa atera zait. Bertan, gaztelera ez zen beste hizkuntza batean artatua izan nahiez gero, 0 sakatzeko eskatzen dute. Behin sakatuta, katalaneraz, galizieraz edo ingelesez artatzea eskaintzen dute. Euskaraz ez. Euskal Herrian zerbitzua ematen duen enpresa izaki, euskaraz egon beharko luke, gure hizkuntza hautuak errespetatuz.

Dosierra: 667-2023

Nori: TOTAL ENERGIES S.L.U.

Arrazoa: Etxeko telefono finkora deitu zigan TotalEnergieskoa zela esan zigan andre batek (deia egin ziguten zenbakia: 688670707). Total Energikoa zela aurkeztean, nik gogo onez euskaraz erantzun nion eta hark, deia moztu zidan arnasa hartzeko gelditu nintzenez. Hau asteazken goizean izan zen, irailak 6an.

Konpainia horren bezeroak gara eta zerbitzua okerra iruditu zitzaidanez nire kexa azaldu nahi dut.

Dosierra: 908-2023

Nori: I-DE REDES ELECTRICAS INTELIGENTES SAU -GRUPO IBERDROLA-

Arrazoa: Iberdrola dorreko kartelak (argazkietan ikus ditzakezuen bezala) erdaraz baino ez daude. Horrez gain, igogailuetako pantailetan informazioa erdaraz baino ez da azaltzen. Bestalde, jatetxeko informazioa (menua, janariaren izenak, tiketak, etab.) erdaraz baino ez zegoen eta ezin izan genuen bertako langile guztiekien euskaraz egin.

Dosierra: 970-2023

Nori: I-DE REDES ELECTRICAS INTELIGENTES SAU -GRUPO IBERDROLA-

Arrazoa: Gaur goizean argindarrrik gabe geratu naiz etxean. Halako matxuretan 900 171 171 zenbakira deitu behar dut (I-DE Redes Eléctricas Inteligentes, SAU, Iberdrola taldeko enpresari alegia, argindarra Goienerrekin kontratatuta badut ere, beste enpresa hori baita banatzailea). Telefono horretan ez didate hizkuntza hautatzeko aukerarik eman, "elkarrizketa" osoa gaztelania hutsez, hasi eta buka (salbuespena: herriaren izena galdetu didatenean euskaraz bota dut "Donostia", eta hori bai, ezagutu du sistemak). "Elkarrizketa" diot, komatxo artean, ez baitut inorekin hitz egin: makinaren bidez eraman naute grabazio batetik bestera (datuen babesari buruzko azalpenak, nire IKF eskatzeko eta helbidea baieztatzeko galderak... matxura konpontzeko jarraibideak eman eta deia amaitu arte). Hau da, bestela ere aitzakiarik ez, baina grabazio sorta baten bidez dabilen zerbitzu batean, are lotsagarriago da euskarazko zerbitzurik ez ematea: nahikoa lukete galdera / erantzun posible guzti horiek euskaraz ere grabatzea, eta esan izan behar ditudan datu gutxi horiek (bai/ez, zenbakiak...) sartzea sisteman.

ERAGILEAK/MUNDU ASOZIATIBOA (4)

Dosierra: 416-2023

Nori: BIDELAGUN ELKARTEA

Arrazoa: Durangoko Bidelagun elkarteak gaztelania hutsean atera du Loreen Jaialdiko egitaraua jasotzen duten kartelak. Gizarte-inklusioa ez da gure herriko gutxitutako hizkuntzari tokia egitea eta euskara inklusiorako tresna ere egitea?

Dosierra: 804-2023

Nori: ESKU HUTSIK ELKARTEA

Arrazoa: Esku Hutsik elkarteak, urriaren 19 eta 20an, Bilbon, antolatu zuen "Indarkeria obstetrikoa, jaiotzaren inguruko dolua eta osasun mentalari buruzko II. Kongresuan hartu nuen parte, ikus-entzule gisa. Bi egun iraun zuen kongresuan presentzia oso-oso eskasa izan zuen euskarak: 16 bat ponentzietatik bakarra izan zen euskaraz. Gainera, euskaraz azaldu zen ponentzia bakar horren aurkezpenean, Esku Hutsik elkarteko lehendakariak barkamena eskatu zuen aurkezpena euskaraz egingo zelako. Entzuleak aldegin arazteko gonbidapena begitandu zitzaidan, ia-ia, are gehiago, bertan zirenetako batzuk irten egin ziren eta zurrumurru eta kexa ugari entzun zen. Aurkezpena euskaraz egin zuen hizlariaren ppt-a ere euskaraz eta gaztelaniaz zegoen, baina, gaztelaniaz aurkeztu zutenenak, gaztelaniaz baino ez zeuden, euskarari ez zioten lekurik egin. Oso desorekatua eta berdintasunetik urrun, baztertzaila, iruditu zitzaidan bi hizkuntza ofizialei eskainitako presentzia eta emandako tratua. Areago, kongresuak erakunde publiko baten, Emakunderen, dirulaguntza jaso zuela ikusita.

Dosierra: 894-2023

Nori: ALHONDIGA-BELASKOENEA AUZO ELKARTEA

Arrazoa: argakia ikusten bezalaxe, Irungo Alhondiga - Belaskoeneako Auzo Elkarteak, oharra gaztelania hutsean argitaratu du, ez ditu kontuan hartu euskaldunon hizkuntz eskubideak.

Dosierra: 932-2023

Nori: AEK - KORRIKA -

Arrazoa: KorrikaApp aplikaziokoaren bidez Korrika laguntzaileen artean egiten ditu zozketak AEK-k. Zeinen tristea begitantzaren zaidan AEK-k Heletari Hélette esatea euskaraz. Berari Vera de Bidasoa esango liokete? Edo Getxori Guecho? Webgunean ere "Helette" idatzi dute.

Erantzunak:

Korrika: KORRIKA-k bere akatsa asumitzen du, arrazoi osoa dauka egileak, eta barkamen eskaera helarazten diogu. KORRIKAren zurrunbiloan, tamalez, horrelako akatsak egin izan ditugu gure nahiaren kontra. Webgunean zuzenketa egin dugu jadanik, telefonoaren aplikazioan, zoritxarrez, konplikatua zaigu (edonola ere, ahaleginduko gara zuzentzen). Era berean, KORRIKAk honelakoetan eta, oro har, gure hizkuntzaren normalizazioan zurrunago ibiltzeko konpromisoari eutsiko dio.

FINANTZAK/ASEGURU ETXEAK (23)

Dosierra: 19-2023

Nori: TRIODOS BANK

Arrazoa: Triodos Bank etxearen webgunean identifikatzean hau agertu zait: "Sar ezazu jaso duzun kodea SMS-egatik [sic] zure identitatea egiaztatzeko".

Dosierra: 126-2023

Nori: LAGUN ARO - BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA

Arrazoa: Lagun Arora deitzean (otsailaren 13a) mezu automatikoa gaztelaniaz baino ez da entzuten. Langileak hartzean agurra gazteleraz. Gero nik euskaraz eta langileak, zorionez, euskalduna zen eta euskaraz egin dugu. Perituak deitu zuen eta gazteleraz. Ea euskaraz ez zekien galdetu nion eta bazekien baina saiatzen zen gazteleraz egiten. Azkenean esan nion ea euskaraz egin ahal zuen nirekin eta geroztik euskaraz egin zidan ondo. Enpresa konpontzailetik deitu eta erdalduna da kontaktua. Badirudi euskaldunak ezkututzen dituztela. Jasotako e-posta mezua gazteleraz nahiz eta langilearekin euskaraz egin.

Dosierra: 155-2023

Nori: LABORAL KUTXA - BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Laboral Kutxako kaleko kutxazainean (Barakaldo: Foruen pasealekua) zergatik dago ipinita erdara hutsean "LIBRETAS" idazkia?

Dosierra: 160-2023

Nori: LABORAL KUTXA - BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Laboral Kutxaren Astrabuduko (Erandio) bulegoko ordutegiaren berri ematen duten kartel eta euskarriak ---piloa, berdina--- zergatik daude erdara hutsean? Euskaraz bat ere ez.

Dosierra: 167-2023

Nori: LABORAL KUTXA - BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Arteagabeitia kaleko (Barakaldo) Laboral Kutxan, kutxazain automatikoak dauden inguru txikian bakarrik kartel piloak daude ordutegia adierazteko, denak erdara hutsean, lotsagorritu barik, euskaldunok batere aintzatetsi gabe zilegi

balitz bezala. .A PARTIR DEL 2 DE ENERO / EL HORARIO DE CAJA SERA [SIC] DE / 8.30 A 12.00 / INGRESOS Y PAGOS EN EFECTIVO, IMPUESTOS, COMUNIDADES DE / VECINOS, ALQUILERES, RECIBOS NO DOMICILIADOS / 8.30 A 10:00 / NO CLIENTES SOLO ATENDEMOS HASTA LAS / 10 Horrelako bospasei daude. Eta barrurantzko atean beste bat dago, formatu desberdinekoa eta eduki desberdinekoa, ordutegiaz halere, hau ere erdara huts-hutsean.

Dosierra: 200-2023

Nori: TRIODOS BANK -Bilbo-

Arrazoa: Triodos Bank banketxetik sms hau jaso berri dut, erdara hutsean: "Trasladamos la oficina de Bilbao. A partir del 24 de marzo estaremos en el coworking BAT, Gran Via de Don Diego Lopez de Haro, 1, Bilbao. Nos vemos". Bilboko bulegoa erreferentziatzen dugun bezeroondako baino ez den mezu hain labor eta simple batean ere ez dira 'kapazak' euskaldunok kontuan hartzeko. Ez dago aitzakiarik. Duela urte piloak nago konturatuta ez direna banketxe etikoa.

Dosierra: 323-2023

Nori: TRIODOS BANK

Arrazoa: Triodos banketxe "etikotik" sms hau bidali didate, erdara hutsean: "La ubicacion de tu oficina ha cambiado. Puedes solicitar cita previa, consultar la nueva direccion y horario en nuestra web, en la seccion Oficinas y cajeros". Euskal Herrian bulego bi daude. Bilbokoaz ari dira. Etika apurren bat balute begirune apurtxo bat behintzat izango ligukete euskaldunoi. Praktika da, ostera, supremazista espainolak direla eta hizkuntzagatiko bereizkeria eta zapalkuntzan dihardutela. Gauzarik erraz eta sinpleenetan ere ez baitute inongo asmorik euskaldunok aintzat hartzeko.

Erantzunak:

Bezeroentzako arreta zerbitzua: arloetako arduradunei helarazi zaie, gertatutakoa balora dezaten eta hobekuntza-neurri egokiak har ditzaten; izan ere, erakunde honentzat lehentasunezkoa da gure bezero guztiei kalitate goreneko zerbitzua eskaintzea. Azpimarratu nahi genuke Triodos Banken ahalegin ekonomiko, tekniko eta gizatiar handia egin dugula gure bezeroei internet bidezko operatiba katalanez, euskaraz eta galegoz eskaini ahal izateko. Atsegin handiz bidaliko genizkieke gure bezeroei gure komunikazio guztiak nahi duten hizkuntzan, baina horrek zaildu eta moteldu egingo luke gure jarduera, sistema tekniko konplexuak behar dituzten

datu-base bereiziaz egitera behartuz. Horregatik, gure bezeroei oro har bidaltzen zaizkien horrelako komunikazioetan gaztelania erabiltzea erabaki dugu. Hori guztia Estatuko gainerako hizkuntzak errespetatuz eta gure bezeroei kalitatezko arreta eskaintzeko helburuarekin. Hala ere, jakinarazten dizuegu tartean diren arloetako arduradunei helarazi zaiela, etorkizunean kontuan har dezaten. Bezeroarentzako Arreta Zerbitzu honek ez du uste Triodos Bank erakundeak gure bezeroen hizkuntza-eskubideei buruzko araudia urratu duenik. Hala ere, Triodos Bankek etengabeko hobekuntzaren printzipioari jarraitzen dio, eta, beraz, lanean jarraitzeko asmoa du, bezeroei ahalik eta zerbitzurik onena emateko eta hobetzeko.

Dosierra: 324-2023

Nori: LABORAL KUTXA - BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoiak: Laboral Kutxaren Ezkurdiko bulegoan (Zumalakarregi kalea, Durango) kutxazain automatikoen gunetik barru-barruko alderako sarreran kartel bakarra dago eta erdara hutsean. Ordutegien gainekoa da eta ondo-ondoan "Euskaraz lasai aritzeko gunea" dioen Euskaraldiaren eranskailua dute ipinita. Lotsagarria da. Edo dira. Lotsagarria da kartela erdara hutsean egotea. Eta lotsagarria da Euskaraldia delako kanpaina praktikan "hau" izatea. Badirudi "no quieren trabajar" eta "nos quitan el trabajo" aldi berean dioten supremazista espainolen maila dugula.

Dosierra: 329-2023

Nori: TRIODOS BANK

Arrazoiak: Azken hilabeteotan, hirutan edo, jaso izan dut Triodos banketxetik mezuren bat. Kexak jaso arren, jarraitzen dute mezu denak gaztelania hutsean bidaltzen. Azkena, hauxe: "La ubicacion de tu oficina ha cambiado. Puedes solicitar cita previa, consultar la nueva direccion y horario en nuestra web, en la seccion Oficinas y cajeros".

Dosierra: 492-2023

Nori: ZURICH ESPAÑA COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS SA

Arrazoiak: Zuen aseguru-etxearekin auto-asegurua kontratatu nuen eta zuei idatzi ostean poliza-agiria eta aseguruaren baldintza orokorren agiria euskaraz bidali

zenizkidaten. Oraingoan poliza berritzearen inguruko gutuna jaso dut etxean, baina hori gaztelaniaz jaso dut, agiriak euskaraz jaso nahi nituela esan nizuen arren.

Erantzunak:

Zurich Sucursal España: Honen bidez gure barkamenik zintzoenak adierazi nahi dizkiogu herritar horri. Eta bere esanetara jartzen gara, poliza berritzeko gutuna euskaraz bidaltzeko. Jarraian, eskaera egiteko harremanetarako helbide elektronikoa adierazten dizuegu: defensacliente-es@zurich.com Zurich España erakundearen, neurriak hartu ditugu horrelako egoerak berriro gerta ez daitezen.

Dosierra: 545-2023

Nori: TRIODOS BANK

Arrazoiak: uztailaren 11n Triodos banketxetik ondoko e-maila bidali zidaten, Bilboko bulegoaren ordutegiak uztail-abuztueran izango dituen gorabeheren berri emateko. Erdara hutsean dago, Euskal Herriko bulego bietako bateko bezerooi zehatz eraginda ere.

Erantzunak:

Bezeroaren Arretarako departamentua: Azpimarratu nahi genuke Triodos Banken ahalegin ekonomiko, tekniko eta gizatiar handia egin dugula gure bezeroei internet bidezko operatiba katalanez, euskaraz eta galegoz eskaini ahal izateko. Gainera, Triodos.es web orrian hiru hizkuntza horietan eskuragarri dauden produktuen formularioak edo kontratu-agiriak daude, eta duela urte batzuetatik hona, hilabeteroko buletin bat egiten dugu e-mailez, Estatuko lau hizkuntza koofizialetan. Atsegin handiz bidaliko genizkieke gure bezeroei gure komunikazio guztiak nahi duten hizkuntzan, baina horrek zaildu eta moteldu egingo luke gure jarduera, sistema tekniko konplexuak behar dituzten datu-base bereiziaz egitera behartuz. Horregatik, gure bezeroei oro har bidaltzen zaizkien horrelako komunikazioetan gaztelania erabiltzea erabaki dugu. Hori guztia Estatuko gainerako hizkuntzak errespetatuz eta gure bezeroei kalitatezko arreta eskaintzeko helburuarekin. Hala ere, jakinarazten dizuegu horren berri eman zaiela tartean diren arloetako arduradunei, etorkizunean kontuan har dezaten. Sail honen ebazpen honekin ados ez bazaude, Banco de Españako Erreklamazio Zerbitzura jo dezakezue (Alcala kalea 48, 28014 Madril). Aurkezteko formularioa esteka honen bidez eskura daiteke: <https://clientesbancario.bde.es/pcb/es/menu-horizontal/podemosayudarte/consultasreclama/comorealizarrecl/>

Dosierra: 548-2023

Nori: TRIODOS BANK

Arrazoa: "Horario de tu oficina de Bilbao desde el 24/07 al 15/08: martes y jueves de 11 a 13 h. Resto de fechas en el menu Oficinas y Cajeros de nuestra web". Oso etikoa ez da, bada, euskaldunok bazterkeriaz tratatzea.

Erantzunak:

Bezeroaren Arretarako departamentua: Azpimarratu nahi genuke Triodos Banken ahalegin ekonomiko, tekniko eta gizatiar handia egin dugula gure bezeroei internet bidezko operatiba katalanez, euskaraz eta galegoz eskaini ahal izateko. Gainera, Triodos.es web orrian hiru hizkuntza horietan eskuragarri dauden produktuen formularioak edo kontratu-agiriak daude, eta duela urte batzuetatik hona, hilabeteroko buletin bat egiten dugu e-mailez, Estatuko lau hizkuntza koofizialetan. Atsegin handiz bidaliko genizkieke gure bezeroei gure komunikazio guztiak nahi duten hizkuntzan, baina horrek zaildu eta moteldu egingo luke gure jarduera, sistema tekniko konplexuak behar dituzten datu-base bereiziak egitera behartuz. Horregatik, gure bezeroei oro har bidaltzen zaizkien horrelako komunikazioetan gaztelania erabiltzea erabaki dugu. Hori guztia Estatuko gainerako hizkuntzak errespetatuz eta gure bezeroei kalitatezko arreta eskaintzeko helburuarekin. Hala ere, jakinarazten dizuegu horren berri eman zaiela tartean diren arloetako arduradunei, etorkizunean kontuan har dezaten. Sail honen ebazpen honekin ados ez bazaude, Banco de Españako Erreklamazio Zerbitzura jo dezakezue (Alcala kalea 48, 28014 Madril). Aurkezteko formularioa esteka honen bidez eskura daiteke: <https://clientebancario.bde.es/pcb/es/menu-horizontal/podemosayudarte/consultasreclama/comorealizarrecl/>

Dosierra: 574-2023

Nori: LABORAL KUTXA - BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: gaurko egunez, abuztuaren 3an, bankuan tramiteak egitera joan naizenean, Galdakaoko Laboral Kutxaren J.B. Uriarte kaleko bulegoko harrera langilea erabat erdalduna dela salatu nahi dut. Nahiz eta euskara errazean aritu naizen hasieran, gaztelaniaz egin behar izan ditut tramiteak.

Dosierra: 575-2023

Nori: KUTXABANK - BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA

Arrazoa: Kutxabankekin transferentzien jakinarazpenak gaztelania hutsean bidaltzen ditu, hau da, ez ditu betetzen bezero euskaldunok dauzkagun hizkuntza-eskubideak, besteak beste, honakootan jasotakoak: azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 5.1 artikulua eta 123/2010 Dekretuaren 5. eta 10. artikulua.

Erantzunak:

Hizkuntza kudeaketa: Dagoeneko jakinarazi diegu arduradunei Kutxabankeko transferentzien jakinarazpenek ere hizkuntza betebeharrak dituztela, eta ondorioz, gaztelania hutsez bidalita legea urratzen dutela. Etxe barruan egin beharreko egokitzapen eta garapen lanak egin artean, eragindako eragozpenengatik barkamena eskatzea dagokigu, honenbestez, eta intzidentzia helaraztegitik eskerrak ematea ere bai, ditugun hutsuneak antzemateko eta konpontzeko baliagarri eta lagungarri zaizkigunez.

Hizkuntza kudeaketa: ez gara lege betebeharrak eskatzen duten moduan ari. Kutxabankeko arduradunak jakinaren gainean jarri orduko ekin diote etxe barruan egin beharreko egokitzapen eta garapen lanak aurreikusteari, ondoren, beharrezko aterabidea emateko. Eragindako eragozpenengatik barkamena eskatzea dagokigu, honenbestez, eta intzidentzia helaraztegitik eskerrak ematea ere bai, ditugun hutsuneak antzemateko eta konpontzeko baliagarri eta lagungarri zaizkigunez.

Dosierra: 578-2023

Nori: LABORAL KUTXA - BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Laboral Kutxaren Iruñeko bulegoan izan naiz gaur (KarlosIII). Arreta eman didan langileak ez zekien euskaraz eta gaztelaniaz aritu behar izan dut. Gure hizkuntza alboratzera bortxatzen gaituzte.

Dosierra: 584-2023

Nori: LABORAL KUTXA - BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: birritan gertatu zait denbora gutxian: Laboral Kutxaren Tebankara deitu, zerbitzua euskaraz eskatu eta, dexente itxaron ondoren, langileak lanpetuta daudela eta beranduago deitzeko. Ondoren berriro deitu, zerbitzua gaztelera eskatu eta atenditu egin naute

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: asko sentitzen dugu. Gauza puntuala izan behar du, Telebanka zerbitzuan pertsona kopuru bera baitago bi hizkuntzetan arreta ematen. Berriro ez gertatzea espero dugu, zerbitzua bezeroak aukeratzen duen hizkuntzan bermatzea baita gure lehentasunetako bat.

Dosierra: 613-2023

Nori: ALLIANZ, COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A

Arrazoiak: Allianz aseguru etxearen aseguru-hartzailea naiz. Poliza-agiria gaztelaniaz jaso dut eta euskaraz jaso nahi dudala eskatuz mezua bidali diet euskaraz, horretarako eskubidea baitut Aseguru Kontratuaren Legearen 8. artikulua (urriaren 8ko 50/1980 Legea) xedatu bezala. Erantzun didate gaztelaniaz adierazteko zein kudeaketa mota nahi dudana. Ez diet gaztelaniaz idatziko, eskubide osoa baitaukat euskaraz idazteko. Era berean, poliza-agiria euskaraz bidal diezadazuela eskatzen dizuet.

Dosierra: 724-2023

Nori: LABORAL KUTXA - BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoiak: Laboral Kutxatik inkesta bat egiteko eskaria jaso dut. Erantzuteko aukera batzuk gaztelaniaz ageri dira behin eta berriro: NC eta NS modukoak. Badago galdera bat ez dena ulertzen, "[...] su empresa [...]" dioena. Eta badago besteren bat gaztelaniatik euskarara halmotuz ekarri dutena. Ziurrenik kanpoko (tele)marketing enpresaren batek egingo zien. Bada, gaztelaniazko inkestetan izaten duten kalitate maila esijituko behar liokete enpresari.

Dosierra: 746-2023

Nori: KUTXABANK - BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA

Arrazoiak: Barakaldoko San Bizente auzoko Kutxabanken bulegora joan naiz eta euskaraz egin diot arreta eskaini didan langileari, gaztelaraz egiteko eskatu dit, Euskaraz jarraitu dut baina erdipurdi ulertzen zuen eta berriro azaltzeko eskatu dit. Azkenean gaztelaniaz aritu behar izan dut.

Dosierra: 838-2023

Nori: KUTXABANK - BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA

Arrazoiak: Kutxabanken Kutxabank Storeri idatzi nion ondoko intzidentziaren berri emanen. "Ezinezkoa izan zait Kutxabankstore webguneko hasierako orriaren euskarazko bertsiora sartzea eta, behin sartuta, newsletterera harpidetza egin dudanean gaztelaniaz egin omen dit harpidetza. Eskertuko nizueke arazoa konponduko bazenute; zuen webgunea euskaraz erabili nahi dut eta informazioa euskaraz jaso nahi dut". Mezu horri erantzunez, ondorengo mezua igorri dit Kutxabankstorek gaztelaniaz: "SORTEO IPHONE KUTXABANK Debe introducir su usuario y contraseña en el apartado de usuario (marcado en rojo) Una vez metido en la web seleccionar mediante un CLICK Quiero recibir comunicaciones comerciales". Hori ez zen mezuaren gaia, baizik eta Kutxabank Store webgunearen euskarazko bertsioak ez duela ondo funtzionatzen eta, ondorioz, ezin izan dudala harpidetza euskaraz egin. Hori gutxi ez eta euskarazko mezuari gaztelaniaz erantzun diote.

Dosierra: 905-2023

Nori: LABORAL KUTXA - BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoiak: Osasun-aseguru pribatua kontratatzeke asmoa dudala eta, hilaren 9an (gaur 27a da) Laboral Kutxaren webgunearen bitartez formulario bat bete nuen, honako goiburua zuena: "ZURE DATUAK SARTU ETA ASEGURU GESTORE BAT ZUREKIN JARRIKO DA HARREMANETAN". "Posta elektronikoz" harremanetan jartzea eskatu nuen, baldintzak eta argibide guztiak idatzirik gura ditudalako izan. Bada, aurreko astean, hilaren 21ean, pare bat e-mail jaso nituen: "zure gestoreak agiri bat gehitu du" eta "hormako erantzuna" gaitzat zituztenak. Bigarrenak honela zioen: "Aitor XX estimatua, Gorka XX gestoreak zure horman idatzi du: Egun on, te hemos mandado a la Mezua osorik ikusi nahi baldin baduzu, sartu zure Online Bankara". Pentsatu nuen atzenean eskatutako informazioa jasotzen ari nintzela. Oker nembilen. Online bankara sartu eta ez eskatutako informaziorik, ez errespeturik ere herritar eta bezero moduan hautatutako hizkuntzaren inguruan. Euskaraz eskatu dudalako ez ote zait bidaltzen aseguru informaziorik? Zer pentsatu dezaket, bada? Eta online bankan zergatik idatzi dit erdara hutsean gestore pertsonal bide denak? "Egun on, te hemos mandado a la banca online un documento que creemos que puede ser de tu interés. Contiene información y

consejos para evitar el fraude online. Por favor, échale un vistazo y confirmanos por este medio que lo has recibido correctamente". Erantzun egin nion: "Egun on! Bai mezua eta bai dokumentua erdara batuan daude. Zer dela eta? Ikusi dut zeren gainean den baina ez dut irakurri". Erantzunik ez. "Tu clave es la clave" goiburua duen, eta phishing eta smishing direlako iruzur moten gaineko informazioa duen dokumentua ere erdara hutsean dago. Zergatik? Sekula ez zait ipini harremanetan inongo gestore pertsonalik. Ez dut halakorik gogoan. Igaro da astebete eta erantzunik ez. Ez dut uste erdaldun bezeroekin hala jokatu dutenik.

Dosierra: 910-2023

Nori: KUTXABANK - BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA

Arrazoa: Kutxabanken Txurdinagako bulegoan jarrita dituzten afixa gehienak erdara hutsean baino ez daude; Kutxabanken kartel orokorrak dira euskaraz ere dauden bakarrak, hau da, bulego guztietan ikus ditzakegunak. Aurrekoaz gain, aipatu bulegoan ez dute bermatzen euskarazko arretarik, ezta kutxan ere.

Dosierra: 945-2023

Nori: CAIXABANK -Zubiri -

Arrazoa: Zubiriko Caixabank bulegoko hizkuntza-pasaia gaztelania hutsez dago. Hizkuntza eskubideen errespetuan urratsak eman eta ofizinako hizkuntza-paisaia osatzen duten elementu guztiak ele biz jar ditzaten eskatzen dut.

GARRAIO ZERBITZUAK (10)

Dosierra: 7-2023

Nori: AVASA, AUTOPISTA VASCO-ARAGONESA

Arrazoa: AVASA Autopista Vasco Aragoesak (Abertis) erdara hutsean argitaratu du iragarkia abenduaren 31n, Correon. Beste inon ez du argitaratu iragarkirik, ez elebidunik, ez euskaraz, Bizkaian argitaratzen den prentsari dagokionez (Berria, Deia, Gara, Correo) behintzat. Azpiegitura honen ardura Bizkaiko eta Arabako diputazioei dagokie, Bizkaiko eta Arabako zatietan; Nafarroa Garaian Espainiako Gobernuari.

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saileko burua: Horren inguruan jakinarazten dizugu AVASAK bere bezero guztiekiko harremanetan euskara eta gaztelania erabiltzeko eskubidea aitortzen eta errespetatzen duela. Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko abenduaren 22ko 6/2003 Legean ezartzen den bezala, bi hizkuntza ofizialen presentzia bermatzen da zerbitzuaren kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan, eta bi hizkuntzetan agertzen dira inprimakiak, errotuluak, abisuak eta abar Euskal Autonomia Erkidegoko instalazioetan. Hala ere, AVASAK gaztelaniaz baino ez zuen argitaratu El Correo egunkarian 2022/12/31ko komunikazioa, pertsona guztiei zuzenduta baitzegoen, ez soilik bezeroei, eta aipatutako egunkarira eta zerbitzua eskaintzen duen beste autonomia-erkidego batzuetako komunikabideetara bidali baitzen, hala nola Aragoiko Autonomia Erkidegora, non euskara ez den hizkuntza ofiziala. Era berean, kontuan hartu behar da bidalitako komunikazioa borondatezkoa dela eta ez nahitaezkoa. Hala ere, AVASAK kontuan hartuko du Euskal Autonomia Erkidegoko komunikabideetara etorkizunean bidaltzen dituen komunikazioetan Behatoki honetan aurkeztutako kexa.

Dosierra: 52-2023

Nori: SEUR (Clientes Bilbao)

Arrazoa: Seur mezularitza-enpresaren webgunea ez dago euskaraz eta enpresak ez du euskarazko arretarik eskaintzen. Gainera, erabiltzen dituzten agiri guztiak (abisuak, entrega-agiriak, etab.) erdaraz baino ez daude.

Dosierra: 228-2023

Nori: AUTOCARES TUÑEZ SANCHEZ SL

Arrazoa: Tuñez Sanchez autobus konpainiaren web gunea ezin da euskara erabili inoiz. <http://xn--autobusestuez-skb.es/paginas/flota.html>

Dosierra: 297-2023

Nori: BIP&DRIVE, E.D.E. S.A.

Arrazoa: Via T Bip&Drive-n euskaraz artatua izateko aukerarik ez dagoela salatu nahi dut eta zerbitzua euskaratzera animatu.

Dosierra: 307-2023

Nori: FLIXBUS

Arrazoa: Flix Bus-ek Bilboko autobus geltokian daukan leihatilara joan nintzen apirilaren 18an. Bertako arreta guenak zegoenak euskaraz ez zekienez, ezin izan nuen zerbitzua euskaraz jaso.

Dosierra: 321-2023

Nori: VINCI Autoroutes

Arrazoa: Lapurdi zeharkatzen duen A-63 autobideko ordainlekuetako afixak ez daude euskaraz. Horietako ordainketa-gailuak ezin ditugu euskaraz erabili eta horiek inprimatzen dituzten tiketak frantses hutsean idatzirik dira.

Dosierra: 496-2023

Nori: VUELING AIRLINES S.A.

Arrazoa: Vuelingek baztertu egiten gaitu euskaldunok. Bartzelonatik Bilborako hegaldian mezu guztiak gazteleraz eta ingelesez egiten dute. Agurra, katalanez ere bai. Euskaraz, ezer ez.

Dosierra: 582-2023

Nori: CTT ESPRESSO-Serviços Postais e Logística S.A.

Arrazoa: CTT Express mezularitza- eta paketeria-enpresak erdaraz baino ez dizkit posta elektronikoak bidaltzen.

Dosierra: 583-2023

Nori: VUELING AIRLINES S.A.

Arrazoa: Vuelingen webgunean ezin izan dut check-ina euskaraz egin. Webgunea hizkuntza hauetan bistaratu daiteke: alemana, frantsesa, gaztelania, ingelesa, italiera, katalana eta nederlandera.

Dosierra: 678-2023

Nori: SOCIEDAD CONCESIONARIA AUTOVIA GEREDIAGA ELORRIO S.A. (AGESA)

Arrazoa: Astelehen honetan iragarkia argitaratu du prentsan, Deian eta Correion, Gerediaga-Elorrio errepeidea kudeatzen duen AGESA Sociedad Explotadora Autovía Gerediaga Elorriok, itxuraz elebiduna edo. Egiatan gaztelaniadunendako baino ez. Lerroburu gorena erdara hutsean da. Lerroburu bigarrena euskaraz-edo badago: "Errepiko [sic] gauze ixtea Gerediagako lotunetik Muntzaratzeko [sic] lotuneraino". Bestalde, testuen edukiak ez datoz bat... Eta "ikuskatzeagaitik" idatzi dute, ez da akatsa testua bizkaieraz balego. "Gazteluako" ere idatzi dute... Ganora apur bat, mesedez. Euskaldun herritarrok ez dugu duintasunik eta errespeturik merezi?

HEDABIDEAK (9)

Dosierra: 1-2023

Nori: SUD OUEST Baiona

Arrazoi: Sud Ouest egunkariaren "Pays Basque" edizioak zergatik ez dakar Euskal Telebistaren programazioaren berri?

Dosierra: 41-2023

Nori: GARA -BAIGORRI ARGITALETXEA-

Arrazoi: Atzoko Garan irakurri nuen Azterketak Euskaraz ekinbidearen gaineko albistean* hainbat ganorabakokeria irakurri nituen: "froga" berba, azterketa, etsamina edo proba beharrean. Ez ote dakite kazetariak, hizkuntza lanbide izanik, froga eta proba berbek esangura guztiz desberdinak dituztena? Eta idatzi duenak ez jakiteaz gainera, egunkarian inori ere ez dio ardura testuak zuzen edo oker argitaratzeak ala? Euskaraz ari garela, jakina; ze erdaretan ederto argitaratzen dute, espainolez zein frantsesez. Lotsatzeko modukoa begitanduko litzaiekeelako, bestela. Baina euskaraz ez. "Ekintza burutu zuten asteazken gauean". Asteazken gauean egin zuten ekintza ala luze iraun zuen eta gau hartan amaitu? "Burutu zuten"? Benetan? "Zer hizkuntzan idatziko dituzten". "Hizkuntzan"?! Egunkari batean halako akatsak ezin litezke argitaratu lotsagorritu barik, besteak beste, kalitateak, kazetaritzak, euskarak eta euskaldunon eskubideek benetan arduratuko baliete. Ostera, sistematikoki ageri dira halako astakeriak. Zeren erakusgarri da? Barka tonogatik, hain zait-eta etsigarria eta tristea begitantzen, prentsan horrelakoak leitu behar izatea euskaldunok. Konponbiderik ipiniko ote dute? Bestalde, Garan egunero ageri dira erredakzioen helbideak eta. Dena euskaraz egonik, zergatik Bilboko egoitzaren helbidea erdara hutsean? Kale Nagusia da euskaraz. Eta, ostera, gutunazaleak zigiluetan helbide osoa erdara hutsean (Gran Vía, 2, 4º) eta hiriaren izena euskaraz (Bilbo) baino ez. Ez dakit akatsak diren edo kaka-nahasteak. Edozelan ere euskararen eta euskaldunon kalterako.

Dosierra: 218-2023

Nori: GARA -BAIGORRI ARGITALETXEA-

Arrazoi: Atzoko Garan albiste hau argitaratu zuten: "Bebetaren zientzietako froga [sic] euskaraz idatzi ahalko dute Seaskako ikasleek". Zer froga eta zer froga

oste? Ganora handiagoa izatea eskatuko nieke hizkuntza lanbide dutenei, irakasle eta kazetariei. Euskaraz besteko hizkuntzekin duten ganoraren laurdena behinik behin.

Dosierra: 251-2023

Nori: GARA -BAIGORRI ARGITALETXEA-

Arrazoi: Garan segitzen dute tematuta "froga" berba erabiltzen, baxoaz ari direnean. Ba ote dakite zer esan gura duen "froga" berbak? Zergatik dihardute sistematikoki hala? Gaurko egunkariko argazkia duzue erantsita.

Dosierra: 255-2023

Nori: EL DIARIO VASCO

Arrazoi: 2023-02-28an Diario Vascon atera zen artikulua Tolosa CFko kirolarien emaitzei buruz. Gure seme-alaben abizena ZUBIA da baina artikuluan erdaldundu egin dute eta PUENTE ageri da, gure amorrua, haserrea, atsekabea..... sorraraziz

Dosierra: 282-2023

Nori: DEIA

Arrazoi: Etxebarriako eskola"; "Etxebarriako Udalak"; "Etxebarriako alkateak"; . Asko eskatzea ote da herri baten gaineko albistean herriaren izena ganoraz erabiltzea?

Dosierra: 328-2023

Nori: BERRIA

Arrazoi: Atzoko Berrian, sanprudentzioak direla-eta, orrialde bete argitaratu zen Lazkaoko eta Matieneko (Abadiño) iragarkiekin. Abadiñoako atalaren goiburua, hau: "MATIENAKO [sic] JAIK". Abadiñoako iragarki bakarrean hau ageri da: "Gora Matienako [sic] San Prudentzioak [sic]!". Bada, "Matienako" horrek ez du zentzurik; "Bizkaiko" idazteak edo esateak ez lukeen edo ez duen bezala... Bestalde, "sanprudentzioak" da idazteko modu zuzena. Atzo bertan, gainera, lagun batek helarazi zidan Berrian azaldutako zer triste-triste bat: "Athleticek irrist egin du Sevillako aurka" lerroburua. Bada, susmoa hartzen dut itzultzaile automatikoren batekin sortu ez ote den, gaztelaniatik abiatuta. Oraintxe bilatu dut Googlen eta segitzen du eskuragarri. <https://www.berria.eus/albisteak/227286/athleticek->

irrist-egin-du-eta-galdu-egin-du-sevillako-aurka.htm Espero dut aintzat hartzea eta Berriak segi dezala izaten gure territorio librea, areago kontuan izanik bakarra dela. PD: 177-2023 kexaz jadun nuen zoritxarreko "Matienako", "Matienatik" eta halakoez, Berriari zuzenduta.

Dosierra: 392-2023

Nori: GARA -BAIGORRI ARGITALETXEA-

Arrazoa: Gaurko Garan argitaratutako Pipiaz beteriko eztabaida markoaren aldarrikapen harrigarriak artikuluan behin eta berriro darabilte "froga" berba, "proba" beharreen; tamalez, ohi bezala. Bada, agerian utzi beharreen naiz ez dela akats ortografikoa, horretaz ari naizelako ustea izan lezakete eta. Are larriagoa da kontua. Berba desberdinak dira; esangura diferenteak dituzte, alegia. Dagoeneko hainbatetan ohartarazi bazaie ere, asmorik ez dute euskaraz ganoraz idazteko, antza. Errare humanum est, perseverare autem diabolicum. "Selektibitate frogaren [sic] bertsio frantsesa"; "berezitasunen frogak [sic] martxoan gaintitu ondoren, frantsesez idatzi beharko dute aurki Filosofia azterketa"; "Filosofiako idatzi frogan [sic]"

Dosierra: 927-2023

Nori: DEIA

Arrazoa: Erantsita bidaltzen dizuet atzoko Deian irakurri dudan artikulua baten argazkia. Nola liteke horrenbeste akats?! Gaztelaniaz ez lukete halakorik argitaratuko. Eta, gainera, zoritxarrez, adierazi beharreen naiz kalitate honen pareko artikulua eta zutabeak sarritan ageri direla Deian. Euskaldunonganako errespetua eskatzen dut.

HEZKUNTZA (2)

Dosierra: 567-2023

Nori: EDUKABILBO

Arrazoa: Euskaraz eta gaztelaniaz jaso dugu Bilboko Intxixu eskolak eta Herri Eskolak elkarlanean antolatutako udalekuen ardura duen enpresaren eskertza mezua gurasook. Mezu hori EdukaBilbo enpresa pribatuak (eskola publiko bi horietako Guraso Elkartearen kontratu bidez) bidalitakoa da. Ohituta gaude, zoritxarrez, euskarazko testuetan akatsak eta arazoak ikusten; oraingoan, baina, akatsez jositakoa izateaz gain, testu ulergaitz bat bidali digute (ziurrenik itzultzaile automatiko bidez egina), gaztelaniaz esaten ez diren gauzak esaten dituen eta, askotan, hitzen arteko banaketak ere errespetatzen ez dituen (MEZUAREN ARGAZKIA ERANTSITA). Testua euskararekiko eta gure seme-alaben jardunaren berri euskaraz jaso nahi dugun gurasoekiko iraingarria iruditu zitzaidan, eta hori esateko deitu nuen EducaBilbo enpresara atzo. Telefonoa hartu zuen pertsonak "Hobeto gaztelaniaz", erantzun zidan, nire kexa entzun eta arduradunarekin hitz egingo zuela. Ez zidan izenik edo telefonorik eskatu. Pentsatzen dut ezinbestekoa dela zenbait enpresari adieraztea euskara ez dela guretzat ezinbestean eta edonola bete beharreko tramite bat, euskaraz irakurri nahi dugula eta ezinbestekoa dela gutxieneko batzuk zaintzea familiekiko komunikazioan.

Erantzunak:

Zuzendaria: EdukaBilbo enpresak eta bere lan taldeak beti euskaraz komunikatzeko duten fede onaren berri eman nahi dut, gure sektorean ezinbestekotzat jotzen baitugu. Talde osoak, administrariaren batek eta nik neuk izan ezik ("Belarri prest"), titulazioa du eta, hala nahi duen pertsonekin, ahal dugun guztia egiten dugu euskaraz egin dezan... nahiz eta ezin diogun beti hizkuntza berean erantzun. Asko sentitzen dugu euskarazko komunikatuetan akatsak egotea eta horiek konpontzen saiatuko gara, gure esku dagoen guztia egingo dugu.

Dosierra: 824-2023

Nori: PEÑASCAL KOOPERATIBA

Arrazoa: hona hemen nire iradokizuna: Boluetabarri jatetxean bazkaltzen egon naiz eta menua euskaraz egotea faltan bota dut, bakarrik gaztelaniaz zegoen.

Zerbitzua ere gaztelaniaz izan da. Ikasleei euskararen garrantzia transmititzea ezinbestekoa dela uste dut zerbitzu hobea bat eskaintzeko.

Erantzunak:

Peñascal E. Koop: Sentitzen dugu zerbitzua euskaraz ez emateagatik. Batzuetan horrela izan da, eta eskatuz gero ez dugu arazorik zerbitzua euskaraz emateko baina kasu honetan ez zen horrela izango. Egia da, gure kasuan, ez dela erraza beti zerbitzua euskaraz ematea jende etorkin asko dugulako eta askotan hizkuntza ez dutelako menperatzen baina horretan saiatzen gara. Gure asmoa beti izan da jatetxean dugun kartelak bi hizkuntzatan izatea eta uste dugu horrela dela. Datorren astetik aurrera beti menua euskaraz izateko asmoa dugu.

MERKATRITZAGUNE HANDIAK/KATEAK (95)

Dosierra: 4-2023

Nori: TASTIA GROUP ALIMENTARIA S.L.U. (Muerde la pasta)

Arrazoa: Portugaleteko Ballonti merkatal zentroan dagoen "Muerde la pasta" izeneko jatetxean (Tastia Group Alimentaria SLU) kartel hau ikusi dugu. Euskara erabat traketsa erabiltzen dute, mesedez zuzendu dezatela eskatu nahi diet gure hizkuntzarekiko begirunea eskatuaz.

Dosierra: 16-2023

Nori: TIGER STORES SPAIN

Arrazoa: Flying Tiger dendetan ez da beti langile euskaldunik egoten arreta euskaraz emateko. Horrez gain, dendetako afixak erdaraz dituzte eta tiketak ere erdaraz baino ez dituzte ematen (atzeko aldeko testua salbu).

Dosierra: 23-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Eroski appean hilean hilean joko edo jolas desberdina ipintzen dute. Beti dago erdara hutsean nahiz appa euskaraz konfiguraturik izan. Erantsita dituzue pantailaldi batzuk.

Dosierra: 38-2023

Nori: DECATHLON DONOSTIA

Arrazoa: Donostiako Decathlon dendak ez dio euskarari lekuri egiten hizkuntza-paisaian, errotulazio eta kartel ia guztiak gaztelania hutsez daude. Hizkuntza-eskubideak errespetatzeko, ezinbestekoa da hizkuntza-paisaia ere elebiduna izatea.

Dosierra: 39-2023

Nori: FRANCHISING CALZEDONIA ESPAÑA SA

Arrazoa: Bilboko Gran Víako Calzedoniaren dendan, urtarrialren 12an 15:55etan, emakume batek dendari bati euskeraz zerbait galdetu zion. Bezeroak baxu hitz egiten zuen eta ez dakit zer galdetu zion, baina dendariak "A MI NO ME HABLES EN EUSKERA. NO ES NORMAL QUE ME HABLES EN EUSKERA" erantzun zion. Ordaindu

eta gero, dendari horrekin hitz egiten saiatu nintzen. Oso desatsegina zen, baina ez zidan nire iritzia ematen utzi, ez zidan aurpegira begiratu, bere arrazoiak eman eta eman jarraitu zuen, bere ateratzeko ordua zela esan eta alde egin zuen. Ez zidan bere izena eman nahi izan. Tatuaje bat zuen besoan, eta beste bi langileek euskeraz egiten zuten. Erantzun asko ziren posible: "parkatu gaztelera egin dezakezu, edo parkatu nire lankideak atendituko zaitu" baina ez, bera ofendituta zegoen! Berak ez duela euskeraz jakin behar eta errespetu falta bat dela berari berak ulertzen ez duen hizkuntza batean aritzea. Atzerritarrei ere horrela erantzuten zien galdetu nion, baina erantzunik ez noski.

Dosierra: 45-2023

Nori: LEROY MERLIN Oiartzun

Arrazoa: Oiartzungo Leroy Merlinek banatu duen esku orria euskararen arrastorik ez. Begirune falta galanta ofiziala den eta Oiartzungo gehiengoak egiten duen hizkuntzari

Dosierra: 49-2023

Nori: BURGER KING -Megapark Barakaldo-

Arrazoa: Megaparkeko Burger King jatetxearen makinak gaztelaniaz edo ingelesez baino ez daude. Euskaraz konfiguratu mesedez, Barakaldoko Boulevard merkataritza-gunean dagoen Burger King-en gertatzen den bezala.

Dosierra: 59-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Eroskiren onlineko erosketarekin lotutako kontsulta bat egiteko deitu dut 944 050 514 zenbakira eta hasierako mezu automatikoak gaztelania hutsean zeuden. Gero, arreta eman didan langileari (Andoni izeneko) galdetu diot euskaraz hitz egin nezakeen eta "gaztelaniaz, mesedez" erantzun dit. Jakinaren gainean egon zaitezten...

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Bezeroen arreta zerbitzutik adierazi digute bezeroari gertatutakoa, soilik telefono mugikor batetik deitzean gertatzen dela. Izan ere, telefono mugikor batetik deitzen badute, lokuzioa gaztelaniaz baino ez da, ezin

dugulako bereizi zein eremuk deitzen duen lurralde nazionaletik, eta oso zaila da aukera hori gailu mugikorretarako txertatu ahal izatea. Aldiz, finko batetik deitzen bada, zein eremutatik deitzen den jakin daiteke eta euskaraz zein gaztelaniaz erantzun daiteke. Erreklamazioaren beste zatiari dagokionez, arreta zerbitzutik jakinarazi digutenez, deia egin den unean euskara agenterik ez badago, honako zerrenda honi jarraituko zaio, bezeroari lehentasunezko hizkuntzan erantzun ahal izateko: "En estos momentos los agentes de euskera están todos ocupados, si nos facilita su nombre y teléfono le contactamos a la mayor brevedad posible". Eskerrak eman nahi dizkizugu gorabehera horiek helarazteagatik bezeroarentzako arreta hobetzen laguntzen digulako.

Dosierra: 62-2023

Nori: DECATHLON Barakaldo Max Center

Arrazoa: Barakaldoko Decathlonen izan naiz eta euskara desagertu egin da hango karteleria, ohar eta megafoniatik. Onartezina. Arazoa laister konpondu dezazuela eskatzen dizuet.

Dosierra: 69-2023

Nori: MEGAPARK BARAKALDO

Arrazoa: Barakaldoko Megapark merkataritza-zentroan jarritako kartel eta mezu ugari gaztelaniaz baino ez daude. Gainera, haren webgunea (<https://www.megaparkbarakaldo.com/eu>) euskaraz jartzeko aukera badugu ere, informazio gehiena ez dago euskaraz eskuragarri.

Dosierra: 70-2023

Nori: TENDAM RETAIL SL -SPRINGFIELD -

Arrazoa: Springfield arropa-markako etiketa gero eta gehiagotan euskarazko informazioa idatzirik dago, eta eskertzekoa da euskara eta euskaldunok aintzat hartzea. Hala ere, "ez garbitu lehorrean" ordez (gaz: "no limpiar en seco", ing: "do not dry clean", fr: "ne pas nettoyer à sec"), aurkakoa idatzi dute, hau da, "garbitu lehorrean".

Dosierra: 81-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Usurbilgo Urbil merkatalgunean dagoen arrandegian txanda hartzeko txartela gaztelania hutsean dago. Enpresaren ezaugarriak aintzat hartuta, euskaraz (ere) egon beharko luke.

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Kasu zehatzari dagokionez, pantaila euskaraz izateko eskaera helarazi da, bezeroak gaztelaniara aldatzeko aukerarekin. Beraz, eskaera onartu denez gero, laster pantaila euskaraz erabiltzeko aukera izanen da. Eskerrak eman nahi dizkizugu gorabehera hauek helarazteagatik, bezeroarentzako arreta hobetzen laguntzen gaituzulako.

Dosierra: 88-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Eroskik saltzen dituen opilen ontzietako informazioa gaztelaniaz baino ez dago.

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Kasu zehatzari dagokionez, jakin badakigu horrelako etiketetan ez dugula betetzen hizkuntza ofizialak komunikazio-euskarri guztietan erabiltzeko gure barne-politika. Hala ere, saltokiak inprimatzen dituen etiketa horietan, leku-muga teknikoak ditugu, eta, ondorioz, denda-sare osorako hizkuntza bera erabili behar izaten dugu. Eskerrak eman nahi dizkizugu gorabehera horiek helarazteagatik. Horrela, bezeroarentzako arreta hobetzen laguntzen gaituzulako.

Bezeroaren arreta saila: Berriz ere esan nahi dizugu saltoki bwerean inprimaten diren etiketa horietan espazio-muga teknikoak ditugula, eta, ondorioz, denda-sare osoan hizkuntza bera erabili behar dugula. Horregatik, ezinezkoa zaigu bi hizkuntzak etiketa horietan sartzea. Edozelan ere, adierazi behar dugu aukerak azterten ari direla etiketak tamaina handiagora egokitzeko, horrela bi hizkuntzak aplikatu ahal izateko.

Herritarraren erantzuna: Espazio-mugak dituztela dio Eroskik erantzunean, baina Europako zenbait lekutan ohikoa da halako etiketetan hizkuntza bat baino gehiago

txertatzea, hau da, posiblea da euskarazko informazioa ere jartzea. Gainera, espazioa benetan arazoa balitz, etiketa handiagoak erabil litzake Eroskik.

Dosierra: 89-2023

Nori: Leroy Merlin España S.L.U.

Arrazoa: Bilbondo merkataritza-zentroko Leroy Merlin saltokiaren sarbidean jarri duten seinalearen testua erdaraz baino ez dago.

Dosierra: 108-2023

Nori: FORUM SPORT S.A. - Egoitza Nagusia

Arrazoa: Forum sport dendako kartel batean app-a jaisteko gonbitea egiten da, euskaraz zein gaztelerez. App jaitsi eta gaztelera hutsean dago, euskaraz jartzeko aukerarik gabe.

Dosierra: 139-2023

Nori: TENDAM RETAIL SL -SPRINGFIELD -

Arrazoa: Springfieldeen (Tendam Retail SA) bezeroaren arretarako helbide elektronikora (online@spf.com) euskaraz idatzi nuen eta ingelesezko erantzunean haiek adierazitako beste hizkuntza baten idazteko esan zidaten.

Erantzunak:

Tendam Retail: Jakin badakigu hizkuntza-gaien garrantzia eta sentsibilitatea. Hala ere, enpresa-errealitate konplexu batek baldintzatzen gaitu, 80 herrialdetan egiten dugun lan, eta horrek sentsibilitate guztiak asetzea zailtzen digu. Gure kontsumitzaile guztiei kalitatezko zerbitzua eskaintzea lehentasuna da guretzat, eta, horregatik, gure barne-prozesuak berrikusiko ditugu, gure aukeren barruan Euskal Autonomia Erkidegoko gure bezeroen aurreikuspenetara hobeto egokitu gaitzkeen baloratzeko. Badakigu -eta sentitzen dugu- sentsibilitate guztiak ez ditugula beti asetzen. Hala ere, kontuan izan, gure kezken artean, euskara sustatzea dugula (eskura ditugun baliabideek ahalbidetzen duten neurrian).

Herritarren erantzuna: Eskertzekoa da Tendam Retail enpresaren erantzuna (hurrengoetarako ere eskertzekoa litzateke euskaraz erantzutea). Dena den, aipatu enpresari helaraziko nioke dagoeneko bere langile ugari euskaldunak direla, beraz, zenbait zerbitzutan (telefono eta posta elektronikoko bidezko arreta, adibidez) euskarazko arreta bermatzea ez litzaekeela hain zaila izango. Are gehiago, idatziz

are errazagoa litzaeke, batez ere testu orokorrak direnean (webgunea, etiketak, tiketak, etab.).

Dosierra: 141-2023

Nori: SUPER AMARA (GRUPO UVESCO)

Arrazoa: Super Amarak twitter-en zabaltzen dituen mezuak ez daude euskaraz, gaztelaniaz baino ez du txiokatzen. Bezeroen artean euskaldunak ere badaudela kontuan har dezaten eskatzen diot.

Dosierra: 154-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Leioako Eroski gasolindegian, Astrabudu ondokoan, autoordainketako hornigailuetan erdara hutsean daude kartelak: "CARRIL AUTOPAGO / Antes de introducir la tarjeta de crédito puede introducir la tarjeta Eroski Club / 24 HORAS / PAGO CON TARJETA". Eroskitik hau erantzun zioten Behatokiari: "kasu zehatzari dagokionez, esan behar dugu normalean kartelak bi hizkuntzatan jartzen ditugula, akats bat izan dela eta jadanik konpondua dagoela. Horrenbestez, gure barkamenak gertatutakoagatik eta ahaleginduko gara hurrengoan euskaldunengana dagokien hizkuntzetan zuzentzen". Bada, erantsita doakizue, abuztuko kexako argazkiak gainera, oraingo beste bat. Honenbestez, kexa berresteko idazten dizuet.

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Establezimenduak barkamena eskatu nahi dio bezeroari; izan ere, kartel guztiak bi hizkuntzetan jartzen saiatu arren, horiek, erreklamazioan aipatutakoak, ez dira aldatu. Horren ordeztu kartel egokiak jarri dira, irudian ikus daitekeen bezala. Nolanahi ere, karteldegi osoa berrikusiko da, berriro gerta ez dadin.

Dosierra: 156-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Duela ia urte bi, 2021eko maiatzaren 23an hain zuzen, ondoko kexa bidali nuen: Abadiñoko Eroski gasolindegiko hornigailuetan "Borrar" idazkia ipini diote, "1 €" eta "10 €" botoien ondokoari. Erdaldunendako baino ez dute pentsatzen? Euskaldun bezerorik ez dute?" Eroskik konpondu zuela adierazi nizuen

2021-06-06an. 486-2021 dosierreko kexari dagokiona konpondu dute: "ezabatu" idazkia gaineratu dute. Bada, arazo berbera dago gaur egun oraindik ere Leioako gasolindegian. Eroskik zergatik ez du konponbide osoa ipintzen gasolindegi guztietarako? Erantsita bidaltzen dizuet Leioako argazkia. Ez dut ezer ere adierazten hornigailuetako "Importe", "Litros" eta "Precio/Litros". Kontu errazagoetarako ere aintzatesten ez baikaituzte...

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Establezimenduak barkamena eskatu nahi dio bezeroari; izan ere, kartel guztiak bi hizkuntzetan jartzen saiatu arren, horiek, erreklamazioan aipatutakoak, ez dira aldatu. Horren ordez kartel egokiak jarri dira, irudian ikus daitekeen bezala. Nolanahi ere, karteldegi osoa berrikusiko da, berriro gerta ez dadin.

Dosierra: 159-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Duela ia urtebete, hain zuzen 2022ko martxoaren 14an, kexa bidali nuen (222-2022), honela zioen: Artatzako errepideko [Leioa, Astrabudu ondoan]] Eroski hipermerkatuko aparkaleku estalirako sarbidean honakoa dio seinale batek, honela: "Aparkalekua estalirako sarrera". Bada, ia urtebete igarota, berretsi egiten dut kexa.

Dosierra: 162-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Leioako Eroski hipermerkatuko sarrerak kutxazainik gabeko erosketa errazteko edo balio ei duten tramankuluak ipini dituzte. Erabilgarri ez daudelako oharra erdara hutsean ipinita daukate: "FUERA DE SERVICIO / ¡DISCULPEN LAS MOLESTIAS1 / ¡GRACIAS!". Zergatik euskaldunok ez aintzatestea?

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Establezimenduak barkamena eskatu nahi dio bezeroari; izan ere, kartel guztiak bi hizkuntzetan jartzen saiatu arren, horiek, erreklamazioan aipatutakoak, ez dira aldatu. Horren ordez kartel egokiak jarri dira. Nolanahi ere, karteldegi osoa berrikusiko da, berriro gerta ez dadin.

Dosierra: 165-2023

Nori: JYSK DBL IBERIA, S.L.U.,

Arrazoa: Gaur Urbil komertzial gunean, JYSK izeneko denda berria ireki dute. Bertan, langile pila bat zeuden, ez dut bakar bat ere euskaraz entzun, eta kutxara iritsi garenean, gizon batek hartu gaitu. Berari, esan diodanean: hemen, inork ez daki euskaraz? Ez entzunarena egin du, eta 3.goan esan dit "no te entiendo". Ondoko neskek esan dit, berak zerbait badakiela baina "vienen compañeros de toda españa a apoyarnos" esan eta espainiar hutsean jarraitu du. Uste dut, gutxienez horrelako jende pila dagoen leketan, gutxiengo batek jakin beharko lukeela.

Dosierra: 173-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Eroskiren Bilbondoko saltokiko sarreran tenperatura- eta hezetasun-neurgailua jarri dute eta neurgailuan gaztelaniaz idatzita dago dena.

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Establezimenduak barkamena eskatu nahi dio bereziki bezeroari, Nolanahi ere, letrak kentzeko erabakia hartu da, piktogramarekin nahikoa del uste baitugu, eta gaztelaniaz eta euskeraz jartzea oso letra txikia eta serioa izango litzateke espazio txiki baterako.

Herritarraren erantzuna: Lehenik eta behin, Eroskiren erantzuna eskertzen dut. Hala ere, hartu duen erabakiarekin ez ditu erabat bermatzen haren bezero euskaldunon eskubideak, utzi dutena ez baitago erabat euskaraz, ehuneko-ikurra euskaraz zenbakiaren aurretik baitoa.

Dosierra: 181-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Urbil merkatalguneko Eroski optikara joan eta bi langileei euskaraz zuzendu nintzaie. Bi langile gazteek euskaraz ulertzen ez zutela esan zidaten. Eroski kooperatiban eta Usurbilen, euskararik ez...

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Optiko lan taldea lau pertsona osatzen dute: hiru optiko eta saltzaile bat Optiko taldea osatzeko zailtasun handiak izan ditugu, merkaturia oso murrizta delako. Urtean zehar oso ikasle gutxi ateratzen dira batz bestea, Euskal

Herri mailan ez daudelako optika goi mailako ikasketak , berez gure damurako lanpostu eskaerak betetzeko euskaraz ez dakiten optikoak ditugu. Bat Jerez de la Fronterakoa da, eta beste biak Madrildarrak , eta euskarekiko daukaten jarrera ezin hobea da . Egia da ezin dutela elkarrizketa bat euskaraz mantendu , (saltzaileak bai), boina dagoeneko zenbait gauzein moldatzen dira eta Eroskik euskara lantzeko Mondragon Lingua ikasteko programan apuntatuta daude, Lehenbailehen bezeroekin dauzkaten harremanak euskaraz hobeto lantzeko.

Dosierra: 188-2023

Nori: Mc Donald's FRANCE

Arrazoa: Donibane Lohizuneko McDonalds jatetxeko langile bakar batek ere ez zekien euskaraz. Gainera, jatetxeko hizkuntza-paisaia oso-osorik frantsesez dago eta Hego Euskal Herrian euskaraz erabil ditzakegun eskaerak egiteko pantailak bertan ezin dira euskaraz erabili.

Dosierra: 195-2023

Nori: SUPER AMARA - SAN MARTIN AZOKA

Arrazoa: Super Amararen telefono zenbakira deitu eta harrera egiten duen pertsonarekin ezinezkoa da euskaraz mintzatzea, ez da euskalduna. San Martin merkatuan daukaten egoitzara joan eta berdin, arreta euskaraz emango duen inor ez dago. Bezeroarekin harremana duten postuetan euskaraz dakien pertsonak egon beharko lukete. Erosketa etxera ekartzeko zerbitzua ere eskaintzen dute, bada banaketarako erabiltzen dituzten kotxeen bi aldeetan ageri diren leloak ere gaztelaniaz baino ez daude. Ordainketa makina automatikoetan, berriz, hainbat hizkuntzatan aritzeko aukera eskaintzen dute, bada euskarazkoa aukeratuz gero produktuen prezioa ez du ongi esaten. Adb. "bat euro eta 30 zentimo".

Dosierra: 213-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Eroskiren Basauriko Bilbondo saltokian jarritako kartel asko erdaraz baino ez daude, gainera, horietako asko bi aldeetatik erdaraz daude.

Erantzunak: Bezeroaren arreta saila: Ezer baino lehen eskerrak eman nahi dizkizut gurekin harremantan jartzeagatik; horrela, bezeroekiko arreta hobetuko dugulako.

Jarraian barkamena eskatu nahi dizugu. Kasu zehatzari dagokionez, adierazi behar da kartelak jadanik aldatuak daudela.

Dosierra: 214-2023

Nori: IKEA IBERICA SA.- Barakaldo

Arrazoa: Ikearen Barakaldoko saltokiko beheko solairuko tabernan zein goiko solairuko jatetxean dauden kafe-makinetan ezin dugu euskara aukeratu.

Erantzunak:

Bezeroentzako arreta zerbitzua: Lehenik eta behin, eskertzen dizugu zeure iritzia guri jakinarazi izana, izan ere, aurrerago egingo ditugun gauzetarako kontuan izango baitugu eta bigarrenik, gure saltokiak zuzen eragin zezakeen edozein arazorengatik barkamena eskatu nahi dizugu. IKEA-n Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzen ditugu. Bezeroei ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzea gure helburu nagusietako bat da eta egun egun, gure zerbitzuaren kalitatea hobetzeko ahaleginetan dihardugu.

Herritarraren erantzuna:

Dosierra: 216-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Eroskiren Basauriko Bilbondo gasolindegiko berrikuspen-ziurtagirietako (Ingeinek egindakoak) gailuaren izena erdaraz baino ez dago. Horrez gain, erregaiaren kalitatearen inguruko ziurtagiriak (Intertekek egindakoak) ere erdaraz baino ez daude.

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Barkamena eskatu nahi dugu, bezeroari bereziki. Adierazi behar da kartelak Ingein enpresak jartzen dituela. Kartelak euskaraz eta gaztelaniaz bidealtzeko eskatu diegu, baina oraindik ez zaizkigu iritsi eta ez dugu datarik. Iristen zaizkigunean gasolindegian jarriko ditugu.

Dosierra: 238-2023

Nori: Don G SAN PRUDENCIO

Arrazoa: "DonG" jatetxeetako tiketak, menua eta informazioa erdara hutsean daude. Era berean, <https://don-g.com/> webgunea ere erdaraz baino ez dago.

Dosierra: 239-2023

Nori: AREAS S.A.U. -La Pausa-

Arrazoa: AP-8 autobideko Itziarko zerbitzuguneko jatetxean arreta euskaraz eskaini baziguten ere, tiketa gaztelaniaz eman ziguten. Gainera, jatetxeko kartel eta informazio guztia ez daukate euskaraz. Horren erantzukizuna enpresarena ez ezik, bidearen titularra den Gipuzkoako Foru Aldundiarena ere bada.

Erantzunak:

Aholkularitza juridikoaren arduraduna: Oiartzun eta Itziarko Zerbitzuguneetako Jatetxe eta Kafetegiak ustiatzeko Zerbitzuen kontratua esleitu zitzaion AUTOGRILL IBERIA SLUri (2021eko apirilaren 14tik aurrera, AREAS 2021 SLU). Aipatu kontratuaren barruan, zerbitzu hori burutzerakoan bete beharreko hizkuntza-arloko baldintzak jasota daude, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak 6. artikuluan ezarritako, eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta berori garatzen duen araudiak, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esparruan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen Foru Dekretuak arautzen duen hizkuntza bien ofizialtasuna bete behar dutela. Era berean, hizkuntza ofizial bien erabilera kontratua gauzatu ahal izateko baldintza da, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren ondorioetarako kontratuaren funtsezko betebeharra izanik, ez betetzeak kontratu hori bertan behera geratzea ekar dezake. Aurreko guztiagatik, eta helarazi diguzun erreklamazioa aztertu ondoren, jakinarazten dizugu AREAS SLU-ri eskatuko diogula erabiltzailearekiko komunikazio-elementu guztiak berrikusteko.

Dosierra: 240-2023

Nori: KIABI ESPAÑA

Arrazoa: Kiabik ez digu bere bezerooi euskarazko informazioa eskaintzen; dendetako kartelak, tiketak, bidaltzen dituzten mezuak, etab. erdaraz baino ez baitaude.

Dosierra: 258-2023

Nori: TOYS R US – Donostia

Arrazoa: Garbera merkatal-guneko TOYS R US jostailu denda handian ez dute euskararekiko begirinerik. Dena gaztelera hutsez dago, hizki txikiz idatzitako zenbait salbuespen izan ezik (ingelesaren mailan)

Dosierra: 273-2023

Nori: ALCAMPO - Madrid

Arrazoa: Azken hamarkadatan urratsak eman badira ere (behar baina gutxiago), oraindik paisaia linguistikoan euskarak nahi baino askoz ere presentzia eskasagoa dauka. Asko dira gaur egun, oraindik orain, gaztelera soilik errotulatuak duten komertzio, taberna, elkarte edo erakundeak. *Ordizian, Alcampo supermerkatu kateak DIA zena ordezkatzeko du datozen egunotan. Berritze eta atontze lanak ia amaitzearekin direla, oraingoan eraikinaren kanpoaldean eskegita jarri dituzten errotulazio eta kartel guztiak gaztelera hutsean jarri dituzte.* Euskaldunok herritar eta kontsumitzaile modura ditugun eskubideak urratzen jarraitzen den artean, euskaltzaleok badugu eginkizunik eta eragile ere izan gaitzke. Euskararen egoerarekin kontzientzia minimorik geratzen bazaigu, badaukagu egoera irauli eta euskaldunon eskubideak errespetatzeko eskatzeko aukerarik: 1- Euskararen Behatokia salaketa jarri: <https://behatokia.eus/eu/> 2- Alcampo Supermerkatu kateari zuzenean sare sozialetatik eta Kontsumitzaileen txokotik gure kexa helarazi: • INSTAGRAM: @alcampo.es • TWITTER: @alcampo • WEB ORRIA: <https://www.alcampo.es/empresa/escribenos> • TELF: 913687857 *"Herri hau euskaraz pentsatuko dugu edo ez da izanen"*

Dosierra: 275-2023

Nori: ALCAMPO - Madrid

Arrazoa: Ordizian Alcampo supermerkatua irekitzearekin dago eta kanpoko errotulu guztiak gaztelera hutsean jarri dituzte, lotsagarria da. Euskeraz jartzea eskatzen dut

Dosierra: 277-2023

Nori: ALCAMPO - Madrid

Arrazoa: Ordiziako Alcampo supermerkatu berrian rotulazio eta kartel guztiak gaztelania hutsean jarri dituzte. Aste honetan ari dira lokal horren kanpo eta barne dekorazio berria egiten, Alcampo markak hartu duen pabiloi honetan. Oraindik ez dago zabalik bezeroentzat baño kanpoko rotulazio eta "ongietorri" mezuak ikusita ez dirudi guretzat ezer asko eskaintzeko dutenik. "Encantados de recibirte" adeitsu bat irakur liteke ate gainean, besteak beste.

Dosierra: 290-2023

Nori: ALCAMPO - Madrid

Arrazoa: Ordizian eraiki duten Alcampo supermerkatuko kartelak erdara hutsean daudela salatu nahiko nuke. Euskara da gure hizkuntza eta horren alde egitea gustatuko litzaidake. Espero dut denda zabaldu baino lehen, zuzentzea.

Dosierra: 291-2023

Nori: GARBERA MERKATARITZA GUNEA

Arrazoa: Lotsagarria da euskara jasaten duen bazterketa Garbera merkatal gunean...sare sozialetan, oharretan, etab... Honatx adibidea webguneko erabiltzailearen gunean sartzerakoan. Eusequera???? Ze errespeto gutxi!!! Lotsagarria!!!

Dosierra: 293-2023

Nori: ALCAMPO - Madrid

Arrazoa: Ordizian, Alcampo supermerkatu kateak denda irekiko du datozen egunetan. Berritze eta atontze lanak ia amaitzearekin direla, oraingoz eraikinaren kanpoaldean eskegita jarri dituzten errotulazio eta kartel guztiak gaztelera hutsean jarri dituzte. Etxean jaso dugun liburuxka gaztelera dago.

Dosierra: 294-2023

Nori: UVESCO GRUPO S.A. (BM supermerkatuak)

Arrazoa: Apirilaren 14an, BM supermerkatuetatik emaila jaso nuen, ematen duten zerbitzuarekiko iritzia jasotzeko. Gaztelania hutsean heltzen zaizkit erosketak

Nafarroan egiten ditudanean. Kontsumitzaile bezala, euskarazko harremana izan nahi dut.

Erantzunak:

Erantzukizun Sozial Korporatiboaren arduraduna: Arrazoi duzu, momentu batean informazioa gaztelaniaz bakarrik erakutsi zuen, akats informatiko baten ondorioz, baina aspaldi konponduta dago eta orain elebrietan agertzen da .

Dosierra: 304-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Eroskiren izenean e-mailak jasotzen nabil, <eroski@adimen.es> helbidetik, inkesta bat bete dezadan. Erdara hutsean dago eta, gainera, euskara dut hautaturik Eroskirekiko hartu-eman hizkuntza moduan.

Erantzunak:

Bezeroaren arretoa saila: Establezimenduak barkamena eskatu nahi dio bezeroari. Nolanahi ere bezeroak jasotakoa bezeroaren gogobetetzeari buruzko inkesta da, eta hori bezero guztiei egiten diegu. Kontua da posta elektronikoa gaztelera doala mundu osora, oso zaila baita bezero bakoitzeko e-mailak bidaltzea (datu-base osora jotzen baitute). Gure datu-base osora bidaltzeak (Eroski eta Caprabo bezero guztiak) oso zaila egiten du bidalketak pertsonalizatzea, eta horregatik bidalketa masiboak egiten dira.

Dosierra: 316-2023

Nori: UVESCO GRUPO S.A. (BM supermerkatuak)

Arrazoa: BM supermerkatuetako tiketak ez daude euskaraz.

Erantzunak:

Erantzukizun Sozial Korporatiboaren arduraduna: Barkamena eskatzen dizugu eta eskertzen ditugu zure hitzak, baina momentu honetan ez dugu ticketan leku nahikorik elebidun jartzeko. Eskerrik asko gurekin harremanetan jartzeagatik eta hobetzen laguntzeagatik.

Herritarren erantzuna: Erantzuna ez zait onargarria iruditzen, leku-falta dutela argudiatzen dutelako tiketetan euskarazko informazioa gehitu gabe jarraitzeko. Bezero euskaldunok eskubidea dugu tiketetako informazioa euskaraz irakurtzeko.

Dosierra: 336-2023

Nori: PASTIFICIO SERVICE, S.L. (La Tagliatella)

Arrazoa: Donostian, Groseko Tagliatella restauranteko (Peña eta Goñi kalea) karta (QR bidez edo fisikoa) , ingelesez, frantzesez ta gaztelaniaz dago baina euskeraz ezer ere ez.

Dosierra: 339-2023

Nori: UVESCO GRUPO S.A. (BM supermerkatuak)

Arrazoa: Arbizun bizi naiz eta astean behin altsasuko BM supermerkatu jouten naiz. Bertan, liburuen atal bat dago haurren literaturatik hasi eta best sellerretaraino. Ez dago euskarazko liburu bakar bat. Liburuen atal nagusiaz gain, ordaintzeko kaxen ondoan haurrentzako liburu gehiago ere badaude, denak %100 gazteleraz. Sakana bezalako eskualde batean hau horrela izatea lotsagarria deritzot, umiliagarriaz gain.

Erantzunak:

Erantzukizun Sozial Korporatiboaren arduraduna: Zure hitzak kontuan hartuko ditugu eta barkamena eskatzen dizugu sortutako eragozpenengatik. Eskerrik asko gurekin harremanetan jartzeagatik eta hobetzen laguntzeagatik.

Dosierra: 355-2023

Nori: McDonald's

Arrazoa: 743-2022 intzidentziari erantzunez McDonald's-ek esan zuen tiketetako informazioa euskaraz inprimatzen hasiko zirela. Zenbait zati euskaraz inprimatzen hasi dira, baina beste eremu asko, produktu gehien izena, adibidez, erdaraz inprimatzen dituzte. Horrez gain, txartel bidez ordaindu izanaren agiria ere erdaraz baino ez dute inprimatzen eta saltoki-terminalaren pantaila ere erdaraz baino ez da agertzen. Arren, eskatzen dut falta dena euskaraz ere jar dezaten.

Erantzunak:

McDonald's España: Guretzat kontsumitzaileak dira lehenentasuna, eta kasu honetan, euskal hiztunekin konprometituta gaude eta gure zerbitzuak eta informazioak euskaraz bideratzeko aukera izan dezaten. Horregatik, gure asmoa da erosketa-tiketak pixkanaka egokitzea, informazio guztia euskaraz ere ager dadin. Horrek, imajinatuko duzuen bezala, kudeaketa, izapide eta onarpen sorta bat dakar

nazioan eta nazioartean – konpainia global bat kontuan hartuta –, eta prozesu bat beharko dute. Era berean, administrazio-izapide horien ondoren, inplementazioen garapen teknikoa egin beharko dugu, eta horiek ere denbora-tarte bat behar dute.

Dosierra: 369-2023

Nori: PEPCO Poland

Arrazoa: Max Centerreko PEPCO dendako letrero guztiak gazteleraz soilik daude

Dosierra: 379-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Basauriko Bilbondo merkataritza-zentroko Eroskiren sarreran gasolindegiko prezioen kartel berria jarri dute. Berriro ere, kartel hori, alde bietatik, gaztelaniaz baino ez dute jarri.

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: establezimenduak barkamena eskatu nahi dio bezeroari. Nolanahi ere, karteldegia aldatu eta bi hizkuntzetan jartzeko erabakia hartu da, herritarren hizkuntza-eskubideei egokitzeko.

Dosierra: 383-2023

Nori: BURGER KING Abadiño

Arrazoa: Abadiñoko Burger Kingen ezin da euskaraz eskatu; bai, ordea, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta alemanez. Hizkuntza paisaiari dagokionez, berba bat ere ez dago euskaraz. Adibidez, mostradorean ingelesez eta gaztelaniaz daude: "Caja paga en efectivo kioscos / Kiosk payment in cash"; "Recoge aquí / Pick up here"; "Añade queso y bacon / Add cheese and bacon". "Empuja" eta "Salida" atean.

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Emandako informazioa eskertzen dizugu, eta zure iruzkinak dagokion sailera bidaliko ditugula ziurta diezazukegu, jatetxearen egoeraren eta zure desadostasunaren berri izan dezaten.

Dosierra: 412-2023

Nori: OLE VENDING (Nanako Caffè)

Arrazoa: Lekitton zabaldu dabe denda bat Gamarra kalean, turista guztiak pasatzen diren lekuan. Euskera ez da existitzen azken orduan ipini daben paper

plastifikatu baten ez bada. Ez dakit zelan itzi daben Lekittoko udalak holako mezua zabaltzen, begietarab be kalte egiten dau bertatik pasaterakoan.

Dosierra: 453-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Abadiñoko Eroskira joan naiz erosketak egiten eta kutxatik pasatzerakoan gaztelera hutsean egin didate. Nahiz eta nik euskaraz jarraitu, kutxako langileak eskerrik asko esan beharrean "muchas gracias" batekin agurtu nau.

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Establezimenduak barkamena eskatu nahi dio bezeroari. Bezeroari jakinarazi nahi diogu gure asmoa dela gutxienez bezeroari zuzendutako agurra euskaraz izatea eta halan izan dadin neurriak hartuko ditugula. Mila esker gurekin harremanetan jarri izanagatik, honek gure bezeroarekiko arreta zerbitzua hobetzen laguntzen digulako.

Dosierra: 455-2023

Nori: DECATHLON DONOSTIA

Arrazoa: Donostiako Belartzako Decathlonen sartu naiz arratsaldeko 8ak inguru, eta asaldatu egin nau ikusteak ia dena erdaraz dagoela. Kontsumitzaile euskaldunen ehuneko handi bat duen saltoki handi honetan, arrozte/alienazio sentzazioa ia erabatekoa da seinaletikan, eta errespetu falta nabarmena. Normalizaziotik oso urruti. Erreklamazioa jarri dut tokian bertan. Idaztea espero nuen, eta horretarako langile bati galdetu diot, euskalduna. Gero, ordea, arduraduna etorri da, erabat erdalduna, eta hari eman behar izan diot azalpena, bigarren erreklamazio baterako bidea eman diezadakeena, berriz ere erdaraz hitz egin behar izan baitut, eta bigarrenez nire burua ikusi baitut alienatua. Oraingoz, bertan jarritako erreklamazioa doakizue hemen, anomalia hori onbideratuko delakoan.

Erantzunak:

Erabiltzailearen harreman-zentroa.: Decathlonen, arrazoi ideologiko edo linguistikoengatik egiten den edozein diskriminazio arbuizaten dugu. Izan ere, inklusioa, errespetua, tolerantzia eta elkarrizketa gure enpresaren parte dira. Horregatik, erreklamazioa barne-komunikazioko taldeari jakinarazi zaio, kontuan har dezan. Horregatik, asko eskertzen dizugu gure zerbitzuan hobetzen jarraitzeko

bidali dituzun hitzak. Bestalde, jakinarazten dizugu Decathloneko kolaboratzaileak prest daudela herrialde osoan zehar mugikortasun geografikoarekin lan egiteko, denden beharren arabera. Hori dela eta, eremu bakoitzean Espainiako beste eremu batzuetako laguntzaileak aurki ditzakezu, haien hizkuntza komuna gaztelania dela kontuan hartuta. Hala ere, kexa hori denda horretara igorriko dugu, kontuan har dezaten.

Dosierra: 457-2023

Nori: SUPER AMARA - SAN MARTIN AZOKA

Arrazoa: Donostiako erdialdean San Martin merkatuan dagoen SUPERAMARA supermerkatuan aldaketa batzuk egin dituzte zenbait apal eta sail birmoldatzeko. Errotulazio berri guzti guztia gaztelaniaz bakarrik jarri dute (yogures, salchichas, carnicería...). Euskararen arrastorik ere ez. SUPERAMARA bezalako saltoki handiek ez al dute errotulazioa bi hizkuntza ofizialetan jartzeko obligaziorik? Ez da egun bateko kontua. Hilabete baino gehiago da errotulu berriak jarri zituztela.

Dosierra: 464-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Iruñeko Eroski Cityk zozketa batetarako txartela eman didate, informazio guztia gaztelaniaz zuten atzeko zein aurreko paneletan. Maxi Eroski horretako sarreran dauden beste hainbat kartel eta ohar ere gaztelaniaz daude eta haurren txokoan ere dena gaztelaniaz. Iruñean ere euskaraz bizi eta kontsumitu nahi dugu!

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Establezimenduak barkamena eskatu nahi dio bezeroari. Nolanahi ere, karteldegia aldatu eta bi hizkuntzetan jartzeko erabakia hartu da, herritarren hizkuntza-eskubideei egokitzeko.

Dosierra: 500-2023

Nori: GOIKO GRILL GROUP

Arrazoa: Bilboko GoikoGrill-en familia bazkari bat egin ondoren, nire aita enkargatua zen gizon batengana hurbildu zen (Sevilla hirikoa, aipatu zuenez) eta, gaztelarazko kartelez gain, komunean euskarazko kartelak ere jartzea gomendatu zuen, bai gaztelera bai euskara sustatzeko. Goiko Grill enpresako langile honek, euskarazko kartelak jartzeko kasuan, kartelak ingelesez eta alemanieraz ere jarriko

beharko liratekela esan zuen, tono harroputz eta mespretxuarekin. Nire aitak azaldu zion euskara hizkuntza ofiziala dela eta ez dela ingelesaren egoeran egokitzen, ingelesa ez baita ofiziala Euskal Herrian ez Espainian. Hala ere, langileak "el euskera es un dialecto del español" erantzun zion eta modu zirikatzaile batean "agur" euskaraz esatea saihestu zuen nire aita jatetxetik irtetzerakoan, behin eta berriro "hasta luego" erantzunez nire aitak "agur" esaten zuenean. Orobat, enkargatu honek euskara mespretxatu zuen "Goiko" izeneko jatetxe batean eta nire aitaren gomendio baketsua ukatu zuen modu harroputz eta lotsagabe batean.

Dosierra: 503-2023

Nori: PRIMARK -Garbera-

Arrazoa: Donostiako Garberako Primark kaxa ondoan dagoen horma irudia elebitan dago, baina kaxako txanda ematen duen ahotsa gaztelaniaz dago. Bestalde, hango biri aldagelak non zeuden galdetu diet (eta ulertu didate) baina gaztelaniaz erantzun didate. Geroago, langile berari frantsesez galdera bat egin diote eta ahal duen moduan frantsesez erantzun dio.

Dosierra: 507-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Urbil merkatalguneko Eroskiko arrandegiko txartelak gaztelania hutsean ematen dituzte. Arraina pisatu eta makinak ateratzen duen pegatina, ordainketarako datuak ematen dituen, gaztelania hutsean dago. Lehen ere egin nuen txanda hartzeko makinaren hizkuntz aukeren inguruko kexa, baina orain beste alderdi hau ere salatu nahi dut.

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Txanda hartzeko makinak euskara edo gaztelania aukera du. Besterik adierazi ezean, gaztelaniaz ateratzen da, baina bezeroak makinan bertan hauta dezake hizkuntza. Makinak ateratzen duen makinari dagokionez, prezio eranskailuetan eremuak mugatuak dira eta egia da izena gaztelaniaz ateratzen dela. Hori bai, salmahai bakoitzeko produktuaren prezioaren etiketak bi hizkuntzetan daude. Hala ere, kexa aurduradunei helaraziko degu, kontuan har dezaten.

Dosierra: 508-2023

Nori: DEPORTES PRAYLAS S.L. (MASPORMENOS)

Arrazoa: Zuek bidalitako komunikazioa jaso dut eta berriro ere gaztelania hutsean idatzita dago eta ez du kontuan hartzen herritar askok euskaraz bizi nahi dugula eta, beraz, informazioa eta bestelako komunikazioak euskaraz jaso nahi ditugula, baita zuen enpresak bidaltzen dizkigunak ere. Era berean, zuen webgunea berriro baduzue ere, hori euskaraz bisitatu eta erosketak euskaraz egin ezinik jarraitzen dugu; euskaraz jarrita, zuen bezero euskaldunak kontuan hartuko zenituzkete.

Dosierra: 522-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Eroskiko bezeroen arreta zerbitzura deitu nuen atzo produktu bati buruzko kontsulta bat egiteko. Hasieran, euskaraz egiten zuen emakume batek artatu nau, baina hark ezin zidala nire galdera argitu, eta beste batekin jarri nau harremanetan. Bigarren horrek ez zekiela euskaraz eta, edo gaztelaniaz egin edo euskaraz egiten zuen norbaitek deituko zidala esan dit. Nik euskaraz egin nahi nuela erantzun diot; berak, orduan, euskaraz egiten zuen norbaitek deituko zidala berehala esanez agurtu nau. Handik 10 ordura, ikusiz inork ez zidala deitzen, berriro deitu behar izan dut. Nire galdera da: Eroskiko bezeroen arreta zerbitzura deitzen dugunean, bigarren mailako bezero al gara?

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Argitu nahi genuke bezeroari deia ez itzultzeko arrazoa barneko akats baten ondorioa izan zela. Bezeroari barkamena eskatu nahiko genioke eta adierazi neurri egoki guztiak hartu ditugula euskarazko zerbitzu egoki bat bermatzeko eta honelako gertakariak berriro ez gertatzeko.

Dosierra: 547-2023

Nori: LIDL SUPERMERCADOS, S.A.U. - Barcelona

Arrazoa: Bilboko Errekalde auzoko Lidleko autozerbitzu makinaren softwareak ez daki euskaraz! Euskaldunon hizkuntz eskubideak non daude?

Dosierra: 549-2023

Nori: BURGER KING SPAIN SLU

Arrazoa: Abadiñoako Burger Kingeko eskatzeko gailuetan ezin da euskara aukeratu eta kartel gehienak erdaraz baino ez daude.

Dosierra: 581-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Eroskin Fantaren iragarkian deklinabidea amaitu gabe dago

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Ohartarazi behar da bezeroak adierazitako akatsa e zela detektatu kexa aurkeztu zuen arte. Hala eta guztiz ere, kartel horiek erregulartasunez ordeztzen dira, eta hemendik aurrera guztiak euskararen hizkuntza-alderdi guztietan zuzenak izan daitezten adi egongo gara. Adierazi nahi dugu kexa arduradunei helarazi diegula, aurrerantzean kontuan har dezaten.

Dosierra: 589-2023

Nori: MERKAL CALZADOS S.L.

Arrazoa: Barakaldoko Megapardeko Merkale calzados dendako letrero guztiak gaztelera baino ez daude.

Dosierra: 590-2023

Nori: C&A MODE

Arrazoa: Barakaldoko Megaparden dagoen C&A dendako letreroak gaztelera baino ez daude.

Dosierra: 592-2023

Nori: KIABI ESPAÑA

Arrazoa: Barakaldon, Zuloko kaleko Kiabi dendako letrero danak gaztelera baino ez daude.

Dosierra: 593-2023

Nori: PEPCO Poland

Arrazoa: Gasteizko Pepco dendan, euskararen arrastorik ez, ez errotuluetan ez beste inon. Non geratzen dira euskaldunon hizkuntz eskubideak?

Dosierra: 600-2023

Nori: MAX CENTER - Barakaldo

Arrazoa: Max Centerreko lokaletako kartelak gaztelera baino ez daude.

Dosierra: 602-2023

Nori: PEPCO Poland

Arrazoa: Max Centerro Pepco lokaleko kartel guztiak gaztelera daude, euskararen arrastorik ez.

Dosierra: 603-2023

Nori: KRACK ZAPATERIAS SL

Arrazoa: Krack-ek Barakaldoko Max Centerren daukan dendan kartelak gaztelera eta ingelera. Euskaraz ezer ez.

Dosierra: 606-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Eroskik txartelaren gaineko promozio sms-a bidali dit. Gaztelania hutsean dago. Euskara indar handiagoz sustatu beharko luke.

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Bezeroari adierazi nahi diogu, bezeroak komuniziotarako hizkuntza bat aukeratu ez badu, komunikazio guztiak gaztelaniaz bidaltzen direla lehenetsita. Bezeroak bere datuak ematen badizkigu, komunikazioak jasotzeko zein hizkuntza aukeratu duen egiaztatu ahal izango dugu, eta akats bat ote dagoen egiaztatu. Horrela, bezeroak komunikazioak euskaraz jaso nahi baditu, aldatu ahal izango dugu.

Dosierra: 611-2023

Nori: DECATHLON DONOSTIA

Arrazoa: Donostiako Belartza auzoan Decathlon dendan dauden kartel eta jakinarazpen guztiak, paisaia linguistiko osoa, gaztelera hutsez ageri da. Honek, euskal hiztun garen kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak, EAEn euskara ko-ofiziala den neurrian, apurtzea dakar. Horregatik eskatzen dut euskal hiztunon hizkuntza eskubideak errespetatzeko, eta euskal hiztun garen kontsumitzaileen hizkuntz eskubideak errespetatzeko, Decathlon dendako paisaia linguistikoa eta karteldegi orokorra, gutxienez elebitan, euskaraz zein gaztelera, agertu dadila.

Dosierra: 618-2023

Nori: JYSK DBL IBERIA, S.L.U.,

Arrazoa: Urbil merkatakuneko JYSK establezimenduan erosketak oradaintzen ari nintzela ohartu naiz "Kaixo Usurbil" handi bat izan ezik beste seinalea eta ohar guzti guztiak gaztelera soilik daudela. Kaxako langileari "euskaraz ere jarri beharko" zituztela adierazi diot. Ez dit ulertu eta gaztelera esan diot. Denda katea daniar batena dena adierazi dit. Nik oharrak ez daudela danieraz esan diot, gaztelera bakarrik baizik. Ez didala ulertzen esan dit. Eta azken ahaleginean, gaztelera gain informazio guztia euskaraz ere jarri beharko luketela adierazi diot. Ez dit jaramonik egin

Dosierra: 634-2023

Nori: CHAUSSEA SAS -Angelu-

Arrazoa: CHAUSSEA zapata denda kateak Angelun duen saltegian euskarak inolako lekuri ez duelako eta, okerrago, ateetan bertako hizkuntza izan ezik beste 7 jarri dituztelako kexa bideratu nahi nieke... Kontaktua: <https://www.chaussea.com/fr/magasin/6401-bayonne-anglet>

Dosierra: 636-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Eroskik frutetako etiketen informazio guztia ez du euskaraz jartzen.

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Barkamena eskatzen diogu bezeroari sortutako eragozpenengatik eta eskerrak eman nahi dizkiogu bere komunikazioagatik, horren

bidez gure produktuak hobetzeko aukera ematen baitugu. Gertatutakoa kontuan hartu eta Eroskin produktu horren ardura duten pertsonen helaraziko diegu, baita produktuaren fabrikatzaileari ere, ezagutu eta hobetu dezaten, horrelako kasu gehiago gerta ez daitezela. Bezeroari jakinarazten diogu sentitzen ditugula sortu ahal dizkiogun eragozpenak.

Dosierra: 648-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Leioako Eroskin (Iparragirre etorbidean dagoena) erosketak egiteko gailu elektronikoak jarri dituzte bezeroon eskura. Arazoa da gailu horiek erdaraz baino ezin ditugula erabili.

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Kexari dagokionez, adierazi nahi dugu bertsioa gaztelaniaz bakarrik dagoela probetan gaudelako. Zentro guztientzako jartzeko momentuan aukera biak egongo dira. Hala ere, kexa arduradunei helarazi diegu, kontuan har dezaten.

Herritararen erantzuna: Sistema hura probetan egon zein behin betikoa izan, ez da onargarria gaztelaniaz baino ez egotea. Bezero euskaldunok eskubide osoa dugu sistema berri horiek euskaraz erabiltzeko, baina Eroskik hartutako erabakiarekin behartuta gaude erdaraz erabiltzera edo, bestela, sistema berria ez erabiltzera.

Dosierra: 661-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Eroski appeko 'Ezagutu jolasean' atalak segitzen du erdara hutsean.

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Tamalez, app-aren "Ezagutu jolasean" atala ez dago hizkuntza gehiagotan eskuragarri, baina bezeroari jakinarazi nahi diogu horretan ari garela lanean. Sentitzen dugu sortu dizkizugun eragozpenak.

Dosierra: 664-2023

Nori: FORUM SPORT S.A. - Egoitza Nagusia

Arrazoa: Forum Sport etxetik erdara hutsean bidali didate e-maila iritzia eman dezadan.

Dosierra: 671-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Zergatik hau erdara hutsean: "Vehículo del servicio a domicilio de Eroski"?

Dosierra: 676-2023

Nori: FRUTAS Y VERDURAS ZELAIA

Arrazoa: Bilboko Alde Zaharreko Zelaia fruta-dendan sartu eta "Kaixo" esan ondoren "Hola" erantzun zidaten. "Kaixo" nik berriro. "Hola. No entiendo euskera". Horren aurrean "agur" esan eta atera egin nintzen. "Adios. Estoy en España y solo hablo español". Euskara ofiziala da eta euskaldunok errespetuarekin tratatzea merezi dugu.

Dosierra: 695-2023

Nori: LEFTIES ESPAÑA S.A. -Grupo Inditex-

Arrazoa: Bilboko Metroaren Abando geltokian Leftisek gaztelania hutsean jarri ditu iragarki guztiak (bankuak, makinak, hesietan...). Metro Bilbao eta Lefties, non geratzen dira gure hizkuntza eskubideak?

Erantzunak:

Komunikazioko eta Erakunde Harremanetarako zuzendaria: Erreklamazioan adierazitakoa berrikusi dugu, eta egiaztatu ahal izan dugu publizitate horrek gaztelania baino ez zuela erabiltzen, hura egiteko ardura zuten agentziek gaizki ulertu zutelako. Inditex gizarte, kultura eta hizkuntza aniztasunarekin guztiz identifikatutako konpainia da, nazioarteko merkatu ugarian duen presentzia eta tokiko errealitatei ematen dien arreta dela eta. Horregatik, gure bezeroei entzuteko eta gure dendetan eta online plataformetan erosketa-esperientziarik onena eskaintzeko lan egiteko gure premisaren parte da presentzia komertziala dugun lekuetan hizkuntza-aniztasuna sustatzea eta errespetatzea. Merkataritza-sektorearen errealitateari dagokionez, 2016an LanHitz programaren esparruan euskararen erabilera sustatzeko Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako lankidetzahitzarmena sinatu zuten enpresetako bat bihurtu ginen. Akordio horren arabera, konpromiso sendoa dugu gure online denda eta plataformetan euskararen normalizazioarekin eta sustapenarekin, eta lanean ari gara, bezeroek hala nahi izanez gero, euskaraz erosi aurretik, bitartean eta ondoren esperientzia erabat

euskeraz izan dezaten. Azaldutako arrazoi guztiengatik, gure barkamena eta eskerrak eman nahi dizkizuegu zoritzarreko giza akats baten aurrean. Gure esparrutik euskararen alde lan egiten jarraitzeko prestasun eta animorik onenarekin, jaso ezazu agur bero bat.

Dosierra: 723-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Eroskiren iragarkiak "bi batengatik" dio euskaraz. Hori ez da euskara! "Bi baten prezioan", "bi baten truke"... Itzulpen kaskarra benetan.

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Gure komunikazio guztiak 4 hizkuntzatara itzulita daude, eta horretarako, itzulpen agentzia bermedunekin eta lurraldean prestigioa dutenekin lan egiten dugu, eta horrez ez gaitu salbuesten zenbait aukera eta iritzi edukizetik. Berresten dugu "bi batengatik" zuzena dela, eta, beraz, harrigarria egiten zaigu "oso txarra" dela esatea. Hainbat aukera finalista erabili ziren euskaraz: "bi baten truke" ez zen aukeratu gaizki ulertua eragin zezakeelako, "bi baten truke" esan nahi baitzuen, eta ez "bi baten prezioan". "Bi baten prezioan" izango litzateke gramatikalki zuzenena, baina luzeragatik ezetsi zen, eta estilistikoki ez zen hain mesedegarria. Erabilera ohohikoagotzat jo ziren biak, eta, horregatik, naturalagoak izan zitezkeen, baina jasotako aholkularitzak ""bi batengatik" erabiltzera eraman gintuen, agentzia itzultzailearen bermearekin (gaur egun ere berresten duena) gramatikaren zuzentasuna eta "dos por uno" itzultzeko erabilera. Adierazpen hori bete itzulpen-agentzia batzuekin partekatuko dugu, hurrengo erabilerei begira zer iritzi duten jakiteko.

Dosierra: 726-2023

Nori: DECATHLON DONOSTIA

Arrazoa: Fernando Mujika Herzog kaleko Decathlon dendako errotulazio guztia gaztelera hutsez dago. Euskaldunok ez gara esistitzen.

Dosierra: 733-2023

Nori: AREAS S.A.U. -La Pausa-

Arrazoa: A15eko Zuastiko geratokian euskaraz idatzita dagoen kartela, gaizki dago. Horrela dio: "Eskerrik asko etortzeaga"

Erantzunak:

Bezeroaren arreta: Asko eskertzen dizuegu La Pausa kafetegiko kartelean euskaraz zegoen akatsaren berri eman izana eta barkamen zintzoena eskatzen dizuegu eragozpen tamalgarri honengatik. Dagokion arduradunei jakinarazi diegu, aipatutako esaldiaren berrikusketa sakona eta zuzenketa egin dezaten. Gure helburu nagusia kartelean agertzen den informazioa doia izatea eta lekuko hizkuntza eta kultura errespetatzea da. Gure komunikazio-baliabide guztietan zehaztasuna eta kalitatea mantentzearen garrantzia guztiz ezagutzen dugu, bereziki euskarak kultura-identitatean funtsezko papera duen eskualdean emandako sarbide publikoko informazioa denean. Berriro ere, barkamena eskatzea gustatuko litzaiguke akats honek eragindako eragozpenengatik.

Dosierra: 749-2023

Nori: DECATHLON España

Arrazoa: Decathlonek Bilboko Buenos Aires etorbidean duen dendara joan nintzen atzo eresketa bat egitera. Harrera egin zidan langileari esplikazioak euskaraz eman ondoren, berak frantsesa eta ingelesa bai, baina euskaraz ez zekiela. Hori esan ondoren bere eta ondoko langilea barrezka hasi dira. Benetan lotsagarria jarrera.

Dosierra: 763-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Eroski txartela egiten saiatu naiz internetetik. Euskarazko webgunetik saiatu naiz eta ez dabil: <https://areacliente.eroski.es/areacliente/authentication?forcelogin=true&fromUrl=https%3A%2F%2Fareacliente.eroski.es%2Fareacliente%2Fes%2Fhome> Gaztelania hautatu dut eta bikain dabil. Beti berdin.

Dosierra: 784-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Eroskiko kutxazain automatikoetan ordainketa bat eskudirutan egiteko aukeratuz gero, ordainketa egiteko sartu duzun diru kopurua adierazteko "txertatuta" jartzen du. Kutxazainek ez dute birusik harrapatuko... Txantxak alde batera utzita, zuzentzea eskatzen dut.

Dosierra: 814-2023

Nori: MICROSOFT IBERICA S.R.L.

Arrazoa: Windows 10era eguneratu dut sistema eragilea ordenagailuan. Harriduraz ikusi dut euskarazko bertsioa... ez dela euskaraz, euskara-gaztelania elebitan baizik! Windowsko sistema eragilea, W8n (ia) dena euskaraz, ez da operatiboa euskaraz W10en, erdaraz jakin behar da. Iruzur bat. Beharrezkoa da bertsio normal eta operatibo bat, bezero euskaldunaren errespetuz. Telefonoa Espainiako 917 547 010 zenbakia du

Dosierra: 845-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Eroskik megafoniatik egiten dituen iragarkietan aspaldian erabiltzen du hurrengo esamoldea: " x produktua erdi prezioan"

Dosierra: 853-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Aurreko egunean Iruñerriko Hiper Eroski saltokian ikusitako "perla" igortzen dizuet. Denak ez duelako balio, zuzentzea eskatzen dizuet

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Bezeroari jakinarazi nahi diogu izugarri sentitzen dugula egindako akatsa, eta laster zuzenduko dugula. Sentitzen dugu sortu ahal dizkiogun eragozpenak.

Dosierra: 879-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Urbil merkataritzaguneko Eroski supermerkatuko faktura nagusiki gaztelaniaz dago, eta elebitan behar luke, gutxienez. Euskal Herriko kooperatiba izanik are mingarriagoa da hau.

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Bezeroari jakinarazi nahi genioke, tiketan bertan dauden espazio-arazoengatik, ezin dugula informazio guztia bi hizkuntzetan sartu. Hala ere, arduradunei helarazi diegu erreklamazioa, etorkizuneko garapenei begira kontuan har dezaten. Sentitzen dugu sortu ahal dizkiogun eragozpenak.

Dosierra: 887-2023**Nori:** IKEA IBERICA SA.- Barakaldo

Arrazoa: Ustez hemengoa (Bilbo edo Gasteiz) izango zen IKEAko telefono lauso batera deituta (900400922), EUSKARAZ hitz egin nahi nuela argi utzita eta hamaika tekla desberdin sakatu ondoren, Sevillako telefono batera bideratu dute nire deia. Han, noski, espainolez mintzo zen neskato bat. Itxaroteko presarik ez banuen ere, garbia izan da erantzuna: "usted elige: si quiere que le atiende yo..., y si no, mejor que llame por la tarde, a ver si...". Handik hamar minututara prozesu berbera, oraingoan beste neskato bat, hizkuntza hispano berean. Ez naiz hirugarren deirik egiten saiatu. Nazkagarria! Bihoa, beraz, nire salaketa ere gure hizkuntz eskubideak nola sistematikoki urratzen diren erakusteko.

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Erreklamazioari dagokionez, lehenik eta behin, sentitzen dugu euskaraz erantzunik jaso ez izanak sortu ahal izan dituen eragozpena. Bezeroak adierazten duen telefonoa (900400922) Ikearen telefono zentral bat da, bezeroari arreta emateko, eta Sevillatik, Valladolidetik edo beste edozein hiritatik jaso dezake erantzuna, baina ez da zehazki Euskadiko kolaboratzaile batek arreta emango dion telefono-zenbaki bat. Gure komunikazioak euskaraz zein gaztelaniaz daude, bezeroak nahi duen bezala jaso ditzake. Jakina, gure kolaboratzaile bat, adibidez, Kantabriakoa bada eta Ikea Barakaldora lanera etortzen bada, begibistako arrazoiengatik, pertsona horrek ezin izango du euskaraz hitz egin, baina hizkuntza horretan prestakuntza duen beste pertsona batek artatu ahal izango du beti, hala nahi badu. Sentitzen dugu irudi txarra eraman izana, eta espero dugu hurrengo batean etortzen bada esperientzia atseginagoa izatea.

Herritarraren erantzuna: erantzungailua martxan jartzen denean, bezeroak hiru hizkuntzaren arteko bat aukera dezake harreman automatiko soilerako (gaztelania, katalanera, euskara), baina hautatu den hizkuntza horretan burututako hainbat tekla-sakatzeren ondoren, Hispalis-Puzela-ko hiztun hispano errealak azaldu zitzaizkidan niri, ez euskaldunik. Hau da, erantzungailu automatikoa euskaraz ere badute jarria, baina telefono-hartzaileekin... alirizira bide doa kontua! Beraz "gure komunikazioak euskaraz zein gaztelaniaz daude, bezeroak nahi duen bezala jaso ditzake" delako hori ez da egia. Edo ez, behintzat, nire kasu konkretuan, ezin izan baitzen euskalduna zen kolaboratzaile batekin konexioa lortu (arreta eskaini zidaten emakume biek dixit).

Dosierra: 890-2023**Nori:** ADIDAS ESPAÑA S.A.U.

Arrazoa: Barakaldoko Megapark merkatalgunean Adidasek duen dendan (outletgunean) sartu nintzen eta informazioa guztia, kartelak eta seinalizazioa ingelesez eta gaztelerez zeuden, ezer ere ez euskaraz.

Dosierra: 893-2023**Nori:** EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: atzo, azaroaren 24a, Donostiako Amarako Arcoko Eroski centerren, ordaintzerakoan, artatu ninduen gazteak NAN zenbakiak eskatu zidan eta nik euskaraz eman nion, orduan berak "en castellano, trátame con respeto" erantzun zidan. Bigarren mailako hiritarra nire herrian...

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Barkamena eskatu nahi dizugu gure dendan gertatutakoagatik. Erantzun hain desatsegin baten aurrean dendan arduradun bat dagoela adierazi behar dizugu, zuk zeuk artatu ahal izateko. Gure partetik kutxataldeari gogoratzki diogu bezeroei arreta emateko modu egokia. Sentitzen dugu sortu ahal dizkiogun eragozpenak.

Dosierra: 911-2023**Nori:** CARREFOUR - ERANDIO -

Arrazoa: Erandioko Carrefour hipermerkatuan norberak ordaintzeko kutxa erabili dut. Hizkuntzen artean euskara hautatzeko ikurrina ageri da eta EK letrak. Nondik atera dute EK kode hori? Ez luke EUS edo EU (edo BAQ) izan behar? Ordainketa amaitzean ingelesezko audioa azaldu zait. Nork edo zerk eta zelan egiten ditu euskarazko testuak? Hipermerkatuaren sarreran "ONGI ETORRIAK" errotilu handia dago. Euskaraz "bienvenido/a/e(s)" honela esaten da: "ongi etorri". Euskara gutxi eta edozelan... Euskaldun bezeroak arrotz.

Dosierra: 936-2023**Nori:** EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Eroski online zerbitzura deitzean, 944 050 514 telefonora, gaztelera hutsezko zerbitzua eman didate, nahiz eta ni euskaraz egiten saiatu. Erantzungailu

automatikoko ahotsa gazteleraz bakarrik dago grabatua eta langileak ere ez zekien euskaraz.

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: bezeroak mugikor batetik deitzen badu lokuzioa gaztelaniaz baino ez da, ezin dugulako jakin nondik deitzen duen, eta lokuzioa luzeegia izango litzatekeelako hizkuntza bat baino gehiagotan bada. Aldiz, zenbaki finko batetik deitzen badu, lokuzioa beste hizkuntza batean izateko aukera dago. Jasotako arretari dagokionez, adierazi nahi genuke lan egiten duen jendeak euskaraz jakin dezan saiatzen garela, baina baliteke hala ez izatea eta bezeroak deitu zuen unean (ez daukagu bezeroaren daturik eta ezin dugu jakin nork hartu zuen deia) euskaraz zekien pertsona libre ez egotea. Kasu horietan, harremanetarako datuak uzteko aukera ematen zaio bezeroari eta euskara duen operadore bat libratzen denean, deitu egiten da. Baina, esan dugun bezala, bezeroaren daturik ez dugunez, ezin dugu egiaztatu aukera hori eskaini zitzaien ala ez.

Dosierra: 955-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoiak: Berriozarko "Iruña merkataritza zentroan" Eroskik kartel hau jarri du, Haurrentzako ekimena izanik larritasun berezia hartzen du gaztelania hutsean ezartzeak. Eroski taldea, non daude bezeroon hizkuntza eskubideak? Iruñean ere euskaraz bizi gara eta bezero bezala aitortza eskatzen dugu.

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Kasu honetan, bezeroak argazkia atera duen kartelari gaztelania hutsez idatzita badago ere, adierazi nahi genuke establezimendu osoan kartel gehiago zeudela euskaraz, jarduera beraren berri emateko, baina uste dugu bezeroa ez dela konturatu. Hurrengoan kartelak bi hizkuntzetan elkarrekin egon daitezen saiatuko gara.

OSASUN ZERBITZUAK (5)

Dosierra: 399-2023

Nori: GAES - Amplifon Ibérica, S.A.U. -

Arrazoa: GAESek Bilboko Ertzila kalean zabaldu duen zentrorra joan nintzen pasa den ostegunean. Bertan zerbitzua euskaraz jaso nezakeen galdetu eta ezetz esan zidaten, ez daukatela profesional euskaldunik. Zentro asko dituzte Euskal Autonomioa Erkidegoan eta euskara bertako hizkuntza eta ofiziala izanik arreta euskaraz jasotzeko aukera eskaini beharko lukete.

Dosierra: 564-2023

Nori: VITHAS SANIDAD SLU -Gasteiz-

Arrazoa: Gasteizko Vithas zentro medikoan dagoen kartelak horrela dio euskaraz: "hartu zure tiketa eta joan itxaropen gelara". Berehala zuzendu beharko lukete, euskal hiztunekiko begirune eskasa eta enpresaren irudi eskasa kaltetzen dituelako.

Dosierra: 617-2023

Nori: GURUTZE GORRIA - Bizkaia

Arrazoa: Bermeon Gurutze Gorriak gaztelania hutsean jarri ditu ikastaroei buruzko kartelak.

Dosierra: 751-2023

Nori: IMQ VIRGEN BLANCA KLINICA

Arrazoa: IMQren Virgen Blanca klinikan atzo eman zidaten txostenaren goiburua: "LARRIALDISKO TXOSTENA, INFORME DE URGENCIAS"

Dosierra: 967-2023

Nori: GURUTZE GORRIA - EAE -

Arrazoa: "Hori ez da maitasuna. Eso no es amor" deituriko bakarrizketan egon nintzen abenduaren 19an Aldabe Gizarte Etxean. Ostean ikusleoi banaturiko materialean antzemandako akats larri barkaezina: "Maite naiz"

Erantzunak:

Idazkari Autonomikoa: Lehenik eta behin, barkamena askatu nahi diogu "maite naiz" goiburu edo sloganaren erabilera gramatikal okerrari buruzko erreklamazioa aurkeztu duen pertsonari. "Maite naiz" logoa erabili dugu, lagunarteko hizkeraren kutsua eman nahirik. Ulertzen dugu erreklamazioa eta jabetzen gara ez dela forma gramatikal egokia, baina goiburu horren bidez gure asmo bakarra zera zen, proiektuaren aurrean jendearen erreakzioa indartzea. Adierazi dugun bezala, onartzen dugu ez dela forma gramatikal egokia, eta Arabako Gurutze Gorriak lankide duen itzulpen-enpresari galdetu ondoren, beste goiburu hau erabiltzea proposatzen dugu: "maite dut neure burua".

PROFESIONALAK ETA ZERBITZUAK (23)

Dosierra: 91-2023

Nori: IDDEAS FUNDACIÓN

Arrazoa: Inkesta bat bidali didate posta elektronikora. Ez dago euskaraz. https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSdGK6_T97uBLIQ4Mgf7ZyuaygfYrppLt0pBY2Ra2FgVJzH9LQ/viewform

Erantzunak:

Iddeas Fundación: Jasotako kexaren inguruan argibide bat bidali nahiko nuke: Iddeas Fundazioan, Antsoaingo Udalarekin batera, udalerriko irisgarritasun unibertsalaren eta herritarren behar nagusien mapa egiteko, inkesta bat garatu dugu. Inkesta hori, erdaraz gain, euskaraz ere egin dugu. Baina egia da, euskaraz egindako inkesta ez dugula behar den bezala bidali eta erdarazko bertsioa zabaldu da. Barkamena eskatzen dugu kudeaketagatik. Oraingoan, jakinarazi nahi dizuegu, nahi izanez gero, inkesta euskaraz ere eskuragarri izango dela.

Euskara teknikaria: Galdetegi hori ez da udalak zabaldutako dokumentua, Ezkaba ikastetxeko Alaitxo Guraso Elkarateak baizik. Edozein kasutan, akats baten ondorioa izan zen inkesta horren zabalkundea, izan ere, Guraso Elkarateak ezarrita dauka komunikazioa ele bietan egiteko irizpidea. Eskertuko genuke herritarrari Alaitxo Guraso Elkarateak emandako azalpen hau helaraztea

Dosierra: 98-2023

Nori: CILVETI JOYERIA -URBIL-

Arrazoa: Urbil merkatalguneko Cilveti dendako erosketa-agiria gaztelania hutsean eman didate

Dosierra: 99-2023

Nori: VIGUAM ASCENSORES

Arrazoa: Gure etxean igogailuaren mantenuaz arduratzen den enpresa aldatu da. Orain VIGUAM izeneko enpresa arduratzen ari da eta euskarri guztiak gaztelera hutsez daude.

Dosierra: 119-2023

Nori: ACCOR SL (Ibis hotel Irun)

Arrazoa: Irungo Ibis hotelak (Letxunborro hiribidea 77; 20305 Irun) bere afixa guztiak gaztelaniaz edo gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez ditu, ez, ordea, euskaraz. Bertako langileek euskarazko arreta eskaintzen badute ere (gainera, langileena izaten da zailena), idatziz ere euskarazko informazioa eskaini beharko lukete.

Dosierra: 179-2023

Nori: VINTED UAB

Arrazoa: Vinted aplikazioa ezin dugu euskaraz erabili. Horrek dakar enpresaren abisu eta mezu oro erdaraz jasotzea.

Dosierra: 183-2023

Nori: ACCOR SA (Ibis hotel Ziburu)

Arrazoa: Ziburuko Ibis hotelean egon ginen eta langile bakar batek ere ez zekien euskaraz. Gainera, hoteleko hizkuntza-paisaia oso-osorik frantsesez edo frantsesez eta ingelesez zegoen. Horrez gain, logelako telebista pizterakoan hizkuntza aukeratzeko eskatzen zuen, baina frantsesa, ingelesa eta gaztelania baizik ezin genuen aukeratu, eta, larriagoa dena, telebistako kateen artean ez zegoen euskarazkorik (ez ETB1, ez Kanaldude).

Dosierra: 190-2023

Nori: INMOBILIARIA ANDRES

Arrazoa: Bermeoko Inmbiliaria Andres-en web gunean ez dago euskara erabiltzeko aukerarik. www.inmobiliariaandres.com

Dosierra: 191-2023

Nori: INMOBILIARIA LUR BERMEO

Arrazoa: Lur Bermeo inmbiliariaren web gunean ez dago euskaraz erabiltzerik: www.inmobiliarialurbermeo.es

Dosierra: 259-2023

Nori: IDASFEST (CASFID SERVICIOS TECNOLÓGICOS, S.L.U)

Arrazoa: BECen antolatutako ZEID jaialdian pultseren diru sorroa kargatzeko makinek ez zuten euskaraz erabiltzeko aukerarik

Dosierra: 342-2023

Nori: PDF24 -Benjamin Bohlmann, Chief Executive Officer-

Arrazoa: Zuek sortu eta garatutako PDF24 programaren erabiltzailea naiz, eta penaz hartu dut hori euskaraz ezin erabiltzea. Euskaldunok, beste hizkuntzetako hitzunen bezalaxe, gure hizkuntzan erabili nahi ditugu edozein programa. Horregatik, honen bidez eskatzen dizuet zuen programa euskaraz ere erabiltzeko aukera eman diezaguzuen.

Dosierra: 343-2023

Nori: EUSKOAUTO DONOSTI -CONCESIONARIO TOYOTA-

Arrazoa: Donostiako Belartzako poligonoan Toyota auto markak ireki duen kontzesionario berrian karteldegi guztia erdara hutsean dago.

Dosierra: 362-2023

Nori: LAVIJAN RENT SL

Arrazoa: Lavijan Rent inbiliararen bidez alokatutako etxe batean bizi naiz Bilbon. Etxe berean ukraniarrek ere bizi dira eta hainbat hizkuntzetara itzultzen duen Googleren mugikorretarako aplikazioa erabiltzen dute inbiliaria honekin harremana egiteko. Nik inbiliarikoei hartu-emana euskaraz egin nahi dudala jakinarazi diet eta, aplikazioak horretarako aukera ematen badu ere, Espainian gaudela eta gaztelania badakidala erantzunez, ez didate euskaraz aritzeko aukerarik ematen. Atzerritarra aintzat hartu eta bertakoa baztertu egiten dute. Horren aurrean eskatzen dut Googleren aplikazio horren bidez inbiliararen ordezkariekin euskaraz aritzeko aukera bermatzea

Dosierra: 381-2023

Nori: ORONA CORPORACIÓN - Euskara Planaren arduraduna-

Arrazoa: Bilboko Erriberako merkatuko Oronaren igogailuetako ahots mezuak gaztelaniaz baino ez dira zabaltzen.

Erantzunak: Euskara Planaren arduraduna: Bertan jasotako erreklamazioa aztertu ondoren, adierazi nahi dizuegu arazo tekniko baten ondorioz gertatu zela egoera hori eta konponbidea eman zitzaiola. Eraikin publikoetan gure igogailuetako ahots-sistemaren konfigurazioa bi hizkuntzatan egiten dugu; kasu honetan ere hala zegoen, sistemaren akats baten ondorioz gaztelaniaz bakarrik hitz egiten hasi zen arte. Arazoa detektatu orduko, mantentze-lanetako gure teknikariak beharrezko egokitzapenak egin eta hasierako konfigurazioa abiarazi zuen igogailu horretan, eta eraikineko gainontzeko igogailuak ere berrikusi ziren guztietan mezuak ele bietan zeudela baieztatzeko. Beraz, esan beharra daukagu momentu jakin batean gertatutako arazoa izan zela eta konponduta dagoela.

Dosierra: 440-2023

Nori: ZAINTZEN S.A.

Arrazoa: Lantokiko -lurretako Orobiogoitia institutuko batxiler eraikinean-Zaintzen enpresako garbitzaile birekin izandako hizketa trukea paperezko ohar txo bidez izan da, batek euskara ulertzen du. Oharra utzi nien "ez zarratu 1. solairuko komunetako leihoak, mesedez. Eskerrik asko". Honakoa izan zen beraien erantzuna: "si nos tienes que decir algo que sea bien dicho y en castellano".

Dosierra: 468-2023

Nori: EUSKOAUTO DONOSTI -CONCESIONARIO TOYOTA-

Arrazoa: Donostiako Belartzan ireki berri den Toyotaren kontzesionarioan eta tailerrean izan naiz. Ez dago ezer euskaraz. Dena gazteleraz eta, tarteka, ingelesez.

Dosierra: 475-2023

Nori: ZARDOYA OTIS

Arrazoa: OTIS igogailuen enpresak pegatina hau jarri du gure Arabako igogailuan, beraz, Euskal Herri osoan jartzen dituen pegatinak gaizki daudela suposatzen dut. Bezero bezala zuzentzea eskatu nahiko nieke.

Dosierra: 494-2023

Nori: MOYUA HOMES

Arrazoa: Ordiziako kaleetan zehar kartel hauek jarri dituzte, zehazki hau Urdaneta Kalea 3 eraikineko lokaleko kanpoko paretan dago. Euskara erabat traketsa

darabilte, interneteko itzultzaile automatikoren bat erabili dutela ematen du baina mezua zuzena den ziurtatu gabe. Mesedez euskal hiztunek aitortza izan dezagun, mezu ulergarriak behar ditugu. Zuzenketak egin ditzan eskatu nahiko nioke "Moyua Homes" enpresari.

Dosierra: 512-2023

Nori: RECORD GO ALQUILER VACACIONAL SA

Arrazoa: Astikenen, Derion, bezeroak kudeatzeko pantailak ez dauka euskaraz erabiltzeko aukerarik, beste hainbat hizkuntzetan erabiltzea posible den bitartean.

Dosierra: 515-2023

Nori: IKERLAN s, Coop

Arrazoa: uztailaren 3an 19:09tan 94 405 03 58 telefonotik deitu zidaten, Ikerlan enpresatik inkesta bat egin nahi zidatela esanez. Euskaraz egin nahiko nukeela adierazi nien baina gaztelaniaz egin beharko nukeela erantzun zidaten. Ikerlan bezalako MCC-ko kooperatiba bat ez da gai inkestak euskaraz egiteko?

Dosierra: 658-2023

Nori: TAMAYO PAPELERIA

Arrazoa: Donostiako Tamayo paperdendan, errotulazio finkoa gaztelania hutsean dute.

Erantzunak: Tamayo Papeleria: Egia da bai, gure rotulazio finkoa soilik gaztelaniaz dagoela. Gure plana hori aldatzea da eta inbertsioa egiteko aurrekontua dugunean, hala egingo dugu. Baina garai zailak ari gara bizitzan eta oraindik ezin dugu inbertsio hori aurrera eramanez. Hala ere, honez gain, enpresa euskalduna gara, euskara maite duena eta gure filosofiaren barne dago hau zaintzea. Gure komunikazio guztiak elebidunak izaten dira eta karteleria ere zaintzen saiatzen gara. Beraz, kontuan hartuko dugu erreklamazio hau eta posible dugunean dagozkion aldaketak egingo ditugu.

Dosierra: 721-2023

Nori: GARBIALDI S.A.

Arrazoa: Deiak EAJ-ren Alderdi Egunaren gainean egindako gehigarrian Garbaldi enpresak orrialde beteko iragarkia argitaratu da. Estimatzekoa da

euskarari/euskaldunoi lekutxo egitea. Leloa euskaraz ipini gura izan dute-eta. Baina zer demontre da "Beste zerbitzu dimenzio"?! Ez da lehendabiziko aldia ikusten dudala. Egunkarian ere lotsarik barik argitaratzen dute horrela, besterik gabe? Euskaldunoi errespeturik ez?

Erantzunak:

Garbaldi: Egia, barkamena eskatu erreklamazio jarri duen irakurleari eta bigarrena barkamena "euskarari". Inprentako akats bat da, saiatuko gara zuzentzen lehen bait lehen.

Dosierra: 801-2023

Nori: LUDOTEKA ZORIONAK

Arrazoa: Eibarko Zorionak ludotekako ekintza zehatz baterako publizitatea jaso dut whatsapp bidez (Party +picnic terrorífico Halloween), eta osotasunean gaztelera dago. kuriositatez webgunean sartu naiz eta hau ere gaztelera hutsean dago, eta gainera, zer eta "Mejor empresa comercial de Guipuzkoa 2022" zigilua dauka.

Dosierra: 812-2023

Nori: MC MUTUAL -DONOSTIA-

Arrazoa: MC MUTUAL da estatuko lehen mutua, bada Donostiako telefono arreta ez dute euskaraz egiten, hobe gaztelaniaz esaten dizute. Ez dakit hobe norentzat.

Erantzunak:

Kalitate Korporatiboaren Saila: hizkuntza solaskideari egokitzen beti saiatzen bagara ere, batzuetan, hizkuntza behar adina ezagutzen ez duten langileak ditugu eta, kasu horietan, arreta gaztelaniaz ematen da. Sentitzen dugu erabiltzaileak izandako esperientzia, baina, arreta egokia emateko eta itxaronaldia ahalik eta gehien murrizteko, ezinezkoa izan zen euskaraz erantzutea. Era berean, adierazi nahi dugu MC MUTUAL mutualitatean pertsona euskaldunek beren hizkuntza erabiltzeko aukera errespetatzen dugula eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak defendatzen ditugula. Hori dela eta, sentitzen dugu gertatutako egoera, eta jakinarazten dizugu hobetzen saiatuko garela, emandako zerbitzuan kalitate plus hori emateko.

ENPLEGUA/EKONOMIA/LAN MUNDUA (1):

Dosierra: 248-2023

Nori: IKERTALDE GRUPO CONSULTOR S.A.

Arrazoa: EAEko Lehen Hezkuntzako zentroetan Ebaluazio Diagnostiko bat egiten da. Aurten gure eskolako 4.mailakoei tokatu zaie egitea. Ikertalde izeneko enpresa azpikontratatu bat arduratzen da ikastetxeekin harremana egin eta informeak pasatzeaz. Gure eskolan aurrez aurreko elkarrizketa guztiak euskaraz izan ziren baina bidali ziguten dokumentua gazteleraz beteta bidali ziguten; dokumentua elebitan zegoen. Kexatuz emaila bidali nien eta ez dugu erantzunik jaso.

BESTERIK (7)

Dosierra: 10-2023

Nori: LOTERIA ORMAECHEA SL

Arrazoa: Bilboko Urkixo zumarkalean dagoen "Ormaechea" loteria administrazioan ia dana gaztelaniaz daukie eta euskaraz jartzen dabezan berba gitxi batzuk txarto dagoz: "goiez", "arratZaldez", "jokaren". Mesedez euskaraz bizi garan bezeroak be kontuan izatea eskatzen dot eta kartelak zuzendu dagiezala. Eskerrik asko.

Dosierra: 71-2023

Nori: LACOR MENAJE PROFESIONAL

Arrazoa: Lacor enpresak saltzen dituen kafeontzien informazioa ez dago euskaraz.

Dosierra: 208-2023

Nori: EUSKALTZAINDIA - EGOITZA NAGUSIA

Arrazoa: Euskaltzaindiak zabaldutako txioan "froga" berba, "proba" beharrean. Etsigarria da.

Dosierra: 233-2023

Nori: MESEDEETAKO AMA BIRJINAREN KOFRADIA

Arrazoa: Bilboko San Nikolas elizako fatxadan esekita daude banderola moduko bi, ia-ia berdinak, biak erdara hutsean. Erdaraz %200; euskaraz, ostera, huts-hutsa. Euskaldun herritarrondako iraingarria da. Ardura kofradia delakoarena ez ezik, udalarena, Jaurlearitza, eta direnak direlako administrazio publikoena ere badela deritzot. FUNDADA EN X / COFRADÍA DE NUESTRA SEÑORA DE LA MERCED / CO-N-/M-PASIÓN / SEMANA SANTA BILBAO FUNDADA EN X / COFRADÍA DE NUESTRA SEÑORA DE LA MERCED / / 19XX-20XX / X AÑOS DE PIEDAD / SEMANA SANTA BILBAO

Erantzunak:

Kultura Saileko Kultura zuzendariordea: Bilboko Udalak ere atsekabez hartzen du euskara ez erabili izanak banderatzu horietan, baina azpimarratu egin behar dugu udalak ez duela esku hartzen iragarritako jardueretan. Hala ere, Bilboko eliz agintariei ere heleraziko diegu kexa hau.

Dosierra: 360-2023

Nori: CONFERENCIA EPISCOPAL ESPAÑOLA

Arrazoa: Eliza Katolikoaren Espainiako Apezpikuen Batzar delakoak gaurko Correorekin batera 15 orrialdeko publizitatea zabaldu du, erdara hutsean, errenta-aitorpenean herritarrok Eliza Katolikoaren gaineko hautua egin dezagun bultzatzeko. Kanpainaren webgunea ere erdara hutsean dago. <https://www.portantos.es/>

Dosierra: 396-2023

Nori: CONFERENCIA EPISCOPAL ESPAÑOLA

Arrazoa: Eliza Katolikoak 32 orrialdeko liburuxka (LA IGLESIA CATÓLICA EN ESPAÑA. Mayo 2023) zabaldu du gaurko Correo egunkarian sartuta, koloreetan eta erdara hutsean.

Dosierra: 981-2023

Nori: BCBL - CENTRO VASCO DE INVESTIGACION EN COGNICION, CEREBRO Y LENGUAJE

Arrazoa: BCBL ikerketa zentrotik ikerketa batean parte hartzeko mezua bidali didate. Prest nago ikerketa frogetan parte hartzeko. Hori bai, frogetan euskara erabiltzeko aukera izatea gustatuko litzaidakeela adierazi diet. Hau da jaso dudana erantzuna: "zoritxarrez ez dago froga euskeraz egiteko aukerarik, partaide guztiek estimulu berdinak izan behar dituztelako eta Euskal Herritik kanpoko partaideek ere parte hartuko dutelako".

ZORIONTZEAK
ETA ESKER
ONAK



3

Zoriontzeak (39)

Dosierra: 2-2023

Nori: CALZADOS JUANITA

Arrazoia: Beti artatzen gaitu euskaraz eta horregatik zoriondu nahi dugu. Bestalde, hau baliatu nahi dugu eskatzeko tiketak euskaraz eman ditzala; dendako kartelak euskaraz jartzen ditu eta beste pauso txiki bat baino ez litzateke.

Dosierra: 79-2023

Nori: LA TAHONA -ANTSOAIN-

Arrazoia: Antsoingo La Tahanan egon nintzen ostiralean, urtarrilaren 27an eta euskaraz artatu ninduten.

Dosierra: 109-2023

Nori: GESINOR SERVICIO DE PREVENCIÓN

Arrazoia: Artikaberrin kokatuta dagoen Gesinor prebentzio zerbitzu enpresako medikuak euskaraz artatu gaitu, milesker euskal hiztunak kontuan hartzeagatik!

Dosierra: 117-2023

Nori: LOPENEA LANDA OSTALA

Arrazoia: Leitzako Lopenea ostatuan egon gara eta euskaraz artatu gaituzte.

Dosierra: 120-2023

Nori: EZIOLAZA AMALUR SL

Arrazoia: Gasteizko EzioLaza enpresak sistematikoki erabiltzen du euskara bere publizitatean. Web orria ere euskaraz daukate. Eskertzekoa, benetan, euskaldunok aintzat hartzea.

Dosierra: 170-2023

Nori: NATULIM S.L.

Arrazoia: "Natulim" (<https://natulim.com>) enpresaren iragarkia euskaraz ikusi dut sare sozialetan. Zoriondu nahiko nituzke ingurunea zaintzeko produktuak eskaintzen dituzten heinean tokiko hizkuntza zaintzea ere ekologia eta jasangarritasunaren parte dela ulertzeagatik. Askok poztu nau bezero bezala

kontuan hartzen gaituztela ikusteak. Bestalde, hobekuntza bezala, webgunea euskaraz zein gutxitutako beste hizkuntza batzuetan kontsultatzeko aukera ezartzea eskatu nahiko nieke. Eskerrik asko Natulim!

Erantzunak:

Natulim: Eskerrik asko Natulimen talde osoaren partetik, oso pozik gaude! Jasotako iradokizunak hartuko ditugu kontuan. Beste edozertarako badakizu non gauden.

Dosierra: 261-2023

Nori: EL BULLDOG DE PETUS S.L.U.

Arrazoia: Antsoingo Bulldog-eko kudeatzaile eta langileak zoriondu nahi ditut gu euskaraz artatu izanagatik, erreserba egitekin telefonoz kontua ordaindu arte. Segi horrela!

Dosierra: 276-2023

Nori: AGOUR GASNATEGIA

Arrazoia: Nabarmenezkoa Agour gasnategiak Bordelen duen establezimenduan euskarari eskaintzen dion lekua. Zoriondu egin nahi ditut horregatik.

Dosierra: 292-2023

Nori: PALACIO ARANA CAFÉ BAR

Arrazoia: Bilboko Palacio Arana tabernan egon naiz eta euskaraz artatu naute. Eitb musika irratia zeukaten jarrita eta, irrati kate honek euskarazko musika asko ez badu jartzen ere, ni egon nintzen tartean abesti batzuk euskaraz entzun ahal izan ziren. Nire eskerrak eta zorionak eman nahi dizkiot eta euskarari gero eta leku gehiago egiten segitzeko eskatu.

Dosierra: 296-2023

Nori: MAKSU ESPAÑA, SL -Telpark-

Arrazoia: Telpark app-a euskaraz erabilgarri jartzeagatik zoriondu nahiko nuke Telpark. Weborriarekin gauza bera egitera animatzen zaituztet.

Dosierra: 350-2023

Nori: MEMORIAN SPORT GARAGARDOTEGIA

Arrazoa: Antsoingo Memorian Sport garagardotegian egon gara eta euskaraz artatu gaitu zerbitzariak.

Dosierra: 429-2023

Nori: ELVIRA SL

Arrazoa: Gasteizko Florida kaleko Elvira harategian lan egiten duten langileetatik, gehienak euskaldunak dira, eta, beraz, euskaraz eman dezakete zerbitzua inongo arazorik gabe. Ez hori bakarrik. Askotan, haien artean ere euskaraz aritzen dira bezeroen aurrean; hau da, zerbitzu-hizkuntza ez ezik lan-hizkuntza ere euskara dutela esan liteke, eta horrek sekulako garrantzia du hizkuntza prestigiatzeari begira. Txalo bat haientzat!

Dosierra: 430-2023

Nori: LA BANKADA taberna

Arrazoa: Iruñeko La Bankada tabernan egon naiz gaur eta euskaraz artatu naute.

Dosierra: 447-2023

Nori: EL DOLMEN DE FAULO

Arrazoa: "El Dolmen de Faulo" Biguezalگو obratzailean euskaraz artatu gaituzte.

Dosierra: 461-2023

Nori: MOMOTXO TABERNA

Arrazoa: estimatzekoa da oso tabernariak bezeroekin, guztiekin, euskara lehenesteko egiten duen hautua. Badakiena erabiltzen du. Eta edozein bezerori harrera euskaraz egiten dio. Gonbita egiten digu herritarroi euskaraz egin dezagun lasai. Ez da inondik inora ere ohikoa halako jarrera duten langileak topatzea Durangoko establezimenduetan. Euskaldunok erabat arrotz izan ohi gara. Bera, jatorriz kanpotarra izanik, gainera, lekzioa ematen dio orori, eredugarria da. Ez da une bateko jarrera tabernariarena, beti dihardu-eta hala. Urtean oso aldi bakanetan izaten naiz taberna honetan, eta aldiro pozgarria zait, bertan ez bainaiz arrotz sentitzen. Bejondeiola! Bejondeiola!

Dosierra: 469-2023

Nori: GARIBOLO JATETXEA

Arrazoa: Bilboko Garibolo jatetxea zoriondu nahi dut menua euskaraz (ere) eskaintzen duelako. Ez da ohikoa eta txalotzekoa da euskaldunokiko erakusten duen begirunea. Euskarazko bertsioan, halere, zuzenketa egin beharrean daude ("tallarines"= "lantegiak"?).

Dosierra: 485-2023

Nori: ITURRIOZENA JATETXEA

Arrazoa: Aiako Iturriozena jatetxean egon gara eta euskaraz artatu gaituzte.

Dosierra: 488-2023

Nori: ALBENIZ Taberna

Arrazoa: Gaur goizean Iruñeko Albeniz tabernan egon naiz eta euskaraz artatu naute.

Dosierra: 525-2023

Nori: BILTEGIA JATETXEA

Arrazoa: uztailaren 16an Latasako Biltegia jatetxean egon gara eta euskaraz artatu gaituzte.

Dosierra: 556-2023

Nori: MAHALA PRODUKTUAK

Arrazoa: "Mahala" etxearen "Gure Merkatua" denda zoriondu nahiko nuke, euskarari ematen dioten trataerarengatik: seinale eta karteletatik hasi eta arretaraino. Pozik horrelako denda bat Donostian jarri dutelako. Zorionak eta eskerririk asko!

Dosierra: 563-2023

Nori: ITURENGO HERRIKO OSTATUA

Arrazoa: Ituengo Herriko Ostatuan egon gara eta euskaraz artatu gaituzte.

Dosierra: 577-2023

Nori: GELATERIA BOULEVARD (EUKENI & AINARA S.L.)

Arrazoa: plazer bat izozki mundiala jateaz gain jijab dun zerbitzariarekin, "nire lehen hitza euskaraz" jasorik, euskaraz aritu garelako ta ez bera bakarrik, zin egingo nuke langile guztiak beltzaranak ere bai tartean denak zirela euskal hiztunak (itxuragatik balitz) ZORIONAK BOULEVARD!!!

Dosierra: 579-2023

Nori: LARRAMENDI IZOZKITEGIA

Arrazoa: euskaraz artatu gaituzte Iruñeko Larramendi izozkitegian, Gartzia Ximenez kalekoan.

Dosierra: 585-2023

Nori: ADONA - Nafarroako odol emaileen elkarte

Arrazoa: Adona, Nafarroako Odol Emaileen Elkarte zoriondu nahi dut, hizkuntza-eskubideak errespetatzeko egiten duen ahaleginagatik. Euskara erabiltzen dute webgunean eta hizkuntza-paisaian, eta euskaraz bete daitezke izen-emate orriak, inkestak, eta beste. Honetaz gain, zenbait langilek euskaraz jakin ez arren, oso jarrera ona sentitu dut euskaraz haiengana zuzendu naizenean. Zoritxarrez, ez gaude beti horretara ohituta. Milesker Adona!

Dosierra: 588-2023

Nori: OGIA PAN TABERNA -Izaba-

Arrazoa: Izabako Ogia Pan tabernan euskaraz artatu naute.

Dosierra: 591-2023

Nori: GORRINDO TABERNA

Arrazoa: Izabako Gorrindo tabernan euskaraz artatu naute.

Dosierra: 668-2023

Nori: CHOCOLATES PEÑAQUEL

Arrazoa: Errioxa Eguna Donostian - Boulevardean mahaiak jarri zituzten Errioxako jaki eta edariekin. Horien artean Peñaquel txokolatea. Txokolateak erakarri

ninduen, ahabiekin zela jartzen zuen, baina gero bitan pentsatu eta "Errioxakoak direla!" esan nion nire buruari. Saltzaileari zergatik jarri zuten etiketatua euskaraz ere galdetuta, bere iritzia eman zidan, gertukoak direla eta haien ondarea ere badela. Ba eskerrona eta poz txikia agertu nahi diet.

Dosierra: 731-2023

Nori: EUSKADITALIA -Zinecittà jaialddia-

Arrazoa: "Zinecittà" Bilboko italiar zinemaren jaialdia zoriondu nahi dut pelikulak jatorrizko bertsioan eta publiko guztiarentzako euskaraz azpitolatuta ematearrean. Sare sozialetan ere euskararen presentzia bermatzea ondo legoke.

Dosierra: 740-2023

Nori: UNIDE -UNION DETALLISTAS ESPAÑÓLES, S. COOP-

Arrazoa: Iruñean Arrotxapea auzoan dagoen Unide supermerkatu berria zoriondu nahi dut errotulazioa euskaraz ezarri dutelako.

Dosierra: 767-2023

Nori: BODEGON SARRIA

Arrazoa: Iruñeko Estafeta kaleko Bodegón Sarría tabernara zerbait hartzera sartu gara. Zerbitzariak euskaldunak ez baziren ere, ahalegina egin dute eta "eskerrik asko" esanda "ez horregatik" ikasi berria ere esan digute. Ea hurrengo bisitan karteletan-eta beste pauso bat ematen duten!

Dosierra: 791-2023

Nori: SOLAGUREN KAFE JATETXEA

Arrazoa: Getxoko Solaguren jatetxea zoriondu nahi dut. Kafe bat hartzera joan eta tabernan egon nintzen denbora osoan euskarazko abestiak baino ez jartzeagatik.

Dosierra: 794-2023

Nori: NATULIM S.L.

Arrazoa: Honako mezu honen bitartez Natulim (Bartzelona) zoriontzeko eskatzen dizuet. Izan ere, euren argitalpen sustatu bat (publizitatea) agertu zait Facebooken geure hizkuntzan.

Erantzunak: Natulim: Eskerrik asko Natulimen talde osoaren partez, oso pozik gaude! Gainera bigarren aldiz zoriondu digute eta guretzako oso garrantzizua da.

Dosierra: 800-2023

Nori: EZIOLAZA AMALUR SL

Arrazoa: Honako mezu honen bitartez Eziolaza etxea zoriontzeko eskatzen dizuet. Izan ere, euskara hutsezko iragarkiak argitaratzen dituzte Correon. Webgunea ere euskaraz dute: <https://www.eziolaza.com>

Dosierra: 807-2023

Nori: KONTALARIAK ELKARTEA

Arrazoa: Brif Braf Bruf zoriondu nahi dut bere hizkuntza politika egokitzeagatik, eta ondorioz, bere egitarauaren aurkezpenean euskaldunon hizkuntza eskubideak errespetatzeagatik.

Dosierra: 810-2023

Nori: LOW COST EUSKADI, S.L. -DONOSTIA-

Arrazoa: Seinaleak eta jarraibideak elebitan daude, eta ahozko jarraibideak euskaraz eman dizkit lehenetsita, eskatu gabe. Gainera, langilea guztiz euskalduna zen, eta lagungarria. Atsegina gertatzen da gure hizkuntzan entzutea, gehiagotan itzuliko naiz. Zorionak!!

Dosierra: 820-2023

Nori: LOW COST EUSKADI, S.L. -DONOSTIA-

Arrazoa: Ez dakit zehazki egun horretan izan zen, baina zinez zoriondu behar ditut, webgunea elebitan izateaz gain, zerbitzua euskaraz jaso nuen lehenetsita, punpek ahots gora eta era normalizatuan euskaraz ematen baitituzte instrukzioak. Gainera, bertako langilea euskaraz normaltasunez mintzo zen. Zorionak Euskadi Low Costi hizkuntza normalizazioaren aldeko ahaleginagatik, eta eutsi, berriz itzuliko naiz!!

Dosierra: 875-2023

Nori: SICOS -Sistemas Integrales de Calidad, Organización y Sistemas SLU

Arrazoa: Donostiako SICOS denda zoriondu nahi nuke, joaten naizen bakoitzean euskaraz artatu izan nautelako. Eskertzekoa da urte gutxian hainbeste hazi den denda batek (Getaria kaleko denda txikitik Boulevardeko espazio erraldoira) zerbitzua gure hizkuntzan emateko duen konpromisoa. Saltzailearen jatorria edozein dela ere, euskaraz hartu izan naute beti. Azkena aste hobetan bertan.

Dosierra: 884-2023

Nori: NATULIM S.L.

Arrazoa: Natulim produktu garbigarrien enpresa zoriondu nahi dut, sare sozialetako iragarkiak euskaraz egiteagatik.

Dosierra: 928-2023

Nori: CASA ARAMENDIA SLL

Arrazoa: gaur Donostiako Mirakruz kaleko Aramendia gozotegian egon gara eta euskaraz artatu gaituzte.

Esker ona (10)

Dosierra: 377-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - OSASUNBIDEA - BIDEKO AMA OSPITALEA - Harrera eta herritarrendako arreta zerbitzua-

Arrazoa: gure lehendabiziko haurraren erditzera joan ginen, erditze-planean arreta euskaraz jasotzeko eskaera egin aurkeztu genuelarik. Gure eskaeragatik edo ausaz, euskaraz artatuak izan ginen, haurraren erditzea zaindu zuten bi emaginengandik. Nahiz eta guk eskubidetzat dugun, gertaera hori eskertu eta zoriontzeko modukoa iruditzen zaigu gure bizitzetako une garrantzitsuenetako horretan arreta euskaraz jaso izana.

Dosierra: 394-2023

Nori: GALDAKAKO UDALA

Arrazoa: Galdakaoko Udalak udalekuak antolatzen ditu uztailean. Udalekuetan apuntatzeko hizkuntza eskatu ziguten eta udaletik jaso ditugun korreo elektronikoak eta telefono deiak euskaraz jaso ditugu. Gurasoen taldean komentatu dugu eta erdaraz aukeratutakoak erdaraz jaso dute, euskaraz ere bai, eta euskaraz aukeratutakoak euskaraz. Udalaren beste departamentuak ere badaukate zer ikasi, adibidez, Udaltzaingoak.

Dosierra: 660-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RENFE - ALDIRIETAKO DONOSTIAKO GERENTZIA

Arrazoa: 612-2023 intzidentzian azaldutako kartela zuzendu du RENFEk. Nire esker ona adierazi nahi diot RENFERi.

Dosierra: 870-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - SAN ELOY OSPITALEA

Arrazoa: Jakina da Osakidetzaren zentroetan, oro har, euskaraz artatuak izateko izaten ditugun arazoak. Nik neuk horren harira egin ditut kexa batzuk. Agian txikira jokatzeko da dugun eskubidea errespetatzeagatik eskerrak ematea. Baina eragin positiboa izan lezakeelakoan, hara: San Eloy Ospitaleko Digestiboko langile guztiek euskaraz artatu ninduten azaroaren 16ko arratsaldean, ondo eta errespetuz, kasuren batean esfortzuz saiatuta, gainera! eta azken honek are gehiago animatu

nau mezua bidaltzera. Hori horrela, txanda horretako ekipo guztiari nire esker ona helaraztea eskatzen dut honen bidez.

Dosierra: 885-2023

Nori: ESPAINIAKO ESTATUA - RENFE Irun - BEZEROEN ARRETA

Arrazoa: Hernaniko Renfe tren geltokian harreran dagoen langilea zoriondu nahiko nuke euskarazko zerbitzua horren ondo emateagatik

IRADOKIZUNAK

SEKTORE
PUBLIKOA



4

Iradozikunak (10)

Dosierra: 40-2023

Nori: GAMIZ-FIKAKO UDALA

Arrazoa: Erroldatuta nagoen udalak (Gamiz-Fika) euskara ikasteko diru-aguntzak ematen ditu. Hasiera batean, C2rako ez zen aurreikusten laguntzarik, baina borrokatu ostean, azkenean, lortu zen maila horretarako ere laguntzak ematea, zeren eta C2 maila, maila gorena bada ere, euskara ikastea da. Nik 20/21 ikasturterako dirulaguntza jaso nuen, ordenantzaren arabera kurtsoa gaintitzeagatik (kurtsoa, ez azterketa) dirulaguntza jaso zitekeelako. Kurtsoa gaintitzeak esan nahi du asistentziaren %altua bete dela. Kurtsoa gaintituta ere, azterketa gaintitu ez nuen, 21/22ikasturtean kurtsoa berriro egin behar izan nuen, hasieratik. Berriro eskatu dut laguntza, baina oraingo honetan ukatu egin didate. Arrazoa: aurreko ikasturtea gaintitu nuen (20/21) ez dagokidala laguntza gehiago, maila bakoitzeko laguntza bakarra dela. "Eficiencia presupuestaria" gatik ezin dutela laguntzak urtero eman. Ordenantzaren ez du inon ezartzen (eta honen irakurketatik ez da interpretatu ere egiten) mailaka ematen direnik. Araudiak "ikasturte" eta "kurtso" hitzak erabiltzen ditu; ikasturtea edo kurtsoa gaintitu behar dela urteko dirulaguntza izateko, eta ez du ezartzen, inolaz ere, behin kurtso bat gaintituta (nahiz eta azterketa ez) hurrengoetan eskatu ezin denik. Euskara eta euskara ikasteko eskubidearen urraketa zuzena dela iruditzen zait; lehenengoan gaintitzen ez bada azterketa, ez dago hurrengo urteetan euskara ikasten jarraitzeko laguntzarik. Non geratzen da laguntzaren funtsa?

Dosierra: 95-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA - AZPIEGITURA, BALIABIDE ETA TEKNOLOGIA ZUZENDARITZA

Arrazoa: Eusko Jaurlaritzaren Moodlgunean EAEko irakasleak curriculum digitalaren inguruan egiten ari garen ikastaroak Ikasgunea plataformara bideratzen gaituenean, sartzean beti gaztelaniazko bertsioaren bidez zabaltzen da. Erakunde publikoa eta hezkuntza eragileei zuzendua dela kontuan hartuz, hasierakoa euskaraz izan beharko lukeela iruditzen zait.

Erantzunak:

Hezkuntza saila: Egiatzatu da hiritar horrek azaldu duena eta, bere iradokizuna kontutan hartuz, aldatu dugu adierazitako estekaren hizkuntza. Egindako iradokizuna eskertuz agurtzen naiz.

Dosierra: 161-2023

Nori: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - AZKUE FUNDAZIOA

Arrazoa: Azkue fundazioaren TikTok gaineko jardunaldiaz leitzen ibili naiz euren webgune honetan: <http://www.azkuefundazioarenegunkaria.eus/nola-sortu-euskarazko-edukiak-tiktok-sarean-jardunaldia-euskararen-etxean/> Ekitaldia non izango den adierazteko hau idatzi dute: NON: Euskararen Etxean. Agoitz Plaza 1, 48015 Bilbao "Bilbao"?! Hiriaren izena euskaraz Bilbo da. "Agoitz Plaza"?! Plazak ez du Agoitz Plaza izena, Agoitz baizik. Hau da, "plaza" berba minuskulaz idazten da. Maiuskulaz idatzi dute, gaztelaniazko moldeari erreparatzen diotelako, konturatu barik gainera, "plaza" hitza gaztelaniaz maiuskuletan dagoenean dela esaldi hasiera delako. Sartu naiz gero www.azkuefundazioa.eus webgunean eta hor ere "Bilbao" darabilte fundazioaren helbidea aipatzeko. Zeinen tristea. Argitzearren, badaezpada: ez derizot txarto "Bilbao" erabiltzeari. Areago, "Bilbao" erabili behar da; gaztelaniaz, baina. Heltzen ari gara-eta itzelezko absuerdoetara. Euskarazko testuetan "Bilbao" eta egunkari hispano batean jo eta su gaztelaniazko testuetan "Bilbo". Eta bitartean hiriaren izen ofizial bakarra dago, gaztelaniazkoa. Euskarazkoa ez da ofiziala. Zertan ari zarete Azkue fundaziokoak eta kidekoak?

Dosierra: 264-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA - EKINBIDE segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoa

Arrazoa: Telefonoaren lapurreta salatzeko asmoz joan nintzen Durangoko ertzain etxera eta harreran zegoenak gaztelaraz artatu ninduen. Arreta euskaraz jasotzea eskatu nuen eta itxaron egin behar nuela esan zidaten. 20 minutura etorri zen beste agente bat. Honek lapurtu edo ebatsi egin zidaten galdetu zidan, baita borrokarik egon zen ere. Nik ezetz ez zela borrokarik egon erantzun ondoren, esan zidan igual salaketarik ezin izango nuela egin, telefono konpainiak esan behar zuela inprimakian zer jarri. Hori jakindakoa itzultzeko eta salaketa jartzera esan zidan. Harrituta, telefono konpainiara jo nuen gaia azaltzera. Bertan harriduraz hartu zuten egin zidaten eskaera. Azkenean telefono txartelaren kopiarengatik 6 euro

ordaindu eta ez nintzen ertzain etxera bueltatu (salaketa izanez gero txartelaren kopia doan da). Nire susmoa da euskaraz aritzea eskatu nuelako egin zidatela halako eskaera. Benetan, zigortuta sentitu nintzen.

Dosierra: 354-2023

Nori: EUSKO JAURLARITZA - OSAKIDETZA - ZUZENDARITZA NAGUSIA -

Arrazoa: Osakidetzak osasun-zentroetan eta ospitaleetan txanda hartzeko jarri dituen gailuetan goiko aldean hizkuntza aldatzeko aukera dago. Hala ere, euskaldun gehienok gaztelaniaz ere dakigunez, askok ez dute hizkuntza aldatzen eta gaztelaniaz erabiltzen dituzte, eta horrek euskara are gutxiago erabiltzea dakar. Horiek horrela, aukera ona litzateke Osakidetzak gailu horiek konfiguratu ditzan beti euskaraz egon daitezen, hartara, gaztelaniaz erabili nahi duenak propio aldatu behar izatea.

Dosierra: 366-2023

Nori: BILBOKO UDALA - BILBAO KIROLAK

Arrazoa: Bi aldiz, martxoaren 9an eta atzo, gertatu zait Bilbao Kirolak webguneko euskarazko bertsioan "entzuten zaitugu" bazkidearen gunean sartzeko arazoak izatea. Batean pasahitzarekin egon zen arazoa eta, bestean, abonatu zenbakia sartzeko orduan eman zidan akatsa. Akatsen bat baden egiaztatzea eskatzen dut.

Erantzunak:

Bilbao Kirolak: Sentitzen dugu eragindako eragozpenak eta honako hau jakinarazi nahi dizugu: arazo puntual bat dela, noizbait gertatzen dena, eta berrikusi egingo dugu zuzentzeko. Barkamena eskatzen dizugu gure gogoz kontra sortu zaizkizun eragozpenengatik. Eskerrik asko gure zerbitzua hobetzen laguntzeagatik.

Dosierra: 449-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - EUSKARABIDEA

Arrazoa: Liburutegian Euskarabidearen emaila jaso dugu eta harriduraz irakurri "Irakurketa errazteko, edukiaren gaztelaniazko laburpen motz bat dago testu bakoitzaren amaieran". Zertan laguntzen gaitu bada gaztelaniazko laburpen motz horrek? Gaztelaniazko testu motz hori gabe euskarazko testu luzea ez dugu ongi ulertuko? Euskarak ez al du balio, bertze edozein hizkuntzak bezala, normaltasunez

komunikatzeko? Edo gaztelaniaren makulua behar du ulertua izan dadin? Agian egokiago litzake jartzea "Oraindik euskaraz ez dakitenendako, gaztelaniara itzulitako edukiaren laburpen motz bat dago testu bakoitzaren amaieran". Haiendako baita laburpena eta itzulpenaren lan gehigarri hori egin behar izatea, eta ez, inondik inora, euskaldunoi "irakurketa errazteko". Euskarabidetik ez badira mezu egokiak zabaltzen, gizarteak errealitatea modu okerrean interpretatuko du. Eta hizkuntza zapalketa nabaria den garaiotan ezin dugu horrelakorik onartu. Are gutxiago, sustatu. Eta oraindik ere gutxiago, Nafarroako erakunde publiko baten izenean.

Erantzunak:

Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua: Egia da laburpen hori euskara ikasten ari direnentzako jarri genuela (izan ere, ikasleek aldizkaria material didaktiko bezala erabiltzen dutela badakigu), eta egia da ere ez dugula modu horretan aipatzen, hortaz zuen proposamena kontuan hartuko dugu hurrengo bidalketetarako.

Dosierra: 478-2023

Nori: NAFARROAKO GOBERNUA - NUP - NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA - IRAKASKUNTZAKO ERREKTOREORDETZA

Arrazoa: NUP-en Gizarte Laneko ikaslea naiz. Aurten, ekainean, GBL a entregatu dugu. Gure titulazioa ez dago euskaraz burutzeko aukerarik. Egia da, lau urte hauetan zehar zenbait ikasgai euskaraz ikasi ditugula baina titulazio osoa euskaraz ezin da ikasi. GBL a euskeraz egiteko aukera izan dugu, baina entregatzerako orduan, gaztelanian C1 bat dugula ziurtatu behar genuela esan ziguten. Horretarako, gure lanaren %20 bat gaztelerez egon behar zen, sarrera eta ondorioak. Gradu osoa gaztelerez burutu ondoren beharrezkoa da C1 maila dugula egiaztatzea? Iruñean bizita beharrezkoa da gaztelaniazko C1 bat ziurtatzea? GBLa ingelesez egiten dutenek gaztelaniazko C1a ziurtatu behar dute?

Dosierra: 684-2023

Nori: EIBARKO UDALA

Arrazoa: Eibarko San Andres egoitzako lan poltsako gehienek elebidunak gara, eta langile beterano dexentek ez daukate inolako euskarazko titulurik, hortikan aurrera sortzen dan egoera dela eta lan poltsako langileok ez dugu nahi izaten 1º solairuan

lanik egitea. Euskara bertoko hizkuntza da, gure hizkuntza eta eskubidea. Egoera nahiko orokorra da, euskararen kontrako jarrera eta merituen oposaketetan euskara errequisito moduan ez agertzeko nahia Eibarko San Andes egoitzan. Elebidunen aurkako jarrera batez ere egoitzaren lehenengo solairuan.

Dosierra: 891-2023

Nori: GASTEIZKO UDALA - TRAFIKO ZERBITZUA -

Arrazoa: Gasteizko TAO makinak ekialdeko hizkera erabiltzen dute euskarazko bertsioan. Uste dut horrek ez duela laguntzen erabiltzaileek makinak horiek euskaraz erabiltzeko.

IRADOKIZUNAK

SEKTORE
PRIBATUA



5

Iradokizunak (8)

Dosierra: 112-2023

Nori: URRETXINDORRA IKASTOLA

Arrazoa: Urretxindorra ikastolako gurasoek jasotzen dituzten komunikazio guztiak elebidunak izaten dira, guztiei ziurtatzen zaie, hizkuntza batean zein bestean, informazioa jasotzea. Alabaina, uste dut zentroak urrats bat eman beharko lukeela eta komunikazioak soilik euskaraz, gaztelaniaren presentzia sistematikoa gabe, nahi duten gurasoei bermatu egin beharko liekela aukera hori. Iruditzen zait, gainera, euskaldunak izan arren, gaztelaniarekin hobeto moldatzen diren kideei, soilik euskaraz jasotzeak lagundu egingo liekela, pixkanaka-pixkanaka, euskaraz ulertzeko eta irakurtzeko gaitasuna garatzen. Izan ere, badakigu, bi hizkuntzetan bidalita zuzenean gaztelaniara jotzen dela erosotasunagatik. Horrela bada, hala nahi eta eskatzen duten gurasoei, komunikazioa soilik euskaraz bidaltzeko aukerak aztertzeko eskatzen diot ikastetxeari (komunikazioa soilik euskaraz nahi duten datu-basea sortu, komunikazioak lehenengo euskaraz eta ondotik gaztelaniaz bidali...)

Erantzunak:

Urretxindorra ikastola: Ikastolak, etengabeko hobekuntza-prozesuan eta bere hizkuntza-proiektura egokituta, jakinarazi nahi dizue WHATSAPP zerbitzuaren bidez egiten dugun komunikazioak aldaketa batzuk izango dituela. Bi informazio-kanal erabiliko ditugu, bata EUSKARAZ eta bestea ELEBIDUNA (bietan informazioa berdina izango da). Hau egiteko, zuei hobekien egokitzen zaizuen komunikazio-kanalarekin bat egitea besterik ez dizuegu eskatzen. EUSKARAZ: <https://chat.whatsapp.com/lzdqITjmhW59o7hs5iu02e> Mugikorrean hautatutako estekan klik egin besterik ez duzue egin behar kanal hori whatsappera gehitzeko.

Dosierra: 157-2023

Nori: URBYCOLAN

Arrazoa: Argazkian ikusten bezalaxe, Irungo karrikaren izena, Andre Mari Mirarigilearen karrika, gaztelera hutsez idatzita dago.

Dosierra: 174-2023

Nori: BERRIA

Arrazoa: Pasa den astean Berriak egindako zozketa batean egokitutako gonbidapena jaso nuen atzo berriak sinatutako gutun-azal baten barruan, txartela gaztelania hutsean dago. Eurekin kolaboratzen duten entitate eta establezimenduekin horrelakoak ez errepikatzeko neurriak hartu beharko lituzke Berriak.

Dosierra: 177-2023

Nori: BERRIA

Arrazoa: Eskaria Berria egunkariarendako. Izan ere, behin ere ez dut ikusten Abadiñoko auzo urbano eta populatuaren izena ondo erabilirik. Berrian ez ezik, herriko udalaren aldetik ere ez, eskualdeko astekarian ere ez, herrian sortu berri den elkarte euskaltzale baten aldetik ere ez. Inon ere ez. Aski da Googlen bilaketak egitea, egiaztatzeko. Gaurko Bizkaiko Hitzan irakurri dudana "Independenteek ezin hautagaitzak osatu"* artikulua bultzatu nau hau idaztera, "Traña-Matienako" ageri baita idatzita. <https://bizkaia.hitza.eus/2023/03/03/independenteek-ezin-hautagaitzak-osatu/> Bada, 'Matiena'-k edo 'Traña-Matiena'-k ez du "a" itsatsirik. 'Matiena'-ren "a" hori artikulua da: - a. Eta, hortaz, "Bizkaiako" eta "Bizkaiatik" idatzi-esango ez genukeen moduan, ezin liteke "Matienako", "Matienatik", "Matienara" eta halakoak erabili, "Matienetik", "Matienara" eta "Matieneko" baizik. Berriari zuzentzen diot eskaera, uste osoa baitut euskaldunon egunkaria euskara, euskaldunok eta kazetaritza zaintzen antolakunde benetan eredugarria dela. Hortaz, esperantzarekin idazten dut, zerbaitetarako balioko duelakoan.

Dosierra: 470-2023

Nori: SUPER AMARA (GRUPO UVESCO)

Arrazoa: SUPER AMARA supermerkatuetan, oro har, badute euskararekiko jarrera positiboa. Hala ere, badira zenbait arlo hobekuntza nabaria behar dutenak: - Txanda hartzeko makinak eta auto-ordainketa egiteko makinak: hauek gaztelera daude lehen momentutik eta euskaraz erabili ahal izateko hainbat pauso eman behar izaten dira, bezeroak hori egiteko eragozpen direnak. Behin euskara

hautatuta, sistemak ondo funtzionatzen du, baina bukatutakoan, automatikoki gaztelerara pasatzen da. Txanda hartzeko makinan, ikurriñari eman eta segundu batzuetara gaztelerara pasatzen da. - Emailak: super amara txartela dugun bezeroei emailak gazteleraz iristen dira eta, euskaraz nahi izanez gero, esteka bati eman eta web orrian euskaraz irakurri ditzakegu. Nire ustez, hori euskararekiko diskriminazio negatiboa da. - Online erosketa: euskaraz egin daitekeen arren, akatsak nonnahi aurki daitezke. Euskara seriotasunez hartzea eskatuko nuke. Mila esker.

Dosierra: 472-2023

Nori: IMQ - IGUALATORIO MEDICO QUIRURGICO

Arrazoa: IMQren web orria, orokorrean, euskaraz ere badago. Baina zenbait atal ez da hala eta beste batzuetan gaztelerako bertsiora egiten du jauzi. Atzo "Bilatu zure medikua" atala ez zebilen euskaraz, baina orain badirudi baietz. Bertan, gazteleraz azaltzen dira gauza batzuk baina gutxi-gora-behera badabil. Nire ustez, hobekuntza haundia beharko luke web orriak euskaraz modu eraginkor batean erabili ahal izateko.

Dosierra: 876-2023

Nori: EROSKI -BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Zarauzko maxi eroskin harategi eta arrandegian txandak hartzeko makinetan gaztelera da lehentasun hizkuntza. Euskara aukeratu arren, behin txanda hartu eta gero berriz gaztelerara itzultzen dira. Zerbait egin daiteke?

Erantzunak:

Bezeroaren arreta saila: Proiektuaren departamentuari bideratu diogu eta aldaketa hori egiteko agindua zabaldu dute. Oraindik ez digute data zehatzik eman, baina ahal den azkarren izatea espero dugu. Sentitzen dugu sortutako eragozpenak.

Dosierra: 889-2023

Nori: LABORAL KUTXA - BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Arrazoa: Laboral Kutxan hizkuntza-irizpideak aldatu ote dituzte -eta okerrerako-? Ondoko e-maila jaso dut, elebiduna da eta lehentasuna erdarari ematen zaio. Uste nuen euskara hautatua dugun bezeroei euskara hutsezko komunikazioak bidali behar zitzaizkigula banketxearen beraren irizpideei jarraituz. Nik neuk alergiarik ez diet mezu elebidunek baina ez ote gabiltza atzeraka? Euskarari eusteko -garenari

eusteko- asmo sendoa dugunok ez gaude prest toleratzeko atzerapausorik. Kutxazainetan ere orain aldiro hautatu beharrean gaude bezerook. Orduan zertako ematen zaigu aukera hizkuntza hautatzeko bezero moduan?

KONTSULTAK



6

Kontsultak (9)

Dosierra: 55-2023

Nori: None

Arrazoa: Estabilizazio prozesuarekin batera, udal idazkaritzetarako "turno libreko" deialdia argitaratu zen abenduaren 30eko NAO n (262 zk.). Bertan, inglesa, frantsesa eta alemana baloratzen dira merituen artean baina ez, aldiz, euskara. Gora jotzeko helegite bat zirriborratua dut, irabazteko bokazioz egindakoa (euskarak ezezeko gehiagorik ez jasotzeko), baina ez dakit oso ongi nola kudeatu. Ez dakit zenbait idazkari euskaldunek sinatu beharko genukeen (6 geundeke, gehienek ez dute saltsatan sartzeko gogorik), zonalde mistoko zenbait alkatek, idazkari eta alkatek, eragile edota erakunderen batek... Honen gainean hitz egin nahi nuke, zuen iritzia ezagutu (bai helegitearen zein kudeaketaren gainekoa), laguntzen ahal diguzuen jakin (denboraz oso estu baikabiltza; bi aste genituzke kudeaketarako).

Dosierra: 279-2023

Nori: None

Arrazoa: EAEko Espainiako Gobernuaren ordezkarietan eta ordezkariordetzetan sortzen diren testuei buruzko zalantza daukat. Ez dakit hau leku egokia den galdetzeko; zuen eskumeneko kontua ez bada, eskertuko nizueke zalantza nork argi diezadakedan adieraztea. Kontua da, adibidez, Espainiako Gobernuak Bizkaian duen ordezkariordetzatik herritar edo beste administrazio batzuei zabaltzen zaizkien zenbait dokumentu elebidunak izan arren, gaztelaniazko testua gehiago nabarmentzen dela, beti euskarazkoaren aurretik jarritz, eta belztuta gainera, eta euskarazkoa belztu gabe eta letra etzanarekin. Hizkuntza Gutxituen Europako Gutunak 10.2 artikulua ezartzen du "sustapena" arduradun lokalei dagokiela (hala ulertzen dut nik behintzat). Beraz, ordezkariordetzak Estatuko Administrazioa diren heinean, ez dutela beharrian hori ulertzen dut. Ordea, EAEko autonomia estatutuan bertoko berezko hizkuntza euskara dela xedatzen denez, jakin nahiko nuke exijigarria den Estatuko Administrazioaren testu elebidunetan euskara lehenestea, eta testuak lehenengo euskaraz eta ondoren gaztelaniaz idatzita agertzea.

Dosierra: 301-2023

Nori: None

Arrazoa: Herritarrak badu eskubidea notaritzako zerbitzua bi hizkuntza ofizialeko batean jasotzeko? Nola uztartzen da hori notarioak ulertzen ez duen hizkuntza batean dagoen agiri bati fede eman behararekin?

Dosierra: 330-2023

Nori: None

Arrazoa: Oraingoan beste kontsulta bat egin nahiko nizueke. EAEko eraikin publikoetan edo finantzazio publikoak jasotzen dutenek (Guggenheim museoa, adibidez), segurtasun seinaleak elebidun jartzeko derrigortasuna dute? Hala bada, ba al dago legerik hori babesten duenik?

Dosierra: 332-2023

Nori: None

Arrazoa: Entitate publikoetan euskara hutsezko dokumentuak onartzen ez badizkigute edo beste erakunderen batek gaztelania hutsezko zerbait helarazten badigu, intzidentzia horietarako hainbat gutun eredu ditugu udalen eskura. Azkenaldian UEMAtik udal batzuetan kexu dira Europar Batasuneko dirulaguntzen tramitazioa dela eta, euskara hutsezko dokumentuen onarpenik ematen ez dutelako eta agiriak itzuli egin beharra ekartzen duelako horrek. Egin genezakeen bakarra gutun eredu bat sortu eta halakoetan helaraztea litzateke (atxikita sortu duguna), baina ez dakigu nora helarazi beharko ote litzatekeen eskaera hori. Kontua da dirulaguntzak epe batzuen baitan egin behar direla, eta horrek estutzen gaituela... itzulpena egin beharko da eta horrekin batera eskaera bidali??? Nola egin prozedura hori?

Dosierra: 337-2023

Nori: None

Arrazoa: Enpresa pribatu batean egiten dut lan eta lantokian egin beharreko lan batzuk euskaraz egin izan ditut orain arte, beste batzuk gaztelaniaz eta beste batzuk ingelesez. Orain enpresak komunikazio bat bidali dit esanez, prozedura aldaketa bat medio. ezin izango ditudala euskaraz egiten nintuenak hizkuntza

horretan burutu. Badago, orain arte euskaraz egiten nituenak euskaraz egiten jarraitzeko lege babesik?

Dosierra: 550-2023

Nori: None

Arrazoa: Ispasterren etxebizitza turistiko bat daukat, eta Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak (VT Vivienda Turistica - DECRETO 101/2018, de 3 de julio, de viviendas y habitaciones de viviendas particulares para uso turístico. Art.16) letrak gaztelaniaz jartzen dituen kartel bat behartzen nau. Nire hizkuntza-eskubideak ez direla errespetatzen uste dut. Horregatik, nire izapideetan orientatzeko aholkua eskatzen dizuet.

Dosierra: 674-2023

Nori: None

Arrazoa: maiz deitzen didate telefonoz telekomunikazio operadora ezberdinek euren eskaintzak eta publizitatea helarazteko. Ia guzti-guztietan gaztelaniaz zuzentzen dira eta euskaraz komunikatu nahi dudala eskatzean, Espainiatik deitzen dutela eta espainola badakidala erantzuten didate askotan. Badugu eskaintza eta komunikazio horiek euskaraz jasotzeko eskubiderik?

Dosierra: 759-2023

Nori: None

Arrazoa: arazo bat aurkitu dugu Osakidetzak astebukaera honetan egin duen erizaintzako EPE-an. (EPE 20+21+22+Egonkortze prozesua) Parte hartzaileak osakidetzako web orrira sartzean (sarbide pribatua, pasahitz eta guzti) EPEaren oinarriak aurki ditzazke (pantailazo bat bidaltzen dizuegu nola agertzen den ikusteko). Bertan PDF-an klik eginez gero OSAKIDETZAK parte hartzaileei zabalduriko OINARRI ESPEZIFIKOAK agertzen dira (atxikita). Honen azpian klik eginez gero (Ikusi pdf dokumentua), Aldizkari ofizialeko iragarkiko estekara egiten du salto: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2022/12/2205630a.pdf> Bi dokumentu hauek edukiz berdinak dira, esaldi bakar bat kenduta: Osakidetzako oinarrietan Euskarazko C1 agiria izatearren 27 puntu eskuratzen ditu parte hartzaileak (III. eranskina, 3. puntua 9. orrialdea). Aldizkari ofizialean esaldi hau ez zen argitaratu, eta beraz, C1

agiria duenak, B2 duenak bezala 18 puntu lituzke. (ANEXO III, 3. puntua 9/17 orrian). Aldaketa "txiki" honek, euskara gaitasun agiria (EGA) edo baliokidea duten langile asko plaza gabe utzi ditzake. Oraintxe konturatu gara honetaz, bi dokumentu "ezberdin" ari ginela begiratzen, batzuk uste zutelako 27 puntu zituztela, eta besteek 18. Noski, badakigu aldizkari ofizialean argitaratua dela kontuan hartzen dena, baina bitxia da, edo harriztekoa, kasualitatez esaldi hori "ahaztea"... Zer egin dezakegu?

Euskararen telefonoa

Euskararen telefonoa hizkuntza eskubideen urraketei konponbidea emateko tresna da. Behatokiaren doaneko zerbitzua da eta Euskal Herriko edozein herritarren eta elkarteren eskura dago.

948 14 61 72
euskararentelefonoa.eus



HIZKUNTZ
ESKUBIDEEN
BEHATOKIA



behatokia.eus